

KARLOS SANTAMARIAREN  
PENTSAMENDUA

*Joxe Azurmendi*

Eskubide guztiak jabedunak dira. Galarazia dago liburu honen kopia egitea, osoa zein zatikakoa, argitaraldi honen jabeen aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe.

*Egilea:* Joxe Azurmendi

*Edizio arduraduna:* Jakin

*Argitalpen partekatua:* Jakin eta UPV/EHU

*Maketa:* Lorea Uribe-Etxebarria

*Azala:* Markos Ansorena

*Inprimaketa:* Leitzaran Grafikak S.L.

© Joxe Azurmendi

© Argitaraldi honena: Jakinberri S.L.

© Argitaraldi honena: UPV/EHU

I.S.B.N.: 978-84-95234-46-9

L.G.: SS 750-2013

# AURKIBIDEA

Argitaratzailearen aurkezpena: JAKIN .....	7
Argitaratzailearen aurkezpena: UPV/EHU .....	11
<b>IDEIA</b> .....	<b>13</b>
KRISIAN .....	17
ESKOLA ETA MAISU ARTEAN .....	30
Positibismoa, materialismoa .....	30
Estrukturalismoa .....	35
Existenzialismoa .....	36
Marx .....	39
Blondel .....	41
Maritain .....	42
Mounier .....	45
Simone Weil .....	48
Gandhi, Martin Luther King .....	50
Ortega y Gasset .....	50
Unamuno .....	53
Zubiri .....	56
Zaragueta .....	60
ESPIRITUA TEKNIKAREN AZPIAN .....	61
Problemak: ikerketa biologikoan, adibidez .....	63
Problemak: ikerketa nuklearrean .....	64
Zientismoaren krisia .....	67
Aro berrirako hezkuntza .....	69
Gainditze poetiko-mistikoa .....	74
KOMUNISMOA ETA KAPITALISMOA .....	77
Kapitalismoaren salaketa .....	78
Komunismoaren onargaiztasuna .....	80
Ezker berria edo zinismo zaharra .....	83
Euskadi autogestionatu bat .....	88

MARXISMOA ETA KRISTAUTASUNA .....	90
Lanaren kontzeptuaz .....	91
Hirugarren Munduaren arazoa .....	95
Komunistak eta bakea .....	99
Marxisten eta kristauen elkarriketa .....	100
Toribio Etxebarria jauna .....	104
HISTORIA .....	107
Determinismoaren auzia .....	109
Iraultzaren kontua .....	112
Gaizkia historian .....	113
Ongiaren efikazia .....	116
Aurrerabidea zer? .....	118
TRANSZENDENTZIA .....	120
Poesia .....	121
Fedea .....	124
Isiltasuna, hutsa .....	128
Frai Joan Gurutzekoa .....	129
Kristautasuna eta humanismoa (natura eta grazia) .....	132
Heriotzaren garaipena .....	136
Kristoren misterioa .....	139
PERTSONA .....	143
Indibidua, pertsona .....	144
Pertsona saldoan urtuta .....	145
Marxismoa eta pertsonalismoa .....	149
Pertsonaren eskubideak .....	152
Pertsonaren eginbideak .....	157
Fedea pertsonan .....	159
Barne isileko lagun hori .....	161
<b>EKINTZA .....</b>	<b>165</b>
<b>ELIZA .....</b>	<b>169</b>
Aldagarria eta aldagaitza Elizan .....	169
Pio XII.a Aita Santua .....	174
Ekumenismoa .....	175
Laikoen misioa Elizan .....	176
Politika eta Eliza .....	180
Eliza espainola .....	183
<b>ESTATUA .....</b>	<b>186</b>
Ongi komun orokorra .....	187
Estatu irenkorra .....	189
Estatu konfesionala .....	191
Estatua eta nazioa .....	193
Federalismoa .....	195
Alderdi sukurtsalistak .....	198

Erregionalismoa .....	200
Nazioz gaindiko erakundeak .....	205
EUSKADI .....	210
Euskal arazoa .....	211
Nazionalismoaren jatorriaz .....	213
Nazionalitateen printzipioaz .....	215
Nazio-arazo, klase-arazo .....	217
Nazioaren kontzeptu pertsonalista .....	220
Aberriaren misterioa .....	222
EUSKARA .....	229
Euskara eta euskotasuna .....	229
Hizkuntza subjektu bat da: nortasun bat .....	231
Euskal Herria eta euskara .....	233
Unibertsalaz eta partikularraz .....	233
Euskalgintza, herrigintza (etorkinen arazoa) .....	236
Euskara, kultura-hizkuntza modernoa .....	238
Euskara irakaskuntzan .....	241
Euskara prentsan: egunkariaren premia .....	243
HEZKUNTZA .....	245
Eskola publiko autonomoa .....	245
Eskola laizista? .....	247
Hezkuntza unibertsitarioaz .....	249
Langile ikasleak, ikasle langileak .....	253
Hezkuntza unibertsalista bakerakoa .....	254
DEMOKRAZIA .....	256
«Herriari, herriaren onez, herriak» .....	257
Alderdiak, alderdikrazia .....	260
Politika berdin morala .....	263
Demokrazia kristaua? .....	266
Demokrazia kriminala .....	269
Demokrazia orwellianoa .....	273
Kritika .....	274
Elefantea eta arkakusoa .....	276
TOLERANTZIA .....	278
Intolerantzia katolikoa .....	282
Intolerantzia espainola .....	284
Estatu katolikoaren arazoa .....	287
Egia norberak bilatzeko eskubidea .....	290
BAKEA (I) .....	293
Ezbaian Gandhiren inguruan .....	296
Ekologismoa .....	303
Bake-hezkuntza .....	305
Kristaua eta bakea .....	307
Pax Christi .....	311

BAKEA (II)	316
Bortxa eta gerra tipoak	316
Gerraz	319
Gerra iraultzaileaz	321
ETA	324
Gerra nuklearrak	325
Indar morala	327
Nazio Batuen Erakundea	329
<b>IDAZLEA BERE FILOSOFIAREKIN</b>	<b>333</b>
ETA EMAIGUZU GURE EGUNEROKO FILOSOFIA	337
FILOSOFIA KRITIKO BAT	340
FILOSOFIA TXIKI BAT	343
FILOSOFIA OBJEKTIBOA	345
DENBORAREN GOGOETAN	347
NOLA LORTU MEZULARI PERTSONALA IZATEA?	350
<b>OHARRAK</b>	<b>352</b>

## ARGITARATZAILEAREN AURKEZPENA: JAKIN

Karlos Santamariaren obra eta pentsamendua bildu, sistematizatu eta aztertu zuen Jakin Taldeak 1991tik 1994ra bitartean. Karlos Santamariari Gipuzkoako Foru Aldundiak urrezko domina eman eta Gipuzkoako seme kutun izendatzearen kariaz, Imanol Murua Ahalduen Nagusiak eman zion Jakini haren obra bildu eta aztertzeko enkargua. Horren emaitza Koldo Mitxelena Kulturuneak kudeatzen duen [www.karlossantamaria.com](http://www.karlossantamaria.com) webgunean aurki daiteke.

Orain, Euskal Herriko Unibertsitateak euskal unibertsitatearen aitzindari izan zenaren lana biziberritu nahi du. Duela 21 urte, 1992an, Honoris Causa izendatu zuen Karlos Santamaria; gero, 2011n, Gipuzkoako Campuseko iker-gune enblematiko bati Carlos Santamariaren izena jarri zion. Eta orain bere obra birbaloratu eta ezagutzera eman nahi du, modu txalogarrian.

Eta hori egiteko Jakin Taldera jo du UPV/EHUK.

90eko hamarkadan egin genuenaren bertsio berria prestatu dugu, nola edizio digitalerako hala edizio analogikorako. Material osoari orraztapena eman diogu (azterlanetako euskararen gaurkotzea UPV/EHUKo Euskara Zerbitzuko zenbait kidek burutu dute), aurkibide tematikoa eta izen aurkibidea landu ditugu, eta batez ere materiala osatu eta gehitu dugu: 53 artikulua gehiago, 22 elkarrizketa berri eta material grafiko ugari ditu oraingo argitalpen berrituak.

Bi edizio mota antolatuta ditugu: edizio digitala eta edizio analogikoa.

Digitalean Karlos Santamariaren obra oso-osorik dago, erdaraz zein euskaraz idatzi zuen guztia, egunkaritan zein aldizkaritan edo liburutan eman zuena. Guztira 1.000 idazlan: zehazki, 966 lan periodistiko eta saio, 30 elkarrizketa eta 4 liburu. Berak idatzi zuenaz gainera, hainbat adituk Karlos Santamariaren obra eta pentsamenduari buruz idatzitakoak ere biltzen dira.

Paper edizioan, aldiz, euskaraz argitaratu zuena biltzen da lehen liburukian, eta beste bietan berari buruzko azterketak. Edizio analogiko hori

beste bi materialekin osatzen da, Karlosen biografiarekin eta berari egindako elkarrizketekin.

Karlos Santamariak idatzi zituen mila idazlan horietatik gehien-gehienak, arestian aipatu dugun bezala, laburrak dira, egunkarietako lankidetzak, 800 inguru. Gainerakoak saioak, komunikazioak eta elkarlanean egindakoak dira. Lanik ugariena egunkarietan eman bazuen ere, Karlos Santamaria ez zen kazetaria, pentsalaria baizik. Nahiz eta ez zuen pentsamendu sistema bat osatu, bere pentsaera sistematikoa da, koherentea, ardatz nagusi batzuen jiran landua. Dosi txikitik emana eta mila modutara barreiatua dagoen pentsaera hori sistematizatu eta aztertzea ezinbestekoa iruditu zitzaigun. Egin diren azterketek hori bilatzen dute, lehen mailako hurbilketa gisa, geroko lan sakonagoen atari edo aurrelan izatea.

Bitan banatu dugu azterketari dagokion atala.

Joxe Azurmendik Karlos Santamariaren pentsamendua bere osoan arakatu du, bi atal nagusitan partiturik. «Ideia» izeneko lehen zatian, Santamariaren autokontzientzia intelektuala aztertzen du, alegia, berak non kokatzen duen bere burua, bere pentsamendua, garaiko autore eta joera ezberdinen artean, hots, pertsonalismoan.

Bigarren zatiak «ekintza» du izena. Baina ez dira Santamariaren ekintzak edo jardura sozio-politiko-kulturalak zerrendatzen, baizik eta ekintza horiei buruz eta horietan garatu dituen gogoetak. Azurmendik aurkezten duen Santamaria ez da pentsalari platonikoa, justu kontrakoa baizik: gogoetalarari bidelaguna, pedagogoa eta adiskidea, bere herriaren peregrinazioan herriarekin doana.

Ikuspegi orohartzaile eta oso hau osatze edo aberaste aldera, egoki ikusi da Santamariaren pentsamenduan eta obran agertzen diren gai zentral batzuk arta monografikoz tratatzea. Ondoko bost gaiok adituek jorratu dituzte: Xabier Eizagirre eta Andoni Ibarrek landu dute «Zientzia, Teknika eta Gizartea, Santamaria matematikariaren pentsamoldean»; Paulo Agirrebaltzategik arakatu du Santamariak bakeaz eta gerraz idatzi duena: «Bakea eta gerra. Etikaren eta teknikaren artean»; Xabier Apaolazak, bere aldetik, estatuaz, nazioaz eta politikaz Santamariak idatzi duena aztertu du: «Karlos Santamariaren pentsamendu politiko-soziala». Joan Mari Torrealdaik Santamariak euskarari, kulturari eta euskal kulturari buruz landu zuena azaldu du: «Karlos Santamaria eta (euskal) kultura». Santamariak gidaturiko Donostiako Solasaldien dokumentazioan murgildu da Joseba Intxausti, eta, «Nazioartetik Donostiara» izenburuz, ekimen arrakastatsu haiek aztertu ditu.




Gure irudiko, modu honetan, Joxe Azurmendiren ikuspegi orokorra eta osoa beste bost monografia horien bidez aberasten da, eta, aldi berean, ondoko belaunaldiei bide berean sakontzeko abiapuntua eskaintzen zaie.

Nori berea emateko orduan, gure esker ona jende askori agertu beharko genioke. Guztiak ezin dira aipatu, baina aipatu gabe ezin dira utzi Euskal Herriko Unibertsitatea, eta ibaian gora joanez, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Santamariaren familia edo Karlos bera.

Jakinkideontzat ohorea eta Karlosekiko zorra kitatzeko modu bat ere bada lan hau. Izan ere, gauza asko izan da Karlos guretzat: pentsalaria, irakaslea, zientzialaria, euskaltzalea, abertzalea, politikaria, eta oroz gainetik: lagun eta maisu, kide eta lider.

*Joan Mari Torrealdei*  
JAKINen kudeatzailea



## ARGITARATZAILEAREN AURKEZPENA: UPV/EHU

### *Gipuzkoako Campusaren esker ona Karlos Santamaria aitzindariari*

Euskal Herriko Unibertsitateak, eta bereziki Gipuzkoako Campusak, gogo onez onartzen du Karlos Santamariarekin duen zorraren handia; gainera, gure aitormen hori eta esker ona erakutsi eta zabaldu nahi dugu. 1992. urtean gure unibertsitateak Honoris Causa doktore izendatu zuen, eta, euskal unibertsitatearen aitzindari ohoretsu izaki, 2011. urtean, Gipuzkoako Campuseko ikergune nagusietako bati *Carlos Santamaria Zentroa* izena eman genion.

Jakin Taldeak, 1991-1994 urteetan, haren obra guztia bildu eta aztertu zuen eta, orain, urrats bat gehiago emateko, obra hori bera biziberritu nahi genuke, UPV/EHUren webgunearen bidez zabalduz, berritua eta osatua, aurkibide egokiekin hornitua; bestalde, Karlos Santamariaren euskarazko lanak eta pentsamenduaren bilketa- eta azterketa-lan hori paperezko edizio mugatu batean argitaratu dugu.

Cristina Uriarte Toledo errektoreorde ohiak bultzatu eta sustaturiko proiektu honekin, uste dugu Karlos Santamariaren lana eta pentsamendua birbaloratu eginen dela, jende gehiagorengana iritsiko dela, eta zirkuitu intelektualetan integratuko dela.

Honekin ez dugu zorra kitatzen, baina esker ona agertzen dugu irakasle aitzindariaren aurrean.

*Ana Arrieta Ayestaran anderea*  
UPV/EHUren Gipuzkoako Campuseko errektoreordea

## ***Pentsamendua eta ekimena***

Karlos Santamaria pentsamendua eta ekimena da.

Orain UPV/EHUren webgunean bildu eta, zati batean, paperean argitaratu diren haren idazlanetan ikusten denez, Karlos Santamariak hainbat gogoeta-gai erabili zuen: gizartea, politika, erlijioa, kultura, zientzia, herrigintza... Euskal Herrian gaur diharduen unibertsitate publiko nagusiko errektorea naizen heinean, unibertsitatea, Euskal Herria eta euskara trinomioaz hark eginiko gogoeta azpimarratu behar dut. Trinomio horretako hiru elementuak lotzea izan zen Karlos Santamariaren kezka nagusietako bat, eta gaur oraindik eztabaidagai ditugun hainbat arazori buruzko ideia interesgarriak aurkituko ditu irakurleak haren lanetan.

Pentsamenduarekin batera ekimena izan zuen Karlos Santamariak, bere intereseko arlo guztietan. Ez ditugu hemen banaka aletuko unibertsitatearen alorrean bultzatu zituen ekimenak; soilik lehenengoa aipatuko dugu, hogei-ta hiru urte zituela ekindakoa: Jose Oñaterekin batera, Donostiako *Centro de Estudios Científicos (CEC)* sortzea sustatu zuen, 1932an, zientzia eta zientzia aplikatua lotzeko asmoarekin, euskal unibertsitaterako bidean eta inguruko industriari laguntzeko gogoz; urte berean sortu, zuzendu eta garatu zuen ikasgune horri loturiko aldizkaria, matematikaren alorrekoa, batez ere ingeniariatzako ikasleentzat.

Eta zer da unibertsitatea, pentsamendua eta ekimena ez bada? Gure Euskal Herriko Unibertsitatea ez da Karlos Santamariak nahiko zukeen euskal unibertsitate ideala, baina uste dugu azken urteetan urrats handiak eman ditugula hartara hurreratzeko.

Proiektu honetan Jakin Taldea izan dugu bidaide eta are bide-erakusle. Karlos Santamariarentzat hori ere pozgarri izango zatekeen, euskal kulturarentzat 50eko urteetatik hona hain garrantzitsua izan den talde honek hartu baitzuen, eremu askotan, haren lekukoa. Euskal Herriko Unibertsitatearentzat ohorea da Jakin Taldearekin batera jardun ahal izatea Karlos Santamaria irakaslearen omenez.

*Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna*  
UPV/EHUko errektorea

IDEIA



Liburu hau bi partetan dago banatua, eta *Ideia* deritzon lehen atal honek Santamariaren autokontzientzia intelektuala —nolabait esan— biltzen du; non kokatu duen bere burua, bere pentsamendua, garaiko autore eta joera ezberdinen artean: pertsonalismoan, hain zuzen, honek bakarrik ahalbidetzen digulakoan inspirazioa, iragan zahar hautsi batetik mundu berri gizatiarrago bat sortzeko.

Orduan hemen asko baitziren, gehienak ez esateko, letrazale, artean, edo existentzialismoari edo marxismoari emanagoak (faxismoari atxikiak ez aipatzeko), Santamariak hain modan ez zegoen ikusmolde zail batekin behar izan du argudiatu bere postura zaila: kristaua —ez frankista!—, abertzalea, demokratikoa, bakezalea, eta beti pertsonaren lehentasun absolutuaren aldekoa, Estatuan bezala Elizan bertan. Ohargarria da, nolana ere, irabazle eta galtzaillean, abertzale eta sozialistetan, fededun eta antiklerikaletan, eta abarretan apurtuta eta amorratuki kontrajarririk zebilen Euskal Herri minduan, jende desberdina egon dela, oposizio hondagarri haiek gainditzea lortu duena pertsonari buruzko gogoetan sakonduz: Toribio Etxebarria eibartar sozialistak, Arizmendiarieta arrasatear kooperatibistak, eta hala Santamariak ere. Dena den, pertsonalismoa ez da euskal krisiari erantzuteko gogoeta, mundu guztiko eta Mendebaleko kultura guztiaren krisiari ihardespen globala baino.

Gogoan hartu behar da, Karlos Santamaria idatz-gogoetan hasi denean, gure gerra ostean, Mundu Gerraren garaian eta ondorengo Gerra Hotzaren aldirian, krisiak jota ageri dela alde orotatik mundua: ez bakarrik estatuak eta herriak mundu osoan armetan daudelako, baizik filosofiak eta ideologiak ere lerratuta eta elkarrekin zeharo aurrez aurre jarriak dabiltzalako, batak bestea suntsitu beharrean sutan, gehienez ideien atzean iskuluak oso bistan ikusten direla.

Mundu bat bukatuta dago, edo bukatutzat ematen da —Errenazimentuan optimismoz beterik argitu zen Modernia—, eta mundu berriak, ahaleginak eginda, ez du aurkitzen hasierarik.

Galerna apokaliptiko baten giroa nozitu da garai honetan, nahasiago ezina, «ismo» askoren gerra askorekin batera: liberalismoa, faxismoa, marxismoa, existentzialismoa, eta «guztion guztiei gerra»n, kristautasuna ere guztiekin gerran, gerra galdu duen Euskal Herrian bihurtura bihurriki bihurtikatu partikularrez, moral edo pertsonalki nahiz doktrinalki, truke zibil, politiko eta ekonomiko-soziala erlijio-gerra tankeran egiten denean, baina konfesio beraren barruan, galtzaileak ez baitira izaten armak soilik, batez ere kontzientziak baik. Halere, krisia, Euskal Herriaz gain, Europa osokoa izan da. Pentsamendu guztikoa. «Eskuineko iraultzak» nahi zuena kriminala zen marxismoarentzat; komunismoa kriminala demokratentzat, etab.; «Mendebaleko kultura» esaten zitzaion horretatik, bazirudien ez zela tesi bat bakarra tente geratzen, guztiek onartzeko eran. Krisia, egiazki zenbaterainokoa izan den orain alde batera utzita, zeharokotzat bizitu da eta arras nabarmen sentitu du mundu guztiak.

Santamariaren analisisian, krisi modernoa, itxuraz ideologien gatazka bezala zirimolatsu ageri dena, funtsean da teknika espirituari gaintitu zaiola, soil-soil: beraz, krisiaren azken erroa ez dago ideologien oposizioan eta borrokan, baizik teknologia berriak gizakiari eskatzen dizkion berrikuntzetan, bere barrura zein kanpora begira.

Pertsonak ez dauka bere burua berrikasi eta berrirabazi beste abiapuntu posiblerik, gaintitu duen mundu teknologiko honetan berriro nagusitzeko, libre izateko: pertsonagandik abiatzen dira bide guztiak historian. Orain, beraz, pertsonaren berregintzan dago mundu berriaren itxaropen bakarra. Horixe izan da Santamariaren filosofian egiteko behinena: pertsona gogoetatzea.



## Krisian

Santamariaren ekintzak eta idazkuntzak adiera zabalean «larriunetzat» har ditzakegun une nagusiak ezagutu ditu: hasieran, Gerra Zibil ostea eta diktadura ezartzea Euskal Herrian; berehalaxe, gero, Mundu Gerra eta faxismoaren porrota nazioartean, mundua erdibitzea bi sistema (ekonomiko, politiko, ideologiko) kontrajarritan; Gerra Hotza eta, su-galda antikomunistaren gainbeheran, «68ko Maiatzaren» izenean bildu ohi den udaberritzea, Mendebalean zein Ekialdean; Vatikanoko II. Kontzilioa, eta Eliza katolikoaren aldaketa mundu modernoarekiko, haren inguruan Euskal Herrian egon den mugidarekin batez ere; ETA, frankismoaren amaia eta Autonomien Estatua antolatzea. Nolabait esan, beti «krisian» egon den aroa tokatu zaio lan egiteko.

Intelektualki ere, oso esanahi «kritikoko» borroka gogorretan egokitu zaio borrokatzea: demokraziaren eta faxismoaren arteko borrokan; komunismoaren eta liberalismoaren, ateismoaren eta erlijioaren borroketan gero; integrismo erlijiosoaren eta kontzientziaren askatasunaren borroketan, etab.

Dena dela, «krisiak», XX. mendeko literatura handi batean eta autore personalistengan bereziki, badu beste esanahi sakonago bat ere, baliozkoa Santamariarentzat, ikusten joango garena, aro baten (Moderniaren) azkenaren edo ukoaren eta berri baten aldarriaren adieran. Krisiak, orduan, epaia adieraz lezake: modernitatearen epaia eta kondena, haren lekuan etorkizun berri bat iragartzen delarik (humanismo berri bat).

Aitortu beharra dago krisiaren kontzeptua, hain erraz erabilia, nola-halako delatestu inguruen arabera. Jatorrizko esangura grekoan, juridikoki, epaile baten epaia esan nahi du auzi batean, eztabaidan erabakia alde batera hartzea, bereiztea (*krino* aditzetik); testuinguru medikoan edo militarrean, puntu larri bateko biragunea adierazten zuen alde batera ala bestera, gaixoaren heriotzara ala osasunera, indar borrokalarien garaipenera ala hondamenera. *Crisis* hitza batez ere adiera tekniko medikoan pasatu da latinera, gorputzaren hil ala bizi larriuneko esanahiarekin. Handik, metafora gisa jada, Estatuaren edo gizartearen egonezina eta aldakortasuna adieraztera etorri da XVIII. mende europarrera. Bi puntu ohargarri, beharbada: egungo adieran, krisiarekin beldurra edo zerbait txarra edo arriskutsua lotzen dugu; lehen, ordea, sentiera liberal demokratiko optimistaren ulerkeran alderantzizkoa zen, XVIII. eta XIX. mendeetan, krisiak, testuinguru ekonomikoan guztiz gain, esanahi guztiz positiboa

baitzuen, hobekuntzaren eta aurrerabidearen agintzari bezala. Krisia aurrerabidearen eragilea zen. Orain, aurrerabide horrexen poxeluan eta oztupoan pentsarazi ohi digu gehiago hitz horrek. Santamariak, bada, krisia berez ez dela ez positiboa eta ez negatiboa esetsiko du. Erabaki egin behar dela, zertara hartu eta nola jokatu. Krisian egiterik ez dagoena da bertan geratu. Bigarren: krisia ia hitzetik hortzera edozertarako erabiltzen da gaur<sup>1</sup>; Testamentu Zaharraren Septuaginta itzulpenean, historiaren Azken Judizioa esan nahi zuen denboraren azken *krisiak* (epaiak) edo historiaren krisi handiak; gero, historia bera dela historiaren egiazko Azken Judizioa edo krisia irakatsi da idealismoan; pertsonalismoan (Santamariaren filosofian), modernitatea mamitu duen balioen sistemaren porrota esan nahi du orain gauden krisiak, balio-sistema eta gizarte berri baten beharra, hortaz.

Krisian gaudela ulertzeak erakusten du ulertzen dugula aldakuntzan gaudela. Krisiak egoera bat «erabakitzen» du, egoera batetik beste batera behartuz edo bultzatuz, uste zaharrak apurtuz eta problema berriak planteatuz. Beraz, krisiak aldakuntza bat seinalatzen du<sup>2</sup>. Arrisku bat, halaber, geuk nola jardun, atera baitaitezke gauzak ongi ala gaizki. Gauden egoerari krisia irizteak, hemen ez dela ezer pasatzen esan ordez, dei bat inplikatzeko du aldakuntzan parte hartzera. Aldakuntzak ez dauka zertan puntuala izan. Oraingo krisia esaten duguna (aurtengoa edo) izan liteke peripezia txiki bat, Moderniaren akabera izan daitekeen krisi handian, mende osoa iraunez eta nahi bada gehiago<sup>3</sup>.

Kontua da, hitz batean, gure aldiari, kulturari, funtsean jada usteldutakoa eta galdutakoa iriztea: «Se vendrá abajo esa civilización, se vendrá abajo como los muros de Jericó»<sup>4</sup>. Bukatu da horrena. Ez dauka zer eginik. Etorkizunean eduki behar ditugu begiak.

Santamaria oraintasunaren Maritainen diagnosisz baliatu da<sup>5</sup>. Modernitatearen krisian gaude. Sekularizazioaren historiaren buruan eta porrotean gaude, humanismo antropozentrikoaren tragediaren orduan. Historia modernoaren irakurketa horren arabera, Erdi Aroan Jainkoari begira zegoen gizakia eta haren mundu guztia, Berpizkundez gero, bere buruari begira jartzera bihurtu da hura eta haren kultura, ikerketa, ekintza guztia. Berpizkundeko humanistek baino kasu gehiago egiten zaio Erreformari Santamariaren azalpenean: Erreformak muturreraino eramanez du pesimismo agustindarra, gizakia bekatuak desginda eta Jainkoaren ahalmenaren azpian zanpatuta ikusiz.

Esta visión aterradora de la grandeza de Dios y de la miseria del hombre, que el jansenismo recogerá, produce un efecto paradójico. Puesto que el hombre no vale para el

cielo —azaltzen du Santamariak dibulgazioko hitzaldi baterako apunteetan—, tendrá que valer para la tierra<sup>6</sup>.

Gizakia negoziotan murgiltzen da, Jainkoaz ahaztu egiten da, mundua profano bihurtzen da. Sekularizazio prozesu luze horretan, dena ez da izan negatiboa. Humanismo berriak salbatu beharko dituen balio handiak ditu. Baina, azken batean, humanismo hori trokan behera amildu da, ez humanismoa zelako, baizik antropozentrikoa zelako, horrexegatik bere buruari ezin eutsiz deusezaren amilburuan (zingiran erori eta buruko mototsetik tiraka atera zitekeen Münchhausengo baroiak egin omen zezakeena). Egungo historiaren ebidentzia beste egiaztapenik behar ez duen gertakaritzat jo dute Maritainek eta Santamariak humanismo horren porrota: inperialismoak, gerrek, klase-borrokek, eta abarrek aski probatzen dute. Azalpenean, hiru fase bereizi dituzte historia horretan. Aurrenik, arrazoimena bera bakarrik hasi da ibiltzen, XVI. eta XVII. mendeetan: Erdi Aroko hainbat ideia gorde egin dira, halere, aldez inertziagatik eta aldez komenentzia politikoagatik. XVIII. mendeko burgesia razionalistaren optimismoak («que oculta una odiosa masa de terrible miseria») bizitzan zereginik ez daukaten arrazoimeneko izateetara murriztu du Jainkoa, bigarren fasean. Hirugarren fasean, Marxez gero, Jainkoaren ideia zirkulaziotik kanpo uzten da, gizakiak ez du onartzen bere arrazoimenaren gainetiko argirik edo gidaririk. Gizakiaren helburua gizakia da eta munduaren helburua mundua, «pero el mundo ha de ser transformado, desalienado, para que el hombre pueda ser integralmente hombre». Gizakiaren eta kulturaren tragediak Jainkoaren tragediarekin koroatzen dira<sup>7</sup>. Santamariaren laburpenean:

En la época de los deístas Dios no era nada más que una Idea. En el tercer momento, el momento actual del ateísmo científico y, sobre todo, del ateísmo marxista, Dios desaparece del horizonte de la Ciencia y de la Cultura. Es el tiempo de 'la muerte de Dios'<sup>8</sup>.

Jainkoa galduz, gizakiak bere burua galdu du. Hor gaude orain.

Krisiaz esanahi partzialean hitz egiten denean, eta maiz egin izan du Santamariak, funts filosofiko horrekin ulertu behar da. Gerraondoko histasunean, zailtasun larregi topatzen bada, errealitateari ihes egiteko gizakiaren baliabide ugarietz mintzo da. Halako bat omen da katastrofismoaren teoria. Indibiduala izan daiteke, norberaren porrotaren isla. Izan daiteke kolektiboa ere, tenore ilunetan, zeruak lur jotzen duela dirudienean: gureak egin du, akabo zibilizazio hau. Horrelakoetan, ikuspegi historiko pixka bat irabaztea da aurrenekoa. Izan ere:

El catastrofismo no es un hecho nuevo: lo vemos también en otras épocas de la Historia manifestarse en forma de terrores apocalípticos, extendiéndose por el Mundo

como una ola negra de desesperanza. Acompaña a las grandes crisis, produciéndose invariablemente en los momentos difíciles de la Humanidad<sup>9</sup>.

Egia da arrazoi franko ematen dutela katastrofismoan etsitzeko beste gerra hur-hurreko baten mehatxuak, bonba atomikoak, eguneroko gertakariok<sup>10</sup>. Katastrofeak ez dira falta. Baina katastrofismoa, batez ere, norberaren moldegabekeria ezkutatzeko aitzakia izaten da<sup>11</sup>, eta alferren eta nagien ezer ez egiteko argumentua: erantzukizunari alde egiteko modu elegante bat, beti ere. Errealitatearen gogorra ukatu gabe, erantzuneko gizakiak lanari eutsi behar dio.

El hombre sereno se halla en condiciones de observar que el Mundo evoluciona constantemente, que un conjunto de transformaciones profundas y salvadoras se imponen a la sociedad actual y que tales transformaciones no se producirán sin el esfuerzo, sin el sacrificio de todos. Pero tiene un sentido providencialista de la evolución y cree que la marcha hacia adelante de la Humanidad no se quebrará en medio de esta tormenta<sup>12</sup>.

Urte neketsuak izan dira gerraostekook<sup>13</sup>. Topiko bilakatu da zibilizazioaren kinka larriaz arruntasun arruntenaz mintzatzea, benetan zer adierazi gura den sakontzea pentsatu gabe. Krisia gora eta behera beti —krisi ekonomikoa, krisi morala, kulturaren krisia, zientziarena—, literaturaren ugariak giro katastrofiko bat sortu du, biziraute hutsak ia mirari irudia hartzen omen baitu. Ele-mele guztion barnean, ordea, Santamariak zibilizazio kontzeptuaren nahasitasuna erreparatzen du. Batzuentzat, zibilizazioak aurrerabide materiala eta bizimodu-erosotasuna esan nahi du. Beste batzuentzat, Europako mendebaleko herrien komunitatearen ekandu eta tradizio multzoa agertzen du. Esan nahi nobleago eta unibertsalago batean, zibilizazioa «zibilizazio kristau» legez uler daiteke, Kristoren mezuan jasotako balio moral eta sozialen orokortasun azkengabeaz. Krisian, hirurotako zer legoke zehatz-mehatz?

1. Bitxia da, egiaz; teknikaren gorenaldi bete-betean, lehen sekula ez bezalako ahalbideak eskura dauzkagunean, Zientziaren Urrezko Aro eder bat gozatu ahal izan ordez, agindu izan zitzaizkigun paradisu mekanikoen ordez, konfort pixka baterako posibilitateak ere mehatxatuta dauzkagu. Ez aietasuna eta ez askatasuna ekarri dizkigu aurrerapen teknikoak.

La Técnica, que debiera haber aportado al género humano una era de felicidad, se destruye a sí misma y aprisiona al hombre en lugar de liberarle. La civilización material, el progreso técnico, lleva, pues, en sus mismas entrañas las fuerzas causantes de su propia destrucción<sup>14</sup>.

2. Kultura europarra denaz bezainbatean, hori ere anitz moldez dago etsai askoren mehatxupear: tradizio propioak, edo soil beren tradizio eta historia

falta hutsak, eta jokaera basati baina efikazak ekarri dakartzaten arraza ugal-korrek, etab. Halere, europar kulturaren zinezko arerioak ez dira bilatu behar urrutiko mugetatik harantz. Ematen du ahitze eta deskonposizio krisi barneko batek higitzen duela barrutik, eta hor datza haren arrisku handiena. Gudu batek edo hauteskunde batzuek ezingo lukete birrindu —arrazoizten du Santamariak, behiala Montesquieuk Erromaren dekadentziaz egindako arrazoiketarekin—, lehendik franko ustelduta ez balego barrutik.

Signos de nuestra decadencia son la disminución de la natalidad, la indiferencia religiosa, el agnosticismo filosófico, el absentismo campesino, el bizantinismo filosófico, el narcisismo literario y, sobre todo, el egoísmo antisocial, que es como un 'sálvese quien pueda' en una nave que se hunde. Los enemigos de la cultura europea son, pues, los mismos europeos que han renunciado voluntariamente al rico patrimonio espiritual heredado<sup>15</sup>.

3. Eta kristautasuna? Galdu ez da egingo, hori Jesukristok aginduta dago. Horrek ez du ziurtatzen, ordea, Elizaren askatasuna eta duintasuna noiznahi eta nonahi errespetatuko direnik, eta gutxiago moral kristauak jarraituko duenik herri zibilizatuen inspiratzaile izaten. Komunismoak mundua irentsi behar zuela zirudien urteotan, eta

... acaso se acercan tiempos terribles —idatzi du Santamariak—, en los que el cristianismo se encuentre obligado a encerrarse en nuevas catacumbas, frente a un despliegue inaudito de barbarie y de paganismo materialista<sup>16</sup>.

Dena dela, hemen ere kristautasunaren beraren barruan seinalatzen du arrisurik handiena: kristau askoren anemia espiritualean eta epelkerian, errutinan. «El adversario más terrible es el que se halla dentro de la plaza».

Hurrengo urteetan, problemak, gutxitu ordez, gehituz eta handituz joan dira. Beharbada, informazioarekin mundu osoa gure etxe-ingurukoan antzeko bilakatu zaigulako; irratian edo telebistan albisteak entzun eta gizaki modernoaren funtsezko problema da, etengabe, problema egunero berrien kopuruak gainezkatuta sentitzea. Badirudi, hainbeste kalamitateren itsaso handi horretan, gu bezalako gizaki kaskar batentzat ez dagoela ezer egiteko lekurik, alferrik dela deus aldatzen saiatzea, ez duela ezertarako balio:

Muchas personas se desaniman ante esta situación. Ven perderse y desaparecer su esfuerzo en el seno de una enorme masa y tienen la sensación de que cualquier acción para mejorar la situación del mundo o de la sociedad en que viven resulta inútil ante el volumen de los problemas que se plantean.

Danaeren konplexua da<sup>17</sup>.

¿Quién no tiene hoy —sea cual sea el campo social en el que quiera actuar— la sensación de estar llenando el tonel de las Danaes? ¿De qué sirven nuestros esfuerzos para levantar las hipotecas que pesan sobre nuestra sociedad? La conclusión más corriente suele ser que ‘no hay nada que hacer’ y que hay que ‘meterse en casa’<sup>18</sup>.

Horrela etsita, behintzat, bistan dago ez dela ezer egiten gauzak hobetzeko. Ahalegindu beharra dago. Lehenengo, gainditu beharra dago ezintasun konplexu hori. Nondik hartu, alabaina, itxaropen pixka baterako indarra eta arrazoia? Santamariaren baliabidea fedean dago berriro.

Así lo afirmamos, al menos, quienes creemos que el mundo es conducido por una inteligencia providencial y no es un mero producto del azar y que toda inteligencia humana está llamada a prestar su colaboración de causa segunda en la acción contra el mal y contra la injusticia entronizada<sup>19</sup>.

Hala ere, itxaropen horren tresna bat orain aurrerapen teknikoan aurkitzen du, mugagabeko posibilitateak irekitzen dizkigulako ekintzarako munduan.

Beraz, krisia, denboran une bat edo tarte bat baino gehiago, agian jarra bat da ikusbidean, historiaren ikuskera bat, balorazio bat gizakia zer dabilen eguneko bidean. Krisi erlijiosoak oinarrizko garrantzia dauka, orduan. Euskal Herriarentzat esan daiteke krisi hori gerrak piztu duela hodei-zartada baten antzera, partikularki Eliza ofizialki faxistekin eta irabazleekin lerratzeak. «No habían reparado en que, en la iglesia, ni siquiera el Papa que la gobierna, está exento de decir el ‘mea culpa’ y el ‘perdónanos nuestras deudas’»<sup>20</sup>. Esperientzia historiko tragikook zakarki astintzen dute kontzientzia kolektiboa. Uste ohitu sasoalen teilapea apurtu eta desanparaoan uzten dute fededunen gizartea.

Las guerras, las revoluciones, las tragedias históricas, no pasan en vano sobre los pueblos. Nadie puede medir hoy hasta qué punto las últimas convulsiones han afectado las capas más profundas del vivir humano. Pero sí cabe asegurar que la transformación es honda y que alcanza las esferas mismas del pensamiento y de la vida religiosa<sup>21</sup>.

Frantzia halaxe gertatu omen da Erresistentziarekin. Ez da izan gertaera militar soila: une berean, fenomeno espiritual ondoriotsua izan da, arimak inarrosi dituen krisi gorria, beren baitarazi zituena eta, kasu batzuetan, automatismo kolektibo eta segurantzia faltsuzko iragan erdipurdikoaekin erradikalki etenarazi. Gero, Euskal Herrian behintzat, tontoarena egin duen inpresioa gehitzen zaio fededun galtzailearen krisiari. Izan ere, hauexek dira gizarte katoliko espainol jainkozale Elizak bedekintuan egiaz agintzen duten «munduaren dohatsutasunak»<sup>22</sup>:

Bienaventurados los ricos; los pobres no cuentan para nada importante. Felices los duros porque triunfan. Ay de los mansos y de los humildes, que hacen el ridículo y a quienes todos pisan. Dichosos los que rien. De los que lloran, huyamos; procuremos que no nos den la lata. Felices los poderosos e influyentes, rodeados de amigos. De los que tienen hambre y sed de justicia, escapemos, porque nos fastidiarán con sus lamentos. De los misericordiosos, desconfiemos, porque terminarán pidiéndonos dinero. Desdichados los puros, porque llevan una vida de perros. Bienaventurados los hombres de presa, porque ellos se saldrán con la suya; infelices los pacíficos, pobrecillos, ignoran en qué mundo viven. Y de los perseguidos por la justicia, en fin, lo único que cabe decir es que son tontos, porque no han sabido cambiar de camisa a tiempo<sup>23</sup>.

Historia erlijioso horretan, hiru fase bereiz genitzake (Santamariaren idazkiei begira, beti). Ikusi duguna, 1940 eta 1950 urteetan, gerraostea; 1960 eta 1970 urteetan Eliza triunfalistaren krisialdia (Kontziliondoa); eta 1980 eta 1990etan gizarte «postkristauarena».

Vatikanoko II. Kontzilioak (1961-1965) Eliza munduarekiko berriro zabaldu nahi izan zuen, mende eta Erdiko kaskagorkeria eta itxikeria alde batera utzirik, Elizaren barne-erreformari eta eguneratzeari ekinez (liturgia, etab.), erlijio-askatasunaren eta ekumenismoaren espirituan. Elizaren aldatu nahia edo aldatu beharra ulergaitza zen jende askorentzat.

Nahiz eta iraunkorra eta betikoa izan —idatzi du, orduan, Santamariak—, Elizak, Edestian egon behar duenez gero, mundu aldakor eta mugikor honetatik ateratako ekaiekin, alegia, ludi honetatiko jende, hizkuntza, era eta ideiekin egin behar du bere eginkizuna. Herrietako gogoak eta ideologiak, ohiturak eta arazoak aldatu egiten diren araz, Elizak ere Edestiari jo behar dio, bere misioari ez hutsegitearren<sup>24</sup>.

Hasi Gregorio XVI.az (1831-1846: Lamennais-en kondenatzailea) eta Pio XII. aganaino, ez du ahazten Elizak zenbat aldiz gaitzetsi izan duen fede-askatasuna. Baina kapitulu horrek bere testuingurua izan duela uste du Santamariak, eta 1840ko hitzek zentzurik ere ez dutela gaurko gizon-emakumeentzat. Erlijio-askatasunak, behialako liberalismoaren adieran, indiferentismoa eta sineste-axolagabetasuna edo sinesgabetasuna soilki esan nahi zuen eta «Elizak kondenatu behar zuen nahitaez». Ordea, XIX. mendeaz gero, gauzak asko aldatu dira munduan: aurrenik, gaurko gizadiaren arriskurik handiena ez da liberalismoa (materialismoa eta totalitarismoa baizik); eta, gero, liberalismoa bera (demokrazia) honezkero ez da lehenagokoa.

Gaurko arazoa hau da. Bi aldetako ideologiak —gauzak errazteko ‘espiritualismoa’ eta ‘materialismoa’ izendatu ditzakegunak— buruz buru aurkitzen dira eta batek edo besteak garaile ateratzeak, biharko munduari oso ezberdineko abiadura eman liezaioke. Elizak egokera honi aurpegi eman behar dio eta honetarako beste erlijioekin

## IDEIA

batasun handi bat osatu behar du lehenbailehen. Honelako jokua arau eta lege nagusia elkarrekiko leialtasuna eta erlijio pluralismoaren jokabidea izan behar du. Ezin lezakete ordu honetan jende erlijiodunak elkarri burruka egin<sup>25</sup>.

Denborari obeditu egin behar zaio. «Eliza bere muinean beti berbera dela ere, Edestiko leku-denbora iheskorrean barrena bizi da eta inguruetako elementuak hartu eta erabili behar dira»<sup>26</sup>.

Idea horiek sakonkiago azaldu ditu «La Iglesia y el mundo moderno» *Gaudium et Spes* konstituzio pastoralaren iruzkinean<sup>27</sup>. Badago Elizan jende bat edo joera bat, Santamariaren arabera, historia garbi-garbi bi partetan banatzeko, zirikusi gabekoak bata bestearekin. Erredentzioaren eta graziaren historia jainkozkoa da bat, historia profanoa bestea. Kristauari, funtsean, lehena bakarrik axola zaio. Era horretan, ilusio edo fantasma single pirtzil hutsa da harentzat historia profanoan gertatzen den guztia. Alderantziz, egiazko historia, sakratua, Jainkoaren mirarien katea bat bezala luzatuko litzateke, gizakiaren eskurik gabe. Jarrera negargarri horrekin, dio Santamariak, ez da posible Elizaren eta munduaren arteko elkarrizketarik: Elizak ez luke beste lanik izango, munduaren arriskuak eta okerrak gaitzesten aritzea baino. Aitzitik

... todo el gran movimiento humano a que actualmente asistimos y del que forman parte la promoción política y social de los pueblos y el conjunto de los avances científicos e industriales, sería así considerado como prácticamente indiferente para el cristiano o, lo que es peor aún, como un proceso hostil a Cristo y a la Iglesia<sup>28</sup>.

Neke handirik gabe erakuts dezake Santamariak hori, agian noizbait hala izan bada ere, orain ez dela Elizaren (Kontzilioaren) jarrera. Guri hemen, ordea, mundu hobe baten eraketa horretan, kristauak ekarpena egiteko zeren beharra ote dagoen interesatzen zaigu; hau da, kristautasunak eskaini ahal izango liokeen zeren falta sumatzen den mundu moderno horren analisisian. Edo bestela esan, oraindik: zein diren mundu horren problemak eta hutsuneak, Santamariaren ikuspegitik.

Gizaki modernoari gertatu zaiona da bere bideak harrapatu duela. Berritasun teknologikoekin historiak hartu duen abiada, gizakiak ezin kontrolatu duena, da berau zurrunbiloan daramana<sup>29</sup>. Gizakiak (eta gizarteak) egokitu egin behar du erritmo horretara; ezin atzera egin, ez aldera geratu, eta menderatu ere ezin du, ez daukalako nola egin jakiteko pentsamendu bat eta balio eskala bat. Halere, ongi uler bedi, funtsezko arazoa ez da ideologikoa. Zalantza gabe, gizarte modernoak badu hamaika problema ideologiko, politiko, etiko, eta abar, baina gaitzoz erro-erroan hauxe dago:



La crisis de nuestro tiempo tiene, en realidad, una causa de origen puramente material y técnico, más que ideológico. Es cierto que existe una crisis ideológica profunda, pero si se consideran las cosas desde cierto punto de vista parece que esa crisis es en gran parte la consecuencia, más que la causa de la revolución técnica a que asistimos<sup>30</sup>.

Teknologiarekin batera, metodo tekniko eta zientifikoak hedatzea dator, eta mentalitate zientifikoaren nagusitasuna espirituetan. Horren ondorio batzuek osatzen dute krisiaren diagnosa.

Pentsamenduarekin hasteko: auzitan jarriak daude gure belaunaldiak aurreko belaunaldiengandik hartu zituen balio guztiak edo ia guztiak. Oraingo belaunaldiek borrokatzen dituzten ideien artean, maiz-sarri, sinespen erlijiosoak daude. Gure aurrekoen ezjakintasuna eta superstizioa aipatzen dira. Ateismoa ez da jada fenomeno bakana, jarrera kolektibo txit arrunta baizik, eta zenbaiten begitan aurrerapen handia eta baldintza beharrezkoa humanismo berri bat eraikitzeko. Sozialki, gero: familia puskatu egin da (belaunaldien arteko borroka larritzea, eta abar ondorioztatuz handik); komunitate landatarra aurki galtzeko bidean doa, hiritartzen ari den mundu honetan; industriak eragiten dituen migrazio masiboekin, elementu deserrotuz, oroimen, historia, tradizio eta ez eredu kulturalik gabeko jendez, mugikortasun handiko eta oreka gutxi-koz betetzen dira hiriak. «El desarraigamiento produce un tipo amorfo de hombres, pretendidamente universales, pero que son en realidad juguete de muchos vientos»<sup>31</sup>. Nazioarteko ondorio politikoekin jarrai liteke, eta abar. Problema guztion gakoa, esan bezala, gizakiari buruz gain handitu zaion garapen teknologikoa da. Aurrerapen tekniko erraldoiak bai gizakiaren (manipulazio genetikoa), bai gizartearen (manipulazio soziala: propaganda, etab.) kontrol positibitate materialak eskuratu dizkio gizadiari; bitartean, moralki ipotx, gizakia ez dago gaituta ahalmen horiek behar bezala erabili ahal izateko. Alderantziz, bitartekoek teknologia lasterka goititzen zen artean, gizakiaren balioa zatikatu eta desegin egiten zuen zientzia horrek berak («gaurko tragedia»). Hain zuzen, hutsune horretan ikusten du Santamariak kristautasunak ekar diezaiokeena humanismo berriari.

La contribución de la Iglesia a la creación de una humanidad nueva, más generosa, menos egoísta, más consciente de la solidaridad histórica y de la responsabilidad colectiva, consiste precisamente en reafirmar al hombre en la plenitud de sus valores. En estos últimos tiempos se han manifestado importantes corrientes del pensamiento que tienden a ignorar estos valores. Se ha realizado una labor de crítica en todos los órdenes, de la cual el hombre ha salido muy mal parado, y así ha nacido una corriente de desconfianza radical en la razón humana como auténtico medio de conocimiento de la realidad que trasciende a lo inmediato. Los fines y los destinos individuales han sido sacrificados a los colectivos, quedando éstos, a su vez, mal definidos por fórmulas que

conducen finalmente a la negación de la libertad personal y de la responsabilidad moral del hombre como fundamentos de la vida social. Esta línea de pensamiento ha llevado a una gran parte de la humanidad a la desesperación y a la desconfianza más completa<sup>32</sup>.

Beste behin, honela deskribatu du krisi modernoa:

A mi juicio, hay en nuestra sociedad una crisis de fe —no sólo de fe religiosa, sino de cualquier especie de fe—. Hay también una crisis de confianza en nosotros mismos y, por supuesto, en los demás. Pero sobre todo hay una crisis de identidad, una terrible crisis de identidad, tanto en los hombres como en los pueblos<sup>33</sup>.

Hori da modernitatearen krisia, edo modernitatearen tragedia, eta errealitate horretara nahi luke Kontzilioak egokitu Elizaren mandatua eta presentzia. Nolabait, Elizaren krisia ere bada hori. Espainian, aldiz, egokitzapen-ahalegin horiek ez bide dute guztien ulerpena ikusi. Hainbat fededun zintzo eskandalizatu egin omen da, Eliza aldaezinean halako aldakuntzak sentitzean. Jende horrek, bere modura, teologo frantsesen edo alemanen berrizalekeria edo Aita Santuren baten kaskarinkeria bezala ulertu edo esplikatu nahi izan ditu gauzak.

No miden el alcance histórico y la profundidad de la crisis —notatu du Santamariak— [...] Confían en que todo esto no sea más que una crisis pasajera y piensan que, tan pronto como los dirigentes eclesiásticos se decidan a usar de sus báculos con la debida energía y agilidad, todo volverá en la Iglesia al cauce autoritario del que nunca debió haberse salido<sup>34</sup>.

Beste batzuei, ikuspegi politikoagotik, Eliza, ordenaren habe sendoena lehen, endreda-makila tirtiri bilakatu dela iruditu zaie,

... refugio y semillero de espíritus críticos y rebeldes, que con su afán de plantear problemas y agitar reivindicaciones, ponen más o menos en peligro la estabilidad del quehacer ciudadano<sup>35</sup>.

Batzuek zein besteek, dio Santamariak, tutik ere ez dute ulertzen zer ari den sakonki gertatzen.

Esan daiteke eginkizun horri eskainita dagoela parte handi bat Santamariaren obra guztian: mundu modernoan, kristauarentzat leku bat egiteari; edo, alderantziz formulatu nahiago bada, fedearen laguntasun-, edertasun-, argitasun-ekarpenaren bitartekotza egiteari, mundu modernoaren osasunerako. Problema, era horretan, berri-berria da: «No parece que haya en la historia del cristianismo precedentes de una cosa así». Eta ez da axalkerietan ibiltzeko kontua. Garrantzi maximoko arazoa da: «La cuestión está en saber cómo se puede seguir siendo un hombre de fe y cómo puede vivir y manifestarse esta fe en un mundo como el nuestro»<sup>36</sup>. Hirugarren mementoa, krisi erlijiosoan, oraingo

aro «postkristauarena» genuke: nolabait ebanjelioari zordun sentitzen zaion, baina Elizarekin loturarik ez duen jende edo gizartearena. Baina ez da Santamariaren gustukoa izan kontzeptu hori<sup>37</sup>, eta izendatu nahi duen errealitatea ere ez da gustukoagoa izan. Hau da, indiferentismo ideologikoa. Lehenagoko aldi batzuei begira deritzenez, elkarrizketa batean,

... orduan ideologien artean gerla zegoen. Gaurko egunean ez dago gerla ideologikorik, postmodernismoan gaude, milurte honetako azken hamarkadan: ugaritasunaren gizartea da oraingoa, nahikeriaren gizartea; xedea ondo bizitzea da. Ez dago elkarrekin erkatzeko moduko ideologiarik, hemen bertan. European, garai batekin alderatuta, zer ideologia desberdin daude ba? Ia ez dago [...]. Ideologiak desagertzea ez da ona. Jenderik gehienak gaur egun ez du arazo ideologikorik, erlijioarekin ere gauza bera gertatzen da. Postmodernismoa: borroka ideologikorik ez, ideiarik ez, filosoforik ez, historiaren une aspergarri bat<sup>38</sup>.

Eta beste batean, problemari orokortasunean helduz:

Nork hitzegiten du egun benetako sozialismoaz? Benetazko ezkerrez? Esistitzen al da benetazko ezkerrik? Esistitu daiteke egungo gizarte pragmatikoan? zeinak ongitasuna besterik ez duen desio... Munduko bigarren guduaren ostean sortu den gizarte honek benetazko axolagabekeria adierazten du gai hauekiko, egun ez da komunismo gogorraz mintzatzen, ez eta ere komunismo armatuaz, gauza erabat aldatu da. Postmodernitatea ez da moda bat, sakonagoa da, batipat kultura eta filosofia mailan antzematen dena; egun ez dago filosofo haundirik, ez da posible gainera egon daitezen, ze filosofia, metafisika ez bait dira interesatzen gutxi bat sikiera, gaurko gizon-emakumeari ezin zaio garrantzizko galderarik egin, ez du deusik jakin nahi denbora batean gizartea nahastu zuten gaietaz, ez du sikiera planteia diezaioten onartzen... Ateismoa adibide: XIX. mendearan amaieran halako borroka gogorrek eragin zituenak, ba egun axolagabekeria besterik ez du eragiten, jendea ez da eztabaidan sartzen. Zentzu honetan ere, zenbat marxista benetako dago orain? Zenbatek letzen du Marx? Nik letu eta azpimarratuak dauzkat bere lanak, aizu, lehen genuen interes hori... akabo!<sup>39</sup>.

Giro horretan erlijiozkotasunaren garabide bat izan liteke sektetan, edo erlijiozkoak ez diren alorretan, forma berriak hartzea. Baina goazen bideak erlijioarentzat emaitza askoz negatiboagoetara darama seguruenik:

El problema de la fe si lo cogemos profundamente hay que hacerlo en función de la civilización. ¿Es que va a aparecer una civilización completamente sin fe? ¿Es que va a aparecer una civilización en que los problemas de la vida y la muerte queden ya por completo eliminados, y la muerte aparezca como un hecho totalmente natural y que el sentido de la vida no le preocupe a nadie? ¿Puede haber esa civilización? Yo creo que sí, que está apareciendo<sup>40</sup>.

Erlijioa, eta kezka erlijiosoak, gutxiengo txiki batentzat geratuko dira, orduan.

Krisiak beste zentzu batzuk ere har ditzake: adibidez, Ekialde-Mendebal eten politikoarekin, sakonkiago mundua bi kulturatan etenda dagoela ohartzen du Santamariak. Zalantzarik gabe, une horretako Euskal Herriari begiratzen dio (1967), eta hemengo gazteriari, batik bat<sup>41</sup>. Marxismoak edo delakoak, materialismo dialektikoak, «zientzia» ordezkutzen du. Eta zientziak ohore handia du gure gizartean.

Con Freud, Marx y el ‘mito-análisis’ en la mano, esta gente nos analiza el inconsciente, nos revela las motivaciones sexuales de nuestros actos, aparentemente los más distinguidos y nos demuestra cómo dos y dos son once (en el sistema de base tres), que nuestras presuntas ideas no son sino un subproducto de la sociedad alienada y alienante en que vivimos [...]. En resumen, nos dejan como un trapo y completamente desacreditados ante la juventud ‘humanista-empirista’, tan fuertemente anclada en la ciencia como ustedes y yo sabemos<sup>42</sup>.

Ez malezia pixka bat gabe, balio tradizional denak ostikatzuz memento batean Euskal Herria inbaditu duen «marxismo» zientista aipatzen du Santamariak testu horretan. Euskal kulturaren eta gizartearen krisi une hori maiz aipatu da, orain berriro egin behar izateko. Halere, irakurleak ez ahaztekoa izango da Santamariak lan egin duen aroan une inportante bat izan dela aldagoi iraultzaile zientifikoaren horixe. Ideia berrien aurrean «existe la impresión —aitortu nahi izan du nolanahi ere Santamariak— de que a eso que pudiéramos llamar el ‘mundo creyente’ se le ha quedado muy viejo el armamento cultural»<sup>43</sup>. Aspaldian oso atzera geratutako kultura baten problema.

Garaiarekin beste desfase puntu bat egon da kultura kristauan zientzia modernoarekiko, munduaren eta gizakiaren ikusbide ebolutiboan. Munduaren kontzeptu kristau tradizionala, kreaioaren kondaira biblikoak irakatsia izan da, eta kategoria aristotelikoetan sistematizatua; gizakiaren kontzeptu kristaua (jatorriarena eta naturarena, oldarkortasunarena edo gaiztakeriarena, eta abarrena), Darwin gabe osatua da. Teilhardek, horregatik, Elizan gorabeherak nozitu arren, jende askori «esperantza bideak» ireki dizkiola esango du Santamariak. Alde bat nabarmendu behar baita hemen:

El problema que Teilhard se había planteado era nada más y nada menos que el de construir una interpretación total de la evolución del Universo —materia, energía, espíritu, vida, hombre— que abarcase el conjunto del proceso, desde la materia física y biológica hasta las más altas realizaciones del espíritu y de la creencia religiosa. Es evidente que esto no era un problema estrictamente científico pero tampoco un problema teológico. ¿En qué terreno se movía, pues, la exposición de Teilhard sobre el fenómeno humano? A mi modesto juicio en un terreno esencial —y a menudo despreciado tanto por los científicos como por los teólogos— que es el de la creación poético-filosófica, un poco a la manera de los grandes filósofos presocráticos<sup>44</sup>.

Alegia, arazoa ez da hainbeste Teilharden usteek zenbateko balioa duten hertsiki, zientzia biluz bezala neurtuta, edo teologia hertsiki bezala pisatuta. Ez bata eta ez bestea ez baitira, osoki, zerbait berria asmatzeko saioa baizik. Santamariak sentitzen duen beharra eta Teilharden obran estimatzen duena da zientzien material berriekin mundua berriro birpentsatzeko saioa, ikuspegi sintetiko bat garatzekoa zientifiko-filosofiko-teologikoa; hau da, historia intelektual modernoan banatu eta askotan etsaitu diren ikusbide horiek berriro bateratu eta bizitzaren zentzu baten eran lore sortatzekoa. Zientzia «poetikoki» gainditzea ez zaio Santamariari jada eskandalagarria iruditzen, baizik premia-premiazkoa gaur egun. Eta ez kasu partikularren baten soluzio gisa, beste erremediorik ez dagoelako-edo zientziaren mugengatik oraingoz, baizik jarrera intelektual oinarrizko gisa.

Uno se pregunta si en la situación actual del mundo, de la ciencia y del pensamiento, la Filosofía no va a tener que ir a un nuevo presocratismo que encarne en forma poética profunda las grandes intuiciones del vivir contemporáneo. Algo que dentro de diez mil años podrá quizás ser apreciado como la postura más fecunda y creadora de futuro de esta gran crisis<sup>45</sup>.

Filosofiaren birjaiotza baten beharra da, hortaz, Santamariak iradokitzen diguna, krisi hau gainditzeko.

## Eskola eta maisu artean

Eskolaren eta maisuaren kontzeptuak libertate pixka batekin hartzen dira hemen: Santamariaren pentsamendua ernarazi eta lorarazi duten autoreak adierazi nahi dira, gehiago gabe. Batzuetan, irakatsi egin diotelako agian, ideia baten bidean jarri, arrazoi batzuk argitu, bere usteetan sendotu, soluzio bat iradoki; ez gutxitan, ordea, eztabaidara behartu dutelako, bere arrazoiak eta ikusbide propioa berak garatzera hortaz. Pentsamendua ez da solipsismoan hedatzen, dialogoan baino. «Maisuok» Santamariak bere buruan etengabe daraman elkarrizketako solaskideak izan dira, batzuk gehiago, gutxiago bestek. Horieta-ko batzuk izan ditu maitatu dituen adiskideak ere. Eta bat edo beste bere barruan borroka gogorrean azpiratu eta garaitu behar izan duen «etsaikide», apika.

Horrekin ez da esan nahi, eta ez da ulertu behar, Santamariaren pentsamenduaren iturri nagusiak autoreotan ikusi behar direla. Ez da horrelakorik inola ere, eta garrantzizkoa da garbi edukitzea horrela ez dena. Baina Biblia, eta bereziki ebanjelioak, edo Aita Santuen irakaspenak, liturgia eta teologia, doktrina sozial kristaua ohi deritzona partikulari beharbada, eta abar, hau da, Santamariaren gogoeta ez ezik, mundu-ikuskerak osoa eta oinarrizko jarrera gorputzen duen funtsezko material guztia, ez zait iruditu «eskola»tzat eta ez «mais» bereizgarritzat hartzea zegoenik. Gorputz horren gehigarri bezala bakarrik daukate zentzua hemengo eskolek eta maisuek.

### *Positibismoa, materialismoa*

Eskolak baino gehiago, espiritu bat ulertu behar dugu kontzeptuok. Filosofia inplizitu bat adierazten dute, halere: gaur egungo plegu eta jarrera zientifista, fedegabea.

Jakintsuak badaki harritzen; baina erdi-jakintsuak, dena badakiela egin behar baitu itxura, ez du nahi harritu. Eta ustekabekoa ateratzen bazaio zerbait, nola badakien munduan denak legeen eta kausen arabera ibili behar duela, bere ezjakintasuna disimulatzeke, ez-harrituarena egingo du.

En realidad todo debiera ser motivo de asombro para el hombre que reflexiona y que lee en el interior de las cosas. Cada encuentro de un yo pensante consigo mismo, es decir, cada actualización de la conciencia, implica ya una misteriosa revelación. Cada partícula del universo es un universo. Nada puede parecer trivial o vulgar a un

espíritu penetrante. Quien haya perdido esta emotividad intelectual, quien no acierte a percibir que todo es misterio —asombroso misterio— dentro y fuera de nosotros mismos, es incapaz de vivir una vida propiamente humana. «Vivir es asombrarse de estar en el mundo. Sentirse extraño, lleno de angustia ante la contingencia de dejar de ser», dice Maeztu. «Para que algo se nos convierta en tema de conocimiento es preciso que antes se nos vuelva problema, y para que esto acontezca, es, a su vez, menester que lo extrañemos», afirma, por su parte, Ortega y Gasset. El asombro, la extrañeza ante el propio vivir, es el punto de partida de nuestra problemática fundamental. Sin ello no cabe construir una filosofía, ni cabe tampoco una actitud ingenuamente receptiva de la revelación religiosa<sup>1</sup>.

Harrimenak ematen du filosofiaren hasiera. Ematen zuen. Teknikarekin, positibismo zientifikoaren espiritua jabetu da gure kulturaz, hunkigarritasun zein hunkimen intelektual oro itzaliz eta gertakarien bilketa metodikoan eta teoria instrumentalen eraikuntza hutsean barneratuz. Zientzia kamustu egin da. Matematikak, adibidez, unibertsoaren formen eta proportzio sekretuki jainkokozen edertasun zoragarria ezagutzearren ikasten ziren antzinaroan. Harmonia matematikaren atala zen, musikak ere naturaren barneko txukuntasun zenbakizko ezkutua azaleratzen laguntzen digunez gero. Alderdi espekulatibo eta, nolabait esan, transzendente hori baztertu egin da egungo matematiketan. Ondorioz, gizaki modernoak ez dauka harrizkerik.

El positivista nunca se admira; se limita a anotar. El éxtasis admirativo no cabe en su mente, porque desde el momento mismo en que un hecho se ha producido es porque tenía que producirse y en esto no hay nada de sorprendente ni de maravilloso<sup>2</sup>.

Jakinduria zaharra miresmenean burutzen zen. San Agustinen gogoeta filosofiko sakonenak harriduraz eta gorespenez beteta daude tarteka, zinezko emozio intelektualaren agergerri. Hori dena aspaldi uxatua dago zientzietatik.

Ez da bilakaera neutroa, zientziaren ezarpen ezinbestekoa aurrerabidean.

El hombre moderno ha perdido casi por completo la oportunidad y la capacidad de asombrarse. Este es un hecho más importante de lo que a primera vista parece, pues altera profundamente el equilibrio interior del ser humano<sup>3</sup>.

Munduan egoteko geneukan parada galdu egin dugu. Lurraren gainean leku bat, transzendentziak argitua, egiten zigun postura, zentzua eman ziezaiokeena ekintzari, harrimenez, jaierez, pozez, maitasunez, itxaropenez bizitza eta heriotza bete ziezagukeena. Orain, gizakia ez nondik eta ez nora dago, gertakari-zotzak biltzen su txiki bat egiteko, munduan errari.

Kontua ez da fedea bai, fedea ez; lehen bai, oraintasun sekularizatuan ez. Orain beste fede bat dago: zientzian.

Kasu, fedea zientzian ez da nahastu behar esperantzarekin zientzian: gure beharrezanek ekar diezazkiokeen erremedioetan. Zalantzarik gabe, zientziek laguntasun handia eman diote gizadiari eta, aurrerantzean, are fabore gehiago itxaron genitzake aitzinamendu geroz arinagoekin. Gaitz guztien sendabiderik ez dute ekarriko, noski, baina hamaika onura bai. Arazoa, ordea, hortxe gertatzen da, eraiki dugun zientzia ezberrik gabe guztiz probetxugarri moduarekin, zein den atzematen dugun errealitate modua, dagoen errealitate guztitik. Eta arazoa da, Santamariak ohartarazten duenez, jende askok gure Mendebal burgesean

... creen en la posibilidad de un conocimiento capaz de plantear todos los problemas filosóficos, sociales, económicos, políticos y humanos de una manera científica y rigurosamente técnica<sup>4</sup>.

Zientzian fedea, era horretan, errealitatearen kontzeptu jakin baten baldintzapean dago, Santamariaren ustez kontzeptu arras murriz baten pean, hain zuzen. Zientziaren eremuan, ez da dudarik, positibista izan beharra dago. Ez dago beste aukerarik.

Lo que yo me atrevo a poner en duda es la posibilidad de mantener ese mismo positivismo cuando se intenta hacer frente a problemas verdaderamente fundamentales de la existencia humana<sup>5</sup>.

Zientzien ahalegina iluntasun edo zalantzagarritasun oro inaustea da kontzeptuetatik, dena garbia eta doi-doia atera dadin. Zientifikoez ez dute filosofoen edo «humanisten» laino eta iluntasunik erabiltzen. Horixe izan da Viena-ko Zirkuluaren xedea.

Al final, naturalmente, sólo quedan ideas claras, e incluso demasiado claras. Pero, ¿no será todo eso una tautología? Y, por otra parte, ¿con qué derecho pueden alardear de claridad quienes han comenzado por eliminar sistemática y radicalmente todo lo oscuro, todo lo profundo y misterioso en que nos hallamos sumergidos?<sup>6</sup>.

Zientziak araka ditzakeen gaiak probetxuzkoak dira, baina «filosóficamente intranscendentes». Horietan, alde aurretik egindako hautapen epistemikoen arabera, hain zuzen, «a mi juicio, cabe una claridad científica, pero sólo una claridad metódica, que reconoce en su propio fondo la propia impotencia y la propia oscuridad»<sup>7</sup>. Baina zientziak behatzen duena baino hagitx konplexuagoa da errealitatea. Filosofiari dagokiona, orduan, arras beste zerbait da, hori adierazteko nahiago izan baitu Simone Weilen esakuneaz baliatu:

El método propio de la filosofía debe consistir en concebir claramente los problemas insolubles en su propia insolubilidad. Después, en contemplarlos sin más, fijamente, incansablemente, sin ninguna esperanza («sans aucun espoir») en la espera («dans l'attente»)<sup>8</sup>.



Filosofiaren antzinako iturburua harrimenean geratzen zaigu, egungo espirititu positibistarekin (espiritu «burgesa», behin eta berriro errepikatuko digunez) turbustua baldin badago, agian filosofiagintzarako beste bide bat gaitziduran, ezduintzean egungo mundu doilor zitalean. Hori ulertu behar dugu, apika, Santamariak Hungariako sobietar inbasioaren kariaz «adiskide ateista epel» baten inguruan, eta gero ere maiz<sup>9</sup>, erabili duen gogoeta moldean. Adiskide honentzat asaldagarri gertatu bide da, herri txiki baten aurka haren askatasunaren alde borrokan, potentzia militar mando baten indarkeria basatia. Baina, zergatik?, galdetzen du Santamariak. Munduan jaio, ahalegindu, bizi, hil egiten gara. Adiskide ateista epelak, bere ideien arabera (ateista horrek positibista zientifikoak ordezkatzen du; oso posible da zientzia modernoaren hezurmamitzea besterik ez izatea)<sup>10</sup>, jarrera zientifiko indiferentea hartzen du bizitzako gorabeheren aurrean. «Para él no hay injusticias ni crímenes propiamente dichos, sino choques y conflictos entre fuerzas vitales que se oponen en la lucha por la existencia». Ongia eta gaizkia ez dira kontzeptu hertsiki zientifikoak.

¿Qué es el crimen? ¡Vaya Ud. a saber! Una anomalía funcional del hígado, algo que no anda en la vesícula o que anda demasiado en la tiroides. ¿Qué es el sentimiento de la bondad? La sublimación, autodefensa o compensación cerebral frente a lo feo y difícil de la existencia...<sup>11</sup>.

Beste batean, gauza bera daukagu materialistarekin:

Ser bueno o malo es lo mismo que tener narices cortas o largas, me dijo una vez un amigo materialista [...]. Para el materialismo, sea de la especie que sea, no existe, en efecto, un mundo de valores éticos que pueda sustentarse en algo exterior, trascendente o superior, al mundo material. Si no existe el Espíritu, no existen tampoco, propiamente hablando, verdaderos vicios ni virtudes; lo que habitualmente llamamos la bondad o la maldad no es, en último extremo, sino cosa de humores o de particularismos funcionales. La diferencia entre el santo y el canalla es cuestión de bilis, de circulación sanguínea o de desequilibrios hormonales<sup>12</sup>.

Kasu biek erakutsi nahi dutena da planteamenduaren ezaskitasuna, prolemari berari justizia egiteko aurrenik eta, are gehiago, soluzio onargarririk eskaintzeko gero. Positibista zientifikoak, transzendentzia baztertu eta esperientzia soilera mugatu den orduko, planteamendu egokiaren posibilitatea ere baztertu egin du arazo modu horrentzat. «Desde el momento en que Dios no existe, no hay tampoco bondad, verdad, ni belleza absolutas y todas esas categorías caen pulverizadas en lo relativo». Hungariako inbasioak, edo handiak txikia zanpatzeak, ez dauka zergatik inor asaldatu. Munduaren barne-mekanikako gertakari arrunt bat gehiago da. «Cuando no se cree en Dios, en efecto, no

puede uno indignarse de nada. Ante la fatalidad nadie tiene derecho a nada. Esta es la conclusión a que se llega»<sup>13</sup>. Beste horrenbeste daukagu materialistarekin:

Es horriblemente irracional, horriblemente oscuro, pensar que todo cuanto llamamos generosidad, heroísmo, abnegación, espíritu de justicia, honradez, etc., sea pura representación de algo estrictamente físico; índices de salinidad, grados de acidez, dispepsias y alteraciones arteriales. Hay algo que no he comprendido nunca y es esto: cómo los materialistas sinceros puedan seguir hablando de justicia y de injusticia, de bondad y de maldad, sin sentir en su alma el horrible vacío de una contradicción insuperable para ellos<sup>14</sup>.

Sokrates jada kezkatzen zuen arazo horrekin enplegatzen denean, Santamariak maiz aipatu ohi du Camus. Adibidez: «Si no se cree en nada, si nada tiene sentido, y si no podemos afirmar ningún valor, todo es posible y nada tiene importancia [...]. Malicia y virtud son azar y capricho». Edo beste hau:

Si nada es verdadero ni falso, bueno o malo, la regla debe consistir en mostrarse el más eficaz, es decir, el más fuerte. El mundo no estará dividido en justos e injustos, sino en tiranos y esclavos.

Testu garrantzizkoak dira, ulertzeko Santamariak filosofia eta filosofiaren beharra zein zentzutan errebindikatzen duen.

¿De qué valen —idazten du— las condenaciones de los que no creen que exista el bien y el mal de un modo distinto a como puedan existir el calor y el frío, la encefalitis o el cólera morbo?... Sólo la fe en la transcendencia de las conductas humanas puede devolver un sentido moral a los actos de los hombres<sup>15</sup>.

Santamaria guztiz ohartu da horrelako filosofia baten zailtasunaz bere inguruan. Metafisika, berriro Kant gogoratuz aitortuko duenez, ospea galduta dago. Ez da harritzekoa ere, askotan ikusten den metafisika ikusita. «La contrafigura del positivista cerril es el metafísico etéreo»<sup>16</sup>. Gizakiarentzat etxe bat erai ki behar eta, badirudi batzuek teilatu metafísikoan bakarrik pentsatzen dutela, besteren batzuek oinarri material enpirikoetan baino ez. Aukeran, esaten du, nahitaez aukeratu beharra egonez gero, etxegintza teilatutik ala oinarrietatik hasi, berak bigarrena hobetsiko luke. Baina —gehitzen du— «sin que esto signifique, en modo alguno, que no me parezca bien que las casas tengan tejado». Filosofiarekiko gizaki modernoaren goganbeharra dago batetik («las afirmaciones de la metafísica resultan tan generales y, en cierto modo, tan vagas, que el hombre actual, enamorado de lo concreto, no encuentra ningún interés ni ninguna utilidad en ellas»), eta, bestetik, «el menosprecio evidente con que algunos metafísicos miran las realizaciones de la ciencia experimental moderna». Etxea, ez teilatuak bakarrik eta ez hormek eta oinarriek bakarrik, egiten dute, etxea

nahi badugu. «La consecuencia de esto es que el hombre debe construir por ambos lados a la vez, aunque esto obligue a vivir en permanente tensión»<sup>17</sup>. Tenka horretantxe nahiko du Santamariak bere filosofia.

### ***Estrukturalismoa***

Adibide bat, arriskatzeko: zer da auto bat? Anlisi batean: a) haren osagarriak oro bana genitzake eta zati bakoitza bere baitan zer den definitu (gurpilak, karrozeria, motorra, etab.); guztiaren baturak autoa ematen du. Egin genezake bestela ere: b) autoak funtzio bat badu, pirritatzekoa eta jendea erabiltzekoa, eta funtzioa ez da autoa agian, baina analisiak berezi dituen zati haiek guztiak zer diren esplikatzen, autoa den antolamendua zer den ulertzeko balio liezaguke.

Estrukturalismoan, errealitatea (gizartea) ez da definitzen osagarri dituen elementuetatik eta horien naturatik, ezpada osagarrien arteko harremanetatik eta horien funtzionatzeko eratik. Nola diharduten da gauzak zer diren. Sistema baten baitan, elementu bat zer den ezin daiteke isolatuki definitu, bere substantzia banakoaren arabera, bere esentzia edo naturagatik, bere balioagatik; ezpada, bere jokoagatik eta harremanengatik osotasunaren barruan, beste elementuekiko erakusten dituen kontrasteengatik eta diferentziengatik edo osaerengatik. Elementu denak solidarioak dira, eta besteenarekiko erlazioan ageri da zein den bakoitzaren balioa (natura).

Hiru puntutan bil daiteke estrukturalismoari buruzko Santamariaren jarraera kritikoa:

- Hori ez da filosofia, uko bat da filosofiari, hau da, errealitatea bera den bezala ezagutzeko proiektuari. Aitzitik, filosofoak formalismoan errefuxiatzen dira horrekin, matematikoak axiomatikan anparatu diren modura. Lehenengo edo oinarrizko kontzeptuak —«puntua», «espazioa»— ez dago definitu beharrik zer diren («izan ere, nola adierazi, gauerdiko amets baratzean erori gabe?»).

Horregatik, axiomatikazaleek hitzen esanahia alde batera utzi eta hitzen arteko hartu-emanak besterik ez dute azaltzen, jokatzeko horretan bertan dagoelako, diotenez, kontzeptuen mami guztia eta bakarra. Hitz, sinbolo eta irudiak maneatu eta horiekin estrukturak tajutzen eta eraikitzen dituzte. Bainan ez ezaiezue galde sinbolo eta irudi horiek zer esan nahi duten, eztizuetelako erantzunik emango.

Jarduera berarekin «filosofia formalista bihurtzen da, gero ta gehiago. Sinbolo ta hitzen arteko joku bat bilakatu da, Vienako deritzan Eskolak marratu duen bideari jarraitzen»<sup>18</sup>. Azkenean, hori zer den, hona hemen, umore pixka batekin:

... la filosofía se está haciendo fundamentalmente y rabiosamente antifilosófica. Esto es algo así —perdonen ustedes la comparación, que sólo sirve para darle un poco de picante al asunto— como los curas que se hacen anticlericales<sup>19</sup>. Lo que ahora se llama estructuralismo es, por lo que uno va entendiendo, una antifilosofía que ha nacido en el seno mismo de la filosofía<sup>20</sup>.

- Zein da estrukturalismoaren esanahi soziala? «Sartre piensa que el estructuralismo es la última barrera que la burguesía puede todavía levantar contra Marx»<sup>21</sup>. Hori litzateke —ez nahitaez horrela formulatuta, baina— Santamariaren bigarren ohar kritikoa. Kontsumoaren gizarte kapitalistan bizi gara. Pertsona, produkzio eta kontsumo makinerian galduta, bere esanahi guztiaz gabetua dago, ekoizle, kontsumitzaile, administrazioko zenbaki, hots, funtzio baten elementu soil bilakaturik. Izan liteke estrukturalismoa sistema horri hobekien dagoen filosofia.

Puede ser, en efecto, la filosofía más adecuada para estructurar la famosa ‘sociedad de la abundancia’, la cual trata de asegurar condiciones materiales de existencia cada vez mejores al hombre, al mismo tiempo que niega prácticamente la existencia de éste, como ser sustante y sujeto responsable de la vida social<sup>22</sup>.

- Hirugarren kritika eskuratu dugu honekin: «Eta filosofía horrentzat, gizona zer da?, galdetzen du *Estrukturalismoa* artikulutxoaren amaieran. Hitz bat —erantzuten du—, edo hitz talde bat, besterik ez. Egiazko gizona ezta agertzen gaurko estrukturalismoan». Eta aurre horrek zer atze dakarkeen abisua: «Soziologian eta politikan estrukturalismo jokabidea erabiltzen dutenak arrisku handian daude, gizonik gabeko gizarte bat eraiki nahi izatean»<sup>23</sup>. Kezka berdinek betetzen dute «El hombre sin hombre» artikulua:

Resulta ahora que el siglo XIX había ‘inventado’ al hombre, pero que el hombre no existe, que es un mito, una pseudoidea [...]. Dios había muerto. Ahora el hombre ha muerto, sólo quedan las estructuras<sup>24</sup>.

### ***Existentialismoa***

Zer da existencialismoa? Erantzunik ez dago. Ezin da egon. Edo, ezin da, existencialismotik bertotik emanda behintzat.

Si algo hay que repugne al existencialismo es el dar definiciones. Definir es querer apresar las cosas entre las paredes de los vocablos, aherrojarlas entre las cadenas de los conceptos abstractos, ponerlas, en suma, en conserva. La definición, el concepto, son a la existencia lo que una sardina en salazón es a una agilísima sardina, vivita y coleando entre la espuma<sup>25</sup>.

Existenzialismoa bizitu egiten da, ez definitu.

Baina filosofiak, nahitaez, kontzeptuekin dauka zerikusia eta zeregina. Bizipenak pribatuak dira, eta komunikaezinak, kontzeptutik pasatuta ezpada. Gure barne-intuizioak eta esperientziak metodikoki analizaezinak dira, haien natura tximarrikatu eta andeatu gabe... Interesgarria dugu hori, Santamariak zer-nola-ko filosofia bilatzen duen ikusteko.

Aita Iturrioz jesuitak hitzaldi batzuk eman zituelarik Donostian existenzialismoaz, entzuleengan «egonezina» esnatu izanak pozten du bereziki Santamaria. Eta ulertzen da, aspaldian egoneziko egon zaharrear bizi zen gizarte donostiarrean. Batzuek egonezina arimako bakeari, tentuari kontrajartzen omen diote, espirituko gaitz bat balitz bezala. Existenzia, ordea, osteratzen du Santamariak, ez zaigu eman atsedean hartzeko. Bizitza jatorki humano bat nekez irudika daiteke egonezinik gabe. Ozeano barneko esponjak eta polipoak eta itsas barraskiloak, agian, halaxe biziko dira ur sakon bigunetan kulunkari.

Pero vivir simultáneamente tiempo y eternidad, absoluto y contingente, espíritu y animalidad, realidad y deseo —que todo es vida humana— no puede hacerse sin conflicto ni pelea interior<sup>26</sup>.

Espiritu lokartuok astintzean sumatzen du Santamariak existenzialismoaren positiboena. Eta ez Donostian bakarrik.

Baizik baita, metafisika klasikoaren handitasunaren ondoan, haren miseria begi-bistara ateratzean ere. Metafisikak mundua eta munduko zerak kontzeptuetan ezagutzen ditu eta, beraz, unibertsaltasunean, ez bakoitza bere bakoiztasunean.

Pero el ser individual es, desde cierto punto de vista, lo que más me interesa en este mundo. Mi vida y mi muerte, vistas desde dentro de mí mismo: como actor, no como espectador; como sujeto, no como objeto del pensamiento. Es mi propio misterio el que intento afrontar<sup>27</sup>.

Existenzialismoa, pentsamendu kontzeptualaren aurkako matxinada bat da. Eta nor bere nortasun eta banakotasunean atzemateko haren xedea «problema cuasi-religioso que el existencialista se propone» bezala ulertu dizu. Zientzien ezaskitasunak metafisika eskatzen badu osagarri, metafisikak ere badu bere ezaskitasuna, «existenzialismoa» —nolabait esateko— eskatzen duena.

Santamaria, ez da bakarrik bizi Donostian existenzialismoa Aita jesuita batek ezagutzera ematen duen gizartean, ezpada baita ere Vatikanok existenzialismoa bezalako filosofia bat dogma katolikoarekin adostezin bezala

oraindik solemneki kondenatu egiten duen garaian. 1950eko abuztuaren 8an Pio XII.aren *Humani Generis* entziklikak, «doktrina katolikoaren oinarriak azpiztea mehatxatzen duten iritzi oker batzu»-en artean, existentzialismoa gaitzetsi zuen. Giro hartan zedarritu behar zuen Santamariak bere jarrera filosofikoa.

Berari interesatzen zaiona, esango du Santamariak, ez da existentzialismoa filosofia gisa, jarrera legez baizik. Filosofia edo eskola gisa, existentzialismoarekiko harremana, pertsonalista guztiena bezala Santamariarena, hurbila eta kritikoa izango da une berean. Adibidez, antsiarekin edo larriminarekin existentzialistek sofisma bat egiten dutela salatuko du, adjektiboa edo adberbioa substantibo bihurtuz: «Inquietamente vivimos, pero no *somos* inquietud. De nuestra esencia es el mudar, mas no *somos* sólo mudanza»<sup>28</sup>. Berdin, Aita Santuarekin adostasuna bilatuko du Santamariak. Aipaturiko entziklikak arrazoiketa metafisikoaren balioaren ezespena egozten zion existentzialismoari: «La verdad es que un existencialista sincero no se halla en condiciones de impugnar el valor del raciocinio metafísico desde un punto de vista genérico», argituko du Santamariak.

El existencialista que niega fundamentalmente el valor del raciocinio metafísico no solamente es traidor a su propia vocación y comete un error lógico, al sacar conclusiones universales de premisas singulares, sino que emprende un camino peligroso que la Iglesia no puede aprobar<sup>29</sup>.

Existentzialistak badaude sinesgabeak, baina fededunak ere bai. Batez ere, aitzindari historiko handiak dira San Agustín, San Bernardo, Pascal, etab. «La actitud existencialista no es una filosofía [...]. Es una actitud prefilosófica o, más bien, pre-religiosa»<sup>30</sup>. Santamariaren kontzientzian hori garrantzizkoa baita: filosofia jatorra erlijiozko arazoarekin josita ikusten du eta.

Valga lo que valiere como indagación de la verdad, el existencialismo constituye un despertar o, más bien, un retornar a la prístina fuente de la filosofía: a la urgente necesidad de saber lo que somos y lo que estamos destinados a ser<sup>31</sup>.

Santamariak bilatzen duen filosofiak bi baldintza behar ditu: sinplea izan eta «praktikoa» izan (bizitzaren arazoari erantzuten diona), biak lotu-lotuak bata bestearekin.

Filosofo gehien-gehienak erremedio gabeko arkitektoak izan dira, sistema konplexu galanten eraikitzaileak.

Lejos de respetar la cristalina ingenuidad de la fuente [iturri erlijioso edo mitologikoa, esanahiko da, nik uste], se han dedicado a rodearla de esos imponentes monumentos de mármol lógico que son los sistemas<sup>32</sup>.

Horra orain sistemak dozenaka, elkarri oztopo eta ukoka, beren terminologia girgileru artifiziosuekin. Nahi duenak hauta dezake nahi duena. Fichtek esan bezala, zer filosofia suerte hautatu, zer gizaki suerte izatearen menpean dago. Baina zer arraio balio diote filosofia hanpurutsu horiek guztiak amaren seme arruntari, «al hombre corriente, al homo qualunque, que no pretende hacer pinitos filosóficos, sino llevar adelante la aventura de la vida»?<sup>33</sup>. Batez ere, gizaki modernoak, sistemon luxu arkitektonikoa gorabehera, eraikuntzon lehorrak ezin ase dion egarri kiskalgarria omen darama barnean<sup>34</sup>.

Hogeita bost mende pasatu eta gero, atzera abiapuntuan aurkitzen gara, jakituriazko ezjakintasun sokratikoan: filosofia, jakintzaren ez-jabegoa, baizik bilaketa, non eta bakoitzak bere barnean «ezagut ezazu zeure burua». «La sabiduría socrática se limita, pues, a decidir lo que hemos de hacer de nuestra existencia, es decir, a un saber práctico y moral»<sup>35</sup>. Horretarako egin behar dena, hain zuzen, nor bere barnera jaitsi, isiltasunera bildu, jakin uste dugun sofistzeria dena ahaztu eta ezjakintasunean murgildu. Eta hor, Santamariaren sentieran, Sokratesekin bat egiten du funtsean Frai Joan Gurutzekoak («para venir a saberlo todo, no quieras saber algo en nada», behin eta berriz aipatuko da), eta mistiko karmeldarrekiko filosofo existentzialistak. Batasun puntu horretan hasi nahi du Santamariak bere filosofia. Filosofia ahaztuz, beraz (eskolak, sistemak: «el sistema socrático es que no hay sistema»). Eta intelektualki, biluztasun horretarako, existentzialismoa izan liteke gaur egun laguntzaile maieutikoa: «el existencialismo renueva hoy la misma preocupación ante la insinceridad de tanta arquitectura filosófica»<sup>36</sup>. Santamariak, letran ados entziklikarekin, baina espirituan oso urruti ziur Pio XII. agandik, krisi sokratiko bezala ulertu du existentzialismoa.

## **Marx**

Ordu asko eman dio Santamariak Marx aztertzeari<sup>37</sup>, eta:

He espigado en ellas multitud de ideas filosóficas —*sit venia verbo*— importantes para el conocimiento de la vida y del mundo. Pero he llegado también a la convicción personal de que el materialismo dialéctico es la más potente máquina que se haya montado jamás contra la creencia religiosa. Pienso que en este sentido el marxismo ha sido altamente perjudicial para el porvenir moral y espiritual de la humanidad<sup>38</sup>.

Mendeurren-ospakizuna tarteko, Lutero eta Marx erkatu ditu behin: «ambos —deritzo Santamariak— pusieron la tarea fundamental de sus vidas en un mismo problema: el problema de la salvación del hombre»<sup>39</sup>. *Salbazio* hitzak adiera osoki ezberdina du, noski, bietan. Luterorentzat giza natura errotik

galbideratua dago, ezin du bere obraz askatu eta salbatu; Lutero guztiz pesimista da giza ekintzaren ahaltasunei buruz etorkizun zoriontsu eta justu bat eraikitze-ko (baina gogoan duen salbazioa —justizia— transzendental eternoa da). Marxen buruan dagoena salbazio immanentea eta historikoa da, eta guztiz optimista da giza ekintzaren geroaz: gizakia bera da bere buruaren egilea eta bere patuaren for-jaria. Marx eta Lutero, pelagio eta anti-pelagio bezala hezuramitzen ditu<sup>40</sup>.

Ohargarria: Lutero eta Marxen artean Spinoza kokatzen da,

... el primero que intentó secularizar la idea teológica de salvación. Construyó la idea de una nueva beatitud que, en el fondo, no tenía nada que ver con la esperanza cristiana de salvación eterna. La beatitud spinoziana venía a ser algo así como la *introducción de la eternidad dentro del tiempo*. También Dios era introducido en la Naturaleza. Y de todo ello resultaba un nuevo género de felicidad, la contemplación del alma sobre la Naturaleza puramente idealista<sup>41</sup>.

Hein horretan, Spinoza oraindik nahikoa gertu dago judaismotik edo kristautasunetik. Gero gertatu da gizaki garaikidea ez dagoela kontenplazio eta idealismoetarako. Sinesgabezia aitzinatu eta hedatu ahala, Jainkoaren ideia buruetatik desagertuz joan ahala, alegia, zorientasuna ere denborazkoa eta kontsumo-gizartearen era-erakoa pentsatu dela, geroz eta gehiago. Salbazioa orain eta hemen, denboran eta espazioan: hori behar du oraingo gizakiak. Salbazio hori da Marxek iragarria.

Halere, Santamariak beti bortizki azpimarratzen du Marx funtsean (erlijioaren ukatzailea eta abar bai, baina) moralista erradikal bat dela<sup>42</sup>. Injustiziaren haserretik eta saminduratik sortu da marxismoa, eta haserre horren zientzia izan da beti<sup>43</sup>. Ezduintzea egitate etikoa da<sup>44</sup>.

Iraultzailea izateaz aparte, Marx filosofoa da. Santamariak oso positiboa ikusten dio filosofia ekinkor bihurtu izana, hain zuzen. Marxek «trataba de poner en marcha una filosofía actuante y operante que se identificaba con el quehacer revolucionario. En Marx se trataba pues de un nuevo modo de filosofía»<sup>45</sup>. Eta beharbada negatiboena ikusten dio gizakiaren kontzeptu generikoa, ez pertsonala. Hori dela eta, Marxen optimismoa ere —gizadiaren salbazioaz historiaren bilakaeran— problematikoa iruditzen zaio Santamariari.

Este optimismo no se refiere al hombre individual —a cada hombre de carne y hueso— sino más bien al hombre colectivo, a la Humanidad. Marx escribe en su *Teoría de la plus-valía*: «El desarrollo de la especie debe realizarse por de pronto a costa de la mayoría de los individuos humanos y de ciertas clases de hombres, aunque al final se romperá ese antagonismo y el desarrollo del hombre coincidirá con el del individuo. Es decir —añade Marx— que *el desarrollo superior de la individualidad tiene que ser*



*comprado mediante un proceso histórico en el cual los individuos han de ser sacrificados». El individuo tiene pues que esperar a que se salve la sociedad para ser salvado él mismo. Todo llegará, ciertamente, pero entretanto el individuo tiene que sufrir su suerte. Doctrina poco reconfortante para el hombre de hoy<sup>46</sup>.*

### **Blondel**

Esan dezagun Blondelek birkontziliatu zuela Frantzian kristautasuna filosofia modernoarekin (filosofia kristau ez-neotomista bat landuz). Filosofiagintzarako, funtsean, bi eredu omen daudelako topikoari oraindik eutsi nahi bazaio, platonikoa eta aristotelikoa alegia, tomismoa ezbai gabe modelo aristotelikoaren itzulpen kristautzat hartuz, Blondelek eredu platonikoaren gauzpen kristau garaikidea adierazten dizu Santamariarentzat.

Maurice Blondel (1861-1949) «ekintzaren filosofia» deritzonaren autore biziki polemizatua izan da. Materialismoaren abandonua, positibismo edo zientifismoaren ukoa, «pertsonek osoaren» eta harekin batera metafisikaren errebindikazioa filosofiagintzan, etab.: puntu asko dira Blondelen filosofian Santamariari interesatu beharrekoak. «Ekintza», propioki, adiera zabal-zabalean, *fieri* gisa ulertu behar da filosofia horretan, *esse* geldu metafisikoari kontrajarria. Horrela, azken finean, izan, dena eta edozer gauza, ekintza da; izatearen kontzeptuari ekintzarena lehenetsi behar zaio oinarritzkoena bezala. Ekintzaren analisi fenomenologikoak eskala bat erakusten digu, ekintzaile fisikoen «ekintza autentiko» guztiz txirotik pertsonen ekintza-mundu libre eta kreatzailerari (ekintza horretan kontenplazioa ere barne dagoela), goren mailako «ekintza hutsaren misterio» jainkozkoraino. Filosofiak erlijiora darama, «apologia» bilakatzen da berriro.

Santamariak Ekintzaren Filosofiak bere egunean sortu zituen eskandaluak gogoratzen ditu (*L'Action*, 1893): izan ere, Blondelen planteamenduek, aurrenik, intelektualeria (teologiko eta filosofiko) katolikoa bera eskandalizatu zuen, fideista edo irrazionalista ote zen, modernista ere bai, etab. Eskandalu handia sortu zuen giro unibertsitarioan, bestetik, XIX. mendearen buruko espirtu akademikoan pentsaezina zirudielako erlijioaz filosofikoki benetan enplegatzea.

Nadie prevé entonces el derrumbamiento de la ciencia positivista ni la gran crisis de insatisfacción que había de seguirle y que hoy se manifiesta en lo que se ha dado en llamar genéricamente existencialismo. Menos aún se prevé la pervivencia del cristianismo como fuerza cultural<sup>47</sup>.

Garai-giroko jende positibista hari (Renan aipatzen du adibide gisa) «pinto-resca feria de ilusos» deritzo Santamariak. 1949an, Blondel, zahartua eta Elizan

bezainbat filosofian omendua, hil denean (bitartean bi Mundu Gerra daude), aspaldiko historia haietara itzultzen ditu Santamariak bere begiak:

El orgullo ilustrado y un tanto pedantesco del siglo XIX ha debido ceder el paso a un expectante despertar filosófico, del cual ha sido Blondel uno de los más caracterizados artífices<sup>48</sup>.

### *Maritain*

Oker handi gabe esan daiteke, nik uste, Jacques Maritain (1882-1973) izan dela Santamariaren maisu gorena filosofian. Eta Santamariaren lan filosofikoan parte on bat izan dela haren pentsamenduaren azalpena, edo haren gogoetaren luzapena gure egoerara.

Maritain Parisen sortu zen, tradizio liberaleko eta XIX. mendeko borroka politiko errepublikarretan askatasunen alde gailen ibiliriko familia batean. Henri-IV Lizeoan eta Unibertsitatean hartutako hezkuntza filosofikoa, positibista, materialista izan zuen: haren irakasle distiratsuenaren arabera «adimena ez (omen) zen 38 gradutan bizi den materia bigun bat besterik» eta haren epifenomenoa baino ez kontzientzia. Filosofiaz etsita, Maritainek zientzia enpirikoetan sakondu du, biologian bereziki, Sorbonan eta Heidelbergen. Hogeita bi urterekin, estudiantetan ezaguturiko Raïssa, neska judu errusiarra, bizitzan eta filosofiagintzan lankide izango duena, esposatu zuen («arazo juduak» ondorio politikoak eta intelektualak izango ditu Maritainentzat): 1906an biak katolizismora konbertitu eta bataiatu egin ziren. Intelektualki ondoriotsuena, Bergson, Nietzsche eta abarregandik pasatu eta gero, Aita Clérissac domingotarraren bitartez egindako San Tomasen aurkikundeia izan da:

Moi [hala berak aitortu], qui avais voyagé avec tant de passion parmi toutes les doctrines des philosophies modernes, et n'y avais rien trouvé que déception et grandes incertitudes, j'éprouvai alors comme une illumination de la raison: ma vocation philosophique m'était rendue en plénitude.

Biografia labur horrek, pentsamendu katolikoan kokatu nahi du Maritainen esanahi historikoa.

Maritainek, esan ohi da, Elizaren eta mundu modernoaren arteko elkarriketa berrabiatu du. Santamariak berak honela azaltzen digu:

Aurreko mendearen 'progreso', sozial-ideiak eta demokrazi jokabidea kondenatuzat jotzen zituzten kristau gehienek, denbora apur bat dela. Berrizalekeria guziak sutzar handi batean erre eta lehengo jokura lehenbailehen itzuli behar zela pentsatzen zuten

askok eta berrizale berak sutzarrean kixkaliz gero ondo baino hobeto. A, mundu moderno madarikatua! Bainan Maritain filosofoak mundu berri horretan ondasun eta balore egiazkoak eta oso estimagarriak zeudela erakutsi zuen eta Elizak joku garbia egin zezala honetaz eskatu zuen, Edestiak eskatzen duenaren arauz<sup>49</sup>.

Frantziako Iraultzarekin Eliza ikaratu egin bazen, Napoleonekin, eta Napoleonen porrotarekin eta Errestaurazioarekin, ostera, lasaitu ahal usteko zuen. Bakarrik 1848ko uhin iraultzaileak Europa osoa dardarazi zuelarik, sekula baino larriago, Elizak ordena tradizionala (Erregimen Zaharra) sutsu defendatu beharrean aurkitu du bere burua, demokrazia, Errepublika, sozialismoa eta beste heresia modernoek eraso atseden gabeetatik inola salbatu ahal izateko moral, erlijioa, Eliza, Jainkoa. Horrela, kausa bera bihurturik eta mehatxu beraren arriskuan bateratuta katolizismoaren etorkizuna eta «ordenarena» (zentzu burges liberalerako «jabegoaren dogma sakratua», etab., baina baita Erregimen Zaharreko autoritatearen jainkozkotasuna eta klase sozialen hierarkia sakratua ere), Frantziako kleroak salbazio modura agurtu zuen Napoleon III.aren estatu-kolpea 1851n. (Espainian, urte horretakoxea da Donoso Cortésen *Ensayo sobre el catolicismo, el liberalismo y el socialismo*). Ordea, hain zuzen, Maritainen aitona izan zen mugimendu errepublikanoaren buruzagia Napoleon III.aren diktaduraren aurka, Jules Favre tribunoa, lehen II. Errepublikan diputatu polemiko famatua eta, Sedango ausiabatzen ondoren Napoleon eroritakoan, «Defentsa Nazionaleko Gobernuan» atzerri-ministro zela bakea sinatu zuena Prusiarekin. Maritainen irabazia da, Santamariak hau azpimarratu nahi du, erreakzioarekin bat egindako ibilbide antiliberal, antidemokratiko, antimoderno hori Elizan apurto izana.

Egia esan, kristau pentsaerak zor handia dauka Maritain jakintsuarekin, honen azterketa sakonek Eliza ta munduaren arteko elkarriz gaurkoa posible egin bait dute. Gero etorri dira besteak, Mounier, De Montcheuil, Pribilla, Congar, Leclercq, Murray eta horrelakoak, bainan errez ikusten da iturburua nun dagoen<sup>50</sup>.

Orain, dagoeneko, «Maritain jaunak sumatutako bideari jarraitzen bait dio Elizak aspalditxo honetan». Ia-ia *Index*-ean sartua izatetik, maisu filosofo kasik ofizialetara etorri da Elizan.

Hoy es uno de los amigos preferidos de Paulo VI y puede asegurarse que gran parte de su pensamiento político, de defensa de los derechos del hombre, y ecuménico, de diálogo constructivo con gentes de todas las creencias, ha cuajado admirablemente en las actuales formulaciones conciliares<sup>51</sup>.

Badago Maritainen beste kapitulu bat, Santamariak den bezala inoiz garbiegi esan ezin izan badu ere, Elizari orokorki baino Espainiako historia izan

berriari lotuagoa, eta Euskal Herriari. Maritainen altxamendu frankistaren gaitzespen zalantzarik gabea da, eta hura zuritu nahi zuen apezpikutza espainolaren ezespena; Gernikako bonbardaketaren kondena, gero, eta Euskal Errefuxiatuen aldeko Ligari gerizpea Frantzian. Maritain, erreparatzen du Santamariak, ez da «filósofo puro» bat izan, beharbada Zubiri izan daitekeen eran (aipamen bat haren jarrerari frankismoari buruz?), osoki espekulazio metafisikoari emana. Bere ahalegin intelektualaren alde handi bat eskaini dio pentsamendu politiko eta sozialaren eraikuntzari («de inspiración cristiana, pero de modernidad indiscutible»), pertsonari eta haren askatasunari esleituz leku zentrala bertan. Hori ez da kabineteko lan barea izan.

Estas mismas ideas le obligaron en los años treinta-cuarenta a librar grandes batallas ideológicas contra el totalitarismo imperante, que se había adueñado de muchas mentes, e incluso de un gran número de mentes cristianas. Decir que, en aquel momento, en que Maritain defiende la libertad y la democracia frente al fascismo y al nacional-socialismo, muchos cristianos europeos deseaban ardientemente el triunfo de Hitler y que una buena parte de la jerarquía católica estaba más o menos ganada a esta idea, no tiene hoy nada de extraño ni de revelador. De aquí el tremendo choque que opuso a Maritain con el régimen español de la época y con los teólogos reaccionarios que exigían su condenación como ‘modernista’<sup>52</sup>.

Hala izan da, izan ere. Bilboko *La Gaceta del Norte*-n (1938-06-24), «la gran infamia de Maritain» gibelarazteko Serrano Súñerrek berak adierazten zuenez, «tenemos un enemigo más poderoso que el ejército rojo, más peligroso que el socialismo y el comunismo [...], al judío y traidor Maritain». Estatu-etsaia, beraz. Eta, zer esanik ez, Elizaren eta fedearen etsaia, orobat, jende horrentzat. Leopoldo Eulogio Palacios Profesoreak, «los valientes obispos españoles»-en aldean, koldarra eta ateista zeritzon Maritaini, eta haren humanismo sasikataliko omenari «cobarde por naturaleza, oscuro por vocación, confuso por procedimiento» eta pareko lili gehiago<sup>53</sup>. Maritainenganako gorroto nazional eta eliztar hori Santamariak behin baino gehiago nozitu beharko du berak pertsonalki ere, Donostiako Elkarrizketa Katolikoen kariaz, adibidez. Ez ditu arrazoi gabe gomutatuko «otros tiempos, en los que, en el Estado español, ser amigo de Maritain o de sus ideas equivalía a una especie de absurda y arriesgada aventura político-religiosa»<sup>54</sup>.

Maritainek, erreakzio beltzenean murgilduta egon nahi ez zuten katolikoei leku bat posible egin badie Elizan, Santamariari besterik ere eman dio garrantzitsu askoa bizitzan ibiltzeko: pentsamendu koherente bat, filosofia oso bat, ezagutzaren teoriatik metafisikaraino.

Maritainek berrogeita hamarren bat liburu idatzi ditu, eta hiru bider gehiago bai saioak. Denetarik ukitu du filosofiako arloetan, naturaren filosofiatik artera eta eskolastikara, mistika hindua, moralak, politika, epistemologia eta, bere gardiz adina bere interpreteenean, metafisika guztiz gain. Gizakia «transzendentalez elikatzen den animalia» omen baita. Lehen printzipioen arazoa petrolioarena baino larriagoa dugu hortaz. Hain zuzen, bere filosofiaren helburua da epistemologiaren orain arteko lehentasuna filosofia modernoan bihurtzea eta ontologiaren primutasuna berreskuratzea, hau da, idealismo modernoak hautsi eta errealismora itzultzea («errealismo kritikora»).

La filosofía de Maritain —irakurtzen diogu Santamariari— se inscribe en la línea del realismo. Esto significa que en ella se afirma la posibilidad de conocer de algún modo lo *real*<sup>55</sup>.

Jokoan, batez ere, Kant eta fenomenismo moderno guztia dago.

Para el realismo el conocimiento es una información certera acerca de la realidad que está fuera de nosotros mismos y sobre la cual podemos actuar y actuamos, dentro siempre de nuestra radical limitación. El idealismo —Santamariak askotan errepikatu duen pentsamenduaren historiaren ikusmoldeak dioenez— había debilitado y casi anulado esta fe en el valor del conocimiento. Había condenado a nuestros espíritus a devorarse a sí mismos, a vivir en soledad en medio de un mundo de sombras<sup>56</sup>.

Santamariak bere burua funtsean maritainiano aitortu izan du, bai gnoseologian eta bai metafisikan.

Azken urteetan, *Le paysan de la Garonne* (1966) liburuarekin, Maritainek inkimakoren batzuk sortu zituen bere publikoan berriro, alderantziz oraingoan, aurrerazaleen aztoramendu eta kontserbakorren gusturako<sup>57</sup>. «Ahora resulta —paradojas de la historia— que Maritain aparece a la derecha, y viene a ser, aunque involuntariamente, algo así como un inesperado refuerzo para el ala anti-conciliar»<sup>58</sup>, harritzen da Santamaria. Baina kapitulu horrek jada ez du izan sartu-irtenik Santamariaren pentsamenduaren historian.

### **Mounier**

E. Mounier (1905-1950) nahiko gazte hil zen: hogeita bost urte geroago egini omenaldi batean, Santamariak «hoy Mounier está pasado de moda» zerritza<sup>59</sup>. Uler dezagun: ez da nahitaez positiboa modan egotea eta negatiboa ez egotea. Eta inondik ere ez du esan nahi modan ez egoteak, Santamariaren luman, ez duela gaurkotasunik. Orduan bertan, Santamariak bere burua haren

eta hark aldarrikatzen zuen esperantza kristauaren ume espiritual aitortzen du, ezagutuz halaber «su pensamiento sigue siendo actual para nosotros»<sup>60</sup>.

Ikasketa filosofikoak buruturik, Mounierrek bere heziketa filosofiko eta erlijiosoa sakontzen jarraitu zuen J. Maritain, N. Berdiaeff, G. Marcelen hausnarketan ildoan, humanismo kristau bat bilatuz. Bizi zen borbor sozialak eta politikoak, 1929ko finantza-porrotak eta ondorengo miseria ekonomikoak, bereziki, analistentzat merkatuaren krisia besterik ez zena eta moralistentzat balioen krisia, ikusarazi zioten egiatan «zibilizazioaren krisi totala» zela, eta hirugarren bide bat asmatu beharraz konbentzitu, liberalismo kapitalistatik eta kolektibismo despotikotik aparte. 1932ko urrian, hainbat lagunekin eta lankiderekin *Esprit* aldizkaria sortu zuen borroka horretarako, berebiziko eragina izango baitzuen horrek hurrengo urteetan, gerrara arte lehenengo eta gerraoste hurbilekoan gero, Europa osoan noski, baina seinalagarria guretzat Euskal Herriko «kristau ezkertiar» askorengan izandakoa. Faxismoaren gorak eta fase oldarkor militaristak (1935: Abisiniako Gerra; 1936: Espainiako Gerra Zibila) behin betiko argitu eta finkatu zion asmoan hirugarren bide bilatuak «iraultza pertsonalista» izan behar zuela, hots, pertsonaren askatasun egiazkoan errotua.

Mounierren pentsamendua eguneko gertakari konkretuei buruz iritzi emanez isuria da; haren jarrera, mementoko egoera politiko eta sozialarekin aurrez aurrekoan definitu zen aldian-aldian. Bere borrokaren funtzioan eta mementoko beharren arabera. Beraz, pentsamendu bizi-bizia den bezala da iheskorra, gero, erien artean. Sistema baino gehiago jarrera da. Ekintza da. «Lo esencial de Mounier es el espíritu, el talante, la esperanza y la fe de un cristiano que intenta a toda costa debatirse con la historia real»<sup>61</sup>.

1940ko urteetako Espainian Mounierren filosofiak («aquél pensamiento, considerado como semi-herético, que nos llegaba del otro lado de la frontera pirenaica») zenbat lagundu zien, oroit-eskertzen du Santamariak. Espiritualki zutik irauten irakatsi omen zien, eta fededun jarraitzen, fedea nolakoa izan behar duen ere diktatu nahi zuen lotsagarrikeria zesaro-papista gorabehera.

Kontua da zer egin egoerak, gertakariak, horizonteak aldatu direnean. «Mounier no dejó una obra filosófica, ni una doctrina o un pensamiento duradero que pudiera servirnos para hacer frente a los problemas de ahora [...]. Falta sobre todo una teoría coherente que pueda ser aplicada con eficacia al mundo y a la iglesia actuales», auhendatzen da Santamaria, Maritainek egin zuenaren antzeko gogoeta sistematiko eta printzipiozkoaren falta adierazteko, segurue-na. Beharbada, horregatik protestatzen du pertsonalismoaren «asmatzaile»

Mounier bakarrik hartzearen aurka ere, ohore horretan lehenetasuna, gutxienez haren alboan, Maritaintzat galdatuz<sup>62</sup>.

Edonola ere, Santamariak berak errepikatzen du J. Lacroixekin pertsonalismoa ez dela ideologia edo filosofia<sup>63</sup>, inspirazio bat baizik<sup>64</sup>. Eta, adiera hertsia horretan, doktrina-sistemeekin elkarrezina. Pertsona ez dago definitzerik, eta pertsonalismoa ez dago formula jakin batzuetan biltzerik. Beraz, pertsonalismoaren maisuek inspirazio horretan lagundu ahal izango ligukete, hoberenean ere; inoiz ez ideiak eta tesiak egosi eta gertu irakatsi.

Egia bada kristauak bi eratakoak daudela, apokaliptikoak —ebanjelioa horientzat iraultzarako sua izaki— eta konstantinianoak —erlijioan ordena ezarriari eusteko barradera tinkoena ikusten dutenak—, Mounier, zalantzarik ez omen dago, lehenetarikoa zela. «Su idea de defender a la persona como centro de la historia es esencialmente revolucionaria»<sup>65</sup>. Batetik, gaudenaren iraultzarik ez delako egiaz posible kontzeptu bezala ere, pertsonatik abiatuz eta pertsonari begira baizik. Eta ekintza bezala, bestetik, askatasun-borrokarako indarra han sustraitzen delako. Bataz: Marxismoaren arrakasta historikoa bera, adibidez, egun inork ukatu ezindakoa, karia horri zor omen zaio neurri handian. Askok uste du Marxen ekarpena funtsean zientifikoa izan zela. Baina Marxen baitan indar handiena izan zuena, haren grina izan zen, haren gaitzidura-ahalmena, ezduintzea, amorrua.

Ez zen zientzia izan, iraultzara eramane zuena, grina iraultzailea baizik zientziara eramane zuena. Sentido honetan esan ahal litzateke, iraultza marxista ere, mutatis mutandis, iraultza pertsonalista dela<sup>66</sup>.

Besteaz: gauza ikusia omen da historian zehar, Santamariaren aburuz, giza pertsona zapaldu nahi izan duen ororen aurkako erresistentzia-indar bortitza dela, eta indar horrek zerikusi handia duela historian, hori esplikatzeko hura bakarrik aski ez bada ere.

En los países dominados por Hitler surgió la rebelión de la persona, sin distinción de ideologías y llegó a alcanzar una fuerza enorme. Comunistas y cristianos lucharon juntos y Mounier vivió aquellas batallas comunes<sup>67</sup>.

Estatu komunistetan, Txekoslovakian partikularki, antzeko erresistentzia bat sumatzen du Santamariak indar hartzen zapalketaren aurka: «empieza a levantarse con energía una forma de rebelión que no es sino la revolución personalista»<sup>68</sup>.

Santamariak 1975ean idatzi zuen hori dena. Geroari buruz, hausnarketa-desira hauxe agertzen du: beren botere ekonomiko eta militar neurrigabeak

eramanda, Estatu Batuak, lehen askatasunaren alde jokaturikoak, antihumanismoaren aldean ari dira kokatzen geroz eta gehiago. Iparramerikarrak, Vietnamgo Gerrarekin jazo bezala, Hitlerren aurkako erresistentziaren antzeko bategin kausi daitezke laster: pertsonaren iraultzarekin, Estatu Batuen aurka<sup>69</sup>.

### **Simone Weil**

Santamariaren izkribuetan maiz aurkitzen dugun izena da Simone Weil (1909-1943), batez ere, *L'Enracinement* haren liburua<sup>70</sup>, «que aquella elegantísima mujer escribió con el corazón, al mismo tiempo que con la cabeza, que es como debieran escribirse todos los libros que hacen referencia al hombre y a lo humano»<sup>71</sup>, aitortuz hari zor dizkiola «algunas de mis más íntimas convicciones»<sup>72</sup>. S. Weil andre judutar frantsesaren pentsamendua esperientzia pertsonal eta sozial gogorretan garatua da, XX. mendearen krisia gogoetatuz<sup>73</sup>, bere modura San Joan Gurutzekoak mistikoki azaldutakoaren antzeko «ezdeustapen» posizioetara heldua, filosofia bidez. Urteak joan, urteak etorri, Santamaria behin eta berriro itzultzen da autore horrengana.

Simone Weilen *L'Enracinement* izeneko liburua berriro irakurtzeko asmoa nuen aspaldi honetan —idazten zuen *Zeruko Argia*-ko «Dizdira» batean—. Atsegin da, noski, noizean behin bide ezagunen barrena berriz ibiltzea. Idazti zaharra, lagun jatorra. Liburu argitsu hau hartu eta neronek ipinitako makina bat oharketa eta azpi-marra arkitzen dut bere orrietan: 'Gaurko gizonak erroztapena du premiarik nagusiena, dio Simone Weilek<sup>74</sup>.

«L'enracinement —beste noizbait ere aipatu izan duen legez— est peut-être le besoin le plus important et le plus méconnu de l'âme humaine»<sup>75</sup>. Behar sorta bat da gizakia, batzuk behar fisikoak, besteak moral edo espiritualak: ordena, libertatea, eta abar, eta egia, eta arimako sustraiak (komunitatean, historian). Krisiak, ordea, deserrotu egin gaitu.

Le déracinement est de loin la plus dangereuse maladie des sociétés humaines, car il se multiplie lui-même. Des êtres vraiment déracinés n'ont guère que deux comportements possibles: ou ils tombent dans une inertie de l'âme presque équivalente à la mort, comme la plupart des esclaves au temps de l'Empire romain, ou ils se jettent dans une activité tendant toujours à déraciner, souvent par les méthodes les plus violentes, ceux qui ne le sont pas encore ou ne le sont qu'en partie<sup>76</sup>.

Erro gabezia, klasekoa izan daiteke (proletarioa, landatarra), edo izan daiteke nazionala ere, batez ere nazio bat konkistatua izan denean, konkistatzaileak era makiavelikoan probokatua. Europako estatu modernoak horrelaxe osatuak



dira. «Quand on loue les rois de France d'avoir assimilé le pays conquis, la vérité est surtout qu'ils les ont dans une large mesure déracinés»<sup>77</sup>. Koloniei beazala («comme on arrache les petits Polynésiens à leur passé en les forçant à répéter: 'Nos ancêtres les Gaulois avaient les cheveux blonds'») <sup>78</sup>, herrialdeoi beren memoria historikoa apurtzen eta lapurtzen zaie, beren identitatea —erroak— erazuteko. Giza arima, ordea, komunitatean errotzen da, komunitatea historian:

La collectivité a ses racines dans le passé. Elle constitue l'unique organe de conservation pour les trésors spirituels amassés par les morts, l'unique organe de transmission par l'intermédiaire duquel les morts puissent parler aux vivants<sup>79</sup>.

Simone Weilek eta, bereziki, aipatzen ari garen liburua, nazioaren, komunitatearen, aberriaren kontzeptuetan eduki du eraginik handiena Santamariaren gogoeta moldean<sup>80</sup>. Abertzaletasuna *versus* marxismoa Euskal Herrian egon den eztabaidan, «Gazte ezagutzeko bati» Santamariak andre antinazi eta tradizio frantses ezkertiarreneko honekin erantzun dio:

Neretzako gizona, egiazko gizona izateko, 'erroduna' izan behar da, alegia, zuhaitz eta landare guztiak bezala, lur batean, herri batean, sartu behar ditu bere sustraiak, etsimen gorrian erori ez dadin.

Emaiozu nahi duzuna, dirua, aurrerapena, gizarte desalienatua sozial estrukturak eta ekonomiaren aldetik. Baldin familia baten eta herri baten, eta tradizio baten berotasuna eta goxotasuna ez badu, etsimenean eroriko da gizona ezinbestez eta hala-beharrez. Hori da gizonon legea beti eta nonahi. Hemen, Errusian eta Txinan bertan hori da gure legea.

Baliteke zuk ideia hauek atzerakoi eta kontserbadoretzat hartzea. Bainan nere pentsaera beste bidetik dioa.

Izan ere, adibide bat bakarrik aitzeko, erro eta sustraien beharra ongi baino hobeto azaldu du idazle frantses ospetsu batek, Simone Weil andreak, mundu guztian ezaguna dena bere gertaera eta liburuengatik.

Simone Weil andreak marxistekin hartu-eman asko izan zituen, Frantziako *résistance* zelako garaian, baita hemengo gerlan, alde horretatik parte hartu zuen ere. Proletario-zale izugarria zen eta froga handiak eman zituen bere maitasunaz. Simone Weil andre burgesa zela, inork ez dizu esango.

Berak, errotasuna, sustraitasuna, nahitanahiezko gizonaren behar bat dela frogatu du, argi eta garbi, bere *L'énracinement* izeneko liburuan. Diruak, kapitalismoak, egiazko errotasunaren kontra jokatzen duela esaten du Simone Weilek. «L'argent détruit les racines partout où il pénètre en remplaçant tous les mobiles par le désir de gagner». Kapitalismoak, lurraren mamia eta amorega galduarazten die proletarioei, eta horrekin kalterik ikaragarriena egin ere.

Nonahiko herritan, sozial matxinadak sustrai gabeko gizon mota berri bat sortzen baldin badu, gizonaren kontra jokatzen du eta lehengoan baino lotuagoa aurkituko da jendea matxinada horren ondoan.

## IDEIA

Irakurri zazu, arren, Simone Weilek idatzi ditun berrogei orriak *le déracinement ouvrier* gaiari buruz eta proletarioen nahigaberik handiena deserrotasuna dela ikusiko duzu. Leitu ere *La condition ouvrière* liburua eta uste bera hartuko duzu.

Santamariak begirune eta maitazarre handienaz aipatzen du beti Simone Weil, «emakume argi eta bihotz berokoa», eta gomendatzen du haren aipaturiko liburua irakurketa: «Frantzia nahiko ezaguna da liburu hori, gure artean ez dut uste, bainan horren berririk ez badakizue oraindik, nere kontsejua da lehenbailehen bila eta irakurri ezazuela»<sup>81</sup>.

### ***Gandhi, Martin Luther King***

Indarkeria eta bakea beti Santamariaren ardurak biziak izanik, bera ebanjelioetan inspiratu da guztiz gain, baina haren lumatik maiz ilkitzen dira Gandhiren eta Luther Kingen izenak, beti begirune handienaz. Gandhiri buruz, nik uste, miresmen handienarekin batera, zalantzarik handienak izan ditu beti, ea haren «ez-biolentziazko» borroka beste baldintza batzuetara alda ote litekeen, Mendebalde modernora, alegia. Berdintsu esan daiteke Luther Kingi buruz. Beren efikaziaren zalantzak ez du halere haien maisutasuna eta ereduzkotasuna ukatzen. Martin Luther King (1929-1968) atentatu batean erantzen izan eta gero, Santamariak, Paristik bueltan<sup>82</sup>, aitortza hunkitu hau idatzi zion omenez:

Creo que no hace falta que explique al lector que Luther King era uno de mis grandes maestros espirituales. En el pequeño estante donde guardo esas grandes obras que uno se propone rumiar hasta la hora de la muerte (allí tengo a San Juan de la Cruz, a Gandhi y a Rabindranath Tagore, entre otros doce o quince más que no hay por qué citar) estaba ya Luther King desde hace tiempo y por eso yo le miraba como a un amigo íntimo, como a un hermano<sup>83</sup>.

Maisu handion ideiak Santamariak ez ditu beste gabe kopiatu ahal izan. Baina horiekin etengabeko solasean, eztabaidan, jarraitasunean eta diferentzian garatu du bere pentsamendu pertsonala bakeaz. Bakearen kapituluan ikusiko dugu zehatzago maisuokin eztabaida hori.

### ***Ortega y Gasset***

Santamariaren idazkietan Ortégaren izena (1883-1955) maiz ageri bada, haren ateraldiren baten apainduriarekin hemen, iritziren baten ezbaian hor, urteotako giro kultural arruntari erantzuten diola ematen du gehiago, bere pentsamenduan haren eraginik edukitzeari edo harenganako interes handia sentitzeari baino. Garrantzitsuak, Santamariarentzat, haren esanak baino ez esanak dira. Haren isilak.

Molde horretan, 1939an, mundu guztia sekulako istiluetan desesperatuta gerra erdian eta Ortega bere zerukeriak irakasten, *El Socialista* egunkariak atera omen zuen «El filósofo en la luna» karikaturaren anekdota, kontatzen du Santamariak. Izar eder artean, zeruan, Ortega y Gasset meditazio sakonen plantan, eta gizakume arrunt bat hari begira: «¡Oh, altísimo Don José! ¿Por qué no nos habla Ud. un poco de lo que ocurre en el mundo?»<sup>84</sup>.

Benetan bitxia da, komentatzen du Santamariak, nolako isiluneak dauzkan Ortegak, aintzat hartzen ez dituen gaiak, edo gai barruti osoak. Sozialismoa, materialismo dialektikoa edo klase borroka, oro har, problema sozialak<sup>85</sup>, apenas dauden kontuan hartuta, bestela guztiz hedatsua eta unibertsala eta bere baitan problematika oro barnebiltzen duela dirudien haren pentsamenduan. Eta berdin gertatzen da erlijioarekin.

Aintzat ez hartzea adinatsu, oker hartzea izan liteke. Adibidez, Ortegak komenigarri deritzon egitea «una exposición del cristianismo como puro sistema de ideas, pareja a la que puede hacerse del platonismo, del kantismo o del positivismo»<sup>86</sup>. Lehenengo, hori egon ez dagoelako; eta balego ere, bigarren, hori kristautasuna ez litzatekeelako<sup>87</sup>, edozein eremutan, eta erlijiosoan ere bai, erabil daitekeen intelektualismoa baizik<sup>88</sup>. Bereziki, Santamariak eskuinari beti kritikatu dion zer bait izan da, hain zuzen, fede bezala orde, ideologia bezala ulertzea eta erabiltzea kristautasuna, horrela interes politiko ezkutuak kontrabandatzeko<sup>89</sup>. Kristautasunak, eduki, badauzka ideiak, nahi bada ideien sistema bat ere bai; baina, izan, protestatzen du Santamariak, ez da ideologia bat, ez da moral bat edo bizierako araudiren bat ere, Bizitza bera da, *metanoia* edo konbertsioa da. «Se pueden barajar frases, fórmulas, conceptos, ideas y dogmas cristianos, sin alcanzar ni remotamente su sentido vital, ni tocar siquiera el misterio de la vida cristiana»<sup>90</sup>. Kristautasuna bizitza den bezalaxe, bizitzaren abandonua eta entrega (abandonatzen duenak aurkitzen du), paradoxazko esaldi modu hauetantxe ezpada ez dago formulatzerik, ez dago ideologia baten antzerira mailaz maila eraikitzerik.

Erljioari buruzko isiltasun hori, edo isildu ez denean ageri duen seriotasun falta bezalako hori, ez da Santamariaren gustukoa<sup>91</sup>. Ongi ulertzeko, Santamariari honetan guztian problema bihurtzen zaiona ez da erlijioa —horrela esatea baldin badago—, ez da irakaspen metafisiko edo teoria moral hobe ala txarra goen arazoa, gizakia ulertzearena baizik:

... me ha llamado siempre la atención que se haya podido escribir tanto y tan bien como lo ha hecho Ortega temas fundamentales del hombre y de lo humano sin casi hablar de Dios<sup>92</sup>.

Beharbada, honako testu honetan badago agresibitate pixka bat, literarioki distiratsua eta polita kausitzen den autore bat, barnagoan halere hutsal eta axaleko sentitzen delako:

De sus brillantes imágenes, de sus originales puntos de vista, de sus ingravidas frases, hállanse casi siempre ausentes la idea de Dios, la necesidad, el deseo y la esperanza de Dios. Y como estas cosas son clave, no sólo del arco religioso, sino también y en primer término de la ojiva filosófica, la filosofía de Ortega, sin dejar de parecerme un intento serio y sincero, me llena el alma de una tristeza infinita. Al pasear mi espíritu sobre las páginas de Ortega, he sentido en más de una ocasión, junto al embrujo estético que su lectura produce, una especie de claustrofobia que no acertaría a describir aquí<sup>93</sup>.

Beharbada, Ortégaren hutsune definitiboa, Santamariarentzat, honetan laburbil daiteke: ez du ulertu Joan Gurutzekoa (ezin zuen ulertu, alegia).

Unamuno fue, a su manera, hijo espiritual de este amador de la noche, aunque luego se alejara a comer sus algarrobas entre la niebla a respetable distancia de las zarzas eclesiales. Pero Ortega, que era, como se sabe, poco amigo de la mística, nunca llegó a comprender al ‘doctorcito’ carmelitano, lo que constituye un tanto en contra del inventor del raciovitalismo<sup>94</sup>.

Ortegak, beraz, ilustratu, dibertitu, estetikoki atsegindu egin dezake Santamaria. Baina honek pentsamenduan hori baino gehiago bilatzen du. Eta «para solucionar mi personalísimo problema prefiero bucear en otras aguas, quizá más procelosas, pero sin duda más hondas que las de Ortega»<sup>95</sup>.

Horren zentzua ulertzeko, ulertu behar da Santamariarentzat (haren maisu eta lagun askorentzat legez), erlijioa esaten duguna ez dela gizakiak eduki daukan zerbait, harekin zernahi egiteko, baizik gizakia izan den zerbait norbera izateko. Santamariak berea eginez aipatzen duen Zubiriren «religazioaren» gogoetan<sup>96</sup> ikusten da ongi: existentziara jaurtikia, gizakia ezdeustasun ontologiko erradikala da. Ezer ez da, eginkizun batzuk bete ahala bere izateratzekoa baizik. Ahaltasuna. Hori existentzialista arrunta da (urte horietan oso zabaldua, Heideggerrengandik Ortégarenganaino ere). Bere hutsak betetzen du gizakia. Baina —biratu du puntu honetan Zubirik existentzialismo ateistaren aurka— ez gaude ezdeusaren gainean huts-hutsa zintzilik haize aldera, ezerk ez duela inolako zentzurik, baizik geure izaeraren barnean gure burua «religatuta» aurkitzen dugu, lotuta, «obligazio» batzuez hornituta, beraz, orientatu eta bideratuta. Jainkoari gaude lotuta. Existentziaren erro sarkorrena Jainkoagan errotzen da. Gizakiak, gizatasuna osatzeko, erro horretan behar du tinkotu.

## Unamuno

«No se trata, pues, de plantear una nueva filosofía. Se trata nada menos que de hacer volver la filosofía a sus fuentes manantiales, cuya naturaleza es esencialmente religiosa», idatzi du Santamariak *Egan*-en (1949) Unamunori buruzko saio batean. Horregatik, Santamariak nolabait bere ahaide sentitu du Unamuno. Maisu, orobat, espresuki aitortu duenez, «aunque en cuestiones de ortodoxia y heterodoxia mis ideas caminen muy apartadas de las suyas»<sup>97</sup>. Unamunoren heterodoxiaren arrazoia haren haurtzaroko erlijio itxia, jansenista izan liteke behin<sup>98</sup>; baina, pittin bat gutxiago etorkor edo zertxobait gehiago objektibo bakarrik, apika, haren «harrokeria» izan liteke beste batean<sup>99</sup>.

Nagikeriaren, axolagabekeria edo utzikeriaren, edo soilki eta tentelki negozioaren gure kulturaren<sup>100</sup>, Unamunok (1964-1936) balio interesgarri asko hezuramaitzen ditu. Ortegarekin alderatuta, esaterako, Unamuno beste gauza bat da. Santamariarentzat Ortega ez da batere serioa bizi eta hil beharraren aurrean<sup>101</sup>. Alderantziz, Unamuno handitzen duena seriotasun gogor horixe da, eta horrek bihurtzen du liluragarri. «El ansia de permanencia y de inmortalidad, sinceramente confesadas, la inquietud por lo eterno es, a mi juicio, el máximo atractivo del catedrático de Salamanca»<sup>102</sup>.

Unamunoren beste abantaila bat da garbi antzeman izana, baita ere, problema erlijioso guttiz pertsonala dela, eta halere, edo horrexegatik, ez indibiduala, baizik kultura moderno osoarena eta horren barruan bakoitzarena. Errenazimentuarekin hasi eta idealismo alemanarekin jarraitu, adimen modernoa Santamariak «tragedia noetikoa» deritzon laprasturian amildu da, errealitatearen bila joan eta itxurarekin etorrira:

... hace tiempo que los físicos no creen en la Física como ciencia de la realidad material. Tampoco los matemáticos creen en las ciencias exactas, ni los filósofos en la Filosofía. Y si siguen cultivándolas es porque constituyen un entretenimiento y una manera de vivir. Pero han perdido la fe en ellas [...]. Al terminar el siglo XIX, mientras, en el orden práctico y de las aplicaciones, la Humanidad recoge la espléndida cosecha de los descubrimientos técnicos, el auténtico saber humano se encuentra en liquidación por derribo. Jamás el hombre pudo sentirse más desnudo, más desprovisto de Verdad<sup>103</sup>.

Krisi moderno orokorrak alderdi asko du (noetiko, moral, politiko, etab.); sustrai-sustraiaren erlijioso da. Hau da, gizaki moderno galduta dago, «con *la nada* entre las manos, como único material de trabajo»<sup>104</sup>. Existentialismoaren abiapuntua horixe da, hain zuzen: mundua ez da ezer, ez du errealiterik, dena itxura hutsa, gizakiaren fantasma edo irudipena —eta zer naiz ni neu? Baina

Unamuno se anticipa a los existencialistas de hoy y afirma el verdadero carácter de sus preocupaciones. «La desesperación religiosa —dice— es, más o menos veladamente, el fondo mismo de la conciencia de los individuos y de los pueblos cultos de hoy en día» (*Del sent. trágico de la vida*, VI)<sup>105</sup>.

Hori dena Unamunoren positiboa. Alde kritikoa, orain: krisiaren oso kontzientzia garbia izan duela, baina krisiaren barruan geratu dela bera beti, jauzi batekin handik irten eta zentzua finkatu ordez. Unamuno absurdoan geratu da.

Gu denok «ezerezetik ezerezera doazen fantasmen prozesioa» bagara munduan, bietan bat: ala absurdoa, ala absurdoa gaindituko duen fedea, beste irtenbiderik ez dago.

Los matemáticos emplean un método que llaman de *reducción al absurdo*: cuando a partir de una afirmación X se llega a una contradicción, hay que retroceder hasta el principio y decir, no-X, porque ahí esta, con toda certeza, la verdad<sup>106</sup>.

Beraz, hasierara itzuli eta han Jainkoa ezarriz, absurdoa horrela bakarrik gainditzten da. Baina ezarriz, hau da, sinetsiz, ez bai modernoan geratu gabe. «Lo verdaderamente trágico en el buscador unamuniano es que está persuadido a priori de que lo que busca es inasequible. Lo busca, pues, con radical desesperanza»<sup>107</sup>. Unamunok hortxe geratu eta itxurazko paradoxetan ase nahi izan du bere arima: ez omen dagoela deskontsolazioa baino kontsolazio handiagorik, desesperatuena baino esperantza kreatzaileagorik ez omen dagoen eran, etab. Ematen du Santamariak ez dituela osoki sinetsi nahi Unamunoren ipuin horiek:

Todas esas zarandajas de *creer-crear* y del *querer-creer* jamás podrán colmar el espíritu del buscador. No pudieron colmar tampoco el espíritu del propio Unamuno que nos habla de ellas con una falta de convencimiento evidente<sup>108</sup>.

Santamariak nahiago du San Agustinekin geratu.

Por eso el cristianismo de Unamuno es un cristianismo sin gozo, un cristianismo trágico. Construyó los muros de su templo con el barro de lo terrenal y en sus patios no mana la fuente viva de la alegría. Quienes sientan la divina impaciencia no busquen pues la Verdad por las veredas de sus páginas<sup>109</sup>.

Unamunoren gaian Euskal Herrian espiritu sentiberak asko direla akordatuta zegoen Santamaria: hura positiboki aipatzea bezain arriskutsua suerta bailableteke —zitekeen, beharbada— negatiboki egitea, edo kritikoki. Hainbat aldiz aipatua dugun *Egan*-eko artikulua, honela hasi zuen Santamariak:

Unamuno sigue siendo —y lo será cada día más— piedra de escándalo y vértice de contradicciones. No se ha terminado de hablar de él ni se terminará en mucho tiempo,

porque en él y por él se plantea en nuestro país —por cierto—, con muchos años de anticipación sobre el movimiento actual [existenzialismoa, itxuraz] y con una amplitud y un vigor que éste no ha alcanzado todavía— el problema crítico del hombre moderno<sup>110</sup>.

Denboragarrean, denborak daukana pasatu egiten dela baita, «el profesor Carlos Santamaría acaba de dudar de la actualidad de Unamuno, de su modernidad», eskandalizatu zitzaion halere Felix Maraña. Eta jarraitzen zuen bilbotarraren modernotasunaren alde atera beharrean sentiturik:

Unamuno es el primer vasco que entra en la modernidad; es el vasco más moderno de este siglo y, con toda propiedad, es uno de los contadísimos vascos modernos de la historia [...]. Unamuno es moderno, porque se adelanta, nos adelanta, en más de dos décadas, toda la filosofía existencialista nórdica, que llega aquí a través de él, antes que llegara a países como Francia o, incluso, Alemania e Inglaterra<sup>111</sup>.

Kanpiskeriak aparte, nik uste, Unamunoren non egotea, orain geu non egotetik edo non gaudela uste izatetik egon daiteke, kasu honetan. Eta nolahi ere, Unamunoren «oraingotasuna» ukatzeak Unamunoren baino orainaren balorzio negatiboagoa adieraz lezake.

Santamariak ez du ikusten azken urteotan sakontasunean eta benetakotasunean asko irabazi dugunik, izan ere.

El quijotesco «*Yo sé quien soy*» que tanto le gustaba a Unamuno, se sustituye hoy por un: «*no sé quién soy... ni me importa*». Pienso que Unamuno tendría muy poco que hacer en esta sociedad. Cualquier Umbral —dicho sea con el máximo respeto— le desbancaría fácilmente<sup>112</sup>.

Santamaria ulertzeko: garaiak aldatu egin dira. Aldatu egin da giroa. Santamariak, mereziko du gogoratzea, azken urteotan honezkero Mounier ere modatik pasea ikusten zuen («Mounier está pasado de moda»)<sup>113</sup>; Maritain, halaber: «aunque actualmente las ideas de este pensador francés puedan parecer trasnochadas...»<sup>114</sup>, etab. Unamunoren oraingotasunik ezak bere esanahia dauka, eta hori ez da inola ere baliorik ezarena, mezua galdu izanarena.

Santamariaren jarrera Unamunorekiko bikuna da. Unamunok, etengabe dena problematizatzen arituz, egia eta zintasunera probokatzen du. Seriotasun eta sakontasunera. Segurantzia faltsuak apurtzen ditu. Bilaketa pertsonalera obligatzen du.

Quien no se ha planteado algo como problema, no puede tampoco asimilarlo como solución: de aquí la necesidad de repensar o de hacer vivir en nosotros las cuestiones que otros nos han dado resueltas. Por no proceder de esta manera andan por ahí muchos físicos intelectuales, almacenes de palabras hueras, haciendo mercancía de su insinceridad<sup>115</sup>.

Unamunok hori dauka ona, axalkeriara edo kontserbazio tradizional hutsera emandako aro batean. Unamuno, alde horretatik, sakonki erlijiosoa da: «Para mí, por ejemplo Unamuno era un hombre tremendamente religioso, mucho más que los que le condenaron»<sup>116</sup>.

Baina katolikoa ere ba ote da? Erlijiosoa eta kristaua ez baita nahitaez berdin, eta kristaua ere ez nahitaez berdin katolikoa. Santamariak hemen gutxienez bere zalantzak lituzke. Batzuetan Santamaria ez da osoki fio Unamunoren axanpa erlijiosoak benetakoak ote diren<sup>117</sup>; beste batzuetan, haren tormentuen eta desesperazioen azpian dagoena, katolizismoa baino gehiago, protestantis-moa dela iruditzen zaio<sup>118</sup>.

Dena dela, «don Miguel de Unamuno sabía, al menos, decir las cosas»<sup>119</sup>.

Gero, tragikoaz beste, Unamunoren beste alderdi mistiko hori dago, barnekoia eta garbia. Eta hor, Unamuno Joan Gurutzekoari berari hurbiltzen zaio (zer esan daiteke positiboagorik inorengatik?).

Unamuno —que, dígase lo que se quiera acerca de la anarquía de su obra, ha de ser entre los hombres del 98 quien alcance mayor perdurabilidad, precisamente porque fue el único en ocuparse a su manera del tema eterno— sentía un gran respeto por este frailecito. Y en la lectura de sus libros descubrió quizás la mejor parte de sí mismo<sup>120</sup>.

Beharbada, Unamunoren gaurkotasuna Joan Gurutzekoarena bezalakoa da: denborarik gabekoa.

### **Zubiri**

Santamariak, haren adiskidetasunarekin ohoratua sentitzen denaren tonuan, beti gogoratu du filosofo hau (1898-1983). Bere garaiko donostiarrek arrunt «etxeko» bezala ikusi izan omen dute Zubiri, ja mutikotatik miresmen handiz begiratua, kalean pasatu eta gurasoek, eskuarekin seinalatuz, «begira, hor doan jaun hori Zubiri da!», esaten omen ziena umeei. Eta gero, handik aldi batera, jarraitzen du Santamariak, bera tratatu ahal izan genuen eta haren mazaraltasun handia eta jakinduria handia gozatu<sup>121</sup>. Filosofoa hil zenean, Santamariak haren donostiartasuna gogoratu zuen:

Zubiri era un donostiarra nato: no sólo había nacido en San Sebastián, como todo el mundo sabe, sino que muchos rasgos de su carácter sencillo y afable denotaban el modo de ser del genuino donostiarra del primer tercio del siglo. Esto es lo que yo llamaría la donostiarridad de Zubiri, que poco o nada tiene que ver, por cierto, con lo que hoy en día se suele entender por donostiarrismo<sup>122</sup>.



Zubiriren «etxekotasuna», Santamariaren adieran, da lekutarra bakarrik: ustetua dago Zubiriren filosofia, bere muinean, «eusko filosofia» bat dela.

Aurrenik, filosofia da, hau da, filosofia serio bat. *Sobre la esencia* agertu zenean, zementu hark inpresionaturik, Unamunoren erako filosofiagintzarekin alderatzen du, beti hau-hori-eta-hura jorratzen, gorputz eta arima logikaren muga eta katerik gabeko mundu batean libre ibili ametsez. «Halere, hori guztia ez da benetako Filosofia, baizik sasi-mistika, ensaio edo olerki hutsa»<sup>123</sup>, ebazten du Santamariak. Ametsetan ibiltzea atsegina da; baina «errealitatea» galopan etortzen zaigu esnatzera: filosofiaren egitekoa errealitate hori atzematean dago. Saioa/ametsa, beraz, kontrajarrita dago filosofia/errealitateari. Aipatutako liburuan, Santamaria liluratu duenez, «Matematikako tratadu batean bezala, ideiak garbi-garbi eta zuzen-zuzen lerrokatuak arkitzen dira. Hau da egiazko Filosofia, ez ensaiotasun hutsa behintzat!»<sup>124</sup>.

Bigarren, euskoa da filosofia hori. Santamariak aitortzen du konplexua dela erakustea filosofo baten edo artista baten obra bere «medio nativo o nacional» horrek («que para el caso viene a ser lo mismo») zenbatean markatzen duen. Baina «de cualquier manera, bien puede afirmarse en principio que la filosofía de Zubiri es, en sus entrañas, una filosofía vasca»<sup>125</sup>. Santamariak kontatzen duenez, euskara atzendu samarra edukiko zuen, baina lagunartean solasaldia bere umetako euskal «esaera jatorrez» zipriztintzen omen zuen Zubirik («or ziok ba!», «auskalo», edo «emen dek!», «añoranza donostiarrísima de los viejos tiempos del sokamuturra de Angelito Minondo y los suyos»)<sup>126</sup>. Filosofiaren objektua errealitatea da:

En su libro («Sobre la esencia»), Zubiri definía la realidad como lo que es *de suyo*, o *de por sí*. Profundizaba enormemente este *ser de suyo* y lo adoptaba como punto de partida de su Filosofía [...]. Quizás aquel *de suyo* era la reminiscencia de un *berez* de sus años de infancia y adolescencia donostiarras<sup>127</sup>.

Finean, bada:

Que Zubiri ha debido de recibir a través de innumerables vivencias suyas, desde la cuna, unas raíces o un modo de ser genuinamente vasco, es para mí cosa evidente y creo que también ese mismo carácter vasco —nada fácil de determinar, por cierto— ha debido de imprimirse de alguna manera en su obra filosófica<sup>128</sup>.

Zubiriren filosofia zaila dela, orain, alde batera utzita, hau da, irakurgaitza, etab., filosofia bezala zer balio du? Filosofia aktuala eta aktuantea al da?, pentsamendu horren interesa azpimarratzeko Santamariak egiten duen galde moldean.

«Una filosofía que no sea actuante, es decir, que no sea capaz de cambiar la vida de un pueblo o una sociedad, carece prácticamente de interés»<sup>129</sup>. Aktuantea izateak esan nahi du pentsamendu bat gauza dela gizarte baten edo aldi baten biziera aldarazteko. Descartesek, Kantek, zientzia modernoek eraikuntzan jardun dute; besteak artearen ibilbideetan, etab. Zubirik ba omen du makina bat elementu bere sisteman, gure bizieran eragin lezaketenak modu honetan: «sentitzearen» bere analisiak, adibidez, edozein artistari lagun liezaioke<sup>130</sup>. Gertatzen da gizartean faktore askoren menpean dagoela pentsamendu baten eragina; eta Zubiriren pentsamenduari bidea ireki egin behar zaiola gizartera, orrialde astun batzuetan galduta geratuko ez bada. Santamariak Euskal Herriko Unibertsitatearen eginkizun garrantzizko bat ikusten du hor: Zubiriren obraren ikerketa xehean, zabalkundean, interpretazioan, haren jarraitzaileen prestakuntzan.

Es importante que esta obra tenga aquí, en el ámbito de la cultura vasca, un eco inmediato, y que —con el tiempo— la filosofía zubiriana encuentre en nuestro pueblo dignos continuadores y cultivadores que puedan desplegarla o desarrollarla plenamente<sup>131</sup>.

Horrekin hertsiki lotuta, Zubiriren aktualtasuna sakontasunean ulertzeko, pentsamendu modernoaren dramari so egin behar zaio, alegia, Zubiriren pentsamenduak zer gainditzen lagun liezagukeen behar da gogoetatu. Laburki azaltzeko: Mendebal modernoaren adimen edo arrazoimenaren kontzeptu aldebakarregia gainditzen, hain zuzen. Moderniaren historia laburbilduz esan genezakeenez, antzinaroaren edo jende xumearen errealismo natiboa gainditzeko, filosofiak eta zientziak kritiko bilakatu beharra izan zuten, hots, errealtatea ikertu ahal izateko beren gaitasuna bera ikertuz hasi beharra. Errealitatea zer den baino lehen, argitu beharra dago errealtatea ezagutzeko gure gaitasuna zer den. Hori izan da filosofia kritikoaren edo idealismo alemanaren eginkizuna. Baina —komentatzen du Santamariak— filosofia kritikoaren emaitzak arras etsigarriak izan dira, errealtatea bera den bezala, bere baitan, ezagutzeko gure ahalmenari uko egin dio eta.

Como dice Ernst Bloch, hizo del mundo *un océano sin orillas* en el que ni el náufrago ni el viajero tenían ningún interés en navegar, puesto que dentro de él no se podía arribar a ningún puerto. El criticismo se convirtió así en una especie de tragedia del hombre culto, tragedia de la cual parece que estamos empezando a salir ahora. Así, la filosofía tiende a volver al realismo. *Mejor que volver, ir. Ir a un nuevo realismo*, lo cual constituye una empresa muy difícil y azarosa<sup>132</sup>.

Zenbait korrante filosofiko errealismo berri baten bila ari da orain. Zinezko errealitate arrazoimen (adimen) modernoak zapuztu horretarakoxe bidea urratuko luke, hain zuzen, Zubirik: subjektibismoa edo modernia gainditzea.

Puntu honetan elkartzen baditugu goiko behaketa guztiak, ikusiko dugu euskaltasunaren interesa Zubiriren filosofian beharbada ez zela mamiarekin lotura estu gabekoa. Gainditu beharra dagoen arrazoimen (adimen) modernoa arrazoimen huts gordin bat zen. Murriztasun horrekin, gero ezin zuen atzeman errealitatea bere baitan. Hau da, arrazoimena hain da urrunduta eta isolatu errealitateetik, gero ezin baitu hartaraino heldu. Zubirik, arrazoimen edo adimenaren beste kontzeptu batekin, errealitatea ere bestelakoa ahal izango du atzeman. «Inteligencia sentiente» da beste errealismo bat ahalbidetuko digun kontzeptu hori.

Frente al océano sin orillas en que nos quiere encerrar el idealismo, Zubiri nos invita a volver a la raíz, a la interpretación del *sentir* y del *inteligir*. Sentir e inteligir son, en efecto, los dos caminos por los que el hombre se ve encaminado o se encamina a lo real. Desde antiguo se ha visto en el sentir y en el inteligir actos distintos y separados e incluso se los ha visto como producto de facultades diferentes. Más aún: entre estas facultades se ha establecido una relación de anterioridad y posterioridad y una oposición jerárquica, de suerte que los datos aportados por el sentir han sido considerados como meros *materiales* para el conocimiento. Sólo cuando la inteligencia los conceptúa y juzga comienza el verdadero conocimiento. En cambio para Zubiri la inteligencia y el sentir del hombre constituyen estructuralmente una sola y única facultad: la inteligencia sentiente.

Ezagutzailea ez da ezagutzailea soil, eta horrela ezagutzailea bera, sentimenaz horniturik, ezagutzaileago bilakatzen da, adimen hutsa isolatuta izan zitekeena baino. Errealitatea, bera den bezala, osokiago eta hurbilkiago atzeman dezake. Jarrera horren ondorioak ez dira filosofikoak bakarrik izango, sozialak ere bai-zik. Bat, merezi duena seinalatzea, eskulanaren birbalorazioa da, mendez mende burulanaren aldean egin zaion mespretxuaren aldean. Eskulanean («eskuekin pentsatu») ezagutza errebelatzen da<sup>133</sup>.

Zubirik ez du buruarekin bakarrik filosofatzen. Bere esperientzia osoarekin filosofatzen du. Horretan datza haren filosofiaren euskaltasunaren interesa, haren errealismoaren sustraia. «Inteligencia sentiente»-ren iruzkin antzera idatzi du Santamariak, asko esaten ez duen baina iradokitzen duena:

El prólogo de este nuevo libro suyo está fechado precisamente en Hondarribia, el pasado verano, y es allí, junto a la hermosa ría bidasotarra, donde debió de trabajarlo y ultimar<sup>134</sup>.

Sorlekuarekin eta lurrarekin lotura etengabea mamitu da haren filosofia.

IDEIA

### *Zaragueta*

Oriotarrek herriko semeari (1883-1973) goratarrea egin ziotela eta, Santamariak oso laburki bere omenalditxo eskaini dio akademiko eta irakasle ospetsuari *Zeruko Argia*-ko «Dizdira» batean, «Don Juan nere aspaldiko adixkide agurgarria dalarik»<sup>135</sup>. «Nolako gizona, halako bere filosofia» esaldiaren arabera, biak beren sotiltasunaren aldetik aipatzen ditu. Pertsona gisa baketsua, zentzuduna, eskuindarren zein ezkertiarren lagun leiala, eta berdin bere filosofian ere pentsaera desberdinen artean bateratzailea. Haren egitasmo filosofikotzat «la visión universalista de los problemas todos de la vida» ikusten du eta, dio Santamariak bere epaian, «bere filosofiak korapilorik ez du, ez eta zulorik ere, zentzu onekoa da eta».

Euskararen kontura etorriz, «erdi-ahaztuta badu ere, adierazten du Santamariak, bere jatorrizko hizkuntza asko maitatzen du».

## Espiritua teknikaren azpian

Teknikari buruz egoki samar gogoetatzea zaila da: oraintxe ari delako gertatzen geure begien aurrean eta geure barruan iraultza teknologikoa. Zailago zentzu humanistan teorizatzea, teknikak bere mentalitatea ezarri duelako, mentalitate teknikoak: «las gentes han adquirido un sentido muy agudo de lo concreto y de lo útil. Ya no se tiene ninguna fe en las especulaciones teóricas, ni, menos aún, en la sabiduría humanística»<sup>1</sup>. Eta hirugarren: oso modu bestelakoan bizitzen ari direlako teknologia hori, demagun, filosofo humanistak eta teknika horren zerbitzariak, morroiak. Behin Berdiaeff, Mounier, eta abar, pentsalari ospetsuak nazioarteko batzar batean elkartu ziren Genevan «aurrerapen teknikoaz eta aurrerapen moralaz» jarduteko.

Yo me preguntaba el efecto que hubiera hecho en la docta sala, honrada por la presencia de tantos trabajadores del espíritu, la presencia de unos cuantos trabajadores de la materia, unos cuantos mineros, por ejemplo, negros de sudor y de polvo, arrasando sus picos y, a poder ser, sus máquinas excavadoras, para decir también ellos, a su manera y en su particular lenguaje, su opinión sobre la técnica. Seguramente, el diálogo se hubiera hecho imposible. Esas dos clases de hombres no hablan siquiera el mismo idioma<sup>2</sup>.

Teknikak planteatzen digun arazo larriena morala da, esanahi zabalean: zer gizarte molde nahi dugu?, eta abar.

Teknikak [erantzun du Santamariak] ez du bihotzik, ez du sentimendurik. Hau egin daiteke, eta kito! Eragin handia du teknikak egun. Asmatzaileek asmatu asmatzen dute, baina ez dakite zein ondorio izango duen asmakizun horrek, eta hori oso arriskugarria da, batez ere asmatutakoa nolana ere erabiltzen bada. Baina teknika ez da txarra; bai, ordea, teknokrazia, teknikak agintzea. Nik gizaldi honen erdi-aldera uste nuen, teknika bukatu egingo zela. Oso oker nengoen. Teknika ez da gelditzen, eta ez da geldituko. Baina kontzientzia izan behar dugu: zerbait teknikaren aldetik egin ahal izateak ez du esan nahi egiten den hori ona denik<sup>3</sup>.

Teknikak erabat aldarazi ditu gure bizierak, etxeak, familiak. Giza bizitza gizatiarrago bilakatu da. Neskametza, esaterako, desagertzera doa. Zizeronen garaian esklaboak, morroiak, lagunak, bezeroak, libertoak, denak ziren oraindik etxea eta etxetiarrak. Familia tribu patriarkalaren antzekoa zen. Etxea tenplu bat zen, garrantzizkoa eta handia bizitza sozialean.

Hoy se ha reducido en lo físico y en lo moral a dimensiones minúsculas y quién sabe si en esa 'chiquitez' no ha ganado en intimidad y en profundidad vital. Nuestras

esposas están quizás más cerca de nosotros —¡los pisos son tan pequeños!— y aquellas impresionantes matronas romanas, guardianas del templo del hogar y sacerdotisas de los dioses lares nos resultarían quizás incómodas<sup>4</sup>.

Teknika aurreratu ahala, unitate sozialak txikerrago bilakatu dira. Antzina, lurraral elkor eta aiherraren gainean bizian iraun ahal izateko, gizakiak elkargo tarrotxoak zeuzkan bildu beharra, tribu-erregimenean. Teknikaren aurrerape-  
nak gizakiari askatasun handiagoa gozatzea onartu dio, bere nortasuna eta ori-  
ginaltasuna lantzea, gregarismoak hurrupatuta geratu gabe. «Con el servicio  
doméstico desaparece una época de la Historia, una concepción de la vida, un  
régimen ya extenuado y casi exánime de organización social»<sup>5</sup>.

Hobekuntza horiekin, gizakiak itxaropen handienak ipini ditu aurrerapen teknikoaren plangintzan, aurrerapen zientifikoki gidatuan. Handik, gordean giza generoak beti itxaron izan duen «dohatsutasun kolektiboa», epe jakin ba-  
terako programa litekeela uste da: «planificación y prospectiva nos prometen  
una felicidad a plazo fijo»<sup>6</sup>. 1990 edo 2000 inguru horretarako gaindituak izan-  
go omen ziren langabezia eta azpienplegua (Santamariak 1966an idazten zizun  
hori!); bizitzan ez da trangorik egongo, errepideetan ez bezalaxe; umeak on-  
gi mantenduak eta eskolatuak, ekuazio diferentzialak integratzen txiki-txikita-  
tik dakitela; telebista eta hozkailu automatikoen aparatu euri-biziarazkor batek  
erauntsiko du gizadiaren gainean, eta behin betiko zoriontsu egingo du... Ironia  
pixka batekin aipatzen diren itxaropen horiek ez dira zakur-ametsak bakarrik.  
Aurreikus eta plangintza daitezkeen lorpenak dira. Prospektiba garapenaren  
bidelagun ezinbestekoa da gaur. Geroa igarri eta azpiratzea, lehen profetaren  
lana, zientziarena da orain, aurrerapen teknikoarekin itunduta. Geroaren erai-  
kuntza teknikoki manupera genezakeen zeregina dugu engoitik.

Ohartaraz dezagun, iraultza teknologiko eta sozial honekin batera, iraultza filosofikoa gauzatu dela, mentalitatearen iraultzaren adieran.

Al maniqueísmo espiritualista que durante siglos, más o menos veladamente, ha tra-  
bajado e inspirado por dentro la civilización occidental, se opone actualmente un ma-  
niqueísmo materialista, más fuerte que ninguno de los anteriores. Si la materia había  
sido, hasta ahora, el principio del mal —afirmación que, naturalmente, el verdadero  
cristiano no aceptó nunca—, el enemigo será, en adelante, el espíritu<sup>7</sup>.

Eztabaidaezina da teknikak onura handiak eta asko ekarri dizkiola gizadiari. Oso positiboa da. Itzulezina da, gainera, lasterketa teknologikoa, etab. Suposa-  
tutzat jo behar da orain hori dena. Baina problemak ere handiak eta asko eka-  
rri dizkio teknologiak gizadiari, eta hori izango da kontua. Santamaria teknikaz

jardun den gehienetan izan da haren positibotasun funtsean ia nabarmena legez osoki aitortuz, baina gehienbat haren problemak aipatzeko.

***Problemak: ikerketa biologikoan, adibidez***

«En el curso de la evolución de su rama zoológica, ¿cuándo empieza el hombre a ser hombre?»<sup>8</sup>. Gizakia zer den, gizatasuna alegia, galdera konplexua da, kontzeptu horrekin paleontologo gisa, edo filosofo eta are teologo gisa aritu nahi izanez gero. Aberearen eboluzioan, problematikoa izango da arrazoi-men-aztarnak doi-doi non eta nola hasten diren —beti ere datu enpirikoren bartzuen laguntzaz ikusi beharko dena nola ebatzi—; baina arras beste zerbait izango da, nahitaez, eboluzio haren zein puntutatik aurrera legokeen arima baten presentziaz mintzatzerik adibidez, eta zein bitarteko modu egon litekeen horrelako auzi bati erantzun baliozkorik emateko<sup>9</sup>. Horrelako kezka, egia esan, ez dira ikertzaile biologikoaren ikerketako problemak: baizik eta fededunaren fedekoak edo filosofoaren filosofiakoak<sup>10</sup>, ikerketa biologikoek egun sorrarazi dituztenak. Animalia eta gizakia zerk bereizten dituen, bereizkuntza hori zein mailatan bilatu irizpidea nola finkatzen den, eta abar, batetik besterako eboluzioak suposatuko duen konplexutasun guztiarekin, definizio garbiak beharko dira eskuan<sup>11</sup>. Seguruena, zientifiko hutsa asko harrituko luketen planteamendu eta eskema bere alorrean arraroekin aurkituko litzateke meditazio horietan: «la creación *ex nihilo* de una psique intelectiva», «desde el punto de vista de la causa primera, Dios, su voluntad creadora de una psique intelectiva es voluntad de evolución genética», etab. Santamariak, halere, esan bezala, beharrezkoak ikusten ditu halako gogoetak. Dena dela, gai horiei buruzko X. Zubiriren artikulua garrantzia nabarmentzera mugatu da bera hemen.

Beste problema bat genuke, inplikazio teologikoak izan litzakeena, gizadi estralurtarra. Teorian mila milioi bat planeta ba omen dago gure galaxian, bizidunak eduki ahal izango lituzkeena. Are zientifikoki egiantzagoa ematen omen du horietako askotan bizidunik badela suposatzeak, ezezkoak baino<sup>12</sup>. Bidezkoa litzateke, orduan, gizakien existentzia ere suposatzea. Zer egin behar dugu historia biblikoarekin?... «*No más casos Galileo*, ha dicho hace algún tiempo el Papa Paulo VI»<sup>13</sup>.

Tradizio filosofiko handikoa (hedadura teologikoekin) da, «un problema trascendente, el mismo de siempre», arima/zerebro edo materia/espiritu problema. «¿Quién maneja el cerebro? ¿Es, acaso, el cerebro mismo?»<sup>14</sup>.

Buruhauste larrienak, nik uste, ikerketa biologikoekin, arlo moralean sortu dira; teoriko hutsak ez, baina teoriko-praktikoak. Sekula ez da izan «gizakiaren ahalmena gizakiaren gainean» gaur manipulazio genetikoarekin adinakoa<sup>15</sup>. Arduraz betetzen dute Santamaria sobietar zientifikoek laster materia bizigabetik izaki bizidunak atera ahal izango omen dituztelako albisteak<sup>16</sup>, edo amerikar genetista baten adierazpenak, berehala posible izango dela giza organismotik landa kultibatzea ugaltzeko eta horrela lortutako enbrioak era berean garatzea.

El simple hecho de que estén circulando, probablemente a gatas todavía, varios millares de 'hijos artificiales', plantea problemas de carácter ético y jurídico en los que casi nadie ha reparado todavía<sup>17</sup>.

Baina auzi puntualon gainetik, teknikari buruzko kezka orokorra sortzen da barnean. «Lo malo del caso es que a la técnica no hay quien la pare y que ella es incapaz de pararse a sí misma». Zer egin behar digu gizakiak bere buruaz, kontzientzia baino handiagoa daukanean ahalmena? Santamariak ez luke galdu nahi itxaropena.

Algo, sin embargo, nos hace confiar en que dentro de esta situación existirán fuerzas providenciales capaces de restablecer el equilibrio que hoy parece roto. Si hay que elegir entre el pesimismo y el optimismo sobre el porvenir del mundo técnico, yo me inclino decididamente por el segundo bando<sup>18</sup>.

### ***Problemak: ikerketa nuklearrean***

Ez bai, ezmeztu, Pandora zalantzan dago, zer egin ataurrean Epimeteo bere galaiak utzi dion kutxatilararekin, abisu honekin ordea: «Gorde ezazu, baina ez ezazu zabaldu, bestela zerbait ikaragarria gertatuko da». Pandora irrikan kiskaltzen dago ikusmiraz. Tiratxo bat hemendik, hortik beste bat, kutxatila ixten duen xingolako begizatxo batzuk askatuak ditu dagoeneko, ea zer pasatzen den, ez da ezer pasatu. Zergatik ez egin beste tiratxo bat? Orain arte ez da ezer agitu, zergatik behar du ezer agitu beste tirakadatxo bategatik? Bai gertatu ere azkenean, alajaina!

Eta hasi ziren kutxatila barrutik milaka mamutxa kaltegarri eta hegazti beltz ikusteko beldurgarriak ateratzen, eta txori asturugaitzak eta mota guztietako patariak, zerua dena belztu zen arte eta lurra erabat gaitzek estalita geratu. Sekula gehiago ez da giza-dia berriro zoriontsua izan!

Pandoraren alegiarekin, Santamariak ikerketa eta esperimendu nuklearren arriskuak, eta edonola ere ondorio ikaragarriak, ikusarazi nahi dizkigu. «El



último tironcito es siempre el último». Azkeneko tantak eragiten dio beti gainezka basoari. Oraindik beste urrats bat, beste bat gehiago, azkenean beste bat ez dagoen arte, mugagabe esperimentatzen jarraitzerik ez dago. Azkenekoaren ondoren alfer-alferrik da<sup>19</sup>. Beste hainbeste ohartarazten du Santamariak disuasioeko estrategia klasikoaz («si vis pacem para bellum»), gerra nuklearraren aroan:

El enemigo común de las dos superpotencias es la guerra nuclear. Ninguna de las dos quiere llegar a ésta, es decir, a lo que algunos llamarán la *worst case*, la peor casilla del tablero, la casilla negra, que no es otra cosa que el absurdo de una guerra atómica. Ambos jugadores saben que esta casilla es necesario evitarla a toda costa. Y en este sentido pueden considerarse 'aliados'; pero se dedican a operar en las casillas próximas con el terrible riesgo de que el tablero salte un mal día en pedazos<sup>20</sup>.

### Bonba atomikoaren garrantzi historikoaz

... esta invención —idatzi du berehala Santamariak— es de las que abren paso a Eras nuevas; figura, evidentemente, como el descubrimiento de América o la invención de la imprenta, entre los grandes hechos históricos que modifican el rumbo de la Humanidad<sup>21</sup>.

Baina aurrerapenen bat baldin bada gizadiarentzat, batez ere arriskuan dela, Santamariari ez zaio zalantzarik geratzen. «¿Se está iniciando la fase final de la Historia del Mundo?», galdezka idatzi du<sup>22</sup>. «Parece que el hombre culmina en sus afanes destructores»<sup>23</sup>. «La gente ha comenzado a asustarse, en buena hora, de la Técnica, nueva divinidad, Moloch amenazador, que amaga devorar a la Humanidad pacífica».

Arma nuklearren eta postnuklearren garapenak, maila desberdinetako problema sail bat mahaigaineratu du. Apokalipsia gizadiak berak probokatzeko arriskua erreal bilakatu da: ahaltasun teknologiko gisa, noski, lehenengo<sup>24</sup>; baina erokeria politiko posible bezala ere bai gero. «¿Qué ocurriría en el caso de un nuevo Hitler, de un Hitler nuclearizado, que tuviese en sus manos la posibilidad de emplear las armas atómicas?»<sup>25</sup>. Bakearen eta gerraren zentzua aldatu egin da. Bakean ere, diplomazia, nazioarteko harremanak, eta abar, dena botere nuklearraren begirunearen menpean erori da. Gerraren kontzeptua bera, haren zilegitasunaren auzia, eta abar, bestelako kontu bihurtu dira zeharo.

La invención de la bomba atómica introdujo al mundo en una nueva era estratégica en la que el concepto de guerra experimenta una profunda transformación. La guerra nuclear no es ya una guerra en el sentido clásico. Una guerra nuclear entre las dos superpotencias no podría ser la continuación de la política por otros medios, sino el fin de toda política. Tampoco podría servir, como algunos pretenden, para favorecer la justicia y la libertad en la vida de los pueblos<sup>26</sup>.

Arriskua gutxitzeko zenbait ahalegin teknikor hura gehitu egiten dutela ateratzen da gero<sup>27</sup>; eta zenbait ahalegin bakezale etiko edo erlijiosok berdin egin dezakeela<sup>28</sup>. Harremanak mesfidantzaren eta beldurraren gainean oinarritzera behartzen ditu Estatuak: «Mientras la desconfianza no desaparezca —y esto es prácticamente imposible por ahora— no existe otro medio para impedir la guerra que el terror de la guerra»<sup>29</sup>. Hitz batean, kito gizarte-bizitza baten ametsa bakean, demokrazian, askatasun eta lasaitasunean: gizadiaren zortea «duopoliaren» esku dago<sup>30</sup>, eta horrela «lo que está ocurriendo ahora es, por completo, opuesto a un orden internacional democrático»<sup>31</sup>. Egoeraren konplexutasunean ja ez da ikusten bakoitzaren erantzukizun pertsonala zein den ere: zientifikoek nahiago dute ikerketen eta asmazioen erantzukizun guztia politikoen gain deskargatu<sup>32</sup>, etab. Galdetu beharko litzateke, apika, Hitlerren ikaragarritzotasuna saihesteko bide hori ez ote den hura ahalik eta gehien normalizatzea soil-soil.

Energia nuklearrak gizakia berriro zibilizazioaren hasieran edo abiapuntuan bezala paratu du<sup>33</sup>, Santamariak beste mito greko batera joz adierazi duenez<sup>34</sup>. Egun batez, orain ehunka mila urte, gizakiak sua asmatu zuen. Esperientzia espantagarri hark gizaki gaixoei eragin zien izialdurak Prometeoren mito grekoan aurkitu du isla. Bulkanori pindar bat labetik osteagatik, mila urteko zigorra leporatu zuen Prometeo horrek (gizakiak). «Pero ¿qué hubiese sido del hombre —este mono desnudo— sin el invento del fuego?»<sup>35</sup>. Behar-beharrezkoa izan da zibilizatorako.

Zibilizatorako energia nuklearra beharrezkoa ote den ez da Santamariaren ardura<sup>36</sup>, baizik zein zibilizazio nahi dugun hemendik aurrerako.

Notemos que la aventura nuclear no es sino una parte relativamente pequeña de toda una gran máquina de destrucción de la Naturaleza, que está operando 'desde ya' con resultados visiblemente catastróficos para la vida en el planeta. El mundo natural está siendo degradado en gran escala y esta degradación parece además tener un carácter irreversible en muchos de sus efectos ya patentes. Por el empleo de técnicas destructivas y la explotación desaforada de los recursos naturales, el hombre está a punto de aniquilar su propio *habitat* y el *ecos* de los demás seres vivos, animales y plantas<sup>37</sup>.

Hau da, bere inguru fisikoa eta soziala ari da gizaki modernoa desegiten bere zibilizazio moduarekin. Horregatik, Santamariarentzat ekologiak zibilizazio eredu alternatibo baten adiera zabala izango du:

Neretzat ekologia oinarritzeko jakinduria da. Historian zehar mentalitate teknikoa dutenak eta mentalitate ekologikoa dutenak aurkitu izan ditugu eta oraindik ere aurkitzen ditugu. Lehenengoenak natura erabili egiten duten bitartean, bigarrenek natura errespetatu egiten dute. Nik soluzio harmonikoen beharra ikusten dut. Natura erabili behar da, baina errespetatuz; izugarria bait da industriak irizpide ekologikorik gabe

egitea. Beraz, ekologia bizitza ikusteko modu bat da, eta gainera, bizitzako ekintza guztietara zabaldu behar den kontzeptua. Gizatasuna beste era batera ulertzen da, eta lehen esan dudan bezala, jakinduri mota bat da<sup>38</sup>.

### *Zientismoaren krisia*

«El porvenir de la ciencia» Renanen tituluarekin<sup>39</sup>, artikulu txiki bat dauka Santamariak<sup>40</sup>. Zientzia orain krisian omen dago<sup>41</sup>; edo, hobeto, zientismoa<sup>42</sup>. Hori ez da txarra («no es, de ningún modo, un signo de catástrofe»)<sup>43</sup>. Alderantziz, esan nahi du zientziak bere errealismoa aurkitu duela, ikasi duela ez amore ematen autokritikan eta bere oinarrien berrikusketa etengabe. Eta oso garrantzizkoa da, zeren eta «el porvenir de la humanidad se nos presenta hoy más ligado que nunca al porvenir de la ciencia»<sup>44</sup>. Horrexegatik, kontrastatze batek, XIX. mendean Renanek bere liburu arrakastatsuan azaldutako etorkizunaren begikerarekin, hainbat irakasgarriago dirudi gure gaurko. Historia ibilbidea da, bilakaera. Comteren kritikoa izan arren, Renanek ere uste du historia kontzientziaren aurrerabide lege baten arabera hiru adinetan gauzatzen dela, horietako hirugarrenak, gureak, «zientifikoa eta erlijiosoa aldi berean» izan behar ei baitzuen. Hastapenen aroa erlijiosoa izan da, sinkretikoa, osotasun orokor eta desbereziaren ikuslea unibertsoaren aurrean; oposizioz bigarren aroa erlijioaren aurkakoa da, zientziaren nagusigo garrantzarena (Renanek halakotzat dauka bere aroa), zati berezien behaketarena, analisiarena. Baina erlijioan balio eder handiak omen daude jasota, batez ere kristautasunean, gizadiak ezin galdu dituenak. Hirugarren aroa sintesiarena izango da, osotasunaren berregintzarena, zatien ezagutzarekin. Aurrean aroan osotasuna bakarrik dago, bigarren zatiak bakarrik, hirugarrenean sintesia. Aurrean aroa erlijiosoa eta ez-zientifikoa da; bigarrena zientifikoa eta ez-erlijiosoa; hirugarrena bai erlijiosoa eta bai zientifikoa. Baina hori dena da kontzientziaren aurrerabideak, hau da, zientziaren aurrerabideak berak modu hegeliar samarrean egiten duen bidea. Zientziak erlijioaren lekua hartzen du, batetik hura uzkailez eta gaituz (haren forma eta egitura dogmatikoak, eliztarrak) eta, bestetik, fase berri batean, haren alderdi positiboak, balio moralak, bereganatuz. Beti ere, zientziak gaituz egiten du erlijioa.

Bere garaian, Renanen ideiak ideologia zientista modako adinatsu bilakatu ziren, sekulako arrakastarekin Frantzian<sup>45</sup>, eta jende eskolatutxoaren artean kalte handia eraginez, Santamariaren gardiz<sup>46</sup>. Halere, denborak ez du Renanek agindu bezala ibili nahi izan: esperantza galant haien hondarren melankoliaz, egun «ante las ruinas de un libro tan ambicioso» aurkitzen gara, haren aurreikuspenak ez dira bete. Zientzian fededun inuzenteak ez dira egun ere falta<sup>47</sup>,

baina horiek ez daude zientzien oraingo egiazko errealitatearen mailan. «Hoy la ciencia se encuentra, en realidad, en plena crisis de fundamentos»<sup>48</sup>.

Zientziaren krisiak iturri hirukoitza duela esan genezake, Santamariaren idazkietan. Bat, aipatzen ari garena, zientziaren barrukoa, bere fundamentazioarena. Krisi epistemikoa bezala. Beste arrazoi bat interes filosofiko orokorren lerradan dago, berehalaxe ikusiko dugunez (filosofiak existentzialismora, pertsonaren arazora, eta abarrera jo du, arrazoimenaren edo zientziaren definitiotik alde eginda), beraz, giro-aldaketa kulturallean. Baina badago kontzientzia oraindarrak bizi kolpatu dituen hirugarren arrazoi bat, oraintzeko bereziki bereizgarria: teknikaren ikara edo mesfidantza.

Teknikarekin gertatu da denbora gutxian gizartean itzelezko aldaketak eragin eta prestigiorik itzelena lortu duela, eta geroxeago berriro desprestigioan erori buruz behera. «En sólo un siglo la Técnica ha realizado progresos muy superiores a los que antes había logrado en más de dos mil años de historia»<sup>49</sup>. Sir Eric Ashbyren adibide argigarri batzuekin irudiztatzen digu hori Santamariak. Gladstone (1809-1898) eta haren garaiko beste politikoez, hau da, XX. mendera arteko politiko moderno famatuenez, halako iraultzak eta sortu dituztenek munduan, ezin izan dute gutxi gorabehera Periklesek edo Demostenesek egiten zutena baino entzule gehiagori zuzendu beren haren-gak. Mende erdi geroago, edozein politiko erdipurdiko ikus eta entzun dezakete milioika lagunek edozein bazterretan. Bonapartek Marengoko Gudurako (1800) Alpeak bere tropekin zeharkatzeko, Hanibalek Jesukristo baino bi mende aurretik behar izandako denbora berdina behar izan zuen gutxi gorabehera. Egun, Armada Handia baino hamar mila aldiz botere gaitzagoko Aire Armadak, itsasoak eta mendiak zehar erasoan para daitezke ordu gutxian. Ehunka eta milaka urtean teknologia ez da ia ezer mugitu; bat-batean arras bizkortu da gero denbora gutxian.

Como resultado de este enorme progreso el prestigio de la Técnica no cesa de crecer a lo largo del siglo XX. La gente deposita en ella una confianza casi ilimitada. Los grandes descubrimientos de la post-guerra, sobre todo los que se realizan en el dominio del Átomo, en la Biología y en la Cibernética electrónica, refuerzan estas esperanzas. Parece como si fuera a iniciarse una Era de felicidad, sin precedentes en la historia de la Humanidad. Millones de personas esperan que las nuevas técnicas podrán redimirles de la miseria, del sufrimiento, de la enfermedad, del envejecimiento e incluso de la muerte, o —por lo menos— de la muerte consciente y dolorosa. Se tiene fe en el desarrollo ilimitado, en la transformación del mundo, en la liberación del hombre y de la mujer, etc. etc.<sup>50</sup>.

Gero, ordea, 1970 aldetik aurrera, itxaropen eta ilusio guztion porrota aurkitzen hasi da geroz ageriago: mehatxu atomikoa, kutsadura, hondamendi ekologikoa, manipulazio soziala, Hirugarren Munduaren bortxaketa etengabea, etab.

La Técnica, no sólo no ha podido satisfacer casi ninguna de las esperanzas que se ponían en ella, sino que ella misma ha producido nuevos males, superiores quizás a los que antes existían [...]. No solamente se degrada cada vez más el medio natural, sino que la misma organización de la vida empieza a hacerse insufrible para una gran parte del género humano<sup>51</sup>.

Filosofikoki, gizakiaren kezka barrengoenei erantzuteko zientismoaren ezaskitasunak soluzioak beste bide batzuetatik bilatzera bultzatu du jendea eta zientifikoak berak. Renanek oso garbi zeukan, metafisikak utzi eta, zientzia positiboa dela egiaren iturri bakarra, eta gizadiaren problema altuak argitzeko, zer den izatea, unibertsoa, Jainkoa ohi deritzona edo zernahi ere den azken fineko errealitatea, nahikoa direla Kimika alde batetik eta Astronomia bestetik, Fisiologia orokorrarekin. Haatik, zientziaren erantzunak gizakiaren barrengo itaun haiek baino beste natura batekoak izaki, zientifikoek bihotzak ez dituzenez betetzen zientziak, fideismo berri bat indartu da zientzialari medioetan, Santamariak ohartzen duenez. «La ciencia suele ser frecuentemente, como decía Unamuno, una manera como otra cualquiera de no mirarle cara a cara a la Esfinge»<sup>52</sup>. Baina zientziara ihes egin zuen gizakiak aurkitu du zientziak erantzunik ez daukala funtsezko bere galderentzat. Zientziak ezin du gizakia bere subjektibitate txiki hauskorretik salbatu, unibertso handi objektibo bateko segurtasunean kokatuz. Zientzia bera ez da subjektibismoaren erpina besterik.

Cuando el hombre del Renacimiento lanza al mundo la terrible noticia de que la Tierra da vueltas alrededor del Sol, contra lo que todos creían, se inicia una crisis de desconfianza de la que la Humanidad no ha salido ni, tal vez, pueda volver a salir nunca. Ahora ya nadie cree que nada dé vueltas alrededor de nada<sup>53</sup>.

### ***Aro berrirako hezkuntza***

Heziera egokiagoaren beharra etorkizunari begira tertzio desberdinetan gogoratu izan du Santamariak, batzuetan xede konkretuez (bakerako hezkuntza, herriek elkar hobeto ezagutzeko eta ulertzeko hezkuntza, etab.), esanahi orokorragoan beste batzuetan. Gizakia da, esaten du behin Chauchard doktorearekin, bere ahalmen espiritualak gutxiegi erabiltzen dituen izakia, hain zuzen, garuneko geruza apalena bakarrik erabiltzen dakiena<sup>54</sup>. Ez dakigu geure garunaz probetxuz baliatzen<sup>55</sup>. Zati txiki-txiki bat baizik ez darabilgu. «Harían falta

consejeros de humanismo biológico, educadores del cerebro»<sup>56</sup>. Garuna bere ahalmenen osotasunean erabiltzen ikastea gizakiago bilakatzen ikastea izango litzateke (baina nola irakatsi, irakasleek berek ez badakite?).

Heziera bestela apailatzeko presa ezartzen duena da aurrerapen teknologiko eta zientifikoaren habaila bizia. Azken garaietako gertakari sozial eta politiko handi askori begiratzen badiogu, arrazoirik ez da falta haien kariak aldakuntza teknologikoekin zerikusirik izan zuela pentsatzeko.

Así, por ejemplo, hay que pensar que bastantes de las transformaciones que se han atribuido a la ilustración o al liberalismo, en el siglo pasado, y al marxismo, en el actual, son muy probablemente mera consecuencia de la técnica, y se hubieran producido de la misma manera en cualquier otro contexto ideológico<sup>57</sup>.

Orain, geroz eta gehiago, teknologiak urratzen dio historiari bidea. Eta, beraz, orain eta hemendik aurrera, «la mentalidad físico-matemática imprime carácter a la cultura contemporánea»<sup>58</sup>. Zientzia eta teknika, kolore eta zaporgeak dira berak, ez kolore ideologikorik eta ez zapore politikorik daukate berek. Mirlurtekoetako tradizio kristauko herrietan bezalaxe aplikatu daitezke afrikar edo asiarrak kulturatan, estatu komunistetan bezalaxe kapitalistetan. Baina teknikari badatxekio murgil bat materialian, espirituaren balioak nahitaez arriskuan jartzen dituenak, bezatu beharra baitauka gizakiak piztia hori. Menperatzen eta errendatzen ez badu, seguruena gizadia neobasakeria antzeko batean istingatuta gertatzea izango da<sup>59</sup>.

Arima gabekoa ere badela teknologia esan daiteke. Itsua, giza gabea. Aurkikunde zientifiko eta teknikoek, jeneralean, ez diete obeditu gizadiaren onerako proiektuei eta asmoei. Aurkitzaileek beren ikerketetan jakin-minari eta kuriositateari bakarrik jarraitzen diote, gero beren aurkikuntzek beste gizakiei zertarako balioko dieten arduratu gabe. Ondorio onak ala gaiztoak izango dituzten ez die axola, ez dute planteatzen. Iraultza industrialak negozioetako jendeaz eta negozioko ikusmira ia soil-soilez gauzatu zen, diru-interesagatik ez bestegatik elkartu zitzaizkien ikertzaile eta teknologoaren lankidetzarekin. Interes gizatiar itxurakorik-edo ez da sumatzen. Ez antropologo, soziologo, psikologo eta ez gisakorik dabilela hor ikusten da («verdaderos sabios»), errotiko eraldakuntzaren ondorioak aurreikusi eta kalteei aurre egin ahal izateko<sup>60</sup>. Orain, ordea, berdin jarraituz gero, gizadiak bere buruaren xahuketa osoa eragin lezake eta, horregatik, ezin lezake horrela jarraitu. Egokitu beharra dauka egoera berriari, eta hartarako bere burua hezi.

Izan ere, teknologia modernoa, bat, ez da espiritu gizatiar giroan sortu; baina, bigarren, antzina zaharretik hona mundua gizalegezko egiten zuena, jakinduria, birrindu ere egiten du, gizartea moralki biluztuta utziz. «El mundo de la ciencia ataca violentamente al mundo de la sabiduría secular»<sup>61</sup>.

Santamariak leku batzuetan oraingo krisia bere barnenean erlijioso dela esan izan duena, beste leku batzuetan «jakinduriaren galerarena» dela ulertu du<sup>62</sup>.

Ez da jakite oro jakinduria<sup>63</sup>; ez hainbat informazioen jabea eta jakituna bera jakintsua<sup>64</sup>. Jakintzak (zientziak) beti alor zatituari, mugatuari behatzen dio, objektu partikularrari. Jakinduria, zientziaren aldean, Santamaria Maritainekin saiatzen zaigunez argitzen,

... se mueve en un plano superior, o —si se quiere— más profundo, que el saber científico y el saber filosófico. La verdadera sabiduría, viene a decir Maritain, es una visión penetrante de ciertas realidades que son, en cambio, invisibles tanto para las ciencias particulares como para la filosofía racional. *Es una intuición profunda de carácter unificante y liberador; un camino de salvación del hombre y de lo humano*<sup>65</sup>.

Jakiturian, esango genuke, munduaren esanahi transzendentala artikulatzen da, eta horretatik, funtsean, lau eredu garatu omen ditu gizadiak: jakinduria grekoa («sabiduría de razón y no de fe o esperanza»), jakinduria budista, jakinduria biblikoa (Itun Zaharrekoa) eta jakinduria kristaua<sup>66</sup>. Jakinduria horien arabera ikusi du gizakiak bere burua, mundua, denbora. Eta horra gaurko krisia:

El hombre contemporáneo, en su generalidad, no se siente ya preocupado por ninguna de esas sabidurías que a lo largo de miles y miles de años han constituido el patrimonio espiritual de la humanidad<sup>67</sup>.

Inoiz ez bezalako boterea (teknologia, zientzia) dauka gizakiak egun eskuetan, bere burua suntsitu ahal izaterainokoa: eta zuhurtasuna eta bere buruaren eza-gutza irakatsi behar zion jakinduria, sekula baino oraintxe beharragoa, teknologia eta zientzia horiexek iraungi diote. Zizeronen esaldia aipatuz, «nunca será bastante alabada la filosofía que puede hacer pasar sin inquietudes toda la vida a cualquier persona que se conformare con sus máximas», iruzkin honekin darrai:

Hoy, en nuestra era técnica, del frigorífico y de la lavadora, las cosas han mudado mucho. No sólo la filosofía ha sido reemplazada por el saber técnico, sino que se ha cambiado también el concepto del sabio. Hoy el sabio es el investigador y el inventor físico-matemático. Sabio es un hombre que ha descubierto los parásitos de los limacos o la desviación de los rayos cósmicos por las tormentas electromagnéticas, aunque luego resulte ser un perfecto cretino, considerado como simple hombre. El sabio clásico era el hombre que poseía la sabiduría de la existencia, el arte de vivir de manera armoniosa, de dominar sus pasiones, de mantener en equilibrio su propia

## IDEIA

interioridad, de gobernar los hombres y las cosas como tales hombres y tales cosas, según su misma ley interna. Esa era la antigua sabiduría. Parece que van quedando pocos sabios de estos a medida que aparecen cada vez más sabios de los otros, los del ciclotrón y el ultramicroscopio<sup>68</sup>.

Teknika, bere eskakizun mental eta kulturekin, bizitza osoa inbaditzen ari zaigu<sup>69</sup>. Humanizatu ala deshumanizatu egingo ote digu bizitza soziala? Problema okerrena da «espíritu teknikoak» ez duela bere baitatik datorrena beste irizpiderik onartzen, ez duela bere gainetik ideiarik edo araurik nagusi ezagutzen. Eta bere baitatik irizpide eta lege nagusia efikaziarena da.

Baina:

Toda eficacia hace referencia a un objetivo. Lo que cuenta para una técnica no es que sea verdadera, sino que realice, efectivamente, el objetivo a que esta destinada. Ahora bien, un objetivo técnico es necesariamente el resultado de una abstracción. Para las técnicas de la alimentación, por ejemplo, el hombre no es más que un aparato digestivo [...]. Para las técnicas del transporte, el hombre no es más que una masa mecánica que hay que transportar en condiciones físicas determinadas con un mínimo de gasto y en un mínimo de tiempo<sup>70</sup>.

Bi problema jotzen ditugu, orduan. Batetik, abstrakzio horien artean, interes teknikoen arabera zatikatuta, pertsona bere osoan da sekula ageri ez dena, bere osoko interesekin. Teknikaren eremuan, pertsonarentzat ez dago lekurik.

El hombre auténtico no aparece por ninguna parte en el universo técnico, ya que no puede ser definido con fórmulas técnicas. El concepto del hombre es metatécnico, está indiscutiblemente más allá de la técnica<sup>71</sup>.

Eta gero, ongia eta gaizkia mudakor bilakatzen dira:

... lo que es bueno desde el punto de vista de una técnica, resulta malo en la perspectiva de otra. Como cada técnica se preocupa sólo de optimizar determinados valores típicos, no siempre fáciles de determinar, se produce una oposición entre las decisiones exigidas por las distintas técnicas<sup>72</sup>.

Hori oso erraz ikus daiteke administrazio publikoan aurki daitezkeen interes kontrajarrien adibidean.

Las decisiones que se adopten serán muy diferentes según el problema que cada uno se plantee: el problema del uno será la reducción del déficit presupuestario; el del otro, el aumento del poder nutritivo de la ración media alimenticia del obrero; el de un tercero, el aumento de la cifra de las exportaciones. Quien se fijará en la disminución de la mortalidad; quien, en la elevación de los salarios reales o en las condiciones estratégicas más favorables de la defensa nacional, o en cualquier otro de los infinitos fines particulares que dentro de la administración pública pueden y deben



perseguirse. Ahora bien, un gobierno en el que faltara un criterio superior, propiamente político, que es como decir propiamente moral —porque la política es un que-hacer eminentemente moral— un gobierno que se dejara conducir por los infinitos criterios particulares de sub-optimización que caben en relación con aquellos infinitos fines, no sería un gobierno sino la expresión de una situación de anarquía<sup>73</sup>.

Helburu teknikoekin gauza bera gertatzen da, irizpide metateknikoak («las razones filosóficas y morales») nagusitzen ez direnean: anarkian akabatzen da. Teknikak berak, ordea, definizioz zatiarekin enplegatzen baita, ezin du sortu gainbegiraldi sintetiko hori<sup>74</sup>.

Garabide teknikoaren abiadak dakarkigu problema gehitu bat<sup>75</sup>. Gizarteak nahikoa lan du hari egokitzen, hari helburu humanoak ezartzen aritu gabe. Harelere, Santamariak ez du etsi nahi. Itxarotekoa da gizakiak ez duela bere burua suntsituz bukatu nahiko; beraz, teknologiaren nagusi moral bilakatu nahiko eta ahalko duela. «Cabe, pues, esperar que las técnicas acepten finalmente la tutela de ideas superiores, de ideas meta-técnicas, en una palabra, de ideas morales»<sup>76</sup>. Baina nola egin? Mentalitate zaharrari atxikita baikaude gehienbat. Hezkuntza izango da bide bakarra gizarteaz nagusitzen ari den garabide teknologikoa berriro menpean hartzeko. «Sólo un trabajo de educación de los jóvenes tecnólogos permitirá, en efecto, que el hombre de mañana pueda adaptarse a su mundo». Baina zein hezieraz hezi? Problema larriagotzen du oraindik ez izateak premia berriotan behar bezalako hezkuntzaren kontzeptu egokirik: gizatasunaren ideia berri bat nagusiarazi behar teknologiari, eta ideia hori ez daukagu.

Las técnicas no pueden seguir abandonadas a su propio destino; no pueden seguir navegando a la deriva, como lo han hecho hasta ahora. Es preciso crear un 'saber superior', una especie de *Humanismo tecnológico*, que sea capaz de conducirlos a objetivos propiamente humanos<sup>77</sup>.

Santamariak itxaropen handiak erakusten ditu euskal gizartean eta batez ere Euskal Herriko Unibertsitatean, eginkizun horretarako.

Todo esto supone un trabajo universitario de nuevo cuño en el que deberán converger dos dominios del conocimiento y de la experiencia humana que hasta ahora han vivido por completo separados: el mundo de la Ciencia y de la Técnica, por una parte, el mundo del hombre, por otra. Quizás el pueblo vasco y, más concretamente, la Universidad vasca, pueda ser en un futuro próximo un lugar pedagógico de lo más adecuado para la creación o fundación de este nuevo tipo de saber del que nuestro mundo y nuestro pueblo se hallan tan necesitados<sup>78</sup>.

Azpimarratzekoa da teknikari gaintetik ezarri behar zaion irizpidetegia, morala, filosofia, edo dena delakoa, Santamariak ez duela ulertzen gorputz arrotz

baten eran, eta haren gainera, barneko lotura gabe, ekarrita: garabide teknikoaren barruan arakatuz eta han, haziak bezala, balioak aurkituz eta landuz, barrutik beraz, osatu behar da humanismo berria. Hainbat abiapuntutatik ekin dakioke laborantza horri. Orain bat aipatzeko, Santamariak *Técnicos al servicio de una concepción moral de la vida humana* (1958) hitzaldian aipaturiko produktibitatearena hauta genezake.

Bai marxismoa (komunismoa), bai kapitalismoa produktibitate maximoaren ideian daude finkatuta. Horrela, hierarkia gisako bat lortzen da helburu tekniko zatizko ezberdinen artean, ekonomikoa helburu nagusi eta bestek mendeko bihurtuz («pretensión de que la idea económica reine en el mundo desordenado de las técnicas»). Munduan ia dena bezala, produktibitatearen esanahia, edo balioa, anbigua da horrela. Batetik, gizakia bera produktibitatearen menpera makur dezakeelako<sup>79</sup>. Baina, bestetik, ideia horretan ikusi beharra dago ernamuin positibo bat ere:

... en la noción de productividad, tal como se la concibe actualmente, existe ya un cierto rebasamiento de la mentalidad técnica propiamente dicha. El fenómeno que hoy se observa es el de una rebusca, tímida, tanteante y oscura si se quiere, pero auténtica, de *un principio humano, capaz de gobernar el mundo de la técnica*<sup>80</sup>.

Printzipio hori izan liteke produkzioa giza kooperazioaren emaitza dela jotzea<sup>81</sup>.

Este es, señores, el momento solemne en que empieza a descubrirse ese gran mediterráneo que es el mundo de los valores morales. Dentro del mundo técnico se ve surgir la necesidad de buscar un arbitraje entre las técnicas y sus dispares criterios, un criterio ordenador forzosamente metatécnico. Se empieza a hablar de 'relaciones humanas'. ¿Los investigadores se verán conducidos por ese camino a la reconquista de los principios morales, como una cosa que están necesitando y que las técnicas mismas no pueden darles?<sup>82</sup>.

(Produkzioa, teknologia, giza ideal batek gidatuta eta giza kooperazio bezala ulertuta: ideia guztiok, eta pertsonalismoa, beste hezkuntza baten beharra, eta abar lirateke Santamariaren pentsamendua Arizmendiarieta Arrasateko kooperatibismoaren sortzailearekin erlazioan jartzeko beste hainbeste puntu, norbaiten aditasuna lehenbailehen merezi luketenak).

### ***Gainditze poetiko-mistikoa***

Une berean, humanoa eta inhumanoa da makina, teknologia. Horregatik, gizakia etengabeko borrokan dabil harekin. Batetik, ez da naturala: ez landare, ez animalia egin ditu gizakiak, baina makina bai. Horregatik, arrotza zaio

naturari, izadian munstro bat bezala da, eskandalu bat kreaioan. Bestetik, humanoa da, adimenaren eta gogoetaren emaitza ederra, espirituaren produktu eta tresna, gizatasunaren hedapena eta adarkatzea<sup>83</sup>. Berriro mito greko batekin deskribatzen du Santamariak gizakiari zer gertatu zaion makinarekin.

Un buen día el hombre depositó ese su aliento inteligente en un amasijo material de contenido deforme y la máquina fue. La máquina se puso en movimiento como una diabólica quimera. Llevaba en su seno el alma misma del hombre y —nuevo Pígalión— el hombre se enamoró de ella. La máquina no tardó en hacerse independiente del hombre: entonces la Naturaleza fue destruida para dar satisfacción a la insaciable bestia. La tierra se cubrió de manchas fabriles. Taláronse los bosques, los ríos perdieron su clara transparencia y con ella la fecunda grey de sus habitantes acuáticos. Algunos se quejaban. Se lamentaban de que tantas cosas bellas quedasen destruidas y de que la Naturaleza fuera brutalmente profanada, pero se les imponía silencio: «¡La máquina lo necesita! ¡Es preciso alimentarla!». «Es triste destruir esto...», pero la máquina debe pasar». ¡La máquina! ¡La máquina siempre!... Y el hombre dejó de ser el dueño de la creación para convertirse en un esclavo de la máquina.

Relegado a la categoría de «consumidor» quedó condenado a vivir al ritmo de la máquina, a consumir lo que la máquina fuese capaz de producir. Nacieron las urbes inmensas, las aglomeraciones fabriles, los rascacielos y el Metro. A los pulmones humanos les faltó el aire. Hubo que buscar nuevos consumidores, inventar necesidades y montar después esa gran torturadora, la propaganda publicitaria, encargada de fustigarlos a todos para que consumamos más. Como en «El aprendiz de brujo», la máquina, que había empezado a andar con prudente lentitud, se lanzó a una loca carrera de velocidades infinitas... y el hombre tuvo que seguirla y correr con ella, sometiendo su corazón y su cerebro a pruebas horribles.

Los mismos que esperaban obtener grandes beneficios de la máquina se vieron cogidos entre sus dientes. Vinieron las crisis industriales y las grandes guerras... Muchos culparon a la máquina y maldijeron la hora en que había nacido<sup>84</sup>.

Gizakiak hanka luzeagoak dauzka, lokomotorea asmatu eta gero; hegoak dauzka, hegazkinarekin; helmen itzeleko belarriak, irratiarekin... «El hombre de hoy no es ya sólo alma y cuerpo, sino alma, cuerpo y máquina. Dad a un bárbaro una pistola ametralladora y vereis lo que esto significa»<sup>85</sup>. Gizatasuna espiritua eta materia bada, arima eta gorputza, esan daiteke makinak nolabait gorputza handitzen eta indartzen duela. Gizakia orain materiago dela; arima gorputzak lotuago, zamatuago dagoela, materiak hesituago<sup>86</sup>.

El hombre de hoy está sumido en lo sensible, acosado y penetrado por lo sensible. El equilibrio íntimo, la interior armonía del cuerpo y del alma, se ha roto con la presencia de la máquina. La economía humana no volverá a su normal desarrollo en tanto que el alma no recupere el dominio de ese cuerpo complementario, de esa emanación corpórea que es la máquina y la someta a su jurisdicción espiritual<sup>87</sup>.

Arimak gorputza menperatzeko lana gehitu egin da, hortaz. Espirituaren menpekotasun eza lortzeko, arimaren jaretasuna, barauaz eta jakinduria aszetiko zaharraren beste antzeko moduez balia gaitzke, esaterako<sup>88</sup>, gorputza hilduratzuz indar espiritualak suspertzen omen dira eta. Energia moral horren etsenpluak izan dira historiako borrokari handienak<sup>89</sup>. Dena den: «El hombre occidental necesita reducir un poco su ‘superficie de contacto con la materia’, si no quiere perder del todo la visión de las cosas profundas»<sup>90</sup>.

Pigmalionen alegoriak partikulari adierazten duena beste arazo bat da, okerragoa: bere lehentasun eta nagusitasunaren kontzientzia galdu eta, espiritua materiaren azpian, kasu honetan espiritua bere produktuaren aurrean, belaunikatzearena.

Materialismoa beti egon da. Bakarrik, orain, materialismoak makinaren laguntza aparta duela bere alde. Pentsaera espiritualistak lanak dauzka gaurko munduan espirituaren errealitatea ikusteko ere. Berdiaeffen esaldi batekin esaten du Santamariak: «Actualmente hacen falta grandes esfuerzos para creer no sólo en Dios sino hasta en el espíritu»<sup>91</sup>. Espiritua galdu egin da bere produktuen artean. Hau da, gizakia ezin da bizi absoluturen bat gabe; absolutua behar-beharrezkoa du. Baina edozer gauza —objektu, ideia zein pertsona— bihur daiteke absolutu, altxa daiteke idolo. Halako idolotxoak egiten eta desegiten pasatzen du gizakiak bere bizitza osoa<sup>92</sup>. Makinaren beregaintze, nagusitze, jainkotez prozesuan, gizakia alienatuta kausitzen da orain, bere buruaren kontzientzia nahastuta, bere buruari galdetu beharrean, «zer naiz ni neu? makina artean makina bat ote naiz, makina beteginena?»<sup>93</sup>. Santamaria ez da pesimista.

El primer beneficio indirecto que la máquina ha proporcionado al hombre es el de que tenga que interrogarse a sí mismo para preguntarse quién es. Esta misma cuestión se la planteó sin duda el hombre prehistórico. Un día se dijo a sí mismo: «¿Soy una bestia más?». (El trato con la bestia estaba entonces a la orden del día y puede decirse que el hombre convivía con la bestia hasta el punto de que ésta era como su hermana natural). Ahora, ante la máquina, el hombre se pregunta: «¿Soy una máquina más?». Esto significa que está en trance de redescubrir el espíritu. Cuando así sea, la máquina habrá vuelto a ocupar su puesto en la jerarquía de los valores humanos<sup>94</sup>.

Hori etorkizunean dago, nolnahi ere. Orain, oraingoz, espirituaren ez itozteko borrokaren ordua da, Santamariak konfiantzaz ikusten duen etorkizuna argitu arte. Tenore txarra espiritualistentzat.

Mala hora para los poetas. De todos los defensores del espíritu, los poetas son, sin duda, los más débiles. La máquina los barre de mala manera y está a punto de acabar con ellos. Pero los poetas no están solos. Junto a ellos están los místicos, cuya capacidad de resistencia es mayor. Yo me alinearé siempre junto a los místicos, dispuesto a defender Avila contra Hollywood. Avila, con sus murallas, es el castillo interior, es el espíritu que se defiende. Luego saldrá de nuevo a conquistar el mundo<sup>95</sup>.

## Komunismoa eta kapitalismoa

Egon gintezke komunisten kontra, baina horrek ez du kentzen iraultza behar-beharrezkoa dela.

Aun suponiendo que no existiese el régimen soviético, los cristianos no dejaríamos de encontrarnos ante la necesidad de hacer una revolución social y económica de formidables dimensiones, una revolución sin par en la historia<sup>1</sup>.

Santamariak giro antikomunista itsu baten barruan idazten du (Espainian eta Mendebalean) eta ez du erraza izango giroak harrapatua ez izateko lana, komunismoaren aurka bai, baina ez gutxiago kapitalismoaren aurka, ibili nahiko baitu berak<sup>2</sup>.

Liberalismo/Kapitalismoaren eta Komunismoaren oinarritzko kritikak, funtsean, egindakotzat suposatuta behar dira, hasieratik bere burua *Esprit*-en eta Mounierren ildoan ageriki kokatu duen gure pentsalari pertsonalistaren baitan. Bion aurrez aurre eta kontra plantatzen da Santamaria.

En el momento actual se encuentra el mundo entre dos amenazas extremas: por una parte un neoliberalismo económico que, hábilmente disfrazado de fórmulas técnicas, trata en el fondo de seguir manteniendo la exclusiva del poder económico en unas pocas manos privilegiadas. Por otra parte, un colectivismo totalitario que para alcanzar la igualdad y la distribución de los bienes entre los hombres intenta atribuir todos los órdenes de la vida social a la acción de un Estado gigantescamente hipertrofiado<sup>3</sup>.

Hitzotan laburbiltzen du, hor bertan, Santamariak bere jomuga sinple ez erraza: «Salvar al hombre, salvar a la humanidad, de uno y otro peligro, no es tarea fácil»<sup>4</sup>.

Ondoren, beraz, bi sistema horiei buruz Santamariak arian-arian agertutako ohar kritikoon irakurketan, gogoan edukitzekoa izango dugu abisutxo hau: «No se trata, naturalmente, de considerar ambos sistemas —capitalismo y colectivismo— en el plano de las ideas o de los conceptos, sino en el de las realidades sociales»<sup>5</sup>.

Ekonomiko-sozialki hori. Filosofikoki, badirudi Santamariarentzat liberalismoak honezkero interes handirik ez duela. Egiazko oposizioa marxismoaren eta pertsonalismoaren artekoa da<sup>6</sup>. Horregatik, guk hemen, komunismo/kapitalismoaren kapituluaren ondoan, marxismo/kristautasunari eskainiko diogu beste bat.

### ***Kapitalismoaren salaketa***

Kapitalismoak merkatuko eskain-eske legearen sistema bezala aurkezten du bere burua. Baina ez da printzipio mekaniko antzeko bat, faktiko soila, baizik esanahi sozial moralekoa bere ondorio edo ekoizpenetan. «La teoría liberal capitalista atribuye a este mecanismo el mágico poder de conducir el proceso económico hacia las soluciones más justas y convenientes para la sociedad». Sistema honek justiziazko eta askatasunezko gizarte bat ekoizten du teorian.

Por desgracia —osteratzen du Santamariak— los hechos económicos están ahí, y no parecen confirmar históricamente el carácter verídico de semejante aserto. La libertad de mercados ha llevado a desigualdades económicas y sociales, entre individuos y entre pueblos, sumamente injustas y reprobables<sup>7</sup>.

Santamariak ezin aurreikusi izan du ekialdeko bilakaera komunismoaren erabateko porrotean amiltzen. Aitzitik («historia ez da ibilitakoa desibiltzen», etab.), ondo ala gaizki, baina kapitalismoaren gainditzean, edo abandonuan, itzulezinezko prozesu bat eginda zegoela historian uste izan du beti, eta ez zegoela bueltarik. Kapitalismoak ezingo zuela komunismoa knock-outatu ere, etab. Geroa komunismoaren gizatiartze eta demokratizatze aldera joango zela alde batean poliki-poliki, eta bestean kapitalismoa gainditzeko sozializatze formetara, bi sistemen konbergentzia-joera baratxe batean. Anartean, Santamariak oso kritiko jarraitu du sistema biekiko.

Kapitalismoak, ez dago zalantzarik, eboluzio handia egin du: lantegiko eta ekoizpeneko gidaritzaz zinezkoa, kapitaldunaren eskutik informaziodunarenera pasatu da. Nolabait esan, hastapen heroikoetako enpresa-kapitain arriskatuaren manutik teknokrataren ordenagailura. Eboluzio sozialaren ildoan, bestetik, «la aceptación de cargas y limitaciones en favor del bien colectivo, por una parte, y de los derechos del trabajador, por otra, ha moderado y humanizado el capitalismo»<sup>8</sup>.

Prozesu horren balorazioan nabaritzekoa da, nik uste, zein alde dagoen Maritainen eta Santamariaren artean. Maritaintzat kapitalismoak (Ipar Amerikan) lortu du bere burua gainditzea, kapitalismo/sozialismo alternatibaren haraindi paratuz; are klase gabeko gizarte bilakatua da, menpetasun materialistatik herri industrial askatuena ere bera da, etab.<sup>9</sup>. Maritain horrela liluratzen zuen eboluzio horri buruz,

... hay que reconocer —epaitu du Santamariak— que todo eso son parches y aditamentos extraños a la esencia misma del sistema. La verdad es que el puro y estricto capitalismo liberal no puede aceptar otro móvil para las acciones económicas que el

lucro: todo lo demás es periférico y no está en condiciones de incorporarlo a su médula sin sufrirse a sí mismo<sup>10</sup>.

Neokapitalismoaren kritika horri, batzuetan termino beretaraino, Rikardo Arregi atxiki zitzaion.

Este capitalismo humanizado, moderado, contenido por medidas legales se resigna apenas a conservar sus uñas cortadas y aprovechar todas las ocasiones que se le presentan para dejárselas crecer<sup>11</sup>.

Kapitalismoaren funtsezko kritika da ez dela pertsonarentzako sistema.

El hombre no le interesa a esta doctrina en último término sino como productor, como poseedor o detentador de bienes, como comprador y vendedor, en suma como materia de su actividad lucrativa<sup>12</sup>.

Pertsonek eta herriek beren premiak, interesak dituzte: kapitalismoari ez zaizkio horiek interesatzen «sino en la medida en que pueden ser rentables»<sup>13</sup>. Estu-keria ekonomizista horrekin, ideien eta balioen hutsa sortzen du gizartean, materialismo praktiko bat, gero erraz materialismo ideologiko eta praktiko mila bider trinkoagoko marxismoak bete ahal izaten duena. Tragedia sisteman dago. Sistema dago gainditu beharra.

El capitalismo en la forma en que lo conocemos actualmente —realización anónima y deshumanizada de una insaciable ambición de poder— no tiene nada de cristiano y nosotros no hemos de defenderlo confundiéndolo con el legítimo derecho de propiedad que salvaguarda la dignidad y la libertad de la persona humana<sup>14</sup>.

Kapitalismoari Santamariak egiten dizkion salaketetan gogorrena, agian, gerra moderno guztien ama izatearena da.

Cualquier injusticia social es una semilla de discordia, una incitación al odio. La frase de Jaurès: «Le capitalisme porte la guerre comme la nuée porte l'orage», es exacta si se aplica a cierto género, sin duda el más extendido, de capitalismo, que hace del lucro el único principio motor de la economía, pretende declarar autónomo de toda servidumbre ética al mundo de los negocios («les affaires sont les affaires») y desconoce sistemáticamente la noción, generalmente moral, del bien común. Ese capitalismo es el que ha encendido y alimentado la mayor parte de las guerras modernas, si no todas<sup>15</sup>.

Franco ondoren, «liberal berriek» askatasunaren eta demokraziaren defendatzaile ziurrenak bezala agertu nahi izan zuten, Estatuaren interbentzioaren aurka eta abar, bereziki, sozialismoaren arrisku omenen buruz buru<sup>16</sup>. «Querir meter todas las libertades en un mismo saco, como si la libertad fuese algo unívoco o monolítico, es una falacia manifiesta», salatu zuen laster Santamariak.

Liberal berri horiek, askatasun kapitalisten zaindari urduriek, ezagutuko ote zizutzen Euskal Herria bezalako nazio zapalduen askatasunak?

Hay muchas formas de oprimir la libertad y los propios liberales de ahora deben reconocer que el liberalismo jacobino ha sido durante muchos años y bajo diferentes aspectos un auténtico enemigo de las libertades sociales y de las libertades de los pueblos<sup>17</sup>.

### ***Komunismoaren onargaiztasuna***

Goiz ei da oraindik Urriko Iraultzari buruz, patetikoki «historiaren epaia» esan ohi dena, entseatzeko<sup>18</sup>. Batzuentzat aro berri baten egunsentia historian, beste hainbatentzat gertaera zikin izugarria izan da. Zaila dago gertakari horretako protagonisten balorazioa ere: batzuek Lenin zerutartzen dizuten artean, Trotski «deabru kapitalisten» infernua hobiratzen dizute.

¿Qué duda cabe de que aquellos hechos no podrán ser juzgados nunca con objetividad, ni llegará a aclararse del todo el papel que las grandes figuras del drama jugaron dentro de él?<sup>19</sup>.

Dena den, orain hor dago komunismoa, itzelezko blokea munduan; zer esan nahi du kapitalismoa gainditzearen heinean? Baina zeinek esan nahi behar du zer? Izan ere, Santamariaren idazkuntza loratu den aldian, komunismoa zatitua ibili da, bai bloke bezala eta bai ideia bezala. Txina eta Sobiet Batasuna elkarri muturka; ortodoxoak, troskistak, maoistak, eurokomunistak, azken modako ezkeristak, denak denekin agiraka eta halere denak «intelektual burgesen» aurka batera. Arazo handia demokraziarena izan ohi zen eta, beraz, periodikoki, oposizioarena (ideologikoa, literarioa). Andrei Amalrikena izan zen halako kasu bat<sup>20</sup>. Honen arabera, Sobiet Batasuna, sozialista edo internazionalista baino gehiago, eslavista omen zen eta «lo que, en definitiva, funciona allí, de modo más efectivo, es el nacionalismo ruso paneslavista»<sup>21</sup>. Horrelako edo antzeko kritikak, behin eta berriro altxatzen ziren. Desaxolatu gabe, haatik, ez ditu gehiegi esplotatu Santamariak arrazoi molde horiek.

Pasternaken Nobel sariaren istiluak seriooki planteazten zuen printzipiozko arazoa<sup>22</sup>. Beste askoren eskandalu faltsuan jausi gabe, Santamariak nahiago izan zuen «Errusiari buruz idatziz, Espainiaz hitz egin» metodoa ez guztiz ahaztu, han falta zen libertatea hemen ez baitzegoen sobera:

... la sociedad en que vivimos —hasi zen aitortuz— no está tan libre de pecados contra la dignidad y la independencia del escritor, que uno pueda permitirse el lujo de arrojar la primera piedra, desde este ángulo del mundo<sup>23</sup>.



Eta nahi zuenak neke handi gabe ulertzeko moduan:

En suma la URSS es un Estado ‘confesional’. Allí hay una religión de Estado, que es el materialismo dialéctico, que toma posición en todos los terrenos desde las Matemáticas o la Paleontología hasta la Música o la Historia de las Religiones, cosa que nunca había hecho ninguna religión propiamente dicha<sup>24</sup>.

Han ere askatasunik ez dago.

Errepublika Komunistetako askatasun falta problema izan da kapitalismoaren alde sentimendu izpirik ez zutenen artean ere. Batzuentzat, beren buruak nola edo hala marxista ikusten zituztenekin hasteko, iragaitza epe baterako, ortodoxia marxista-leninista beharrezko neurria zen, kapitalismoa ezabatu eta komunismora iristeko; beste hainbaten esanetan, iragapideko diktaduraren tesia, marxismoaren deformazioa zen, batzuentzat leninista («marxista» erreformista edo sozial-demokratentzat), besteren batzuentzat estalinista, gutxienez Sobiet Batasunean eta estatu sateliteetan gertatzen ari zen eran (troskistentzat, etab.). Beste batzuek, Santamariak horien artean, kapitalismoa gainditu beharra garbi edukiz ere, ez dute ontzat eduki gainditze horretarako eredu marxista; beraz, ezta iragapideko proletalgoaren diktaduraren komenentzia edo beharra ere. Hiru puntu bereiz ditzakegu: 1. Proletalgoaren diktadura, horren justifikazio teorikoarena, alegia (tradizio marxistan), 2. hauteskunde libreen edo mekanismo demokratikoen arazoa, eta 3. askatasun intelektualarena.

1. Santamariarentzat, proletalgoaren diktaduraren tesia ez da marxismoari Leninek edo gehitua, ez da marxismo jatorraren geroko deformazioa. (Alegia, diktadura problematikoa bada, problema hori jatorrizkoa da tradizio honetan, Marxen beraren baitan dago). Helburua, Marxek eta Engelsek *Manifestua*-n (1847) definitu zuten legez, gizarte guztiz libre da<sup>25</sup>. Baina alderdi alemanaren programaren kritikan (1875) Marxek adierazi zuenez,

... entre la sociedad capitalista y la comunista se sitúa un período de transformación revolucionaria de una en otra. A este período corresponde igualmente una fase de transición política en la que el Estado no puede ser otra cosa que la dictadura revolucionaria del proletariado<sup>26</sup>.

Marxen pentsamendu hori berdin aurkitzen da hogei urte lehenago<sup>27</sup>. Diktaduraren egitekoa izango da burgesiari eskuetatik bere kapital oro kentzea, produkzio-tresnak Estatuaren eskuetan zentralizatzea eta indar produktiboen marxta azkartzea. Klase antagonismoak desagertzen direnean, botere publikoak aiurri zapalkor higuigarria galdu egingo du, halaber, eta orduan agertuko da egiazko Estatu sozialista.

Hori horrela, Santamariaren objekzioak bi hauek dira:

a) «Durante muchos años hemos oído estas mismas o parecidas afirmaciones. El Estado comunista no podía ser juzgado por la realidad inmediata, sino por la promesa. El comunismo no podía ser juzgado como una realidad terminada, sino como un proceso que perseguía un fin altamente deseable y hermoso». Santamariaren galdera: «¿no han operado así todas las dictaduras?»<sup>28</sup>.

b) Geroko gizarte ederraren fedearekin justifikatzen da oraingo itsusiaren errealitatea: justifikatua ote da, ordea, fede hori bera?

Somos muchos los que hemos creído siempre, no sin pena, no sin tristeza, que esa presunta sociedad reconciliada, sin clases, sin tensiones, ni despotismos, era una utopía. Una utopía «científica», si se quiere, la super-utopía, el término de todas las utopías sociales, si se quiere, pero utopía al fin y al cabo<sup>29</sup>.

2. Alderdi eta hauteskunde libreen sistema burgesa Iraultza Sobietarrarekin «historikoki» betiko gainditua dagoela, hartara ez dagoela atzera bueltatzetik (beraz, hauteskunde horien falta Errepublikak Komunistei egozteak ez duela zentzurik, eta abar) argudiatzen dute komunista batzuek<sup>30</sup>. Arrazoibide hori, osteratzen du berriro Santamariak Francoren Espainiatik,

... se aproxima demasiado a las de ciertos totalitaristas occidentales [...]. También ellos ofrecían a los pueblos la libertad, pero colectivizándola, es decir, considerándola como libertad no de los individuos, sino de las colectividades. Pero, ¿de qué me sirve a mí pertenecer a un pueblo libre y grande si dentro de él no me alcanza nada de grandeza ni de libertad personales y se me impone una existencia extraña a mí mismo?<sup>31</sup>.

Komunismoaren alde, efikazia izan da arrazoi handi bat. Mekanismo demokratikoak geldiak eta nahasiak omen dira; gobernu-era eta sistema komunistak, alderdi bakarrarekin, zentralismo demokratikoarekin, eta abarrekin,

... logra una unidad de acción, una potencia técnica y una capacidad de maniobra política muy superiores a las de los regímenes que tratan de realizar la unidad moral de los pueblos, es decir, la unidad de conjuntos de hombres y de comunidades libres. Unidad, potencialidad técnica, seguridad de maniobra, del bloque marxista, llegan a impresionar a bastantes observadores que echan en cara a las democracias su lentitud de acción y su debilidad.

Alderantziz, Santamariak uste du jendea libertate gabe mugiarazten duen efikazia hori epe laburrekoa dela.

A la larga esta desvitaminización tiene que producir fenómenos de envejecimiento a los que el mundo podrá asistir en un plazo no muy lejano. Entre tanto, los pueblos que hayan confiado en la fuerza creadora de la libertad personal, continuarán ciertamente

moviéndose de un modo aparentemente torpe e inseguro, pero en el fondo mucho más humano, más seguro y más realista<sup>32</sup>.

Efikazia, bestalde, arrazoi eskasa da doktrina politiko (beraz, moral) baten zuzentasunaren alde:

El hecho de que los rusos tengan grandes éxitos científicos —de lo que, como hombres, debemos alegrarnos— no significa, ni mucho menos, que las teorías marxistas sobre el principio y fin del hombre hayan de ser tenidas por verdaderas<sup>33</sup>.

3. Askatasun intelektualaren arazoan ere, sistema komunitei ez dago demokrazia liberaletako neurriak aplikatzerik: hau da, Errepublika horiek, beren printzipioekin koherenteak badira, sistemari lagungarri ez zaizkion obrak zentsuratzean. «Pero se puede ser consecuente e inmoral al mismo tiempo, si los principios a los que se sirve lo son, por fielmente que se les sirva»<sup>34</sup>. Gakoa hor dago. Eta Santamariarentzat, bat, jokabide hori, eman nahi diren justifikazioak gorabehera, dogmatikoa eta intolerantea da<sup>35</sup>. Eta bi, sasirazionalismo zurrun horrekin, tradizio historiko literario eta kulturalak gutxiesten eta lorrintzen dira.

La lección del caso Pasternak consiste, a mi entender, en que en virtud de los principios del bienestar colectivo, visto a través del prisma comunista, una actitud humanitaria y profundamente dolorida y compasiva, como lo ha sido siempre y sigue siendo el alma rusa, deba ser considerada como subversiva en el propio país de Tolstoi y de Dostoiewski. Hay aquí una traición a algo muy grande que la Historia no podrá perdonar a los maestros del marxismo-leninismo<sup>36</sup>.

Askatasun intelektualaren arazoa —orain ez luzatzeko— arimaren askatasunarena da, barnagoan.

El marxismo no sólo colectiviza la industria, los transportes y la Banca. Esto, para mí, no tendría demasiada importancia; lo más grave y lo más importante de todo es que pretende colectivizar el alma humana, y en esto se parece al totalitarismo como un piñón a otro piñón<sup>37</sup>.

Bistan da, diktadura da komunismoan Santamariak ezin eraman duena.

### ***Ezker berria edo zinismo zaharra***

Ustekabekoa gerta dakioke lehenengotik irakurleari Santamariaren irakurketan Diogenes zinikoarekin behin eta berriro topo egitea (gero erraz ulertuko du)<sup>38</sup>. Kapitalismoaren eztabaidan ere, hau da, produkzio-ondasunen jabegoaren eta, oro har, edukitasunaren arazoan, Santamariak parabola polit bat aurkitzen digu zinismo grekoan. Hona hemen:

Se cuenta del gran Diógenes, y hasta puede que sea verdad, que antes de dedicarse al vagabundeo —suprema filosofía de la vida— poseía un esclavo. Un esclavo llamado Ménades que le había legado su padre al morir.

(El padre, creo que ya lo saben ustedes, era un banquero de Sínope, a quien habían expulsado de su ciudad natal por dedicarse, fuera de horas naturalmente, a la fabricación de moneda falsa).

Aburrido, sin duda, de las excentricidades de su amo, el tal Ménades decidió un día escaparse, y así lo hizo a la primera ocasión.

Al enterarse Diógenes de lo ocurrido no le dio la menor importancia al asunto, ni manifestó siquiera el más leve propósito de adoptar represalias o de dar cuenta a la policía ateniense para que se hiciese con el fugitivo.

Los vecinos de Diógenes, extrañados de este proceder tan poco sensato —ya que todo el que se aparta de los usos y costumbres comunes en una sociedad, de cualquier tipo que sea, es automáticamente considerado como insensato— trataron de convenecerle de que debía recuperar a toda costa «su hombre».

Pero el gran Diógenes, con su flema característica, de la que había de dejarnos tantas pruebas —al menos si son verdaderos los numerosos hechos y dichos que se le atribuyen— el gran Diógenes contestó:

— Sería ridículo, amigos míos, que Ménades pudiera vivir sin Diógenes, y que Diógenes no fuese capaz de vivir sin Ménades.

Esta frase genial plantea ya la famosa dialéctica hegeliana del amo y del esclavo o, si ustedes lo prefieren, del poseyente y del poseído.

Modernamente se ha puesto de relieve la doble esclavitud que implica toda relación de posesión. Pero ya Diógenes lo había visto claro y por eso se fue a vivir más tarde al tonel.

El poseedor cree poseer la cosa o persona poseída, pero en realidad es también poseído por ella.

Se establece así una extraña relación entre ambos, en la que tan esclavo es el amo como el siervo, el poseyente como el poseído<sup>39</sup>.

Diogenes eta Menades burgesia eta proletalgora dira, noski, eta problema da bion arteko erlazioa nola konpondu. Eta soluzioa iristeko bidea, Diogenesek erakusten duen eran, ez printzipio kapitalistak dira, domeinuarena eta jabego ukiezinarena, ugazaben boterea polizialki babestuz eta langileria errepresioz makurraraziz, eta ez printzipio komunistak dira, ugazabaren ukatzekoak eta ezabatzekoak.

La dialéctica del amo y del esclavo sólo tiene una solución. Liberar «realmente», no sólo idealísticamente o verbalmente, las relaciones inter-humanas de todo carácter de posesión. Hacer de ellas unas genuinas relaciones inter-personales, entre seres efectivamente iguales en libertad humana, con todo lo que esto comporta, incluso en lo material<sup>40</sup>.

Soluzioa, garbi esan, pertsonalista da.

Kapitalismoa zein komunismoa, biak dira Santamariarentzat arbuigarriak hastapenetik. Printzipio okerretan oinarrituak eta espiritu gaiztoan inspiratuak.

Baina nora iristen diren puntutik ere, biak berdintsu gustatzen zaizkio. Batak ala besteak «historiaren akabura» ei daramate gizarte teknologikoan.

Gizakia beharretako izakia da («un ser de necesidades») eta beharron dialektikaren arabera egiten du historia, egiten du gizarte-bizitza. Gizakiaren beharrok itzalaraztea kultura iraungitzea litzateke, alegia, bai gizakiaren bere buru lanketa eta bai munduaren lanketa bere inguruan. Santamariak Simone Weil aipatuz gogoratzen duenez, beharrok ez dira fisikoak bakarrik:

Benetan, gizonak, gizon denez eta gizartean dagoenez, behar asko ditu, fisikoak ez direnak: erresponsabilidatea, askatasuna, ohorea, partizipazioa, kultura... Behar hauek ez bazaizkio asebetetzen, heriotzaren antzeko egoera batean erortzen da gizona. Ez da gehiago gizonik, gauza edo animalia baizik<sup>41</sup>.

Beharrak asez, bere burua osatzen du gizakiak. Beharra da kontraesan eta uko guztien iturburua, aurrerapausoen eragilea. «Beharraren dialektika garbi eta naturalki jokutzen baldin bada, gizartea gizatartuko da, eta gizona gizartetu. Historiak aurrera egiteko, nahitanahi ezkoa da beharraren dialektika»<sup>42</sup>.

Gizarte teknologikoak dialektika hori lurperatzen du, beharren mugimendu librea kontrolatuz.

Gizarte teknologikoa ez da Mendebalekoa soilik, kontsumo-gizarte kapitalista, baizik alde bietako gizarte industrialak, teknikoak, berdin-berdin. «Gizarte industrializatuetan, nahiz eta sozialistak izan, alienazio berri bat agertzen da, Marcuse jaunaren ustez, antzinakoak baino gogorragoa dena»<sup>43</sup>. Gizakia (eta gizartea), zoriontsu bizi delakoan, alienazioan bizi da, eta bere zorion horixe du hain zuzen alienazioa. Baina nola zoriona bezala sentitzen duen, ez du beselakoaren beharra sentitzen, ezin du protestatu, errebelatu, egoera aldatzeko borrokatu. Gizarte industrialetako hiritarrak *ez!* esateko kemena galdu egin du. Galera hori ez da etorri egurka eta zartaka erasota:

Historiaren indarra, ukazioa ukatzean dagoela esan ohi digute marxistek. Bortxaz eta zigorrez lotuta dagoen herri edo klase bat zapaltze horren kontra aldatzen da. Baina gaurko teknokrazia [...] gizonaren behar guztiak asetzeko eta kontradizio guztiak integratzeko gauza omen da. Hortik dator, Marcuseren iritziz, dialektikaren akabantza eta Historiaren fina<sup>44</sup>.

Berriro mitologia grekoak eskuratzen dio hemen iruditeria polit bat Santamariari. Ulises, naufragioan ontzia galduta, Kalipsoren uhartetxoan salbatu da<sup>45</sup>. Itsasoko estualdietatik oso bestelakoa aurkitzen du hemen bizimodua, bertan nagusi den Kalipso ninfak, Atlasen alabak, nahi adina guztia oparo emanen baitio eta gustu guztiak bete, ibili behar zuen bidea eta etxea ahaztu, eta

hantxe beraren senar gera dadin betiko. Zazpi urtez edukiko du Kalipsok «gozo eta atseginez» Ulises bere ondoan «lotuta», zoriontsu eta preso... (Hori da zorionaren alienazioa). «Teknokrazia, Kalipso ninfaren antzekoa da, eta gaurko gizona beraren sareetan lotuta dagoen Ulises bat»<sup>46</sup>.

Kapitalismo zaharra, «gizonaren premiak bete ordean, premia hauetaz baliatu egiten zen, gizona maneatu eta menderatzeko»<sup>47</sup>. Langileek ezin zitzaizketen beren premiak ase, miserian eta haserrean bizi ziren. Borrokak jarraitu egiten zuen.

Gaurko egunean, berriz, teknika aurreratuari esker, gizarte aberatsak [kapitalista nahiz komunistak] erreztasun eta aisetasun guztiak eskaintzen omen dizkio jendeari [...]. Baina gizarterik aurreratuenean behar batzuk betetzen badituzte ere, beste batzuk, batez ere sistemaren kontra izan ditezkeenak, itoazten dituzte<sup>48</sup>.

Hau da, gizarte modernoak, guztiz bitxiki, zoriontasuna opa eta ez digu zoriontsuak ez izateko aukera utzi nahi. Eskuzabalki abantailak eskaini bai, eta gero haiek hartzera behartu egiten du. Gizaki oraindar hau, gizarte industrialean, obligatua dago mesedeak egin dakizkion. Abantailen kateetatik libratzea ez dauka libre.

«Askatasuna da, hain zuzen ere, gizonaren behar handienetako bat, baita zapaltzeak gozo-itxura hartzen duenean ere»<sup>49</sup>. Nola lortzen da amatatzea gure Ulisestxo nabigatzailearen bularrean askatasunaren behar hori bera, gozamenaren lehorrean alfer adigabeki luza dadin? Gezurrezko libertateak asmatuz<sup>50</sup>, jendeak libertate askotako itsasoan bizi den inpresioa izan dezan. Hori baino halere okerragoa da, okerrera, «dimentsio bateko gizartean askatasun ideia bera faltsifikaturik egotea, benetako zapaltzea dena jendeak libertadetzat hartzen duelako», horrela, finean, «mundu onen-onenean bizitzea iruditzen baitzaio gaurko gizonari»<sup>51</sup>. Premiak, ase ahal dituenen ase, ezin dituenen baztertu eta ahantzarazi edo faltsutu, egiten ditu gizarte aberatsak. Ez dago libre, libre ez zaudela, ikustea. Une honetan «dialektikarik gabeko eta ukatzerik gabeko gizartea» daukagu: «Eskapatzerik gabeko gizartea»<sup>52</sup>.

Gizarte teknologikoaz tenore hartan eginikoetatik, azterketa zorrotzeta eta sakonena Santamariari Marcuseren hau iruditzen zaio<sup>53</sup>, oso ongi erakusten duelako «teknikako razionalismotik sor zorian dagoen gizarte berria»<sup>54</sup>. Ez da ulertu behar honezkero ez dagoela zer eginik, besoak altsumatu eta egonean egon baino. Marcuseren analisisa

... *self-defeating*<sup>55</sup> deitzen diren iragarpen horietako bat dela esan beharko genuke [...]. Marcusek igarpen bat egin du, gizarterik aurreratuenean dialektika hilko dela esanez. Eta, *hain zuzen ere*, igarpen hori eginaz denez gero, dialektika ez da hilko ote [...].

Marcusek ateka gorri batean gaudela esaten digu, dialektika gabeko Historiarik ez baiditeke izan. Eta esan horrekin protesta mugimenduari bultz handi bat egiten dio, egin ere<sup>56</sup>.

Izan ere, halaxe izan da, errebeldiak eta iraultzak analision arabera ezinezkoa zirudien 1960ko eta 1970eko urteotan, inoiz baino harramantza gartsuagoak sortu direla bazter guztietan. Batetik, hainbat gazteren aldetik (maoistak, castristak, etab.), berehalaxeko Iraultzan bero-bero sinetsita, fede berritze bat bezala egon delako, beti ere tradizio «marxistan»<sup>57</sup>. Bakoitza bere ortodoxiako Alderdi eta alderditxo horien suaz, edo keaz, Marxen aspaldiko hitzak errepi-katu ditu Santamariak: «Alquimistas de la revolución que quieren improvisar una revolución allí donde no existen las condiciones necesarias para ello»<sup>58</sup>. Beste aldetik, «la lucha que ha de aportar la solución —idatzia zuen Marcusek— no puede tener las formas tradicionales»<sup>59</sup>, eta nolabait inspirazio modu horretatik hainbat oposizio loratu dira, Santamariak «la post-izquierda»-tzat hartu dituenak<sup>60</sup>.

El post-izquierdismo se traduce sobre todo en una amplia gama de movimientos independientes entre sí, pero que convergen en un determinado tipo de acciones populares. Ecologistas, antinucleares, desarmamentistas, pacifistas, antimilitaristas, feministas, pro-abortistas, etc., integran hoy de alguna manera la poderosa corriente de la nueva izquierda<sup>61</sup>.

Post-ezkerra ez dago Alderdiren batean, ez daukalako egoterik, kontzeptuz beraz demokrazia instituzionalaren ukoa, ondorioz Alderdiena ere bai, esan nahi du eta. Post-ezkerra ez da osotasuneko programaren baten defentsan tematzen. Borroka eta helburu konkretuetan lehiatzen da. «Lo que los neo-izquierdistas pretenden es remover las contradicciones internas sobre las que las sociedades de hoy se hallan asentadas»<sup>62</sup>.

Santamariaren gardiz,

... el propio *Herri Batasuna* responde al modelo neo-izquierdista que ahora prolifera un poco por todas partes. Se halla, por decirlo así, en la línea de los tiempos, por muy irracionalista que ésta pueda parecerles a muchos<sup>63</sup>.

Eta bukatzen du:

Por mi parte me atrevo a afirmar —si se me permite— que todo propósito de convertir un movimiento de esta naturaleza en un partido de corte clásico sería una contradicción absolutamente inviable.

### ***Euskadi autogestionatu bat***

Autogestioaren ideiak seguruenik arrakasta izan du bolada batez, kapitalismotik eta komunismotik aparte hirugarren bide batekin amets egiten zelako, eta hortik etor zitekeela ematen zuelako. Hein batean, anitz akatsekin bazen ere, Jugoslaviak eta Titoismoak aurkezten zuten autogestioaren sinbologia. Izan ere, 1948an Titok Stalinen joera diktatorialei buru egin zien: berehala Kominform-etik iraitzia izan zen eta herrialde komunistek Jugoslaviaren blokeo politiko eta ekonomikoa dekretatu zuten. AEBek finantza-laguntza oparo batekin bereganatu nahi izan zuten orduan: Titok, laguntza hartu bai, baina bere bidea segitu zuen, «hirugarrena», neutralista.

El ejemplo de Tito fue pronto seguido por otros países subdesarrollados o ex-coloniales, que se negaron a someterse a ninguno de los dos imperialismos. Así nació el tercermundismo o política de no alineación, que es la base de la actual estrategia triangular del mundo<sup>64</sup>.

Titok sozial-ekonomikoki ere hirugarren eredu bat entseatu zuen,

... distinto de la socialdemocracia y distinto, también, de la democracia popular de los países del Este: el socialismo autogestionario. La clave de la diferenciación se encontraría, sobre todo, en la estructura del poder. Tanto los comunistas como los socialdemócratas propugnan la toma del poder por la clase trabajadora: los primeros por la acción revolucionaria, los segundos a través de las urnas. El autogestionarismo defenderá, en cambio, la idea de la total descentralización y difracción del poder [...]. La autogestión consiste, en efecto, en que el país sea gobernado desde la base. Autogobierno a todos los niveles: nacionalidades, municipios, empresas, fábricas, escuelas, organizaciones culturales y deportivas. En todas partes serán los propios actores —fundamentalmente los trabajadores— quienes llevarán la gestión de lo actuado, mientras que a la Administración estatal no se le reconocerán otras competencias que las que sean necesarias para la coordinación general y la buena marcha del conjunto<sup>65</sup>.

Itxurazkoa zen saio hura, hain zuzen, Jugoslavian entseatu izatea, dauzkan ezaugarri eta problema espezifikoekin<sup>66</sup>. Baina, horrexegatik, zailtasun espezifikoekin aurkitu dira ereduak modu horretan problematiko bihurtzen dutenak, eta Santamariarentzat onartezina finean. Izan ere, autogestioaren printzipioarekin batera, Alderdi bakarra, zentralismo demokratikoa («en virtud del cual el poder real, el poder ‘definitivo’, queda en manos de un pequeño grupo de personas»), prentsa kontrolatua, etab., hots, botere autoritarioa eutsi da. Bi mutur elkartezin elkartu nahi izan dira.

En resumidas cuentas, tendríamos que convenir en que el socialismo autogestionario yugoslavo ni es socialismo ni es autogestionario. Este severo juicio puede ser útil a fin



de dejar el terreno bien despejado para la realización de posibles nuevas experiencias de autogestión en países mejor preparados para ello, en lo económico y en lo cultural, que la sufrida Yugoslavia<sup>67</sup>.

Santamariak etorkizun urrun bateko Euskal Herrian egiten du amets:

Tal vez el País Vasco pudiera ser uno de estos países. Hay, al menos, algunas razones importantes para creerlo; pero aún no ha llegado el momento de que proyectos de esta naturaleza puedan ser siquiera acariciados por nosotros<sup>68</sup>.

## Marxismoa eta kristautasuna

Kasu sonatu bat, marxismoaren eta kristautasunaren, edo marxisten eta kristauen topaketarena praxian, positiboegi amaitu ez zena, Frantziako apez langileen esperientzia izan zen, oihartzun handikoa gure artean ere. Memen-toan, konfrontazio-espirituak agintzen zuen alde bietan. 1953ko udako greben ondoren lehertu zen polemika handia: prentsa burgesak komunistatzat salatu zituen apez horiek; *L'Humanité* egunkari komunistak dialektikoki baliatu nahi-ko du salaketa horrexetaz, komunismoaren garaipena Elizaren gain erakusteko, eta abar<sup>1</sup>. Azkenean, Erromak esku hartu zuen esperientziari akabera emanaz. *Documentos* (15) koadernoetan, Santamariak gorabeherotako gotzainen gutun pastoralak eta deklarazioak bildu eta iruzkindu ditu, testu guztiak irakurle es-painolei eta hegoamerikarrei zuzenean ezagutzera emateko<sup>2</sup>.

Santamariaren espiritua orokorki «ezkerra» eta kristautasuna biltzekoa izan da beti. Hori, memento batzuetan, Mitterrandi buruzko artikulu sinpatiaz bete batekin erakutsiko du<sup>3</sup>; edo Espainiako bozketan garaipen sozialista naturalta-sunez onartuz<sup>4</sup>, bakearen alde marxisten eta kristauen elkarlana errebindikatuz, edo mila beste modutan, eguneroko martxan. Espiritu hori —edo horren behar-raren kontzientzia— beharbada Santamariaren titulu batekin adieraz daiteke ongiena: «Construir solidaridades»<sup>5</sup>.

Alegia, Santamariak haragitu eta hedatu nahi lukeen espiritua gure eguno-tan da bereetan Marxek deus maite ez bide zuena. Muturrak lotu, antagonis-moak erlazio harmoniko bihurtu, Hegelek egin nahi izaten omen zuen. Marxek, alderantziz, azken bururako jomuga harmoniko bat amesten bazuen ere (klase gabeko gizartea), orain berehalako txokea bilatzen zuen, gatazka eta gaindipe-na, ez akordiozko gaindipena<sup>6</sup>.

A Marx le fastidiaban todas las posiciones concordistas o armonizadoras que en su tiempo trataban de buscar la paz social y de suavizar los males de la sociedad capita-lista. Para convencerse de ello basta leer, entre otros muchos textos, los párrafos que dedica en el *Manifiesto Comunista* a los que él llamaba 'socialistas burgueses': «estas gentes que quieren paliar las lacras sociales a fin de mejor defender así a la sociedad burguesa». Y Marx da a continuación una lista que parece exhaustiva de este tipo de personas: «economistas, filántropos, humanitarios, mejoradores de la situación de la clase obrera, organizadores de obras benéficas, protectores de animales, fundadores de sociedades de templanza, falsos reformadores de todo pelaje». Está claro que todas estas personas le molestan a Marx, y esto por la simple razón de que son gentes que

quieren paliar, armonizar, o allanar las contradicciones de la sociedad, en lugar de afrontarlas de modo real a nivel de lucha de clases<sup>7</sup>.

Beste jarrera, elkartzekoa, solidariotasunak eraikitzekoa, kooperazio edo lankidetzakoa, Santamariak sozialismo premarxistarekin, «utopikoarekin» (adiera marxistan)<sup>8</sup> identifikatzen du:

... solidaridad, comunitarismo, mutualismo, cooperativismo, reciprocidad, federalismo, armonía de las fuerzas sociales para el progreso, la paz, la ley, el orden y el bienestar colectivo fueron, en efecto, los principales tópicos manejados por aquellos 'socialistas burgueses' que se llamaron Saint-Simon, Fourier o Proudhon<sup>9</sup>.

Santamariak, beharbada izaeraz, baina batez ere konbentzimenduz, bigarren bide horretatik jo beharra zegoela pentsatu du, bai kristau gisa eta bai euskaldun gisa<sup>10</sup>, gure errealitatearen gogoetan nahiz haren transformaziorako ekintzan. Lanaren kontzeptuan, adibidez, edo Hirugarren Munduaren arazoan.

### ***Lanaren kontzeptuaz***

Badago «primum vivere» ateraldi eskolastikoei eratziki bat, elementala delako beti errazegi ezikusia intelektual usteko ez-elemental askok: lehenengo eta behin simple-simple jan egin behar dela mundu honetan, gero poetarik egongo bada, bere mintzaira demiurgozkoan mintza dakigunik, filosoforik egongo bada, espekulazio goitarretan entretenituz dabilenik, edo juristarik egongo bada, gizartea zuzenbidezko harremanetan oinarrituta nola eratu hausnartuko duenik<sup>11</sup>. Gizakia, fisiologiako edozein tratatuk irakasten digunez, premiaz betetako animalia da, beharretako izakia, kontu handia eta arta zehatza eskatzen duena. Giza gorputzak egunero hamabi mila litro inguru egurats-aire zuputzen, transformatzen eta botatzen du arnasan; goibehe jakinen arteko tenperaturaren mantendu behar da; hirurogeita hamar bat gramo albuminoide behar du irentsi, hiru bat gramo gatz, hiru litro aldean ura; mila eta zortziehun kategoria haizatzen du bere baitatik eta beste bostehun xahutzen du janari hotzak berotzen, arnasako ura lurrintzen, bihotzaren lanerako beharrezko energia sortzen, etab. Gizakia bere inguruarekin lotuta funtzionatzen duen mekanismoa da, haren parte nolabait, eta burubidatu beharra dauka bere beharrezkoak asetzekoak nondik edo handik eskuratzeko: jakiak bildu, berokiak atondu, atsedena eta loa ziurtatuko dizkion egokierak paratu, etab. Ez gara pentsatzera gelditzen, baina gizaki gehienek ordu gehienak zereginotan pasatu ohi dira. Horri guztiari lana edo ekonomia deritzo.

Marx tuvo el mérito de introducir el trabajo entre los grandes temas de la reflexión filosófica. Para él, el trabajo es una función esencial, una *categoría* del ser humano, la relación normal entre la Naturaleza y el hombre, el medio de realización de la potencia transformadora que en éste se encierra. Mediante el trabajo, el hombre, especie de demiurgo, modifica continuamente el mundo y puede incluso alterar su propia condición natural<sup>12</sup>.

Lanaren mundua eta Eliza sozialki ez daude harreman onegietan<sup>13</sup>. Lanaren gogoeta filosofikoa ere, tamalez, kristautasunetik at, are kristautasunaren aurka hein batean, garatua da<sup>14</sup>. Orain, lanaren mundu horri begiratu nahi zaionean, haren gogoeta filosofiko kristaua ezinbesteko bilakatu da.

El propósito que ahora anima a los reformadores cristianos del mundo del trabajo —a los cristianos que creen que hay algo más que la caridad benéfica, la justicia conmutativa y la conservación de las estructuras económicas tradicionales— no puede ser realizado a fondo sin una filosofía adecuada. Sólo un pensamiento profundo puede dar solidez a una acción duradera<sup>15</sup>.

Marxen ideiek lanari buruz karga immanentista handi bat daukate barruan. Mundua helburua da bere baitan; ezer ez dago haren gainetik, ez hartatik landa. Giza lana hor sartzen da, helburu estralurtarrik ezin zaio seinlatu. Monismo marxistak ere badu pisua teoria honetan: Marxentzat gizakia Naturaren parte besterik ez da; materia eta espiritua ez dira errealitate beraren bi kara baino.

Lanaren filosofia materialistari buruz buru, Santamariak lanaren filosofia pertsonalista ipintzen du («orain» eraikitzen ari dena: 1958)<sup>16</sup>, haren laburbilduma hau eskainiz:

La filosofía personalista del trabajo parte de unos principios muy distintos que los del materialismo dialéctico, si bien en algunos puntos podría llegar a consecuencias análogas a las de éste. El hombre, materia y espíritu, cuerpo y alma, es portador de una personalidad. Esto significa que conduce sus propios actos libremente, siempre más allá, siempre hacia un destino ulterior. El trabajo es, pues, la manifestación creadora de la voluntad de un ser libre. Pero la acción transformadora del hombre no es ilimitada; se encuentra ante un mundo que no ha sido hecho por él, sometido a unas leyes que él no puede modificar, religado a una existencia que él no ha fabricado. En el trabajo hay la parte de la materia y la parte del espíritu; ningún trabajo humano es exclusivamente manual, ninguno tampoco es exclusivamente intelectual. En el trabajo existe la parte de la indigencia: el desgaste, la fatiga, y un aspecto de frustración y de imperfección que parece inherente a todo acto humano. Pero existe también la parte de la superabundancia, la contribución a una acción inteligente, constructiva y, en cierto modo, re-creadora del mundo. En el trabajo hay además una comunicación de bienes de todas clases. El trabajo religa al hombre con la sociedad; le sitúa en una comunidad de seres libres semejantes a él<sup>17</sup>.

Teorikoki lanaren gogoeta kristau sakon bat oraindik egiteko badago, sozialki hainbat aurreiritzi oker desegiteko dago, batez ere bat, Santamariaren lumara behin eta berriro datorrena, gai hau darabilenean (aipatu testuan ere ikusi duguna: «ningún trabajo humano es exclusivamente manual»). Batetik intelektual askoren gutxiespena dago, beren gogoeten gai duintzat ezagutzeko lana<sup>18</sup>. Sinesgaitza eman lezake, intelektualak ezkertiarak izatea ia obligazioa zen garai baterako. Baina:

‘Hay que ser un intelectual para ignorar lo que es un proletario’, exclamaba no hace mucho tiempo el escritor Francis Jeanson. Que esto pueda decirse en una época en que los intelectuales dedican montañas, y aun cordilleras, de papel a exponer sus ideas sobre el proletariado es un hecho muy significativo. Por desgracia, la miseria social, el suburbio, la condición proletaria, habían llegado a ser para muchos intelectuales un puro motivo literario<sup>19</sup>.

Langileen eta intelektualen arteko urruntzearen bi kausa nagusi aipatzen ditu Santamariak. Bat kultura orokorrekoa da, eskulan edo jopuarena eta burulan edo liberala bereiztera ekarri gaituena, «el embrujo helénico que aún cautiva al alma occidental: la concepción del trabajo físico como pura esclavitud»<sup>20</sup>. Ekarpen biblikoa ahaztu gabe:

Con el sudor de tu frente comerás el pan hasta que vuelvas a la tierra de que saliste [...]. Así, en la maldición bíblica, estas dos necesidades van unidas en un mismo contexto: la necesidad del comer y la fatalidad del morir<sup>21</sup>.

Bigarren kausa, kultura orokorraren menpekota zalantzarik gabe, hezkuntza-sisteman bertan dago:

La causa tal vez más importante del aislamiento en que hemos vivido universitarios y obreros radica en el clima de nuestra educación [...]. Nunca se lamentarán bastante las consecuencias demasiado patentes que para la buena formación de los jóvenes tiene su separación docente por clases sociales. En realidad debería ser al contrario: la educación habría de acercar al mundo del trabajo a los jóvenes que viven demasiado ajenos a esta casi esencial actividad humana. La solidaridad social debería encontrar en la escuela su más sólida base: no sólo los hijos de los obreros, sino, sobre todo, los hijos de los ‘profesionales’ y de las gentes más acomodadas deberían, por ejemplo, aprender un oficio en la escuela<sup>22</sup>.

Eskulanaren birbaliapenak Santamaria eskuaren beraren fenomenologia egitera darama Vialatoux irakaslearekin<sup>23</sup>. Kurioso da, urteotan hainbat euskaldun itzuli da nonbait eskuaz gogoetara<sup>24</sup>. «La mano del hombre es una mano espiritualizada», ohartu du Santamariak.

La mano no es una zarpa, ni una garra, ni una aleta, sino el instrumento por excelencia, el organum organorum de un espíritu encarnado [...]. Al fin y al cabo —eskulanaren gutxiespena eragin duen tradizio grekoari aipamen eginez berriro—, no es el cuerpo carcelero y el alma cautiva, ni el cuerpo corcel y el alma jinete —viejas y equívocas imágenes de reminiscencia platónica—. La mano es justamente el símbolo visible y actuante de la unidad del ser misterioso que somos. Por medio de ella, nuestro pensamiento penetra en el mundo de la materia y lo altera. La mano acaricia, palpa, estruja, rompe el espacio físico en su derredor; pero también piensa o ayuda a pensar. No es enteramente paradójico el dicho de Anaxágoras: «El hombre piensa porque tiene manos». También el aquinense nos recuerda, en su perfecto equilibrio, que «el hombre tiene razón y manos». Es peligroso concebirlo, pues, como un espíritu angélico cuando realmente es un ser corpóreo espiritual<sup>25</sup>.

Esan daiteke, ideietan edo kontzientzian bederen, «lanaren zibilizazioan» gaudela dagoeneko.

Hemos llegado a un tiempo en que felizmente el trabajo encuentra una valoración adecuada. Quiérase o no, nos encontramos ante una «civilización del trabajo» en la que el ser trabajador no constituye ya ningún desdoro ni revela una condición inferior<sup>26</sup>. Al contrario, el hombre que no trabaja, estando en condiciones de hacerlo, puede ser visto con desprecio por los demás. Es justo que, en medio del duro quehacer que la circunstancia económica nos impone, todos los que trabajamos, sea cual sea el útil o herramienta con que lo hagamos, nos sintamos orgullosos y contentos de ser eso: trabajadores<sup>27</sup>.

Hainbat mingarriagoa gertatzen da orain errealitatearen eta kontzientziaren artean kontraesana. Errealitatean lana merkantzia bat baita; beraz, lanaren gizatasun guztiaren uko biribila<sup>28</sup>. Ordea, gizartearen kontzientzia-maila honezkeroko exijitzen ari denez,

... en una sociedad bien organizada el trabajo no debe ser únicamente un medio de ganarse la vida, sino una actividad ennoblecedora de la persona humana. Debe ser la base universal de la promoción humana<sup>29</sup>.

Hauxe izan liteke solidarotasunak eraiki beharra ederki erakusten duen adibide bat. Izan ere, nahikoa ikusi da langile-mugimenduen historian konfrontazioek, alderdikieriek ez dutela lortzen problemari behar bezala buru egitea, osotasunean. Noizbait langileria politikoki askatzea planteatu zen, ustez eta horrela, eskubide politikoen jabe, langileok hiritar ekinkor eta erantzuneko bilakatuko zirela eta beren askatasunaren egile. Laster ikusi zen ilusio hutsa izan zela hori. Hau da, askatasun politikoak, askatasun ekonomikoaren osagarria gabe, gehiago faboratzen zituela edukitsuak, ezedukiak baino.

Las masas proletarias, apenas sacudidas por las revoluciones liberales, volvían a caer de nuevo en su letargo. Materia amorfa, terrosa e inerte, los políticos no podían esperar

de ella ningún impulso constructivo y sí sólo movimientos ciegos y catastróficos desprendimientos de tierras que se hundan o agitación de olas que se encrespan<sup>30</sup>.

Orduan iraultza sozialak etorri ziren, edo erreforma sozialen eboluzio-mugimenduak, langileriak bizimodu ekonomiko franko eroso eta konfortagarria lortu ahal izan baitzuen. Etorri ote zen orduan langilea bere burua pertsona bezala ikustera, komunitatean partaide ekinkor bilakatzera?<sup>31</sup>.

Entonces se produjo el hecho menos esperado: a pesar de la legislación social, a pesar de las ventajas materiales y de la seguridad real en el orden económico, el hecho proletario subsistía en el fondo, aunque bajo un barniz resplandeciente de progreso material. El genuino sentimiento de la libertad y de la dignidad personal no había nacido en las almas. Asomaba, al contrario, por el horizonte el fantasma de la sociedad-máquina. Utopistas y profetas anunciaron la tragedia inminente: los totalitarismos materialistas y tecnocráticos<sup>32</sup>.

Zer jazo da? «La libertad política y la libertad económica no sirven a la persona sin la libertad espiritual»<sup>33</sup>. Alegia, holako arazoetan ez dago filosofia, ideologia, politika alderdikoietan ibiltzerik, bakoitza bere aldetik: heldu beharra dago arazoari, denok batera eta maila guztietan, solidarioki.

### ***Hirugarren Munduaren arazoa***

Egunero jaten dugun pribilegiatuok ez dugu pentsatu ohi jatea gure beharra dela: ez baitzaigu egiten problema, are gure sukaldariek arte eta plazer ere bihurtu baitigute bazkatzea.

Orduan ez dugu pentsatu ohi gizadiaren parte handi bat egunero beharrak azpian hertsatua bizi dela; hertsapenak gizakia deusgizatu egiten duela, aberetu, piztitu, gaiztotu lagun hurkoaganako, otso bihurtu. «No pensamos en que una gran parte de la humanidad vive en un estado de ayuno crónico y se consume en una especie de autodestrucción permanente»<sup>34</sup>. Ez dugu pentsatzen gure milioika anaia goseak bizi direla. Gosea ez dela fenomeno fisiologiko soila, baizik hondamen kultural, moral eta pertsonal arras sakona. Ez dugu pentsatzen egunero-egunero haurrak, agureak, gazteak, goseak hil egiten direla.

Mantenuaren beharrean, gizakiaren aurreneko obligazioaren iturria eta gainerako beste guztien prototipoa dago, Santamariak Simone Weilekin dioskunez, autore horren pasarte hau aipatuz:

Es una obligación eterna respecto del ser humano, la de no dejarle sufrir de hambre cuando se tiene la posibilidad de socorrerle. Esta obligación, por lo mismo que es la más evidente, debe servir de modelo para trazar la lista de todos los deberes eternos

del hombre con el hombre. Si se plantea esta cuestión a cualquier persona, se verá que nadie piensa que un hombre pueda ser considerado como inocente, cuando, teniendo alimento en abundancia y encontrando a su paso a otro medio muerto de hambre, pasa ante él sin darle nada<sup>35</sup>.

Hori horrela, ezin diogu ez galdetu geure buruari, errugabe har ote genezakeen gaurko gizadia, guztiz jakinaren gainean bere umeetatik erdiak goseak hiltzen uzten dituela, heren bat oparotasunean gainezka bizi den artean.

Eta guk, zuk eta nik, gure bazkari erraza jan ote genezake kontzientzia onean, kezkatu gabe, zerbait egin gabe? Eta zer egin? Non dago errua, zein da egoera honen eragilea, zer egin liteke erremedioa jartzeko? Inork ez daki.

Es casi imposible reconocer a los verdaderos culpables. Incluso los dirigentes políticos y sociales más importantes creen poder justificar su propia irresponsabilidad fundándose en la impotencia en que se encuentran para poner remedio a los males. Las buenas voluntades aisladas no bastan, en efecto, para luchar contra este estado de cosas. Se ha operado una especie de 'colectivización' del pecado; el mal moral se ha encarnado en estructuras y situaciones sociológicas; el egoísmo y la pasión han adoptado formas legales y moralísticas que pretenden exigir nuestro respeto y nuestra colaboración [...] Un estado de pecado colectivo, de una atmósfera de iniquidad, en la que todos estamos sumergidos y las responsabilidades se hallan ya tan diluidas que parecen suprimir los escrúpulos y adormecer las conciencias<sup>36</sup>.

Mundua lehenago sekula ez bezalako ugaritasunean egon eta itxuragabe-ki goseak harrapatu duen Hirugarren Munduaren<sup>37</sup> arazoa batez ere marxisten kontua izan da, eta Inperialismoaren teoriarak arakatzeko eta esplikatzen zen, 1960 aldera arte behintzat, buruhauste partikularrik gabe, horretarako Marxen eta Leninen testuek aski ziruditela. Pasatu beharreko fase bat zen, munduko Iraultzara iristeko. (Halere, edo horrexegatik, Hirugarren Munduko herriak ustiapien basa horretatik pasarazten zituen kapitalismoa, progresista omen zen, etab.). Hirugarren Munduko iraultza batzuek (Vietnam, Kuba), eta horietan ikusitako bloke komunistaren arrakalak (Sobiet Batasuna, Txina), batez ere «koexistentzia bakezkoa»<sup>38</sup> deituaren hedapen praktikoak hurrengo urteetan, zalantzan ipini zituzten teoriok, beste analisi eta balorazio modu batzuetara leihoak irekiz. Bi datu garrantzizko agertu dira une honetan antzokian: bat, borrokari kristauen parte-hartzea Hirugarren Munduko herrien askagintzan (ez analisi ekonomiko soilekin jardunez, marxistekiko motibazio desberdinekin, etab.); eta bi, kontraesan ekonomiko-sozial ebakorrena kapitalismo/sozialismo bereizketa geografiko bihurtzea, Ipar/Hegoa alegia, ordura arte onartutako bloke ekonomiko-ideologikoen lekuan edo gainetik. «Marxistaren» ondoan, eta harekin borroka batean, kristauak bere planteamenduak aurkez zitzakeen



orain. Engoitik, arazoa ez da bando batena edo bestearena, kontzientzia galdu ez duten jende guztiena baizik.

La coexistencia pacífica ha contribuido, en parte, a tranquilizar a los poseyentes, que ahora ya no parecen tan dispuestos a mostrarse 'generosos' con los desposeídos. Y en este punto debe hacerse observar que no se trata de distancias entre países capitalistas y países socialistas, sino [...] entre países ricos y países pobres [...]. Resulta que los países socialistas ricos no siguen en el terreno económico internacional una política económica más generosa que la de sus homólogos capitalistas<sup>39</sup>.

Eskandalua unibertetsala da. «El diez por ciento de la población humana dispone del ochenta por ciento de la renta mundial»<sup>40</sup>.

Arazo ekonomiko hori, Santamariaren planteamenduan, «injustizia sozialaren» bilakatzen da: «Esta injusticia puede ser considerada en el plano internacional o también en la vida interna de los estados»<sup>41</sup>; eta berau «bekatu kolektiboaren» gero:

... se ha producido una especie de contagio o de encanallamiento colectivo y no está de manera alguna fuera de lugar el repetir la afirmación de Péguy de que la sociedad entera se halla en estado de pecado<sup>42</sup>.

Alegia, (kristauarentzat behinik behin) ez da aski errealitatea prozesu ekonomikoen kontzeptuetan soil analizatzea eta balioestea: «errealitateak», besteak beste, gizarteko harremanetan deshumanizazioa, moralgabekeria, egoismoa, zapalketa, hots, «bekatua», ia lege naturalen naturaltasunarekin inplikatzeko ditutuetak. Errealitateak, beste datu askoren artean, giza kontzientzien jarrerak ere biltzen ditu bere baitan (kolaboraziozkoak, erresistentziazkoak). Egia da ez dela nahikoa, oraindik Marx errepikatu beharra baldin badago, gizabanakoen borondate on edo gaiztoen gorabehera soil gisa ulertu nahi izatea memento sozialak<sup>43</sup>; baina ez da zilegi egitate sozialetan gizakiaren eta gizartearen borondatea, erantzukizuna, kontzientzia jokoan ez baleude bezala kontsideratzea ere, makinaria itsu baten halabehar erantzun gabeko deterministaren itxurarekin. Errealitatea ez da moralki neutroa. Hirugarren Munduak auzitan jarri, orduan, gure erantzukizun pertsonala bai, baina batez ere gure zibilizazio-eredua bera jarritzen digu. «El llamado orden social no es sino un cierto orden en el desorden o un desorden consagrado»<sup>44</sup>.

Auzitegi orokor horretan, puntualki auzitaratua, bai Elizak eta bai tradizio liberalak giza eskubide oinarritzat ezagutu izan duten jabego pribatuaren balioa aurki genezake, esate baterako. Pobreen bistan diru-xahutze ponperiatuak ospatzea izaten da edukitsuen haizekerietako bat. Halako kasuren baten

aurrean, Santamariak ez du isildu bere inpresioa<sup>45</sup>. Baina barnagoan printzipiozko arazoa planteatzen da: jabeak bere edukitasunekin egin ote lezake nahi duena? Edukitzailearen eskubideak ez ote du zerikusirik —baldintzarik, mugarik— ez edukien eskubideekin?

El hecho de que la Iglesia —erantzun du Santamariak— defienda la propiedad individual como uno de los derechos inalienables y de las garantías de independencia y de dignidad de la persona frente a la presión de la colectividad, que en todo momento amenaza aplastarle, no quiere decir que acepte como bueno un modo de concebir la propiedad que haga de ésta un valor absoluto y un obstáculo insuperable para la justa distribución de bienes entre los hombres [...]. La propiedad privada no es un absoluto, sino que depende en gran medida de la situación y del servicio del bien común general.

Hori ahazten duelako dauka kristau jende askok

... la falsa conciencia de que el poseyente tiene derecho a gozar de su bien independientemente de la situación de los demás hombres [...]. Contra esta actitud hay que decir que tal modo de pensar y de obrar es objetivamente inmoral<sup>46</sup>.

Horra «bekatu kolektiboko» bekatuetarik bat.

Barrurago, pertsonaren duintasuna eta eskubideak era honetan zanpatzen dituen zibilizazioaren zentzuaz galdegin liteke, hau da, zibilizazio honetan solemneki «eskubide pertsonal sakratuez» mintzatzeak erraz ezkututzen duen hipokrisiaz edo anbiguotasun ankerraz<sup>47</sup>. Idazleren bati bere adierazpen askatasuna galaraztea, conforme, pertsonaren eskubide aitortuen aurka dago, eta Mendebalde aseko gizarteak berehalaxe muntatzen ditu eskandaluak horrelakorik ekialdean edo Hirugarren Munduan agitu orduko: antzara burges papobeteak oso sentibera dirudi pertsonaren eskubideon errespetu kontuan. Sakratua baita berarentzat patxadaz gosaltzeko hautetsia duen egunkariaren askatasuna eta puntualitatea goizero. Eta zein eskandalizatzen da zer ahoratu ez daukan milioi eta milioien gosaltzeko eskubide alferraz, egunkari gabe izanda ere? Pertsonaren eskubideez mintzatzeak, Mendebalean ohiko adieran, zentzurik ez duen, edo negargarria bakarrik duen, egoeran kausitzen da gizadiaren gehien-gehiengoa.

En tanto no se reconozca el derecho de los pueblos al desarrollo, a la justa distribución de las riquezas del mundo, a la independencia económica y a una efectiva independencia política y cultural, no habrá medio de garantizar a los ciudadanos de esos pueblos un verdadero sistema de derechos y libertades<sup>48</sup>.

Zer egin mundu honekin, hori da kontua.

¿*Qué hacer?* Esta es la gran cuestión, la misma que se planteó Lenin en las vísperas de la revolución de octubre. Yo no estoy tan seguro de que la respuesta revolucionaria, la de la revolución armada, sea la mejor, porque ya vemos a dónde han ido a parar los sucesores de Lenin. Pero sin duda hace falta una revolución en el mundo. ¿Qué clase de revolución? ¿Por dónde y quién?<sup>49</sup>.

Santamariak sinetsia dirudi egoera horrek noizbait eztanda egin beharra daukala. Hirugarren Munduari laguntzeko egiten diren proiektuak-eta, azkenean, adar-jotze batzuk dira. Herri aberatsak geroz aberatsago, pobreak geroz pobrego ari dira bilakatzen. Hirugarren Munduko herriak, ez Ipar aberatsarekin konparazioan bakarrik, beren barruan ere, aurrera ordeztzeraka doaz. Gaur jaiotzen diren umeak gurasoak orain diren baino txiroagoak izango dira bihar berak<sup>50</sup>.

Si Occidente no tiene sensibilidad suficiente para captar este problema ni generosidad para atacarlo a fondo, su estructura social no podrá resistir los próximos embates históricos<sup>51</sup>.

Horrela, bere kontzientzia falta («bekatua») mehatxu bihurtzen da Mendebalarentzat.

Dena dela, kristauak, beharbada iraultzara deitzen ez badu ere, deitzen du ekintzara, marxistak bezalaxe, egoera hori errotik aldarazteko.

Ante las enormes desigualdades que existen entre los hombres la conciencia cristiana genuina se subleva, se encoleriza con ira santa y exige a todos los hombres honrados que se entreguen con ardor a remediar este lamentable estado de cosas, a hacer que la distribución de los bienes terrestres entre los hombres sea realizada de un modo más perfecto y equitativo. En otros tiempos no existía ni conocimiento exacto de la situación ni medios técnicos para realizarla. En el estado a que ha llegado la humanidad no existe ya disculpa<sup>52</sup>.

### ***Komunistak eta bakea***

Arazoa aipatu bakarrik, labur-labur: bake-propaganda «komunistak», hainbat eta hainbat literato (Sartre), intelektual (B. Russell) eta zientifiko (F. Joliot-Curie eta I. Joliot-Curie) ospetsuk ere faboratuta, egundoko sakada izan du Gerra Hotzean<sup>53</sup>. 1950 aldera, mobilizazio etengabe batean dardarka eduki dute iritzi publikoa filmetarako espioitza-istorioek (Rosenberg senar-emazteenak, adibidez, biak heriotzara kondenatuak), Mundu mailako Bake Kongresu erraldoiek, ikerketa zein esperimendu atomiko amerikarren aurkako sekulako kanpainek, eta abarrek, edo berdin alderantzizko aldagoi antikomunista bero-beroeak. Bestetik, labur esateko, nazioarteko komunismoak Stalini obeditzen zion

itsu-itsu. Tenka maximo egoera horretan, haizu ote zen katolikoarentzat bakearen alde komunistekin «kolaboratzea»? Problema oso delikatua izan da tenore horretan. Izan ere, Vatikanoa ez zegoen sokatira horretatik libre; Eliz hierarkiak oso hurbildik kontrolatu nahi izaten zituen, artean, mugimendu laikoak; mentalitate, katolikoaren artean, ez zen arrunt irekiena ere. Katoliko bakezale batzuk «kontzientzia-objekzioa» egiten ere hasi ziren, gerra atomikoaren berezko immoralkeriagatik: baina Aita Santuak berehala deitu zituen ordenara<sup>54</sup>. Santamariak bere trebetasun diplomatiko eta kalkulu matematiko guztia ipini behar izan du jokoan, nazioarteko Pax Christi-ko idazkari gisa erantzun «garbi» bat emateko, «Responsabilité et limites du membre de Pax Christi à l'égard de la paix temporelle» Kongresu-azalpenean: haizu, bai; baina kontuz, eta beti obedientziaren azpian, eta bakea absolutizatu gabe<sup>55</sup>...

Pentsamendua, esan gabe, esanda uzteko arte behar horrekin, irakurleak ohartuko du testu frantsesa komunistak izendatu ere egin gabe pasatu dela.

Tous les hommes de bonne volonté, tous ceux qui aiment vraiment la paix, et qui travaillent et qui se sacrifient réellement pour elle, méritent notre aide et notre sympathie. Car tous ces hommes-là, même s'ils ne sont pas chrétiens, réalisent une action noble et digne et accomplissent leur devoir moral en travaillant pour la paix et pour la concorde des peuples<sup>56</sup>.

Testu hori Argentinan espainolez eman denean, sori iruditu da komunistak beren izenarekin aipatzea: «Pues todos esos hombres, aun cuando no sean cristianos, *aun cuando sean comunistas*, realizan *naturalmente* una acción noble y digna»<sup>57</sup>.

Denborarekin, esan daiteke, horrelako problemak, konpondu baino gehiago, desagertu egin direla, giroarekin eta mentalitate-aldaketarekin.

### ***Marxisten eta kristauen elkarrizketa***

Elkarrizketaren beharra giza natura sozialari datxekio<sup>58</sup>; eta, halere, zenbait aldartetan, nekez ikasi egin behar izaten da:

Necesitamos aprender a conversar, aunque esto sea difícil en un pueblo como el nuestro, pueblo de grandes afirmaciones y de actitudes absolutas. El momento exige, hoy más que nunca, esta conversación, que nosotros quisiéramos estimular: diálogo entre generaciones, entre familias de espíritus, entre creyentes e incrédulos<sup>59</sup>.

Elkarrizketa zintzorik gabe ez dago aurrerabide sozialik, esaten du hemen Santamariak: «Sin el diálogo, sin la mutua y libre fecundación de los espíritus —por

peligrosa que esto pueda resultar a veces— no cabe un progreso intelectual ni social»<sup>60</sup>.

Arriskutsua izan elkarrizketa? «De hecho el diálogo, que debiera servir para engrandecer a los hombres, se utiliza también para encanallarlos»<sup>61</sup>... Arreta horiek pixka bat harrigarriak eman lezakete. Eta eman baino, izan dira behar-bada hainbat harrigarriagoak garai horretarako, arrazoia ikusten denean.

Postmodernia kontzeptua 1980ko hamarkadan hedatu da gure artean, batez ere Lyotarden liburuari eskerrak<sup>62</sup>. Baina Lyotardek berak 1950eko azken urteetan kokatzen du gizarteak aro postindustrialean eta kulturak postmodernoan sartu omen diren puntua. Egia esan, hemen ez zaigu axola postmoderniak zehazki noiz daukan jaioteguna<sup>63</sup>. Santamariaren bibliotekako hark arretaz irakurri eta erruz azpimarratutako liburu batean<sup>64</sup>, É. Bornek nahikoa xehe azalduta eta kritikoki balioetsita dator frantsesez<sup>65</sup> Romano Guardiniren saioa Moderniaren akaberaz<sup>66</sup>. Romano Guardinik, Maritainek ere erabiltzen zuen eskema batekin, dakusanez, Erdi Aro jainkotiaren aurka, Errenazimentuak aro «jainko gabe» bat hasi omen zuen, beste balio gizatiar eta mundutar batzuen inguruan —egia errebelatuaren aurka arrazoimenaren sistema—, eta honezkero sistema hori («Modernia») lur jota omen dago<sup>67</sup>. Orain, Jainkoak emandakorik gabe eta berak asmatutakorik ere gabe geratu da gizaki edo gizajo mendebaldarra: egiaren eta adimenaren naufragio honetan, dena eztabaidagarria da berriro, dena da subjektiboa, argumentuaren lekua solasak hartzen du, «admitiéndose tácitamente —Santamariak deritzenez— que toda opinión puede ser buena, con tal de que encuentre alguien que la defienda con brillantez»<sup>68</sup>. Hemen, bide batez, ezinbestekoa zen sofista grekoak aipatuta aurkitzea. «Quizás —susmatzen du Santamariak— el agnosticismo larvado, que hoy trabaja interiormente a nuestra civilización, es una de las causas de la importancia que ésta concede al diálogo»<sup>69</sup>.

Baina, bat, karia nobleago eta jasoagorik badagoela elkarrizketarako gaur ere espero du, oro har, Santamariak<sup>70</sup>; eta, bi, mundu modernoaren krisi horixe litzateke marxisten eta kristauen elkarrizketarako kausa gehigarri bat, axola gabezia ideologiko eta utzikeria moral orokorraren zibilizazio nagi honetan, biak direlako nolabait «sinestunak» mundu zuzenago eta gizatarrago batean<sup>71</sup>. Elkarrizketa egote hutsa, beste gabe, positiboa da<sup>72</sup>.

Beste modu bateko trabak izan dira marxisten eta kristauen arteko elkarrizketa galarazi edo fruitu gabetu izan dutenak, sinesmenaren edo sinesgabetasunaren fenomeno deformatzen zuten presio soziologiko inkisitorialak, bereziki. Izan ere,

... aunque la Inquisición hace tiempo que desapareció —con harto sentimiento de algunos— a título de institución pública, dotada de temibles poderes, la misma ha persistido y persiste como fenómeno social. Existen inquisiciones sociológicas de signos opuestos. Todo depende del país o del medio en que uno se encuentre sumergido. Así, por ejemplo, mientras en Rusia o en China no parece nada fácil ni cómoda la postura del creyente —permítaseme el eufemismo— conviene que veamos con claridad la otra cara de la moneda. Démonos cuenta de lo difícil que debe resultar el ser ateo —y sobre todo el proceder como ateo— en una sociedad como la nuestra<sup>73</sup>.

Halako giroan, elkarrizketak, hori egotera iritsiko balitz ere, esanahi faltsua edukiko luke<sup>74</sup>. Halere, elkarrizketa zinezko bat posible egiteko adina aldatua dela giroa uste du Santamariak<sup>75</sup>.

Solaskideengandik, hasteko, bakoitzak bere jarrera leial erakustea espero behar da. Ez da ezer irabazten besteren postura ulertzeagatik, edo hari bidera irteategatik, norberaren lekua galtzeraino joanda. Zentzu honetan, La Pira Florentziako alkatearen jokabidea Moskun izan daiteke elkarrizketa leialaren eredu bat. Ikustera joan zaizkion Sobiet Goreneko kideei, «Yo creo en la presencia de Dios en la Historia, y en la fuerza histórica de la oración» adierazi die xaloki. Egun horietan, superstizioak eta aurreiritzi erlijiosoak betiko erauzi behar direla, predikatuz, artikulu bat agertu du *Pravda*-k:

La Pira ha contestado con una larga disertación, en un banquete oficial, en la que ha asegurado, con su perenne sonrisa en los labios, que artículos como ése resultan ya anticuados, infantiles y poco científicos, y que la Prensa del Partido serviría mejor a los intereses rusos y a los del mundo si adoptase una concepción menos imbécil respecto al hecho religioso<sup>76</sup>.

Tonu berdinean jarraitu du Mosku Irratian, eta abarretan, bere jarrera fedezkoa azpimarratuz beti.

Bestetik, solaskidearen ideiekin eztabaidatu behar bada, marxismoaren ateismoarekin adibidez, ideia horien esanahi positiboa, testuingurua, eta abar ulertzeko ahalegina egin beharko da; baina ez gutxiago ideia horien okerra, okertzat baldin badauzkagu behintzat, geure buruan ere borrokatzeko eginahala. Elkarrizketak purifikatu egin behar gaitu.

Marxismoa ateista da. Kristauak ezin du ontzat eman ateismoa. Borrokatu egin behar du<sup>77</sup>. Baina zer borrokatu behar du?

El ateismo no se encuentra aquí o allá. No puede ser identificado con esta o la otra ideología. No puede ser simplificado. Está siempre agazapado en algún rincón de nuestro propio espíritu. (Quien se sienta definitivamente libre de la desesperación, que arroje la primera piedra)<sup>78</sup>.

### Etsaiaren ideien —guretzat onargaitzen— positibotasuna bilatzea:

Marx no ignoró el hecho religioso, sino que a su modo lo englobó o lo incorporó a su síntesis. Entonces, como ahora, el espectáculo de una religión fuertemente lastrada por seculares supersticiones exigía un trabajo de desmitización. Este trabajo los cristianos pudieron haberlo hecho desde dentro. Marx lo hizo desde fuera o, más bien, desde enfrente y así nació su crítica terrible. Marx vio la religión sobre todo como superstición consolante. Quizás no le dejaban verla de otro modo<sup>79</sup>.

Alde horretatik, onartezina da Marxen ateismoa, nora heldu zen azken ondorioa; baina oso positiboa, gure purifikaziorako lagungarria, superstizioari eman dion jorratua.

Zaila ikusten da marxisten eta kristauen artean zinezko elkarriketa —ez dago garbi horrek zer izan beharko duen ere—. Batean, badirudi marxismoa gizartearen analisi-metodo soila litzatekeela eta ez legokeela propioki fedearrekin gatazkarik zergatik eduki (fede garbiarekin)<sup>80</sup>. Bestean, hain urruti eta hain ulergaitzak dirudite bata bestearentzat, egokiena kontzeptu arras orokor eta nahasietatik poliki-poliki hurbiltzen hasteak ematen baitu, hasieratik ez frontalki talka egiteko. Halako gai bat izan liteke, H. Lefebvre filosofo marxistak iradoki legez, alienazioarena:

Está comprobado, en efecto, que en las discusiones difíciles las palabras anfibológicas suelen ser un excelente recurso para lograr acuerdos sustanciosos, ya que no sustanciales. La noción de 'alienación' es lo suficientemente equívoca para que, a partir de ella, cristianos y marxistas puedan llegar a un terreno de diálogo práctico, sin dejar de mantenerse fieles a sus respectivas interpretaciones del mundo y de la historia<sup>81</sup>.

Alienazioaren behin-behineko definiziotzat «norberaren buruaren ez edukitasuna» onartzen badugu, jatorrizko bekatuaren dogmaren aitorle kristauak ez daukate zertan oztoporik eduki onartzeko gizakia oraintxe errotiko alienazio-egoera batean murgilduta bizi dela. Egia da gero, azken finean, salbazioa edo desalienazioa mundutik kanpo gauzatzeko helburua dela kristauarentzat. Baina hori ez da eragozpena gizadia denbora eta mundu honetan estekatzen duten loturak apurtzen orain gogotik lehiatzeko.

Eta zer deritza marxistak: gizarte komunista askatuan, burutuan, ustiapen ekonomikoa ezaba dadinean, gizartean ez dela egongo bekaizkeriarik, eta abarrik ere? Gizakia bere buruarekin osoki adiskidetua bizi ahal izango dela alegia?<sup>82</sup>. Agian, pertsonari bere konplexutasun osoan justizia egiteko (gai honi kapitulu bat eskainiko diogu aparte), haren heriotzaren beldurrarekin, bizitzaren zentzuaren, zorionaren, sufrimenduaren itaunekin, eta abarrekin, marxismoak

ere onartu egin beharko du murriztegia dela alienazioaren orain arteko bere kontzeptu soilki ekonomikoa; hau da, Adam Schaffek azaldu bezala,

... que el marxismo no ha ofrecido hasta ahora respuestas válidas a estas cuestiones precisamente porque no se ha desarrollado dentro de él una teoría adecuada del individuo humano<sup>83</sup>.

Solaskide biek ikasi beharko dute batak besteagandik. Ari dira jada ikasten, Santamariaren ustez:

El marxismo representa el supremo esfuerzo del pensamiento materialista para dar una explicación del mundo; pero los marxistas parecen cada vez más convencidos de que esta explicación dista mucho de ser satisfactoria. Tampoco el cristianismo 'explicante', que tan de moda estaba hace tres cuartos de siglo y que ingenuamente pretendía ofrecer un esquema coherente y exhaustivo de todo lo divino y lo humano, tiene ya ninguna aceptación<sup>84</sup>.

Aldakuntzok ez dira, seguruenik, elkarrizketari eskertzekoak. Mundu-giroa bera doa aldatuz, eta, horrekin batera, kristautasuna eta marxismoa. Giro-aldaketak elkarrizketari eragiten dio; elkarrizketak, giro-aldakuntzaren jarraipenari.

Revisionismo cristiano y revisionismo marxista constituyen el gran hecho histórico de los diez últimos años. Y es por este doble revisionismo por donde la Historia tendrá que encontrar su salida en este momento aporético<sup>85</sup>.

Pentsamenduko adostasuna da (ideologikoa) Santamariak elkarrizketatik edo eztabaidatik inoiz espero ez duena<sup>86</sup>. Bilatu ere, «ambas castas de luchadores cristianos y marxistas», batez ere, ekintzan bilatu behar lizukete adostasuna: «El verdadero diálogo y la desmitificación definitiva de la alienación consistirán en ponerse a luchar contra ella»<sup>87</sup>.

### ***Toribio Etxebarria jauna***

Esplikazio hurbilagoa bilatzea mereziko lukeen gaia da, atentzioa ematen duena baita, gerraondo aurrera joan ahala, Toribio Etxebarria jaun sozialista eibartarrarentzat, sozialki kezkatutako zenbait pertsonalista kristau euskaldunek jendaurrean erakutsi duen interesa ez ezik, begirunea eta begikotasuna (Arizmendiarieta, etab.). Haren *Metafisica a Urcola* honelakoxe diosalaz agurtu zuen Santamariak:

Ez zindudan ezagutzen, ez naiz zurekin mintzatu inoiz ere; baina idazti hau leitu ondian, antzinako adiskide zaitudala deritzait [...]. Gauza bat ipintzen duzu filosofiaren erdian, gizona alegia. Pertsonalista zara zu, ni bezala, oker ez banago<sup>88</sup>.



Eta gehiegikeria bat esatera ausartu izan balitz bezala (nola izango da pertsonalista, are kristau bat bezalako pertsonalista, marxista zahar bat!), autoritateen itzala bilatzen dizu segituan:

Izan ere, Emmanuel Mounier idazleak hau idatzi zuen 1946 urtean: «On peut être chrétien et personnaliste, socialiste et personnaliste, et, pourquoi pas?, communiste et personnaliste, si l'on est communiste d'une façon qui ne contredise pas aux valeurs fondamentales de la personne». Eta beste toki batean (*Qu'est-ce que le personnalisme?* liburuan) hau ere iskiribatu du berak: «Personnalisme n'est pas opposé à socialisme ou à communisme. Tout dépend de quel personnalisme, de quel socialisme, ou de quel communisme il est question»<sup>89</sup>.

Aspaldikoak ez ote dira, ordea, kontu horiek denak? 1946 oso urruti dago. Parajeotan gero ikusten diren marxistak, beste genero dogmatiko batekoak baitira. Hala dio Santamariak berak: «Harrez gero, nahiko euri egin du, eta nik ez dut oso ondo ulertzen, gaurko egunean (1967), egiazko komunista eta benetako pertsonalista batera izan daitekeenik»<sup>90</sup>. Hain zuzen, itxikeria materialista hori da Toribio Etxebarriak ez daukana eta pertsonalismora irekitzen duena:

Zure gizonari buruzko ideiak zabalak dira. Errealitate guztietara —nahiz ikusgarri, nahiz ikusgaitz— zabaltzen da zure pentsaera. Derrigorrezkoa da, izan ere, horrelako zabaltasuna egiazko pertsonalismo guztietan. Bestaldetik zuretzat pertsona ez da abstrakzio bat, zerbait guztiz konkretua baizik.

Liburuan barrena, ondorioztatzen du Santamariak, «argiro ikusten da zure pertsonalismoa»<sup>91</sup>.

Santamariari asko gustatu zitzaion Toribio Etxebarriaren liburua: «Es este uno de esos raros libros, en los que el lector se encuentra con un hombre además de encontrarse con un libro»<sup>92</sup>. Pixka bat Baroja, pixka bat Unamuno, biengandik halere franko bestelakoa, guztiz obra pertsonala. Munduan zehar bere ibilaldien kontakizunean

... aparece así de pronto el moralista, que lo es por partida triple, por vasco, por socialista y por hombre de alma —esto se ve— medularmente religiosa. Su moral es noble, es generosa, sin dejar de ser realista. Con gusto se la propondría yo a algunos de los jóvenes marxistas que hoy pululan.

(Ezin utzi, horratik, maleziaz erantsi gabe: «Pero a lo mejor no les parecería lo suficientemente científica»<sup>93</sup>).

Toribio Etxebarria hil zenean, «yo sentía veneración hacia él», aitortu du Santamariak hildakoari eskainitako artikuluan.

La simple lectura de sus libros me hizo experimentar una de esas ‘afinidades electivas’ de que nos habla Goethe y que suelen sobrepasar la simple simpatía para revelarnos una especie de analogía de almas. Sin saber apenas nada de su vida, yo me sentí amigo espiritual de éste que había sido en tiempos un violento luchador<sup>94</sup>.

Toribio Etxebarriagan arima egiaz erlijioso fin bat deskubritu uste du Santamariak. Transzendentziaren zentzu isil sakon bat<sup>95</sup>. Haren testu hau gogoratzu esan dio Santamariak agur mundu honetatik:

Este viejo socialista así probado, autor de este desahogo espiritual, a pesar de su búsqueda peregrina de muchos años, no ha acertado a hallar si Dios existe o deja de existir, aunque en verdad ha de decir que quisiera, que quiere, de todo corazón, con toda su alma y todas sus fuerzas, para decirlo con las palabras de la escritura, que Dios exista.

Eta bukatzen du Santamariak:

De todas las confesiones de fe pienso que no hay más humilde ni más bella que esta del hombre que se limita a confesar que «quiere que Dios exista». Para escribir este libro [*El hijo del Hombre*] Echevarría confiesa haberse desnudado de su positivismo, haberse vestido de santa ingenuidad, haciéndose como niño, que es como hay que hacerse para entrar en el reino de los cielos. Descanse en paz este buen amigo<sup>96</sup>.

1982ko azaroan, Santamariak berriro Toribio Etxebarria gogoratu duenean, berriro polemika dabil Euskal Herrian, euskara dela-eta. «Tengo la impresión, quizás equivocada, de que entre los socialistas vascos del partido de Pablo Iglesias nunca existió simpatía alguna hacia la lengua vasca», aitortzen edo salatzen du Santamariak «Los socialistas y el vascuence» artikulutxo batean<sup>97</sup>. Sozialistak, antza, tenore horretan ez dira euskara eskolan haur guztientzat sartze aldekoak.

Los enemigos solapados del euskera —deritzo Santamariak horri buruz— que se opongan a un planteamiento de este tipo cometerían a mi juicio un grave error al tratar de llevar a cabo un nuevo genocidio, esta vez subterráneo, pero análogo en sus fines a las brutales acciones del primer franquismo<sup>98</sup>.

Testuinguru horretan alegatzen du Toribio Etxebarria («del que parece que nadie habla ya»), haren *Lexicón del euskara dialectal eibarrés* lan itzela goraiapatuz:

Yo siento un gran afecto por este hombre. Releo frecuentemente sus otros valiosos libros, que él mismo me regaló en tiempos, y me siento muy cerca de él en muchas cosas.

Sería quizás bueno que los actuales jóvenes socialistas del partido aprendiesen de Toribio Echevarría la lección de amor a nuestra vieja lengua<sup>99</sup>.

## Historia

Historiagatik berdintsu esan daiteke, antza: historian dena da aldatzen, edo: deus ez da aldatzen. Biak ikusten dira.

Behin batean, ba omen zen mila eta bat ipuinetako Arabian litxarrero bat, eta justiziak atzeman zuen; kadiak, bihotz-zabaltasuna erakusteko, zigorra aukeratzen utzi omen zion, berak nahiago zuena, hoge makilakada ala hoge zartada. Zartadak hobetsi omen zituen koitaduak. Baina hiruzpalau zartada jausi orduko haren bizkarrean, han hasi omen zen marrumaka eta garrasika, makilakadak nahiago zituela eta aldatzeko zigorra mesedez. Haren negarrak entzunda, kadiak, bihozbera eta gupidatia beti bera, halaxe egiteko agindu omen zuen. Baita txinelak dinbi-danba hasi ere makilaka saihetsak berotzen litxarrero dohakabeari. Musika gozoagoa apenas iruditu zitzaion nonbait bigarren hori, laster eskatu bide zuen berriro txilioka zigorra aldatzeko. Eta horrela, zartadatik makilakadara eta makilakadatik zartadara ostera, zigorra konplitu zuenerako, dena batera, hoge makilakada eta hemeretzi zartada hartu omen zituen litxarreroak.

Txarrena izanda ere, hobe izango zukeen batean geratu izan balitz, ezta? Zigor txikiagoarekin aterako zen.

Hala pentsatuko genuke. Baina hemen, Santamariak, berak ez dakiela ondo zer egin izango zukeen, aitortzarekin txunditzen gaitu bat-batean:

... porque la necesidad de cambio es tan grande, para soportar los males, que puede que su castigo le resultara más llevadero del modo que se realizó. Los latigazos le distraerían de los palos y los palos de los latigazos. Las costillas descansarían mientras la piel sufría y viceversa<sup>1</sup>.

Santamariak historiaren alegia bezala ulertu du arabiar ipuintxoak. Eta historian hori ikusten dugu: gizakiak, gizarteak, gizadiak, ezin dutela postura batean luzaro iraun. Aldakuntza behar dutela etengabe. Ikusi besterik ez dago geure posturarekin zer gertatzen zaigun. Edozein postura hartzen dugula, gure gorputzaren zama muskulu-sistemako atalen baten gainean egoten da eutsirik eta, horregatik, nekatu egiten da zati hori; postura aldatu beharra edukitzen dugu, atal bakoitzak atsedean har dezan:

... así también los regímenes sociales nunca reparten su peso de un modo perfectamente uniforme y equitativo sobre todos los grupos ciudadanos. Repátese la Historia y se verá que todo Estado ha sido constituido a costa de alguien y en beneficio de

## IDEIA

alguien. Por eso la Historia es una sucesión interminable de cambios y lo único que cabe pedir es que a los honrados ciudadanos nos resulten estos cambios más leves de lo que le resultaron al ladrón del apólogo<sup>2</sup>.

Aldakuntzan, ordea, dena ez da izaten aldakuntza. Zerbait lehengoan gelditzen da. Asko gelditzen da beti lehengoan.

Estallan revoluciones, explotan guerras, conmueven las esferas, arde Troya y se hunde el firmamento; pero tan pronto acaba el estruendo, vuelven las gentes a sus oficios, a sus gustos, a sus maneras de antes, la vida del hombre vulgar se reanuda, poco a poco, casi inalterada, con rara continuidad<sup>3</sup>.

Ikastea eta ezagutzea jakin-min lukeen hamaika mila gauzen artetik, iragaitza laburrean bizitzatik —«ars longa, vita brevis» hipokratikoa aipatzen da hemen—, Santamariak aitortzen digu guztiz partikulari berari historia interesatzen zaiola. Baina ez buruzagi nagusien edo bandido famatuaren gertakari, balentria eta peripezia handien kondaira legez ulertutako historia, baizik jende arruntaren, gizaki ertainaren, gizatiarretatik gehien-gehiengoa garen, hilezkortasun historikora xedatuak ez gaudenon existentziaren ikuskari bezala<sup>4</sup>. Baina egunerokotasunaren historia hori berritasun gutxikoa da, aldakuntza txikikoa, iraunaldi berdina luzekoa; Oxirrinkoko<sup>5</sup> aurkikuntza arkeologikoen adibide oso politekin egiztatu dutela uste du Santamariak. Historia, azpiko barne-ur isil hauetan, apenas mugitzen da, ozta-ozta aldatzen da batere mendeetan zehar.

Pienso que en esta otra concepción de la Historia, si se pudiera realizar científicamente, se encontraría una regularidad mucho mayor, menos saltos, menos virajes, porque, bajo las grandes conmociones históricas, el hombre ordinario se conserva sorprendentemente igual a sí mismo<sup>6</sup>.

Asko aldatzen da eta oso gutxi aldatzen da, bi mutur horien artean pasatzen da historia, eta biak egia dira. Historia «handiak» ikaragarriko zirimolatan dabilela ematen du, gizandi eta heroi artean burrunbaka. Historia «txikiak»<sup>7</sup> beti geldi dagoela ematen du, apal-apal. Beti gizaki berdina aurkitzen da historiaren barruan. Kontu berdinak, istorio berdinak. Eta, halere, ezer ez da egiaz berdina, dena berria da handian zein txikian. Napoleonen eta Julio Zesarren artean analogia dezente egongo da, nahi bada; txit antzekoak izango dira Oxirrinkoko eskola-umearen eta gaurko edozein umeren muzinak:

Pero la verdad es que cada caso es único; la repetición no se da jamás. La Historia no vuelve a pasar nunca por donde ya pasó, de la misma manera que el hombre nunca vuelve a vivir las edades ya vividas<sup>8</sup>.

Okerrena genuke interpretatzea jira-bira horiekin guztiekin dena asko mugitzen dela, baina gertatu deus ez dela gertatzen historian.

El peligro puede consistir en creer que este eterno bullir y rebullir de los acontecimientos, este tejerse y destejarse de la Historia, no tiene principio ni fin, ni orden ni objeto alguno<sup>9</sup>.

### ***Determinismoaren auzia***

Natura-zientzien eraginpean, determinismoaren auzia sortu zen XVII. mendean, hau da, munduan jazotzen den orok, baita gizakiak diharduenak ere, lege irmo aldaezinek erabakia egon behar duela, ikusbidea. Hango metafisika razionalistan, Jainkoak ez du gizakia moralki bakarrik mugitzen (Haren menpe dagoen Ongi moralaren bidez edo helburu transzendente bat eskainiz), ezpada kausalki edo fisikoki ere (Naturaren bitartez). Descartes edo Spinozagandik Kantenganaino filosofian horrela sortu den borondate librearen arazoa, hau ez da arreta gehiagoz behatzen hasteko lekua.

Etika edo metafisikatik historiara, XVIII. mendean pasatu da korapilo hori, historiaren filosofia autonomo bat propioki garatzen hasi denean, nahi bada Voltairerekin espiritu frantsesean eta positibistan, edo Iselinekin gurago bada, espiritu suitzar-aleman eta metafisikoan<sup>10</sup>. Teologikoki oinarritu izandako historia unibertsala (San Agustinengandik Bossuetgana), razionalki oinarritu beharko da orain: baina hondoan kristautasunetik (edo judaismotik) eratorritako metafisika modu bat suposatuz nolabait, *historía* grekoa, esperientziazko datu bakanen zientzia gisa, printzipio razionaletako zientziari kontrajarrita ulertu baita ordura arte (enpiriko edo esperientziazkoa *versus* razional edo filosofikoa). Historia nondik nora doan, zerk daraman jakitea da zerk lotzen duen, zein printzipiori obeditzen dion. Historiaren natura, hots, haren legea ezagutzeta, kausak argitzea. Era horretan, historiaren razionaltasunak, hein batean, haren beharrezkotasuna, ezinbestekotasuna, esan nahiko du<sup>11</sup>.

Hori horrela, Santamariak batez ere materialismoarentzat ikusi du.

Para un materialista de 'estricta observancia,' el hombre es una fuerza de la Naturaleza como otra cualquiera, aunque más densamente poderosa; una fuente organizada de energía, gobernada por muchos millones de circuitos electrónicos. Tan natural es una sinfonía de Mozart como el canto de un ave canora o el estruendo de las cataratas del Nilo. El pensamiento es un fenómeno físico, como puede serlo un terremoto o la explosión del Krakatoa, solamente que afecta a capas más profundas de la organización corpuscular de la materia. No hay, pues, distinción posible entre estos dos reinos o mundos, en la perspectiva estrictamente materialista<sup>12</sup>.

Hau da, funtsean ez dago espirituaren eremu propiorik (askatasunik). Beraz, ez etikarik eta humanismorik ere, mekanizismo hutsa baizik. Konkretuki, Santamariak zorrozki logika horretan lotu izan ditu marxistak, eta logika horren erantzuneko bezala ulertu ere<sup>13</sup>. Estalinismoaren krimenak ezagutzera eman zirenean, adibidez, aferak komunistentzat krisi teoriko posible bat proboka zezakeela alde batera utzita, bazirudien «burgesentzat» arazo moral larri bat plantearazi behar zuela eskandalu politiko hark. Santamariak oso era drastikoan epaitu du problema:

Hasta este momento los gobernantes comunistas gozaban de una especie de irresponsabilidad, comparable, bajo algunos aspectos, a la que el absolutismo desenfrenado de ciertos autores suele atribuir a los reyes o señores de derecho divino. Manteniéndose fieles a la ortodoxia marxista, los jefes comunistas no se equivocan nunca, puesto que actúan en el sentido de la historia y de sus leyes ineluctables. Una piedra que cae no puede tampoco cometer errores porque su movimiento responde fielmente a las leyes de la caída de los graves, que son la expresión de la realidad física determinante. No olvidemos que la política no es —en la concepción marxista— nada esencialmente distinto de un proceso material, por la misma razón que los actos intelectuales y las valoraciones morales son manifestaciones de fenómenos substancialmente físicos. El espíritu no existe como algo distinto ni separado de la materia<sup>14</sup>.

Arazo teorikoa nahikoa bihurria da, baina josta antzera tratatu du behin Santamariak, «Horóscopos astrológicos y sentido marxista de la historia» artikulutxo batean, beharbada, iradokitzeo historiaren filosofia honek egitatez superstizio edo jakintza ezkutu bezala funtzionatzen zuela askotan<sup>15</sup>. Jostak josta, alabaina, oso benetan jokoan dago historiaren filosofia razionalista baten zentzua, muin-muinean. Zikkurat edo terraza-dorreetan igota, kontaktzen digu Santamariak, zeruari beha eta beha egoten omen ziren gau oskarbi zoragarrian babiloniar monarka ahaltsuaren jakintsuak, erresuma zerutarrean gertatu zirkunik txikienari begi-begi, berehala nagusiari adierazteko. Zeruan irakur omen baitzitekeen lurrean zer jazoko. Izartegian, ordea, mugimendu irregular gehiegi zebilen munduan zer gertatu behar zuen araubidez aurreikusteko. Gaue-ro-gaue, mugimendu bakoitza erregistratu egin behar. Eta hara non, behin, K.a. VIII. mendean, palazioko azti haietako batek non aurkitu zuen planeta alderrai zoro haiek ere, arau gabekoak uste zirenak, beste dena bezalaxe zeruan, lege guztiz zorrotzen menpeko zirela (oso lege konplexuak, baina legeak). Orain hemen, hor gero, ez zebiltzala nolana ziru etako espazioetan; urtean zehar, aldi matematikoki zehatzak ibiltzen zituztela. Zeruan dena doi-doi lege azpian, haren islako munduan ere den-denak behar duela egon legeak lotuta, berezkoa zen buruera horretan.

De esta manera penetró en el mundo oriental la idea determinista, y a ella se aferró la humanidad durante siglos más o menos inconscientemente. La vida de cada hombre debía estar trazada desde su mismo nacimiento por el hado, el fatum, el destino irrevocable, enigmático, ciego y despiadado<sup>16</sup>.

Zientzia posible al da determinismorik (arauzkotasunik, beharrezkotasunik, legerik) gabe? Hori da problema. Ez gaude, noski, Babiloniako pentsaera mitiko-matematikoan. Zientziari bakarrik aitortzen diogu mundua (eta gure lekua munduan) ulertzeko zeregina. «El determinismo de los astros ha sido reemplazado por el determinismo racionalista»<sup>17</sup>. Historiaren filosofia (razionala) entseatzen den mementotik, ordena sartu da gizakiak aritzen dituen egin-tza txiki eta handi guztien anabasan, espazioak ebakitzen dira (inperioak, herriak, armak, teknikak), erritmoak bereizten dira (denborak), unibertsaltasuna bilatzen da, gertakarien bakoiztasuna edo singularitasuna gainditu, erlazioak (kausak, baldintzak, ondorioak) lotu haien artean; hots, printzipio eta lege orokorren egitamua asmatu behar da bilakaera historikoaren barruan. Norabait joan, zerbait egin, historiak orain berak egin behar du, Jainkoak eramanda joan edo egin gabe. Historiak, bere baitako legeetatik, burdinazko ibilera beharrezkoa hartzen du.

Hegel, Marx, Spengler, el propio Toynbee y otros muchos pensadores modernos tratan de someter a cánones lógicos o racionales todo el proceso de la historia y de encuadrar en sistemáticas tipologías todas las manifestaciones de la vida cultural y religiosa de los pueblos. La vieja ingenua astrología de las máximas conjunciones y de los cuadrantes melancólicos ha sido reemplazada por otra nueva, que también aspira a explicarlo todo, casi tan ingenuamente como aquella. En esta nueva concepción no queda tampoco sitio para el espíritu; no puede entrar la libertad, ni la virtud, ni el pecado, ni la persona. Así viene a resultar que las categorías cristianas están tan reñidas con el determinismo estelar como con el racionalismo hegeliano, marxista o spengleriano<sup>18</sup>.

Santamariak ez du soluzioa ematen. Pertsonalistarentzat historian biak dau-de, beharrezkotasuna eta libertatea, materia eta espiritua (gizakia biak da, edo ez da bietako bat ere purua), eta bien artean labantzen da hura<sup>19</sup>. Gauza asko gertatzen da baldintza guztiak begitan zeudela eta nahitaez gertatu beharra zeukala dirudielarik; eta, beste asko, ingurumari harekin hain zuzen horixe gertatzea zeharo ustekabekoa zirudiela. Kristobal Kolon izan ez balitz ere, Amerikak egun haietantsu aurkitu izango ziren, edozeinek hori egiteko baldintza guztiak umotuak ziren-eta Europan. (Baina Mozart jaio izan ez balitz, inork idatziko ote zuen *Xirula magikoa?*)...

Ohargarriagoa: ez da gertatzen gauza batzuetan beharrezkotasuna, beste batzuetan libertatea; baizik eta, gizakiak dagion guztian, beti biak ematen direla batera, libertatea eta beharrezkotasuna, nahasian.

Sería interesante tratar de separar los dos componentes que se cruzan en todo hecho histórico: aquello que tenía fatalmente que ocurrir a un momento dado —la componente fatídica de la Historia— y aquello otro que fue fruto de la libertad de un hombre o de unos hombres concretos. Inspiración y transpiración en la Historia<sup>20</sup>.

### ***Iraultzaren kontua***

Iraultza hitz magikoa da historiaren kontenplazio nahiz politikagintza modernoan. Faxistek iraultza bat nahi zuten egina izan; komunistek iraultza bat nahi zuten egina izan, eta berehala mundu guztiarena egin; mila gertaera desberdini eta kasu historiko zeharo bestelakori aplikatu zaio modernian izendapen hori, jeneralean, ohorapen gisa.

En términos generales existen la ‘mala’ y la ‘buena’ revolución —ebazten du Santamariak zorrozkerietan sartzeko—. La primera es la de los vesánicos, la de los ambiciosos que buscan su propio provecho o el bien particular de un grupo social. La segunda, la buena, es la de los hombres justos, indignados, escandalizados, dolidos a la vista de un estado de injusticia que creen poder remediar subvirtiendo el orden o el desorden constituido. En realidad, en toda revolución hay algo de lo uno y de lo otro, porque toda realidad histórica es impura<sup>21</sup>.

Iraultzak «ekaitz historikoak» dira, nolabait historiaren logika eta erritmoa puskatzen dutenak, prozesua ezandarazi eta zerbait berria abiarazten dutenak, baina ez modu arrazoizkoan, itsuan baizik, desesperazioaren ekoizpenak direnez gero<sup>22</sup>. Iraultzak, Santamariak J. Burckhardtekin bereizten duenez<sup>23</sup>, barrutik sortuak edo kanpotik eraginak izan daitezke, inbasio bidez, esaterako. Nolanahi ere, iraultza-mementootan, historiak berebiziko ziztua hartzen dizu: hilabete edo aste batzuk aski izaten dira ezinezkoak edo denbora luzea beharrezkoak ziruditen eraberritze sozialak zertzeko; forma zaharrak xahutu eta, lehenez, berri-berriak ezartzeko.

Paradoxikoki, iraultzek ere beren lege burdinazkoei obeditzen diete (iraultzak ere logikoki portatzen dira!). Adibidez, edozein iraultzatan hiru periodo bana omen daitezke: aldi profetikoa, aldi mistikoa eta aldi kritikoa. Aurrenekoan, erromantikoak eta demagogoak agertzen dira erruz, Jerikoko murrak laster eraitsiko direla eta Lur Agindua gertu dagoela iragartzen duten profetak. Aldi mistikoa etorri ohi da gero: jende oldeak, mistika iraultzaile batek deabrututa



benetan, eraso bortxazko erasoetan burrusten dira, inork ez, eta gutxiena beren buruzagiek, gelditu ahal izango lituzketela eustezinezko oldarrez. Eta azkeneko, iraultza orori heltzen zaio fase kritikoa, zahartzarora nolabait, endekapena eta higadura, dogma iraultzaileak zalantzatan eta auzitan jausten direnekoa.

Beste iraultza guztietan hala izan omen da, eta hori da, Santamariaren iritzian, marxismoan gertatzen ari dena ere, ortodoxoen eta errebisionisten arteko liskarretan.

Lo que está ahora aconteciendo revela que la empresa marxista se encuentra, ella también, sometida a las duras leyes del tiempo y de la Historia. Una Historia que no es conducida, sino que conduce. Son las leyes del envejecimiento y de la deterioración que afectan a todas las empresas humanas<sup>24</sup>.

Santamariak ez du iraultzen, edo medio eta modu iraultzaileen, batere zaltetan pertsonalki; garbi agertu du hori beti: «Nik ez dut uste kainoiek eta bonbek herrien zuzentasuna eta zorientasuna ekarriko dituztenik»<sup>25</sup>.

Zintzotasunak eta historiari leialtasunak, halere, eskatzen du bortxak, indarrak, irrazionaltasunak historian bere rola duela aitortzea, gauzak diren bezala baitira, ez gustatuko litzaigukeen bezala. Oso polita litzateke, noski, beltz amerikanoek beren buruak bigun-bigun emantzipatu ahal izango balituzte. Beharbada beren eztanda kaletarrek ez dute ematen oso eleganteak eta arazoizkoak.

Pero la razón, la lógica y la justicia no son los únicos ingredientes de la Historia. Tienen, sin duda, alguna parte en ella; pero hay otros mucho más enérgicos que, lejos de ser dominados por el hombre colectivo, lo arrastran contra toda lógica a donde no quisiera ir<sup>26</sup>.

Eta onartu beharra dago, humanismoarentzat hori da tragedia, bortxak paper positiboa jokatzen duela askotan historian<sup>27</sup>. «Biolentzia, gogortasuna, beharrezkoa da, bai, gure mundua zuzentzeko. Bainan zer nolako gogortasuna? Hori da eta hori izango da, gaur eta bihar, problema izugarria»<sup>28</sup>.

### ***Gaizkia historian***

Mundua betetzen duen gaizkia eta Jainko pertsonal baten esistentzia elkarrezintzat jo zituen behin Alfonso Sastre dramaturgoak *Herria 2000 Eliza*-ko (25. zk.) elkarrizketa batean, bide emanez Santamariak gogoeta batzuk prentsan egiteko gai horretaz. «O Dios no existe, o es un monstruo», edo «si hubiera un Dios personal yo le aborrecería», Alfonso Sastrek horrela planteatzen zuen.

Gaizkia hor dago. Eta, munduaz zein ideia dugun, behintzat, gaizkiaren problema ere saihestezina izango da historiaren gogoetan<sup>29</sup>.

El mundo en que vive —o se siente vivir— el hombre, es un mundo de iniquidad y de dolores. Todo sufre en la naturaleza. Sufre a su modo la planta; sufre el animal; sufre el hombre racional y consciente. Sufre también el niño y es precisamente este dolor del niño lo que lleva el enigma a su mayor oscuridad. Todo este sufrimiento, ¿por qué? y ¿para qué? Si hay un Dios, ¿dónde está? ¿Cómo puede permanecer impávido, cómo permite todo esto?<sup>30</sup>.

Horrela planteaturik, seguruena, arazo hori ez da propioki gogoeta historikoaren alorrekoa, baizik metafisikokoa. Orduan, soluzio bat neopositibista eta zientifistena izan liteke, metafisika ezabatzea alegia eta horrelako arazoak filosofiatik urrun desterratzea; hots, kasu konkretu honetan, problema bera ganoragabeko aitortzea, hura adierazteko terminoek analisi kritiko batean eusteko baliorik ez omen dutelako erakusten<sup>31</sup>. Filosofiak, bat-batean halako arindua soinean hartuta, ez bairik gabe bihotzez eskertuko digu mendez mendez tormentatu izan zuten buruhauste guztiotatik lexikologia-ukaldi soil batez libratu izana. Eta, filosofian ez bada, non gogartuko ditugu orainaz gero larrimin horiek? Alfonso Sastrek hobetsitako beste bidea da problema horietatik, ez filosofia, baina kontzientziak berak arintzea. Bere hitzetan (Santamariak dakartzan bezala): «no creo en un Dios personal; ya sé que todo lo que pasa, todas nuestras desgracias, proceden de que es un proceso imperfecto, inmanente y todo lo demás»<sup>32</sup>. Santamaria ez du honek ere gogobetetzen<sup>33</sup>:

... yo me permito preguntarle a Alfonso Sastre si de veras se siente apaciguado con una explicación de este género. Yo no sé, ni nadie lo sabe —lo que se llama saberlo— que exista ese proceso. Pero, aunque lo supiera, ello no me resolvería en modo alguno el problema<sup>34</sup>. Para mí, de esta manera seguiríamos estando en el dominio del Absurdo<sup>35</sup>.

Santamariak «sofritzen ari den Jainko baten» bidetik proposatzen du soluzioa. Ados, humanoki pentsaezina da, hainbeste gaitz egon munduan<sup>36</sup> eta Jainkoa *bost axola* egotea zeruan: zergatik ez pentsatu, hainbeste gaitz munduan eta Jainkoa sufritzen dagoela horrexegatik? «Un Dios que sufre es, en principio, absurdo; pero ¿no es todavía más absurdo un Dios que no sufre?»<sup>37</sup>.

Bistan da historiaren filosofia baten mugak arras gaintitzen direla honekin. Santamaria horren jakitun da:

Yo me atrevo a pensar que estas y otras grandes interrogantes del hombre, no pueden ser zanjadas racionalmente —ni, menos, racionalísticamente— sino sólo exploradas, en el sentido creencial y en pura esperanza. Me atrevo a opinar que los profundos proble-

mas que atañen al sentido mismo de la vida —problemas del mal, de la felicidad, de la trascendencia, de la muerte, etc.— no admiten planteamientos rigurosamente lógicos<sup>38</sup>.

Zentzua ez da gauza bat egiten duten osagarrietan beste elementu bat, zatien analisiak berez lezakeena haren barruan, edo haien konbinaketatik ondoriozta litekeena, ezpada gauzaren eta behatzailearen arteko elkarrizketan eraikitzen dena, eraikuntzak eskatuko dituen aurretiazko guztiekin. Historiaren zentzua ere ez dago hurbildu eta ikusi egiteko, egin egiteko baizik.

Que la Historia tenga un sentido —Santamariarentzat— me parece obvio y lo contrario —una Historia sin sentido, sin pies ni cabeza— me parecería el colmo del pesimismo. Pero que este sentido sea tan claro y simple como algunos pretenden, eso ya es harina de otro costal. Querámoslo o no, cada momento histórico es un logogrifo de difícil solución. Nadie está en condiciones de interpretar su propio tiempo<sup>39</sup>.

Hau da, egunero denok egiten dugun esperientzia historikoan, ikusten dugun munduan, absurdoa ez da gutxiago ageri zentzua baino. Aitzitik, XX. mende honek, adibidez, askoz errazago konbentzituko gintuzke beharbada historiaren zentzugabekeriaz, fedea argi egingo ez baligu iluntasun horretan<sup>40</sup>. Ikusten duguna ez da zuzenak garaile direla, bidegabeak zigortuak, eta abar<sup>41</sup>.

Hemos de acostumbrarnos a la idea de que vivimos en un mundo oscuro, reino compartido del ser y del no-ser, y aferrarnos a las escasas, pero genuinas, claridades que cada uno encuentra encendidas en su propia existencia<sup>42</sup>.

La concepción religiosa, la verdadera valoración de la vida humana, se funda en el más allá y empieza por afirmar que el verdadero reino de la Justicia no es de este mundo<sup>43</sup>.

Historian ere, beraz, ikusten dugunaren kontra, itxaropenari eutsi behar zaio. Teoria edo arrazoiketa batez baino, espirituaren jarrera batez da, funtsean, munduaren aurrean, zentzu hori nola aurki genezakeen. Jarrera horren azalpena, esplikazioa edo justifikazioa urteetan zehar alda daiteke seguruenik formulazioetan, sekula argitasun erabatekorik ez daukana baita arazo hori<sup>44</sup>, beti gaizkiaren misterioan sakontzen jarraitu beharrekoa<sup>45</sup>, baina —Santamariaren planteamenduan, San Agustinekin, Pascalekin— beti geratzen da fedea maiztasuneko soluzioa, esperientzia transzendituzkoa. Gaizkia historian ulertzeko «absurdoaren logika» bat garatu behar genukeela esango du Santamariak, «porque, aunque parezca mentira, el absurdo tiene también su lógica y es algo que va haciendo cada vez más falta conocer para poder seguir viviendo en este mundo invivible»<sup>46</sup>. Misterioaren barnean, kontenplazioko ezintasunaren lagungarri, fededuna ekintzari lotu behar zaio gaizkiaren aurka: «Contra el mal en sus formas

infinitas, dentro y fuera de sí mismo, el hombre, eterno Prometeo, ha de luchar empujado siempre por cierta especie de impulso divino»<sup>47</sup>.

### *Ongiaren efikazia*

«Debemos tener una enorme fe en la eficacia del bien», irmotzen du Santamariak<sup>48</sup>. Ez da erraza, eguneroko gertakariak alderantzizkoa erakusten dutela ematen duen mundu honetan («es una fe oscura y difícil»). Baina behar-beharrezko fedea omen da hori, ilunpe moralean ustelduta ez bukatzeko.

Bitarteko moralen arazoa jartzen da hor, zein diren haizu ala ez helburu zuzen baten erdiesteko. Xedea ona bada, edozein bitarteko zilegi dela, makiavelismo hutsa da<sup>49</sup>, eta, horrela planteaturik, inor gutxik nahiko du, apika, berekottu. Baina, egiaren orduan, politikan esate baterako, jende franko dago sinetsita («aún sin dejar de declararse católicos») ez dagoela burubide onik beti bitarteko moralekin bakarrik jokatzuz. Ez-eraginkorra dela. Errealismoak mizkinkeriarik gabe jokatzea agintzen duela<sup>50</sup>.

Muchas personas piensan que con la verdad y la justicia no se puede ir a ninguna parte en este miserable mundo y que para sacar cualquier empresa adelante hay que mentir, disimular y trampear en mayor o menor escala. Lo que cuenta, para esta clase de personas, es el poder y la fuerza, es decir, las cartas de este género que se tengan sobre el tapete. Es una visión muy triste, pesimista y desesperante<sup>51</sup>.

Santamariaren tesia da, «errealismo» horren aurka, ongia efikaza dela, eta bitarteko moralgabeak ez-eraginkorrak direla aldi berean: «lo que es inmoral no sólo es malo, sino que es políticamente ineficaz»<sup>52</sup>. Gezurra, adibidez, baliabide ez-eraginkorra omen da, moralgabea izateaz gain, «a la larga la utilización de la mentira como arma política se vuelve siempre contra los que la emplean y contra la sociedad misma que la padece»<sup>53</sup>. Santamariak onartzen du eztabaidagarri iruditu behar zaiola jende askori tesi hau.

Pero mi opinión se funda en la esperanza de que la naturaleza humana no se halle tan caída que el espectáculo de la Historia haya de resultar, por necesidad, algo totalmente repulsivo y odioso, como lo ve Camus<sup>54</sup>.

Askatasun politikoena da adibide errealista askoa eztabaida honetarako (batez ere, arrazoioak frankismo gordin-gordinean haztatzen badira). Askatasun politikoak ez dira bakarrik giza eskubideak, helburutzat eduki behar ditugun ongiak, errespetatu behar diren balio moralak, eta abar, baizik makina politikoaren funtzionamendu hoberenerako tresnak, baliabide efikazak.

El problema de las libertades ha sido planteado muchas veces desde el punto de vista de la justicia y del derecho [...]. Quizás no se haya insistido bastante sobre la idea de que las libertades cívicas, correctamente concebidas, no son sólo justas sino además eficaces<sup>55</sup>.

Ardatzeko Estatuen<sup>56</sup> errore larriena izan zen, deritzo konkretuki Santamariak, ez ezagutzea askatasun pertsonalak gordetzen duen efikazia. Gobernu autoritarioak, kontrolak, eta abarrek efikazak dirudite, baina inhumanoak dira eta inefikazak<sup>57</sup>. Demokraziek, askatasunaren nahaspilekin, ahulagoak ziruditen, baina itxuraz ahulenok bortitzen agertu dira luzarora. «La historia se repetirá probablemente con los Estados marxistas sometidos actualmente a la dictadura y con cualquier otro género de situación de esta naturaleza», baieztatzen zuen, irakurleak aipamena aise asmatzeko moduan<sup>58</sup>.

Yo soy un terrible creyente y defensor del principio de que lo que es bueno es, en definitiva, eficaz. Atribuir una eficacia terminal a lo malo e injusto me parecería no sólo un error filosófico sino además una tontería práctica<sup>59</sup>.

Oso erraza dago, noski, baiezenotan Kanten oihartzuna sumatzen: ongiaren efikazian sinesteak fabore egiten dio ongiaren efikaziari; askatasunean sinesteak lagundu egiten dio askatasunari.

Pazkoko Santamariaren testu eder batek honela josten ditu Jesukristogana-ko fedea eta historiarekikoa:

La primavera vuelve y con ella la Pascua de Resurrección. La Naturaleza no estaba muerta, estaba sólo dormida. Su despertar es una especie de símbolo de la universal resurrección, al final de los tiempos. Todo el misterio de la Historia radica en saber si ésta acabará en invierno o en primavera. Cuál será el signo de la última estación. Si todo hubiera de volver al silencio y a la nada, ¿para qué todo?... Es la terrible pregunta unamuniana<sup>60</sup>.

Dena fantasma-prozesio bat deusezetik deusezera izatea absurdoa litzatekeelako, horrexegatik da, dio Santamariak —«reductio ad absurdum» argudiaketa- ren logikan—<sup>61</sup> arrazoizkoa eta arrazoizko bakarra itxaropena.

Gregorio Marañónen heriotzakoan, Santamariak haren onberatasun jatorra goratu, eta abar («hombre bueno»), baina batez ere haren «fedea arrazoimena- ren indarrean» ospatu zuen, haren testu hau aldatuz:

En este mundo el que tiene razón es indefectiblemente el que triunfa, a pesar de los gritos, de las persecuciones y de las violencias. El triunfo de la verdad tardará poco o mucho, pero es inevitable. Nada distingue a un alma noble como saber esperar en silencio a la justicia, en la seguridad de que las semanas, o los años, o los siglos, le darán la razón<sup>62</sup>.

Historian eta ongiaren efikazian den fede hori Probidentziaren fedea soss-tengatzen du, azken finean (Kanten edo Hegelen historia-filosofian bezalaxe). Gizakia ez da abere hutsa eta historia ez da historia hutsa, Jainkoaren antzokia ere bada eta.

La sabiduría religiosa es eminentemente providencialista. Sabe que el Universo está en manos de un Poder escondido y que la acción del hombre es limitada e incapaz de dar solución a los problemas que se plantean [...]. La tragedia es que muchos cristianos han dejado de ser providencialistas. Confían más en sus propias armas que en ninguna otra cosa. No están dispuestos a dejarle ningún quehacer a Dios. Ellos se consideran más previsores que el Señor del Universo y se muestran partidarios de que se adopten medidas eficaces para combatir a los 'malos', sin dar demasiada importancia a su justicia o injusticia<sup>63</sup>.

### ***Aurrerabidea zer?***

Ez dut uste, halere, Santamariak mundua aurreratzen eta hobetzen ikusten duenik, ongiaren efikazian fede horretatik segitu beharko litzatekeela dirudien adina.

Aurrerabidearen kontzeptua, historiari aplikatuta, problematikoa da. Hala ageri da Kanten baitan jadanik, baina, Ilustrazioa urrundu samartu ahala, are problematikoa bilakatu zaigu, bereziki, Adornorekin esateko, «Auschwitz ondoren». Aurrerapen ekonomikoan, hobetze tekniko eta zientifikoan, eta abarretan, ezin da zalantzarik egin. Baina gizatasunean? Santamariak uste du aurrerapen zientifiko-tekniko horrexek guztiak txirotu eta hutsaldu egin duela gizakia barrutik. Antzinateko zientifikoa «jakintsua» izaten zen, egungo zientifikoa «teknikoa» da.

Yo creo que Einstein no resistiría la comparación con Cicerón. Las reflexiones de Einstein sobre el hombre y sobre la sociedad causan tristeza por lo vacías y superficiales. Comparad a estos dos tipos de sabios y veréis que un mundo inmenso nos separa de la sapiencial antigüedad<sup>64</sup>.

Santamaria ez da inola ere aurrerabidean fededuna: «lo eterno no progresa, se limita a ser. Sólo lo efímero es capaz de progresar, porque progresa para morir»<sup>65</sup>.

Behin, abertzaletasunaren anakronismo posibleaz ari zela, aukera izan du aurrerabidea burutzeko eredu lineala, Kant-Hegel-Marxen tradizioan nagusi egon dena, auzitan jartzeko, Leibniz-Herderren ereduaren antzeragoko. Bistan baitago eredu «progresistak» ez zuela gogobetetzen. Baina gero ez dut aurkitu ideia interesgarri horri garabide handiagorik inon eman dionik. Hauexek dira Santamariaren oharkizunak han (arazoa da nola «nazionalismoa» XIX.

mendekoa omen den eta historikoki gainditua omen dagoen, eta nola orduan *de facto* guztiz aktual ageri den halere):

El *quid* de la cuestión se encuentra quizá en ese famoso «sentido de la historia» [...]. Hace cuarenta o cincuenta años los marxistas insistían mucho en la idea de que sólo el comunismo actúa en el sentido de la historia, entendido éste como materialismo histórico, lucha del proletariado y avance hacia una sociedad sin clases. Hoy ya no se habla tanto de esta interpretación pretendidamente científica del sentido de la historia. Al contrario, los acontecimientos parecen dar más la razón a los que piensan que la historia no avanza en un sólo sentido sino en sentidos mutuamente contradictorios. Es decir que no progresa *linealmente* sino *explosivamente*, valga la expresión<sup>66</sup>.

## Transzendentzia

Lehoia franko mugitzen da kaiolan, kilometro asko dabil, hara hona, hamar aldiz, ehun aldiz eragiten dio buruari itzuli bera, pauso bera hasten du, ezartzen dio erritmo sendo bera atzaparrari... «Este moverse sin cambiar de sitio es la gran pesadilla»<sup>1</sup>. Hondarribiko euskara politean, «faki eta faki eta sekula fan ez» esaten dute. Joaki eta joaki beti, nora gabe ordea. Ibili, baina ez inora.

Eta giza historia horixe balitz?

Santamariaren oharxoak oroitarazten du gogaldi hori Rilkek adierazi zuela, saminki, *Pantera* hiru bertsoko poesia txiki trinko batean.

Barrak pasa eta pasatzeaz hain nekatuta dauka begirakunea, ez du atxekitzen ezer. Mila barra bailiren begitantzen zaio, eta mila barraren ostean mundurik ez. Kurubil guztiz txiki-txikienean jirabiratzten den haren ibilera urrats bigun gotorrezko malgua, indar-dantza bat bezala da, nahimen handi bat soraio zut dagoen erdigunearen birundan. Bakarrik noizean behin altxatu egiten da begininiko oihala hots gabeki.

Orduan irudi bat sartzen da barrura, gorputz-adarren isiltasun atezuan barrena igaroten da, eta bihotzean akabatzen du existitzea<sup>2</sup>.

«Holandako Doktrina» bezala ezagutu zen katixima paregabe hura kontakizun honekin hasten zen: VI. mendearen azken aldera, Aita Santu Gregorio Handiak monje beneditarrak bidali zituen Ingalaterrara misiolari, Kristoren mezua hots egiteko aginduz. Monje haietako bat, Paulino, Northumberland zokoraino heldu omen zen. Edwin erregea, halere, oso uzkur agertu zen hasieran misiolarien doktrina berriarekiko. Aldi batez duda-mudan egon ondoren, jakintsuen batzar bat egitea erabaki zuen. Aholkulari batek, zutitu eta, honela hitz egin zuen orduan batzarrean:

Errege, zure handiki eta menpekoekin mahaian jarrita zaudenean, bizi-bizi ari da sua suteagian, eta batzokia bero dago; han, kanpoan, ordea, orroka dabil nonahi hotza, eurria eta elurra dakartzan neguko haizea. Bat-batean, txoriño bat sartu da, eta batzokian jirabiraka hasi. Hemen dabil, ate batetik sartu eta bestetik irten. Babesean sentitzen du bere burua, barnean dagoen unetxoan; gure begietatik ezkutatu orduko, ordea, negu ilunera doa. Horixe gertatzen da, ene ustez, giza bizitzarekin ere. Lehen zer izan zen ez dakigu; ez eta gero datorrena ere ez dakigu. Doktrina berri honek horretaz segurantzaren bat ematen badu, merezi du berari jarrai gakizkion<sup>3</sup>.



Antzeko alegia ugari dago literaturan, gizakiaren nahiz gizadiaren bizitzarentzat berdintsu balio lezakeena. Azkenean, —zer gaude hemen, zer ari gara?— bizitzaren zentzua da beti problema.

Eta gero: zergatik gaude hemen? Nondik etorri gara?... Hemen bagaude, gauza bat baita antzokian nola betetzen dugun gure parte. Beste bat, zerk edo zeinek eta zergatik edo zertarako ipini gaituen antzokian eta eman digun parte komeria honetan.

Bi galdera moduak elkartuz, beraz: zer gara? Zer da gizakia?

Gizakia da animalia bat, bere izatean, paradoxikoki, den baino gehiago izan nahia eta izan beharra (beraz, ez dena) daukana. Bere existentzia emanaren kaiolan, hainbat eratako premiak erretzen dio barrua gizakiari, gorputzeko barrroteak espirituan (utopian, mitoan) transzendiaraziz. Baina espirituaren premiak, goseak, espirituak berak sortzen dituen horiek, ez dira kultura aldi batetik bestera berdinak izaten, beharrizan erlijiosoak adibidez<sup>4</sup>. Edo ez dira beti berdin agertzen, garatzen. «Los distintos tipos de civilización crean diferentes tipos de necesidades y parece que la civilización técnica tiende a apagar los estímulos y las exigencias espirituales»<sup>5</sup>. Aro teknikoan bizi gara.

Premia erlijiosoaren sentimenduari gagozkiola, kultura modernoak, batetik, hura epeldu eta memelotu egiten duela uste du Santamariak, giroa galduz<sup>6</sup> edo beste poz batzuekin sasikonpentsatuz<sup>7</sup>; bestetik, aldaera bastarten zenbait era sasierlijiozkotan, hura sukartu eta gaiztotu<sup>8</sup>. Bietan ere, arrotzu egiten zaio pertsona bere buruari: gizakiak bere kaiola —emana zaion existentzia materiala eta kulturala— transzendentitu eta gainditu bai, egin behar duelako, itxituraren neurriari gustu hartu eta kiskildu gabe, baina ez kolektibismo amorfoan, bere espiritu pertsonalaren askatasunean baizik.

### **Poesia**

Laster makinak jango ez bagaitu, poesia pixka bat bota behar bizitzari<sup>9</sup>. Makinarekin administrazioa ulertu behar da, hauteskundeak, lana, telefonoko gerra horiek, zerga-aitorpena; beste aitorten-liburu hori, gaztelaniaz bakarrik dagoena, *Actividades Profesionales*; izkina orotan, denek ikusi nahi dizute NAN zenbakia, agenda beti betea, iratzargailu madarikatua, aseguruak: autoa, etxea, hirugarrenak, abokatua, ura, sua, erretiroa; kafe-makina berria, beti erosteko dagoena, ordutegi espainol absurdoak. Beti lasterka, denbora harrapatu nahi

eta alferrik —beti aurretik doa—. «He aquí la cosa más terrible que a mi entender cabe decir de nuestro mundo: un mundo sin poesía»<sup>10</sup>.

Santamariak —matematikoa izan arren, ez poeta— mundu hau bizigarri bihurtzeko, behin eta berriro errebindikatu du poesia: «lotsagarria da mundu goibel eta alaitasunik gabeko honetan, olertia eta olerkariak hain gutxi estimatuak izatea»<sup>11</sup>. Askorentzat poesia lilura eta ametsa da, jolas alferra, bizitzan ez du ezertarako balio. Oinak lurrian ondo ezarrita eduki behar ditugu, errealistaren iritzi gogorrean. «Oinak ez ezik, gorputz osoa lurpean ezarriko digute behintzat ustekabe batean!», esaten du ironiaz Santamariak. Errealista horiek, azkenean, berak dira irrealistenak<sup>12</sup>, beren errealitatearen ideia murriztarekin, balioaren eta probetxuaren kontzeptu meharregiarekin. «Noiz adieraziko diegu poesia gauza serioa eta benetakoa dela, eta gure Gandiagak, Arestik eta hamaika horrelakoek lan ederra eta baliotsua egiten dutela?»<sup>13</sup>.

Zientzia modernoekin, bai berak eta bai mundua elkor huts bihurtu dira, bizi eta eder gabekoak, behaketa-objektu eta behaketa-lan biluziak<sup>14</sup>. Matematikak zeruetako musika izartua galdu zuen antzera,

... hoy la geografía se ha hecho positivista, porque ya no tiene misterios ni se alimenta de poesía: ya no hay propiamente descubridores ni príncipes navegantes, ni hidras marítimas, ni océanos monstruosos<sup>15</sup>.

Munduarekin, espirituak ari ditugu pobretzen.

Politikan giza eskubideen begirunea, ona ez ezik, probetxugarria dela defendatzen duen eran, poesia ere, edergarria ez ezik, bizitzan zinez probetxuzkoa dela ulertarazi nahi digu Santamariak. Izan ere, naturaren aurrez aurre bizi gara, zientzia ez du aski gizakiak naturaren baitaratzeko, eta gutxiago zientziaren buruera antzu bat.

Errealitatearen egitura ez da, batzuek pentsatzen duten bezala, geometria tankerakoa, baizik, nik sinesten dudanez, olerti itxurakoa. Bai jaunak, poesiak egiazko ezagutza bat —batzuetan garrantzirik handienekoa— ematen digu errealitatearen gainean, beste inondik ezin atera dezakeguna<sup>16</sup>.

Eta zientifismoak eta razionalismoak hestebetea baitago gure kultura:

Arrazoa gauza handia da, zalantzarik gabe, bainan, jaun horiek, Hegelen mundua, arrazoiak guziz maniatutakoa, ez da gure mundua, diabru guzien mundu bat baizik. Olertia biziaren muina da<sup>17</sup>.

Gainera, lehenago zientzia beharbada poesiaren etsaia izan bada, Fisika modernoa bera poesiaren aliatu bilakatu dela esango du Santamariak, naturaren barrurabide sekretu horretan.

De aquí que el hombre contemporáneo experimente un deseo de ahondamiento que el decimonónico no había casi sentido. Las tres dimensiones se nos han hecho en cierto modo pequeñas; pero aún nos queda una cuarta, que la Física moderna nos ayuda a comprobar. Me refiero al «dentro». Al ancho, el largo y el alto hay que agregar, en efecto, el «dentro», que se revela cada vez más profundo y misterioso, tanto en el sentido psíquico como en el físico y material de la expresión [...]. Hasta ahora sabíamos que había espacios estelares insondables y Pascal nos hablaba de la angustia que su consideración le producía. Pero ahora, la física atómica nos enseña que hay también insondables universos dentro de la más leve partícula<sup>18</sup>.

Ikuspegi berri horretan batera daitezke zientzia, poesia, erlijioa, filosofia. «Descubrir que las cosas, aún las meramente materiales, tienen un ‘dentro’, el cual encierra horizontes inacabables, es el punto de partida de la filosofía»<sup>19</sup>.

Poesiak norberaren barrura sartzen laguntzen du, guztiz gain. Eta kuriosoki, inguratzen gaituen orori ihes eginez, hegaldatuz, gainetik transzendituz laguntzen digu geure baitaratzen, «porque el espíritu, amador esencial de la libertad, necesita escapar a todo artificial encerramiento, para poder sobrevivir como tal espíritu»<sup>20</sup>.

Edozein tokitan gaudela, hor ibiltzen da gure espiritua beste nonbait, alde-rrai, bazterrik bazter. Hitzaldi bat entzuten, lagunekin solasean, itxuraz, gure arimak «distraitu» eta ihes egiten digu<sup>21</sup>.

Por más que queramos amarrarlo al presente, nuestro espíritu se evade siempre. El alma se aloja en los cuarteles de la memoria o prefiere encaramarse a las ventanas proféticas, a ver venir el tiempo por los senderos<sup>22</sup>.

Ez dugu egiten duguna egiten, ikusten duguna ikusten, ezpada gure irudimenaren sorginkeriek ikusitakoa asmatu, aldatu, berregin<sup>23</sup>,

... convierten —en buena hora— las ventas en castillos, las dueñas en princesas, las Aldonzas en Dulcineas, los vulgares rocines en inmortales Rocinantes. Las prosaicas necesidades de la vida en caballerescas empresas. ¿Qué sería de nosotros sin ese mágico poder en este mundo duro? La vida nos aplastaría<sup>24</sup>.

Gizakia horixe baita. Errealismoa da hori horrela ezagutzea, den bezalaxe.

Hay en nosotros una angustiosa e inexplicable necesidad de ‘ser irreales’, de transportarnos a una situación en la que la realidad no siga ya oprimiéndonos. Tenemos cierta extraña vocación de fantasmas<sup>25</sup>.

Hobeto, barru-barruko «deseo de infinitud» otzangaitz batek atoian nahitaez daramala airean esan behar. Edozein huskeria nahikoa dugu arima hegaldarazteko.

En esta mañana de primavera el espíritu siente unos deseos enormes de escaparse. ¿Cómo? ¿A dónde? ¡Ah! No se sabe. Quizás a un universo sin límites, ni formas, ni esencias, en el que no hubiera ideólogos, ni juristas, ni sistemas, ni fórmulas, ni fuera necesario emplear ninguna clase de lenguaje, porque todo estuviese dicho ya<sup>26</sup>.

Ihes egin hizkuntzari berari, kontzeptuei.

Isiltasuna den beste pentsamendu bildu hartara.

Inoiz baino gehiago, poesia beharrezkoa da aro teknologikoan, gure bizitza bizitza humanoa izan dadin<sup>27</sup>. Hots, negatiboki, «tedio infinito que a veces nos produce nuestra existencia civilizada» horretatik salbatzeko<sup>28</sup>; positiboki, espirituak posible izan dezan, existentzia gogaikarria transzenditu eta, bere egiazko natura eta ahalmenak, bere nortasuna aurkitzea, hedatzea, garatzea<sup>29</sup>.

Poesia, honela ulertuta, ez da, edo ez du izan behar, «olerkarien lana» baka-rrik. Bakoitzaren lana izan behar du.

Gauza guzietan dago olerkia —eta soinua ere bai— gu ohartzen ez galararik ere. Egi-egiaz olerkariak ez du bere olerkia asmatu behar, aurkitu besterik ez du egin behar. Egin gaituen Hark, biziaren zama astuna arin diezagun, etorriaren iturria gure barnean jarri du. Egiazko olerkia isilekoa da. Ez datza berbuan, ez hitz-urgoldean, baizik gauza guzien komunioan<sup>30</sup>.

Poesian, gure bizitza eta gure mugak transzenditu eta kosmosarekin egiten dugu bat. Horretarako gure baitan sartu behar. «Sartu eta entzun». Gandiaga eta San Frantzisko Asiskoa dauzka gogoan Santamariak, hori idazten ari denean.

### *Fedea*

Santamariak, askotan, kontrajarri egiten ditu materialista eta fededuna, bi polo bezala, problema baten erantzunean<sup>31</sup>. Badakigu eboluzioaren ekoizpen bat garela. Hori egitate bat da, beste gabe; kontua, orain, egitate horren irakurketa izango da.

Los materialistas opinan que esto de la vida es una mala pasada que nos han jugado las moléculas. Pero los cristianos creemos que existe el ‘Señor de la Vida’, el ‘Rey por quien todo vive’ y que la Vida triunfará sobre la Muerte, no solo en el conjunto del Universo, sino también en cada ser personal<sup>32</sup>.

Zientiarentzat giza bizitza hor dago, ez dauka zentzu partikularrik, gertakari bat da. Halako batean agertzen da, badabil, egiten ditu gauza batzuk, uzten du behatua eta ikertua izan dadin, erakusten du munduan beste dena datorren bidetik datorrela, eta ez doa aparteko inora. Hortxe kosmosean aritzea du dena.

«Zer ari naiz egiten?», izan daiteke zentzuaren harridurazko galdera bat, tximinokumeak, egin eta egin ari zenari begira jarri eta, bere burua aztertu nahi zuen batean egindakoa (ongiaren eta gaizkiaren erantzuna eskatuko zuena, autobalorazio etiko eta norberaren joera batean obligazioak onartzera konprometitzearekin)<sup>33</sup>. Baina, hortik hasiz gero, «zer naiz», «nondik nator, nora noa», zentzuaren marko orokor bat bilatu beharko zaio guztiari, sakonkiago, azkenean. Ari gara eta ari gara, baina, azkenean, zer ari gara? Kezka horiek Santamariaren obra guztian daude oso presente. Behaketa arrunt honexen era jostalarian azaldu du behin:

Nuestras vidas se parecen al vuelo de las moscas. Si ustedes se han fijado alguna vez habrán comprobado que las moscas vuelan a una velocidad fantástica en relación con su pequeña masa. Vuelan, pero no van a ninguna parte. Las aves en cambio dan una impresión de continuidad, parece como si se dirigieran a algún sitio, e incluso se dirigen. La veledad de la mosca es infinita. Apenas se han lanzado en una dirección, cortan, brusca, inopinadamente, su trayectoria y adopta otro rumbo distinto y aún opuesto. Vuela siempre en zig-zag. Llamen la atención estos bruscos y terribles cambios de dirección en el vuelo de la mosca. Incluso mecánicamente hablando, suponen una genialidad [...]. ¿Vamos a alguna parte? Y si no vamos a parte alguna, ¿no son nuestras vidas la cosa más parecida al volar de las moscas?<sup>34</sup>.

Beste batean, Teilhard de Chardinen pentsamendua ari da iruzkintzen. Eta berriro galdera eternala:

Mais, il arrive un moment où, peut-être à cause de cette déchéance inévitable à laquelle nous sommes tous condamnés, nous nous voyons transformés en des êtres inutiles, incapables de travailler, d'agir, même de conserver vivante la flamme de notre générosité envers les autres hommes. Lorsque cela arrive, devons-nous convenir que notre existence manque de sens, qu'elle est absurde? Quelle sorte d'attitude humaine avoir face à la mort et à la mort de toutes les choses qui nous anéantissent, si ce n'est celle de l'échec et du désespoir?<sup>35</sup>.

Gizakiak, uste kabearen eta zoriaren, auskaloaren, emaitza horrek, ez dauka esplikaziorik, esango du Monodek (eta esplikazioren bat eman nahi izatea marxista «materialista» nahiz kristau espiritualista patologikoa dela ulertu behar zaio), auskaloak ez baitu hertsiki inolako esplikaziorik; ez dauka esplikazioa zeini eskatu ere, erradikalki unibertsoan bakarrik dago-eta, izadiaren beste emaitza guztien gain-gainetik, bere singularitasunean<sup>36</sup>.

Denaren ezdeus eta hutsalaren esperientzia erradikal hori —zientzian, historian, bizitza pertsonalean— guztiz funtsezkoa da Santamariarentzat. «Yo creo que un hombre no empieza a vivir una vida propiamente humana hasta haber comprendido, con mayor o menor dolor de su corazón, la infinita vanidad de todo»<sup>37</sup>. Dena dago airean, tulunbioan. Razionalki, ezer ez da ezer, itzala eta errainua baino (arrazoimen- edo zientzia-mailan, berdinak dira fededuna eta gabea). Esperientzia hori egin beharra dago, hori transzenditzeko. Horixe onartuta, hori jakinda, benetan sentituta, bizituta, orduan hasten baita benazkoa izaten bizitzaren zentzuaren arazoa.

Para entrar en el terreno de la fe suele hacer falta primero una mutación copernicana que Dios produce, de un modo o de otro, en la actitud interior del hombre. Pecararnos, de pronto, de que vivimos inmersos en el misterio, de que nuestra vida personal es también un puro misterio, así como la muerte, nuestra muerte y la muerte de todo lo que nos rodea. Sólo así, dentro de esa universal extrañeza que nace en nosotros, puede quizás surgir y fecundarse una fe viva<sup>38</sup>.

Hastapenean, bada, absurdoaren esperientzia dago (zahartzearena, hiltzearena)<sup>39</sup>.

Y, ¿qué hacer con el absurdo? El absurdo puede ser útil, precisamente para partir de él en busca de otra cosa, como hacen los matemáticos en sus demostraciones por reducción al absurdo. Y cuanto más absurdo mejor, diría yo. *Si esto no puede ser así, entonces tiene que ser de otra manera*<sup>40</sup>.

Fedeak arrazoizko —nahiz ez arrazoiketazko— xantza bat dauka<sup>41</sup>.

Guztiaren hutsalaren kontzientziak, nolabait denok izaten dugunak, hain bakana ez den «argitasunezko esperientzia»<sup>42</sup> memento pribilegiatu batzuetan kolpatzen du bereziki zirrarakor. «Es una especie de sacudida o de naufragio, que ocurre súbitamente, y en el que uno se da cuenta de pronto de la inconsistencia en que vivía hasta entonces»<sup>43</sup>. Gerra, desengainu supitu bat, gaixoaldi luzea, egun-argitze garbi bateko hunkipena mendietan, ilunabarraren baretasun heldu negar-punturainokoa itsas horizontean, edozein fenomeno izan daiteke iratzartzen duena:

Pero una vez que se ha sentido la lucidez ya no se puede volver a la situación en que se estaba anteriormente. Lo importante es que ese fenómeno cambia por completo la posición de uno mismo y la propia visión de las cosas. Le permite a uno salir de la diversión o 'aturdimiento' en que vivía. Se encuentra uno ante la Esfinge. El misterio radical: ¿qué es esto de 'ser' y a qué conduce?<sup>44</sup>.

Argitasunezko esperientzia hori ez da oraindik fedea, gehienez ere haren aurretiazkoa, harentzat lekua garbitzen duena barruan.

La lucidez es un camino. Es un trance por el que quizás todos han de pasar tarde o temprano. Es una tremenda sinceridad consigo mismo que le deja a uno definitivamente a la intemperie<sup>45</sup>.

Horrela «argituta», jarrera «erlijioso» batez honezkero («la cual compromete la totalidad del ser del hombre tanto exterior como interiormente»)<sup>46</sup>, barrura daiteke misterioaren gogartean. Horrela bada, arrazoiz esan dezake Santamariak: «En realidad, quien se pone a buscar el misterio está ya poseído de antemano por el misterio»<sup>47</sup>. Grazia izan dela ulertuko du fededunak. Ez da izan bere obra. Memento bidegurutze —arrazoimenarentzat: gurutzea— absurdoaren mementoa da. Absurdotik —gurutzetik— ateratzen du fededunak zentzua.

Ateismoa, ukatu bakarrik egiten badu, interesik gabekoa da. Ateismo zinez interesgarria da erantzun bat daukana; guztiaren zentzugabetasuna sentitu eta bere aukera jakitun egin duena, ez nagikeriazkoa, ezpada kontzientea, «el ateo que quiere vivir en serio su ateismo, que se siente religado a él, que se inquieta, que busca el sucedáneo de Dios, que hace del propio ateismo una especie de religión»<sup>48</sup>, hau da, munduan Jainkoarekin esanahiz betetzen den guztia, alde-rantziz berdin-berdin egiten duena gabe. Fededun gehienak bezala, «la mayor parte de los ateos lo son lo bastante superficialmente para no preocuparse de profundizar en su no-creencia». Ateista epelak dira problemari erantzun bat bilatu ordez alde egiten diotenak, arduragabeak,

... se contentan con vivir al margen de toda explicación absoluta de la existencia. Esto les permite dedicarse a comerciar, a divertirse o a cualquier otra cosa: a todo, menos a mirarle cara a cara a la Esfinge<sup>49</sup>.

Ateistarengandik bere erantzuna jakin nahi dugu zahartzaroaz, gaitzaz, oina-zeaz. Beharbada, harentzat ez daukate zentzurik. Orduan, bere erantzuna jakin nahi genuke zaharrak, gaixoak, oinazetuak maiteki zaintzearen zentzuaz. Justiziaren eta askatasunaren alde bizitza emandako jendeez, herri apalak sakaildu eta erraustutako inperioez, gizakiaren egun laburrez eta gizadiaren historia luzeaz, horretan guztian zein zentzu daukan giza abereak ezer egiteak «ongi» ala «gaizki».

Yo me pregunto para qué se molestan algunos de estos [sinesgabe batzuk] en querer arreglar el mundo y en cambiar las estructuras y hacer que la Humanidad pueda comer suficientemente si, en realidad, parten del supuesto de que todo da lo mismo y de que, tanto al mundo como a la Humanidad, se los lleva la trampa de lo absurdo, de lo sin-sentido<sup>50</sup>.

Problemak benetan gatibatu dituenak, esfingeari aurrez aurre begiratu diotenak, azkenean, elkarren oso hurkoak direla uste du Santamariak, sinestunak izan ala gabeak. Nola edo hala, munduaren zentzuren bat eraikitzen egingo du-te elkarrekin topo. «Si ciertos ateos se empeñaran en ser ateos de verdad, estoy por decir que no habría que temer por ellos: acabarían creyendo», iristen da Santamaria esatera<sup>51</sup>.

Ez da sinesten, beraz, munduak zentzu bat daukalako, baizik ez daukalako. Transzenditzeko. Ez, ordea, munduaren huskeria erradikala ahaztarazteko eta gure beldurretatik engainatzeko

La razón racionante no encuentra sino la muerte. Sólo una voz exógena nos ofrece la indispensable eternidad. Esa voz es la fe, entendida esta palabra en su sentido más generoso y ecuménico, como la certeza de una trascendencia. Pero la fe no trata de explicar, tampoco puede explicar, nos deja en la oscuridad. Y, humanamente hablando, en la desolación<sup>52</sup>.

### ***Isiltasuna, hutsa***

Askotan, mendebala eta ekialdea arimako bi jarrera bezala kontrajarri ohi ditugu. Mendebala omen da zientzia, teknika, aurrerabidea. Dena dela,

... el demonio de Occidente —nabarmetzen du Santamariak bere ohar batzuetan— ha complicado la vida humana de un modo terrible. No se sabe a dónde puede llevarnos. La máxima tentación consistirá quizás en seguirle por el camino del ruido<sup>53</sup>.

Ba omen zen behin Indian jakintsu handi bat, maisu txit beneratua, eta galdetu omen zioten bere ikasleek: «Maisu, zertan datza Brahman handia, jakinduria gorena?». Maisuak ez omen zuen ahoa ireki, eta ikasleek itaunka eta itaunka jarraitu zuten, hartaraino, ezen maisuak halako batean ezpainak zabaldu eta, «zergatik galdetzen didazue hainbeste aldiz gauza bera, aurreneko aldian jada erantzun badizuet?» esan baitzien. «Jakizue isiltasunean datzala jakinduria gorena»<sup>54</sup>.

Haatik, «la civilización moderna es muy ruidosa»<sup>55</sup>; jakintza guztiekin ere, jakinduriaren kontrakoa. Egin eta ezin egon, ibili, jardun, saiatu, konpondu,

... la publicidad, los libros, los discursos, las conferencias, los congresos, las asambleas, son formas de ruido que, sin que nos demos cuenta de ello, invaden constantemente nuestra existencia<sup>56</sup>.

Eliza-apostolutza bera ere, askotan, zaratatsua da («Ah! el ruido de los que hacen el bien...»)<sup>57</sup>. Santamariak behin baino gehiagotan deskribatu —salatu— du



kanpoaren inbasio hori gure barrunbe barruraino. «Las impresiones se amontonan. La conciencia aparece cargada de objetos que se me imponen desde fuera y también desde dentro, contra mi propia voluntad»<sup>58</sup>.

Kontua hori da: nire nahiaren aurka, harrabotsak azpiratu eta menperatu eta ezeztatu egiten nauela.

El recuerdo, la inquietud, el terror, el afecto, la preocupación, alternan en incesante machaqueo y me asaltan sin que pueda nunca dominarlos del todo. A menudo parece que se adueñan de la casi totalidad de mi interior península y mi alma tiene que replegarse a un pequeño Covadonga desde donde intenta seguir gobernándola<sup>59</sup>.

Zaratak geurez hustu egiten gaitu, eta arrotzez bete<sup>60</sup>. Shakespeareren pertsonaia aipatzen du Santamariak: «Desesperatuta nabil. Bila eta bila nabil neure buruaren eta ezin dizut inon aurkitu»<sup>61</sup>.

Asko hitz egitean jakinduria gutxi dagoela, Testamentu Zaharretik presokratikoengana eta Indiara, denek jakin dutena da, gaurko kulturak ez bada. Orain erruz hitz egiten da, idazten da, predikatzen da, aholkatzen da, solasten da. «Desbordamiento de palabras, desbordamiento de gestos van a menudo acompañados de vaciedad interior. Lo contrario justamente del hombre profundo»<sup>62</sup>.

Zarata da gure etsaia<sup>63</sup>, geu izaten uzten ez diguna. Edo berdin presa, ezin geldi egona, egiten eta ibiltzen ibili beharra bazterrak aurrera, inon pausatu ezinda<sup>64</sup>. Geu izatera iristeko berriro, libre, geure buruaren jabe, hutsa eta isiltasuna egin behar dugu barruan. Barnean geldi geratu. «El gran silencio es condición esencial del afrontamiento interior. Hay que ensayarse a morir a todo sonido para poder vivir de toda armonía»<sup>65</sup>. Jainkoarekin bateratzea da arimaren helburua:

Todos los medios humanos —planteatzen du Maritainek—, cualesquiera que sean, resultan desproporcionados con relación a Dios a quien se ha de poseer en su vida propia; por eso lo mejor que puede hacer la criatura es abandonarse, extenuarse, renunciar a sus operaciones propias, hacer en sí el vacío<sup>66</sup>.

### ***Frai Joan Gurutzekoa***

Hildura, isiltasun, barru-arazte, arima inpresio orotatik hustu eta ahalmen propioetatik ere inausi, lan guztiotan maisu Joan Gurutzekoa da Santamariarentzat, mistiko karmeldarra<sup>67</sup>, «a quien personalmente profeso particular afección», zeinak irakasten baitigu paregabeki «a andar *a oscuras, pero seguros* nuestro camino de la *nada* al *todo*»<sup>68</sup>.

Ia beti, San Joanen eta mistikaren defentsan (are San Joan poetaren beraren defentsan, behin behintzat, Orixeren aurka)<sup>69</sup> hasi behar izaten du gero. «Juan de Yepes fue ignorado en su tiempo, entre sus propios hermanos»<sup>70</sup>. Ezezaguna gaur ere: «hoy, como ayer, se le ignora»<sup>71</sup>. Ez omen da haren testuen irakurzaile askorik, «hasta el punto que uno casi tiene que hacerse perdonar por tan extraña afición»<sup>72</sup>, etab. etab. «Hoy corren malos vientos para la mística»<sup>73</sup>. Ohar-garriro, baina, haize galgarri horiek, razionalismoaren edo zientifismoarenak baino gehiago, kristautasun modu «progre» batenak dirudite<sup>74</sup>.

Egia baita, izan ere, honezkero filosofian haizeak oro har ez direla mistikaren hain kontrakoak, behiala razionalismo ilustratuan edo XIX. mendeko positibismoan izan ziren bezainbat bederen. Kant bat beti oso gaitzirizkor agertu bada mistizismoari buruz, garaiko estiloan<sup>75</sup>, E. Cassirer edo Jaspers eta utzita, mende honetako filosofian B. Russell bera txeratsu eta nahiko positiboki azaldu izan da<sup>76</sup>. Postmoderniaz ezer ez esateko.

Orduan, Santamariak mistiko karmeldarraren gaurkotasuna, modernotasuna azaltzen egingo ditu ahaleginak. Eta Teilhard de Chardin —arestian gaurkotasunaren prototipoa—, funtsean, erabat ados dagoela harekin erakutsi nahiko du behin eta berriro<sup>77</sup>.

Verdaderamente estos dos espíritus, aparentemente tan distantes, están muy cerca el uno del otro en lo profundo de su pensamiento. Porque en realidad, para Teilhard también —¡cómo no!— lo único que queda al término del camino de la desnudez y de la nada, es la vida de la fe. Vivir de fe desnuda, sin formas, ni imágenes, ni artificios, ni convencionalismos que puedan interponerse<sup>78</sup>.

Baina, nik uste, Teilhard bera baino gaur-gaurkoagoa iruditzen zaio Santamariari azken batean Joan Gurutzekoa. «Para mí, San Juan de la Cruz es un doctor completamente moderno, el más apropiado a la situación de vacío filosófico y espiritual de la Humanidad contemporánea»<sup>79</sup>.

Nere ustez Donibane Gurutze eguneko gizona da oso. Gaurko giza-egokera ikusten lagunarazten digu. Bere soiltasuna gurea izan liteke mistikoak ez izan arren. Benetan Donibane Gurutze *barne muinetan* sartu zait betikoz<sup>80</sup>.

Zertan ote datza, doi-doi, XVI. mendeko mistikoaren gaurkotasun aparteko hori? Batetik, aitortza pertsonala egiteko, «yo no he encontrado jamás —en la humana literatura, se entiende— nada más profundo, ningún enfrentamiento más genuino ni que me acerque más al misterio del propio destino»<sup>81</sup>; bestetik, egungo giro espiritualari orokorki gagozkiola, orobat, Santamaria sinetsita dago

... que sus sublimes teorías se corresponden, hasta cierto punto, con el estado del alma y la ansiedad espiritual del hombre —o de cierta especie de hombres— de nuestros días. En nuestro mundo técnico y automatizado, que apenas deja sitio libre para anhelos profundos —tan ocupada está la gente en aturdirse y ‘ansiar’, aunque sea a plazos, el frigorífico y la televisión— el ansia espiritual va extendiéndose cada vez más y brota, incluso, donde menos se piensa. Cada vez va siendo más frecuente el caso de esos hombres y mujeres ‘que siente una tristeza callada en las tardes de los domingos, sobre todo en otoño’<sup>82</sup>.

Jainkoaren hutsunea da, txitxiribitxiz beteta ere, arimak sentitzen jarraitzen duena barreanean. «Es el hueco de Dios lo que, sin saberlo, padece hoy mucha gente en el mundo»<sup>83</sup>. Alferrik lehiatzen da jendea, gosea zerena den engainatu nahita, sentsazio ezezagun eta inpresio intelektual berri bila, memoria eta irudimena fantasiaz kargatzen, mila gauzaren desirekin borondatea okupatzen. Are gehiago engainatzen dira, bizi garen aro teknikoaren gisara, beren kristau bizitza aktibismo edo amerikanismo furfurua batez kontentatu nahi luketenak<sup>84</sup>. Arima ez da guztiz kontentatzen guztiz betetzen duenaz baizik. «La suprema sabiduría consiste en vaciar el alma de todo lo que no sea ese misterioso Uno necesario. La razón de ser de nuestro existir»<sup>85</sup>. Ororen buruan, horixe baita Frai Joan Gurutzekoaren lezio guztia: «Nos invita nuestro místico a negar los apetitos, aún los que parecen más elevados, los cuales cansan y empalagan el alma, y a un universal desarrimo de todas las cosas creadas»<sup>86</sup>.

Jainkoarekin batzeko metodoa, San Joan Gurutzekoren arabera, ariman hutsune osoa egitea da, oroimen, desira, pentsamendu oro ezabatuz, arimaren ahalmen eta gaitasun oro ezeztatuz, barruan ezertxo ere gabeko gau ilunean geratu arte, «nada, nada, nada, nada, nada —Y en el Monte nada», zure hutsaren hutsean Jainkoak bete zaitzan osoki bere argiz.

Zertzat har daiteke gaurkoa San Joan Gurutzeko, sorkarien eta munduaren uko guztizko horrekin: nola adostu ezerezaren eta gauaren mistika hori, adimenaren eta gogartearen beraren arras itzaltze hori («toda ciencia trascendiendo»); ez, noski, razionalismoarekin, baina bakoiztasunaren gure kulturarekin, edo pertsonaren dohain moral, intelektual eta fisiko guztien garapena xede duen humanismoarekin, kreaioaren edo haragitzearen teologia modernoarekin berarekin?<sup>87</sup>.

C'est vrai que certains saints comme saint François de Sales ou sainte Thérèse de Lisieux présentent un visage humain. Mais comment parler de l'humanisme d'un saint Jean de la Croix qui nous invite à nous dépouiller de tout, à purifier nos sens jusqu'au bout pour entrer dans les rigueurs de la nuit des sens et à nous exercer dans la grande aridité qui réduit au silence même les facultés supérieures?<sup>88</sup>.

Dena dela, Santamariak ondo igarri bezala, San Joan Gurutzekoa baino gehiago kristautasun osoa jartzen da zalantzan galde horretan. Ados jar al daitezke humanismoa eta Mendiko Sermoia?

L'humanisme n'est-il pas le culte de la beauté, de la science, de l'amour humain, bref, de bien des choses éphémères et fragiles, si vous voulez, mais attirantes et pleines de vie, tandis que le christianisme prône le renoncement à tout ce qui est périssable et le culte du mystère, dont les manifestations suprêmes ne se réalisent qu'au delà de la mort?<sup>89</sup>.

### ***Kristautasuna eta humanismoa (natura eta grazia)***

Hemen bat egingo dugu, beharbada bi nahikoa diferente dena, humanismoa alegia eta estoizismo izenarekin izenda genezakeena, mendebalean aro eta eskola desberdinetan zehar tradizio handiko joera, barne oreka filosofiko baten helburuarena afektuen eta grinaren gairak, arrazoiketaren eta zorrotasun moralaren laguntza. Ezbairik gabe, zabaltasun gehiegitxo, baina hor sartuko ditugu gizakiaren ditxa osoa eta, atsegintasuna nolahi eratan agin dezan, edozein higie edo politika sozial ere. Eta hau da problema: gizaki naturalak aski al du zorionerako bere buruaz soil eta arrazoimen hutsaz, Aristotelesen, Epikurok, Estoak, eta nahi bada gero liberalismoak, marxismoak, eta abarrek, labur, «humanismoak» beti nahi izan duenez? Eta natura aski bada, kristautasuna ez al da haren etsaia, askitasun hori ez aitortzean?

L'humanisme et le christianisme, pris dans toute leur ampleur, ne sont-ils pas des conceptions inconciliables? Est-ce que l'humanisme ne prétend pas faire de l'homme la mesure de toutes les choses, tandis que la religion affirme la réalité d'un absolu en dehors de l'homme?<sup>90</sup>.

Santamariaren erantzunak argitu beharko du: a) etika edo humanismo razional hutsak ezin duela gizakia zoriontsu egin; eta kristautasunak, edo graziak, b) nolabait osatu egiten duela humanismo hura, c) ez, ukatu.

Ezin baketu izateko munduarekin, eta kontentatu bere egoerarekin munduan, bi arrazoi dakartza Santamariak.

Bat da ez dagoela modurik «existentziaren alde negatiboak» razionalki asimilatzeke, natura higuintzen eta izutzen dutenak izateagatik halakoak. Giza naturan dago gertakari guztiz natural batzueganako onargaiztasuna, natur arrazoimenak ezingo du natura makurtu eta onargaitza onargarri bihurtu.

Il y a dans notre vie des éléments absolument inassimilables pour une conception positiviste de la perfection et du bonheur humains. Jamais l'homme n'acceptera que le

système de réalités devant lequel il se trouve puisse le rendre heureux et lui permettre de réaliser une authentique harmonie [...]. Aucun système rationaliste ne peut affronter la réalité de la mort, de la déchéance physique, intellectuelle et morale, du vieillissement, des souffrances que la condition humaine ne peut éviter. Il n'existe aucun moyen, pour le moment, de dominer sûrement les forces subconscientes et la gamme étendue des obsessions qui frappent l'esprit. Tous les aspects négatifs de la réalité détruisent tout espoir d'un ordre équilibré, cohérent, logique, acceptable par la raison<sup>91</sup>.

Munduak ezin ase gaituela erakusteko, «negatibotasunaren» azpimarran, errazena San Joanen antzeko autore aszetiko-mistikoen kontsideroak aipatzea zeukan, baina ia inoiz ez du hori egiten Santamariak. Gehienetan, Teilhardez baliatuz goititzen du justu alderdi hori.

Teilhard ha escrito que «tenemos el derecho y el deber de apasionarnos por las cosas de la Tierra». Pero, al tratar de lo que él llama las 'negatividades' o las 'pasividades' (el fracaso, el envejecimiento, la enfermedad, la muerte, temas esquivados por Marx) no ha ocultado el doble fondo de la condición humana<sup>92</sup>.

Personne mieux que lui [Teilhard de Chardin] ne peut nous aider à voir clair dans cette affaire et à «défaire le noeud qui étrangle la confiance de l'homme dans la valeur de sa propre existence». C'est là qu'est mis à l'épreuve l'effort de l'homme à la recherche d'une réconciliation entre lui-même et le ciel [...]. Teilhard a dressé le catalogue de tout ce que contient cette idée de mort et qui se résume dans la mort même<sup>93</sup>.

Esana dagoen legez, «faire entrer tout cet ensemble d'éléments, perturbateurs de notre équilibre intérieur, dans une conception purement rationnelle de la vie est [...] absolument impossible»<sup>94</sup>. Beraz, giza naturak berak egiten dio deiadar, nolabait, bera gainditzearen beharrari; giza atsegintasunaren, barne-orekaren, zorionaren kontzeptuek bere eskatzen dute natura eta arrazoimena transzenditzen duen zerbaiten osagarria, sorospena.

L'idée que nous nous formerons de cet équilibre devra donc recevoir sa force d'un principe extérieur à la société et supérieur à la raison car elle est impuissante à assimiler la réalité de la condition humaine telle qu'elle se présente à travers ses aspects négatifs<sup>95</sup>.

Bigarren arrazoa, giza naturak zergatik ezin duen bere naturan (arrazoimean) aurkitu asea, Santamariari Unamuno gehien hurbiltzen zion puntua da, seguruen; hoberena bere hitzak aldatzea dugu:

Il existe, d'autre part, dans l'homme, certaines aspirations fondamentales qui ne peuvent être compensées ni satisfaites par rien dans le monde. Ses aspirations d'infini, d'éternité, de vérité, et de justice absolues, peuvent se résumer dans ce que Miguel de Unamuno appelle 'l'appétit de Dieu', la soif d'immortalité, l'ennui de l'éternité. «L'homme n'est complet, disait Unamuno, que lorsqu'il veut être plus qu'un homme». Cette phrase paradoxale démontre l'impérieuse nécessité d'admettre dans ce problème un élément nouveau, extra-rationnel, c'est-à-dire d'ouvrir la porte à la transcendance,

au mystère [...]. En réalité, c'est la présence en nous du mystère qui empêche que se ferme à l'intérieur de l'horizon rationnel le cycle de notre perfection morale. La raison ne peut pas assimiler le mystère, elle ne peut que s'incliner devant lui<sup>96</sup>.

Arrazoimenak ezindako hori, hau da, arrazoimenaren osagarria, espiritualtasunak eman diezaguke<sup>97</sup>. Espiritualtasunak oinarrian moral naturala suposatzen du, erabat eskuratu ahal ezina iritzi diogun barne-oreka haren bila. Barne-oreka eta espiritualtasuna bi-biak eskutik paraleloki gauzatu beharko dira, bateko aurrerapenak beste arloan ere ostera eginez<sup>98</sup>. Barne-oreka hori, ordea, ez da bururatu behar estatikoa<sup>99</sup>. Ez da, lortu eta behin betiko edukitasuna bezalakoa arimarentzat. Horrelakoa da estoikoen<sup>100</sup> edo budisten<sup>101</sup> idealak, apika; Santamariak baiets dezakeen barne-oreka bakarra, berriro Unamunorekin mintzatzeko, «hilzorikoa» da.

La relation entre l'homme et le mystère ne se produit pas, en ce monde, en termes d'une sereine contemplation intellectuelle, mais dans ce que représente la lutte avec l'Ange<sup>102</sup>.

Zertan datzan gau osoan aingeruarekin izandako borroka aszetiko hori ez dago berriro zertan aipatu, mistiko karmeldarra maisua da irakasten. Puntu hau bukatzeko, beraz, ez dago barne-orekarik, bakerik, etengabeko borrokarik gabe; baina borrokarekin, egon badago bakea eta barne-oreka, transzendentzia suposatuz beti ere<sup>103</sup>.

Dans une spiritualité chrétienne, il existe donc la possibilité d'une relative perfection, d'une équilibre en devenir, en mouvement, en lutte constante. Cette lutte comporte deux temps, deux phases, deux aspects. En premier lieux, le dépassement de la médiocrité, l'incorporation au travail, à l'action que nous impose notre devoir de vivre humainement et socialement. Ensuite, l'acceptation active de la mort et de tout le négatif et du périssable qui se manifestent constamment en nous et autour de nous<sup>104</sup>.

Ulertzekoa da Maritain ere seriozki baliatu izana munduaren uko aszetikoa humanismoarekin bateragarria ote den aztertzeko, Eliza eta mundu modernoa bateratzen ahalegindua baitzen hura. Harentzat ere San Joan Gurutzekoa izango da eztabaidagaia, hain zuzen<sup>105</sup>. Munduaren uko aszetikoak ez duela esan nahi munduari ihes egitea, munduan ez konprometitzea, errepikatuko du Santamariak: «las *nadas* de San Juan no se oponen en modo alguno a la acción ni al conocimiento del mundo, ni a la lucha por la promoción humana en el tiempo y en la historia»<sup>106</sup>. San Joanek, hobe, egun behar den ekintzailearen eredua aurkezten du:

Nunca se repetirá bastante que el despegarse de las cosas no ha de consistir en una especie de 'evasión' del mundo. La vía real de la cruz pasa, para la mayoría de los hom-

bres, por el camino de la acción. El mundo de hoy necesita de muchas gentes activas, que vayan a él generosamente, con vacío del alma y pobreza de espíritu, que no teman ni esperen nada para sí mismos. No se trata de gustar, de sentir o de comprender, sino de asumir, con plenitud, en la oscuridad de la noche y al margen de todo consuelo o arrimo de humano entendimiento, nuestra condición humana, tal como se nos presenta en cada situación concreta. Asumir lo miserable y lo absurdo de la existencia y sus aspectos decididamente negativos en todos los órdenes —el obstáculo estúpido, el absurdo accidente, la inferioridad física, la insuficiencia moral, la amputación, la muerte. Asumir todo eso de modo activo y positivo. Cargar, en suma, conscientemente, con la cruz y con todo lo que ésta tiene de inaceptable y de escandaloso para la razón<sup>107</sup>.

*Badena eta badenaren itxura bereizkuntzaz* baliatzen da Santamaria munduaren ukoan nola egon daitekeen haren baiespen biribilena paradoxa ulertzeko. Bekatua, adibidez, ez da *baden ezer*, egotea legokiokeen ongi baten mentsa, eskasia baizik («privatio bonum debiti»). Mundua, horrela, eta bereziki gizakia, Jainkoaren umea, egiazko bere izatean Jainkoari begira dago, Jainkoagana doa; Jainkoa gabe hartuta, itxura badu badela zerbait (eta eder askoa, humanismo maitagarriak beti azaldu gisa), baina, bere osotasunerako zerbaiten ments da, eskas; beraz, ez guztiz baiestekoa.

Quand l'humain est examiné à la lumière de la foi, il se présente comme une matière spongieuse, pleine, si je puis dire, de trous, transpercée par les blessures du péché. L'humanisme du péché est l'humanisme du néant et tout ce qui n'est pas le péché appartient de droit et en fait au Christ et est attiré par Lui. Le vrai humanisme, l'humanisme authentique, n'éprouve aucune diminution, aucun amoindrissement en se ralliant au Christ. Tout au contraire, il trouve en Lui le modèle, le cep dans lequel sont greffées les valeurs humaines. C'est en union avec Lui que l'humanisme se fait immortel sans laisser d'être temporel: sous l'action de la grâce, il se tient prêt à traverser le défilé de la mort<sup>108</sup>.

Mundua, ikusbide kristauan, ez da kimera, fantasmagoria, begitazio, demonio gaiztoren baten obra. Jainkoaren eskuen kreatura da.

Si, momentanément, le mystique se sépare des créatures qui lui cachent la vision de Dieu, il n'est pas attiré par une divinité inhumaine, mais par Celui qui est le créateur de l'humain [...]. Le mystique éprouve alors un double mouvement pendulaire: des créatures à Dieu, de Dieu aux créatures. D'abord il découvre dans la beauté et le bien humains, les empreintes de la Beauté et du Bien absolu. Il s'éprend alors du divin, il le cherche inlassablement par l'ascèse préparatoire. Mais quand il a joui de Lui dans l'union mystique, il retourne plus humain que jamais vers les hommes<sup>109</sup>.

Mundutik apartatuz, Jainkoagana hurbiltzeko, ez da itxuraz baizik aldendu mundutik, haren iturri eta aitagana itzuli baita. «Il est donc plus humain que jamais et aucune des dimensions humaines ne lui échappe à ce moment»<sup>110</sup>.

### ***Heriotzaren garaipena***

Gizakiari bere bizitza txikiaren absurdoa, ezdeusa, badirudi batez ere bi ikuskarik sentiarazi diotela antzina-antzinatik: zeru-izarraren azkengabetasun isil geldiak (Santamariak Pascal aipatzen du: «Le silence éternelle de ces espaces infinis m'effraie») eta bizidunaren akabantzak, heriotzak. «Laika» zakurraren heriotzak, nolabait, inpresio biak elkartu zituen<sup>111</sup>.

Con su alma animal, ¿pudo darse cuenta de su terrible situación, de su terrible abandono? Yo me pregunto, sobre todo, si ladró. Si lanzó uno de esos quejidos que el animal acosado emite como una llamada de socorro, dirigida no se sabe a quién, como un grito de la naturaleza que clama donde le duele. Un ladrido condenado a apagarse en el vacío del espacio sin aire, que ningún ser terráqueo, hombre o animal, podía oír<sup>112</sup>.

Heriotzaren izua, zirrara, badirudi animaliangen ere sumatzen dela jada (kasuotan, hildakoarena, noski), gizatasun espezifikoa baino lehendik. Kultura guztietan erruz aurkitzen dira haren adierazpenak.

El culto de los muertos no ha faltado nunca. Inútilmente tratarán de desecharlo los impávidos escépticos, los negadores del más allá. Nunca podrán convencerse a sí mismos de algo que es radicalmente contrario al quejido de nuestra rota naturaleza humana<sup>113</sup>.

Beraz, heriotzaren izularria, hilondoko existentziaren kezka, gizakiaren errotikoenetako arazotzat har daiteke agian. «La muerte, es decir, la necesidad de morir, plantea una especie de contradicción entre el ser y el no ser del hombre. El 'ser para la muerte', el ser para dejar de ser»<sup>114</sup>.

Horregatik, Santamariarentzat ia eskandalu bat da, hutsune oso larria, nolana ere, marxismoak, esate baterako, arazo hori planteatu ere apenas egitea<sup>115</sup>. Eta «kolektibitatean» biziraungo dugula edo, ez zaio begitانتzen problemaren erantzunik batere.

Alderantziz, erradikaltasun gorri-gorrian Camusek planteatu du *Sisiforen mitoa*-n: «No hay más que un problema filosófico verdaderamente serio: el suicidio»; hau da, «decidir si la vida vale o no la pena de ser vivida, responder a esta pregunta: tal es la cuestión fundamental de la filosofía»<sup>116</sup>. Agian, tonu desesperatu samar hori gabe, baina, filosofia *meditatio mortis* sokratiko (platoniko) edo *commentatio mortis* zizerondartzat hartzea, San Agustín-eta behingoz bakan uzteko, berria (existentzialista) ez beste guztia da pentsamenduaren historian. Baina, beharbada, dramatikotasun hori, hori bai berria, justifikatua dago, «Jainkoa hilez gero». Razionalismoak ezingo du problema konpondu. Bizitzak bere baitan zentzurik ez badu arrazoimenak deskubritu eta atzemateko (ezin du



izan, haatik, beste mila arrazoiren artean, Santamariak maiz gogoratu bezala, Kantez gero errealtatearen baitan ez dagoelako), bestalde haren baitaz landara —transzendentziarik— ez badago, non geratzen da beste aukerarik? Santamariak hemen Dostoievskiren «alternatiba razionalista» argudiatzen du, absurdoa nabari izateko<sup>117</sup>:

El único racionalista consecuente sería Kirillov. Kirillov —aquel ingeniero de caminos que hasta parece que había construido un ferrocarril que no estaba mal del todo— sostenía y puso en práctica la escalofriante tesis de que para un auténtico positivista la única solución lógica, la única manera de triunfar sobre la muerte es el suicidio; no el suicidio por fatiga, ni por miedo, ni por aburrimiento, ni por odio, ni por melancolía, sino como actitud metafísica absoluta y suprema ante la vida<sup>118</sup>.

Absurdoaren filosofia edo moda nagusia existentzialismoa izan da gure mendean: bizitzak ez ei du inolako zentzurik. Gizakia existentzia absurdo batera «botata» bizi da, egun batzuetan, ez nondik eta ez nora, hortxe jausita dagoela beste arrazoirik gabe.

La perra Laika me hace recordar el hombre tal como lo ven los existencialistas. El hombre lanzado a la existencia, arrojado a ella como una especie de basura cósmica. Nuestros gritos, nuestros ayes, ¿no los escuchará nadie?<sup>119</sup>.

Denak transzendentzia eskatzen du, existentziaren eta garrasiaren «handikal-detik» entzun eta erantzungo diguna. Bestela,

... si la vida no tiene sentido fuera de sí misma, si no conduce a nada, como no sea a engendrar nuevas vidas que tampoco llevan a ninguna parte, entonces, señores, nos encontramos en la plenitud del absurdo y no hay ninguna razón que nos empuje a seguir viviendo. ¡Qué se me da a mí todo, si todo es nada!<sup>120</sup>.

Zein den absurdoa erakusteko unibertsoa bere buru erraldoia etengabeki egiten eta desegiten duen makinatzar itsu bezala bururatzea, Santamariak behin baino gehiagotan aipatu du Kierkegaard-en pasarte trinko bat, ikustea mereziko duena:

Si el hombre no tuviera conciencia eterna; si en el fondo de las cosas no hubiese más que una oscura potencia, salvaje e hirviente, productora de todo lo existente, pequeño o grande, dentro de un torbellino de tenebrosas pasiones; si lo único que se ocultara tras lo existente no fuese más que un vacío sin fondo, ¿qué otra cosa sería la vida, sino la desesperación? Si así ocurriera, si la Humanidad careciese de todo lazo sagrado, si las generaciones se renovasen como el follaje de los árboles, extinguiéndose las unas tras las otras, como el canto de los pájaros en los bosques, surcando el mundo como surca el océano un navío o como atraviesa el viento un desierto en un acto ciego y estéril; si no hubiese poder capaz de arrancar al eterno olvido su presa, ¿qué vanidad y qué desolación sería la vida!<sup>121</sup>.

Hiritar garaikideak beste esperientzia modu ikaragarritzko bat ere egin behar izan du heriotzarekin: kontzentrazio-zelaietakoa, hiri-bonbardaketa, fusilamendu, masakre masiboetakoa, Bigarren Mundu Gerrakoa, adibidez<sup>122</sup>. Baina: «los nazis —zitatzen du Santamariak Mauriac— eran hombres como nosotros y no pertenecen a una raza salvaje, sino a la raza que ha dado al mundo a Mozart, Goethe, Beethoven»<sup>123</sup>.

Bere «bekatuaren» giza esperientzia da, heriotzaren aurrean eginda, antzinako erlijio guztietan agerikoa hori ere: heriotza gizakiaren patua da, miseria da, zigorra da, eta bere errua da. «Esto es lo que hay en el hombre. *Ecce homo*», Santamariaren aitormenean<sup>124</sup>.

Absurdo honetatik guztitik fedean geratzen da garaipena, gizakiaren esku ez dagoena, baina erabakigarri bakarra bera, finean<sup>125</sup>. «El mundo vive de la Fe. Si un día, por imposible, se llegase a perder la Fe del todo en el mundo, yo creo que el género humano acabaría autodestruyéndose»<sup>126</sup>. Ez ote garen absurdotik absurdora jausita absurdo hutseko bizidunak, hasi eta buka dena ez ote den aldenik alde zentzugabea larritzen den existentzialistari, arrazoimenak ez, fedek bakarrik eman diezaioke erantzun bat: «La respuesta de la fe es que no. Es que estamos en las manos grandes y suaves del Padre»<sup>127</sup>. Argi bakarria fedea, Kierkegaarden larriminarentzat ere:

La Pascua es lo contrario de todo eso. La Pascua es la promesa viva de que la vida no es un vacío sin fondo, ni un mecanismo que se repite a sí mismo, inacabable reproducción de seres que no lleva a parte ni a fin ninguno<sup>128</sup>.

Esan da, ordea, fedek ez duela egiten errealitatean dagoena ez dadila han egon<sup>129</sup>: heriotzak hor jarraitzen du munduan, eta absurdoak izugarria izaten jarraitzen du. Bakarrik, fededunarentzat, heriotzaren absurdoan bertan, eta hori kendu gabe, hiltzeko izularria esperantzaz janzten duen Jesukristoren heriotzaren misterioa gauzatzen da. Mundua, heriotzaren erreinua, bizitzaren erreinu bilakatzen da.

Aquí [Kristoren heriotzan] toda la historia humana aparece como un gigantesco drama de vida y de muerte: hasta Cristo y sin él reinaba la muerte; viene Cristo y por su muerte triunfa de la muerte misma; desde este instante la muerte cambia de sentido para la nueva humanidad que muere con Cristo para vivir con él eternamente<sup>130</sup>.

Bataioan Jesukristorekin hilda, fededuna egunero hiltzen da pixka bat Kristorekin, hilduratzen da aszetikoki, mundu hilkorra bere barrutik hustuz, isilduz, Kristorekin bat egin arte... Transzendentziak ireki du bidea transzendentziara.

Beharbada, senean zegoen familiako hildakoak familiartzat gordetzea («nuestros muertos echaron raíces en nosotros»)<sup>131</sup>. Baina orain, areago, fedea argituta, Arimen Eguna, hilen eguna, esperantza eguna da, jaioteguna bezalatsu mundu guztiarentzat, hiltzea ez baita bizi berrira jaiotzea baino. Kasik umore onez bezala idazten du egun horretako oroitzarretan Santamariak: «Tiene algo de Navidad esta evocación religiosa y doméstica de los que partieron del mundo de las ‘sensaciones sensibles’»<sup>132</sup>. Animalia-izurri-laborria gozoro egin du bere esperantzak, konfiantzak: «La fiesta de los difuntos es blanda y caliginosa como el otoño en el que la mecen los días»<sup>133</sup>.

### *Kristoren misterioa*

Misterioa denean dago, tximeleta txikitik zelaian goiko zero handira. Eta Kristoren misterioa da misterioen misterioa («le mystère des mystères»), transcendentzia bidean mendiko gailurra.

Non seulement il est le plus grand de tous les mystères, mais encore il est leur somme et leur point de convergence. C'est véritablement là où ils se retrouvent tous, où ils deviennent quelque chose de mystérieusement cohérent et de divinement articulé. Le mystère de la grâce et celui du péché. Le mystère de la souffrance et celui de la joie. Le mystère de l'immanent et celui du transcendant. Le mystère de Dieu et celui de l'homme<sup>134</sup>.

Santamaria behin eta berriro ageri den prosalari bizi argiak ia estilo poetiko mantso bat aukeratu du gai horren meditaziorako, intelektual katoliko frantsesten 1959ko astean, titulu aski esanahitsuarekin: «Le Christ et la nuit» (ez bakarrik, baina, funtsean, testu horri jarraituko gatzazkio ondorengoan). Dena den, misterioak Kristoren baitan aurkitzen du argia; existentzia den galdutasunak harengan aurkitzen du eraldakuntza.

Une fois qu'on est entré dans la lumière de ce mystère on sait qu'on ne retombera jamais entièrement dans la grissaille. Mais on sait aussi qu'on sera obligé souvent de livrer des batailles dans la nuit<sup>135</sup>.

Kristo baita gure argia. Baina da gu gaua garelako. Eta gau horren barru-barruan beharko dira ilunaren eta argiaren guduak gudukatu. Beraz, guretzat, Kristo, fedearekin ere ezin izango da ez izan beti kontraesana, paradoxa, *skandalon*<sup>136</sup>.

[1] Si le Christ était seulement le Seigneur de l'Éternité, cela on le comprendrait et on s'inclinerait volontiers, car, au fond, on ne sait pas grand-chose de ces histoires d'Éternité.

S'il était seulement le Seigneur du Temps et de l'Histoire, *cela* on le comprendrait aussi.

Mais qu'Il soit en même temps le Seigneur de l'Éternité et celui de cette chose malhonnête et sordide, de cette écume sale et sans consistance, qu'est l'Histoire, voici ce que l'esprit d'incroyance n'arrive pas à digérer.

[2] Si le Christ était seulement le Pontife d'une Église invisible, —cela on le comprendrait et on s'inclinerait volontiers... parce qu'au fond c'est une prétention qui facilite beaucoup les choses et qui ne gêne personne.

Mais qu'Il le soit aussi d'une Église visible, pas différente en réalité de l'Église invisible dans ce monde et pour ce monde, avec toutes sortes de départements, et de ministères, et de rouages administratifs, et de couleurs, et d'habits, et de petites grandeurs et de grandes misères.

Une Église faite réellement du bois humain...

[3] Si le Christ était le grand maître de la sagesse, un grand savant, un grand philosophe, un profond connaisseur de la nature humaine, qui nous apprendrait à vivre selon les conseils d'une raison éclairée... Un sage qui parlerait un langage intéressant, parfois paradoxal, parfois, même, obscur et un peu mystérieux... *cela* on le comprendrait et on en serait heureux, parce qu'au fond, la raison aime toujours jouer avec un peu de mystère comme le chat avec la souris avant de la manger.

Mais qu'Il *prétende* nous parler en même temps que le langage de la raison et du bon sens, celui de la Croix, celui des béatitudes, celui du renoncement, et de la pénitence et de la mortification...

C'est le double versant le plus scandaleux du mystère du Christ<sup>137</sup>.

Misterioaren begitan, bi jarrera lirateke, Santamariarentzat antzera okerrak, voltairearra eta apologetiko-razionalista, hemen pixka bat ustekabetzen badu ere itxuraz pentsamendu hain kontrakoak berdintze honek. Biek okerra daukate gaiari heltzeko modua, hasierako desegokitasun horretatik beste gainerakoak segitzen dutela.

El tema religioso requiere una actitud religiosa. Sin ella todo se falsifica en él desde su raíz. El volterianismo viene precisamente de eso: de tratar los asuntos más profundos y sublimes entre chanzas y copas de coñac, chismes políticos y asuntos de faldas. El volteriano, como el positivista, adopta ante el misterio religioso una actitud inadecuada, que es una incredulidad a priori<sup>138</sup>.

Abiagune fedezkotik abiatu arren, teologia modu apologetiko batek ez du errespetatzen misterioa eta fedea; lagundu baino haboro, ito egiten du, edo barregarri utzi<sup>139</sup>.

El racionalismo —es decir, el intento de reducir todo conocimiento a la razón lógica— hizo un gran daño a la religión, no sólo porque los racionalistas se dedicaron a combatir la idea religiosa, sino porque dentro de la misma Iglesia nació una corriente que pretendía conducir a los cristianos por una vía cerebral y deshumanizada<sup>140</sup>.

Egia da kondenatu egin zituztela kristautasuna guztiz «desmitifikatu», ideia eta arrazoien sistema garbi-garbi bihurtu («un cristianismo sin misterios,

donde todo fuese tan penetrable y transparente como una figura geométrica») nahi izan zuten teologo razionalistak. Baina zenbait apaiz eta predikari jenderentzat inpresioa hor geratu zen («en bastantes cristianos, que merecieron haber nacido libros de lógica»), serioa eta garrantzizkoa arrazoiketa dela, silogismoa, proba, etsaia gezurtatzea.

Recuerdo las tendencias apologético-racionalistas en las que se pretendía formarnos a los jóvenes intelectuales —en los tiempos en que yo lo era— de espaldas a la liturgia, a la mística, a la espiritualidad, cosas entonces que parecían olvidadas o de las que apenas se nos hablaba, y, al mismo tiempo, con muy poca idea de justicia social y de transformación real de las estructuras sociales<sup>141</sup>.

Baina horrela ez zen misterioa lardastu besterik egiten.

La raison analytique est une étrange machine à découper le réel. Elle en fait des petits morceaux [...]. Quand on l'applique au mystère, comme on le fait souvent sans aucun égard à la substance même du mystère, on arrive à des résultats de valeur fort discutable. Comme un termite laborieux, mais incapable de véritable intelligence, la raison analytique creuse des galeries à l'intérieur de l'arcane et introduit partout des classes et des ordres, des divisions et des subdivisions, partout des petits «a» et des petits «b» pour classifier et trier le mystère. Un mystère isolé, criblé, poli, taillé, retouché, mesuré, examiné au microscope, comme n'importe quelle espèce de bactérie, est sans doute quelque chose de très intéressant, mais, peut-être, n'est plus un mystère<sup>142</sup>.

Fedearen kontzeptu razionalista horrek berak probokatu du fedearen (tradizioaren) porrota. Baina fedearen porrot paradoxiko bat da, fede jatorrago eske baita, hain zuzen! Transzendentzia eske, alegia<sup>143</sup>. «Jainkoa hil» eta aro «erlijio gabeko» batera omen doa gure gizartea, Bonhoefferren arabera. Gizonek ez dute gehiago behar Jainko «zulo-estalkia», «esplika ezinaren esplikazio» Jainkoa; sobera dago.

Pero esa terrible afirmación —aunque en realidad quizás no sea tan terrible como parece— no desmiente el hecho de que el Dios misterioso, el *Deus absconditus*, el Dios genuinamente trascendente, es hoy, más que en ningún otro tiempo, una necesidad vital del ente humano<sup>144</sup>.

Horrela daukagu, bada, fededun tradizionalen esparruetan, fedea itzaliz doala<sup>145</sup>; baina, bestalde, «fenómeno curioso el que está ocurriendo ahora. El tema de Dios parece interesar más a los ateos que a los hombres que a sí mismos se declaran creyentes»<sup>146</sup>.

Kristoren misterioan argia ikusteko bidea ez da bereizketa razionaletan dibertitzea, probaketan tematzea.

Ne le cherchez pas à travers de parfaits syllogismes. Ne le cherchez pas dans la frivolité, ni dans le divertissement, même si c'est un divertissement théologique [...]. Cherchez-le dans la contradiction<sup>147</sup>.

### Santamariak bere Joan Gurutzeko kutunari helduko dio berriro.

La fe no es asunto de explicaciones. Como dice San Juan de la Cruz «la comunicación de Dios en el espíritu se hace ordinariamente en gran tiniebla del alma», de manera que «más se trata de no entender que de entender». La fe es ajena a todo sentido. Vacía y oscurece el espíritu de toda inteligencia natural y así dispone al alma para unirse con Dios<sup>148</sup>.

S'il n'y avait que la Parole du Christ, cela on le comprendrait assez bien et on l'accepterait de bon gré.

Mais qu'il y ait aussi le silence, ce silence qui se tait toujours, ce silence qui ne dit rien du tout, voilà ce qui gêne et embarrasse.

Le silence du Christ, voilà ce qui nous gêne et nous scandalise.

[...] C'est, en effet, dans le silence et dans l'obscurité qu'on rencontre le vrai Mystère du Christ.

Ici il ne s'agit pas d'une tâche intellectuelle. Il ne s'agit pas du tout de comprendre le Christ mais de l'aimer et de le suivre<sup>149</sup>.

Kristoren misterioa, umiltasun eta maitasunez horrela onartuta, bat, geure misterioaren argitasuna da<sup>150</sup>; eta, bi, gure ekintzaren elikadura, «car l'amour ne demeure jamais inactif ni solitaire»<sup>151</sup>. Iluntasunek ez diote utziko horregatik ilunak izateari; baina, ilunetan, argi batek<sup>152</sup> bizitzari esanahi bat eta ekintzari bihotz-zabaltasuna isuriko dizkie. Orduan, gizakia, «ese hombre que no sabe por qué vive ni para qué y sin embargo se entrega al servicio de los demás» ahalko da izan<sup>153</sup>.

## Pertsona

Pertsonaren kontzeptua zentrala da Santamariaren pentsamenduan, baina, beharbada lehenengotik usteko denaren kontra —garrantzizkoa da ez engainatzea—, filosofia pertsonalistako markoen barruan<sup>1</sup>, misterio bat adierazten du, ez determinazio zehatz bat<sup>2</sup>. Are, «l'on doit remarquer que cette notion de personne est une notion, si je puis dire, d'indice chrétien, qui s'est dégagée et précisée grâce à la théologie», aspaldi aitortu zuen Maritainek<sup>3</sup>; eta eransten du Santamariak, zalantza ez arrazoirik gabeko batzuekin:

... cabe preguntarse si esta terminología es acertada, si no está ella misma demasiado cargada de un sentido histórico y conceptual, que nada tiene que ver con nuestro problema, ya que la noción de persona ha adquirido cuerpo al ser utilizada especialmente en las cuestiones teológicas de la Trinidad y de la Encarnación del Verbo<sup>4</sup>.

Gehi bedi pertsonalismoa beharbada filosofia bat dela<sup>5</sup>, edo ez dela filosofiarik eta ideologiarik batera<sup>6</sup>, edo filosofia bakarra baino gehiago dela, sorta oso bat, agian<sup>7</sup>: edonola ere, pertsonaren definizio zehatz batek zaila dirudiela zorrozki, ezinezkoa ez esateko.

Santamariari gagozkiola, hiru aurre-ohar egin daitezke: 1) Batzuetan, Maritain eta Mounier bi joera bezala kontrajarri izan dira: adibidez, A. Aróstegui, funtsean, bi metafisika desberdinen oposizioa ikusi uste izan du, izaeraren metafisika aristoteliko-tomista (Maritain) *versus* bilakaeraren metafisika moderno (Mounier)<sup>8</sup>. Santamaria bietaz berdin baliatuko da, libreki, oposiziorik erabili gabe, bien ikasle eta erabiltzaile gisa, horien ideiak eta testuak bere asmotara egokituz. 2) Pertsonaren kontzeptuan bada muin metafisiko funtsezko bat, eta hainbat osagai sozial, moral, psikologiko, etab.<sup>9</sup>. Santamariaren baitan ez dira falta definizio metafisikoaren marra gutxi baina finko batzuk (funtsean, bere irakasle filosofikoetatik hartuak, berehalaxe ikusiko dugunez), baina ez dago esan beharrik kezka bizienak inoiz ez dituela izan metafisiko-sistematikoak, eta bere ekarri pertsonalena eta interesgarriena ere ez dela hor bilatu beharko. 3) Beti bere ardura nagusi praktikoari jarraiki (praktikoaren adiera erlijioso-moralean), Santamariari pertsona balio bezala interesatu zaio, bereziki; hots, bere lanean beti kezkatu duena, pertsonari buruzko teoria akabatu bat lortzea baino gehiago, irizpideak garbi edukitzea izan da balorazioetarako eta ekintzarako, irizpide horiek (fededunarentzat, batik bat) pertsonarengan adierazita dauden eran.

### ***Indibiduo, pertsona***

Pertsonaren hurbilketa teorikoan<sup>10</sup> oinarritzkoa den bereizkuntza ez beti erraz honen arabera<sup>11</sup>, jatorri historiko teologikoa duena<sup>12</sup>,

... el primero [banakoa, indibiduo] se aplica a todo ser sustantivo, en sí mismo indivisible, mientras que el segundo [pertsona] corresponde a un género especial de subsistencia, caracterizada por la racionalidad y la libertad<sup>13</sup>.

Gutziz ere, teoria sozialean izango ditu bereizkuntza horrek ondorioak: nola kokatzen den gizakia gizartean (Estatuan), hau da, zenbateraino dagoen osotasunaren menpe eta zenbateraino ez dagoen, etab. Testuinguru horretan egin du, hain zuzen, behin Santamariak bi kontzeptuon azalpena, modu honetan:

Pertsonalistek indibiduo eta pertsona kontzeptuen arteko bereizketa oinarritzko bat egiten dute. Indibiduo, gizartearen zati bat da eta, alde honetatik, gizartearen errealitateak zeharo kondizionatua dago. Pertsona, berriz, ez da gizartearen zati bat, zeharo haundiagoa den zerbait baizik: izaki librea, bere buruaren jabea, transzendentea; pentsamendu, zientzia, teknika, ekintza etabarren kreatzailea. Nahiz eta gauzarik txikienetan izan, kreatzailea da pertsona; gauza askoren sustrai eta hasiera; beti miragarri eta harrigarria. Pertsonagandik abiatzen bait dira historiaren bide guztiak.

Pertsonaren barnean dago existentziaren enigmatik haundiena.

Hitz batean: pertsonalisten ikuspuntutik, pertsona ez da gizartearen zati bat, osotasun eta totaltasun bat baizik.

Idea hauetatik dator, hain zuzen, pertsonalista batzuek maiz aipatzen duten slogan ezaguna: «el individuo para la sociedad, la sociedad para la persona»<sup>14</sup>.

Hor dago Jon: zer da beste lagunengandik berezia egiten duena, bestelakotzen duena? Espezie bereko denek «espezie» edo forma berdina dutenez gero, «la diferencia no puede venir de la esencia, de la forma, puesto que sólo existe una forma o esencia del hombre, la cual se halla en cada uno de los individuos de la especie humana»<sup>15</sup>. Formak ez bada, materiak izan beharko du. Halaxe da tomismoan: «la materia individualiza a la forma que recibe»<sup>16</sup>. Baina materia da naizen mirrinena, ustelena, galkorrena. Beraz, [a]

... la subsistencia que se funda en la materia, tiende, pues, constantemente, a su destrucción, a disolverse en lo informe, a romperse en la multiplicidad. La materia, principio de nuestra individualización es, pues, al mismo tiempo, el principio de nuestra muerte.

Eta [b]:

Por otra parte, la materia nos arrastra a lo gregario, a lo vulgar y despersonalizado. ‘En cuanto somos individuos —dice Maritain—, cada uno de nosotros es un fragmento de una especie: una parte de este universo, un puntito en la inmensa red de fuerzas y de influencias cósmicas, éticas, históricas, por cuyas leyes está regido, puntito sometido



al determinismo del mundo físico. Esta sumisión al determinismo físico que la materia nos impone es la que hace que, en cuanto individuos, no seamos seres libres, no seamos dueños de nuestros actos<sup>17</sup>.

Gizakian badago, bereizten eta nortzen duen beste printzipio bat, nobleagoa materia baino: gizaki bat besteagandik ez da bereizten dortoka bat besteagandik bezala bakarrik. Beste zera horixe da gizakiaren berezitasun partikularra (gizakia gizakiagandik bereizteko, bakoitzarengan modu berezian eta bereizgarrian ematen dena), «pertsona» deritzoguna. Santamariak Aita Garrigourekin jarraitzen duenez,

... lo que caracteriza, pues, a la persona, a los ojos del sentido común, es, por cierto, la libertad, el dominio de sí; pero la libertad, según este mismo sentido común, supone la inteligencia que delibera y la conciencia de sí; y la conciencia del 'yo', a su vez, supone, precisamente, el 'yo', el cual, para hablar con propiedad, es la persona.

La ley física y determinante queda reemplazada por la ley de la razón y de la libertad personal<sup>18</sup>.

Indibiduo gisa, gure baldintza geografiko, genetiko, sozialen ekoizpenak eta menpekoak gara. Pertsona gisa, aldiz, geure gorputzaren nagusiak gara, inguru sozial zein materialaren gain.

Pertsona gisa, ez gaude materiaren menpe.

Esto es, precisamente, lo que caracteriza a los santos —erakusten du Santamariak—, que luchando con el no ser de la materia, han alcanzado la participación en la vida del Ser verdadero. En el morir para sí y el vivir en Cristo de los santos no hay sombra de despersonalización. Al contrario, la personalidad humana se completa y se corona en un grado sublime de perfección<sup>19</sup>.

### ***Pertsona saldoan urtuta***

Aitzitik, despertsonalizatuta, gizartean bizi gara, barnetasunak inbaditzeko eta konbentzioz katea-kateatzeko gizarte modernoak dituen bitarteko teknikoekin, batez ere. Jada inor ez da nor, izan dadila espero dena izatea dago-kio bakoitzari.

Todo hombre vive encerrado en su 'personaje'. El personaje es la figura social que cada uno tiene [...]. Mi personaje me domina. Me impone unos gestos, unas maneras, un modo de ser, una máscara<sup>20</sup>.

Beraz, etimologikoki, badirudi «pertsona» terminoak mozorro edo maskara esan nahi zuela antigoaleko bere jatorri etruskoan, eta itzulinguru luzearen buruan berriro horretaraxe etorri da gizarte garaikidean. Gizarteak irakasten

du zer izan. Gizarteak agintzen du nola ibili, non zer ibili, non ez ibili. Idatzita dago zure rola, maskarada. «Si intento escaparme del personaje, la sociedad me condena»<sup>21</sup>; edo psikiatrarenganako uste nau, azkenean, berdin baita: «ya que todo el que se aparta de los usos y costumbres comunes en una sociedad, de cualquier tipo que sea, es automáticamente considerado como insensato»<sup>22</sup>. Nekezegia da luzaro korrontearen aurka —nekezena mespretxuaren eta bazterketaren aurka— igerian jardutea:

... lo más cómodo resulta aceptar la máscara que se nos impone. Termina uno por representar un papel tan a conciencia que se olvida del todo de sí mismo. La máscara acaba por modelar el rostro y el hombre desaparece bajo el peso del personaje<sup>23</sup>.

Bestalde, indibiduoaren legea da horrelaxe izatea. Haragia gara, animalia gara. Materia.

La servidumbre respecto a lo colectivo es una consecuencia inevitable de nuestra condición carnal, y esto implica fatalmente cierto gregarismo del que el ser humano no puede deshacerse enteramente. Estamos sujetos a esa servidumbre, sin la cual no podríamos siquiera existir<sup>24</sup>.

Erabat ez da, beraz, negatibo ikusi behar masa barruan galduta egotea, edo eutsita<sup>25</sup>. Ez gara libertate hutsa eta sormen absolutua. Hain zuzen, aingerukeria izan daiteke kristau askoren eta razionalista askoren engainua.

Nos encontramos, en efecto, sumidos en un mundo de creencias colectivas: en él pensamos, vivimos y aun somos. Es ilusorio querer evadirse de ese mundo hacia no sé qué paraíso abstracto. Hay que tener la sinceridad y la humildad suficiente para reconocer que una gran parte de lo que nosotros creemos nuestras teorías personales proviene de un mundo por completo exterior a nosotros mismos<sup>26</sup>.

Kontua da oinarri horren gainean bakarrik dela posible askatasuna, baina askatasuna (pertsona) ez datorrela masa material horretan emanda, eginda, bermaduraz egiteko eta konkistatzeko eskainita bakarrik baizen. Harekin, hain zuzen, ez hura gabe. Grazia ez zaion bezala naturari teilatu baten antzera gagnetik eransten<sup>27</sup>, pertsona ere ez da indibiduoaren materialtasun, sozialtasunaren gagnetik<sup>28</sup> teilatu bat aparte, baizik eta nork bere burua antzaldatuz, «natura pertsonalizatuz», bakoitzak burutzeko eginkizuna<sup>29</sup>. Pentsamendu kolektiboa (tradizioa, etab.) berez masa sor hila da, eta berdin izan liteke zama itogarri bat ala lur emankorrena. Gure ekintzaren menpe egongo da zer atera. «Aquí comienza nuestra actitud propiamente moral, es decir, racional y libre»<sup>30</sup>.

Erdi Aroan, ideia baten egia edo balio objektiboa zen begiragarriena, batez ere fedearekin zerikusirik bazuen (eta zerk ez zuen Erdi Aroan!). Fedea, edo

egiaren lorpena, egintza pertsonalak direla ez zen guztiz ahaztuko edo bazter utziko.

Pero es evidente que la participación de la voluntad activa del sujeto individual en el logro de la verdad y la misteriosa batalla de cada hombre con su problema religioso, les interesaban menos que la afirmación objetiva de la doctrina y sus manifestaciones externas<sup>31</sup>.

Errenazimentuan hasi eta, are bortizkiago, Erreformaren eraginpeko esparruetan, berebiziko arreta egingo zaio barnetasun indibidualari, Aro Modernoan gero subjektibismo erlijioso zein filosofikoaren forma sentiberenak nagusituz joan arte.

Según estas formas extremas de subjetivismo, de las que Unamuno es para nosotros un buen ejemplo, la verdad deja de existir como una realidad objetiva: existe *mi* verdad, y *tu* verdad, pero no *la* verdad en sí. La idea religiosa, más bien que *creída*, es *creada* por cada hombre<sup>32</sup>.

Tradizioak eta abarrek balio dena galtzen dute sentiera subjektibista horretan. Urratuta geratzen da komunitateko sarea, biziera sozial osoa indibidualismoaren zerbitzura lerratzen da.

La ruptura del sujeto con el mundo objetivo tiene amplísimas manifestaciones en muchos órdenes del saber y de la actividad humanos. El fenómeno subjetivista se manifiesta en todas las ramas del arte, en el pensamiento filosófico y teológico, y hasta en el campo de las concepciones políticas y sociales. Al hombre singular ya no le interesa *el* mundo, sino *su* mundo<sup>33</sup>.

Mutur batetik bestera, ja ez da geratzen liberalismoaren indibiduo bakartia —bakoitza— besterik; komunitatea, zenbaki guztien batura ez bada, fikziozko izatez hartzen da.

Egia da masa batean ez garela masa besterik, printzipioz. Bizi ahal izateko eta geure portaera eta pentsamendua garatzeko baldintza gisa gizarteak uneoro aurkezten digun ideia eta uste kolektiboen unibertsoa, balioen taula, arautegia, zuzenbide kontzeptua, geure kontzientzia pertsonaleko bihurtu beharko ditugu, pertsonak izateko. Honela dio Santamariak, Mounierren erara:

Debemos también luchar para repersonalizar las creencias colectivas que estimamos humanas. Ellas tienen un origen humano: antes de ser creencias colectivas han sido verdades individuales, es decir, experiencia, razón, e incluso fe. Son capaces de hacerse de nuevo humanas, de *rehumanizarse*<sup>34</sup>.

Hau da, gizartearekin bat egiteak ez du, nahitaez, geure buruaren ukoa esan gura. Gure nortasunaren gesal eta lurruntzaileak ziruditenak (uste kolektiboak) bilaka daitezke, geu ahaleginduta, gure askatasunaren euskarri sendoen. Ezingo dugu inoiz ahaztu lan horretan mila arrisku suertek zelatatuko gaituztela.

La personalidad —Maritainek ohartarazita dago—, metafísicamente inamisible, sufre muchos reveses en el orden psicológico y moral. Corre riesgo de contaminarse con las miserias de la individualidad material, con sus mezquindades, con sus vanidades, con sus tics, con sus estrecheces, con sus diátesis hereditarias, con su modo natural de rivalidad y oposición. Porque el mismo que es persona y subsiste todo entero con la subsistencia de su alma, es también individuo en la especie y polvo en el viento<sup>35</sup>.

Ordea, faxismoa eta komunismoa orain ahaztuta (baina, beharbada, gogoratu horietan modu muturrekoan eman zen subjektibismo eta indibidualismoaren aurkako erreakzioak ez dituela utzi beste ideologia politikoak ukitu eta erreakziora behartu gabe; hots, estatu moderno teknologikoa, oro har), gaur egun, kolektibismoaren forma berri sotilagoek beren sareetan arrantzatuta ikusten da gizakia ostera. Indibidualismoa aupatzen da. Hain zuzen, jendetza-aren aurkako jarrera landu egiten da, industrialki landu ere, eta enpresa errentagarria da ekonomikoki ere, horixe!

La misma actitud de protesta y de reacción contra la previsión social procede frecuentemente de un estado de pensamiento colectivo. Se encuentran personas que se creen y se proclaman no-conformistas, siendo, en realidad, conformistas radicales, 'conformistas del no-conformismo'. Algunos creen liberarse del gregarismo, cuando no han hecho más que cambiar de dueño<sup>36</sup>.

Gizarte moderno «libreetako» mila esklabo «libreki» eta gustura gustaturen segada... Beraz, ez Erdi Aroko kolektibitate objektibistara, baina kolektibismo subjektibista berri batera itzuli gara, berriro gizakia saldoan balduta dagoela. Egia objektiborik agian ez dago, dena omen baita orain subjektiboa, baina bai uste kolektiboaren aginte burdinazko eta huts ezina, baliabide tekniko sofistikatuenez segurtatua<sup>37</sup>.

Pertsonalisten diagnosian, badakigu, pertsona hil egiten da Jainkoa hilda. Gizakiari irtenbidea itxita transzendentziara. Eta trantze horretantxe gaude, orain.

*Dios ha muerto.* Ha desaparecido del mapa. Le han matado lo ateos. Y, acaso, más que estos, cierta raza de *teólogos-geómetras* que habían querido convertirle en *objeto* de su filosofía, El que es el Sujeto por esencia: «Dios es esto. Dios es lo otro. Desde aquí hasta aquí llega», dicen estos teósofos o *teómetras*<sup>38</sup>.

Ondorioa zuzenean dator: «Tras *la muerte de Dios* viene inexorablemente *la muerte del hombre*»<sup>39</sup>. Aurreko mendeetako humanistek adierazi nahi izaten zuten gizakiaren kontzeptua bera suntsitu egin dela esango du Santamariak, es-  
trukturalistak lekuko hartuz eta E. Frommen gogoeta hauek aipatuz:

Erich Fromm, en su *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea*, escribe estas palabras: «El problema del siglo XIX fue que *Dios había muerto*. El del siglo XX es que *ha muerto el hombre*. Y, en efecto, la civilización ha matado al hombre individual. Lo único que cuenta hoy es el hombre medio: el *hombre estadístico*. Poco o nada le importa a la sociedad de consumo el destino de cada persona, lo que ésta pueda pensar o sentir. Todo está calculado de antemano en función de los datos aritméticos. *La multitud* es lo que le interesa, no el hombre propiamente dicho»<sup>40</sup>.

### ***Marxismoa eta pertsonalismoa***

Maiz ukitu duen arren arazo hau, Santamariak artikulu argi eta benetan bikaina eskaini zion gai honi beren-beregi *Jakin* aldizkarian, «Marx eta giza pertsonaren problematika» tituluarekin<sup>41</sup>, hari egongo baikatzaizkio.

Jada Mounierrek marxismoari egozten zion «gizakiaren barne-bizitza pertsonalaren errealitatea ez ezagutu izanaren» hutsune esentziala, alegia, gizaki kolektiboarekiko baikortasuna, gizabanakoarekiko ezkortasun erradikal batekin kontrastean. Horixe da Santamariak ere marxismoan salatuko duen hutsunea (ikusiko dugun moduan zehaztua), pertsonalista guztiena funtsean, hots, gizaki kolektiboaren eta gizaki banakoaren arteko etena, banakoaren abandonuarekin, finean<sup>42</sup>. Handik hara, marxismoak ekar lezakeen gizakiaren askatzea ez dela izango gizabanakoaren askatzea, gizaki kolektiboarena baizik (Marritain); marxismoak, finean, —«Historia fisika bihurtzen da» eta— iraultzaren kontzeptua bera ezeztatu egiten duela (É. Borne), eta abar, autore desberdinen arabera eragozpen desberdinak ondorioztatuko dira. Santamariak azaltzen duen salaketak edo kezkak sentiberatasun —arrazoiz— irritu bati erantzuten dio nazismoaren eta estalinismoaren esperientzien ondoren: Marxen testu batzuen arabera,

... gizaki kolektiboaren hazkuntzak eta gizabanakoaren hazkuntzak bat egingo dute, azken finean. Baina, oraingoz behintzat, bizi garen gizarte alienatu honetan, bigarrena —gizabanakoa, indibidua alegia— sakrifikatu beharra dago gizaki kolektiboaren alde<sup>43</sup>.

Marxismo ortodoxo edo klasikoaren pertsonari buruzko flakia hasi dira salatzen marxista batzuk ere, batez ere gerra ondoko egoeran, Estatu sozialistetan.

Ordura arte, sozialismoa eraikitzen eta defendatzen lehiatu zen jendea, begiak etorkizunean jarrita. Gerra bukaeran, aldiz, gizarte sozialista ezarrira zegoen, nagusi zegoen, eta eguneroko bizitzaren zentzuaz lehen ez bezalako galderak sortu ziren. Batetik, hainbeste sarraski, suntsidura, bonbardaketa, zapalketa, zigor eta oinaze nozitu ondoren, jendeak atsegin eta plazer pixka bat dastatzeko aukera eskatzen zuen. Bestetik, jendea konturatu zen jabego pribatuaren ezeztapena ez dela nahikoa gizakiaren gaitz eta ondoez guztiak gaintitzeko; sozialismoan ere indibiduoaren heriotzaren eta bizitzaren zentzuaren kezkek iraun egiten zutela, eta erlijiozko sentimenduek, askatasunaren problemek, zorionaren minek, eta abarrek. Problemaren ebidentzia hor zegoen eta, saio «zientifista» batek (Althusser buruzagi zuela) estrukturalismoan atrakatu zuen barkua, kolpe batez arazo guztiok behin betiko iraitzeko marxismoaren kareletik, orain «antihumanismoaren» banderaz<sup>44</sup>; baina, proiektu horren ezinezkoa baino ere legez kontrakoa alde aurretik jakina baitzegoen marxista gehientzat, besteren batzuek nahiago izan zuten Marxen gogoetan pertsonarekiko hutsunea zinez aitortu eta, haren obran halere aurki zitezkeen elementu apurrekin, saioa egin humanismo marxista bat eraiki ahal izateko: A. Schaff, L. Sève, eta abar, Lukács eta Gramsciren ildotik<sup>45</sup>.

Abiapuntuan bertan, Althusserren soluzioa arbuiauz deblauki<sup>46</sup>, Santamariak bere posiziotik hainbat problema ikusten ditu humanismo marxista baten proiektuan, ideologia haren oinarriengatik berengatik. Funtsean, hirutan bil daitezke horiek, bide batez marxismoaren eta pertsonalismoaren arteko diferentziak ere markatzeko:

1. Gizakiaren sozialtasuna ulertzeko modua: Feuerbachen aurkako seigarren tesi famatuak dioenez, «la esencia humana no es una abstracción inherente al individuo humano. En su realidad es el conjunto de las relaciones sociales». Alegia, gizakiaren esentzia konkretua, zurea eta nirea,

... ez dago gizabanakoan: indibiduoak ez du esentziarik izaten. Gizakiaren esentzia gizaki kolektiboan dago. Giza kolektibitatearen erlazioetan ez bestetan dago, esan du Marxek bere seigarren tesian. Guzti hau dela eta, Marxen eritziz, gizakia zertan dautzan jakin nahi dezanak, ez indibiduoari, baizik begien aurrean duen gizarte konkretuari begiratu beharko dio<sup>47</sup>.

Tesi horren esanahi doi-doi zalantzazko ageri da. Zeinek uka egia asko dagoela «las circunstancias hacen a los hombres más que los hombres a las circunstancias» bezalako esaldietan! Baina seigarren tesia bururaino eramanez nahi bada, honelako beste esaldi batzuek, «la sociedad no se compone de individuos; representa solamente la suma de las relaciones y de las condiciones en las cuales

se encuentran entre sí los unos respecto a los otros» gizabanakoaren erabateko ukapena adieraz lezakete.

Hitzez hitz hartzen badugu, ez dago indibiduorik. Edo, behintzat, indibiduok ez du batere garrantzi sozialik, batere eskurik gizartearen eraikuntzan. Ez da historiaren subjektu aktibo, subjektu pasiboa baizik<sup>48</sup>.

Bestetik, tesi berean mezu positiboak ere atzeman daitezke. Marxen iritziz, gizakiaren esentzia erlazio sozialen erabatekotasuna delako, pentsatu ohi den baino askoz sakonagoak dira indibiduen arteko eraginak. Erlazio sozialak direla medio, indibiduoek beren buruak kreatzen dituzte. Ez dira kanpoko botere baten ondorio. «Los individuos se crean entre sí los unos a los otros tanto en lo físico como en lo moral», dio Marxek *Ideología alemana* liburuan. Hau da, baita, Marxen perpaus famatu batzuen esanahia: «nosotros somos nuestros propios forjadores», «los forjadores de nuestra vida, de nuestra mente». Schaff jaunak oroitarazten duen bezala, Antonio Gramsci da ideia marxiano horien profetarik handiena; Gramscirentzat hau da gizakiaren definizioa: «El hombre es un proceso, el proceso de sus propios actos». «Bai esan zabal eta baikorra!, dio Schaff jaunak perpaus hauek aipatuz»<sup>49</sup>.

2. Kontzientziaren autonomiaren kapitulua: aurreko puntuaren ondorio berehalakoa. Zertan datza Marxentzat giza kontzientzia?

Puntu honetan guztiz urrun daude elkarrengandik pertsonalista kristauon ideiak eta Marxenak. Pertsonalista kristauen ustez, kontzientzia da pertsonalitatearen mamia eta muina. Gizakiaren barne-barnekoa, ezkutuena, sakonena, non beste inork ez bait du sartzeko deretxorik. Marxen iritziz, ordea, gizakiaren kontzientzia gertaera sozial bat besterik ez da [...]. Mundu guztiak ezagutzen du 1859 urteko *Grundrisse* direlakoetako Marxen perpaus famatua: «Ez da gizakien kontzientzia gizakien existentzia determinatzen duena, aitzitik, existentzia soziala da gizakien kontzientzia determinatzen duena». Karl Marx eta Friedrich Engelsek gauza bera esaten dute, besteak beste, *Ideología alemana* liburuan: «Ez da kontzientzia bizitza determinatzen duena, bizitza da kontzientzia determinatzen duena» [...]. Maximiliano Rubel jaunak dioenez, kontzientziaren autonomiaren ukazio hau da, hain zuzen, Marxen materialismoari zentzu guztia ematen diona. Pertsonalista kristauontzat gizakiaren kontzientzia autonomoa da, beregainekoa da. Marxentzat, berriz, kontzientzia guztiz mugatua eta lotua dago gizartearen errealitate materialarekin. Honen arabera —kontzientzia produktu sozial denez, alegia—, gizartea aldatu arte ez da gaurko gizakien «zoritxarreko kontzientzia» aldatuko<sup>50</sup>.

3. Transzendentziaren arazoa: positiboa da Marxengan, idealismo edo intelektualismo elezuri batzuen aurka, gizaki konkretuaz arduratu dela beti. Intelektualak arriskua omen du, gauzak ikustean, ez ikusteko diren gauzak bezala,

ideia unibertsalen iturri bezala baino<sup>51</sup>. «Cabe entretenerse en la invención de un humanismo cualquiera sin ocuparse para nada del hombre real»<sup>52</sup>. Marxen alde, esan beharra dago

... bere idazki guztietan eragotzi duela gizaki abstraktuaren ideia. Gizaki konkretuak, hezur eta mamizkoak ezagutu nahi ditu Marxek batere abstrakziorik onartu gabe [...]. Ohartaraz dezagun, pertsonalismo kristaua bat datorrela puntu honetan Marxekin. Izan ere, pertsonaren errealitatea nolanhiko abstrakzioen bidez mugatu nahi izatea, kontraesan bat da<sup>53</sup>.

Baina azalpenetako kointzidentzia hori, beharbada, urruntasun handi batekin ematen da arrazoietan. Hau da, gizaki abstraktuaren ukoak zio desberdinei erantzuten die, eta desberdina du zentzua kasu bietan. Besteak beste, Marxen konkretutasunak transzendentziaren ukoa inplikutzen du,

... pertsonalista kristauak defendatzen duten pertsonaren ulerpena, berriz, transzendentea da. Sineste bat, fede bat eskatzen du pertsonalismoak, pertsonaren errealitatea ezagutzeko. Indibiduo biologikoa, fisikoa, guztiz ikusgarri eta ukigarria da. Haatik pertsonaren existentzia ezin froga dezake inork, errealitate transzendente bat delako. Marxek, aldiz, pertsonaren transzendentzia fantasmagoriatzat hartzen du; hau dela eta, pertsonalistok ez dugu inolako deretxorik lilura faltsuak bizkortzeko puntu honetan. Nire ustez behintzat, ez dago inolako sinkretismorik pertsonalismo kristauaren eta marxismoaren artean<sup>54</sup>.

Horrek ez luke oztoporik izan behar ekintzan lankidetzat leial baterako, pentsamenduko diferentzietatik desegin gabe.

Une collaboration franche et loyale des chrétiens avec tous les hommes de bonne volonté s'impose. Malgré nos différences sur le plan religieux ou philosophique, une conception élevée de la dignité de la personne nous unit avec bien des gens honnêtes<sup>55</sup>.

### ***Pertsonaren eskubideak***

Mundu Gerraren ostean, zibilizazioak eskandalizatuarena egin nahi zuen, zibilizazioak ez bestek egindako basakeriez<sup>56</sup>. 1948ko abenduaren 10ean, NBEko Osoko Batzarrak Giza Eskubideen Aitor Orokorra onetsi zuen. 1950eko azaroaren 4an, Europako Giza Eskubideen konbentzioa onetsi zen. Hori dena Santamariak ikusten zuen

... comme un cri de protestation, comme une réaction défensive contre les actes de barbarie, contre les abus de la force et du pouvoir qui révoltent la conscience de l'humanité et dont celle-ci a été —et est encore— le témoin consterné<sup>57</sup>.



*Conversaciones Católicas de San Sebastián*-ak ere, 1947ko irailean hasita, Elizaren irakaskuntzan errotutako printzipio sozial edo politikoen azalpen bat prestatzen hasi ziren, Giza Eskubideei begira aurren-aurrenik. Baina hemen, arazoari sakonki heltzeko karien artean, gerrako alderdien basakeriak baino hertsikorragoa beste honek ematen du, sustraiak askoz urrunago baitaizka:

Entre todas las causas que exigen una revisión de este tema, la que más nos interesa y, sin duda, una de las más graves, es el crecimiento de la marea agnóstica que, habiendo comenzado por abismar la creencia religiosa, ha borrado las nociones éticas fundamentales y termina arrebatando al hombre la confianza en su propia razón natural. De aquí la importancia de una Declaración católica que, en oposición a todo agnosticismo, afirme terminantemente nuestra fe y nuestra confianza en un orden social, expresión del orden moral que, a su vez, se asienta en la Voluntad del Creador<sup>58</sup>.

Horra non, beraz, hasierara itzuliak gaituzun, krisiaren arlorra, Maritainek humanismoaren tragedia eta Mounierrek nihilismo europar zeritzotenera. Moderniaren hastapenetan, iradoki ohi zuen Maritainek, utzi Jainkoa eta errebelazioa alde batera eta,

... le rationalisme avait dressé de la *personnalité* de l'homme une image hautaine et splendide, infrangible, jalouse de son immanence et de son autonomie, et finalement bonne par essence [...]. Or, en un peu plus d'un siècle, cette fière personnalité anthropocentrique a périçlité, elle s'est effritée rapidement, entraînée dans la dispersion de ses éléments matériels<sup>59</sup>.

Gure kultura gizakirik gabe geratu da, ohartzun zuen Mounierrek ere. Zertzen zuena gabe. Hutsa, galduta oinarria nahiz muina. Hori da moderniaren suntsipeneko «nihilismo europarra».

La crise spirituelle est une crise de l'homme classique européen, né avec le monde bourgeois [...]. On ne sait plus ce qu'est l'homme et comme on le voit aujourd'hui traverser d'étonnantes transformations, on pense qu'il n'y a pas de nature humaine. Pour les uns, cela se traduit: tout est *possible* à l'homme, et ils retrouvent un espoir; pour d'autres: tout est *permis* à l'homme, et ils lâchent toute bride; pour d'autres enfin: tout est *permis* sur l'homme, et nous voilà à Buchenwald<sup>60</sup>.

Diagnosi horren arabera ulertu eta planteatu ditu Santamariak gerra osteko Giza Eskubideen kezka eta horien aitorenak tauletan zerrendatuta edukitzeko larriak. Izan ere, zer dira Giza Eskubideak eta zerk oinarritzen ditu benetan? Printzipioz, gizabanakoak eskubide horiek komunitatea eta Estatua baino aurreragokoak baititu, komunitateak aitortu eta errespetatu beharrekoak, ukitu ezinekoak. Horien iturria eta oinarria tradizio pertsonalistan dago, «pertsonaren baitan», hots, azken finean, giza naturaren Kreatzailearen eskuetan. Jainkoa

gabe, tradizio humanistak eta liberalismoak eskubide horien oinarri filosofiko hutsa edo razionala entseatu dute, hain zuzen, tradizio estoiko-kristauko giza naturaren filosofiaz baliatuz, sekulartuta (Locke). Haatik, giza natura iraunkorren kontzeptu horixe pikutara joanda dago aspaldian filosofia modernoan, natura-filosofia aristotelikoaren eta metafisikaren kritika razionalistarekin batera. Orain, hortaz, onargarria ote da, razionalki aski ote da, hain zuzen, giza-banakoaren esfera barrutarra Estatuaren edo nolana hiko botere kolektiboaren oldarretik babesteko balio behar zuten Giza Eskubideok Estatu horrexen adierazpen «positibo» hutsean edukitzea beren balioaren oinarri guztia? Zertan geratzen da eskubideon aurrepena Estuari buruz, «eskubide naturalaren» kontzeptu baterako funtsezkoa, aurretik Estatuaren onespina behar badute balio ahal izateko?

Kontua orduan da, Santamariak horrela ikusten du, Giza Eskubideen inguruko mugimendu hau guztia krisiaren barruko larri-putinka desesperatua ote den, konpromisozko soluzio bat aurkitu Gobernuen artean eta, azkenean, barruan geratzeko, ala benetan baliatuko al den arazoa sustraitik planteatu eta krisia goititzeko. XX. mendearen lehen erdiaren aldean, oso positiboa da guxtienez arazoa juridikoki araututa eduki nahi izatea internazionalki. Alabaina, positibismoa ezin gaindituta,

... hay en el fondo de todo esto una filosofía política contractualista y voluntarista, que funda el Derecho internacional exclusivamente en los pactos y en las costumbres y que rechaza todo fundamento anterior y superior a las leyes de los mismos Estados<sup>61</sup>.

Estatuaren gainetik Jainko guztiz argia aitortzen ez bazen, logikoki gutxiago zegoen Natura guztiz itsua zertan aitortu. Legeak eta Zuzenbideak (moralak), Nietzschek ohartu bezala, gizarte postrazionalistan, ez dauka (Estatuaren beraren) nahia beste oinarririk. («Auctoritas, non veritas, facit legem», Hobbesek garbi esanda zeukan dezente lehenago)<sup>62</sup>. Ordea, gero, modurik tragikoenean ikusi da Estatuaren absolutismoak nora daraman (Buchenwald). Zeren izenean ahal izango dio hiritarrak agindu «bidegabe» bati desobeditu? Noiz, edo zeren izenean, hartu ahal izango da «bidegabea» boterea?<sup>63</sup>. Badirudi Estatu lotu eta obligatu beharra dagoela zerbaiti, moralki eta juridikoki. Nolabait finkatu eta oinarritu beharra dagoela, Estatuak ez daukala hiritar batzuk xaboi egiterik, arraza bat gustatzen ez zaiolako, adibidez. Baina Estatuaren gainetik Nazioarteko Zuzenbide bati Estatuok obligatzeko, zerk euts diezaioke filosofia modernoan, Estatuak berek izan ezik? Modernia osinetik ateratzeko aukera bat izan daiteke hori. Halere, Santamaria ez da fio gehiegi aukera hori aprobetxatuko denik<sup>64</sup>.

Jusqu'à quel point, au contraire, tout ce courant en faveur de la personne et ces mêmes déclarations solennelles ne se réduisent-elles pas à un nouveau mirage, à une nouvelle illusion qui doit conduire l'humanité à un nouvel échec? Au fond, c'est tout le problème du monde moderne qui se poserait ici. Il s'agit donc de savoir dans quelle mesure la prise de conscience personnaliste représente un accroissement réel des valeurs humaines et dans quelle mesure, au contraire, elle trouve ses racines dans le 'non serviam', le cri éternel de révolte et d'indépendance de la créature contre le Créateur<sup>65</sup>.

Gure kulturaren oraindik ondare komuna da Giza Eskubideen aitortzea, horien taula bat egiterakoan, praxian, kristaua zein ez kristaua problemarik gabeko erantzun bat emateko.

Es tal la fuerza y la persistencia de la ley natural en la mente del hombre que, aun en estos momentos de confusión y de eclecticismo, la mayor parte del género humano, que ha perdido la visión de la trascendencia y del finalismo de la vida, aun conserva, de un modo más o menos claro, la noción de lo justo y lo injusto, aun tiene fuerzas para vituperar el crimen, reconociéndolo y condenándolo como tal. Pero, en medio del universal escepticismo, esta concepción flaquea, a falta de fundamentos sólidos, y llega a hundirse por completo cuando la pasión se extiende al plano colectivo<sup>66</sup>.

Gai honetan, Santamariaren burujope min-mina da, subjektibismoak eta erlatibismoak —hots, edozein Estaturen edo interpreteren arbitrariotasunak, komenentzien arabera— ekiditeko gero, zimendu zeharo irmoen gainean edukitzea ziurtatuak eskubideok, kulturen, filosofien, ideologiaren diferentziatutakoak faltan.

Una Declaración de derechos del hombre pretende ser una afirmación con vigencia eterna y universal, trascendente a toda voluntad o poder humanos: debe asentarse, por tanto, en principios trascendentes, universales y eternos<sup>67</sup>.

Izan ere, eskubideon balioa ala eza baldintzagabea ez bada zuhertasun-gogoe-tetatik edo, egoera aldakorretatik edo, baldin badago, haien aitortzak ez luke berez «Reglamento de convivencia» batena beste esanahirik, trafikoko arauak daukatena bezalatsu,

... que, naciendo del acuerdo entre los Estados, podría ser denunciado por cualquiera de ellos en determinado momento, con lo que tal Reglamento, carente a priori de fuerza moral, resultaría, además, prácticamente inútil como defensa de los Derechos de la persona humana<sup>68</sup>.

Eskubideon obligaziozkotasunak beretatik behar du eratorri, ez Estatutik. Berriro sendotzeko, beraz:

... un conjunto, como el que consideramos, de afirmaciones absolutas, con pretensiones de vigencia eterna y universal, no puede establecerse sin una creencia o sistema

de creencias, que se afirmen a su vez a sí mismas con fuerza suficiente para obligar a los hombres a respetarlas<sup>69</sup>.

Ez dirudi lan erraza inolako filosofia modernotan, logikoki printzipio horiek edo eskubideen harroin suntsiezin hori kontzientziatik berjabe eta aurreko, baldintza gabe, absolutu, errealitate objektiboko suposatuta beharko liratekeela ematen baitu. Hau da, metafisika bat exijitzen baitu. Eta Santamariak ongi daki, «en nuestro tiempo no existe, evidentemente, afición a las precisiones ontológicas, al contrario, se trata de rehuir todo lo que puede tener color metafísico»<sup>70</sup>.

Horregatik,

... en San Sebastián se trataba de llegar a una Declaración *católica*, es decir, asentada sobre el sistema de verdades filosóficas y teológicas que la Iglesia admite y afirma y que las enseñanzas de los Pontífices pregonan, aplicándolas a las circunstancias de cada momento histórico<sup>71</sup>.

Ez gara bizi honelako asmo bat zenbait jende zentzuduni nahitaez itxuragabekoa iruditu behar ez zaion tenorean. Printzipio betierekoetz, balio absolutu eta betiraunkorrez, giza natura aldagaitzaz —hor konpon eboluzioa—, espirituetan ezabagaitz marraturiko lege naturalez, munduaren sortzaile eta eusle batez, eta gizakia haren sendikoa izateaz, apenas dira zentzuzko solasak mundu modernoarentzat. «San Pablo no encontró reparo en escandalizar a los atenienses» da Santamariaren erantzun laburra<sup>72</sup>.

Aitzitik, Aro Modernoari ez bazaio gustatzen hori dena, hori dena gabe haren krisiak inon ez daukanez beste soluziorik,

... he aquí por qué es de suma importancia que los fundamentos filosóficos y teológicos de una Declaración católica de derechos, vengan a decir a los hombres de todo el mundo: «Lo que vosotros intuís vagamente y razonáis con dificultad, lo que vosotros afirmáis con vacilación y tenéis la aspiración de practicar como base de la Paz y del equilibrio social, la Iglesia lo encuentra expresado con claridad meridiana en la revelación de Cristo y se halla en condiciones de exponerlo a los hombres como una consecuencia lógica de la creencia en un Dios personal y providente, y en el hombre libre y responsable ante ese Dios»<sup>73</sup>.

Krisiaren kontzientziak berak, horrela, ibili dugun itzulia biribilduz, transzendentzia eta fede beharrera altxatu gaitu berriro.

### ***Pertsonaren eginbideak***

Pertsona ez da bere eskubideak bakarrik: «zoon politikon», gizartean, orde-na sozialean gauzatzen du gizakiak, arau eta legeekin eta lagunekin batera, lagu-nei beren burua gauzatzera lagunduz. Pertsonak aginpidearen agintekerietatik babestuta egon behar du, ez hari kontrajarrita, biak elkarri ahokatuta baizik.

Esan bezala, ordea, pertsonaren existentzia gatazkatsu bilakatua dago gizartean.

Dans notre temps, la révolte, est souvent considérée comme la source profonde et créatrice de la vie humaine, l'attitude fondamentale de l'homme, tandis que l'obéissance est plutôt pensée comme un appauvrissement, une manifestation négative et destructive de la personnalité<sup>74</sup>.

Filosofia modernoetan, askotan bururatu izan da gizabanakoa gizarteari buruz haren etsai bezala («homo homini lupus»), hark mehatxatua (hark defendatua beharrean), edo hartaz ezaxolatua (egoismo suerte desberdinekin), azken hori jarrera teorikoa baino gehiago praktiko gisa aurkitzen bada ere. Erdi Aroko *imperium sacrum*-aren ideala birrindu eta gero, Moderniari zail gertatu zaio askatasunaren eta ordenaren artean oreka berria lortzea. Lehen, hierarkia sagaratu batean, autoritateak bere menpean biltzen eta kasik desagerrarazten bazuen gizabanakoa, Modernia «indibidualista» izango da, hots —teorian, behintzat— antiautoritarioa. Autoritateak, legeak, beren arrazoi (zerutarr)aren ebidentzia galduta, justifikatu egin beharko dute orain (askatasun indibiduala etorri da ebidentziaren postua okupatzera).

Se halla muy extendida la idea de que *autoridad y libertad* son dos esencias o principios contradictorios, destinados a enfrentarse casi fatalmente en la vida política de los pueblos [...]. La conclusión es que para tener libertad hay que cercenar la autoridad, y que para afirmar y reforzar ésta conviene acabar con aquella y no dejar la más leve traza de libertad<sup>75</sup>.

Tenka horrek historia moderno osoa zeharkatzen badu, autoritatearen aurkako oposizioa gailentzen da, oraintxe (1954), gizarte garaikide teknologikoan, bere adierazpen filosofikoa existentzialismoan daukala.

La norme suprême de l'homme contemporain est celle d'être soi-même, de n'accepter aucune contrainte, aucune force étrangère à la propre volonté. La nouvelle morale est la morale de situation [...], l'éthique existentialiste qui n'admet pas de règles extérieures au sujet. Dans ces conditions là l'obéissance représente une forme de servitude ou d'aliénation propre d'hommes timides, bornés, résignés à leur petitesse et même, du point de vue existentialiste, une espèce de péché contre la liberté de l'existant concret [...]. Cela s'explique par maintes raisons, mais surtout, par le procès historique que nous avons vécu ces dernières années et qui n'a pas encore terminé. L'homme

occidental vient de sortir d'un cauchemar totalitariste, mais il se trouve en face de nouveaux monstres étatiques qui menacent encore sa libre existence. Cela lui fait sentir d'une façon plus aiguë la valeur de sa liberté et le pousse à défendre avec énergie son intimité personnelle<sup>76</sup>.

Gizartearen ukatzaileon artean (hots, gizartea da, autoritate pertsonalak bezalaxe, erakundeak, printzipioak, egoera nagusi bat, sistema konplexu oso bat), Santamariak iraultzailea eta matxinoa<sup>77</sup> bereiziko lituzke E. Frommekin, itxuraz antzeko bi tipo, baina guztiz bestelakoak barnean<sup>78</sup>. Iraultzaileak uko egiten die gizarteari, legeei, autoritateari, beste gizarte, lege, autoritate batzuk nahi dituelako, baina ez grina pertsonalengatik («sin que esto tenga nada que ver con un deseo personal de dominar a los demás»), helburu sozialengatik baizik<sup>79</sup>. Santamariarentzat tipo historikoki eta sozialki guztiz positiboa da iraultzailea:

La actitud del revolucionario me parece respetable. Sin revoluciones del tipo que sean —políticas, científicas, sociales, religiosas, etc., la Humanidad estaría todavía en la Edad de Piedra<sup>80</sup>.

Matxinoa, aitzitik, nahasle eta endredatzaile hutsa da, «una persona que se subleva contra la autoridad, pero que lo hace básicamente porque quiere convertirse él mismo en autoridad»<sup>81</sup>. Matxinoak etsaitzat hartzen du gizartea, eta borrokatu eta menperatu egin nahi du, ez eraldatu.

«Individualista», gizarteaz ezaxolatu gisa, katoliko tradizionalista kontserbadoretzat har daiteke, gizartean zuzendu beharreko mila oker ikusi arren, hori agintarien edo Estatuaren eginkizuna dela-eta desenkusitzen dena<sup>82</sup>. Halakoa-ren kontzientzia soziala<sup>83</sup> legea ozta-ozta betetzera iristen da.

Natura «politikoaren» kontzientziako pertsonak, bere eskubideez gain, bere eginbideez kargu hartu behar du, eta bien orekara itxi eraginkorki. Askatasun jatorra ez da autoritatearen ukoa, ezpada autoritatea ere ahalegintzen dena gizartea jatorra izan dadin. Autoritatea, legea eta askatasuna kontzeptu osagarriak dira elkarrenganako. Hiritarraren eginbidea da lehiatzea horiek egiatan elkarren osagarri izan daitezen. «La autoridad debe ser la primera en inclinarse ante la ley. Esta, si es justa, ha de fundarse, a su vez, en la libertad de la persona y el derecho de esta a una intervención real y electiva en la vida social», idazten zuen Santamariak Espainia frankistan<sup>84</sup>.

He observado que el amor a la libertad suele ir acompañado, en algunos países, de un gran respeto, de un enorme respeto a la ley. En cambio se han dado y se dan situaciones históricas aparentemente autoritarias que lindan con la anarquía, porque, en ellas, la ley no resulta respetable al no ser expresión del sentir colectivo sino producto de una arbitrariedad más o menos inconfesada<sup>85</sup>.

Gizartean, pertsonaren obligazio bakarra ez da, noski, obedientzia: izan daiteke iraultza, edo izan daiteke, sinpleki, desobedientzia ere<sup>86</sup>.

Baina, orain, ebazteko geneukana: gizartea onartzeak (nahiz hobetzeko, iraultzeko izan gero) funtsean esangura duen «obedientzia», hots, komunitatearen eta ordenaren ezagutza eta aitortza, Santamariaren planteamenduan, ez da printzipioz mugagabeki bere buruaren jabe bakar eta oso asmaturiko indibiduo batek egiten duen bere-bere eskubideen sakrifizioaren baten ondorioa, gizarte-bizitzak eskain diezazkiokeen abantailen arrazoi egoistagatik, ezpada pertsonaren metafisika (pertsonalista!) baten emaitza. Ez dago oposiziorik legearen eta askatasunaren artean.

Une analyse psychologique profonde, mettrait en évidence que la pratique de l'obéissance ne fait que renforcer la conscience de la propre liberté et la liberté elle-même. Les saints ont éprouvé maintes fois ce sentiment ou cette expérience intérieure tout en se livrant à une obéissance crucifiante. C'est ainsi que Sainte Thérèse, si tourmentée par ses directeurs spirituels, mais toujours soumise et docile, nous raconte comment elle avait reçu en un instant le don de la liberté [...].

Au point de vue métaphysique on pourrait de la même façon montrer que la liberté est faite aussi d'abandon, de dépouillement, de disponibilité [...]. Une certaine nécessité ontologique de dépendance, d'obéissance, est inscrite dans la nature même de la créature contingente<sup>87</sup>.

Metafisika pertsonalista hori, kasu honetan Santamariak aurrenik gizarte eliztarrean pentsatuz azaldua izan arren<sup>88</sup>, baliozkoa da pertsonaren bizitza sozial guztirako, goiko indibiduo/pertsona bereizkuntzaren ildoari jarraiki.

### ***Fedea pertsonan***

Garai franko iluna izango da bizi garen hau; krisian erorita bere zimenduak eta printzipioak, itoginez beteta teilatu instituzional denak, pipiak jota auto-kontzientzia, ustelduta behialako esperantza pinpilinpauzak, txit rasionalki eta zientifikoki aurreratuta Buchenwalderainoxe. Halere, Santamariak baikor jarraitzen du giza historiarekiko.

Izaeraren optimismo bat? Agian. (Baina malenkonia usu aurkitzen da haren lerroetan, «hori tristea da», «tristuraz betetzen nau», etab.). Nik uste batez ere Santamariaren uste on transzendentean dagoela historiaren begikera esperantzatsu horren klabea, pertsonarekiko eta pertsonaren obrarekiko (kultura). Oso Kanten antzera, gizakiaren historian kontzientziaren historia ikusten da, positiboki<sup>89</sup>. Horrela, NBERen Giza Eskubideen Adierazpena beharbada ez da izan oso efikaza<sup>90</sup>, ez zen izan Santamariak gustu izango zukeena inola ere;

baina, Kantentzat Frantziako Iraultzak sorrarazitako suhartasunak esan gura zuen moduan, kontzientziaren konkista guztiz garrantzitsua adierazten du, eta ez luke gutxietsi nahi:

No creo que pueda compartir la opinión de los que afirman la radical inoperancia de la Declaración. Debemos hacer notar que las declaraciones ideales de principios, por muy lejanas que estén de la realidad, tienen cierto valor normativo que, sin ser definitivo, no puede tampoco ser despreciado del todo. Este «viejo» documento de la Declaración Universal de los Derechos del Hombre —veinte años son hoy lo que dos siglos en la época de las Termópilas— nos sirve, al menos, para percibir el enorme salto, la diferencia de potencial, entre el *ser* (efectivo) y el *deber ser* (pensado) de nuestra Humanidad. Y esta percepción aporta por sí misma a millones de hombres una fuerza, una energía histórica, que —con perdón de nuestros jóvenes materialistas— pudiéramos llamar *fuerza o energía moral*<sup>91</sup>.

Historia esperimental tragikoenaren azpian, beti ikus daitezke esperantza-ren seinale txinpartak, fede transzendental batek argitzen dituelako begiak pertsonarengan eta haren obran.

L'Église croit à l'homme et à la civilisation qui est l'émanation de l'homme, son oeuvre, sa créature [...]. Cette foi en l'homme, en la raison, en la sagesse humaine, en la civilisation, qu'on ne doit pas considérer comme quelque chose d'accésoire ou de non essentiel dans la doctrine de l'Église<sup>92</sup>.

Hain zuzen, pertsonarenganako fede horren galera da, agian, —konfiantzarik ez izatea pertsonaren ahalmenetan, ez jakitea zer exijitzen duen pertsonak— okerrena humanismoaren tragedian, Jainkoarengan fedea galtzea baino gehiago, Santamariak behin formulazio nahiko harrigarri batekin erakusten digunez: «Nier l'homme, est, peut-être, une hérésie plus grave que nier Dieu car en niant l'homme on le prive entièrement de toute possibilité imaginable d'aller vers Dieu»<sup>93</sup>.

Santamariak maiz konparatu du egungo krisia Erromaren erorikoaz. «Egungoak» ez du esan nahi krisia egun batekoa denik<sup>94</sup>, eta erorikoaz ez da ulertu behar Erroman Alarikoren lapurreria eta sakoa hiru egun justu izan zirenik, ordezkatzeko-prozesu historikoa baizik, ordena erromatarra gainbehera hondatu eta haren lekuan emeki-emeki mundu berria mamituz joan delarik<sup>95</sup>. Erromatar Inperioko balio-sistema (jentila)ren aurka, mundu berrian

... los cristianos de la alta Edad Media, forzando quizás en un sentido unilateral el pensamiento de San Agustín, pusieron el acento sobre el pecado original y sus consecuencias destructoras en todos los órdenes. Desconfianza hacia la razón y hacia la posibilidad de un orden social conveniente y moral; necesidad de que lo sobrenatural supla en todos los terrenos, incluso los meramente temporales, la radical deficiencia



del orden natural: teocracia en el dominio político y fideísmo en el dominio intelectual. Hizo falta que viniese Santo Tomás [...] para que se restaurase la confianza en el ser y en un orden natural no enteramente destruido por el pecado<sup>96</sup>.

Gero, Errenazimentuko erreakzioa dator («humanismo antropozentrikoa») eta haren oraingo fiaskoa, erraz ulertuko baita pertsonarengan fedea zein adieratan errebindikatzeko den, Jainkoa baztertuz ez, baina pertsonarekin lotuz. Berrirori krisi orokor batean gaude, belaun eta belaunaldietan agindu izandako balio-sistema osoaren amaieran, Erromako erorikoan legez<sup>97</sup>.

Y eso es precisamente lo que hoy nos está haciendo también falta: confianza en el ser, en la esencial bondad del orden creado y en la Providencia de Dios. Si el hombre de hoy no cree en Dios, es porque empieza por no creer en sí mismo [...]. Saber a ciencia cierta, sin «cogitos» ni silogismos, *que se es*, que se es un yo sustantivo y no un puro accidente hecho de la madera de los sueños —como decía Unamuno citando a Shakespeare—, he aquí el primer artículo de la fe filosófica, sin la cual la fe política y la otra, la verdadera fe, la fe religiosa, no hallan donde asentarse<sup>98</sup>.

Pertsona da, beraz, historiako atea: eta fedea da giltza.

### ***Barne isileko lagun hori***

Harro eta heroiko zutitutako gizaki errenazimentuarra banatu eta deskonposatu egin da barrutik, hain zuzen, behiala zutarazi zuen arrazoimen hark berak analisi kritikoz eta ikerketaz marraskatuta. Jada ez da zeruari buruaren gainean eusten zion indibiduo burgoia, bere buruaren kreatora eta izadiko errege.

Ce qui n'empêche pas l'être humain de revendiquer plus que jamais la souveraineté. Mais non plus pour la personne individuelle, elle ne sait plus où se trouver, elle ne se voit plus que dissocié et décomposée [...]. Elle est mûre pour abdiquer au profit de l'homme collectif, de cette grande figure historique de l'humanité dont Hegel a fait la théologie<sup>99</sup>.

Hori da gizabanakoarekiko ezkortasun erradikala estaltzeko amaieraren ondoren, gorago aipatu den gizaki kolektiboarekiko baikortasun garaikidea, berdina da Estatuari ala langile klaseari buruz, ala arrazari eta nazioari buruz. Gizabanakoa saldoan urtuta —salbatuta— desagertu egin da, «el hombre con mayúscula, el HOMBRE universal» bakarrik geratu da:

... el existente particular —yo, tú, él— piérdese en el seno de ese gigantesco Hombre colectivo que es pura ficción abstractiva. Como un determinado grano de trigo en el confuso montón de los que pasan por la tolva de un molino. Sólo la multitud cuenta<sup>100</sup>.

Hori biziera sozialean gertatzen da horrela, zientzian gertatzen da horrela, eta filosofian.

Con el idealismo racionalista de Kant y, sobre todo, de Hegel, la Ciencia había venido apartándose más y más de la realidad existencial: al final todo quedaba reducido a ideas y el mundo a una idea tremenda<sup>101</sup>.

Giza zientzia garaikideekin (estatistika soziologikoa, etab.) hainbat areago eramana da muturrera joera hori<sup>102</sup>.

Mundua kontzeptutan eraldatuta, eta ez errealitatean, ikusten duenaren adibide gisa, Santamariak aurkeztu izan du noizbait Donostiako badia zoragariaren aurrean «es un tómbolo» esan eta horrelaxe teknikoki hartu besterik egiten eta sentitzen ez dakiena, «ni una sola palabra de admiración para este pequeño regalo de la Naturaleza»<sup>103</sup>.

«Hoy, sin embargo, lo mismo en Ciencia que en Filosofía, se reconoce también la importancia de un saber de lo individual»<sup>104</sup>. Medikuntzan «gaitzik ez dago, gaixoak baino» esaten da, etab.<sup>105</sup> Gizarte teknologiko saldokoiaren eta gizaki kolektibo, abstraktu, ertainaren aurka, batez ere, filosofiak erreakzionatu du, existenzialismoarekin.

Las últimas guerras, los azares de esta época calamitosa, la incertidumbre del porvenir, los acontecimientos que los pueblos han presenciado y los más terribles que aún presienten, impiden al hombre de hoy perder el tiempo en elucubraciones: cada hombre necesita afrontar con urgencia los problemas de «su» existencia. ¿Qué es, qué vale «mi» vida? ¿Qué último significado tiene esta existencia en la que me encuentro 'embarcado', 'arrojado' entre las cosas? El existencialismo —tanto si es ateo como Sartre o cristiano como Gabriel Marcel— vuelve, pues, su mirada hacia lo concreto. Dentro de sí mismo, en este ejemplar único y singularísimo que es cada hombre, indaga el misterio de lo personal e incommunicable [...]. Este retorno a lo concreto es, sin duda, una aportación positiva del existencialismo, un toque de atención que tendrá un eco importante en la evolución filosófica. Es, al mismo tiempo, una necesidad actual de nuestra cultura<sup>106</sup>.

Santamariak uste du erlijioarentzat ere eragin positiboa izan dezakeela existenzialismoak, doktrina abstraktuetatik bizipen egiazkora barnaraziz<sup>107</sup>.

Pertsonak bi mugimendu ditu, eta bien oreka behar du bere baitan orekan egoteko: bat «bestearenganakoa», eta bestea bere barnerantz daramana.

Mundua garaitu eta, estoiko subirano, neure baitan itxita, nire ni txikia begira-begiratzuz, mendetasun faltan tinkotuz, ataraxian gotortuz, neu bakarrik eta neu hutsa izan nahita, ezin izan naiz ni neu ere. Bestearen esperientziarekin hasten da autokontzientzia<sup>108</sup>. Neure ni izateko baldintza da bestearen aitorten eta onarpen

jatorra, hurkotasunez eta une berean distantziaz. Hots, ez nau neu subjektu legez ni egiten, ez desegiten, besteekin tratu handi ala txikiak izateak, ezpada besteak subjektu bezala ezagutzeak ala ez ezagutzeak<sup>109</sup>. Besteekin batera bakarrik, joko egokia jokatuz, irits ninteke nire nia ere egiazko ni bezala garatzera. «Sólo se existe genuinamente en la medida en que se reconoce el existir de los demás»<sup>110</sup>.

Alderantziz, besteekin komunitatean barrea eta gal naiteke eta, dena denetan, ez deus eta ez ni geratu, azkenean: «l’homme du divertissement vit comme expulsé de soi, confondu avec le tumulte extérieur»<sup>111</sup>. Egungo egunotan arrisku handia baita hori. Santamariak Shakespeareren pertsonaia aztoratua gogoratu du behin: «estoy desesperado: me busco a mí mismo y no me encuentro por ninguna parte!»<sup>112</sup>. Eta beste batean:

«Perdido en medio de los otros, apenas existo», dice Gaston Berger en una pequeña y preciosa *Fenomenología de la soledad*. En este «apenas existir», que es un existir no auténtico, tampoco los otros existen para mí con genuina existencia. Son como fantasmas, imágenes, obstáculos, formas o condiciones de mi yo<sup>113</sup>.

Badirudi berriz ere Joan Gurutzekoak seinalatuko digula bide jatorra. «La vie personnelle commence avec la capacité de rompre le contact avec le milieu, de se reprendre, de se ressaisir, en vue de se ramasser sur un centre, de s’unifier»<sup>114</sup>. Erlijiosoki bezala humanoki, bere ahalmenak barnean bilduz biltzen du nitasunak indarra, ez bazterretan sakabanatuz interesak, gogoetak, oroipenak, proiektuak, harremanak. «C’est sur cette expérience vitale que se fondent les valeurs de silence et de retraite», dio Mounierrek, mugonekoa uste baitu gaur egun hori partikularki goititzea<sup>115</sup>. Bere baitan biltzen dakienak bakarrik daki lagunekin biltzen, esango du Santamariak orobat: «Sólo quien es capaz de silencio, es capaz de diálogo. Sólo quien es capaz de soledad, es capaz de compañía»<sup>116</sup>.

Bere barnera bildu beharra dauka gizakiak, osoki norbera izateko. Ez, ordea, sartu eta bere baitan itxituratzeko bere burua. Bere nia gainditu beharra dauka. Jainkoa aurkitu beharra bere barnean: bera baino *beragoa* duelako hurra<sup>117</sup>. Bakardadea eta isiltasuna oso-osoak egin barnean, eta bere baitan bizitu beharra dauka Kristoren misterioa, zuzen ikusia delako Pascalen egia sakona: «Nous ne nous connaissons nous-mêmes que par Jésus-Christ»<sup>118</sup>.

Bere burua transzendituz lortzen du, bada, gizakiak bere osotasuna. Horregatik, Jainkoa hilez gero, hil egiten da gizatasuna<sup>119</sup>. Eta —orain hortxe baikaude—

... cuando muere Dios vuelven los ídolos. Y éstos son, casi siempre, esclavizantes, violentos y sanguinarios. Y todavía más, diría yo, los de la Sociedad Tecnológica. El hombre moderno está harto de ellos, aunque no se lo confiese siempre a sí mismo. Quiere volver a Dios o, por lo menos, al bosque, al encantamiento de la selva<sup>120</sup>.



EKINTZA



Ekintza ez da Plotinok esaten zuen «kontenplazioaren itzal soila»; pertsonaren alde funtsezkoenetako bat da. Santamariak ez du onartzen, ez teorian —grekoen antzera— eta ez berak eraman duen bizitzako jardueran, kontenplazioaren eta ekintzaren oposiziorik. Bere ideien alde, aktiboki ahalegindu da beti.

*Ekintza* deritzon liburuko bigarren atal honek ez du, halere, Santamariaren jarduera ugarien berri eman nahi, ekintza horri buruz eta horretan garatu duen haren gogoetarena baino, berriz ere, arlo nagusietan bederen. Antonomasiaz arazo praktikoak dira, interesatuko zaizkigunak, Aristotelesek *praxia* eta *poiesi* edo produzioa bereizi zitueneko esanahi zehatz hartan, gai etikoak edo politikoak beraz, hauen balio humanoenean eta sozialenean —hain zuzen, mundua «eraldatzeko pentsatuz»: kontzientziako askatasuna eta norberaren erantzukizun pertsonala, egiteko sozial handiei buruz (Estatua, gerra, esaterako), gizarte-bizitzan beharrezko tolerantzia, gizabidea, eskubideen begirunea, demokrazia, bakea, etab.

Bakea, partikularki, Santamariaren kezka guztien —erlijioso, politiko, hezkuntzakoen— azken jomuga bezala ageri da. Ilustrazioaren, edo Modernitatearen proiektuaren, porrota, inon baino tragikoago hementxe sumatzen delako, batetik; baina, bestetik, egun, armen teknologia moderno izugarriarekin, guztiz premiatsu bilakatu delako ere bai, zentzu pragmatiko hutsean, nazioartean bakea ziurtatzea, katastrofe nuklear batean gizadiak bere burua suntsituko ez badu. Bakea ziurtatzeko, alabaina, baitezpadakoa da guztiz oinarri —pertsonalista— berrien gainean eraikitzea nazioarteko harremanak zein egitura nazionalak, hots, egungo krisialdi mehatxagarria gaindituko duen «ordena berria».

Zer egin gizabanakotxo nanoak mundu zabal handian bakea funtsatzeko? Nola erauzi gizadian injustizia, gosea; zilegi ote da iraultza? Zelan burutu askatasunaren eta justiziaren borroka, indarkeriarik gabe, baina eraginkorki? Zer egin, demokraziaren tresna izan behar luketen Alderdiak demokraziaren

bahitzaile bilaka ez daitezten? Demokrazia ekonomikoa, Estatuaren zama, gure umeen eskola: arima sentiberen eguneroko kezka izan dira Euskal Herriko eta edonongo jendearen kezka, Santamariaren gogoetakoak. Gai batzuk frankismoaren testuinguruko planteamenduan eztabaidatzen direla eman lezake, apika (kontzientziako askatasuna, adibidez; edo Estatua eta Eliza); baina hausnarketaren erradikaltasunak zirkunstantzia murrizton gainetik altxatzen du Santamariaren pentsamendua, nonahi, argi eta probetxugarri.

Zuzenean, Euskal Herriarekiko Santamariaren gogoeta, batez ere ideiak oraindik franko nahasiak dauden hainbat arazotan —nazioaren kontzeptua, Estatua, autonomismoa eta federalismoa; edo, euskara eta euskaltasuna, etorkinak, etab. etab.—, txit lagungarria izan liteke, eta izan dadila espero dugu, denon artean argitasun pixka bat egiten joateko herri honen historian, geroari begira.

Santamaria ez da teorizatzeko basamortura joandako intelektual anakoreta, agertutakobereegiabakarrarekin; ez haren rola jendaurrearigoitik behera —egunkarietako filosofoaren pulpitutik orain— predikatu eta irakatsi nahi dion filosofo-errege platonikoa ere, filosofia zuzen bakarraren eta egiaren jabe goiargitu-ustekoa. Herriaren erromesaldian herriarekin doala, gogoetalarri bidelaguna izan da Santamaria. Pedagogoa eta adiskidea. Ibilian pentsatu du, ekintzaren erdian, mundu-munduan, itaunka eta erantzunez. Hain zuzen, ikerketa honetan galdu samartuta geratzen da, tamalez, eztabaidetako alderdi historikoen, mementokoen, kolore eta bizitasun hori. Ideiak eta ekintza, edo pentsamendua eta ekintza, ez bi, baina kapitulu bakarra da Santamariaren baitan, hemen, erraztasunagatik bakarrik, banatu egin ditugun arren parte bitan. Irakurleak uneoro batasuna bilatu beharko dizu, oster.



## Eliza

Pribilegio bakan bat da katolikoa izatea, bizi dugun kinka honetan. «Significa tener algo —algo muy sólido y firme— a que agarrarse. Y esto, cuando se está, como en el momento actual, en pleno naufragio, representa sin duda un valor enorme»<sup>1</sup>.

Krisiaren kontzientzia funtsezkoa da Santamariaren analisisian, non gauden eta zerekin kontaktzen dugun. Aro bat hondarrera doa, hau da, sozialki nagusi ziren usteek eta balioek krak egin dute, arrazoimenaren balioa ezbaian dago, zuzenbidea ez dakigu zerk zuzenesten duen indarrak ez bada, eta abar. Katolikoak, ordea, denboraren eta krisien gaineratik dagoen Jainkoarekin eta haren errebelazioarekin kontaktzen du, Noeren ontzia uholdean Elizarekin zen bezala, eta infernuko erasoek ontzi horri ez diotela masta apurtuko promes eginez... Horiek agian metaforak dira: katolikoak, orduan, fedearekin kontaktzen du, Jainkoaren eskuetan egoteko segurantziaekin, bai indibidualki eta bai fededunen komunitatean kide. Alegia, gizartea antolatzen zuen balio-sistema apurtzen ari bada, hark Eliz komunitatea dauka; arrazoia zapartatu bada, hark errebelazioa dauka; Mendebaleko zibilizazioa amiltzen ari bada, hark badaki Jainkoaren Hiria dela bere egiazko nazio betierekoa, eta ez dela eroriko. Hitz batean, katolikoak ez dauka zertan beldurtu eta ikaratu: bera ez da hondoratuko. Suntsitzera doan dena «besteena» da, «besteentzat» da garrantzitsua; berarentzat ustekabea eta erorkorra da, eta itxurazkoa da erorkorra erortzea.

Baina segurantzia guztiekin ere —fedean!—, kristaua denboran bizi da, eta bizitzaren legea da denboraren azpian ibili beharra.

### *Aldagarria eta aldagaitza Elizan*

Santamariak ateraldi umorezko bat erabiltzen du gai honi ekiten dionean: «El Señor prometió la estabilidad de la nave, pero nunca aseguró a sus pasajeros una navegación cómoda y apacible, sino acaso todo lo contrario»<sup>2</sup>. Eliza —errebelazioa, hortaz— egokitu egin behar zaie aldian aldiko eta lekuan lekuko baldintzei. Horrek esan gura du, aldi edo lekuotan kultura krisiak harrapatzen duenean, errebelazioak zailtasunak jasango dituela: eliz ontziaren bidaia ez da eroso-erosoa izango, historia moderno guztiak erakusten duenez. Baina, iraultza demokratikoak uhindura gaiztoa sortu bazion, adibidez, ez zuen hondoratu.

Quienes pensaban y auguraban que el hundimiento de los tronos seculares traería consigo el fin de la Iglesia, estaba, pues, muy equivocados. La Iglesia al defender el principio de autoridad y el origen divino de toda potestad, no tenía por qué consagrar determinadas realizaciones históricas, de las que pura y simplemente venía a desentenderse, como extrañas por completo a la esencia de su doctrina<sup>3</sup>.

Gobernu mota horiek bezain gutxi dira errebelazioaren parte beste erakunde edo egitamu sozial tradizional batzuk, hala nola, jabego kapitalista edo gizartearen klase-banaketa, nahiz batzuek pentsatu Eliza behartuta dagoela horiek defendatzera<sup>4</sup>, eta bestetziek, erakunde horiek laster pikutara joan daitezenean, haiekin joango dela Eliza<sup>5</sup>. Errebelazioari itsatsi zaizkion mila formazio eta eranskin kulturelek guretzat errebelazio dirudite askotan, kultura horretakoak garenean bederen, eta ez da horrela. Denborak, orduan, kultura guztiak probarririk pasatzen dituenak, horien bazterketa kobratuko du bere tenorean.

Es posible que los cristianos hayamos experimentado siempre la tentación de extender la promesa de eternidad, el *non praevalerunt*, a muchas cosas de orden temporal, enseres y objetos queridos, que poco a poco han ido amontonándose en las cámaras de la nao o adhiriéndose a su acastillaje. Cosas familiares y venerables, que acaso algunos pensaron que también formaban parte de la embarcación, pero que en realidad no son sino aditamentos inesenciales, que nada tienen que ver con la obra viva de la misma. Por otra parte, esta nave, vieja ya de dos mil años, ha surcado tantos y tan diversos mares, y se han sucedido sobre ella tantos pasajeros, que el número de estos objetos temporales y perecederos que han ido incorporándose a Ella y como cobijándose entre sus sagrados y recios maderos, es muy grande y, hasta cierto punto, abigarrado [...]. Pero de cuando en cuando hace falta vaciar las calas de tantas mercancías efímeras, rindiendo tributo al tiempo<sup>6</sup>.

«Lo mutable y lo inmutable en la vida de la Iglesia» Donostiako Solas Katolikoetako gaia izanik (A. Dondeyne, T. Urdanoz, J. Zaragueta, J. I. Telletxea, eta abar izan dira partaide), Santamariak azterketa oso xehe batekin egin dio hitzaurrea horien argitalpenari<sup>7</sup>, arlo horretako Aita Santuen irakaspenen bilduma arduratsu batekin. Nekeza bezain alferrikakoa genuke orain laburbilduma trinko hori bera laburbiltzen saiatzea: puntuz puntu hor azaltzen dira, Aita Santuen entzikliken eta diskurtsoen arabera, zer bai eta zer ez den aldakor eliza-bizitzako hainbat kapitulutan, dogman, sakramentuetan, moraltasunean, apologetikan, liturgian, aszetikan eta apostoluzan. Guretzat aski izan daiteke, hemen, Santamariak berak nabarmentzea merezi zuela iritzi dion printzipio orokorrek:kin:

Il semble donc qu'il peut et qu'il doit y avoir dans l'Église une constante adaptation au siècle et aux circonstances et une mutation historique visible qu'on ne saurait considérer comme une manifestation d'opportunisme, mais comme une exigence de la propre

nature de l'Église et de sa loi vitale, c'est-à-dire de sa façon particulière d'être (stare) et de se mouvoir dans le temps<sup>8</sup>.

Hori aitortza bat besterik ez da, apika, eta alabaina ez da problemarik gabekoa. Agian, ez du zentzu handirik, halere, —irakurketa honen asmoetarako— Elizaren aldagarritasunaz eta aldagaiztasunaz orokorki jarduteak, hori bera aldakorra izan baitaiteke testuingurua sozialki zein intelektualki aldatu ahala. Halaxe dakuskigu ikusi ere, eskrupulu handirik gabe aldi batzuk *grosso modo* zedarritzeko, 1950eko urteetan Santamariak aldakuntzen zilegitasuna eta beharra fededunen ikusbideetan azpimarratzen duela batez ere (fedearen mundua berritu beharra bere barruan); 1960koetan, interesgarri irizten dio fededunek beren ikusbideak fedegabeekin kontrastatzeari (fedea bere kontrakoarekin solasean); geroagoko urteetan, etorkizunean bere fedearen «gau iluneko» aro batekin aurrez aurre jarri beharra iradokiko da.

Alde, aurka, literatura, zinea, filosofia, erlijio-kontuez datoz beteta denak; Jainkoaren inexistentzia ikusarazten da, serio-serio, lehenago existentzia bezalaxe, gerraondoko gizartean kezka erlijioso nonahi pilpilka dago (ateista izateko ere bai baitago modu erlijioso bat, norbaitek ohartarazi zuen gisan): existentzialismoa dabil modan, Unamunok oraindik milaka eta milaka irakurleren bihotzak pizten ditu gure artean; oker handirik gabe mintzo da Daniel-Rops, orduan, Jainkoaz obsesionatutako ateismoaz<sup>9</sup>. Hori errealitate bat da. Giroa horixe izan da. Santamariak berak balio digu lekuko,

... me impresionó —aitortzen zuenean—, cuando leí esta frase de Jean Rostand: Los que creen en Dios, ¿piensan acaso en Él tan apasionadamente como nosotros —los que no creemos en Él— pensamos en su ausencia?<sup>10</sup>.

Fedea —ateista hura ere— bizi asko zebilen orduan. Orduan, bazirudien fede kristauaren eginkizunak izan behar zuela bila zebilen fede galduko mundu zabal horri egokitzea. «Aggiornatzea». Bestetik ere ezaguna baitzen, XIX. mendean barrena, hainbat zirkunstantziagatik, Eliza mundu modernoarekin zapuztuta geratu zela, eta konpondu beharra zeukala berriro harekin, ulergarria izango bazen mundu horretako hiritar normalentzat. Mezu kristaua eta eliz irakaskuntza eguneratzea, praktikoki eta teorikoki, korapilatsua zen. Dena dela, badirodi Elizako doktrina sozialean berriztatzeak arrisku gutxiago dakarrela, bere egitez, «muin aldaezin» sakratuarekiko. Baina dogma kristaua beti filosofia jakin batzuen molde eta terminoetan bat egin da: ba ote dago «filosofia katoliko» bat? Edo, gutxienez, ez ote daude dogma katolikoa adierazi ezina litzaikeen filosofia batzuk, eta horietakoak lirateke asiar filosofia guztiak, esaterako? Zenbateraino

egin beharko ditu bere, katolikoa izan nahi duen asiar batek, katolizismoak historian zehar beraren dogma adierazteko bere egin dituen filosofiak ere?...

Al parecer asistimos en este siglo, y especialmente bajo el gran pontificado de nuestro Papa Pío XII, a una gran 'muda' en la actitud práctica y, quizás, en el pensamiento de los católicos, un cambio de 'corteza', es decir, de formas accesorias y exteriores, que viene exigido por las necesidades de los tiempos, y que en nada —repetimos— altera la circulación interior de la savia divina en el ánimo de este tronco sagrado. Ahora bien, lo que hemos dicho hasta ahora se refiere más bien a la concepción social de la Iglesia, la cual es, en gran parte, cuestión de aplicación, cosa accesoria y movediza; y bien se entiende que todo ello en nada altera, ni puede alterar, la perennidad de la Doctrina. Pero a medida que este movimiento renovador penetra, alcanzando zonas más hondas y estratos infradérmicos y vitales del árbol, va haciéndose más difícil y peligroso y también más importante. Así ocurre con esa empresa titánica, bautizada, casi antes de nacer, con el nombre, que no sin razón asusta, de Nueva Teología. Una operación en el cerebro debe ser, en general, mucho más delicada que otra en un brazo o en una pierna. Si hoy se pone en tela de juicio el valor mismo de la llamada filosofía perenne, que ha sido durante siglos el órgano o el instrumento fundamental de que se han valido los teólogos católicos para profundizar el Dogma y expresarlo en lenguaje humano, se comprenderá muy bien que las cuestiones que este hecho plantea a la Teología son en extremo delicadas<sup>11</sup>.

Elizako doktrina-berriztatzeak egin du bere bidea (Kontzilioa, eta abar etorri dira). 1966an, bi liburu batera eskuratu zituen behin Santamariak eta —«un hecho casual»— biak ziren Intelektual Katoliko frantsesen Asteetako argitalpenak, baina bat hamar urte lehenagokoaren gaztelaniazko itzulpena, Jainkoa eta mundu modernoaren gaiaz, eta bestea gai berarekin osterera Parisen egin berriarena.

Una década ha bastado para que un mismo tema fundamental —el tema de Dios— tratado dentro de un mismo ámbito —la Semana de los Intelectuales Católicos de París— sea presentado de modo completamente distinto. Tal cambio corresponde a la rápida transformación que el pensamiento y la actitud religiosa están experimentando actualmente<sup>12</sup>.

Gaiak duen trataeraren erkatze lasterra<sup>13</sup> kontsidero modu hauekin hersten du:

Porque, en definitiva, ha sonado la hora de que la creencia se libere de sus condicionamientos sociológicos, que si en cierto modo la favorecían, bajo otros aspectos la oprimían hasta ahogarla. Es preciso que la fe en Dios madure y se haga cada vez más sólida, más consciente y más lúcida. Desde ahora en adelante no nos servirá de nada el parapetarnos en posiciones filistéicas de aparente seguridad. Será preciso que, creyentes o incrédulos, nos miremos todos cara a cara<sup>14</sup>.

1950eko urteetan antikerikalismoak errealitate bat dirudi<sup>15</sup>, antisia erlijioso arruntak bezalaxe eta horrekin batera; 1980koetan, aldiz,

... se da un hecho realmente nuevo y es que en la mayor parte del mundo el anticlericalismo clásico, sectario y maticuras, ha desaparecido casi por completo y ha sido reemplazado por una actitud de comprensión y hasta de benevolencia hacia el mundo religioso.

Baina ez da hori gertatzen Elizara edo federa hurbilpen handiagoa dagoelako, «sino porque se ha llegado a un estado de indiferencia religiosa que deja a la religión fuera del campo de cuestiones vitales»<sup>16</sup>. Erljioaz eta sinestunez interes edo ikusmin handia sentitzen du jendeak, jakin-min edo nostalgia bezalako bat, estetikoa, historikoa («quizás porque los consideran como extraños supervivientes de unas edades desaparecidas»); baina fedearen kezka, borroka, mina, erantzun salbagarri bat eskatzen zuten barru-barrutiko galderak, hori dena itzali egin da saldo-gizarte teknologikoan. Minik ez dago, eta ezin egon federik.

Es muy posible que la actitud religiosa tenga que pasar por una nueva *noche oscura* y sufrir una transformación, una nueva maduración, al haberse hundido casi todos los supuestos sociológicos y culturales que parecían sostenerla en el pasado<sup>17</sup>.

Gauzak ez nahasteko: gizarte modernoa soziologikoki «deskristautu» egin dela esateak ez du esan nahi lehenago gizarte (nazio) horiek zinez kristauak izan direla eta, historiaren ikuspegi kristau batetik, atzeraka edo gainbehera goazenik. Santamariak Jacques Leclercq adiskidea gogoratzen du, zeinak

... solía decir que el mundo nunca ha sido cristiano y que la civilización de hoy, con todas sus lacras y sombras, es quizás la que más se ha aproximado a las aspiraciones evangélicas. Y yo quiero creerlo así por paradójica que parezca esta afirmación<sup>18</sup>.

Ez pertsonengan eta gutxiago herriengan, ez dago berdintzerik nork bere burua kristau aitortzea eta kristau izatea.

Es cierto que en aquellas sociedades todos los ciudadanos estaban bautizados; las parejas se casaban por la Iglesia; ideas como la del divorcio y otras análogas repugnaban a la conciencia social; los templos se llenaban de gentes de todas las edades y clases sociales; la influencia de los obispos y de los curas era grande y los poderes públicos se presentaban como cristianos e incluso, en algunos casos como el del rey de Francia, como cristianísimos. Pero es también indudable que esas mismas sociedades estaban corroídas interiormente por grandes males morales como la injusticia social, la ignorancia, las supersticiones, los abusos de poder, los privilegios, etc., que hacían de ellas realidades diametralmente opuestas a lo que hoy pudiéramos considerar como un vivir social de inspiración evangélica. Creo que debemos convenir en que, ni la Roma de Constantino, ni el Sacro Romano Imperio germánico, ni la Francia de San Luis, ni la España de Carlos quinto, ni la Santa Rusia de los zares, ni el llamado «Estado católico» de la época del general Franco respondieron en realidad a la denominación de cristianas que muchas veces se ha querido aplicar a tales situaciones<sup>19</sup>.

Ulertzeko problemarik ez da egongo, hortaz, esaten badugu, egundaino kristautau izan ez den gizarte «deskristautu» eta hodeitu horretan, planteatu zaiola Santamaria fededun, laiko, Espainiako estatuko hiritar euskaldunari arazoa, Gerra Zibilaren ondoan, zein den Elizan bere lekua, zer eginkizun eta zein laguntza dauzkan. Lehenengoa eta nagusia, Aita Santuaren gidaritzak izan da aurkitu duen laguntza. Bizitu dituen aldiek berek ezarri dizkiote lan-arloak, hurrenez hurren.

### ***Pio XII.a Aita Santua***

Pio XII.aren aitasantutza, bai egokitu den mementoagatik (Gerra Zibilaren bukaera Espainiako estatuan, II. Mundu Gerra, Gerra Hotza, deskolonizazio prozesua)<sup>20</sup>, bai haren aginte eta irakaskuntza autoritario trinkoaren luzeragatik (1939-1958), garrantzizkoa izan da Santamariaren ibilbidean; baina, hemen, esanahi orokorragatik nabarmentzen dugu batez ere, hots, Aita Santuaren irakaskuntzak eta gidaritzak Santamariarentzat printzipio gotor bezala adierazi duenagatik, kristau-bizitzarako, mundu modernoan. Izan ere, katolikoa izatea pribilegioa bada, orientaziorik gabeko mundu batean hark orientazio «segurua eta gerthua» duelako, Aita Santuaren buruzagitzagatik ulertu behar da hori, guztiz gain. Aita Santuen irakaskuntzari eta doktrina sozial kristaua deritzonari atxiki zaie, beti, Santamaria bere gogarte erlijiosoetan ala sozialetan.

Pio XII.ak krisiaren kontzientzia ia dramatikoak erakutsi du bere mezu ugarietan.

¿Por qué esa insistencia? El Papa quiere, sin duda, que adquiramos plena conciencia de la situación histórica. Viviendo, como vivimos, sumergidos en ella, nos resulta difícil darnos cuenta del enorme peligro que está corriendo nuestra civilización, no sólo por la ofensiva de poderosos enemigos exteriores, sino, sobre todo, por la falta de fe y de verdadera vida interior<sup>21</sup>.

Haren heriotzak bihotza hunkitu dio Santamariari («Grave es la hora del mundo en la muerte de Pío XII») eta haren lan eskerga «en un mundo en el que todos los valores morales y espirituales aparecen amenazados o se encuentran en plena crisis» eskertu eta goraiatu du<sup>22</sup>.

Baina Aita Santu honen edo haren (eta begikotasun edo hobespen pertsonalen) gainetik, oinarria dago. Printzipioa. Fedea, alegia. Zeren eta, exegetikoki Kepha edo Done Petriren lehenasuna apostoluen artean Jesusen mandatuz, eta historiko eta arkeologikoki haren martirioa eta hilobia (*tropaion*) Vatikanon aski ongi erakutsi badaitezke ere, egiazko zimendua eta «proba» fedean baino ez baitago Aita Santuaren maisugo aitortzarako<sup>23</sup>, eta aitzindaritzak eta argizaritzak haren eskuetan emateko:

El creyente [...] es un hombre que sabe que tiene puesto lo absoluto de su vida en buenas manos y que sabe también que al creer procede singularmente de acuerdo con la voluntad del Padre de todas las cosas<sup>24</sup>.

### **Ekumenismoa**

Mugimendu ekumenikoa Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren bakarrik hasi da indar pixka bat hartzen katolizismoan (1964ko azarokoa da Ekumenismo dekretua)<sup>25</sup>. Santamaria, horretan ere, mugimendu ekumenikoan, *sensu stricto*, eraginkor jardun den arren<sup>26</sup>, hemen espiritu ekumenikoaz arituko gara soilki, adiera zabal batean.

Ez dago espiritu katolikoaren gauza kontrakoagorik itxikeria eta sektarismoa baino, eta, halere, erraz eta erruz agertzen da katoliko fededun arruntengan zein buruzagiengan<sup>27</sup>. Eliza egiaren altxor unibertsal agortezinaren, egia «katolikoaren», jabe da; baina hala delako, hain zuzen, ezin izan daiteke alderdikoia. Katoliko askok, ordea, pagano balira bezala jokutzen dute, hau da,

... como si la religión fuese el bien particular de una casta o de un pueblo, dando a estas palabras no la significación mística que la Iglesia les atribuye, sino un sentido terrenal y casi guerrero o nacionalista<sup>28</sup>.

Bestela pentsatzen edo sinesten dutenei buruz jarrera asko gainditzeko, eta aurreiritzi sinplista asko zuzentzeko, teorikoki eta praktikoki sakondu beharko litzateke katolikoek hezkuntza espiritu katolikoan.

Maiz, katolikoek, buruengandik hasita, borondate ona ukatzen diete beste kredoetakoei.

El tono de nuestros dirigentes adquiere también a veces resonancias desagradables de cruzada [termino horrek, buruzagiei dagokiola, ezin zuen gotzainengan pentsarazi memento hartan], de guerra santa contra el infiel, lo cual es lamentable porque nada de eso favorece el espíritu de catolicidad. Sería tal vez mejor que nos ayudasen a buscar los motivos de amar que los motivos de odiar<sup>29</sup>.

Errespetua galdu gabe, agian, ez da testu bigun-biguna.

Beharbada, historikoki esplikagarria bada ere, «porque desde la Reforma, la Iglesia se ha visto obligada a replegarse ante un mundo hostil»<sup>30</sup>, ez da inola onesgarria. Katolikoak irekiagoa izan behar du besteekiko, positiboa bilatu behar du:

La actitud genuinamente católica, ¿no consiste en ver en todo la mano del Creador, es decir, en percibir primordialmente en todas las cosas el elemento positivo, lo que cada cosa posee de Ser, de Bien y de Verdad?<sup>31</sup>.

Gainera, itxikeriak, espiritu hori antikatolikoa izateaz beste, humanoki eta kulturalki ondorio txirogarriak dakartza. Aldez, itxikeriaren forma bat hori baita, gure interesen barrutia murrizten dugunean:

... tendemos a buscar con preferencia casi determinante las obras de escritores y literatos, artistas, filósofos, historiadores y hasta científicos católicos. Esto nos da una cierta seguridad y nos mantiene en un ámbito familiar de ideas, sentimientos y reacciones ante la vida y ante el mundo, pero al propio tiempo puede llegar a incapacitarnos para comprender a los demás hombres y sobre todo para llevar a término las exigencias de nuestra catolicidad. Estrictamente hablando parece muy dudoso, por ejemplo —ausartzen da hemen kasua zehaztera— que exista una sola manera legítima de filosofar, es decir, de aprehender la realidad ontológica y de dar cuenta de ella [...]. Quiero con todo esto decir que lo que algunos han llamado *filosofía católica*, con ser un patrimonio de valor eminente, que ha servido y sirve útilmente a la Iglesia —recuérdese la definición y defensa de la Filosofía Tomista por León XIII— no es, propiamente hablando, algo estrictamente *católico*. Católica es la Iglesia, mas esta catolicidad no le viene ni podía venirle de los hombres<sup>32</sup>.

Aldez, oraindik, gure mundua eta buruak eskasteko eta flakatzeko modu bat da aldi edo tarte historiko mugatu batekin itxiki identifikatzea ere: zeinentzat biltzen eta bukatzen da ongi oro munduan XIV. mendean; zeinek du sobran iragana, XX. mendeko gizona izan nahi duela eta. Eliza —eta giza espiritua— memento batekoa bezainbat da bestekoa, atzokoa da eta gaur eta biharkoa.

El católico, sin dejar de ser el hombre de hoy, sabe dar entrada en su propia vida a múltiples elementos del pretérito, los cuales perviven y perduran en él. Sabe sentirse hijo de sus padres, percibe en su propia vivencia, el latido de las generaciones anteriores, experimenta hacia ellas esa piedad, profundamente religiosa, que es la verdadera raíz del civismo. Pero al mismo tiempo su mente está abierta al porvenir...<sup>33</sup>.

### ***Laikoen misioa Elizan***

Jainkoaren herrian herriak zer dagien ez dago garbi: Santamariak erreplikatu duen eran, laikoen kontzeptua bera<sup>34</sup> negatibo hutsa da bere definizio juridiko (kanoniko)an, eta esanahi positibo (teologiko)an garatzeko dago oraindik<sup>35</sup>. Fededun soil edo laikoa baztertuta edo pasibotasunera kondenatuta egon da, aspaldian, eliz bizitzan. Santamariak E. Le Roy filosofoaren harako zirtoa aipatzen du: «los simples fieles no tienen otro papel que el de los carneros de la Candelaria: se les bendice y se les esquila»<sup>36</sup>.

Alabaina, Lehen Mundu Gerraren ondoren hasi eta Bigarrenaren ondoren jarraitu, laikoen mugimendu bat sortu zen, edo nahi izan zen sortu, Eliza katolikoan. Santamaria praktikoki eta teorikoki lehiatu da zeregin horretan



ere. Teorikoki, lehen arazoa da argitzea zein den laikoaren lekua Elizan, edo laikoaren teologia.

Se trata, en último extremo, de saber, en qué medida y de qué manera la triple dignidad de Cristo, su triple carácter de Doctor, Rey y Sacerdote, debe realizarse en cada uno de nosotros, simples fieles, que no hemos recibido orden, ni poder eclesiástico alguno. Cuál es nuestra parte, la parte de los seglares, en la misión de la Iglesia...<sup>37</sup>.

Izan ere, hori gabe, laikoek onak dirudite Elizan morroi lanak egiteko, soluzio praktikoak ekartzeko, baina ezin dute beren egiteko espezifiko baten lekua autonomoki hartu.

Esta indefinición tiene muchos inconvenientes, hoy sobre todo que los seglares van adquiriendo conciencia de su pertenencia vital a la Iglesia y se muestran deseosos de participar activamente en su desarrollo y expansión. Tal falta de especificación dificulta la configuración de una espiritualidad y de una vocación seglares<sup>38</sup>.

Laiketza ez dago ulertzerik apaizaren kontzeptuarekiko oposizioan, hain zuzen, kristautasunean: kristau-herri guztia apaiza da.

Teologikoki, hori. Zeren-eta, kultural eta sozialki, apaizaren eta laikoaren oposizioa sekula baino erradikalduago baitago, baina alderantzikatua. Erlijio guztietan gertatu da apaizaren eta fededun soilaren diferentzia.

Ninguna religión había pretendido, hasta que vino el cristianismo, imprimir a todos sus adeptos un carácter sagrado y sacerdotal, darles a todos una igual y plena participación en los bienes espirituales de la comunidad, derechos iguales e iguales privilegios en lo que concierne a la vida de la fe [...]. Todos los cristianos son sacerdotes de Cristo<sup>39</sup>.

Hain zuzen, horrexek eraman zuen kristau asko Elizari erakunde ikusgarri, hierarkizatu bateko natura ukatzera, eta, hortaz, ministerio apaiztarra ere arbuiatzera (dogma, Aita Santu eta gainerako guztiekin), fedea nork bere kontzientzian ikusteko utziz. Horrek prestatu zituen, dio Santamariak, Jainkorik gabeko gizarte modernoak, fenomeno erlijioso gertakari publiko bezala aintzat hartzen ez dutenak ezertarako<sup>40</sup>, hori berritasun arras berria baita gizadiaren historian.

Hasta ahora no se había conocido, en efecto, ninguna civilización en la que no se reservara un puesto importante al sacerdocio dentro de la organización social. No había habido culturas ateas ni se había intentado nunca eliminar por completo la idea de Dios de la actividad ciudadana. Ninguna legislación había pretendido considerar al sacerdote como a un ciudadano cualquiera, ni someter las cosas sagradas a los preceptos de derecho común concernientes a las cosas profanas<sup>41</sup>.

Santamariak uste du gauza onik ezin duela ekarri horrek luzarora<sup>42</sup>. Dena dela, gizarte horretan behar du Elizak bere betekizuna bete, betekizun horretan laikoak bere egitekoari heldu.

Elizaren eginkizuna ez da mundu hori kristautzea bakarrik,

... sino también la de dignificar y vivificar sobrenaturalmente la vida humana, y esto según el orden y la jerarquía de las cosas humanas y divinas. El Papa Pío XII ha insistido mucho sobre la idea de que la Iglesia tiene una misión temporal y de que no puede permanecer encerrada en los templos [...]. Pero no será desconociendo la realidad de los valores profanos y la acción de las causas segundas, como se llegará a hacer vivir los valores divinos y la acción de la causa primera en la Historia. He aquí donde se inserta lógicamente la acción apostólica de los seglares, como algo verdaderamente esencial a la misión de la Iglesia<sup>43</sup>.

Oraindik bilatzen den teologia baten antza hartzen zaio, halere, horri guztiari. Santamariak saiakera handiz bildu eta ikasi ditu berriro Aita Santuen testuak, Pio XII.arenak bereziki<sup>44</sup>, laikotzaren kontzeptua eta teologia bilbatzeko. Bigarren iturri garrantzitsua izan ditu laikotzaz urte horietantxe argitaratzen ari ziren azterketa teologikoak (Y. Congar, K. Rahner, etab.)<sup>45</sup>. Baina laikotzaren teologiak, azkenean, ia teologia txiki ugaritako espektroa dirudi, sintesi bihurrikoa: ezkontza kristauaren teologiaren ondoan, errealitate lurtarren teologia landu behar da, sekularren espiritualitatea, prentsaren eta iritzi publikoaren balioa Elizan, eta abar, eta abar<sup>46</sup>. Puntu batzuk, halere, minberagoak dira besteak baino, daukaten historiagatik<sup>47</sup>, praxian dauzkaten inplikazioengatik eta kulturalki bizi dugun mementoagatik.

Uno de los puntos más delicados de nuestro programa consiste en coordinar la libertad de acción del apóstol seglar con la obediencia y la sumisión que el mismo debe a la Iglesia jerárquica<sup>48</sup>.

Aipatua daukagu totalitarismoen aurka egunotan (1950 inguruan) hedaturiko askatasun-espíritu kilikorra. Laikoeke apaizekin dituzten harremanetan ere antzematen omen zaio. Baina, orain, Santamariaren esplikazioa ez da, totalitarismo irenkorren aurka, bakoitzaren txiki propioaren defentsako erreakzioarena bakarrik<sup>49</sup>.

La explicación hay que buscarla sobre todo en la elevación material y cultural de los pueblos que la técnica moderna ha hecho posible. Donde quiera se mejora el nivel de vida [...] se observa inmediatamente una «crisis de libertad», al irrumpir en la vida social multitud de nuevos elementos, de posibilidades y horizontes vitales nuevos que hasta entonces no existían. Claro está que estas crisis, que a veces son tan fuertes que llegan a romper las estructuras sociales, tiene también que afrontarlas la Iglesia. La liberación económica va seguida de un proceso intelectual y espiritual complicado

que se refleja necesariamente en el plano de la vida religiosa, dando lugar a grandes desviaciones pero también a grandes esperanzas [...]. El laico de hoy, en general más desenvuelto, más consciente de su propia capacidad de acción, menos dispuesto a aceptar la cristalización de ciertos males sociales, más libre y personal en sus decisiones y en la organización de su vida, ¿no chocará, en la Iglesia, con una concepción demasiado rígida de la obediencia y de la autoridad y con la exigencia de unas maneras eclesíásticas, más sumisas y reverenciales que las suyas?<sup>50</sup>.

Beharbada, daukaguna ez dagoelako zertan irabazten ibili, eta ez daukaguna konkistatu beharrak ematen dituelako lanak, Santamariak, laikoen askatasuna errebindikatzeari utzi gabe, obedientziaren garrantziari eusten dio gora, San Inazioaren pasarte klasikoez armatuta («ánimo aparejado y prompto para obedecer en todo»). Uste du, gainera (objekzioa erraza baita: ez al dute gauza bera egiten totalitaristek, komunistek adibidez, Alderdiari obedientzia itsua exijitzean?), obedientzia horren barnean izaten dela askatasunik osoena eta garbiena:

Los católicos obedecemos pues ciegamente a la Iglesia jerárquica, pero lo hacemos así porque sabemos que está regida por «el mismo Espíritu y Señor nuestro que dió los diez Mandamientos». Este género de obediencia no sólo no empuja ni esclaviza la voluntad humana, sino que la engrandece y aumenta su libertad.

Se da así el hecho paradójico de que el católico exalta a un mismo tiempo como valores fundamentales de su pertenencia a la Iglesia la obediencia y la libertad, sin que vea entre ellos ninguna oposición, sino un acuerdo constante y perfecto.

En la medida en que tengamos una idea cabal de la divinidad de la Iglesia nos daremos cuenta de que nuestra obediencia ensancha nuestra libertad. En la medida en que tengamos una visión falsa, meramente humana, de esa misma Iglesia, nos sentiremos esclavizados y limitados por Ella, y la obediencia se nos hará más escandalosa e insufrible.

No hay que extrañarse, por tanto, de que los católicos hagan compatible con su sentido de la obediencia un sentido muy agudo de su libertad, y que este sentimiento de la libertad sea más acusado en los que se hallan más unidos a la Iglesia, por el lazo de una sumisión espiritual más honda y auténtica, como ha ocurrido muchas veces con los santos.

Cuando tal sentimiento llega a perderse, cuando se concibe la vida eclesial como el ejercicio de una sola virtud, la obediencia, a la que lógicamente se atribuye una significación pasiva e inerte, puede decirse que la verdadera concepción católica se ha evaporado, y que la tensión característica del cristianismo no está ya ahí. Humanizando nuestra obediencia matamos la libertad. Divinizando la obediencia, exaltamos, en cambio, la libertad, hasta el máximo<sup>51</sup>.

Laikoak ez du mojea izan behar halere. Bere nortasuna du, bere bokazio espezifikoa, bere espiritualitate sekularra. Haren lanak eliztarra izan behar du, haatik ez derrigor Elizakoa<sup>52</sup>.

Porque el laico, para ser fiel a su destino, ha de conservar a toda costa su carácter ‘mundano’, no debe intentar ‘clericalizarse’ o ‘eclesiastizarse’. Su vocación es distinta que la del sacerdote o el religioso, su espiritualidad presenta unas exigencias diferentes que las de éstos<sup>53</sup>.

Hori, bestelakoak: ez apalagoak, edo santutasun txikiagokoak. Ukoaren agindu ebanjelikoak estatu eta kondizio guztietako guztientzat berdin balio du. Eta esanahi berdina du, alegia, Jainkoak hutsak nahi gaitu denok:

Dios nos quiere vacíos y desnudos de nosotros mismos para llenarnos de sí [...]. El cristiano, tanto si es seglar como si es religioso, debe entender cuán libre y vacío le quiere Dios de todas las cosas. Vaciar el alma, desnudarla y purificarla de todo apetito, he aquí el quehacer ascético por excelencia del cristiano: del lego, del sacerdote, del monje, del seglar<sup>54</sup>.

### ***Politika eta Eliza***

Santamariaren obran, Eliza eta politika auzi polemikoak prozesu bat dauka, 1975ean gotzain frantsesen adierazpen batek gauzak azkenean bere lekuan utzi zituen arte. Indar guztia iluntasunean daukan ideia asko bezala izan da hori, soluzio zailekoa, ez baitzen ikusten zer konpondu behar zen. Ulertu behar da ia politika moderno guztia oso-osorik kondenatzen ibili den Eliza batek —eta hori ez zela politika egitea adierazten zuenak— orain sarrera bilatzen zuela nolabait mundu horretan, baina «politika ez egiten» jarraituz.

Santamariak, berriro, Aita Santuen esaldi pila zuen eskura, Elizak ez duela politika egiten jakiteko, eta arretaz ikertu ditu denak; baina errealitatean oso gutxi konpontzen zion horrek arazoa, zer den egiten duena eta zer egin behar duena. Donostiako Solas Katoliko baten gaia izan da kontua (1955) eta Santamariak interesik handienarekin azpimarratu du, Eliza ez dela neutrala eta indiferentea ere politikarekiko.

*De facto*, Elizak politika egiten duela ikusi uste du nonbait jende askok, politikoek berek aurrenik, batzuek hark kalteturik sentituak eta besteak hura baliatu guran, eta agian jende horrek guztiak ez du ikusten ez dagoen zerbait.

Las acusaciones contra la Iglesia son diversas, y aún opuestas: a veces se la considera como una fuerza conservadora al servicio de regímenes o de situaciones instauradas, y otras, al contrario, como un fermento revolucionario que mina por su base el poder establecido. Como consecuencia de todo esto vemos que la Iglesia juega, bajo ciertos aspectos, e incluso en contra de sus propios deseos, el papel de una fuerza política<sup>55</sup>.

Santamariak aitortzen du arazoa txit konplexua dela, eta azterketa historiko baten beharra<sup>56</sup>. «La historia de un ser social corresponde a su realidad existencial y no siempre a su naturaleza esencial», erantsi du badaezpada, teologo zorrotze-giren bati ihes egiteko, apika.

En nuestra época histórica, es decir, a partir de la revolución francesa, se ha visto a la Iglesia debatirse ante las situaciones más diversas y difíciles: la política concordataria de la Iglesia desde la época de Napoleón, la progresiva liberación de la fidelidad a los viejos regímenes; los planteamientos diversos frente a gobiernos democráticos de Europa y de Estados nacientes en otros continentes; la crisis del modernismo y del liberalismo católico; la pérdida del poder temporal; la lucha del Kulturkampf; los esfuerzos de la Iglesia por impulsar las legítimas aspiraciones del mundo moderno; la condenación del marxismo; la actitud de la Iglesia frente a los regímenes totalitarios de Hitler y Mussolini y hoy frente al comunismo, nos muestran la enorme complejidad del problema y el error en que incurrirían quienes quisieran darlo por resuelto con fórmulas simplistas y unilaterales<sup>57</sup>.

Arazoa konplexuago bihurtzen du, oraindik, laikoen kontuak: Elizak berak sustatzen ditu jarduera publikoan esku hartzera<sup>58</sup>.

Ciertos partidos proclaman su confesionalidad y sus fines religiosos para atraer los votos y el apoyo de los católicos: se declaran defensores de la Iglesia y hasta cierto punto lo son; pero al mismo tiempo defienden, naturalmente, ideologías concretas e intereses enteramente ajenos a la religión e incluso, a veces, extraños al bien común. Hay partidos confesionales que defienden la monarquía o la república, las ideas aristocráticas o las ideas democráticas, la conservación de las estructuras económicas y sociales o la transformación de estas mismas estructuras. Los hay también fuertemente influidos por una mentalidad nacionalista<sup>59</sup>.

Eta, eskuarki, Elizak ez ditu gaizki ikusten, dirudienez, kontrako aukera horien erantzukizuna berak ezin hartu ahal izanik ere.

Garai honetan, problema planteatzera soilik mugatzen da, gehienbat. Planteatzeak soilik esan nahi du erakustea «Elizak ez du politika egiten» tesiak —dogma batek bezala agintzen zuenak— ez duela balio, eta gutxienez hori problema bihurtzea. Baina badirudi Santamariak Elizaren konpromiso politiko positibo eta konkretuago bat ere bultzatu nahi zuela. Nola edo hala, errepikatzen du Eliza ez dela politikatik landa geratzen. «Incluso aunque la Iglesia no quisiera hacer política, sus actitudes y sus enseñanzas, sus órdenes y sus orientaciones tendrían siempre consecuencias políticas innegables»<sup>60</sup>. Beraz, edonola ere egin egiten bada (eta frankismoan are nabariago), ez ote zintzoagoa egiten dela onartzea eta eginbideari kontzientzia osoarekin buru egitea? Agian, hori eskatzen du mementoaren larritasunak ere<sup>61</sup>.

Ausarkiago bota du mezu hori publikora 1959an, Lyongo artzapezpiku Gerlier kardinalearen langileen kaleratzeari buruzko interbentzio baten inguruan. «Algunos se quejan de una excesiva presencia de la Iglesia en la vida pública. Yo, por mi parte, desearía que esta presencia fuese aún más activa y vibrante»<sup>62</sup>. Tenore honetan, munduan gertakari ekonomiko eta politiko guztiz kezka-garriak ari dira gertatzen, ez direnak inola ere zerikusirik gabekoak moralarekin, hots, justiziarekin eta ongi komun publikoarekin. Eliza ezin gera daiteke horien aurrean ezaxola, tartean ahulak eta pobreak daudenean batez ere, dauden bezala, defentsaren beharrak, eta neurritu beharra dagoen zapaltzaileak. Miseriaren eta injustiziaren aurrean, «la Iglesia de Francia es una Iglesia que habla»<sup>63</sup>. (Uler bedi: Espainiakoa isilik geratzen da). Santamariak borrokan jarraitzen du Eliza sozialki konprometitu, ez botereari lotu, baten alde.

Que todos los miserables de la tierra sepan que la Iglesia participa de un modo efectivo en su desgracia y que hace cuanto está a su alcance por liberarles de su carga, parece algo muy importante para el futuro del mundo<sup>64</sup>.

1974an liburu bat osoa eskaini dio gaiari Santamariak, beren-beregi, *La Iglesia hace política* titulu probokatzailiaz, oraingoan gaiari alde guztietatik zorrozki helduz<sup>65</sup>. Ez du merezi horko kapituluak xehero azaltzen hastea. Aipagarria iruditzen zait, aldiz, autoreak berak *El Ciervo*-n agertu bezala, zein izan omen zuen liburua idazteko bultzada edo karia,

... que no es el fruto de unas «minuciosas investigaciones», como suele decirse, sino una empresa circunstancial, realizada en poco más de seis semanas y debida en su principio a un episodio personal al que voy a hacer una discreta alusión. No hace mucho tuve, en efecto, la ocasión de presenciar un curioso y lamentable espectáculo. Vi y oí cómo se interrumpía violentamente un sermón —precisamente el sermón de un obispo y en su propia catedral— por un reducido grupo de cristianos vociferantes. El coro imprecatorio no terminó hasta que el prelado, bajando, con indiscutible majestad y cubierto por sus ornamentos episcopales, las gradas del altar, se enfrentó cara a cara con los alborotadores y logró disuadirles con unas palabras misteriosas que, naturalmente, no llegaron a mis oídos. En conjunto fue una escena auténticamente beckettiana y que a los demás fieles nos dejó pasablemente impresionados. Ahora bien, lo más importante para mí fue que, al día siguiente, en una velada noticia de prensa, se pretendía explicar, de alguna manera, lo ocurrido, afirmándose que la Iglesia y los predicadores se están entrometiendo hoy en cuestiones políticas y temporales que no son de su incumbencia. Todo ello me hizo pensar en la desorientación reinante acerca del tema político-ecclesial y me animó a escribir este pequeño libro<sup>66</sup>.

Nazio- edo klase-arazoaren eztabaida, politikoa baino lehen, filosofiko bihurtu zaigu horrela: pertsonaren, gizartearen, historiaren kontzeptuak, eta abar tartekatzen dira eta, azken finean, berriro pertsonaren kontzeptua (partida bikoitzez) jokoan jartzen duen ezagutzaren teoria. Marxismoa razionalismoaren, ezagutzaren eredu geometrikoaren ildoan dago eta, historiaren aurrerabidea ildo beretik doalakoan, haren esplikaziotik inausi egingo da «irrazional» oro. Errealitate historikoa, fisikoa edo mekanikoa bezain lege razionalek gidatua ikusi behar da. Irrazionala da historian edo giza existentzian beste misteriorik suposatzea, eta «los irracionales son reaccionarios», Santamariak marxismo osoarentzako balioz Lukácsen baitan kaustitzen duenez: «allí donde levanta cabeza el irracionalismo en filosofía está ya implícita la posibilidad de que surja una ideología fascista»<sup>38</sup>. Irrazionalismoak edo, agian zehazkiago, razionalismoak dira, labur esan, «corrientes de pensamiento y de acción en las que se pone el acento último y más importante sobre fuerzas o realidades humanas que no son la razón»<sup>39</sup>. Beraz, tragedia grekotik Freudenganaino, edo Zaratus-traganaino, Israelgo profetengandik hasita, jende askotxo, hertsiki ulertuz gero: Lukácsék Schellingez gerozko filosofia alemaniar garaikidea aztertu, edo hobe baztertu, du, halere halako irrazionalismo gisa.

Pero —Santamariak ez du balorazio hori partekatzen, ez baitu partekatzen oinarriago dagoen razionalismoaren autokoroatze gangar hori— la sin-razón de los a-racionalistas no es tan irrazonable como pueda parecer a primera vista [...]. Una gran parcela de la vida individual y social del hombre pertenece a su mundo emocional y no es racionalizable a la manera que quiere hacerlo el frío racionalismo, sea o no dialéctico. Emociones, sentimientos, pasiones, vivencias, intuiciones, creencias, inspiraciones, mitos y profetismos, constituyen la trama a-racional de la vida humana, y en grado tan importante que si descartásemos todo eso nos quedaríamos prácticamente *sin hombre*. Por otra parte ese mundo de realidades a-rationales no se reduce a lo puramente individual o subjetivo. Trasciende también a las masas y cobra así una innegable objetividad. No se le oculta a nadie que existen pasiones colectivas y que las mismas adquieren a veces una gran importancia política e histórica<sup>40</sup>.

Horri jaramonik egiteke ekintza politikoa planteatzea teorikoki errore gaitza litzateke, eta sozialki galgarria bere ondorioetan.

Bere burua «ni marxista naiz eta alde horretatik ikusten ditut gauzak» aitortuz aurkeztu duen gazte batek, «niretzako aberria, lurra, hizkuntzaren zaletasuna, ohiturak eta tradizioak, denak gauerdiko ametsak [dira], burgesiak asmatutako gezurrak, proletarioa menperatzekoak», idatzi dio Santamariari<sup>41</sup>. Azkenean, jarrera hori marxismorik ere ez den nonbait akabatzen dela ostera lezake, neke gabe, Santamariak<sup>42</sup>. (Garai batean, usu gertatu da hemen, nietzscheanoak, darwinistak edo soilki deskontentuak bere burua marxista uste izatea). Baina horrekin ez dugu arazoa konpondu. Nazio-arazo, klase-arazo, eztabaidaren azpian dagoena, finean, gizatasunaren izari «irrazional» horren onarpena ala onarpen eza dago auzitan.

El patriota no ama a su patria por razones cartesianas. La ama sencillamente porque la ama y porque siente la necesidad de amarla y de sacrificarse por ella. ¿Y qué diremos del arte y de todo ese inmenso y vago campo que se suele llamar la cultura?<sup>43</sup>.

Ez dira arrazoi geometrikoaren produktuak: burgesiaren produktuak ote dira horregatik? Ala gizakiari, arrazoimenaz gain, beste hainbat dimentsio behar zaio aitortu?

El juego de la historia no está hecho de razones económicas, sino también —y seguramente en mucha mayor medida— de pasiones y de sentimientos colectivos. La vida social real no responde a los supuestos racionalistas: en casi toda ella hay un índice más o menos elevado de irracionalidad. Así, por ejemplo, las religiones tienen siempre un enorme contenido sentimental, sin que esto signifique —claro está— que sean reductibles a puro sentimentalismo. Algo de esto ocurre también con los patriotismos<sup>44</sup>.

Alde batetik, dago, pertsonaren egiazko hainbat dimentsio «irrazional» behar bezala ez ezagutzeak, egiaz, pertsonaren sakrifiziora eraman duela politika sozial «marxista». Bestetik, pertsonaren kontzeptu meharregi batekin, historiaren filosofia sinplifikatuz, fenomeno sozialen interpretazio faltsuetan bukatzen dela.

El caso es que en el transcurso de los años la fuerza de los 'hechos nacionales' ha venido a sorprender muchas veces a los marxistas, obligándoles a desviarse, más o menos oportunísticamente, de sus propias tesis<sup>45</sup>.

### ***Nazioaren kontzeptu pertsonalista***

Santamariaren nazio kontzeptua nola mami-mamian pertsonalista den, definizioaren batean baino hobeto, piri-para egiten duen haren baliatze guztian

ikusten da eta, itxurazkoa denez, nazioaz tratatzerakoan adina sumatzen da pertsona, komunitate, historia edo beste zernahitako jardunetan. Nahikoa izango da pasarteren batzuen errepassoa. Pertsonaren kontzeptuan, batetik, nazioa da indibiduotasunak eskatzen duen komunitatearen osagarria; bestetik, nazioa bera, orain honetara mugatzeko, pertsona (kolektibo) bat bezala da, gisa bereko beste komunitate-pertsoneri nahiz Estatuari buruz buru.

Estatua gero bilakatzen denarekiko, nazioek «preceden al Estado, le condicionan existencialmente y son la base humana y vital del mismo» (gogoratu pertsonaren lehentasuna gizartearekiko). Nortasun pertsonalaren garapenaren antzera familian, identitate nazionala ere, mintzaira analogiko batez adierazteko, hizkuntza, arraza, ohitura, eta abar, bizitza komunitario historiko baten elkargoak errotzen eta osatzen du. Baina gizakiak gizartean ez baititu haurrak eta hitz eta usadio batzuk praktikatu bakarrik egiten, interesgarria izan daiteke seinalatzea Santamariak jaramon egin diola lanari ere faktore nazio-eratzailerik bezala:

... en la medida en que el trabajo es una comunidad de vida y no una mera relación económica, la comunidad de trabajo podría también considerarse en muchos casos como un factor de la comunidad nacional<sup>46</sup>.

Herri subiranoaren kontzeptua ulertzen da pertsona subiranoaren, bat, analogiaz eta, bi, hedapenaz: gizarte politikoan hitzarmenak pertsona subiranoak elkartzen dituen bezalaxe hiritar bezala, hitzarmenak nazioak elkartzen ditu Estatuan, *foedus* bezala<sup>47</sup>. Ez da analogia moduan garatua bakarrik alegia (hots, nazioa ez da Estatuan «pertsona autonomo» metafora moduan bakarrik), baizik pertsonaren hedapen «natural» (prepolitiko) gisa ere bada:

Los derechos de las nacionalidades a su libertad y desarrollo no son sino una prolongación de los derechos del hombre, y como tales deben ser proclamados de forma inconfundible<sup>48</sup>.

Hitzarmena egiteko gaitasuna, burujabetasuna, horixe da pertsonarena bezalaxe naziotasunaren autonomia.

En mi concepto la idea de autonomía consiste fundamentalmente en el reconocimiento de la personalidad de un pueblo [...]. Ser persona es, como solían decir los escolásticos, «existir por sí mismo» y no como mera parte de otra cosa: existir *per se* y no *per aliud*. Ser persona es ser causa de sus propios actos. No hay propiamente acto personal que no sea el resultado de una libertad [...]. Nacionalidad es, pues, la personalidad de un pueblo. Sustantivamente hablando, nacionalidad es un pueblo con personalidad, es decir, un pueblo con conciencia de identidad; con capacidad para ser «él mismo», y que presenta ante los demás pueblos una exigencia de libertad. Unidos

estos datos subjetivos a los caracteres objetivos de lengua, cultura, etc., queda completa la idea de nacionalidad<sup>49</sup>.

Hona hemen ezin garbiago azalduta:

Entiendo que reconocer la personalidad de un pueblo es lo mismo que reconocerlo como nacionalidad, porque para mí la «nacionalidad» no es otra cosa que la «personalidad» de un pueblo.

Dicho sea en términos de proporción matemática: la idea de persona es al individuo humano lo que la idea de nacionalidad es a una etnia o pueblo. Hay entre estos dos conceptos un evidente paralelismo<sup>50</sup>.

Pertsonaren eta nazioaren sinbiosia ohartzen du Santamariak Estatu jakobinoaren aurkako egungo berpizte erregionalista eta nazionalistetan ere: Estatu teknologikoaren zamapean abailduta herrestatzen den *pertsonaren* matxinaldia dira.

Regionalismos y nacionalismos aparecen por todas partes, y este movimiento sorprendente, que parece haber surgido por generación espontánea en todos los continentes, no es sino la expresión de la lucha que el hombre de hoy se ve obligado a mantener contra las inmensas máquinas que le oprimen, precisamente para salvar su personalidad del aplastamiento de la civilización técnica<sup>51</sup>.

Horrela ulertuta, bidezkoa zen mugimenduok borroka ekologikoarekin asoziatzea:

En oposición a esta idea absorbente del Estado-nación, es posible y necesario sostener hoy la idea del Estado esencialmente regionalista [...]. Esta repristinización de la idea del Estado tiene cierta afinidad con las preocupaciones ecológicas de la hora presente. Exagerando un poco podría decirse que el Estado centralista es un enemigo de la naturaleza<sup>52</sup>.

### ***Aberriaren misterioa***

Gure aldian pertsona, moralak, kultura, krisiak erasota ikusten baditugu, erraz asmatuko da aberriak berdinean behar izatea, kontzeptu hori Santamariaren zentzu antropologiko, ia espiritualean, ulertzen bada behintzat, ez hertsiki politikoan. Hobeto esan egun, aberriaren kontzeptua, krisian dago eta konfusioan dago.

«Entre las muchas cosas que hoy están en crisis el patriotismo no es, seguramente, la menos importante»<sup>53</sup>. Ez da esan nahi horrekin, gutxi praktikatzaren bertute bilakatu dela, «sino que esa virtud encuentra con mucha dificultad su propio objeto»<sup>54</sup>. Batetik Estatu-nazio nahasketa aipatu hori dago; bestetik,

aberria, patriotismoa<sup>55</sup>, kasi ez erabili nahiago diren hitzak bilakatu dira, patriotismo edo abertzaletasunaren izenpean, zikinkeria bestela erakustezinak ezkutatzen direla agertu baita hainbat nazionalismorekin; gainera kontzeptu horrek oraingo ideologia eskuarrenetan ia lekurik ez du, beste kategoria batzuetan egiten dituzte beren planteamenduak; eta kristaumentzat berentzat, gutxienez lehen mendeetako kristau jatorrentzat, patriotismoa ez zen bertute batere estimatua izan, haiek ere kezka horien gainera ardua unibertsalagoz mugitzen ziren eta beren kontsideroetan<sup>56</sup>.

Konfusioa ere nabarmena da. «Las ideas de Patria, Nación y Estado aparecen mezcladas y confundidas por todas partes»<sup>57</sup>, etab. Bestela ere iluntasuna berezkoa du:

¿Cómo podremos, pues, establecer una noción de la patria válida al mismo tiempo para el pasado y para el presente, para la antigua Grecia y para los Estados Unidos de Norteamérica, para el Occidente y para el Oriente, para los pueblos sedentarios y para los pueblos nómadas?<sup>58</sup>.

Gaiari, fraseologia putzak eta topikoak baztertu eta zinez ekiteko, barne-jarrera egoki bat, metodo egoki bat alegia, behar da aurrenik. Nor bere barnera biltzeko metodoa, barnean bakarrik aurki baitezake bakoitzak «la realidad profunda, enorme, misteriosa, que para cada hombre constituye su patria»<sup>59</sup> (horregatik hizkuntzaren errozkotasuna). Ia gai sakratu bat da, eta halakoarentzako begiespena eskatzen du. Zenbait beste analisi metodo itxuraz zolik ez bailuke objektua era-eran atzemango:

La patria es en efecto una realidad que se oculta a los que están poseídos del demonio de la geometría. Una realidad demasiado informe y que por otra parte se adentra demasiado en mí mismo para que yo pueda captarla por un método de pura razón sin correr el peligro, en el que tantos han caído, de declarar a la patria inexistente o de confundirla con cualquier otra realidad más formal —tal como por ejemplo el Estado, la nación o la raza— y por tanto más fácilmente aprehensible a mi intelecto.

La patria es como la verdad religiosa, algo que debe ser indagado piadosamente y con todo el ser, es decir, con el corazón tanto o más que con el cerebro, en actitud expectante y reverencial, despiertos los sentidos y la imaginación para no perder ni por un momento el contacto con las raíces sensitivas de esa realidad.

Por eso los poetas se han ocupado de ella más que los filósofos, sin que esto quiera decir que la patria sea algo puramente imaginativo y perteneciente a la órbita del ensueño, sino que el conocimiento poético fundado en una especie de connaturalidad entre el hombre y su mundo, se presta mejor que el discurso conceptual a este género de investigaciones.

Se trata de explorar y de ahondar más que definir y de deducir. Hay una presencia de la Patria en nosotros, una presencia pública y una presencia íntima en el ser de cada hombre [...] y es preciso discernirla sin desvitalizarla, es decir, sin que desaparezca

esa especie de embrujo vital que la acompaña, porque de otro modo el patriotismo dejaría de ser virtud impulsiva de héroes y de santos para convertirse en un producto pulverizado de eficacia política y administrativa más o menos discutible.

Debemos, pues, adoptar un *método adecuado* para que esa presencia nos sea revelada, tanto en nosotros como fuera de nosotros mismos sin intentar traducirla en ningún momento a unos términos formales demasiado estrictos. Si procediendo de esta manera el asunto del patriotismo permanece, hasta cierto punto, en la obscuridad, no hay que preocuparse demasiado de ello, pues sin duda alguna las falsas claridades son poco deseables y menos aún en un tema como el nuestro de carácter esencialmente religioso, es decir, concierne a nuestra misteriosa religión<sup>60</sup> en el mundo<sup>61</sup>.

Abioa pertsonagandik daukagu hemen ere. Hau da, pertsonaren gure kontzeptua dago berriro jokoan: pertsona zer den nola ulertzen dugunetik segituko da aberriak zer esanahi duen.

Neure baitaratzen banaiz —dio Santamariak—, behatzen baditut nire mila oroitzapenak, esperientzia intimoak, agertuko zait unibertsoan ez nagoela ebaiki eta hesituta, isolatuta, galduta, inorekin komunikazio gabe, patuaren leize gaineko hutsean eskegita, noragabeko existentzia batera jaurtita ez dakigu nondik, existentzialistek gustua duten eran deskribatzea. Aitzitik, munduan etxean nagoela eridenean dut, gurasoek, sendiak, lagunak, herriak gozo-gozo hartua, babestua bizitzako ekaitzetan, gaitzetan sorotsia, aitzinarazia neure nortasun-txoaren garapenean, lagundua nekean, lagunegina neure galdualdi bakartietan —eta hori guztia neuk ere lagunei atzera eskaintzeko moduan—. Ni bilakatur nagoen ni hau, habia epelean kokatuta sortu eta hazi da.

Mi propia existencia se halla enredada o, más bien, armónicamente entrelazada en una especie de inflorescencia vital con la de un conjunto de seres, con los cuales comparto todo un pequeño mundo de intenciones y de posibilidades radicales. Más que de una comunidad de bienes se trata de la inserción en un tronco común. Como las hojas de una planta no cuelgan aisladamente de sus pedúnculos solitarios, sino que están agrupadas en torno a tallos ramificados, así cada hombre no es tampoco un ser aislado. Hállase al contrario inscrito en una rama del árbol humano y participa profundamente de la existencia de otros hombres. Recibe la misma savia que ellos, a través de unos mismos y sutiles canales que sin duda contribuyen también a impregnarla un sabor particular y distinto. Caprichosos y, para nosotros, insignificantes matices, determinan particularismos que son la consecuencia de aquella múltiple diversidad.

La patria es, por tanto, un *medio procreador* del que en parte se recibe el ser. Es desde luego un medio físico —aunque esto no parezca esencial—, es decir, una tierra, un clima, una vegetación, una fauna. Pero además y sobre todo es un medio genuinamente humano, una umbela humana, de la que se recibe una mentalidad, una manera especial de ser, cierto estilo de reacciones y de fórmulas vitales. Si de pronto se me desproveyera de todo eso, de todo cuanto he recibido de ese complejo medio, evidentemente dejaría de ser yo mismo: me encontraría desencarnado, en un vergonzoso estado de desnudez metafísica<sup>62</sup>.



Aberriaren ulerpide honetatik bi emaitza itxuraz kontrajarri, baina bateratu, segituko dira: batetik, Estatuaren barruan Estatua baino lehenagoko diferentzia eta apartekotasun nazionala, autonomo edo bere baitan osoa (diferentzia nazionala ez da exajeratu behar: arbolako hostoak bezalatsu da gizadiko nazioak —ez gutxietsi ere: ukitu ñimiñoan egoten da ederra); bestetik, Estatua gaindituzko unibertsaltasun gizatiarra. Aberriaren kontzeptuan mugapen eta diferentziaren, eta mugen gaindipen eta unibertsaltasunaren elementu biak daude, Estatuari buruz buru, biak nahitaez batera, bestela deformazio politikoren batean amiltzen da.

Lehenik aberriak —nire baitan mamituta— aberkideen batasunean lotu eta berdindu egiten nauenak, beste ororekiko berezi egiten nau, hau da, arrotzarekiko ebaki eta hesitu. Arrotza da nire izaera partikularra kontraesaten duena, nire espresioa direktoki ispilatzen ez duena (ez nau «ulertzen», mintzairan baino izanean gehiago, hots, ez da ni neu sentitzen naizen esanahiak beharrezko osaera; ez nau osatzen berehala nire zentzuan, aberkideak bezala; ez da «gurea», gutarra). Orduan arrotza nire nitasunaren mehatxu edo arrisku bezala topatzen dut aurrenik (beti da nire auzitan jartze bat, ziurtasun itaungabeen biluzte edo apurtze bat) eta, horretan berean, nabariago bihurtzen dizkit aberkideenganaiko nire loturak. Arrotzak «ez arrotzei» zor natzaiela (horiek biltzen, babesten, etab., nautela) ipintzen dit begi-bistan.

Mi religación a un medio humano que constituye como un principio de mí mismo, me convierte en deudor de ese medio. Trátase de una deuda de naturaleza singular en la que la cosa debida no es un objeto separado, sino que es yo mismo, un *débito ontológico* esencial y estrictamente impagable. En este caso lo que debo no es aquello que tengo, o que detento, sino esto que soy<sup>63</sup>.

Ez da gertatzen horrelakorik Estatuarekiko. Hein berean, Estatuarekiko gure eginbideak eta bertuteak ere, interesezko eta ez maitasunezko itunean sus-traituak, beste natura batekoak dira guztiz.

El ciudadano es según esto deudor del Estado a causa de los servicios y cuidados que de éste ha recibido y recibe, y de aquí nacen obligaciones de índole muy diversa, pero no distintas en esencia de las que ese mismo ciudadano puede tener respecto a otras asociaciones económicas, profesionales, culturales, a las que acaso pertenece.

Aberriarekiko gure zorra, aldiz, ez da «justiziazkoa».

Dios, los padres y la patria no sólo deben ser servidos, sino, sobre todo y en primer lugar, amados. De aquí que estas virtudes tengan un carácter auténticamente piadoso. El verdadero patriota no sólo cumple sus deberes cívicos, presta su contribución y su esfuerzo por la comunidad —con todo lo cual no hace sino satisfacer las exigencias

de la justicia— sino que además rinde a la patria el obsequio por excelencia: la ama. La esencia del patriotismo está ligada, repetimos, a una realidad misteriosa que es, en suma, una *relación de paternidad*. Prescindiendo de ésta no hay patriotismo posible a menos que se pretenda presentar bajo ese término un conjunto de virtudes cívicas del orden de la justicia social [...]. Pero estas virtudes sociales se dirigen más al Estado y al Poder que a la patria<sup>64</sup>.

Gaur Estatuarekikoak diren eginbideak eta bertuteak, beste ordena juridiko batekin beste gabe bilakatuko lirateke, eman dezagun, Europarekikoak edo Mundu Errepublikarekikoak<sup>65</sup>. Aberria ez dute ezer aldatzen lege batzuek.

Hori ohartzen du behin Santamariak, batzuetan Espainiako estatuak euskaldunekin erabiltzen dituen inposaketa-ahaleginei begira: «No se puede mandar a los hombres ni a los pueblos que amen lo que no aman, ni que sientan lo que no sienten»<sup>66</sup>.

Esandakoetatik ezin ondoriozta daiteke, halere, aberrian —bizia zor zaio, eta abar—Moloch absolutu bat ikusi behar denik gizaki gaixoarentzat. Arazo hori Aita Ramírez domingotarrak planteatu zuen nonbait horrela, Pax Christiren Valladolideko Batzarrean, «cuando la patria está en peligro, no hay derechos para nadie, sino sólo deberes» E. von Wildenbruch-en esakunearekin<sup>67</sup>. Baina esaldi horren balio guztia bere patetismora mugatzen da. Estatuan bezala aberrian, edonon, gizakia ez baitago inoiz indibiduo legez bakarrik, pertsona legez baizik. Bera da absolutu bakarra.

Kasuistika (are gaizki planteatu) horiek alde batera utzita, pertsonaren eta aberriaren arteko loturaren min-mina adierazteko, formula bat eta beste entseatzan dizu Santamariak: «La patria [...] es algo en lo que no sólo estoy, sino que soy; algo que en cierto aspecto es yo mismo, pues me precede en el ser y me da el ser»; «yo soy portador de mi patria», etab.

Por eso la patria *no puede ser objetivada*, escapa a todo intento que se haga en este sentido, por la misma razón que el sujeto del conocimiento no puede ser aprehendido como simple objeto del mismo<sup>68</sup>.

Orain artekoan, Estatutik atera eta bere baitan bildu eta gauzatu nauen aberri horren beste alderdia da, Estatuaz gaindi eta are neure nitasuntxoaz eta hizkuntzaz eta kulturaz haraindi, horrexek berak mundu zabalera hedatzen nauela, gizadiarekin bateratuz. Nire barneko itzal isilera jaitsi eta, zer aurkitzen dut nire nitxoan bizi, nire hizkuntzaren, kulturaren, nire niaren barrua betetzen? Gogoeta polita da hauxe, nik uste:

Cada hombre es una encrucijada de vidas humanas: nadie se encuentra sólo del todo, nadie es capaz de construirse una vida enteramente separada de los demás; nadie es un puro 'yo'; todos estamos insertos en un 'nosotros'.

Un coro de voces humanas canta en el interior de cada conciencia. Son las voces de los antepasados que vibran en la sangre y las de los coetáneos que entraron en las esferas misteriosas de nuestros afectos.

A menudo, cuando creemos improvisar, no hacemos sino repetir algo que habíamos oído y que ha quedado latiendo en nuestra interioridad. Nadie es enteramente original.

Innumerables reminiscencias se agitan dentro de cada alma, para bien o para mal suyo. Hay una mutua y constante fecundación de las inteligencias, la cual se opera en la conversación y en la lectura de los autores preferidos. Leer es muchas veces sintonizar con otro espíritu muy afín, recibir de él fuerte carga de ideas y de afectos. A veces creemos haber hecho un descubrimiento; pero si analizásemos bien el contenido de nuestra mente, percibiríamos nuestra solidaridad con otras mentes, que habían depositado en la nuestra su semilla [...].

[Honek denak pertsonentzat bezala herrientzat, kulturentzat balio du: denak elkarrekiko eragipen sare batean josita daude elkarrekin].

Existen multitud de cosas importantes que son obra de la Humanidad, las cuales se realizan al margen de los ámbitos nacionales o por encima de éstos. La ciencia, la técnica, el arte y la cultura —en lo que tienen de universal—, la creencia y la vida religiosa, pertenecen al acervo del género humano, y a su realización contribuyeron gentes de espíritu universal, generaciones y generaciones de hombres sin preocupación de nacionalidad, de raza o de patria, que se pierden en la noche del pasado, donde se borra incluso la traza de las actuales naciones.

Artistas, hombres de ciencia, apóstoles y santos lucharon infatigablemente para acumular estas riquezas espirituales, intelectuales y materiales en favor de la Humanidad.

¿Con qué derecho pretendería nadie encerrarlas en el ámbito de un Estado o de una nación determinados o manejarlas en favor de uno de ellos?<sup>69</sup>

Este conjunto de cosas que necesariamente deben ser vividas en común por todos los hombres, que no pueden ser parceladas o acotadas, porque esto equivaldría a destruirlas, constituyen el bien común supranacional de la Humanidad. Un bien auténtico, de naturaleza genuinamente moral, por el cual vale la pena sacrificarse y al que deben subordinarse todos los bienes particulares, incluso el bien de la propia patria<sup>70</sup>.

Santamariak bere egiten ditu Jérôme Hamer-en hitzok: «cada día adquirimos más conciencia de una herencia histórica común más vasta que la del país natal»<sup>71</sup>.

Aberriaren ideia zabalagotu beharra dago, halaber, lehenari begira bezalaxe, geroari buruz ere: «la esperanza de un porvenir mejor une a los hombres en la tarea común antes que el recuerdo de un pasado más o menos discutible», itxaropen unibertsal hori ere gure guztion barneko aberria baita<sup>72</sup>.

Honek, berrito, ezin eraman gaitzake mundu osoa gure aberri aitortzera, kosmopolitismo erlijioso eta ideologiko batzuen antzera:

... no parece que la expresión 'patriotismo universal' (mi patria es el mundo) pueda tener nunca un sentido que no sea metafórico [...]. El concepto de patria es inelástico, no admite una prolongación ilimitada, como no lo admite tampoco el de familia<sup>73</sup>.

Elastikoa ez bada (mugagabeki!), zurruna eta itxia ere ez da aberria. Norberak egiten du bere aberria holakoa edo halakoa; hedatsua ala estua, berak zabal-tzen du. Pertsona batek bere nortasuna egin beharra izaten duen bezalaxe, hain zuzen. Neure burua egiten ari naizen eran eta neurrian egiten dut aberria. Horregatik, seinala ezinak dira aberrien mugak ere:

Las patrias no son propiamente enumerables sino atendiendo a su exteriorización en formas geográficas y jurisdiccionales. Pero esta exteriorización es más bien secundaria y resulta infinitamente pobre en relación con la realidad misma a la que trata de representar. Fijar las fronteras de la patria, coordinarla con realidades geográficas y políticas del mundo exterior, establecer como quien dice el campo de sus coordenadas materiales, puede equivaler a ignorar su *naturaleza misteriosa*<sup>74</sup>.

Ez dago alde zurratik emanda, eginda, finko. Norberak egiteko badago, aldiz, nork bere baldintza pertsonalen arabera taxutua izango da.

Concebida la Patria como medio procreador resulta que cada hombre posee una patria y sólo una; pero la patria sólo se unifica en el alma de cada hombre, porque no es para él algo convencional, sino que está determinado por el desarrollo mismo de su vida. Para un aldeano de cultura rudimentaria, la patria estará encerrada en la aldea o el valle del que no ha salido jamás: su ámbito vital termina ahí, pero en ese reducido espacio adquiere una profundidad y un arraigo increíble, mientras que para un personaje universalmente conocido, que haya viajado desde su infancia por todo el mundo y tenga amigos en todos los continentes, el medio procreador deberá considerarse como algo muy extenso, aunque esta extensión no podrá menos de traer consigo una disminución de densidad<sup>75</sup>.

Egin, egitekoa, gaizki egin edo desegin ere egin daiteke, hori baita oraingo arriskua. Pertsona barrutik husten eta hutsaltzen duen zibilizazio teknikoaren mehatxu bat gehiago da hori.

En el mundo actual las relaciones entre los hombres se multiplican y se extienden más y más pero al mismo tiempo se *trivializan* hasta el extremo, y casi pudiéramos decir que se mecanizan completamente. De esta manera la patria corre el peligro de esfumarse [...]. *La patria nos va faltando y, sin embargo, nos hallamos cada vez más necesitados de ella*<sup>76</sup>.

## Euskara

Santamariak hainbat eratan eta esferatan hartu du parte euskararen borrokan, ekintzaile teoriko nahiz praktiko gisa: ikastolak antolatzen, eta abarretan; edo irakaskuntzarako materialak prestatzen, edo materialok prestatzeko euskara bera (linguistikoki) prestatzen<sup>1</sup>, etab., etab.; edota euskararen borroka sozial eta politikoaren inguruan kontzeptuak garbitzen, hizkuntzaren esanahiaz adibidez, edo proiektu batzuei buruz ideiak argitzen, egunkari baten premia zergatik dagoen, esaterako. Hemen azken bi horien moduko Santamariaren kezka bakarrik hartuko ditugu aintzakotzat, haren pentsamenduaz baino arduratu nahi ez dugunez gero. Ez genuke esan gabe utzi nahi, halere, Santamariaren esanahi praktikoa sekulakoa izan dela.

### *Euskara eta euskotasuna*

Zertan datza «euskotasuna»? Hau da, «La noción de lo vasco» dauka Santamariak 1966an artikulatu bat, euskotasunaren mamitzaile baliozkoena edo oinarritzaile euskara ote den ala ez, urte horietantsu indartzen ari zen baiezko ikusmoldearen eta beronen aurka zutitu ziren aieru batzuen kariaz. Aurretik idazki-truke bat edukia zuten auzi horrekin Juan B. Olaetxea apaiz historialariak eta Juan San Martin euskaltzain eta idazleak; eta, tartean, Santamariak bere iritzia gehitu du. «Eusko» den guztian ez da nahitaez hizkuntza sartzen eta, hein horretan, Santamariaren iritziak Olaetxeak arrazoi luke, euskara ezin jo daiteke euskoaren «esentzialtzat» («esentzialismoaren» istorio santuen garaia zen, hain zuzen). Bestetik, begien bistakoa da, orobat, euskara kenduta euskoa zer den asko lausotzen dela, are guztiz laino dakigun arriskuraino.

Arazoaren zailtasunik handiena, beharbada, gaizki planteatua edukizetik sortzen da, hots, ez dagoen moduko definizio bat bilatzetik.

Realidades de esta naturaleza no son en sí mismas definibles. Es posible hablar de ellas, tratar de rodearlas, de aproximarlas, de describirlas analógicamente, pero no se les puede aplicar una definición esencial, como la que se da, por ejemplo, de un icosaedro, o de un equinodermo. Exhaustiva y rigurosamente hablando, no se puede definir 'lo vasco', como tampoco se puede definir 'lo suizo', 'lo inglés', 'lo andaluz' o 'lo español' [...]. La realidad, cuanto más informe, resulta menos definible y, cuanto más formal, suele resultar menos real<sup>2</sup>.

Esanahi ezberdineko galdera izan liteke zerk egiten duen euskoa, edo zertan datzan euskotasuna, eta «se puede contestar desde el punto de vista etnológico, del lingüístico, del costumbrista, del geográfico, del político, del histórico e incluso del administrativo, que es, a mi juicio, el que tiene menos valor». Baina —erreparatzea komeni da honi—

... reconstruir, con las respuestas obtenidas, la esencia de lo vasco es, precisamente, lo que me parece imposible, porque esta presunta esencia se alejaría demasiado de la existencia para poder ser utilizable<sup>3</sup>.

Euskoaren diferentzia edo propioa adierazteko, egokia dirudi irizpide linguistikoak —edozein herrirentzat eta edozein kasutan hala izan behar duela esan gabe—, «porque el euskera, con sus diversos dialectos, es un idioma bien determinado y que no se puede confundir con ningún otro»<sup>4</sup>.

Baina galdera bat interes batetik egiten da, eta erantzunak askitasunik ez du lortzen interes hura ez badu asetzen. Sozialki, euskararen egoera problematikoa da une honetan; edo, hobe, problematikoa baita euskarari buruz pertsona bakoitzaren egoera,

... también en este terreno hay distinciones que hacer, porque, lo mismo que se pueden llevar ocho apellidos vascos sin sentir el más leve afecto ni interés hacia lo vasco, cabe ser 'euskeldun' práctico, sin asomo de conciencia vasca, por pura necesidad o por ignorancia de otras lenguas. En nuestro caso —hau da, guk galdera egin ohi dugun interesetik, nik uste— nos interesa más el vasco-parlante reflexivo, profundamente consciente de los valores humanos y afectivos que se encierran en la lengua, aunque sea peor conocedor práctico de la misma. El hecho objetivo de manejar con soltura un idioma tiene menos importancia que el de sentirla como propia, el de querer avvicinar y afincar en ella el espíritu. Es toda la distancia que va del idioma como instrumento práctico y utilitario de comunicación de ideas al idioma como sistema de expresión afectiva<sup>5</sup>.

Hizkuntzak «egiten» gaitu. Baina ez guk hizkuntza erabili egiten dugulako soilik geure ideiak adierazteko, baizik geure izaera han isurtzen dugulako. Han gaudelako errotuta.

Ohargarria da, hemen, bereizkuntza bat: euskoa zerk dagien kapituluan, Santamariak, ikusi bezala, euskararen garrantzia aitortu bai, baina euskotarraren asmo subjektiboa edo kontzientzia azpimarratzen du; alderantziz, subjektibitate horri gotortasun-edukia damaiona euskara bera baita finean, euskarak zer dagien kapituluan, zerbait eusko bihurtzeko alderdi objektiboa ikusiko dugula azpimarratzen du.

### ***Hizkuntza subjektu bat da: nortasun bat***

Hizkuntza bat ikas daiteke, azter eta iker daiteke, pentsamenduak erakusteko erabil daiteke, hau da, objektutzat har daiteke. Orduan, «jakintza orokorrak hamaika gauza esango digu hizkuntza horri buruz, bai linguistikaren aldetik, bai soziologiaren aldetik, etab.; baina beti kanpotik, azaletik, lekoretik»<sup>6</sup>. Beste hainbeste da kulturarekin: edozein kultura konkretu kanpotik beha daiteke, iker daiteke; baina haren barruan bizi ere egin daiteke, hark edukita egon, hartakoa izan ez ezik, harena eta huraxe izan. Eta berdin hizkuntzarekin: guk hizkuntza bat daukagu eta hizkuntzak gu gauzka.

Nola hizkuntza pentsaeraren erreminta nagusia den, hizkuntza ez da ezagutzaren objektu huts bat; aitzitik ezagutzaren sujetua ere bada. Adibidez, Salamanca edo Tokioko Unibertsitateetan irakas daiteke euskara, beste nolana hiko hizkuntza bat bezala, hots, kultura unibertsalaren ezagutza bat bezala<sup>7</sup>. Baina ezagutza hau ez da sekula Amezetako bertsolariak duen euskararen ezagutza bera izango, zeren, bertsolari horren kasuan, ezagutzaila guztiz murgildurik baitago bere ezagutzaren objektuan bertan<sup>8</sup>.

Besteekin komunikatzeko tresna izan baino lehen, eta horretarako balio ahal izateko, guk geure burua egiteko, geu izateko —gizaki!—, daukagun lanabesa da hizkuntza.

En realidad, el lenguaje no es sólo un medio de comunicación entre las conciencias individuales [...], sino también el medio principal por el que la conciencia se revela a sí misma. Mucho más que a los otros nos hablamos a nosotros mismos en ese discurso interior de cada alma que es la maravilla de las maravillas<sup>9</sup>.

Hizkuntzaren subjektutasunak edo hiztunek hura erabiltze soilaren oposizioz hark bere baitan hiztunak edukitzeak zer esanahi duen unean-unean ikusarazi nahi izan duenean, afektibitatearen bitartekoa hura izatea bezala esplizitatu izan du maizenik Santamariak, hots, bitarteko —bizigiro— horretan garatzea barru-barruko sentimenduak, eta tresna horren bitartez agertzea intimitatea.

El idioma español se ha conservado hasta hoy en Filipinas, en las familias más aristocráticas, como un residuo vivo y operante de una gran cultura. Como vehículo práctico no podía ya luchar contra el inglés; pero en tanto que vivero espiritual su importancia es, o ha sido, sin duda, enorme en esas familias. Si el español llega a perderse del todo en aquellas latitudes bien podrá decirse que ha desaparecido definitivamente de ellas el 'alma española'. También el día que se pronuncie por última vez una frase en vasco popular —día que no ha de conocerse en innumerables generaciones— habrá muerto para siempre el 'alma vasca'. En resumen, la lengua euskara como vehículo de expresión afectiva propio de un pueblo es, a mi entender, absolutamente esencial e intransferible<sup>10</sup>.

Halere, arriskua egon liteke errekurso hori zentzu indibidualista (solipsista) batean gaizki ulertzeko pertsonaren sentimendu barnekoetara. Ez hizkuntzaren naturak eta ez filosofia pertsonalistak onar baitezake halakorik. Hizkuntza den errealtate konplexuan, berein dira bana ditzakegun funtzioak. Ombredane-k bereizitako bostak aipatuz,

... en realidad —argitzen du Santamariak—, dentro de una lengua se esconden pues cinco utensilios destinados a fines distintos y el primero de todos, la expresión de afectos y de vivencias, la comunicación de sentimientos y estados del alma, el uso que Ombredane llama *afectivo*<sup>11</sup>.

Funtzio ezberdinok nahasian edo elkarren artean txirikordatuak dabilta hizkuntza barruan («así los lenguajes se mezclan y se entreveran en el interior del idioma»)<sup>12</sup>. «Una lengua no es sólo una lengua. Son muchos decires y muchas cosas dentro de cada decir»<sup>13</sup>. Komunikaziorik sinpleenean, mailak eta mailak daude edo funtzio ezberdinak daude gurutzatuta. Denek ez dute berdin jokatzen hiztunarekiko: adierazpen utilitario hutseko esaldi batek («bihar eguraldi ona egingo du»), printzipioz, berdin ukitzen du mezu-hartzailea, ulertzen duen edozein hizkuntzatan. Antzeratsu, hizkuntza-irakaslea banaiz, zuzen irakatsiko dut «egun on» berdin «buenos días» dela. Baina hori bera esaterakoan, beste zerbait gertatzen da:

Yo puedo decir 'egun on', o decir 'buenos días', o decir 'bon jour'. Algunos pensarán que estoy diciendo una misma cosa. Y, sin embargo, en cada caso *me sitúo y sitúo a mi interlocutor* en universos distintos<sup>14</sup>.

Hori beti da egia, eta euskararena bezalako egoera linguistikoetan askoz egiagoa.

Hizkuntzak, beraz, komunitatearen «arima» bezala egiten du (ongi ulertuta, noski, herri batek bere arima berak egiten duela).

Se ha demostrado que toda lengua crea una psicología colectiva, al mismo tiempo que es creada por ella. Este crearse y re-crearse pueblo y lengua, son una misma cosa, pues hay una correspondencia honda entre la lengua y el ser y el exigir [sic!] del pueblo que la engendra. Mentalidad, modo de ser y de pensar, talante cultural... todo esto va estrechamente unido a la lengua propia de un pueblo, es decir, a la que éste se sacó de sus propias entrañas<sup>15</sup>.

Ondorioz, bada,

... la lengua vasca es un dato esencial para la interpretación de Euskalerría. Quienes han pretendido la muerte del euskera saben muy bien que ésta entrañaría a corto plazo la erradicación de toda auténtica personalidad vasca<sup>16</sup>.



### ***Euskal Herria eta euskara***

Euskal identitatea euskararekin erro-errotik lotze horren zenbait aurkari, praxian behintzat aurkari, abertzaleak dira; beste asko, ez. Hona bioi buruz Santamariak deritzona:

Objekzio ezaguna da

... que el castellano es una lengua tan vasca como el euskera, ya que, como es sabido, tuvo una de sus fuentes manantiales en tierra euskalduna —San Millán de la Cogolla, tierra de Berceo— y cierto romance castellano se habló y se escribió en Vasconia antes quizás que en la propia Castilla.

Santamariak horri:

Fueron monjes, juristas, señores y cortesanos, quienes crearon y usaron el romance, comunicando a esta nueva lengua el prestigio que le daba el ser la lengua de la clase dominante [...]. En Euskalerrria el castellano ha sido desde hace siglos la lengua de los que mandan, mientras que al euskera se le ha visto como una especie de lengua proletaria: lengua ruda, de gentes rudas, ignorantes y... pobres<sup>17</sup>.

Abertzale «politiko» batzuei buruz:

Ciertos espíritus superficiales pretenden que la personalidad vasca debe ser defendida en otros terrenos, en el terreno económico, en el político, en el sociológico, etc. No quieren darse cuenta de que, desde un punto de vista esencial, la presencia del euskera es rigurosamente necesaria para la conservación de la personalidad vasca, y si lo aceptan es sólo desde un punto de vista teórico y simbólico [...]. En Euskadi necesitamos en este momento, y vamos a necesitar todavía más, una política lingüística concebida sobre todo como una política de 'salvación' de la lengua vasca, clave de nuestra originalidad<sup>18</sup>.

Oro har, Santamariak ez du inoiz sentimendu onik sentitu bihotzean hizkuntzaren gutxiesle eta mila eratako etsaiekiko.

A los simplificadores, planchadores, ahogadores, verdugos y exterminadores de idiomas, los tengo por criminales de lesa humanidad; no merecerían tener lengua, porque no tienen corazón, ni sensibilidad, ni entrañas<sup>19</sup>.

### ***Unibertsalaz eta partikularraz***

Euskara kopuru txiki baten mintzaira da, eskola eta unibertsitate eta zientzia handirik gabeko, eta merkataritza eta industria eta finantza ez handiagoko jendetxo batena, munduko bazter txiki batean: ez ote da itxuragabekoa eta primitibismo seinalea, mundua geroz eta batuago eta berdinatzen ari den tenorean, gu diferentzia txiki horiengatik borrokan ibiltzea? Objekzio arrunta hori ere.

Kaikutzat jotzen gaituzte batzuek, euskara bizi eta ugari dadin ahaleginak egiten ditugulako.

‘Orain, mundu guzia batasunaren bila dijoalarik, zuek euskara berpiztu nahian hasi al zarete?’, esan ohi dute beroriek. Gure munduan hainbat hizkuntza erabiltzea ezinezkoa da eta horietatik lau edo bost bakarrik, gehienez, jarraituko bide dira ondorengo urteetan. ‘Euskal mintzaera, Euskalerrian bertan ia ezezaguna izanik gaurko egunez, nola nahi duzute bada gorde eta zaindu?’. Sasi igarle horiei euskal baratza txikiegia iruditzen zaie<sup>20</sup>.

«Unibertsalista» horiei Kierkegaarden esaldia buruzkatzen die Santamariak: «Las naturalezas profundas no pierden nunca el recuerdo de sí mismas y nunca llegan a ser otra cosa que lo que han sido»<sup>21</sup>. Nortasun sendoak erroetan tinko irauten du beti. «Kosmopolitismoa» da mundu guztiarekin berdintzea, errogabezia eta azakeria, unibertsaltasuna baino gehiago.

El hombre superficial se halla, por esta razón, en perpetuo cambio e inestabilidad. El hombre profundo, por el contrario, permanece, ahonda y zahonda constantemente en su propio existir, en el que encuentra los impulsos necesarios para seguir existiendo con perfecta autenticidad<sup>22</sup>.

Kosmopolitak, «homo standard» bilakatu izanaz banalorios, horrek edonongotar egiten duelakoan egiaz, itxurak halaxe hartzen saiatzen delako axial-axalean, ez ditu maite diferentziak eta auzokeria-omenak (bera «molde bakar batez fabrikatua baitago»), txikikeriotatik libre uste du bere dotorezia, «ez du kolorerik, ez kutsurik, mundu guzia antzo, hizkuntza, soineko, gozo ta jolas, orobatekoak izan behar ditu. Nortasuna —nortasuna deitzen dugun hori— porruak landatzera, jakina da», eta euskaltzaleok eta, fiskerion maitale arloteok, «leize-zulotarrak, jende mizkin eta adimen eskasekotzat» hartzen gaitu, «casheroa», oihesa, zartana, kultura gabekoa hitz batean<sup>23</sup>.

Zer da, baina, kultura? Santamariak berriro Kierkegaarden baitan aurkitzen du erantzuna: «Es el ciclo que ha recorrido el individuo para llegar al conocimiento de sí mismo»<sup>24</sup>. Kultura erraz nahasten du jende batek erudizioarekin, distira eta lustre pixka batekin zeinu eta janzkeretan, girgileriarekin —kultura gutxikoak egin ohi du, hain zuzen, nahasketa hori erraz.

Una falsa cultura dispara al hombre hacia afuera —darrai Santamariak—: una verdadera cultura está cuajada de reminiscencias y de ecos misteriosos de los siglos que pasaron [...]. Ser un hombre culto es estar de vuelta de muchas cosas, recoger la experiencia vital de muchas generaciones<sup>25</sup>.

Hori da euskararen bizitzeak ematen diguna: jarauntsi zaharra, sakontasuna denboran, erroak —Santamariak hainbatgarren aldiz berriro Simone Weil aipatzen du—, gizakiak «erroak ogia baino beharragoak» baititu<sup>26</sup>.

Neretzako euskerak ikur berezi bat agertzen digu euskaldunoi: erroa, sustraia. Hori galduz gero gure etorkizuna zein izango den badakigu: betiko, arpegirik gabeko gizon standardetakoak izatea. Euskararen dago euskal erroztapenaren bide bakarra<sup>27</sup>.

Sakontasun horretan, unibertsaltasuna eta partikularitasuna ez dira aurka jartzen. Bat dira. Behin, Santamaria Aita Villasanterekin Arantzazuko Gesaltzako Graziano Anduaga aitona ikustera joan zen, eta baserriko sukaldean harekin solastera. Mendiko aitonaren jakinduria xumeaz liluratuta,

¿De dónde había sacado toda aquella sabiduría? —galdetzen zuen intelektual hiritarrak—. De la vida, que no de los libros, y de esa herencia ignorada de siglos y de generaciones que es la cultura de un pueblo viejo. Otras veces he encontrado también hombres como éste. Son espíritus independientes, simples y curiosos, filósofos del pueblo, en su mayoría gentes del campo y de la tierra, y a menudo también pastores, trota-mundos y trashumantes. Los hay en todas las tierras, en todos los pueblos y latitudes<sup>28</sup>.

Pertsona bat, bere kultura —handi ala txikian— sakonki errotua, mendian aparte bizi izanda ere, unibertsala da. Egon ere ez dago gizakiaren beste unibertsaltasunik. Gizakia bera unibertsala delako (unibertsala ez dago multzoaren handiak!), kultura, gizatasunaren espresioa, beti unibertsala da, jatorra bada; partikularra eta propioa, nahiz ugaria, inkultura izaten da. «Todas las verdaderas culturas son esto: conocimiento del hombre. Por eso son, sin más, universales, y no tienen necesidad de gritarlo para que se lo creamos»<sup>29</sup>.

Kultura pertsonaletik etorri gero, kultura komunitario edo herritarrera berdin da. Unibertsala ezin daiteke izan zientzialeku edo zientifiko guztiz esklusiboak edukitzea, edo ez dakit zer.

Querer echar por la borda las viejas culturas, las viejas sabidurías, las viejas lenguas y sustituirlas por el idioma cifrado de la técnica, o por un esperanto cualquiera, es la mayor de las atrocidades [...]. No olvidemos que en esto de la universalidad de la cultura, aunque haya muchos modos y grados, hay una sola esencia. Se puede ser universal sin haber salido de una aldea y sin saber leer ni escribir; lo verdaderamente universal es la sabiduría de la vida. Pero no se puede ser universal si no se es auténtico, es decir, si no se es fiel al propio ser. La verdadera universalidad no puede consistir en dejar de ser uno mismo, para convertirse en otro distinto, en un espantajo cosmopolita cualquiera. Mientras confundamos cultura con instrucción, con técnicas utilitarias o con progreso material no tendremos nada que hacer. Los hombres y los pueblos a los que se arrancó, o ellos mismos se arrancaron, de su propio ser, siempre se malograron o fueron a parar a oficios infames. El ciclo de un pueblo o de un individuo,

por modesto o humilde que sea, es irremplazable para él. Quien lo traiciona, muere o se prostituye<sup>30</sup>.

Hizkuntza txiki batean kultura bat bizi da; kultura batean gizatasun betegina, unibertsala.

Unibertsala izaki, arras partikularra da bestalde hizkuntza. Hau da, unibertsalaren eta partikularren oposizioak ez dauka zentzurik, hizkuntzei aplikatu nahi izanda.

El lenguaje constituye ciertamente un fenómeno social eminentemente comunitario; pero es también una realidad típicamente personal, propia y exclusiva de cada sujeto. Cada hombre tiene su lenguaje, su mímica, su léxico, su fonética especiales, es decir, todo un sistema de expresión privativo suyo, tan incomunicable como la fisonomía o las huellas dactilares del propio individuo. En este sentido podemos afirmar que el lenguaje es un hecho personalísimo<sup>31</sup>.

Alegia, gizakia, guztiz partikularra izaki bakarrik da unibertsala. Literato handietan ikusten den bezala, zenbat gehiago garatu idazleak bere partikulartasuna, hainbat agertzen da unibertsalagoa, humanoagoa. Partikulartasunean bertan datza unibertsaltasuna kasuotan. Partikulartasunik gabe, unibertsalak matematikak dira, ez pertsonak.

### ***Euskalgintza, herrigintza (etorkinen arazoa)***

Simone Weilen «enracinement» kontzeptuak ez daukala itzulpen egokirik espainolera ohartarazten du Santamariak, baina nolabait «arraigo»-rekin bihur daiteke.

Arraigar es echar raíces y esto vale tanto para los hombres como para las plantas. Un hombre arraigado es un hombre que ha echado raíces físicas y espirituales en una tierra. Entre este hombre y la tierra en que ha nacido, o vive, existe una trasvasación de jugos vitales y una comunicación profunda de toda especie de sustancias humanas y humanizantes. El desarraigo es lo contrario. El desarraigo es vivir sin tierra, con las raíces del alma a la intemperie o introducidas dentro de una tierra extraña, arisca, que no alimenta el alma, que la mata<sup>32</sup>.

Gizakiak eta gizarteak hamaika eratan deserrotu ditu gure aldi industrial eta teknologikoak, mendez mendeko lanbideak baztertuz, jendetzak migrazioa behartuz, kultura tradizionalak eta bizierak apurtuz, balio-eskalak eta familia-herronkak, begiruneak, altzoak eta babesak, sostengu eta sare sozialak. Itxaropen «ilustratua» zen gizakiak, aurrerapen teknikoek eta legeria sozial eta ekonomiko taxuzko batzuek antzinatiko mendetasun material eta sozial

goibeleatik askatu izanez gero, espiritua berehala kultura oparo batean hegaldatu eta zabaldu ahal izango zukeela goiztiri berri batean. Ez da horrelakorik etorri.

Nada más bárbaro que el hombre ‘civilizado’ de hoy, el hombre *deraciné*, al que se le ha privado de un modo particular de ser humano. Su instrucción puede ser elevada. Su cultura es prácticamente nula, mucho menor que la del último casero de Régil o de Lesaca<sup>33</sup>.

Esateko molde bat da. Tamalez, gure artean gertatzen baita Errezilgo eta Lesakako baserritarrak ere deserrotuak geratu direla. Zoko batzuk besteak baino gehiago, batzuk lehentxeago eta besteak geroago, baina euskal gizarte osoa zirimolatu du Aro Garaikideak. XIX. mendetik hona, Espainiatik egon den funtzionario eta langileen immigrazioa («errogabetuak» lehen adiera batean) ezin izan du normaltasunez asimilatu euskal gizarteak, bera zegoelako narriatuta, sustraiak kolokatuta, etenda ez bada. Santamariak Gipuzkoaz dioenak Euskal Herri osoarentzat balio du.

Existen hoy en Guipúzcoa muchos hombres y mujeres desarraigados que perdieron, por triste necesidad del vivir, el calor de una tierra. Haría falta que pudieran encontrarlo aquí de nuevo, que logran asimilarn nuestro clima y nuestro modo de ser, que pudieran incluso aprender nuestra lengua, tan íntimamente asociada a todo lo nuestro, sentir nuestros mismos afectos y esperanzas. Pero para ello sería necesario que nosotros pudiéramos ofrecerles una personalidad de la que nosotros mismos nos sentimos cada vez más desprovistos, por razones históricas y sociológicas de diversa especie. Así la tragedia de estos movimientos migratorios es doble. Por una parte, nosotros perdemos nuestras tradiciones, sin que a muchos de los nuestros, que alardean de tener los pies bien puestos en el suelo, parezca dolerles lo más mínimo, porque también éstos están desarraigados por el ‘progreso’, a pesar de no haber salido del propio país. Por otra, hombres y mujeres, venidos de otras tierras, no encuentran aquí muchas veces sino barriadas sin carácter, donde ya no se puede seguir siendo andaluz ni extremeño, porque falta el sol y el campanario del pueblo, pero tampoco se puede ser vasco, porque nada invita a serlo. Sólo les invitamos a ser ‘hombres universales’, supremo sarcasmo para un desarraigado<sup>34</sup>.

1981ean, bi mila eta koska «kulturako profesionalen» sinadura bildu ziren Katalunian, diskriminatua eta gibelatua ikusten ei zuten «gaztelaniaren eskubide berdintasuna» katalanarekin eskatzeko manifestu baten alde, itxuraz bederen immigranteen eskubideen fabore jokatuz. Sinatzaileok zera salatzen zuten etorkinei buruz:

... esta degradante situación les lleva incluso a avergonzarse de su origen o de su lengua, a catalanizar el nombre de sus hijos, etc., situación humillante que constituye una afrenta a la dignidad humana y a la que sólo una injusta presión social les ha podido llevar<sup>35</sup>.

## Santamariak osteraz zioen prentsako bere iruzkinean:

... es natural y humano que estas familias [etorkinak] se vayan adaptando poco a poco a la cultura del pueblo que las recibe. *Querer convertir a las mismas en una especie de avanzadillas de una invasión cultural, en una especie de marcha verde*<sup>36</sup>, *me parece una atrocidad* [...]. Lo que no se puede hacer es querer mantener viva la herida del *déracinement* y trasladarla a los hijos, a los nietos y a los biznietos de los emigrantes. Al contrario se debe procurar la adaptación; pero para eso hace falta que el país receptor cuente con los medios necesarios para realizar este proceso con calma y sin forcejeo, y esto es precisamente lo que no se ha permitido durante los pasados años. *Querer convertir a Cataluña en un auténtico puzzle cultural, como ahora pretenden los firmantes, me parece —repito— una atrocidad*<sup>37</sup>.

## Bigarren alderdia, jende erro galduarena, euskal komunitatea bera da

El genocidio lingüístico que durante largos años se intentó realizar en España, a través principalmente de la escuela y de la administración, no sólo fue una palmaria injusticia, sino también un error político de grandes dimensiones. Había en aquel sistema una presión brutal contra los hablantes de las lenguas minoritarias, la cual se traducía en hechos deplorables y casi sangrientos en la escuela, en las relaciones públicas, en el servicio militar, etc. Sus propias tristes experiencias hicieron que muchos padres renunciasen a hablar a sus hijos en euskera a fin de evitarles el calvario que ellos mismos habían tenido que pasar. Y ésta ha sido sin ninguna duda una de las principales causas de la pérdida de nuestra lengua en los últimos tiempos<sup>38</sup>.

Finean, euskararen aldeko borrokaren zentzua ez da, nahasketa horretatik, komunitate bat bere erroetan itsatsi eta finkatzearena besterik. Hiri deslaia herri egin.

## ***Euskara, kultura-hizkuntza modernoa***

Komunitate garaikide baten hizkuntza integratzailea izateko, euskarak komunikazioaren maila guztietako kultura-hizkuntza behar du izan: afektuen adierazpidea, noski, baina eskolako ere bai, prentsakoa, eta abar, komunitatearen premia espiritual orotakoa.

### Gaur-gaurkoz, ordea, euskara eta euskal kultura

... erroak haizera dituen kultura bat da. Euskal kultura eginkizunekoa da, hau da, dena egiteko duen kultura bat. Euskal kultura ez da besteak bezalakoa, estalgabekoa da. Benetako kultura proletarioa, mespreziatutakoa eta bide guztietan desornitutakoa<sup>39</sup>.

Euskara inoiz ez dela izan hizkuntza ofiziala eskolan, administrazioan, etab., etab., mila aldiz errepikatutako historia hori ez daukagu orain zertan errepikatu mila eta berrirogarren bider, ezaguna dugu hemen.

Pasada la guerra civil, cuando el euskera empieza a dejar de ser materia prohibida, surge una generación de jóvenes intelectuales vascos —allá en los años sesenta— que ven en él un hecho pleno, un hecho vital, y no sólo un mito venerable. Quieren revivir el euskera, haciendo de él una lengua moderna. *No nos entienden; no pueden entendernos* —me decía una vez mi joven y llorado amigo Ricardo Arregui— *porque para ellos el euskera es un tópico, mientras que para nosotros es la vida*<sup>40</sup>.

Mitoaren eta ideologiaren kontzeptuak kontrajarritz, euskararen mitotik euskararen ideologiara pasatzea deritzo Santamariak horri<sup>41</sup>: euskara gurtu eta benezetetik, edozein usadiotarako prestatzera.

Lo que ahora se trata de hacer es precisamente, dirigir la lengua, reconducirla, para poder así salvarla —contra todo fatalismo— de una muerte casi cierta [...]. Dirigir la lengua, es decir, gramatizarla, modernizarla, uniformizarla<sup>42</sup>.

Batze- eta modernizatze-lan horrekin, euskara «la lengua vasca ciudadana» bihurtu behar dela esango du Santamariak<sup>43</sup>, euskara berpizteko aurrebaldintza.

Gauzak ez «gazteen» (ideologoen) eta ez «zaharren» (mitozaleen) aldetik ibili dira, beti, Santamariaren gustuko eran.

Behin, beren buruei «64ko belaunaldi berri» autozeritzon gazte andana batek<sup>44</sup> itxuragabeki harro eta zakar eraso zielako, bere ustean, bi euskaltzale errespetagarri helduri<sup>45</sup>, Santamariak eman zien ihardespén garratza gogora genezake alde bateko adibide gisa<sup>46</sup>. Beharbada, orokorki esan daiteke batasunaren gerra —guk honelakoxe paradoxak erabiltzen ditugu—, aukera-aukeran, behar baino agresibitate ideologiko sakatsagoz eramán dela Santamariaren gogorako.

Con sus haches afiladas y puntiagudas, como lanzas o como tridentes, hieren la sensibilidad de sus venerables predecesores y les hacen sufrir en lo más vivo de sus almas. Ahora bien, cuando vean ustedes que las gentes se acaloran y se apasionan por cosas que parecen nimiedades, pueden asegurar que, tras la aparente trivialidad de estas mismas cosas, se ocultan problemas y cuestiones más vitales y decisivas [...]. Yo me atrevo a pensar que los jóvenes hachistas o h-zales tratan de denunciar por ese medio un convencionalismo que hace del euskera el ingrediente esencial de una concepción silvestre, ingenua, patriarcal, pastoril, selvática y *baserritarra* de la cultura y de la *cosmovisión* vasca, si es que a esto se le puede llamar cosmovisión [...]. A ese selvatismo quieren oponer una visión moderna y universalista de nuestra cultura, en lo que, sin duda, chocan con los hombres de otras generaciones. Por eso apasionan tanto esas haches y resulta que el escribirlas o no escribirlas está cargado de un sentido trascendente y terrible<sup>47</sup>.

Alderantziz, euskara batuaren etsai gehienek «beste euskara batu» hobe baten aitzakia atera ohi baitzuten eskuarki, Santamariak «balizko ola» zale deritze.

EAJ-PNV ingurukoak ziren horietako asko, eta Alderdiaren bitartez lortu nahi izan zuten bestela ez zeukaten eragina kulturean. «En una reciente asamblea del partido vasco mayoritario se ha discutido sobre este asunto, navegándose sobre un fondo de temas gramaticales respecto de los cuales una asamblea política de esta naturaleza no parece tener una especial competencia técnica», komentatu zuen Santamariak nahikoa itzalekin, baina franko garbi, Alderdia prozedura okerretan sartu zela adierazteko. «El euskera no es una cosa política ni el patrimonio de un sólo partido»<sup>48</sup>. Euskara bizitzeko, ez beneratzeko, nahi bada, nolabait «itsustu» beharra dagoela ongi ulertu du Santamariak, eta eraginkorki gutxik bezala bultzatu du berak proiektu hori. Euskara batu egin behar da publikoa izan dadin, eta hiztegia modernizatu egin behar da, baliagarria izan dadin alor guztietan. Gaurko munduari egokitu nahi bazaio, arrazoitzen du,

... gaurko ideiak eta arazoak erakusteko hitz egokiak aurkitzea beharrezkoa dugu. Euskera sail guztietan sartu nahirik ari garen 'intelektualok' begi txarrez ikusten gaituzte euskaltzale batzuek. Beren euskera gozo-gozo eta jator-jator gorde nahi dute. Baina beren euskera eme eta gozoarekin besterik ez badira jarraitzen, egunen batean euskera besoetan hil zaiela aurkituko dira<sup>49</sup>.

### Horregatik,

... euskera bere atsegin eta solaserako megaterio ikusgarritzat hartzen dutenak kalte handia egiten diote euskerari. Folkloristak, puristak eta beste horrelakoak, barneko etsai dira, besteen artean, nahiz eta berak ez jakin<sup>50</sup>.

Bizia nahi den guztiarentzat balio du funtsean gogoeta modu horrek. Hala arrazoitu du arrazoi hori bera, euskal folklorea «puru-purua» gorde nahi luketenen aurka, beste batean:

La vida de los pueblos, su modo propio de ser, la personalidad de cada uno de ellos, sus lenguas y tradiciones, son para mí algo muy importante. Algo por lo que vale la pena de luchar, porque en ello va implicada una gran parte de nuestra modesta y pequeña felicidad terrenal. Estoy persuadido de que el hombre, todo hombre, necesita una tierra, con su limo y su sustancia, y sus jugos fecundos. Privarle de ella, desarraigar al hombre, transplantarle sin miramiento alguno, me parece un crimen contra la Humanidad. Pero esto no significa que al hombre haya que encerrarle, condenarle a repetirse, dentro de moldes fabricados por generaciones anteriores. Cada generación debe traer lo suyo, como nuevo. Así, cuando en nombre del folklore tradicional, del que nos viene del pasado, se trata de condenar el folklore vivo, el que está naciendo ahora, importado quizás de América —todo ha sido importado de alguna parte—, entre estruendo de guitarras electrónicas, creo que se comete un error. Porque sin fecundación no hay multiplicación de la especie<sup>51</sup>.



### ***Euskara irakaskuntzan***

1965-1966 aldera, Santamaria hasi da ja eskola eskatzen euskararentzat (Estatuari)<sup>52</sup>. Hizkuntzaren berpizkunde apal bat sumatzen da, batez ere gazte auzart batzuen ekimenari eskerrak, abiatu baitute «la difícil tarea de utilizar nuestra vieja lengua —siempre decimos esto de vieja— como vehículo de expresión de ideas modernas»<sup>53</sup>. Baina ez da aski gazte batzuen borondatea eta ahalegina.

A mi juicio, el Estado debe proporcionar los medios necesarios para que el trabajo de revitalización y de actualización del euskera pueda ser llevado a cabo del modo más eficaz posible. Yo lo considero como un deber del Estado y no vacilo en afirmarlo así, en función de principios de derecho natural, que hoy son admitidos y reconocidos entre nosotros por todas las personas cultivadas [...]. Para ello se requiere llevar al vascuence a la escuela, implantar en ésta ciertas enseñanzas que permitan a los vascoparlantes, a los euskeldunes, el leer y escribir en euskera. Es necesario implantar un *bilingüismo inteligente*, que no sea una imposición para nadie, sino un medio de completar y fortalecer la personalidad del niño euskeldun<sup>54</sup>.

Zuhurtasunez jokatu beharra egongo dela, eta abar, zer esanik ez.

Elebitasunak oraindik urte horietan proiektu zaila zirudielako edo,

Europar bertan uste baino ugariagoak dira bi-mintzetako gizon-emakumeak —saia-tzen zen Santamaria argitzen—. Baita ere herri batzutan, Suiza bezala, asko hiru hizkuntzetaz mintzatzen dira aietasun izugarriaz, neronek ikusia daukadanez. Hortan jokurik nagusia eskolak egiten du, zalantzarik gabe. Gaurko eskolak ez du mintza bakarrekoa izan behar, baizik bi-mintzetakoa gutxienez. Hori maixu askok esango dizute mundu guzian<sup>55</sup>.

Sukaldeko euskalki xaharren doinua gozoago zutenek euskara batu modernizatuari muzin egin dioten antzera, zenbaitek ezetsi egin du euskara eskolan sartzeko asmoa ere, ahozkotasunean datzalako-edo apika haren esentzia. Euskara baino gehiago haren antzinasuna-eta maite dituztenekin, beti dago edozein ilargi adarretan bukatzeko arriskua<sup>56</sup>. Puntu horretan, Santamariak ez du saihestu polemika hizkuntzalari entzutetsuekin.

Jakintsu honek merezi duen errespeto guziaz, ez nator bat oraindik orain Donostiako egunkari batean Menéndez Pidal jaunak esan duenarekin, alegia, euskera gordetzeko eta salbatzeko eskolak balio ez duela. Nire ustez, aldrebes esan behar da, euskera heriotzaren atzaparretatik askatzeko biderik onena edo, egia esateko, bide bakarra, eskola dela<sup>57</sup>.

Eskolak bideraturiko elebitasuna, hain zuzen. Harrigarria bada ere, Santamariak esango du Afrikako edozein bazterretan hemen baino hobeto konponduta

daukatela problema hori, batere problemarik gabe. Estatuak eskola ongi antolatzean datza kontua.

Estadoak benetan euskera salbatu eta sendotu nahi baldin badu —eta nahi behar luke, hori politika ona eta zuzena izango bait litzateke nire iritziz— beste biderik ez du: merezi duen ohore guziekin, euskera eskolan sartzeko ahaleginak egitea, ikasleak gaztelera eta euskera batean ondo landu eta sakondu ditzakeen gisaz<sup>58</sup>.

Behin eta berriz, urte horietan, Estatuaren zorra, eginbidea aldarrikatzen du Santamariak<sup>59</sup>.

El vascuence debe entrar de alguna manera en la escuela y debe incluso entrar con todos los honores como corresponde a un idioma de su categoría ancestral. En nuestro país hemos llegado a un nivel de cultura y de desarrollo dentro del cual el mantener el vascuence en una radical situación de inferioridad respecto de las lenguas cultas, equivaldría a condenarlo a muerte [...]. A mi juicio no hay término medio. O el vascuence escrito se enseña en la escuela o el vascuence oral morirá pronto<sup>60</sup>.

Ez dago zertan pentsatu horiek euskaldunon arazo partikular beste edonon ezohikoak direla, auzoko auzokeriak, betiko gure hisiak eta temak, Estatuak ba-duela beste aurreragoko zereginik.

También las grandes lenguas plantean sus reivindicaciones y defienden su 'clientela' cada vez que se encuentran en situación minoritaria. Así los franceses reclaman la enseñanza de la lengua de Molière en el Valle de Aosta y propugnan la plena expansión cultural del francés en el Canadá. La lengua española ha dado relieve, con justa razón, hace unas semanas, a la noticia de que en Norteamérica los niños hispanófonos serán educados en español. España y varios países de Iberoamérica reclamaron asimismo ante la UNESCO la defensa del español en las Islas Filipinas. Como resultado de ello la Conferencia General de la UNESCO aprobó en 1966 una resolución en virtud de la cual una comisión especial acaba de llegar a Manila para estudiar sobre el terreno la implantación del castellano como lengua escolar cuando de alumnos de familias hispano-parlantes o hispanófilas se trate<sup>61</sup>.

Aitzakiak aitzakia, hari ez dagokiola, edo arazoa bihurria dela, Estatuak ez dauka beti luzamendutan luzatzen ibiltzerik, horrek ez duelako odola txartu eta problema areagotu baino egiten<sup>62</sup>. Estatuaren esku-hartzea nahitaez eskatzen duten euskaldun «analfabetoen» munstrokeria alegatzen du Santamariak.

Hace todavía poco tiempo alguien se echaba las manos a la cabeza al leer en un periódico la noticia de que el noventa por ciento de los vasco-parlantes son analfabetos [...]. Sin embargo, el alfabeto castellano y el alfabeto vasco son prácticamente el mismo [...]. No se comprende, pues, cómo se ha podido llegar a esta situación, si no es por la incuria de unos y el desafecto de otros hacia la vieja y venerable lengua. De todas maneras, este tipo de ignorancia resulta, desde el punto de vista cultural y humano,

un poco monstruoso. Es una de esas reliquias del pasado que conviene borrar lo más rápidamente posible. Toda persona culta sabe que en una época como la nuestra una lengua no puede permanecer viva si no cabe considerarla como vehículo de expresión y de comunicación escrita<sup>63</sup>.

Eskola-irakaskuntzatik unibertsitate-irakaskuntzara, hura edukitzea edo lortzea izan da aurreneko problema, urteetako ahalegin luzea<sup>64</sup>. Baina bigarrena unibertsitatean euskara sartzea da. «Euskal Unibertsitatea» eraikitzea, «Euskal Herriko» soila barik<sup>65</sup>. UPV/EHUk Santamaria jauna honoris causa doktore izendatu zuelarik, omenduaren hitzaldian, haren pentsamenduarekin eta ibilbidearekin koherentzia osoan, errebindikazio eta itxaropen horixe izan da ia puntu garrantzizkoena<sup>66</sup>.

### ***Euskara prentsan: egunkariaren premia***

Bitxia da nola Santamariak eskolaren osagarri bezala ulertu duen egunkariaren premia. Begira, 1979koak dira haren hitz goiztiarrok:

Egiako herri zibilizatu batean garen erakutsi nahi badugu, Euskal Gizartearen mar-txa bultzatu nahi badugu, euskal egunkariaren konbatea irabazi behar dugu euskaldunok. Bi konbate batera: euskal egunkaria eta euskal eskola. Bi konbate horiek irabazteko kapableak garela frogatu arte, burua jasotzeko ere ez dugu deretxorik izango<sup>67</sup>.

Euskal prentsa sendotzen, ez *Jakin*-en alde bakarrik, hainbat lan egindako Santamariak fedearen indarra eta bihotzaren arrazoia ikusten ditu oinarrian, ezer egiteko euskararen berreskurapenean.

Utzi aitzakiak, utzi sasi-prudentziaren kontsejuxarrak. Utzi, baitere, bakarkeria eta integritismoa, eta lanari ekin, bildurrik eta alperkeriarik gabe. Saiatu, behintzat, zuen bihotzak eskatzen dizutena egiten. Eta ikusiko duzue, bihotzak, garbi denean, beti arrazoia daukala<sup>68</sup>.

*Argia* berpiztu nahi izan zutenean, euskaltzaleen artean nolako etsipena eta eszeptizismoa kausitu zuten gomutatzen da Santamaria argitalpen horren 200. zenbakian («ikusitako baino lehen sinistu, gutxi izan ziren sinistu zutenak») euskal astekari bat posible zenik).

Badakizue zergatik taldetxo honek, eta batez ere bere sortzaile jatorra den Aita Agustinek, aurrera jarraitu zuten, hain beltza horizontea jartzen zieten arren? Fedea, fede pixka bat, zeukatelako<sup>69</sup>.

Haatik, astekariak edo hilabetekariak, kultura-aldizkariak, beste gauza bat dira hizkuntzaren historian, egunkaria baino.

## EKINTZA

Egunkari bat herri baten eguneko azalpena izan behar da. Egunkariak, herriaren bizitza erakusi behar du, egunez egun [...]. Ohar araz dezagun, egiazko egunkaria artikulu eta entsaioak egitean ez dago, baizik berri bizi-biziak ematean. Eta azkar eman gainera, zeren gaurkoaren berria bihar goizean kondaira zaharra bihurtzen bait da.

Bestaldetik euskal egunkarian erabiltzen den hizkuntza guztiz arin, argi eta jator izan behar da. Adibidez, albisteen tituluak eta fotoen oinak jartzea, arte berezi bat da, egunkari honetan bertan [*Egin*] maiz ikusten den bezala. Hitz laburrak, argiak, mami-tsuak eta ongi aukeratuak. Egunkariak literatur mota berezi bat eskatzen du berez<sup>70</sup>.

Beraz, hizkuntza bera prestatzeko eta irakurleria trebe eta interesatu bat prestatzeko erronka bikoitza dago berriro euskararentzat, hots, modernitatearen apustua, parioa. Diruaren arazoa, eta abar, aparte,

... nere ustez euskal prentsaren egiazko problema gure herriaren kultura eskastasunean dago, besteak beste. Lau euskaldunetik batek bakarrik dauka euskaraz irakurtzeko behar den erraztasuna. Beraz prentsa eta eskolaren problemak guztiz loturik daude elkarrekin. Euskal prentsa eta euskal eskola batera hazi behar dira<sup>71</sup>.

Batak bestea eskatzen dute horiek, osagarri eta lagun.

Santamariak aspaldi jada garrantzia goren-gorena, ia noraezekoa, ematen zion euskarazko egunkariari, euskararen bizitzarako, eta ikastoletako lan guztiak atarramenturik izateko:

Egiazko euskal egunkari batzuk lortu arte, desdiglosiaren bidean ezer ez dugula egin, esan daiteke. Egunkaria da, hain zuzen, gaurko euskara diglosiko eta flakatuarentzako demarik handiena eta beharrezkoena<sup>72</sup>.

## Hezkuntza

Demokrazietan gertatzen ari da haien barnean egunero gehiago hazten ari dela demokraziaren kontraesana: pribatuaren eta publikoaren oposizioa.

Si en una sociedad determinada cada hijo de vecino quiere tener su coche mientras los *transportes públicos* están por completo abandonados; si las familias acomodadas le hacen ascos a una *Sanidad pública* insuficientemente atendida; si unos pocos privilegiados pueden gozar de sus preciosos jardines al mismo tiempo que los *parques públicos* brillan por su ausencia o por su estado de deterioro [...], ¿cómo puede hablarse de verdadera democracia?<sup>1</sup>.

Paisaia ederra, kutsatu gabeko atmosfera, kale artez urbanizatuak, herriko lorategi apainak, telebistako zerbitzu aproposa, «ongi komunekoak» dira beren naturaz. Demokrazia modernoaren ezaugarriak izan behar lukete publikoa indartzea, hedatzea, prestigioa ematea; ondasun publikoen ardura eta gozamina hiritar guztien aldetik. «Lo que mejor caracteriza a una democracia es quizás la extensión y difusión de los bienes públicos y el modo de administración de los mismos»<sup>2</sup>.

Eskola publikoarena da problema horren kasu partikular bereziki kontuzkoa. Eskola publiko onik gabe ez dago eraikitzerik demokrazia. Baina, gure gizartean, guraso askok erdeinatu egiten du eskola publikoa, umeak ez ditu bidali nahi hara, «ume pobreen» eskola antzean ikusten du. Eskolaren arazoa funtsezkoa da demokrazian. Are gehiago, komunitate desegin bat birlotzeko lana daukan demokrazia batean, orain gure egitekoak dioenez.

### ***Eskola publiko autonomoa***

Eskolak sortzen duen interesen borroka da, horietan jokatzen delako ideologien geroa. Zehatzago, Estatuak eskolaren bidez segurtatzen du bere segurtasuna; «ez-Estatuak», aitzitik, eskolak mehatxatua ikusten dizu bere existentzia<sup>3</sup>.

Althusser afirma que el Estado y la sociedad capitalistas tienen en sus manos numerosos aparatos para asegurar la reproducción de sus sistema ideológico; pero que *el más poderoso de todos esos aparatos es la escuela*. Mediante la escuela —escribe Althusser— las clases dominantes imponen a los jóvenes la continuidad de su ideología<sup>4</sup>.

Eskola «konfesionalaren» gatazka gorri guztia hor sustraitzen da: guraso fededun anitzek uste dute, izan ere, bizitzan funtsezkotzat jotzen duten prestakuntza

erlijioso ezin gera daitekeela beren umeen eskolatik landarako, eremu bazterreko baterako hezkuntza-sistematik lekora; aitzitik, umeen heziera osoa atmosfera erlijioso batean gauzatu ahal izatea ziurta diezaieketen ikastetxeak eskatzen dituzte.

Bestetik, badirudi Estatuak ez daukala konfesionala izaterik, hots, doktrina erlijioso nahiz filosofiko bat bere egin eta eskolan mundu guztiari, gustatu ala ez gustatu, ezartzerik. Zer egin?

Aurreneko, bi gauza:

... hay una cosa que a mi juicio está perfectamente clara, y es que la enseñanza pública debe ser revalorizada, eficazmente dotada y renovada. Debe devolverse el optimismo y la confianza en sí misma, por tantas causas destruidas<sup>5</sup>.

Ez dago nahi izaterik, konfesioaren aitzakiaz, eskola konfesional edo «pribatuak», kalitate hobekoak izaten direlako bakarrik; hau da, gizarte demokratiakoan ez dago edukitzerik Administrazio publikoaren eskola eskasagoak Administrazio partikularrenak baino. Bestela, konfesioaren edo kontzientziaren eskakizunen aitzakiaz, kalitatearen hobespena soil ezkututzen da. Aurrena, hori. Eta bigarren: «Los centros públicos deben gozar de una amplia *autonomía*: la dictadura de la Administración debe ser desterrada»<sup>6</sup>. Alegia, Administrazioaren gauzaeztasuna ere ez dago estaltzerik publikoaren ohorearen aitzakiarekin. Askotan, publikoaren eskakeria aitorrezina baino ez baita izaten «pribatuaren» aurka edukitzen den guztia.

Hau da, publikoarena eta pribatuarena oposizio faltsua da, eta aspaldiko auzi alferra: egiazko arazoa eskola bakoitzaren autonomiarena da; eskola bakoitzak izan behar duen proiektu, gorputz, elkargoarena.

Eskola proiektu bizi bihurtzeko lehenengo problema, ordea, Administrazio publikoaren beraren aldetik sortzen da.

De los tres sectores humanos que fundamentalmente constituyen la escuela —alumnos, padres, profesores— sólo los dos primeros pertenecen al entorno humano en el que aquella se halla inserta. Tal como hasta ahora se han venido haciendo las cosas, resulta el absurdo de que el tercer sector —los profesores— sea en muchos casos foráneo y por completo extraño a ese entorno. La verdad es que el azar es el que viene rigiendo en la cuestión fundamental de la distribución del profesorado. La provisión de plazas se realiza, en efecto, exclusivamente, en razón de los derechos del funcionario sin tener en cuenta para nada los derechos de cada centro. Así ha venido a ocurrir en los últimos años que funcionaba el ordenador electrónico sobre la base decisional de la antigüedad del peticionario. *De esta manera el que manda es el escalafón*. Un escalafón que —naturalmente— ni ve, ni siente, ni le importa, lo que ocurra en este o

aquel centro. Sistema que podrá ser muy igualitario, si se quiere; pero absolutamente destructivo para la personalidad de cada escuela. Para corregir esta deficiencia radical es, pues, preciso modificar el sistema de selección del profesorado [...]. En cualquier caso [...] yo diría que *una escuela despersonalizada jamás podrá ser la escuela de todos, como se pretende, sino más bien la escuela de nadie*<sup>7</sup>.

Beste problema bat irakasleen aldetik etor daiteke, karia delarik «la reivindicación que hace el sector enseñante de su propia independencia profesional en el ejercicio de su función docente»<sup>8</sup>. Santamariak Frantziako hezkuntza-politika komentatuz tratatu du alderdi hori, eta irakasleen mendetasun faltari mugak ipintzeko boteretzat hartzen du hura. «Se trata de una *forma de poder*, a la que yo llamaría el *poder profesoral*»<sup>9</sup>. Botereak, demokrazian, kontrol publikoaren pean egon behar du. Ideia horrekin, Santamariak pasarte hau aldatu du *Le Monde* egunkaritik: «Los profesores deben reconocer que su actividad profesional es una *fuerza de poder* sobre los niños y sus familias y que, por tanto, la misma ha de estar sometida a un control social»<sup>10</sup>. Irakasleak Administrazioarekin eta gurasoekin partekatzen ditu bere eskumenak. «Debe irse —darrai Santamariak aipaturiko egunkaritik aldatuz— hacia un sistema de *gestión escolar tripartita*, que reúna, a partes iguales, administración, profesores y padres»<sup>11</sup>.

Eskolak bere buruaren jabe izan behar du: eta eskolaren gestioak Administrazioaren, irakasleen eta gurasoen artean partekatua.

### ***Eskola laizista?***

Laizismoa sortu da laikoen eta klerikoen munduen artean oposizioa ezartzetik, laikoaren «munduko» egitekotzat hartuz politika, zuzenbidea, ekonomia, zientzia, eta abar, eta klerikoen mundutzat ulertuz «Eliza barruko aferak»: laizismoak, aurrenik, esfera bien arteko etena bilatu du, hots, positiboki formulatzeko iragan historikoari buruz, mundu laikoaren mendetasun falta Elizaren munduarekiko (zuzenbidearen, eta abarren, Estatuaren autonomia). Borroka laizistaren sustraiak (galikanismoa, josefinismoa, etab.) ikus daitezke Estatu katoliko absolutistek Ilustrazioan beren eskumenak handitzeko egindako senperrenetan Erromaren edo Eliza aparatuen aurka (XVIII). Frantziako Iraultzaren ondoren, hau da, iraultza liberal edo burgesaren joan-etorri herrestatuetan, XIX. mende luzean zehar, garatu da propioki laizismoa (antiklerikala, etab.), non eta hain zuzen, behar zuen garaietan, Erdi Arotik irteeran, Estatuaren eta Elizaren arteko harremanen auzia konpondu gabeko eskualde katolikoe-tan, erromanikoetan (iraultza erlijiosoa egin ez zutenetan), gatazka politiko eta ideologiko gartsuenak piztuz, desgaraian Erdi Aroa gainetik hastandu ezinda.

Gatazka laizistaren gailurra esan dakioke eskolaren inguruan izan denari, hasi «Ferry Legearekin» Frantzian (1882), segi Pio XI.aren laizismoaren kondenarekin *Quas primas* entziklikan (1925), eta —Espainiako estatuaren kasuan behintzat— 1936-1939ko Gerra Zibilera arte.

Ipini ere, libertate eta errespetuzko espirituan askatzeko, eskolak ipintzen ditu korapilo zailenak. Nola oinarritu, izan ere, konfliktoan, «moral publiko autonomo» bat ez-ideologikoki? Hau da, Elizatik eta erlijiotik libre izateko arrazoiak bere neutraltasun ideologikoa alegatzen duen eskola batek zein ideologiatakoa izango du bere ez-ideologia? Santamariak ohartu duen gisan,

... en realidad en la postura de Ferry había una contradicción de fondo. Pretendiendo ser el paladín de la neutralidad y del respeto a todas las ideologías, él mismo introducía una escuela jacobina, no menos ideológica que cualquier otra y con la agravante de ser obligatoria. «En las escuelas confesionales —decía Ferry en 1879— los jóvenes reciben una enseñanza dirigida contra las instituciones republicanas. Si esto sigue así es de temer que pronto se abran otras escuelas para los hijos de los obreros en las que se enseñen principios diametralmente opuestos, inspirados en un ideal socialista o comunista, es decir, el ideal de ese reciente período, violento y siniestro, comprendido entre 18 de marzo y 24 de mayo de 1871». (Se refería así a la Comuna de París). De esta suerte Ferry aparecía como un defensor de la neutralidad, colocándose a un mismo tiempo frente a '*la intolerancia y el oscurantismo de los curas*' y a la '*barbarie de los partidarios de la Comuna*' y de los socialistas y comunistas de la época. Pero esta *presunta neutralidad* no existía en realidad, ya que las escuelas de Ferry llevaban a su vez una carga ideológica, superior quizás a la que por aquel entonces pesaba todavía sobre las escuelas religiosas. Se trataba, en el fondo, de una especie de *religión laica* identificada con el patriotismo burgués-jacobino del *Estado-nación* de la revolución francesa<sup>12</sup>.

Estatu modernoak, bere burua edozein arriskutatik hobeto segurtatzeko, bortxarenetik esaterako, beretzat bakarrik segurtatu nahi ditu hiritarraren pentsamenduak, aztura sozialak, moralak, berak ere monopolioa hezteko. Estatuaren defentsa hori eskolaren defentsa bezala janzten da.

II. Errepublikak erradikaldu zuen, nahikoa berandu, Espainiako estatuan borroka laizista.

La República laicizó rápidamente los centros públicos de enseñanza, mandó descolgar de la noche a la mañana los crucifijos de las escuelas y puso serias dificultades para el funcionamiento de las instituciones docentes de carácter religioso. Con todo ello hirió profundamente las conciencias de miles y miles de padres que querían —con pleno derecho— imprimir a la educación de sus hijos una orientación básicamente cristiana. Las medidas aludidas produjeron un gran malestar en buena parte de la sociedad española y contribuyeron manifiestamente a preparar el terreno apropiado para el golpe del treinta y seis<sup>13</sup>.



Santamariak uste du laizismo hori («laicidad de combate»)<sup>14</sup>, muturreko joeretan polarizaturiko gizarte batean, Estatu lehiakor ez-segururu eta Eliza ikaratu erreakzionario baten arteko lehia-giroan esplikazioa eduki zezakeena, iragane-ko kontua dela jada.

Hoy hablan algunos en Francia de la necesidad de ‘*una nueva escuela laica*’ más abierta, menos intolerante, menos ideológica que la de Ferry [...]. Por otra parte, del lado cristiano, otros abogan por ‘*un nuevo espíritu de la enseñanza religiosa*’ más conforme al Concilio y al principio de la libertad religiosa por éste enunciado. ¿Se dan así las condiciones para una posible convergencia entre las dos tendencias?<sup>15</sup>.

Laizismo oldarkor zaharraren lekuan (non eskola Estatuaren instrumentu baita), laikotasun abegikor batek («laïcité d’accueil»)<sup>16</sup> agindu ahal izango luke honezkero eskolan, gurasoen borondatearen errespetu guztizkoan<sup>17</sup>. Soluzioa eskolaren autonomiaren bide beretik letorke, eskolaren kudeaketan gurasoek parte hartzetik.

Yo creería en la posibilidad de un sistema educativo abierto o plural siempre que los padres de los escolares ocupasen en la escuela el lugar que les corresponde y que hasta ahora [1981] —digámoslo paladinamente— nunca han ocupado<sup>18</sup>.

### ***Hezkuntza unibertsitarioaz***

Behin eta berriro aipatu izan du Santamariak, alde on eta alde on baino agian zerbait gutxiago iritziz, «Misión de la Universidad» Ortega y Gasseten hitzaldia, Madrilen emana 1930eko udazkenean Unibertsitate Zentraleko Paraninfoan. («Yo asistí a esa conferencia», gogoratzen du Santamariak)<sup>19</sup>. Ortegaren arabera, Unibertsitatearen eginkizuna da kulturaren transmisioa; hau da, belaunaldi bakoitzak munduaz eta gizatasunaz ideia batzuk biribiltzen ditu, eta ideia horiek hurrengo belaunaldiari helarazten, irakasten dizkio Unibertsitateak<sup>20</sup>.

Zer pentsa, ordea, jarraitutasun eder horretaz krisialdi batean, «en una época en la que el choque de las generaciones marca el signo de nuestra civilización»? Kultura zer den bera krisian daukagunean?

Hasteko, zokoratu egin behar da Unibertsitatea kultura-trasmisioaren leku-une pribilegiatua delako, are kulturaren iturri izan daitekeelako ustea.

La cultura universitaria no es toda la cultura, sino sólo una parte o un modo de la cultura. Más aún: la cultura universitaria ni siquiera representa lo esencial o lo más importante y sustancial de la cultura.

Unibertsitatean baino lehen, barrenago, funtsezkoago, jatorrago, herrian dago kultura, gizartean, familietan eta gizabanakoen baitan; kulturak erabat gainezkatzen du esfera «intelektuala» ere, eta gehiago unibertsitarioa.

El verdadero hombre culto —Graziano Anduaga ikusita daukagu, Gesaltzako aitona— no es siempre el intelectual, sino también, de muchas maneras, el hombre sencillo, el hombre de la calle, el hombre del campo, al que muchos consideran como un hombre inculto, y que sin embargo se alimenta de viejas sabidurías transmitidas a través de experiencias humanas a lo largo de miles de años [...]. La cultura genuina no es la cultura intelectualizada, la cultura pensada, escrita o enseñada, sino la cultura vivida<sup>21</sup>.

Santamariak bereizi egiten ditu kultura subjektu bezala eta objektu bezala. Hizkuntzaren antzera<sup>22</sup>, kulturak ere eduki gauzka, hartan eta hartatik muskilduak gara, hark eusten gaitu, egiten gaitu<sup>23</sup>, subjektua da, «principio de acción y de creación que encarna en el hombre y lo transforma; que no puede ser plasmada en letras ni en palabras»<sup>24</sup>.

Kulturaren (hizkuntzaren) subjektutasuna modu horretan bururatzeak gure giza askatasun eta nortasun indibiduala ezaba liezagukeela beldur direnen aurka, Santamariak kultura-objektuan ikusten du egiazko zemaia, haren aginte-formetan zehazkiago. Ortegaren arabera, kulturaren transmisioa aginte-transmisioa da.

La Universidad tenía que formar a los cuadros dirigentes: médicos, abogados, ingenieros, profesores, etc., Por la Universidad tenían que pasar los hombres destinados a mandar en la sociedad<sup>25</sup>.

Horrelako unibertsitate batean, langileek eta langileen umeek ez daukate, noski, zer bilaturik. Santamariak Ortegari kontraproposatuko dio, orduan, batetik, Unibertsitatea ikasgura guztiei zabaltzea<sup>26</sup>; bestetik, Unibertsitatearen eginkizuna bera jatorrizko adieran berrartzea, hura kultura-tresna bezala, ez Estatu-tresna bezala, ikusiz.

Cuando, en la Edad Media, nacieron las primeras universidades, la finalidad de éstas era instruir a los jóvenes en las letras sagradas y en las escasas ciencias que por aquel entonces poseía la Humanidad [...]. Esta y no otra era la finalidad de las aulas: enseñar y aprender *los saberes*<sup>27</sup>. Si al estudiante se le premiaba, en el mejor de los casos, con algún 'oficio', era éste de poca monta y de ningún mando, porque la mayor parte de los que entonces mandaban en la sociedad, ni eran universitarios, ni se les pasaba por las mentes que sus hijos lo fueran. La Universidad era sobre todo un foco de cultura<sup>28</sup>.

Gero etorri da Estatuak hori ere bere zerbitzuan hartzea, lotzea eta saritzea, une berean, aparatua eratzeko. Hori, beraz, ez da Unibertsitatea bera *tout court*, baizik Unibertsitate molde konkretu bat, Unibertsitate garaikide burgesa, estatu mailakoa, napoleonikoa, ez daukaguna zertan ereduak bihurtu eta betikotu.

A partir del siglo diecinueve, frente a la universidad del espíritu aparece un nuevo modelo de universidad, la ‘Universidad del poder’. Napoleón fue el primero —quizás— que se dio cuenta de la enorme importancia que tenía la Universidad para el manejo del Estado. Mucho antes que a Ortega —naturalmente— a Napoleón se le ocurrió la idea de que en la Universidad se les debía enseñar a los jóvenes a mandar y que de ella habían de salir los dirigentes políticos de la sociedad francesa. Para esto era necesario que la Universidad fuese puesta en manos completamente seguras. «Contra las teorías perniciosas y subversivas del orden social, formaremos —escribe Napoleón— un cuerpo de enseñantes disciplinado y sólido, los cuales serán funcionarios del Estado, y todos los órdenes de la enseñanza quedarán sometidos a ellos». La Universidad se convertía así en lo que alguna vez se ha llamado *el gendarme de la inteligencia*<sup>29</sup>.

Santamariak aurreratzen diguna ez da Erdi Arora itzultzea. Da, Unibertsitate garaikideak Erdi Arokoak baino nahitaez bestelako eginkizunik ere bai baitu, funtzioak ez nahastea eta ez jartzea denak boterearen interesen guztiz menpean. Unibertsitatea ez bihurtzea, alegia, Estatuaren zerbitzuko bulego publiko handi bat.

En la universidad española se confunden hoy dos instituciones que de suyo son distintas y corresponden a funciones diferentes dentro del cuerpo social. (Y si me apuran no dos, sino tres, porque habría que añadir también la de la investigación con fines utilitarios). En primer lugar está esa obligada fiscalización de los conocimientos o de la preparación ‘intelectual’ de los profesionales, que han de ejercer en la sociedad determinadas funciones (médicos, abogados, ingenieros, etc.). Es esta, en principio, una función del Estado, porque en último extremo es el Estado quien garantiza la capacidad técnica de los profesionales mediante la expedición de títulos en los que se hace constar esta competencia. Es una función muy importante que el Estado puede delegar en otras instituciones no dependientes de él, como ocurre en muchos países, pero, en definitiva, algo puramente policial o administrativo, que no tiene gran cosa que ver con el ansia de cultura y de saber que caracteriza el verdadero espíritu universitario. Esta segunda función constituye realmente la esencia del quehacer universitario y su grandeza propia<sup>30</sup>.

Bukatzeko, bada, puntu hau: aurrenik, Unibertsitatearen xedea ez da kulturaren transmisioa («gauzak»), baizik kultuen prestakuntza («pertsonak»). Eta partikulariki: «La universidad no debe seguir siendo un aparato de dominio y de reproducción de las clases superiores de la sociedad, como en gran parte lo ha sido hasta ahora»<sup>31</sup>.

Errazegi ahazten ez bada hori dena, beharbada ulergarriegia baino ez da gertatuko tesi marxista klasikoa, «que la cultura universal es pura ideología» eta «la ideología de una sociedad es el sistema de ideas de la clase dominante de la misma». Gertatzen da, horixe *del*a esanda, gure artean metafisiko batzuek handik ondorioztatzen zizutela horixe besterik ezin izan daitekeela eta kultura guztian

horixe beste ezer ez dagoela. Santamariak, hortaz, kultura (unibertsala) defendatu beharra izan dizu barbaro berrion aurka, indartsu eta errepikakor egin ere.

La cultura universal no es una ideología, no es un fraude impuesto consciente o inconscientemente por las clases dominantes, sino la expresión de una verdad, o de un conjunto de verdades y de experiencias válidas, logradas por el hombre en el curso de los siglos [...]. La cultura universal no es una cosa circunstancial o local, no es cosa de un momento o de una generación [...]. La cultura universal es integradora, es decir, se forma por una constante adición de valores y de descubrimientos vitales. El proceso de la cultura se realiza por continua integración de nuevos saberes y de nuevas experiencias. La cultura es, en este sentido, el patrimonio total de conocimiento y de vivencia de la humanidad. La cultura es el poso de muchas cosas espontáneamente vividas por hombres y mujeres que fueron nuestros antepasados: mitos, leyendas, creencias, organización política y social, prácticas morales, costumbres, descubrimientos científicos, creación artística, etc. etc. A la formación de la cultura han aportado su esfuerzo hombres de todas las ideas, de todas las clases, hombres creyentes y hombres incrédulos, dominantes y dominados. Sociedades de clase y sociedades sin clase han contribuido por igual a la formación de la cultura universal. La cultura universal no es una cultura ideológica, ni tampoco una cultura de clase.

Unibertsitatearen lana da kultura unibertsal —ideologia soil ez den— hori transmititzea, ikastea, laboratzea.

Hay en primer lugar una cultura a la que justamente llamamos cultura universal y que toda Universidad, todo centro docente que merezca este nombre, debe procurar transmitir a sus jóvenes discípulos sin partidismos ni particularismos. Es esta una aspiración fundamental que debemos dejar a salvo siempre y sobre todo en estos momentos de crisis.

Hona, krisiaren puntura itzuliak. Kultura unibertsal hori ez da bizkarretik bizkarrera pasa daitekeen haxe doi-doi taxutu bat. Ez da pakete bat. Ingurune uhintsua da, arrainaren bizitzeko ingurune naturala itsasoa den bezala, lehorra utzi eta nabigatzeko, kosta berriak aurkitzeko. Kultura bera «krisia» da beti, no-labait. Ez da egonleku ziurtatua<sup>32</sup>. Edukitasuna. Konkista baizik. Bilaketa, erro-mesaldia. Artegatasuna. Kontraesana, elkarritzeta.

Me diréis quizás que esta interpretación de la cultura universal es contradictoria, porque en el seno de ese inmenso patrimonio aparecen verdades contradictorias, creencias contradictorias, posturas y experiencias contradictorias. Esto es cierto. El mensaje de la cultura que la Universidad puede hoy transmitir a las nuevas generaciones, no es un mensaje armónico y coherente. No es una ciencia. No es una doctrina. Es más bien la expresión del carácter contradictorio de la existencia humana [...]. Ahora bien, puesto que el hombre lleva dentro de sí mismo la contradicción, la cultura por él creada debe también llevar el signo de la contradicción.

Baina, orain, zerbait hagitz larriagoa dago: fedearen krisia gizakiagan; Jainkoagan fedea galdu arren, humanismo ateistak halere bazuen gizakiaren fedea dago krisian. Horregatik, kultura osoa dago krisian (beste zentzu larriago batean, orain): «En medio de un mundo que cruje por todas partes, no debe intentarse alimentar la inteligencia de los jóvenes discípulos con falsas armonías platónicas». Eta Unibertsitatea bera dago krisian: «La propia Universidad está en crisis y nada tiene de particular que lo esté en medio de una civilización en crisis. Lo raro sería que la Universidad no lo estuviese».

Kroska horretan, kultura berria, gizadi berria asmatzeko adinakotsu bilakatzeko da hezkuntzaren egitekoa. Iraganekoaren transmisioari balio erlatiboagoa geratzen zaio, nahiz aitortu kulturak beti ere belaunaldien arteko eskualdaketa izan behar duela, harekiko berehalakoena, espiritu kritikoa izaki orain.

Creo, en efecto, que la Universidad debe infundir en los jóvenes un espíritu de insatisfacción, un espíritu de cambio, un espíritu revolucionario, digámoslo de una vez. Pero no tanto para luchar unos hombres contra otros, sino para luchar todos contra una civilización que aplasta al hombre. La revolución de hoy, o más bien, la revolución de un mañana inmediato que estamos ya tocando, es la revolución del hombre contra las máquinas.

Konkretuki, unibertsitateari gagozkiola, «la re-humanización de la ciencia, la re-humanización de la técnica» deritzo haren jomugari, Santamariaren begitan. Eta hemen ohar erabakigarri bat aurkitzen dugu:

El medio principal para esta re-humanización debe ser la vuelta a las raíces, la vuelta a una especie de silvestrismo, que estamos necesitando tremendamente, es decir, el ir a buscar la savia de la cultura en las culturas de los pueblos.

Hezkuntzak —Unibertsitateak— kultura-sustraietara jo behar du, unibertsaltasun zaharrarenak legez berriaren erroak herrian tinkotzeko.

### ***Langile ikasleak, ikasle langileak***

(Apunte laburtxo soil bat, Santamariaren kezka sozial bat jasotzeko hezkuntzaren kapitulu honetan)<sup>33</sup>.

Eskulanaren eta buru-lanaren oposizioa gainditzea bilatzen da. Baina oposizio oso adartsua da hori, eta estudiantearen arlora mugatuko gara orain. Bi gauza daude batera: langileari eskola goititu behar zaio, eta goi-eskola zabaldu behar zaio langileari.

Taylor-ek bere langileei esaten omen zien «debekatu egiten dizuet pentsatzea; horretarako beste batzuk daude ordainduta». Langileek erreminta mekaniko perfektuago batzuk bakarrik izan behar zuten. Hori bukatu da. Laborantzan nahiz industrian, langileek kualifikazio, erantzukizun eta kultura geroz handiagoa beharko dute efikazak izateko. Aro zibernetikoan, produkzioan ere izaki adimendun eta erantzuneko gisa interesatzen da gizakia, «subjektibotasun berri» bati atea irekiz. Krisia ekarri duen zibilizazio teknologikoak berak eskaintzen du hura gainditzeko posibilitatea. «El optimismo marxista y el optimista cristiano parecen converger en este momento en la idea de que el hombre va a salir engrandecido de la presente crisis»<sup>34</sup>.

Unibertsitatea langileei zabaltzeko arrazoiak ez dira produktibitatearenak bakarrik, bai justiziarenak ere, eta interes kolektiboarenak ere bai, ez baita ezer egiten aberaskume tentel batzuei karrera luzeak alferrik ordainduz, profesional trebeak behar direnean<sup>35</sup>. Justiziaz «erraztasun berdina izan behar dituzte, mundura etortzen diren haur guztiek. Nahiz pobreak, nahiz aberatsak, jakintzaren atea zabaltzeko behar zaizkie gazte deneri», horretarako bidea «ikaslearen alogera edo jornaia» izaki<sup>36</sup>.

Estatuak hori egiten ez duen artean, aukerak sortu behar dira gazteek lan eginez batera ikasi ahal dezaten.

Ya que, por el momento, las puertas están casi cerradas para el *trabajador-estudiante*, uno no puede menos de alegrarse al ver que la fecundación entre el trabajo y el estudio universitario tiende a realizarse por la otra vía, la del *estudiante-trabajador*<sup>37</sup>.

Alderantziz, «el estudiante no puede seguir siendo un señorito, un lujo de la sociedad. Por muchas razones, hasta para su propia formación y conocimiento del mundo, conviene que el estudiante trabaje»<sup>38</sup>.

### ***Hezkuntza unibertsalista bakerakoa***

Oraintsu arte, edo agian oraindik, Estatuak Estatuarentzat, Estatuaren alde eta, maiz, beste Estatuaren aurka hezi ohi zuen hiritarra. Hezkuntzak «patriotikoa» izan behar zuen. Engoitik, Santamariak gogoratuko du nazioarteko elkarbizitzarako hezkuntza izateko premia dagoela. Eta ez da hizkuntzak, eta abar, bakarrik, ikasi beharra dagoena, espirituak beste jarrera batera plegatzen baino. Gizadi osoa mehatxatzen duten arriskuak dauzkagu; gizadi osoa konprometitzen duten arazoak eta eginbideak. Baina, gainera, eguneroko gure errealitatean, telebista pizten dugula edo egunkaria edo nobela bat irakurri, edo errezatu,

... a cualquier campo de la actividad humana que se mire —religión, ciencia, economía, industria, trabajo, ideología, arte, espectáculo, diversión, deporte—, nuestro vivir de hoy es, y ha de seguir siendo cada vez más, un vivir internacional. A través de innumerables poros —cine, prensa, radio, turismo, cooperación, comercio—, lo internacional penetra continuamente en nuestras vidas personales e influye en nuestros gustos y en nuestras reacciones, sin que ninguna clase de murallas chinas pueda oponerse a esta internacionalización creciente de la vida humana. Hoy tiene, pues, perfecto sentido el hablar de una educación internacional de las masas<sup>39</sup>.

Premia den hori bada arriskua ere. Giro kulturalaren truke horrek larru bizian utz dezake gure konbentzimendu —erlijioso, moral, politiko— askoren moneta eskasa, arrunt krisian dagoen kultura batean gure krisi partikularra areagotuz.

En nuestro contexto histórico, las culturas, las patrias, como las ideas, como las mismas creencias religiosas, deben convivir en campo abierto, de suerte que los hombres las conserven ancladas y defendidas más por la firmeza de las propias convicciones que por la protección de externas armaduras. Pero para llegar a esto, para evitar que en esta convivencia en campo abierto los valores más elevados puedan disolverse y destruirse, es necesario realizar un gran esfuerzo educativo<sup>40</sup>.

Nola eraiki mundu berri bat?

Nola hezi umeak mundu berri baterako? Nola irakatsi, esate baterako, historia? Orain artean, izan ere, «ha sido presentada, casi siempre, como una sucesión de batallas. Las conquistas de unos pueblos por otros han sido glorificadas»<sup>41</sup>, etab. Arras aldatu egin beharko dira ikusmoldeok.

El estudio de la historia no debe servir, pues, para fomentar la soberbia colectiva, la idea de la prepotencia o de la superioridad de una nación sobre las demás, sino para rectificar conductas y enderezar actitudes: un gran examen de conciencia colectivo para el conocimiento de la verdad histórica, al servicio de la paz<sup>42</sup>.

Adibide konkretuetan alferrik luzatu gabe, krisian dagoen eta goitik behera datorren zibilizazioaren gaiarekin hartu behar da erlazioan proiektu hau, mundu-berri-gintza baten horizonte barnean.

Nos hallamos, pues, en una fase de confusión, y quizá también —aunque esto no pueda afirmarse nunca— de mutación radical, en el que la educación está llamada a desempeñar un papel de importancia primordial. Educación para la paz, para la convivencia internacional, para el entendimiento entre hombres de buena fe, aunque sean de razas, ideas o religiones distintas<sup>43</sup>.

## Demokrazia

Gazte euskaldun batzuek etorri zaizkit, demokrazia delako hori, zertan datzan galdezka.

Egia esateko demokrazia nolakoa den jakitea ez da erraza, gaurko egunean mota guzietako gobernuak bere buruak demokraziatzat agertzen baitituzte. Hor daude, esaterako, «demokrazia gidatua» eta «demokrazia herrikoa» deritzatenak.

Gobernu-molde horiek, demokrazia izena erabili arren, bestelako iduria dute.

Napoleon enperadorea izugarritzko demokrata zela uste dute batzuek. Herritik sortua, herrian ezartzen zuen bere itxaropen eta maitasun guzia. Baita herriak ere, berari jarraitzen zion, gogo beroz, Frantziaren handitasunaz zoraturik zeudelako. Matxinada handiaren dotrina bereganatu zuen eta Europa guzian sartu nahi ere. Bere burua jarri zuen giza-eskubideen zain.

Baina nik ez dut uste, gizon hura egiazko demokrata izan zedila.

Hitlerrek eta Mussolinik sortutako gobernu moldeak, demokratizatzen agertzen ziren beti, baina nik ezin sinestu dezaket jaun haiek benetako demokratik zirenik.

Gaurko Nasser eta Bumedien gobernuak, demokraziatzat hartu behar al ditugu? Eta De Gaulle jeneralarena? Eta Titorena? Eta Castrorena? Auskalo!<sup>1</sup>.

Anabasa bilakatuta dago, aurrenik, demokrazia izenaren erabilera eta, ondorioz, kontzeptuaren zentzua. Erregimen kontrakoentzat baliatzen baita izendapen hori. Bitxiki samar,

... a los enemigos de la democracia debería molestarles la palabra y sería lógico que eligiesen otra u otras, más genuinas, para expresar sus propias teorías políticas. Pero no es así. Vemos, por ejemplo, que los regímenes comunistas, a pesar de su carácter propiamente dictatorial, adoptan la denominación de 'democracias populares' y lo hacen con el mismo desenfado con que antes los totalitarios habían apelado sus correspondientes regímenes con el epíteto de 'democracias dirigidas'<sup>2</sup>.

Berdin, «demokrazia sozial», «demokrazia kristau», etab., esamoldeak daude eta,

... en definitiva, uno se queda, después de este pequeño *tour d'horizon*, sin saber qué ha de entenderse por la palabra 'democracia', tomada así, en forma general, sin adjetivaciones, más o menos parciales, que, lejos de aclararla, la oscurecen todavía más<sup>3</sup>.

Giro askotan, umorea ez da fintasun ironikoak atzemateko egoten. Aipaldi hauen artikulua berean Santamariak «demokrazia organikoaz» idatzi du,

... creo que es una expresión felicísima, llena de fuerza evocativa, pues hace referencia a un mismo tiempo al pueblo y a la estructura que debe darle forma política, pero que necesitaría, como tantas otras palabras, ser ampliamente explicitada y justificada con hechos<sup>4</sup>.



Nahikoa izan da irakurle erne batek erregimenaren (frankista) apologia-susmoa hartzeko.

No siempre resulta fácil decir lo que se piensa —esplikatu du Santamariak erantzunean—. Unas veces porque la palabra no alcanza a extraer la raíz de la idea de lo hondo del pensamiento y éste queda balbuciente. Otras, porque las limitaciones de expresión, características de una sociedad como la nuestra, nos impiden, a menudo, el llamar a las cosas por sus nombres y nos obligan, con excesiva frecuencia, a un empleo abusivo del eufemismo y el circunloquio. Esto retuerce y desfigura la esencia del propio pensamiento<sup>5</sup>.

Santamariaren demokraziari buruzko gogoetak (ere!) noiz-nolakoak izan dira, eta ez beti oso libreak. Hemen, problema handientxo batzuk seinatzeko baino ez gara interesatuko arloaz.

### «*Herriari, herriaren onez, herriak*»

Legezkoak dira Santamariaren eztenkadak, eta ez bakarrik «demokrazia organiko» frankistarekiko, benturaz. Demokrazia kontzeptuarekin gertatu baita ez dakigula ondo zer esanahi duen, baina bai zerbait positiboa eta txalogarria esanahi duela beti. Bilakaera berri-berria da hori, atzokoa, kontzeptuaren historian. Tradizionalki, pare bat mila urtean, pentsamendu greko-erromatar klasikoan bereberki (Platon, Aristoteles, Zizeron, Seneka Gaztea, etab.), gutxienez keru txar bat zerion demokrazia terminoari, gehiago ez esateko; eta adiera negatibo horrek hala iraun du XIX. mendean aurrera arte (Nietzschekek hala jarraituko du gizatasun bortitzaren izenean). Demokrazia positiboki, are, ia eguzkiaren azpian sistema idealtzat hartzea oraingo literaturakoa da. Frantziako Iraultzaren jarraiko harramantzetan, erradikalek eta sozialistek ulertu eta zabaldu dute demokrazia, XIX. mendeko gatazka sozial eta politikoetan, beren errebindikazioen sistema gisa, poliki-poliki lehen «antidemokrata» izaniko liberalak eta kontserbadoreak ere kontzeptu hori berenganatuz etorri baitira gero, XX. mendean batez ere, azkenean zenbait botere autokratak eta faxistak beren buuruari egun lasai-lasai demokratiko deitzaizkion. Gaur, kontua da imajinatzerik ba ote dagoen munduan Gobernu «ez-demokratiko» bat, bere autobalorazioan: ondorioz, «demokratiko» zer esan nahi duen egoera horretan.

Izan ere, berbaren eboluzio sozial horren bitartean, eduki-erlaldatze oinarritzko bat izan da haren barruan: demokrazia, Rousseauaren eraginpean batez ere, Estatu-forma bat deskribatzeko kontzeptu zehatza izatetik, legitimazio-forma bat adierazteko termino juridiko-moral lauso izatera pasatu da. (Eta zein

Gobernuk ez du legitimotzat edukiko bere burua?)<sup>6</sup>. Harrezkero, Aristoteles batek ulertu ezingo ligukeena, monarkia ez dago demokraziari, demagun, errepublika baino kontrajarriago, adibidez.

Erabilera handikoa eta erreferentzia-puntu efikaza dela egunerokotasun politikoan, baina ez analisi zientifikorako balio duen kontzeptua, aitortu ohi dute politologoen demokraziaz. Edo Santamariari irakurri diogun eran, «egia esateko demokrazia nolakoa den jakitea ez da erraza». Dena den, edozein basajaun afrikar demokratikorekin berdintasunean ez jausteko edo, demokrazia ezberdinen tipologia batzuk marrazten dira eta, besteak zein eta zenbat diren sekula garbi ez egon arren, eredu bat beti «demokrazia mendebaldarra» ateratzen da gure katalogazioetan (Santamariak pixka bat ironizatu gabe ezin utzi izan duena, hori ere). Horri demokrazia ordezkatzaille deritzo. Demokrazia ordezkatzailleak dauzkan beste problema askoren artean, ordezkartzaren horixe izango da problema-iturri bat: alegia, ordezkariaren problemena alde batetik (diputatu, Alderdi, eta abar, tresneria horrena guztiarena), eta ordezkatuarena bestetik, hau *demos* edo herria omen baita, eta herrian berdin-berdinak denak eta bakoitza, hala dio teoriak eta logikoki hala behar du izan funtzio legitimatzailea ongi konplitzeko (agintea justifikatzen duena herriak emana izatea baita; agintariak, orduan, ezingo du bere agintea herritar batzuek gehiago emana izan —gehiago emateko, eduki egin behar baitzen gehiago— besteek baino).

Paperean horrela da hori dena; baina errealitatean egia ote da agintariak oraintxe eskuan daukan boterea ez duela ahaltu gutxi batzuek askoz gehiago emana, hamaika ahalmen gutxikok baino? Zeinek zeukan botererik benetan, ordezkoari eman ahal izateko lain?

Santamariari, bere garaian, maizago tokatu zaio demokraziaren fabore ahallegindu behar izatea, haren ahuluneei kasu egin behar izatea baino. Zerk ez duen osteras esan nahi ahulune horiei ez dela uneoro adi-adi egon lerro artean, «herri subiranoaren» berdintasunaren arazoari adibidez. Zer berdintasun politiko egon daiteke ezberdintasun ekonomiko izugarrien parean? 1966an agertu du jada Santamariak:

En nuestro tiempo las decisiones de orden económico constituyen [...] un enorme ejercicio de poder 'del hombre sobre el hombre'. Condicionan la vida de los individuos, de las familias, de los municipios y de las naciones; son causa de movimientos demográficos y sociológicos que alteran profundamente la sociedad [...]. Es pues esencial que, de un modo u otro, el poder de planificar el desarrollo económico de un pueblo sea intervenido por éste de un modo efectivo y real. Este es un principio fundamental de lo que se llama la 'democracia económica'<sup>7</sup>.

Hasiera-hasieratik, herri subiranoaren berdintasuna (demokrazia modernoaren zutoina eta justifikazioa), errealitatetzat pasarazi gura izaten dena, utopia baita, aitortza besterik ez, ideal eta helburu bat. (Eta, bitartean, demokrazia ez da badagoen zerbait, baizik lortuz joan beharra dagoena). Prozesu gaitz eta pata izaten ari da berdintasun teoriko horretatik, borrokaz eta ahaleginez, berdintasun politiko errealtzu bat ilkitzea: boz-eskubide unibertsalaren (monarkistek nahiz liberal kontserbadoreek temati ezetsia) eta emakumeen boz-eskubidearen borrokek bete dute XIX. mendea eta XX.aren lehen herena ere<sup>8</sup>. Baina «demokrazia ekonomikoaren» borrokak ez du gutxiago irauten, eta askoz gutxiago ari da lortzen. Langilea, bistan da, oraindik ez dago demokraziarako helduta, lehen emakumea bezala, irabazi gutxiko landatarrak eta maizterrak bezala, kolonietako beltzak bezala<sup>9</sup>; ekonomiak lege burdinazkoak ditu, etab., etab. Santamariak berdintasunaren konkistari eutsi dio:

En una sociedad democráticamente organizada el poder económico tiene que ser establecido e institucionalizado sobre una base auténticamente popular [...] <sup>10</sup>. Es imposible llegar a concebir una democracia moderna sin haber atacado a fondo, de modo completamente claro y consciente, el ejercicio de ese otro poder, del que nadie o casi nadie habla en el actual debate político: el poder económico <sup>11</sup>.

Azkenean, demokrazia zer den deskribatzea ezinkizuna baita irizpide orokor eta ideal batzuetan geratuz, Lincolnen «definizio» famatua onesten du Santamariak: «demokrazia da, herria, herriaren onez, herriak berak maneatzeari» <sup>12</sup>. Hau da, bi irizpide aplikatu behar dira nagusiki: 1. Gobernuak noren alde jotzen duen, eta 2. Zeinen eskuetan dagoen. Antzina legez gaur ez baitira falta Gobernuak,

... herriaren onura lortzen saiatu beharrean, klase, talde edo 'klan' bereziaren alde barririk egiten dutenek bere lana. Honelako gobernuak tiraniak dirudite eta agiri dago demokraziak ez direla.

Beste Gobernuak <sup>13</sup>, herriaren onura bilatzen dute benetan, baina herriak berak ez du agintaritzan parterik izaten. Hori da 'despotismo ilustrado' zeritzona, jauntxokeria argitsua, gure egunetan 'aitakeria' deitzen dena. Teknokrata deritzanek hala esan ohi dute sarritan: «herritarrei baldin eskuratzen badiegu zoriontasuna, zer eskatuko dute gehiagorik?». Hau sofisma izugarrikoa da; gizonari dagokion libertatea kentzen baldin bazaio, ezin diezaiok eman egiazko zoriontasunik <sup>14</sup>.

Berriro eta bukatzeko:

Algunos se preguntan qué es lo esencial de una verdadera democracia. Para mí, democracia significa, sobre todo, *participación* real y efectiva del ciudadano —proporcionalmente al interés y a la capacidad, mayor o menor, de cada uno— en las decisiones políticas, en la legislación y en un cierto control del poder ejecutivo, a través

de un sistema de representación práctica y eficaz. Sólo cuando se reconoce y realiza de modo auténtico este *derecho de participación*, cabe hablar de democracia. Pero es también innegable que el derecho de participación puede ser ejercido de diversas maneras y por eso son posibles distintos tipos de democracia<sup>15</sup>.

### ***Alderdiak, alderdikrazia***

Demokraziaren sinesgaitza, edo egingaitza, da berbera izatea nahi dela agintaria eta agindupekoa, boterearen edukitzailea eta jasailea, goikoa eta behekoa, herria deritzon subjektu/objektu bat, alegia. Eta, beraz, demokraziaren izenean saldu nahi izaten dena ilusio garbia edo gezur zikina dela, pentsatzeko tentazioa errazegi bururatzen zaiola edozeini *a priori*. Eta, beraz, batzuek uste dute, engainuan itsu-itsu ez erortzeko, demokraziarekin oso kritikoak izatea dela demokraziaren alde zinez egoteko modu bakarra.

Demokrazia modernoaren kontzeptuan bat egin dute, alde batetik, [1] parlamentarismo, konstituzionalismo eta liberalismoaren jarauntsiak, horien justifikazio moldeekin eta moldeok egun justifikazio teoriko baterako dituzten problemekin, tradizionalki filosofia jurnaturalista orain baztertu batekin egin izan baita hura jeneralean: ondoriozko botere kontzeptua [1''] botere zatituarena da («hiru botereak»)<sup>16</sup>, normalean botere demokratikoa ezin izan omen daiteke bakarra eta osoa; beste aldetik, [2] subiranotasun herritarraren printzipioak, boterearen iturburua eta arrazoa herriaren borondate agertua edo mandatua dela alegia, horren adierazpide egokia [2''] bozketak izaki, hauteskundeak<sup>17</sup>.

Halere, kontzeptu guztiotan ezertarako agertu ez den beste figura batek du protagonismoa egiaz, gaur egun, demokrazian: ordezkariak, bozketatik ateratzen den herriaren borondatearen ordezkatzaileak («hautetsiak», diputatuak). Demokraziaren anbiguotasun guztia agindupekoen ordezkari agintedun honengan zentratzen dela esan daiteke.

Anbiguotasun horretatik abiatzen da Santamariaren gogoeta.

Los partidos políticos —ordezkaritza gaur Alderdion bidez ematen baita— son esenciales en una democracia? No parece que lo sean, por lo menos en principio. Rousseau, por ejemplo, pensaba en una democracia pura, constituida por ciudadanos aislados, no asociados unos a otros, cada uno de los cuales debería obedecer únicamente a sus propios designios y aspiraciones [...]. Que cada ciudadano no opine más que según su propio criterio.

Hoy sabemos, sin embargo, que esta idea tan bella es enteramente paradójica y que, cuando los ciudadanos se encuentran aislados ante el Estado, surge necesariamente o

la anarquía o el despotismo. Por eso entre el Estado y la Sociedad tiene que haber necesariamente órganos intermedios [...].

El ciudadano aislado se halla desprovisto de medios para adquirir criterios. Necesita asociarse con otros ciudadanos que tengan una tendencia ideológica afín a la suya y que compartan con él algunos puntos de vista básicos y esenciales. Así nacen los partidos políticos, sobre los cuales cabe configurar una actividad política más coherente y organizada que sobre la base del individualismo desahogado de que nos habla Rousseau<sup>18</sup>.

Alde batera utzita korapilo teoriko pila bat mahairatzen duela horrek, onarturik Alderdien ezinbestezkoa *de facto* mendebaldarraren tipoko demokrazia batean, boz-emaileen borondatea bideratu behar zuen soluzio honek<sup>19</sup> perila dakar huraxe bidekaizteko, erakunde horien hedapenaren praxiarekin: herriaren nahiaren produktaren orde, produktore (manipulatzaila); pluralismo soziala gainditzeko orde, areagotzaila, eta abar, Alderdiei Estatuarekiko beren erlazioan begiratzen badiegu; eta, Alderdien barrura begira, demokraziaren zerbitzukoak omen diren tresnak, berak oligarkikoak<sup>20</sup>, etab. Era horretan,

... a veces el funcionamiento de los partidos no sólo no respeta la función, sino que la destruye. Así, por ejemplo, puede observarse que los partidos no suelen facilitar la participación ciudadana en la política— lo que sería una de sus principales funciones— sino que a menudo la impiden o interfieren. Al proceder con marcado autoritarismo, tratando de imponer sus criterios a todo el mundo y en todos los terrenos, como si ellos tuvieran la exclusiva, los partidos se convierten en verdaderos obstáculos para la participación real de la base ciudadana. Es la eterna historia del fetichismo<sup>21</sup> del medio que devora y suplanta al fin<sup>22</sup>.

Santamaria asko kezkatu du, problema gaitz batzuk konpontzeko Alderdion, berak problema gaitzago bilakatzeko horrek.

En efecto: la verdadera democracia moderna no es sólo *representativa*<sup>23</sup>, sino que debe ser también *participativa*. Esto significa que la *base* no ha de limitarse a cumplir una función electoral en determinados momentos, sino que es menester que ejerza asimismo —de modo efectivo y continuado— cierta influencia sobre la actividad de sus representantes políticos [...]. La función participativa se realiza hoy a través de los partidos políticos, los cuales serían —en principio— los instrumentos adecuados para mantener el permanente diálogo entre la base popular y la clase política. Pero la verdad es que el *Estado de partidos* tampoco da una solución práctica y plenamente satisfactoria al problema de la participación, ya que los mismos partidos, gobernados por pequeñas oligarquías de carácter casi permanente, acaban también por perder conciencia de su misión democratizadora y quedan como desconectados de la base<sup>24</sup>.

Alderdietatik afiliatuetara ez dagoen komunikazio eta parte-hartze hori ez da egongo, gero, Alderdien artean (baizik «un monólogo que adopta la forma de diálogo, algo así como el que realiza el ventrílocuo a través de sus muñecos»)<sup>25</sup>,

ez da egongo, azkenik, Alderdietatik Parlamentura. «El diálogo parlamentario, tal como se realiza hoy, no responde a esta necesidad básica de una sociedad democrática»<sup>26</sup>.

Hemen historia bat dago, nola gauzak zirenetik kontrakora etorri diren XIX. mendetik hona.

Muchos politólogos han señalado la deterioración que ha sufrido en este aspecto el sistema parlamentario. Ha habido —dicen— un gran cambio desde las anteriores democracias liberal-representativas a las modernas democracias de partidos. En el primitivo sistema liberal [Alderdirik ez zegoen, blokeak —franko lazoak— bozketa ondoren Parlamentuan osatzen ziren] los representantes del pueblo gozaban de una auténtica independencia [...]. Hoy, en cambio, como dice el profesor Duverger: *Los propios parlamentarios están sometidos a una obediencia que la transforma en máquinas de votar, guiadas por los dirigentes de los partidos*<sup>27</sup>.

Handik hara, bada,

... la mecánica parlamentaria queda reducida a una confrontación de posiciones de partidos y a un recuento de votos entre éstos, sin que la opinión personal de cada diputado tenga demasiada importancia, ya que los simples parlamentarios son meros ejecutantes o mandatarios del partido<sup>28</sup>.

Horrekin, ordea, heldu gara mutur batera, non «ordezkariak» ez baitu ordezkatzen boz-emailearen borondatea, ezta bere borondatea ere, demokraziaren legitimaziorako «filosofatu» ohi den arrazoi eder oro zangopilatuz, boterearen iturria herrian eta haren ordezkarietan baino beste nonbait ipiniz ebidentzian bide batez.

Aro teknologikoaren uraldi despertsonalizatu, mekanizatu, anonimoaren testuinguru handiagoan ikusi behar da prozesu hori. Erdi Aroan mundua humanoagoa eta pertsonalagoa zen (nahitaez hobea zenik esan gabe!). Hainbat jende mota zebilen han —jopuak eta jaunak, basailuak hala nobleak, ministrelak zein klerikoak— elkarrenganako mendetasun nagusiki pertsonalen bitartez lotuak denak elkarri.

*Precisamente porque la sociedad estaba basada en la dependencia personal, todas las relaciones sociales aparecían entonces como relaciones entre personas*, escribe Marx. De esta suerte —dice— los trabajos diferentes que cada uno hacía o las funciones que ejercía en la sociedad, se traducían en servicios, prestaciones, ayudas, intercambios e, incluso, formas de protección personal, de un carácter netamente humano. Pero en las sociedades modernas una gran parte de esas relaciones personales ha ido desapareciendo y las mismas han sido sustituidas, en gran parte, por relaciones económicas [fétitxearen erakoez, hain zuzen]<sup>29</sup>.

Produkzioaren munduan harreman pertsonalak «diru fetitxeak» ordezkatu dituen antzera, Santamariak «politika fetitxe» bat salatuko du, hots, «la suplantación del diálogo entre las personas por una *maquinería* separada de la sociedad real»<sup>30</sup>. Parlamentariak makina horren zerbitzari gisa jokatu beharko du, ez «ordezkari» (diputatu) gisa; are, halakoetan ez du (bere) kontzientziarik ezertan beharko, ez du pertsona gisa ere jokatzen, hortaz. Santamariak hilaurtze legearen bozketak aipatzen ditu Parlamentuan, adibide gisa<sup>31</sup>.

Algunos partidos han dejado en libertad a sus representantes parlamentarios para que puedan votar de acuerdo con sus propias convicciones morales. Pero no todos los partidos, ni mucho menos, lo han hecho así, y esto —señores míos— me parece abominable. Es evidente que en este asunto se enfrentan concepciones o filosofías contrapuestas sobre el sentido del hombre, de la vida y de la muerte. Yo diría que obligar a un diputado —tanto si es favorable como si es contrario a la despenalización— a votar, en una cuestión de esta naturaleza, contra su propia opinión íntima, es una atrocidad intolerable. El autoritarismo de algunos partidos —o, más bien, de sus comités directivos— tendría que ser corregido de alguna manera, porque es un fallo radical de la democracia<sup>32</sup>.

Honek guztiak ez darama Santamaria halere Alderdiei uko egitera<sup>33</sup>, ezta Alderdiok ordezkatu behar lituzketen borondate edo «ideologia» ezberdinei ere. Hain zuzen, aro teknologikoaren ildoan, teknokrata jende batek horrelako zerbait proposatuko bailuke.

Un conocido pensador, amigo mío y que, según creo, es de derechas —aunque en esto no se puede estar nunca seguro— ha escrito, por ejemplo, que ‘las ideologías son productos decimonónicos’ y que ‘en los países adelantados deben ser relegadas a las prenderías, puesto que el desarrollo económico las obliga a refugiarse en el suburbio’ [...]. Considero grave el hecho de que se quiera sustituir la política de ideas por una política de intereses<sup>34</sup>.

Inon bai eta demokrazian, pertsona librean gobernu bat pertsonen zerbitzuan izan nahi bada, ideiek gidatu behar dute politika. Moralak.

### ***Politika berdin morala***

Politika zer den, politikoa zertan aritzen den, jendeak ez omen du edukitzen ideia oso garbia.

De la política se han dado innumerables definiciones. La idea que de esta actividad se forman las gentes es también muy diversa. Para muchos es una aventura, de mejor o peor estilo, en la que se embarcan los hombres más ambiciosos. Un modo de vivir

o de satisfacer el deseo de poder. Para otros es una técnica: el arte de gobernar a los pueblos, de mantenerlos en orden, de conducirlos a sus destinos futuros, de hacerlos grandes y poderosos. El político resulta ser un ingeniero especializado en el manejo de multitudes<sup>35</sup>.

Usteak uste eta jendearen inpresioak gorabehera, finean, kontua da izen ona erabat galduta dagoela politika, behiala «zientzia erregina» izan behar ei zuena.

El término política tiene hoy para muchas personas honradas y en todos los países del mundo, una resonancia altamente desagradable y antipática. La política y los políticos inspiran en extensas zonas de la sociedad una marcada desconfianza<sup>36</sup>.

Izena galtze hori intelektualek, teknikoek, eta abarrek eragina izan daiteke, baina politikoez berek merezitakoa da guztiz gain<sup>37</sup>.

Santamariak neke eta desilusio fenomeno zabal bat sumatzen du Mendebaleko gizarteetan, eta krisi orokorrago horren barruan, «una crisis de desconfianza en la política que alcanza a los mismos políticos»<sup>38</sup>. Politika egitea ez da utzi, politika egiten jarraitzen da, baina ilusio eta esperantza barik, lanbide edo karrera soil gisa, ez bokazioz, eta inolako ideal eta espiritualitaterik gabe<sup>39</sup>. Itxaropen falta horrekin batera, munduaren eta ekintza publikoaren gutxiespenezko mistika faltsu bat indarberritu da (katolikoez ari da idazten):

La desconfianza hacia el orden natural se traduce también ahora en una falsa mística que pretende fundarse sobre todo en el conocimiento histórico y sociológico de los pecados, de los vicios y deficiencias radicales de todas las sociedades humanas, para desacreditar y desvalorizar la actividad pública y llevar a los católicos a una especie de escepticismo político generalizado.

Politikak nahitaez zikindu eta galbideratu egiten duela eta, «volvamos —dicen estos pseudomísticos— nuestra mirada hacia la vida sobrenatural, abandonando el mundo a sus destinos y a su propia brutalidad y malicia»<sup>40</sup>. Beste batzuk, aldiz, katolikoak politikatik apartatzen saiatzen omen dira «por la pretensión, un poco ingenua, de asegurar la unidad política de los católicos, colocándolos al margen de las divergencias partidistas<sup>41</sup> que dividen a los hombres»<sup>42</sup>.

Gero, politikaren zentzua indargabetu egin du ikusbide teknizista batek ere, zientzia edo teknika berezitu zail baten tankeran agerraraziz hura, jende xumearen ahaletik urruti, misterio horietan inizatuen esku bakarrik dagoena. «La idea de que la política es una especie de acotado técnico y profesional, una carrera como otra cualquiera, se halla muy extendida entre nuestros jóvenes»<sup>43</sup>. Politikoak berak dira beren joko zientzian eta teknikan laguntzeko interesatuenak, politika «profesionalen» *clique* exoteriko batentzat erreserbatuz. Ordea,



politika «desideologizatuaren», tekniko eta zientifikoaren itxura hori, efikaziaren mantuplean moztortuta, arras da ideologikoa bera, ez beste; ideologia erakutsezin bat ezkutatzearren erabiltzen dena, hain zuzen.

La política en manos de los ‘tecnicistas’ acaba por convertirse en el arte de mantener limpio y pacífico el gallinero, de modo que las gallinas vivan felices y pongan muchos huevos en beneficio de los granjeros. También esta es una manera de concebir el bien común y, por cierto, harto extendida. A esta concepción gallinácea y gallineril de la política se llega generalmente cuando se prescinde de la sustancia de libertad y de dignidad humana que constituye el meollo de la política<sup>44</sup>.

«Politizismo» ere deitu izan dio Santamariak ikuskera —funtsean makiavelismo disimulatu— horri<sup>45</sup>.

El politicismo consiste en considerar la política como una simple técnica. Una pura técnica se halla regida por *valoraciones utilitarias en función de fines propios*, está constituida por *reglas empíricas* sin preocupación especulativa alguna y, en fin, no reconoce ninguna dignidad u orden propio al material con que trabaja sobre el cual tiene un *poder teóricamente ilimitado*. En resumen, la mera técnica se desentiende de todo cuanto pueda existir por encima o por debajo de ella.

Si trasladamos estos caracteres al caso de la filosofía política, concebida como mera técnica, nos encontramos con que el fisicismo estaría regido exclusivamente por *razones de Estado*, tendría carácter *amoral*, consideraría los hechos sociales como simples *hechos físicos*<sup>46</sup>, estaría únicamente constituido por *leyes empírico-estadísticas* y no tendría para nada en cuenta la *dignidad ni la libertad* propia de este delicadísimo ‘material humano’ con que está llamado a trabajar<sup>47</sup>.

Politikaren kontzeptu amoral eta, ondorioz, azkenean moralgabe hori, ez da kristaua<sup>48</sup> eta ez gizatasunaren duina. «Contra el fisicismo político o politicismo hay que afirmar el carácter esencialmente moral de la actividad política»<sup>49</sup>. Hona hemen Santamariaren posizioa:

La política es un saber y una actividad intrínsecamente moral. Es cierto que comporta también un saber técnico; pero la diferencia entre ella y una pura técnica radica en que su finalidad es el bien moral en uno de sus aspectos esenciales —el bien común, el buen vivir de la multitud— y no un bien meramente material, indiferente en sí mismo a las categorías éticas. Por esta razón, la injusticia la destruye en su propia sustancia<sup>50</sup>, lo que no ocurre en el caso de las técnicas ordinarias. Así, por ejemplo, la técnica atómica y nuclear, debe ser aplicada a buenos fines, y en este sentido decimos que se halla subordinada a la moral; pero aunque fuese aplicada a fines malos no perdería su bondad intrínseca: sus teoremas, sus fórmulas, sus métodos empíricos, no habrían perdido su validez física. En una palabra, seguiría siendo una buena técnica atómica. En cambio, cuando las artes políticas son aplicadas a malos fines se convierten automáticamente en malas artes: su mismo valor intrínseco queda destruido por la injusticia. *Una política injusta no es sólo una política mala; es, además, una mala política.*

Y esto debemos afirmarlo rotundamente contra todo fisicismo o politicismo que pretenda reducir la política a una técnica más. El fin de la sociedad política [...] es el servicio del hombre, la finalización de los objetivos supremos y trascendentes de la vida humana, y en este sentido constituye un quehacer de naturaleza eminente y esencialmente moral<sup>51</sup>.

Ideia zentralak ditugu horiek Santamariaren filosofia sozialean. Haren bueruan, horregatik, politika ez da arte goresgarri soil bat, gutxiago arte zikin bat, hainbatik hainbatean hiritarraren arte gorena bera baizik, Platonen oso antzera.

Contra los detractores de la política hay que afirmar, pese a los abusos que en este orden pueden producirse, que la política rectamente concebida y vivida, es una noble y elevada actividad del hombre, la más elevada de este mundo, si se excluye aquella otra que, por definición, debe ocuparse sólo de lo trascendente y ultraterreno<sup>52</sup>.

### ***Demokrazia kristaua?***

Gehienbat herri ez-erromanikoetako fenomenoak izan direla beren jatorrian esan daiteke Demokrazia Kristaua, izen honekin edo beste batzuekin, hau da, laikotza kristau (katoliko nahiz protestante) kultu, eta aski burujabe eta auzart bat —neurri batean moderniarri politika demokratiko batean ontziratzeke adina bederen zabalik zegoena— eduki duten eskualdeak. Estatu erromanizatuetan, eskuarki, Eliza katolikoa —hots, hierarkia eta hierarkiari lotu-lotutako laikotza apurra— uko huts eta zeharokoan setatu baitzaio modernitateari buruz buru.

Hasieran, ahalik neutralena formulatzeko, Estatu modernoaren bat-bateko hazkundea eta ordura arte bereak izan ez zituen esferen, tradizionalki udal, herrialde edo Elizenak edo pribatuak izandakoen inbasioa dago (iraultza erlijiosorik gabeko Erresumetan desamortizazio gorriraino hel daitekeena, noski), eta Elizen edo fededunen erreakzioa beren interesen defentsan. Problema batzuk orokorrak izan dira herri eta Eliza guztietan: Europa osoan<sup>53</sup>, bereziki ktramilatsua izan da eskolaren auzia, esaterako; beste batzuk espezifikoak, Estatu Vatikanoen konkistak Italian, edo karlismoak Espainian sortutako nahasteriak, adibidez. Iparraldeko germaniar herrietan, kristauek XIX. mendean antolatu dituzte beren erakunde politikoak (sindikalak, eta abar, bezalaxe)<sup>54</sup>. Italian, 1868an Pio IX.a Aita Santuak katolikoei politikan esku-hartze aktibo oro debekatu izanaren ondorioz<sup>55</sup>, ez da eratu Alderdi kristaurik 1918 arte<sup>56</sup>. Frantzian, aldiz<sup>57</sup>, II. Mundu Gerra ostera arte ez<sup>58</sup>, eta orduan bizi laburrerako.

1967an Frantziako Alderdi demokristau hori berriro desegin denean, Santamariak pozkidaz komentatu du gertaera. Demokrazia Kristauak, dator nolabait

esatera E. Mounierrekin<sup>59</sup>, beharbada ezinbestekoak gertatu dira, baina gaitz ezinbestekoak, Europan egon den politikagatik<sup>60</sup>. Horiek lehenbailehen gaintzea eta ahaztea hoberena, hemendik aurrera. «Dentro de este cuadro, la extinción de la democracia cristiana debe ser saludada, quizás, como un progreso»<sup>61</sup>, hau da, liberazio bat bezala.

Espainian, Franco hil eta —sozialisten aurka!— eskuinean Demokrazia Kristau bat eraikitzeko haztamuak sumatu orduko, Santamariak bere ezespe-  
na agertu du,

Los orígenes de la democracia cristiana hay que ir a buscarlos a la época en que el anticlericalismo político empezó a funcionar como una componente básica de la izquierda. La Iglesia se vio obligada a defenderse en muchos países de las medidas adoptadas contra ella y que iban desde la prohibición de la enseñanza religiosa a la disolución de las congregaciones y la incautación de los bienes eclesiásticos. Surgieron entonces partidos «de inspiración cristiana» [...]. Sin embargo, pretender ahora que en la actual democracia española persiste esa misma tensión y que el Gobierno socialista se dispone a combatir contra la Iglesia en diversos frentes, es —sencillamente— sacar las cosas de quicio<sup>62</sup>.

Askoz lehenagotik zekarren Santamariak, halere, jarrera hori.

Gauza lar egin da, denak ez oso santuak, kristautasunaren izenean, Alderdi bati kristau izena besteari baino gehiago beste gabe aitortzeko. Ebanjelioan ez dago eta ez daiteke handik ilki programa politikorik, Alderdi batek behar duen erakorik.

Del contenido de la fe, de la revelación y del dogma cristiano, no cabe deducir por rigurosa vía lógica un determinado programa político ni siquiera una doctrina acerca de las mejores formas y estructuras para el gobierno de los pueblos. Todo esto ha sido dejado o entregado por Dios a las libres disputas de los hombres y nadie tiene derecho a imponer en nombre de la religión y con razones de principio una particular ideología política. Es importante hacer y repetir esta afirmación, *opportune et importante*, porque, de hecho, se halla muy extendida la idea contraria de que el catolicismo «determina» posiciones políticas<sup>63</sup>. El equívoco se explica a causa de las innumerables desviaciones y abusos históricos cometidos a este respecto en el transcurso de los siglos. Razón de más para procurar deshacerlo<sup>64</sup>.

Haatik, hor gelditzen da funtsezko galdera: programa bat eta Alderdi bat ez badira, ez ote daukagu aurkitzerik «politika kristau» baterako oinarrizko printzipiorik Ebanjelioan? «¿Existe una política que de alguna manera pueda ser considerada como cristiana?»<sup>65</sup>.

Se discute mucho si existe una 'política cristiana', es decir, una política que tenga derecho a llevar el nombre de cristiana. Yo no me atrevería a dar una respuesta definitiva a esta difícil cuestión<sup>66</sup>.

Ez da nahitaez kristauagoa kristau izena bistanago daramana. Kristoren edo kristautasunaren izenean egindako anitz ez da batere kristaua. Eta gerta daiteke, alderantziz, txit kristaua izatea kristautasunari ezertarako jaramon egiteke, edo are itxuraz kristautasunaren aurkako postura batetik egindakoa. Kristautasuna ez da alderdi baten monopolioa.

Un Gobierno socialista que consiga implantar un sistema fiscal menos perjudicial para los débiles; suprimir ciertos fraudes administrativos; acabar con las prebendas de las familias oligárquicas; evitar los abusos policiales o poner remedio efectivo a la indefensión del detenido, actuará en favor de la justicia. *Y esta justicia socialista, al ser verdadera justicia, no será distinta de la justicia que emana del Evangelio, de la justicia cristiana.*

Y lo mismo que decimos de la justicia tenemos que decirlo de otras muchas ideas y virtudes que han brotado del mensaje cristiano, aunque la mayor parte de la gente no tenga conciencia de ello. Las ideas de libertad, de igualdad fundamental entre los hombres; de fraternidad, de solidaridad y comunidad humanas; de respeto a la persona y de dignidad del pobre, de inviolabilidad de la conciencia; de derechos del hombre y tantas otras, son ideas absolutamente cristianas, porque en su origen sólo aparecen con el Evangelio. Son esas *ideas que se han vuelto locas* de que hablaban Chesterton y Maritain y que paradójicamente han ido a fructificar tantas veces fuera del campo nominalmente cristiano<sup>67</sup>.

Hori dena, beraz, politika kristaua da, non eta zeinahik egina izan. Alderantziz, kristauek egina eta Jesukristoren izenean izanda ere, ez da izango kristaua beste hau (1960):

Vocación trascendente, dignidad, libertad y responsabilidad del ser humano, son ideas esenciales que rezuman del Evangelio, las cuales eluden toda radical servidumbre, todo poder absoluto de hombre sobre hombre, toda extraña intromisión en la interioridad personal. Una política que no respete estos principios no puede ser considerada como cristiana, aunque se precie de serlo con palabras altisonantes<sup>68</sup>.

Horrekin arazoa nahikoa konpondu ote da? Kristautasuna eta politika txukun-txukun bereizi egin ditugu, biak aparte maila banatan jarri. Zesaropapismoa eta teokrazia gainditu ahal izan ditugu horrela, biak nahastetik bizi baitziren.

Tal era, en definitiva, la posición que pudiéramos llamar moderna, sin llegar a modernista, de los autores, sobre todo franceses, que han seguido a Jacques Maritain<sup>69</sup>. Podía y debía haber cristianos en la política, pero no había propiamente una política cristiana. Esto es lo que hemos leído y hemos oído repetir miles de veces.

Esta postura resultaba clara y, hasta cierto punto, cómoda, ahorrando conflictos y confusiones. Pero no puede negarse que al mismo tiempo esa postura restaba fuerza al mensaje evangélico al tratar de eliminarlo del quehacer temporal. Se suprimía todo riesgo teórico de teocracia, pero, a la vez, se hacía casi inoperante al Evangelio en el terreno político<sup>70</sup>.

Paupert-en *Por una política evangélica* liburuak ohartarazi dio soluzio maritainianoaren ezaskitasuna. Baina politika ebanjeliko hori konkretuki nola defini litekeen ez da ikusten Paupert-en liburutik ere<sup>71</sup>. Airean gelditzen gara.

Oraindik agertzeko zegoen —nolabait eskatuta halere, ikusten denez— Liberazioaren Teologia.

### ***Demokrazia kriminala***

Ben Bella Aljeriako mendekotasun faltaren heroi nazionala zen, heroi handia: 1954an jaikiera hasi zutenetako, Askatasun Armadaren antolatzaile eta Armadako Estatu Goren burua, eta abar, 1956an hegazkin batetik frantsesek bahitua, 1962 arte preso. Mendekotasunik gabe Aljeriako Errepublikako Herriar Demokratikoak presidente altxatu zuen, ohore eta jai guztiekin. Hiru urte geroago, baina, Bumedian presidenteordeak gidaturiko putsch militar batek uzkaile eta etxe-atxiloketan estekatu zuen. Gertakariok orduantxe gertatzen ari zirela («la moneda está todavía en el aire») idatzi du Santamariak bere iruzkina: «los últimos acontecimientos parecen indicar claramente que la revolución por la independencia argelina está pasando ahora de la fase de los mártires a la de los ambiciosos»<sup>72</sup>. Iraultzak irentsi egiten ditu gurasoak. Ezaguna da. Askatasunaren borroka boterearen borrokak zanpatzen du<sup>73</sup>. Boterearen «errealismo legea» bezalako zerbait dago.

Baina atentzioa ematen du Santamariaren oharrak: «Ben Bella era el símbolo de un pasado demasiado puro. Quizás por eso había necesidad de eliminarle»<sup>74</sup>.

Boterearen filosofia bat gordetzen da notatxo horretan. Nola sortzen da historian boterea? Beste botere bat apurtuz, noski, eta bera jaun ezarriz. Baina hori ez da prozesu mekanikoaren aldea besterik. Justifikazio-mailan, botere berriak, bat, aurreko boterea kondenatu egin behar du; eta, bi, hurrengo izan daitezkeenak alde aurretik desjustifikatu. Batari gagozkiola,

... en mi opinión —komentatzen du Santamariak— no hace falta que el coronel Bumedi en se esfuerce en probar que Ben Bella es culpable. En buena tesis 'eficacista' lo es desde el momento mismo en que se ha dejado arrebatar el Poder. La idea de Saint-Just de que todo aquel que hace una revolución a medias trabaja únicamente en cavarse su propia tumba, sigue siendo perfectamente válida<sup>75</sup>.

Botere filosofian, galtzailea erruduna da orobat, eta irabazleak arrazoia ere berak dauka. Bia: justifikazioa osoki bere alde ez duen artean, boterea ez da botere ziur, osoa; beraz, bere aurkako posibilitate guztiei zilegitasuna kendu egin

behar die *a priori*. Alegia, «cuando una revuelta triunfa lo primero que hace es afirmar el imperio de la ley que ella misma acaba de transgredir. Cada ruptura de un orden legal pretende siempre ser la última»<sup>76</sup>. Orain ordena zuzena dago, haren aurkako dena okerra da, burua makurtu eta men egin behar da.

Boterearen kontrakoa da botere-azpikoa, azpiratua, garaitua.

Así, pues, no haya piedad con el vencido. Esta es la dura ley de la 'eficacia', la única que subsiste en buena filosofía positivista y maquiavelista. La única que por lo visto está vigente en nuestro desdichado mundo sin trascendencia<sup>77</sup>.

Inork ez dezan uste kontuok Afrikakoak edo direla, zibilizatu gabeko basatienak, edo boterea tinkotu arteko larruneetakoak, astamilitar putschistenak, diktadurakoak, krisialdietakoak hitz batean, botere despotikoen dongekeriak nolani ere eta politika orokorrean salbuespenak, hona hemen beste istorio bat (gertakari konkretuei begira isuri izan du Santamariak bere pentsamendua, gehienbat), hau Frantziakoa, demokrazia guztien ama demokraziakoa. Behiala, Ben Barka-ren bahiketan<sup>78</sup> tarteko ibili ote zen salatua izan, baina frogatu ezindako Le Roy «koronel» agente sekretuak, «informazio-zerbitzuen» ekintza ezkutuei buruzko hainbat xehetasun argituz, autobiografia argitaratzen omen duela-eta, *Le Monde*-ko iragarpen eta testu-aurrerapen baten kariaz idazten du oraindik Santamariak, liburua bera ikusi ahal izan baino lehen. Egunkarian aitzinatutako testuaren arabera, mundu guztiko «zerbitzu bereziak» omen daude, behar izanez gero, ekintza ezohikoak etxean zein kanpoan gauzatu ahal izateko moduan antolatutak, hala nola Estatuaren etsaitzat hartzen diren pertsonen «garbiketak» edo antzeko lantxoak. Estatuaren krimen horiek, frantsesez *contrat homo* eta ingelesez *murder action* ei deritzenak profesionalki, «lankide zirkunstantzialei» fidatzen zaizkie, hots, hiltzaile eta sakailo diruzaleei, gero aparatatu ofizialak arretatsuki babestuta eta estalita egonik etengabe, oso gutxitan baino ez baitira desestali ahal izango. Estatuko esfera gorenetan horrelako arazoak nola eskuztatzen diren agergarri, delako agente autobiografoak, De Gaullen lehen ministro Georges Pompidou zeneko pasadizo hauxe azaltzen bide du.

Al parecer M. Le Roy tuvo por aquel entonces una conversación con un alto jefe del Interior en presencia del propio Pompidou, en el curso de la cual se le ordenó que pusiera en marcha la ejecución de varios miembros de la OAS exiliados en España. Como quiera que Le Roy se negase rotundamente al cumplimiento de esta orden, el primer ministro expresó su disgusto y extrañeza por este acto de indisciplina del «coronel».

Es cierto —komentatzen du Santamariak— que la veracidad del anterior relato podrá ser puesta en tela de juicio [hemen oin-ohar zenbaki bat: oraingo irakurleak, arestiko egunkariko irakurleak bezalaxe, ikus lezake oin-oharrak zer dakarren]<sup>79</sup>,

pero hemos de convenir en que, a pesar de su carácter ultrasecreto, algunos de estos tenebrosos asuntos llegan a ser clarificados al transcurrir del tiempo [...]. Ahora bien, lo más notable de estos hechos es que los mismos políticos que preparan y ordenan, quieran al propio tiempo mantener limpia y refulgente la imagen del Estado y la suya propia.

Con ello siguen al pie de la letra los consejos de Maquiavelo, en el capítulo dieciocho de su obra *El Príncipe*. Los crímenes de Estado son necesarios para mantener la autoridad y ésta no debe vacilar en ordenarlos, sin pararse en escrúpulos morales —viene a decir Maquiavelo— pero la honorabilidad del que manda debe quedar siempre a salvo. Aunque deba recurrir al asesinato, *la figura del gobernante debe respirar siempre bondad, justicia, civismo, buena fe y piedad*<sup>80</sup>.

Demokraziak ez dira dena demokrazia. Baina krimen sekretu filmerako politok dira gutxiena finean, norberaren legezketasuna hausteko eskandalutxoak badaukatela utzita behintzat (hipokrisia ez da Estatu modernoaren akats ezezagunena). Frantzia demokratikoak Aljerian eta Vietnamen guztiz legalki egindako krimenak ez dira izan demokraziago. Eta Frantzia demokrazia bat omen da. AEBak demokrazia dira eta Lyndon Johnson 36.a zen AEBetako presidenteen zerrenda ohoretsuan. Alabaina, «Vietnam y Santo Domingo sólo tienen un nombre en la terminología política: *imperialismo*»<sup>81</sup>. Ipar Amerikaren «munduko Guardia Zibilaren» rola, gogo duen edonon gogo duenoro esku hartuz, Amerikarentzat agian demokrazia izango baita, aldian aldiko triskatuarentzat apenas. Benetan, demokrazian ere, dena ez da izaten demokrazia.

1983ko Santamariaren bi testuk, uztaillekoa bat eta abendukoa bestea, erakusten digute Txileko diktaduran eta Espainiako demokrazian problema bat modu berdintsuan eman daitekeela. Hona hemen bi testuak segidan emanda:

Uno llega a la absoluta convicción de que, en Chile, diez años después de la implantación de la dictadura, y pese a los desmentidos de Pinochet, aún se sigue torturando y matando a los opositores del régimen.

Lo más grave del caso es que en otras muchas partes del mundo civilizado, y presuntamente democrático, *la tortura policial* ha llegado a convertirse en un *procedimiento de rutina* en la lucha contra el terrorismo. Procedimiento por otra parte perfectamente encubierto por disposiciones legales *de excepción* que hacen imposible su denuncia ante los Tribunales de Justicia.

Como es bien sabido la clave de este asunto se encuentra en la fijación de un período durante el cual el detenido queda prácticamente indefenso ante la policía. En Chile este período es de veinte días. ¿Qué no se puede hacer o deshacer en este tiempo con un detenido, fuera del alcance de todo control judicial y de la presencia pública de los medios informativos?

En España este *tempo poliziesco*, aunque sea mucho más corto, existe también al amparo de la ley antiterrorista.



No se ha querido, o no se ha podido, depurar por completo este sucio aspecto de la llamada vida nacional. Y, en la situación actual, muchos ciudadanos estamos moralmente convencidos —«benturaz oker»— de que se siguen produciendo casos de torturas en los conocidos lugares de detención.

¿Que esto no puede ser demostrado? Quizás no lo sea. Pero de cualquier modo, pretender *demonstración* de unos hechos que previamente han sido colocados en condiciones de absoluta *indemostrabilidad* es una auténtica *canallada jurídica*.

Hay todavía algo más grave. Muchas personas «de bien» —un mundo de cosas freudianas y vampirescas puede ocultarse bajo esa ambigua denominación— estiman que la tortura policial es buena para la defensa de la sociedad. Aunque no siempre lo digan, opinan que la misma constituye un método adecuado, y quizás el único eficaz para clarificar la trama de los actos terroristas y llegar al descubrimiento de sus autores. Desde este punto de vista la posible tortura de un detenido cuando se trate de esclarecer un hecho de esa naturaleza no sólo sería moralmente legítima, sino también políticamente defendible<sup>82</sup>.

Todos los Estados, aún los más manifiestamente opresivos, tratan de salvar la cara negando que en su propio ámbito se hayan producido los crímenes que se les atribuyen<sup>83</sup>. Todas las medidas están tomadas para que lo inconfesable no pueda salir a la luz pública; para que los agentes que ejecutan, secuestran o realizan las torturas no puedan ser objeto de sanciones ulteriores. Así ha ocurrido últimamente en Chile y Argentina y está sucediendo ahora en un montón de países de ambos mundos.

Algunas de estas alusiones rozan a nuestro Estado Constitucional, que si bien es auténticamente democrático en su conjunto —yo así lo veo, al menos— lleva incrustadas prácticas añejas y tortuosas que los gobiernos han ido tolerando, cuando no haciendo reverdecer, con motivo de la lucha antiterrorista.

Evidentemente, estas prácticas no son fácilmente demostrables. ¿Cómo habrían de serlo si previamente han sido puestas en condiciones de una absoluta y total indemostrabilidad? Esto es lo que yo he llamado alguna vez *canallada jurídica* y no vacilaría en mantener el calificativo.

Ahí tenemos por ejemplo el *caso Arregui* tan comentado estos últimos días. Como es sabido, el Tribunal ha absuelto a los dos funcionarios procesados por no haberse probado que los mismos tuvieran a su cargo la vigilancia y custodia del detenido. Según la propia sentencia este fue interpelado por otros 20 policías y —por otra parte— el ex-Director general Francisco Laína declaró en el curso del proceso que no menos de 70 habían intervenido en los interrogatorios.

«Estando todo lo relativo a los interrogatorios y custodia envuelto en nebulosa no puede declararse culpables a los funcionarios procesados de las lesiones tantas veces repetidas», dice paladinamente la sentencia.

Es precisamente esa «nebulosa» —por no decir tiniebla— en que se desenvuelven las diligencias policiales lo que nos aterra, lo que nos indigna<sup>84</sup>.

Aitortzen zuen legez, «egia esateko, demokrazia nolakoa den jakitea ez da erraza, gaurko egunean mota guzietako gobernuek bere buruak demokraziatzat agertzen baitituzte»<sup>85</sup>.



### *Demokrazia orwellianoa*

Estatua, hiritarren bakea eta patxada ziurtatu behar dituen bezala, kontrol-sare azkengabe bilakatzen da. Estatuan sosegua ziurtatu behar denez, hiritar oro eta bakoitza arrisku potentzial bilakatzen da, nolana hiko asmo gaiztoen susmagarri da<sup>86</sup>, eta —«en la sociedad orwelliana que comenzamos ahora a disfrutar»— denak eta dena kontrolatu beharra dago<sup>87</sup>.

Hiria poliziak kontrolatzen du; polizia demokraziak kontrolatzen du. Ala poliziak —«segurantzak»— kontrolatzen du —«dictadura encubierta»— demokrazia?<sup>88</sup>. Santamaria bera susmoak hartuta baitago, Quevedoren bigarren ametseko «aguazil aguazilduaren» metafora egoki samarra ez ote den,

... con todo lo que ésta tiene de cómico y al mismo tiempo de trágico, para expresar la situación real de la democracia española en el actual momento histórico. No se quiere reconocer claramente que esta situación es la de una *democracia vigilada*<sup>89</sup>.

Kontua ez da, gainera, doi-doi «memento historiko honetakoxe» abagunekoa eta Espainiako estatukoa, Estatu guztietako boterearen prozesu arrunta baizik.

En la sociedad orwelliana que comenzamos ahora a disfrutar, la clásica presunción de inocencia tan querida de los demócratas [...] es sistemáticamente reemplazada por una *presunción generalizada de culpabilidad*: todo ciudadano es presuntamente culpable mientras no pruebe su inocencia [...]. Creo que no hay ninguna exageración al afirmar que vamos avanzando lentamente y solapadamente hacia este tipo de sociedad al que acabamos de aludir. Y no solamente nosotros los euskadianos —particularmente visados por el control policial— sino todo el mundo civilizado sometido a una creciente informatización [poliziala]<sup>90</sup>.

Dena den, beti hasandu ahal izango dira gaineratik susmo txar guztiak eta lasaitasunean bizi, erromes bideko Umiladeroan ordenaren maitasun-adierazpenak eta prozesioak eginez apalki, Begi Handiaren kuttun bilakaturik.

Sinesgaitza da, hiritar izan ordez ardi izatea onartua daukan zenbat jenderi, eta zenbat posturatan («bai, egingo zuen zerbait!», «arituko ziren ez dakit zertan!») entzuten zaion «errugabeak» ez omen daukala zer axolatu poliziaren kontrol guztiengatik, okerrik ezkutatzeko ez daukanak ez daukala zer beldur izan. Umorea ez guztiz galtzarren edo,

... pero, ¿quién puede hoy presumir de inocencia? —galdetzen du Santamariak—. ¿Quién no ha pecado alguna vez, al menos de pensamiento, contra los poderes fácticos que nos controlan?<sup>91</sup>.

Hungariako 1956ko matxinadaren ondoren, Donostiatik pasatutako iheslari batek kontatu omen zion, diktadura hartan, kontrolaren boterean, «no sólo no se podía hablar contra el Gobierno, sino que muchas personas se habían acostumbrado a no pensar siquiera en este sentido», badaezpada<sup>92</sup>.

Llegará acaso un momento en el que nadie que no sea, o parezca, completamente idiota, podrá librarse del aparato controlador del Estado y de los múltiples mecanismos manejados por éste<sup>93</sup>.

Kontrolen zarratzearen pare, gizartearen «zintzotasunean» kikiltzea doa, klase-borrokatik politikaraino. Hori ere, hemen eta mundu guztian.

Comparándolos con los partidos de la segunda república, es asombrosa la capacidad de convivencia de estos partidos de ahora. Programas y posturas que teóricamente debieran ser antípodas, coinciden o se asemejan extrañamente entre sí. Ahora bien, este fenómeno que comentamos no es exclusivo del Estado español. Aparece también en otros países. ¿Cuál es la causa? La Humanidad está cansada. No desea nuevas revoluciones. Se contenta con ir tirando como pueda, en medio de las dificultades, hacia un futuro gris y absolutamente imprevisible<sup>94</sup>.

Denak ari dira, aho batez, denen kotsentsu eske. Aurrerakorrena hori da. Grebak-eta, diru gehiegi kostatzen dira. Inbertsio ekonomikoena diziplina soziala da. Krisia gainditzeko, langabeziatik irteteko, kotsentsua behar da, eta bakea, eta basta. Kotsentsua ote da, gero, hemen falta dena? «Diríase que aquí no sólo no falta el consenso, sino que hay demasiado consenso y demasiadas ganas de *cantar juntos*»<sup>95</sup>. Lasai-lasai jendea lo dago, eta poliziak loa gorde diezaiola nahi du guztiaren gainetik. Lo sakratua.

«¡Viva la dictadura, que es la que mejor protege el sueño de las personas honradas!»<sup>96</sup>.

### ***Kritika***

Askok ezin du egin banako apurrak botere orwellianoaren aurka. Arkakusoarena elefantearekin egin dezake<sup>97</sup>. Bere txikitasun barrura bildu. Egin egin beharko du, nortasuntxoak salbatzeko. Baina ez da aski.

Los pueblos ganan sus libertades practicándolas, de la misma manera que los deportistas adquieren la rapidez de los reflejos y la fortaleza de los músculos mediante el ejercicio y el entrenamiento constantes<sup>98</sup>.

Askatasuna entrenatuz lortzen da. Kasu honetan, kritika da entrenamendua<sup>99</sup>.

«A ningún gobierno se le debe dejar en paz»<sup>100</sup>, iturrikoa da hori edozein bizitza sozial demokratiko eta moraletarako. Hemen, aldiz, ia tradiziozkoa da aginteari makurtu eta belaunikatu egin behar zaiola aurrean, eta oinak musukatu.

Durante muchos años, los que han ejercido las funciones de gobierno han adquirido la costumbre de actuar libremente, casi completamente al margen de la información y de la crítica pública. Al mismo tiempo, la mayoría de los ciudadanos ha ido haciéndose al molde de una subordinación automática y pasiva, de la que la idea misma de crítica estaba enteramente excluida<sup>101</sup>.

Zenbaitek biziotzat eta kaltegarritzat ere jotzen du kritika, eta minimo-ra murriztu nahi izaten du gizarte-bizitzan. Agintariei trabak ipini besterik ez omen du egiten; diziplina soziala makaldu eta hiritarrak bandatan laurgitu, lis-karra piztuz;

... en fin, la tan criticada crítica proporciona armas a los contradictores del orden social, a los constantes rebeldes y descontentos, siempre dispuestos a destruirlo todo en aras de una utopía cualquiera. Así, por ejemplo, criticar los males e injusticias de nuestra sociedad equivale a dar razones al comunismo, el cual, por su parte, no tolera a los críticos dentro de su sistema<sup>102</sup>.

Gizarte lokartuaren logika da, lotan segitzeko.

Baina kritika egiaz kritika izan ahal dadin, eta ez gerra, hau da,

... para que pueda surgir una auténtica crítica se necesita también que en la sociedad y en los que, de un modo o de otro, la gobiernan, desaparezcan ciertas tendencias de hipersensibilidad o de susceptibilidad defensiva. Sin esto, la simple expresión de una opinión libre que no concuerde con las creencias sociológicas u oficialmente vigentes en la sociedad, podrá dar lugar a que la autoridad se sienta ofendida y considere atacados los principios mismos en que aquella se asienta<sup>103</sup>.

Kinka horretan, «artekari moralen» garrantzia goritzen da<sup>104</sup>, Elizaren ondoan hor, intelektualena azpimarra baitaiteke. Intelektualaren egitekoa, botereari buruz, bufoiarena izan daiteke<sup>105</sup>, eta abar, era askotakoa, inoiz ez agintze-koa edo gobernatzekoa, ezta gobernatzen duenarekin aliatzekoa ere.

Cuando los intelectuales se meten a gobernar, las cosas no suelen andar demasiado bien. Don Julio Rey Pastor recordaba, hace ya bastantes años, el caso de Laplace, el formidable matemático y astrónomo francés que fue ministro del Interior bajo el mando de Napoleón. Según Rey Pastor, al sabio Laplace las 'comunas' francesas le resultaron bastante más difíciles de manejar que los planetas y cometas en sus órbitas seculares y ante el riesgo de desorden cósmico-político, Bonaparte se vio obligado a relevarle de su cargo al cabo de pocas semanas<sup>106</sup>.

Gizarte orwellianokoa da, hain zuzen, boterearen arma bat gehiago bilakatzeko intelektualak.

### *Elefantea eta arkakusoa*

Boterearen munduaz eta gizontzikiaz, Santamariak ipuintxo «oriental» bat asmatu zuen, elefantearen eta arkakusoaren arteko elkarrizketa sekula gertatu ez zenarena, elkarrizketa hori ezinezkoa zelako. Bi horiek elkarrengandik urrutiegiko munduak dira, batak bestea ezagutzen ez duten munduak, elkarri zer esanik ezer ez daukaten munduak. Ezin dute batak bestea borrokatu ere: parasito kaxkarraren haginrentzat oskol lodiegia da elefantearen larrua; elefantearen tronparentzat eta letaginrentzat etsai ttattarregia arkakusoa. Batak bestearekin egin dezakeen guztia ez ikusiarena egitea da.

Batzuek agian beren buruak elefante ikusiko dituzte, jende handia; Santamariak nahiago du arkakusoarena egin. (Beste zer geratzen zaio intelektual euskaldunari?).

Hacer la pulga es refugiarse en la pequeñez, en el anonimato, en la insignificancia de la vida ordinaria, dejando que las turbulencias de la Historia se agiten por encima de uno.

La pequeñez es una gran cosa. Así el grillo vivía ya en la época del diplococo; pero mientras éste ha desaparecido hace miles de siglos, su pequeño coetáneo el grillo —de cuyo concierto campesino tanto gustaran los romanos— sigue hoy chirriando alegremente, ajeno al derrumbamiento de muchas otras especies zoológicas.

Sólo el hombre vulgar es incapaz de reparar en la grandeza de la pequeñez y en la pequeñez de la grandeza. Sabio es el que ha aprendido a ocultarse en la intimidad de una existencia ignorada, lejos de las ambiciones y de la agitación del poder.

No solemos caer en la cuenta de que la verdadera Historia no la han hecho los grandes, sino los pequeños: la pléyade de hombres oscuros que han vivido sin fama, pero serenamente, vidas profundamente humanas, llenas del más alto interés.

El grande puede menospreciar al pequeño, desconocerlo, perdido en la masa multitudinaria. Pero la venganza del pequeño consiste precisamente en ignorar al grande y refugiarse en un vivir corriente, sin complicaciones públicas, un mundo de preciosas intimidades donde las cosas aparentemente más banales adquieren maravilloso color y brillo<sup>107</sup>.

San Joan Gurutzekoarengana gatoz berrero, nolabait. Norberaren barneko uretatik bakarrik hornitzen den askatasunaren iturrira. Ipuinaren irakurketak moraltxo ezberdinetarako ematen du aterabide. Agian, munduari uko egin eta axolagabetzeko ere bai. Hori ez litzateke, ordea, Santamariaren zentzua. Behin Santamariak berak honela atera du alegiaren moraltxoa:

¿Qué puede una pulga contra un elefante? Nada, seguramente. Pero tampoco el elefante puede nada contra la pulga y ésta es la clave y el recurso supremo de todos los anarquismos<sup>108</sup>.

Askatasun-borroka askoren giltza. Aurrenekoa mendetasun falta da, norberaren barruko gazteluan.

## Tolerantzia

Aldiak zenbat aldatu diren adierazteko —giroa, mentalitatea, jarrerak, arazoak berak— bi Kontzilio Vatikanook erkatu ditu behin Santamariak:

Pese a su relativa proximidad cronológica, hay una enorme distancia entre estos dos acontecimientos. El Concilio Vaticano primero transcurrió bajo la presión de un mundo cultural y políticamente hostil. El segundo ha merecido, en cambio, la atención y el respeto de una gran parte de la opinión mundial. También el signo interno ha cambiado. El Concilio Vaticano primero fue, ante todo, una repulsa y una condena sistemática al 'modernismo', tanto en sus formas religioso-teológicas, como en su expresión política y cultural. En cambio, esta vez la Iglesia ha evitado las condenaciones y ha tratado de abrir sus ventanas, cuanto ha podido, a las corrientes del mundo moderno.

Los cristianos van poco a poco habituándose a la idea —por otra parte elemental— de que las personas de otras creencias, así como los marxistas, los materialistas y los agnósticos en materia religiosa, no son, necesariamente, gentes perversas, sin moral ni conciencia de ningún género, sino, en muchos casos, todo lo contrario.

También al hombre religioso, aun visto desde su acera de enfrente, se le aprecia hoy más en todas partes. Ya no se le mira como un ser inculto, anacrónico y supersticioso, o, lo que es peor aún, como el aliado natural de las clases poseyentes.

Por los dos lados la tensión ha disminuido pues, en este aspecto. La tolerancia y la consideración mutuas han crecido<sup>1</sup>.

Humanismo errenazentistan jada nabari dugun zerbait da tolerantziaren espiritua (erlijio guztiak jatorrizko errebelazio baten ondare zatizkotzat hartuak, etab.: M. Ficino, Boccaccioren «hiru eraztunen» alegia). Tolerantziaren arazo politikoa (moderno) Europako batasun erlijiosoaren haustura protestantearekin azaldu da, erlijio-gerra eta krudelkeria guztiez gain. Zertzelada hori nola ikusten den, hala balioetsiko da, oro har, tolerantzia: batzuentzat gizartearen hondamendi eta desegite printzipioa da (beraz, tolerantzia, gehenez ere ez-behartzat hartuko dute; inola, ahal dela, intolerantea izatea hobe); besteentzat gizarte moderno batean elkarbizitza humano eta librea ahalbidetzen duen aukera bakarra da: txit positiboa sozialki, bata bestearekiko bortxakeriak saihesten dituelako hiritarren harremanetan; txit betakorra kulturalki, mentalitate eta pentsamendu ezberdinen arteko jokoak aurrerabidea dinamizatzen duelako.

Filosofian, XVI. eta XVII. mendeetan kontzientzia erlijioso pertsonalaren eta giza eskubide intimo baten defentsa izan ondoren, batez ere, egia erlijioso ororen «erlatibismoaren» motiboarekin bateratuta ikusten da eztabaidatua,

sutsu alafede, XVIII. mendeko «filosofoen» trataeran. Locke, Voltaire dira tolerantziari buruzko testu «ilustratu» klasikoen autoreak.

Arazoak baditu, gutxienez, bi maila: Gobernuen tolerantziarena bat (tolerantzia legala)<sup>2</sup>; jendearen tolerantzia-espirituarena gizartean, bestea (tolerantzia soziala). Santamariak esetsi du bigarrena dela garrantzitsuena<sup>3</sup>.

Tolerantziarena giza eskubideen arazo bezala planteatzen liteke, ala Egiaren eskubideena bezala (Arrazoiaren, Zientziaren eskubideena: G. Bruno, Galileo; Bukharin, etab.)<sup>4</sup>. Azkeneko planteamendu horretan soluzio txarra dauka, zaila behintzat. Joera batek erraz argudiatuko baitu erroreak ez duela eskubiderik, eta (bera Egiaren jabe eta besteak errorean suposatuz, noski), berea ez beste kredo guztiekiko intolerante plantatzea: hala egin izan du katolizismo *intransigente* batek. Besteak ez du edukiko zailago (Errenazimentuaren ildo ilustratua: Lessing, Mendelssohn, Kant) arrazoimena adieraztea egiaren jabe objektibo bakar eta mundu guztiarentzat berdina, eta konfesio ezberdinak arrazoizko erlijio naturalaren, edo sentimendu erlijioso gizadi osoan berdinen agerpen historiko, kultural, sentimental subjektibo (beraz, erlatibo) anizkorrak, erlijioaren egiaz denaz bezainbatean *indiferentismoan* edo, bukatzeko, ez bada erlijioa doktrina moral soiletara bihurtuz.

Santamariaren lerroen artean planteamendu guztiok ibiliko dira jokoan.

Donostiako Solas Katolikoetan hori izaten zen gai gori bat —«estas cuestiones complicadas, en las que la más leve imprecisión de lenguaje puede sumirnos en terribles simas y fangosidades ideológicas»<sup>5</sup>—, eta partikulariki ulergarria izan behar du, parte hartzen zuen parte bat eskolastikarekin armatua izaki. Solaskideen jarrera ideologikoen ezberdintasuna aipatzen du Santamariak<sup>6</sup>, diferentziak, izari batean pertsonalak ere izan zitezkeela aparte, «nazionalak» zirela erreparatuz. Ulertarazi nahi zaigu, zalantzarik gabe, pentsamenduak ez duela mugarik, baina diferentzia handitxoak zegoela, oro har, espainolen eta «besteen» (europarren) pentsaeretan, katolikoak izan arren elkarriztun guztiak.

La nacionalidad contiene un nutrido lote de elementos humanos —pasado histórico, perspectiva geográfica y, en ocasiones, clima y raza. Por ello es, sin duda, uno de los factores que, en mayor grado, contribuyen a la creación de grupos ideológicos y puede darse, y se da con frecuencia, una firme conjugación entre tendencias ideológicas y características nacionales<sup>7</sup>.

Bere ibilbidean, Santamariak hainbat aldiz egin behar izan du esperientzia hori. Geroxeago itzuliko gara tolerantzia espainolaz beren-beregi jardutera. Hemen,

gaian sartze aldera, Santamariak berak gogoratu izan duen historia hori ikusiko dugu:

El tema de la confesionalidad del Estado fue enormemente discutido en las conversaciones de San Sebastián, entre los años 47 y 49 por teólogos europeos de las distintas tendencias, desde la 'integrista' de Guerrero, Lefebvre y Messineo, hasta la 'liberal' de Congar, Colombo y Urs von Balthasar, por no citar más que algunos nombres contrapuestos.

Una buena parte de los teólogos españoles de la época centran sus posiciones en lo que se solía llamar la 'tesis católica' y argumentaban —poco más o menos— de la siguiente manera: si en un país la gran mayoría de los ciudadanos es de religión católica, el Estado deberá serlo también, es decir, que sus posicionamientos deberán estar siempre dirigidos por la moral y las normas de la Iglesia Católica. Así, por ejemplo, cuestiones como las del divorcio, la enseñanza católica obligatoria, la prohibición del culto público de las otras religiones, la censura de prensa, etc., deberán ser exclusivamente enfocadas en ese Estado a través de la doctrina católica.

Muy distinto es —añadían los citados teólogos— lo que ocurre en esos otros países, en los que existe diversidad de religiones y ha cundido la incredulidad —¡ah de las tinieblas del mundo exterior!—. En esos países ya no reina la *tesis*, sino la *hipótesis*. La Iglesia se atiene pues a la situación de hecho y hace lo posible por adaptarse a ella aplicando la doctrina de la tolerancia. Pero jamás reconocerá verdaderos derechos al error, porque *el error no tiene derechos: sólo la Verdad los tiene*.

Resulta de todo esto que, mientras la *tesis* estaba con el 'Estado Católico' de Franco, la *hipótesis* no era sino un *mal pasar* que la Iglesia tenía que soportar dolorosa y pacientemente<sup>8</sup>.

Tolerantziaren arazoaren planteamendurako Santamariak egin dituen oharretan, agian, puntuok bereiz daitezke. 1) Tolerantziaren problema ez da bihurtu behar egiaren eta errorearen.

Si la verdad se presentase de un modo patente a la inteligencia humana, de suerte que el hombre estuviese en condiciones de distinguir lo verdadero de lo erróneo y lo justo de lo injusto, con la misma rapidez y facilidad con que, usando normalmente de su vista, puede percibir si es de día o de noche, los problemas planteados en torno a aquellas libertades, admitirían evidentemente una solución mucho más sencilla. Pero el hombre no posee un órgano de percepción de los valores intelectuales y morales tan seguro y tan claro como lo es la vista para las ondas luminosas<sup>9</sup>.

Hau da, egia absolutuki egiazko bat badagoela suposaturik ere (katoliko batzuek ezarri nahi dutena egia katolikoarentzat), gizakiari ez zaio sekula ematen argitasun absolutuz. Hori ez da egiaren erlatibismo bat, gizakiarena baizik. 2) Tolerantzia ezin uler daiteke, beraz, axolagabetasunaren emaitza gisa:

Este 'derecho a la tolerancia' [...] no encuentra, no puede encontrar, su justificación, como algunos parecen creer, en el general escepticismo, ni en una obligada neutralidad de la sociedad ante las 'verdades' individuales, sino [3]) en la concepción cristiana



de la dignidad y la libertad de la persona y de la responsabilidad moral del hombre. La tolerancia es la sutil resultante de elevadísimas virtudes: la caridad, la prudencia y la justicia se conjugan armónicamente en ella<sup>10</sup>.

Hau da, tolerantzia ulertu behar da, 4) «como un *deber* de la sociedad misma y, correlativamente, como un *derecho* del individuo»<sup>11</sup>, ez, ordea, beste erremediorik ez dagoelako gehiengoak gutxiengoari egiten dion kontzesio legez, liskar okerragoak saihesteko. 5) Tolerantziak benetako balio praktikoa eduki behar du, hau da, ez da aski erlijio-askatasuna ofizialki aitortzea, esaterako, baina gero, legez, edozein azalpen eta garapen publiko galaraztea, protestanteei-edo kasurako.

Esta tolerancia no puede realizarse sin reconocer a los disidentes un cierto margen de actividad exterior, un cierto 'espacio vital', para sus ideologías propias: los actos humanos no pueden menos de ser para cada hombre el reflejo visible de su mundo interior invisible, mundo de ideas y también de sentimientos y pasiones. Si debemos tolerar que exista el disidente, no podremos tampoco impedir que respire, que piense, que hable, que tenga hijos y regente una familia, que adquiera una influencia personal alrededor suyo, no podremos impedir, en suma, que con sus palabras y sus hechos constituya una propaganda de sus propias opiniones erróneas<sup>12</sup>.

Erlatibismoaren salaketari aurre egiteko, bereizi beharra dago egia (iritzi) erlijioso eta egia filosofikoa. Erlijioaren kanpotik begiratuta, beharbada, fede ezberdinen balio erlatiboa berdin epai daiteke; fedearen barrutik planteatuta, fededun bakoitzak bere egia balio absolutuzkotzat daukanez gero, ezin berdinduko da tolerantzia (norberaren eta besteen) fedea erlatibizatzearekin. Tolerantziaren planteamenduak baliozkoa izan behar badu fededunarentzat eta ga-bearentzat, ezin ukatuko du norbaitek bere egia absolututzat edukitzea. Goian egiaren ezagutza ilun-argizkoaz esana ohar hauekin osatu nahi izan du Santamariak, partzialki, baina fededunak fedean ezagutzen duena egia objektiboa eta, bere baitan, absolutua dela garbi uzteko:

El hecho de que se reconozca que el intelecto humano encuentra grandes obstáculos para el conocimiento de la Verdad y del Bien, no autoriza a declarar la imposibilidad de alcanzar ese conocimiento en un grado proporcionado a la capacidad humana, ni menos aún a negar la existencia de la Verdad y del Bien objetivos. Con frecuencia se pasa de una idea a otra y se piensa —o se trata de proceder como si se pensare— que no existen tales realidades objetivas o que son totalmente incognoscibles. Esto conduce a una verdadera anarquía del pensamiento y de la conciencia, en el seno de la cual no es posible plantear razonablemente el problema de las libertades intelectuales y morales<sup>13</sup>.

Pentsamendu modernoaren «krisiaren» testuinguruan mugitzen gara, beti ere, gogoratuko denez. Ardurazkoa da horrela ulertzea.

En el orden puramente filosófico todo es prácticamente discutible, es decir, todo es objeto de discusión entre hombres concretos y existentes [...]. Esto explica la tragedia del pensamiento filosófico: hoy vemos deshacer a los hombres lo que ayer edificaron con gran trabajo. No hay filósofo que se estime, que no empiece por negar todo o casi todo lo que afirmaron sus predecesores: esto constituye incluso una muestra de originalidad. Cada uno debe levantar su propia construcción en medio de un campo de ruinas. Tal es el panorama intelectual del mundo sin la revelación<sup>14</sup>.

Beraz, erlatibismoak balio lezake egia (eta, beraz, tolerantziaren planteamendu) filosofikoarentzat, ez erlijiosoarentzat. Ezin egon daiteke errebelazioaren erlatibismorik.

Sin la revelación las verdades morales aparecen confusas y vacilantes, expuestas siempre a irse a pique en los naufragios de la nao humana. La revelación es, pues, necesaria para que a la mente no se le escapen por los resquicios del alma los últimos resuellos de certeza<sup>15</sup>.

Unamunorekin polemikan,

... el cristiano no puede —argitzen du Santamariak—, por ejemplo, admitir que la tolerancia nazca de la «comprensión de la relatividad de todo conocimiento y de toda gnosis y creencia», ni que esa «relatividad de todo conocimiento sea la base de toda profunda tolerancia». Es justamente lo contrario: el cristiano se hace tolerante al reconocer la presencia de Dios en todas partes, aun en el alma del pecador más empecatado<sup>16</sup>.

Ez ahaztekoa da Santamariak beti tolerantziaren arazoa katolikoek arteko ingurumarian eztabaidatu behar izan duela, eta bere oharrak baldintzon arabe-rahedatzea zegokiola.

### ***Intolerantzia katolikoa***

Intolerantzia katolikoa (positiboa) gutxienez bi eratan ager liteke: errakuntzak gaitzetsiz eta kondenatuz, eta iritzi nagusi okerre uko eginez eta isilduz<sup>17</sup>. «¡Extraña intolerancia la de la Iglesia, que culmina en el martirio y encuentra en él su más fina y sublime expresión! Es la intolerancia de la oveja entre los lobos»<sup>18</sup>. Elizaren intolerantzia amaren intolerantzia da; eta egiaren intolerantzia: «pero no sólo de la Verdad como norma, como doctrina, como ciencia o como criterio, sino, sobre todo, de la Verdad como Persona, como Vida y como fuente inagotable de vida»<sup>19</sup>. Esan daiteke, beraz, intolerantzia Elizaren jainkozkotasunari datzekiola, Elizaren alderdi jainkozkoari. «Ahora bien: sería un grave error creer que todo es divino en la Iglesia»<sup>20</sup>.

Itxikeria (intolerantzia gaiztoa) kontraesankorra da katolizismoaren konzeptuarekin. Katolizismoa unibertsaltasuna baita hitzez hitz eta esentzialki. Espiritu-irekitasuna mundu guztiarekiko. Baina, arraroa eta ilogikoa irudituko bada ere, «los católicos experimentamos frecuentemente la tentación del aislamiento»<sup>21</sup>. Beharbada, aldez aurretik egiaren jabe izateko kontzientzia engainagarri bategatik.

Sumidos en esos universos artificiales, de ideas y sentimientos limitados, viven hombres sin comunicación con el exterior, convencidos, acaso, de que nada que valga la pena existe más allá de las fronteras de sus cosmos particulares<sup>22</sup>.

Haatik, ez da hori kontraesan bakarra.

Uno de los principios más antiguos de la doctrina cristiana es que el hombre no debe ser coaccionado en materia religiosa. El acto religioso es, y debe ser esencialmente, un acto libre. Esto no significa, sin embargo, que semejante principio haya sido siempre lealmente aplicado en la práctica por los dirigentes católicos. Al contrario, la historia está llena de hechos de intolerancia y de violencia religiosa que repugna a toda conciencia honrada<sup>23</sup>.

Historia den bezalakoxea da, egiaz ez oso polita. Santamariak bi gauza gomendatuko lizkiguke hari buruz, nik uste. Estreinako, gauzak diren bezala aitortu:

Sólo una falsa apologética de color de rosa puede pretender dorar ciertas píldoras que en nuestra juventud se nos invitaba a digerir, a fin, sin duda, de ocultar o de justificar, en nombre de una inexistente impecabilidad, los errores de los pecados históricos de los pueblos cristianos<sup>24</sup>.

Bigarren, egiaren historia ere errealismo handiagoz ikusten ikasi, bai iragana bai etorkizuna behatzerakoan. Egiaren historia ez baitu egiak bakarrik egiten.

Se equivocan, pues, quienes quisieran desterrar de la Iglesia —idatzi du Santamariak, beste testuinguru batean, honako ezin gutxiago balio lezakeena— todo rastro de polémica o de discusión, sin considerar que *la discreta inquietud intelectual, el diálogo y la controversia, son elementos indispensables de progreso*. La adquisición de la verdad no pertenece exclusivamente, contra lo que pudiera creerse a primera vista, a la esfera individual, sino que es obra común, que ha de llevarse a cabo con el concurso de muchos hombres y aun de muchas generaciones que mutuamente se ayuden y se corrijan.

Para pensar con corrección necesitamos casi siempre la colaboración del contradictor. Dar martillazos en el vacío es tarea poco eficaz: siempre se requiere un yunque para descargar sobre él los golpes. Con frecuencia suele olvidarse, al considerar estas empresas del espíritu, el importante papel que juegan los que yerran, obligando a sus contrincantes a adentrarse por vías posiblemente inexploradas. Así el que yerra contribuye también a la tarea de adquirir la verdad y a veces en mayor medida que el que permanece en lo cierto<sup>25</sup>.

### ***Intolerantzia espainola***

Intolerantzia espainola ez bedi ulertu ez dela hego-euskotarra bete-betean. Intolerantzia, gauza askoren agerpena izan daiteke, espiritu absolutistatik alferkeriara (horra Unamuno, espiritu absolutistaren eredu ez eskasa). Funtsean, beti manikeismo forma bat adierazten duen mailan, ordea, manikeismo espainola klasikoa da, baina

... no se piense que los vascos estemos exentos de esta paranoia. A la vista de algunos de los hechos que aquí acontecen, yo diría más bien que la propensión maniqueísta está más desarrollada aún en nuestro pueblo que en ningún otro lugar de la geografía ibérica<sup>26</sup>.

(Unamuno ekartzen da, berrero, manikeo handi bezala). Argitzapen horrekin, goazen harira.

1954ko Kronika batean, garai hartan Espainian zebiltzan katramila intelektualen berri ematen du *The Dublin Review*-ko zenbaki batean Santamariak. Espainiak izar intelektual bi zeuzkan (laikoak), eta biak tamalez «heretikoak», ez gero nolanhikoak. Salamancako Pla i Deniel gotzainak kondenatua eta debekatua zuen Unamunoren *El sentimiento trágico de la vida*. Baina egundoko zirimola altxatu zuen Kanariar uharteetako Pildain gotzain euskotarraren gutun pastoralaren argitalpenak, zirkulu intelektual laikoak asaldaraziz, «Don Miguel de Unamuno, heretiko maximoa eta heresien maisua» tituluarekin, Salamancako Unibertsitatearen sorrerako zazpigarren mendeurren ospakizunekin egokiturik propio. Istiluan estatu-zentsura ofizialak parte hartu behar izan zuen, jaialdiak lorrin ez zitezen, arazoaren aipamen indiskreturik prentsan agertzea galaraziz. Ortega zen kondenatu eta madarikatu beharreko bestea, horretarako onetasun zientifiko handirik gabe tratatu eta lardastu beharra bazeuden ere haren testuak. Beste aldean zeuden aipaturiko autoreon aldezkariak, nolana ere Santamariari itxaropen pixka bat edukitzen uzten ziotenak, zertxobait aldutzen ari zelakoan giroa<sup>27</sup>.

Naturally a controversy of this kind between scholars would have little or no social importance in a country with liberty of expression. But here it produces immediate political repercussions, since the State does not abstain from religious and philosophical problems but also takes a stand with regard to them<sup>28</sup>.

Kontua da, Espainia posible bakarra bat baldin bada, bestelakoak ez duela lekurik. Diferentziak izaterik ez daukala<sup>29</sup>.

Espainol askok ukatu egin nahi izaten omen dizu intolerantzia espainola, legenda beltzaren asmazio bezala; beste asko, aitzitik, harropuztu egiten omen

da hartaz, matxo-matxo —«la tolerancia es virtud de mujeres». Santamariak guztiz errealtzat dauka intolerantzia espainola, eta ez bertute nazionaltzat, preskeski. Hainbat aldiz eta alde z ukitu du gaia, baina batez ere «El problema de la intolerancia en el catolicismo español» saioan jorratu du<sup>30</sup>. Funtsean beti berdintsu arrazoitu baitu<sup>31</sup>, testu honi lotuko gatzazkio ondorengoan<sup>32</sup>.

Espainola intolerantea da erraietaraino. Historiak, geografiak, tenperamentuak, zernahik bihurtu du intolerante, guztiz gain bere buruaren kontzeptuak, Jainkoak bere defentsarako hautatu duen herria bera delakoan<sup>33</sup>. Bere tradizio kulturalak «jarrera teologiko-militar» haginkari batera ekarri du<sup>34</sup>. Santamariak bere egiten du Ortega y Gasseten<sup>35</sup> harakoa, «que nuestro catolicismo va lastrado con vicios españoles, y que, viceversa, los vicios españoles se amparan y fortifican con frecuencia tras una máscara insincera de catolicismo»<sup>36</sup>. Espainola estremista dela eginda ematen diote eskura Unamunok eta Menéndez Pelayok<sup>37</sup>. Espainola absolutista da, Donoso Cortésen baitan nabaritzen denez, adibide gisa bera hartzeko (eta Unamunoren baitan ez gutxiago —«otro gran absolutista peninsular»—)<sup>38</sup>; eta espainola manikeoa da, orobat, eta erreboltaria,

... porque, en realidad, no se llega de esta manera a vivir de absolutos, sino de ficciones de absoluto, partidismos de sectas que se combaten con saña infatigable, como si fuesen los propios Ahriman y Ormuz, entregados a su lucha cósmica<sup>39</sup>.

Donoso Cortésen pasarte bat aipatzen du ilustraziorako:

Leo en la Sagrada Escritura —dice el ilustre extremeño— que Dios hizo el *día* y la *noche*, mas no leo en ella que hiciera Dios el *crepúsculo*. Este fenómeno no existe por sí mismo: debe cesar cuando el día triunfe sobre la noche<sup>40</sup>.

Santamariari «oso espainola» begitantzen zaio «este menosprecio de lo crepuscular»<sup>41</sup>.

Finean, bada:

El español es dogmático en los toros y en el fútbol, en la tertulia, en el café, en la política, en la ciencia y hasta en los negocios. Acaso donde menos dogmático se muestre es en la Iglesia, porque en su enorme ignorancia religiosa llega a considerar como dogmas ciertas piadosas tradiciones, y desconoce, en cambio, por lo general, el contenido vital de los auténticos dogmas<sup>42</sup>.

Bere burua jainkotia uste du, eta protestanteak eta denak zirtzilkeria zikina<sup>43</sup>. Bere erlijioan pasio handia eta itsukeria handiagoa jartzen duelako, sakona iruditzen zaiona ezjakina eta azalutsa da egiazki<sup>44</sup>.

La religión católica se recibe del medio juntamente con otros muchos componentes vitales, y el único problema que se plantea es el de cumplir o no cumplir con sus exigencias, es decir, el problema moral. Claro está que las gentes están convencidas de la superioridad de la religión católica sobre las otras confesiones; pero las más de las veces no por el estudio o el conocimiento de las verdades de la fe, sino porque así se lo enseñan y por simple conformismo social, de la misma manera, *mutatis mutandis*, que se aceptan tantos tópicos nacionales, como, por ejemplo, que los soldados españoles son los más valientes del mundo o que las mujeres españolas son las más bellas de la tierra<sup>45</sup>.

Harrokeriari gehituz gero alferkeria intelektual eta morala («que es, a mi juicio, uno de los grandes vicios españoles»), horra dogmatismo espainolaren betegintzarre biribila: «para algunos intelectuales católicos [dogmatikoak] la fe es eso: un modo de justificar su pereza mental»<sup>46</sup>.

Intoleranteak herri guztiak dira —edo izan daitezke—, hein batean: «toda colectividad humana es, en mayor o menor grado, intolerante»<sup>47</sup>, bereziki mehatxatua, zapaldua, jazarria bada, edo ahulaldian, arriskuan, gainbeheran aurkitzen bada.

La intolerancia es, pues, un reflejo defensivo, que aparece, sobre todo, en las épocas de decadencia o de debilitamiento del organismo social, y que no podía faltar en la decadencia española<sup>48</sup>.

Segurtasunik ezaren emaitza, beraz, nolabait. Ongi ulertuta, «dekadentzia espainol» hori, intolerantzia eta dogmatismo espainolon (edo, kasurako, euskotarron) erroa, funtsean Espainiaren Modernitate falta dela kausitzen da. Modernia subjektibotasunaren idorokundea bada, Espainiak ez du egin idorokunde hori.

El absolutismo típico de que venimos hablando [...] inclina al español a menospreciar las preocupaciones subjetivistas del mundo moderno. El católico español típico no siente, acaso con la misma intensidad que el resto de los europeos, las peculiaridades personales del problema de las relaciones entre la Razón y la Fe, las dimensiones profundas de la interioridad, las tragedias invisibles que plantea, por ejemplo, la objeción de conciencia. No es que ignore estas cosas; pero, en realidad, les concede escasa atención. Toda esa problemática le parece artificial e inauténtica.

Este desprecio hacia los problemas de la subjetividad, en contraste con el interés que el mundo actual demuestra hacia esas cuestiones, hace parecer al español, a los ojos de muchos extranjeros, más intolerante y menos caritativo de lo que realmente es. A su vez, el choque con la mentalidad subjetivista y abundantemente teñida de psicologismo del catolicismo europeo, le produce al católico español extraños e in-descriptibles escalofríos<sup>49</sup>.

Modernitate falta hori, partikularki nabarmen, Estatuaren arazoan sumatzen da.

### ***Estatu katolikoaren arazoa***

Santamariak maiz ezeztatu behar izan du Espainia katolikoa dela eta Estatuak katolikoa izan behar duela, zin-zinez Erdi Aroan betiko geratu nahi zutenen tesia<sup>50</sup>.

Hasteko, historikoki Espainia lehen zer izan den edo ez den ez da sartzen ezertarako arazoan.

En ningún caso bastarán, pues, los tópicos históricos, por muy sagrados y grandiosos que parezcan. La confesionalidad del mito y del ditirambo patriótico es siempre un grave perjuicio para la religión, porque deforma las conciencias de los mismos creyentes<sup>51</sup>.

Soziologikoki, gaur egun, Santamariak esan eta berresan duenez,

... there is in Spain at the present time a marked cleavage between the official truth, civil or ecclesiastical, and social reality. Officially all Spaniards are Catholics and belong to the Church, but a great part of them do not think, speak or act as Catholics. Socially, they do not 'function' as Catholics but as enemies of the Christian attitude of life<sup>52</sup>.

Espainiak utzia duela katolikoa izatea, harako Azañarena, edo berretorri beharra daukala izatera ostera, gatazkan ibili den auzia izan da iragan hamarkadetan. Haren esanahia, ordea, politikoa eta are alderdikoi polemikoa izan da orduan, ideologikoa. 1982an, ekaitzaren ondotik bezala beraz, historia horren ikuspen hau eman du Santamariak:

Es para mí evidente que el jefe de Acción Republicana [Manuel Azaña] no quiso hacer alusión en aquel momento a un hecho sociológico, real y efectivo, de desconfesionalización de la sociedad, el cual no había hecho todavía más que iniciarse vagamente. Azaña se refirió sin duda al hecho político, es decir, a la desconfesionalización jurídica operada por el artículo tres de la Constitución republicana: el Estado español no tiene religión oficial.

Apenas llegados al Poder los hombres del treinta y seis se apresuraron a re-confesionalizar el Estado. Pero esta re-confesionalización tampoco fue un hecho sociológico auténtico. Tuvo un sentido mucho más político que religioso: pese a las apariencias que puedan citarse, el hecho religioso no progresó durante los años de la cuarentena. Al contrario: la secularización de la sociedad avanzó a pasos agigantados y al término de aquel período el problema estaba ya planteado en toda su extensión<sup>53</sup>.

Orain, bada (gutxienez 1955 ingurutik aurrera, alegia), soziologikoki ulertu behar da Espainiak utzi duela katolikoa izatea. Errealitate horren gainean planteatzen da Estatu katolikoaren arazoa<sup>54</sup>.

Neurri batean Estatu katolikoa sozialki justifikatua egon litekeen arren, kasuren batean ausaz, gehien-gehiengoa fededun benetakoa litzatekeelako, eta iritzi moral arruntak ere jendartean katolikoak izaki, eta abar, Santamariak «toda

su teórica grandeza» aitortzen dio halako proiektuari, baina praktikan beti haren desabantailak nabarmendu ditu, Elizarentzako desabantailak bereziki. Eliz hierarkiak besterik zeukanean erabakita, Santamariak oso kontu handiz mugitu beharra zeukan, noski, bere disidentzian<sup>55</sup>. Agian Estatu katolikoa izan liteke ideal teoriko bat, dator esatera; errealitatean, ordea, gizaki eta gizarte narriotsu marketsekin atera behar dira kontuak, nola moldatu ahalik ongiena guztientzat. Halatan handik, izan behar duen tesi katolikoaren onarpena baino gehiago, errotiko kritika sibilino bat atzeman behar da, apika, honelako perpaus batean:

Cuanto más amplia y más profunda sea la real o supuesta *base creencial* del Estado; cuanto más elevada sea, o pretenda ser, la concepción de la vida ciudadana, tanto más altas virtudes requerirá para su perfecta realización<sup>56</sup>.

Estatuaren eraikuntzarako hain material urguriak eta hauskorrak hartzen bada, nola baitira kontzientzia eta sentimendu erlijiosoak, ezinbestekoa izanen da gero gizarte horretako kideek, eta Estatuaren zerbitzuko ofizialek beregainki, zeharoko harmonian eramatea beren eginkizun bai erlijiosoak eta bai politikoak<sup>57</sup>. Zer pentsa «del capitán de una compañía dando instrucciones, aunque sean puramente castrenses, sobre el cumplimiento pascual de sus soldados», eta abarrez?<sup>58</sup>. Hamaika funtzionario izango bailitzateke parada berdintsuan: magistratuak, irakasleak, etab.<sup>59</sup>.

Non dago gakoa? Zergatik nahi zaio Estatu konfesionalari horren amorratu ki eutsi? Estatuaren kontzeptu santu-borrokazale bat dago. Beti fededuna izan behar da Espainian: Estatuak Jainkoagan fededun eta hiritarrak Estatuan fededun. Eta espiritu gerrazalea behar da beti: Estatu katolikoari, hots, Espainiari armaz defendatzea tokatzen zaio bai Jainkoaren aintza eta bai hiriaren fedea.

En el Estado español la gente está habituada desde hace siglos a una especie de mezcolanza político-religiosa en la que se tiende a dar a lo político un carácter sagrado y a lo sagrado un carácter político<sup>60</sup>.

Santamariak Balmesen hitzekin esaten duenez, «las ideas y sentimientos religiosos han tenido en España, de mucho tiempo atrás, un carácter sumamente belicoso», ulergarria omen baita, zortzihun urte gerran ibili ondoren islamarekin, denbora luzean Ate Santua defendatzen zuen zaldun armatua katolizismo espainola izateko gero, aro napoleonikoan berriro gerrak espainolen begietan izaera erlijiosoak izanik, eta eduki den XIX. mendea edukirik:

De aquí ha resultado —prosigue Balmes— esa propensión a fiar el éxito de la causa a los trances de las armas, y a temer que la religión se hunda si los que la sostienen eran vencidos en el campo de batalla<sup>61</sup>.



Balmesekin «no es la política la que ha de salvar a la religión», errepikatzen du Santamariak<sup>62</sup>. Elizarentzat hagitz hobe dela uste du Estatua eta Eliza ongi banatuta egotea. Beharbada, tolerantziazko espiritu handi beharrik ozta dago, zentzu pixka batekin aski da ikusteko,

... [si] la Iglesia católica, exponente sociológico máximo e indiscutible de este país en el aspecto religioso, renunciara espontáneamente a los beneficios, harto discutibles, de una oficialidad que hoy se le reconoce en el ámbito estatal, quizás perdiera muy poco y ganara, por otro lado, mucho más<sup>63</sup>.

Edozein kasutan ere,

... es de justicia el principio de que la sociedad civil no debe entrometerse en el terreno de las creencias y de la práctica religiosa. Y menos aún imponer en ese campo limitaciones o coerciones que no vengan rigurosamente exigidas por el mantenimiento del orden público<sup>64</sup>.

XIX. mendetik hona —Balmesez gero, alegia— egon da ezbairik gabe nahi-koa denbora gauzak aldatzeko. Horrek ez du esan nahi tolerantzia ikasteko baliatu denik denbora.

Bajo las apariencias engañosas de una mayor blandura de costumbres, nuestra época es tal vez aquí, como en otras partes, una época de intolerancia radical. Intolerancia hipócrita, refinada e inteligente, en la que a veces se llega al sadismo. Una de esas épocas descreídas de la Historia de las que nos habla Ortega y Gasset, en las que 'el hueco de la fe tiene que ser llenado con el gas del apasionamiento'. Épocas en las que se pregunta a todo el mundo si 'es de los unos o de los otros', lo contrario de lo que pasa en las épocas creyentes. Acaso sea, pues, hoy más necesario que nunca predicar aquella tolerancia social que tanto se echa de menos en algunos momentos<sup>65</sup>.

Egia esan, Estatu tolerantzaren batean, jendea beti ez da tolerantzia izaten.

Kontzilioarekin-eta, erlijioaren askatasun-arazoa azkenean trauma gehiegi gabe konpondu ahal izan bazen<sup>66</sup>, moralaren askatasun-problemek sua garretan piztu zuten berriro, Franco ondorenean, eskolaren inguruko auziekin<sup>67</sup> eta, batez ere, hilaurtzearen eta dibortzioaren lege-proiektuekin. Ez dut uste Santamariari berari irakurleen aldetik protesta gehiago sortu dion beste gairik egon denik<sup>68</sup>. Giroa oso zakartu da.

Creo que puede afirmarse —epaitu du Santamariak— que en el Estado español la mayor parte de la gente no está preparada para vivir en un régimen de laicidad y tiende a ser terriblemente exclusivista en materia moral y religiosa. Cada ciudadano quiere a toda costa imponer su religión —o su irreligión— a todos los demás.

El principio de la laicidad, o de la no-confesionalidad del Estado, convierte la tolerancia en ley, tanto para los ciudadanos creyentes como para los no creyentes.

Baina Espainiako historiarekin eta frankismoarekin, hala etorri da hemen orain gertatzen dena, «*que mucha gente católica no esté actualmente en condiciones de distinguir el juzgado de la sacristía*»<sup>69</sup>.

Horregatik etsi gabe, Santamariak berriro saiatu behar izan du auzi delikatuok, barrenak hainbat sutzen ari zirenok, zuhur eta goaitatu, behiala maisuak esango lukeen legez, jorratzen, puntuak bere puntuan jartzen, arazoaren eretxe desberdinak bereizten, nolabait planteamendua behintzat argitzen, eztabaidak zentzurik izango bazuen zuzen lortzeko —«en este país de almogávares»—. Arazoa —dibortzioa, hilaurtzea— ongi dagoen ala gaizki eztabaidatzen den bitartean, gaizki eta alferrik eztabaidatzen da. Estatuak ez da inor norberaren kontzientzian zer dagoen ongi ala gaizki esateko. Estatuak esan dezakeen dena da: hau eta hori ez dut jazarriko eta zigortuko, beste hura eta hurrengoa bai; edo holako eta halako baldintzetan zilegi izango da zera zertzea Estatuaren aurrean, beste halako baldintzetan ez. Beti, lehen Estatuak eta erlijioa bezala, orain Estatuak eta morala ere ez nahastea da kontua. Muin-muinean, laikotasuna zuzen ulertzen jakitea, hots, positiboki; ez Estatu katolikoaren «idealari» ezin eutsi eta, beste erremediorik ez dagoelako, gogoz kontra jasaten den eta beti ahalik «katolikoena» (intoleranteena, alegia) nahi litzatekeen makalkeria bezala. Laikotasunaren kontzeptua erabiltzen aurrenetakoa bera izan zela<sup>70</sup> gogoratzen du Santamariak, eta haren balio berezkoa azpimarratzen du:

La gran novedad del concepto de laicidad consistía precisamente en el hecho de que sus autores no consideraban ya la 'hipótesis' como una situación negativa, de mera tolerancia, sino como una *positividad* altamente estimable. El descubrimiento de los valores que se encierran en una sociedad profana moderna, *en la que los ciudadanos gozan de una total libertad para buscar por sí mismos la verdad, fuera de toda coacción y de toda imposición...*<sup>71</sup>.

Laikotasuna balio propio eta positibo bezala ezagutzen ez den bitartean, tolerantziaren arazoak ez dauka soluzio egiazkorik.

### ***Egia norberak bilatzeko eskubidea***

Agian giltza sinplea, «el hombre tiene derecho a buscar la verdad libremente», Joan XXIII.a Aita Santuaren esalditxoan dago. Egia bilatzeko eskubidea baldin badu, badu egia ez edukitzekoa ere<sup>72</sup>. Norbaitek «errakuntzak eskubiderik ez du!» ostera nahi baleza, onartuko diogu, baina gizakiak baietz. Esku-bideak gizakiaren gauza dira, zorrozki ulertuta, ez beste ezereenak. Eta egia bat-bederak bilatzeko eskubidea onartzea, huts egitekoa barne, subjektua subjektu

ondoriokorki aitortzea besterik ez da. Agian ere, beraz, axola diona azkenean ez da egia, hura bizi duena baino. Santamariak, berriro Joan XXIII.a aipatuz, epaitzen duenez: «Aunque a algunos les parezca monstruosa la siguiente afirmación, tenemos que decir que vale más un incrédulo sincero y consciente, que un autómatas de la creencia»<sup>73</sup>. Azkeneko hori makina bat da, objektu bat. Ez da kontzientzia bat, subjektua.

Bilaketaren gai honek tolerantziako espirtuaren osagarri ezinbesteko baten harira gakartza, elkarrizketaren beharrera egiaren xerkan. Elkarrizketa, badakigu, erraz bilaka daitekeela —gure gizartean— topiko antzu. Dena behar da kalakatu, txortxor eta txirtzir erabili, hitz askoren uretan pasatu solasean, ahoari ez eman atsedetik eta, gero —ahotik ez da entzuten—, lehen bezalaxe jarraitu. «Lo que Sócrates reprochaba a los sofistas era precisamente esto: que sabían hablar, no dialogar»<sup>74</sup>. Sofisten aro berri batean bizi gara gaur egun. «Tenemos motivos muy serios para desconfiar de la tolerancia de ciertos tolerantes y del sentido de la libertad de ciertos liberales»<sup>75</sup>. Egungo zibilizazioaren marka bat da. Izaten dira, aitzitik, edo horrelaxe, Santamariak «monologari absolutu» deitzen dituenak (falta izaten ez omen direnak, marxisten artean adina kristauen artean), aldez aurretik badakitenak egian berak daudela, eta elkarrizketarik ezertarako behar eta nahi izaten ez dutenak, egiaren bila bederen. Horrelaxe esaten ez badute ere, horrelakoxea izaten omen dute beren jarrera:

Si mi verdad existe, y existe, y si yo estoy en posesión de ella, y lo estoy, no tiene sentido el ponerme a dialogar acerca de esta misma verdad. Lo único que debo hacer es enseñarla, comunicarla y, sobre todo, actuarla. Nadie admite un diálogo sobre si dos y dos son cuatro. En el fondo sólo la verdad tiene derecho a hablar en este mundo y la verdad no puede hacer otra cosa que dialogar consigo misma, es decir, monologar [...], todo lo demás es andarse por las ramas<sup>76</sup>.

Horiek, ausaz, egiari aplika diezaioketen geometria aplikatu nahi diote ezin liezaioketen espirtuari. Izan ere,

... una geometría del espíritu que no conoce más que la línea recta es forzosamente una geometría falsa e irreal y no puede conducir sino a la llamada dialéctica de los puños y de las pistolas, que es también, en cierto sentido, una manera de dialogar como otra cualquiera. Cuando las razones no convencen, se imponen a cañonazos y asunto concluido<sup>77</sup>.

Egiaz elkarrizketatzeko, apaltasuna eta irekitasuna behar da. Inor ez dela egia osoaren jabe jakin behar da. Espiritu toleranteak, elkarrizketazaleak,

... reconoce la propia incompletitud y la necesidad de buscar la verdad o, al menos, algunos aspectos de ella, fuera de uno mismo [...] El saber conversar en el sentido

## EKINTZA

profundo de la expresión, es signo de grandeza de alma y de libertad de espíritu. En cambio la mentalidad de secta, de partido, de clase o de tribu, incapacita a muchos para dialogar, y este hermetismo ideológico es causa de muchos males en la vida social<sup>78</sup>.

Espiritu elkarrizketazale garbia santua da, barnea egoismotik purifikatu duena: «En su caridad desbordante, siente el místico la necesidad de dialogar con las cosas, y ahí tenemos a Francisco de Asís conversando con el hermano lobo y la hermana luna»<sup>79</sup>.

Gakoa hortxe dago: tolerantziak, legeetan baino, espirituetan egon behar duela gizartean, bakea eta anaien anaitasuna egiteko<sup>80</sup>.

## Bakea (I)

Beti krisiaren horizontearen barnean, bakearen kapituluan ikusten da eskandalagarriena, modernitatearen proiektuak nola porrot egin duen goitik behera.

On nous avait dit que l'humanité atteindrait bientôt un état de civilisation, de maturité, de plénitude historique, dans lequel la brutalité des rapports collectifs entre les hommes serait bannie. Un régime de raison et de droit serait en train de remplacer, grâce aux progrès de la culture, les structures de force et d'esclavage<sup>1</sup>.

Horiek ziren modernitatearen itxaropenak eta agintzariak, ilusioak. Santamariak bere belaunaldiari egitea tokatu zaion bestelakoxe esperientzia erreala kontrastatzen dio: Mundu Gerra, nazismoa, Espainiako Gerra Zibileko piztikeriak, Aljeriako terrorismo biak, mundu guztiko diktadurak, masakreak... Baina, okerragoa, «la violence déborde largement le cadre de la guerre comme institution juridique [...]». C'est toute l'ambiance de notre monde qui est infectée de violence<sup>2</sup>. Hau da, esate baterako, egon beti egon da indarkeria, bortxa, baina orain haren legitimaziorako sistemak daude, lehenago ez bezala. Bortxa orain arrazoiaren zerbitzari bezala agertzen da.

Los terroristas, los sádicos, los racistas, los anarquistas, habían tratado, cada uno por su parte, de legitimar el crimen. Marx había establecido una nueva moral, adoptando como absoluto el sentido de la historia definido por él, y de acuerdo con la cual Jruschef justifica ahora<sup>3</sup> la aniquilación de millares de hombres y la destrucción, si necesario fuese, de una nación entera, para que la historia avance hacia la sociedad sin clases [...]. Ahora bien [...], el otro incidente, el que las fuerzas francobritánicas provocaron en Egipto, resulta, bajo cierto aspecto<sup>4</sup>, más grave que el de Hungría<sup>5</sup>.

Bortxakeria, orain, bere filosofiarekin batera egiten da. Arma mortala da «moral» bera. Egiaz, indarkeriaren kultura eraiki du moderniak.

Hautsitako, usteltzen ari den modernia horren hondakinetatik bakezko mundu bat berreraikitzeke xedez, urte askoan ahalegindu da Santamaria, lan teoriko nahiz praktikoan, hori jo baitaiteke haren egitasmo behinentzat.

Zein da bakezaletasunaren eginkizuna? Denborarekin eta ingurumariekin, plan konkretuak ere aldatu egiten dira, noski. Santamariak, mugimendu bakezaletan beti aktibo eta batzuetan erantzuneko nagusi, hainbat eratan azaldu du iritzia horri buruz. Ez da berdin 1950eko urteetan mintzatu ala 1980koetan; Euskal Herriko bakeaz jardun ala mundu osoaren arrisku nuklearrak; gaiaren bestelako planteamendua eskatzen du Gipuzkoako hezkuntzaren

testuinguruak, Pax Christiko nazioarteko idazkaritzak baino, etab. Santamariak bere pentsamendua mementoari eta gertakariari oso lotua isuri baitu, batzuetan diferentziak arduratsuak izan daitezke, haren iritziak inoiz kontraesanezkoak iruditzeraino agian norbaiti. Hemen, haren pentsamenduari orokorki eta modu sistematikoan, ez historiko edo biografikoan, hurbilketa saio bat soilik entseatzeari baita gure asmoa, xehetasun horiei ezingo zaie behar bezala jaramon egin. Adibide gisa bakarrik, kapituluan sartzeko, Santamariaren ekinaldiko hasiera eta azken aldeko bi testutxo aipatuko ditugu konparazio aldera.

1957an, Pax Christiko nazioarteko idazkari da Santamaria, «Paz y pacifismo» idatzi du eta hauxe duzu hor kezka edo galdera nagusia:

¿Cabe evitar la amenaza de una tercera guerra mundial? La aspiración a una sociedad de naciones dotada de poderes completos y efectivos, en la que los conflictos y los litigios internacionales fuesen pacíficamente dirimidos, ¿puede ser realizada en el mundo de hoy?<sup>6</sup>.

Mundu Gerra ez dago aspaldi, deskolonizazioa martxan indartsu<sup>7</sup> eta

... hoy los pueblos buscan —tanteando en medio de la mayor oscuridad— las bases de un orden político internacional más justo, más humano, más estable, un orden pacífico y armonioso entre todas las naciones de la tierra. Cansados ya de guerra fría y de paz armada, miran hacia el futuro como a través de un largo túnel del que esperan poder salir alguna vez<sup>8</sup>.

Baina —nekeak neke— Gerra Hotza tenorean oso bero dago, Aita Santua bera ez da batere fio bakezaletasun askorekin, Pax Christi nazioarteko Santamaria ere —komunistak dira egun horietako bakezale sutsuenak: «la propaganda de la paz ¿no se ha convertido hoy en una poderosa arma de guerra?»— goganbehar-tsu, irudikor eta fidantzia gabe ageri da.

Por desgracia hay muchos pacifismos espectaculares que se reducen a gestos y proclamaciones y que se empeñan en desconocer el gigantesco peso histórico que gravita sobre nuestro presente. Esta compacta y espesa realidad de la Historia no puede desvanecerse por un ligero soplo de buenas intenciones. Cabe también una utilización partidista, una utilización táctica de la idea de paz al servicio de fines egoístas o interesados. Tal utilización ha sido hecha innumerables veces en el curso de los siglos y hoy sigue haciéndose también. Desde César hasta Hitler, todos los grandes jefes militares emplearon las ofertas de paz para desconcertar y desmoralizar al adversario. No caigamos en la ingenuidad de creer que cuando los dirigentes del Este europeo, asimilando la aspiración y el deseo de paz de los pueblos, realizan sus amplias e inteligentes ofensivas de paz, proceden con mayor sinceridad que otros<sup>9</sup>.

Bakezaletasun absolutuaren edo inozoaren aurkakotasuna konstante bat da Santamariaren ibilbidean. Baina jarrera edo sentiera horrek ere beti ezin izan du eduki larritasun bera.

Ez bedi ulertu besteak adina Santamaria bera dagoela ataka horretan, bakezaletasuna arma bezala erabili beharrak harrapatuta, bera ere fronte bietako batean gerrari, ordea<sup>10</sup>. Santamaria deliberatua dago Pax Christirekin borroka errealista bat borrokatzera «en favor de un civismo internacional, en favor de una ciudad internacional o supranacional»<sup>11</sup>. Nazioz gaindiko instantzia horren beharrak berak ebidentzian ipintzen du, hain zuzen, gaur egun nazio boteretsuen esku dagoela gerra eta bakerako erabakimena, eta horregatixe jokatzen dutela ahalmen horrekin beren interesetarako soilki. Errealitatea, oraingoz eta hasteko, horixe da. Zer egin lezake horren aitzinean kristau fededunak? Oraingoz eta hasteko, ez etsi behintzat. Arma eta odol artean bada ere, mundua izugarritzeko aldaketak ari da jasaten. Liberalismoak, marxismoak, Europa XIX. mendean islatzen dute. Mundua ez da orain Europa. Errusia, Austria-Hungaria, Inperio zaharrak borrotatuak dira munduko mapatik. Britainia Handia, Frantzia, Belgika eta Holandaren menpeko herri andanaren libertate geldiezina doa aurrera, deskolonizazioa.

Si hay algo que se muestre prodigiosamente mudable y cambiante, aparte del mar —el inagotable Proteo de las mil y una formas—, es la faz de los pueblos. Los pueblos son como los océanos, profundos e indomeñables. Todo puede esperarse de ellos. Todo puede temerse. ¡Ay de los imprudentes navegantes de tales mares! La Historia, sin embargo, debe tener su lógica, debe tener su explicación, aunque ésta escape casi siempre a la aguda visión de los más finos observadores<sup>12</sup>.

Itsaso horren orain arteko historia ekaitzez eta itsasikaraz egin da, benetan. Inbasioz eta gerraz. «La visión mítica [1] que quiere hacerla consistir en un tejido de milagros es más propia para nutrir las estrofas de los poetas épicos que para llevar el convencimiento al ánimo de los juiciosos investigadores». Bigarren ikusmoldea, materialista, ikerlariona izango da [2],

... quienes pretenden reducirla a la violencia, al juego de los instintos fundamentales de la naturaleza humana [...]. La historia de la especie humana sería como la de cualquier otra especie, la resultante de un sistema de fuerzas naturales en permanente actividad, una historia de monstruos destruyéndose los unos a los otros.

Zer hirugarren posibilitate [3] geratzen zaio fededunari, munduaren patua horrela izateaz gero? «El pacífico, el manso, el amante de la justicia, el inocente, ¿tienen, en definitiva, algo que hacer en el proceso de la Historia?»<sup>13</sup>. Santamariak beti hots egin du esperantza, fedea, esperantzarako arrazoi asko ageri ez

zenean ere. Pesimismoa kristauak zilegi ez duen zerbait da. Eta itxaropena aldarrikatuko du orain ere, bi bloke aurrez aurre jarriak izan arren.

Lo importante es que quienes se sienten llamados por el Sermón de la Montaña encuentren su camino de paz también en este mundo. Acaso lo que el mundo desea, sin saberlo, es esto: la reconciliación, la paz, después de las dos grandes guerras mundiales. Quizá sea ésta una lamentable e ingenua ilusión, pero yo soy de los que aún abrigan la esperanza de que tras las gigantescas matanzas, tras los enormes odios, una era de paz y de reconstrucción vaya a iniciarse en el mundo<sup>14</sup>.

Hauek ziren 1950etako tornuak.

1986an «El futuro del pacifismo» argitaratu du *Herria 2000 Eliza*-n Santamariak. Oraindik munduak bi bloketan jarraitzen du, eta abar, baina:

El pacifismo actual contrasta con el de la primera mitad del siglo, que era sobre todo un movimiento idealista más o menos identificable con el antimilitarismo. Su objetivo principal es la destrucción de las armas nucleares con todas sus consecuencias y, entre éstas, la de la superación del bipolarismo mundial<sup>15</sup>.

Efikaziaren arazoia guztiz premiatsu bilakatu da. Orain —blokeak bloke—, arrisku nuklearra mundu guztiarentzat da mehatxu larria, edozein bloketatik datorrela berdin: ez dago printzipio ederren predikuaz etsitzerik, bakezaletasunak politiko bilakatu behar du, «también el pacifismo tiene que ensuciarse las manos»<sup>16</sup>. «La fuerza del pacifismo testimonial sigue siendo grande, reconocámoslo, pero quizás no lo es suficientemente para *cambiar el rumbo de la historia*»<sup>17</sup>. Baina nola antolatatu politikoki Alderdi bihurtu gabe?<sup>18</sup>. Eta nola lortu eragin politikorik —Parlamentuan, eta abarretan— Alderdirik izan gabe? Ez dugu jarraituko. Horiek izan dira 1980etako kezkak.

### ***Ezbaian Gandhiren inguruan***

Gandhi amaba el sermón de la Montaña y veía en él la más grande y clara enseñanza social de todos los tiempos. Bienaventurados los pobres [...]. ¿Puede un político inspirar su acción en estas palabras? Esta es la gran cuestión de hoy, de hoy sobre todo, más que de ninguna otra época, ya que el progreso moderno ha acrecentado de un modo enorme la fuerza del positivismo político<sup>19</sup>.

Arazoaren aurrean kristau askok aurkitu duen soluzioa da bizitza pertsonal pribaturako edo komentuko bizitzarako uztea aholku ebanjelikoak, eta publikorako gupida gabe baliatzea «errealismoaren» printzipioak. Santamariarentzat onartezina da dualismo hori, mezu ebanjelikoaren faltsifikazioa da. Hein horretan,



... tenemos mucho que aprender los cristianos del pensamiento hindú y de hombres como Gandhi, Vinoba y ahora Shastri. Ellos han tratado de poner a prueba lo que nosotros proclamamos sin demasiada fe, es decir, el poder efectivo de la bondad en la acción temporal<sup>20</sup>.

Horiek ahalegindu egin baitira, zaila bazirudien ere, printzipio guztiz zorrotz haiei aplikazioa ematen politika errealean. Eredu bat kristautentzat.

Eredu horren arabera, hain zuzen, Gandhiri, baina kristautasunean (haren filosofia edo erlijio hindu partikularrik gabe) jarraiki, planteatu du arrazismoaren aurka borroka Amerikako Estatu Batuetan Martin Luther King artzain baptistak. Santamariak biziki maite zuen. Maitasunaren predikari beltzak, zurien gorrotoak erailak, Jesukristo gogorarazten du: «es su figura moral la que irresistiblemente nos hace pensar en Cristo»<sup>21</sup>.

Hirugarren adibidea, hau katolikoa, Edward C. F. Schillebeeckx belgikar teologoarena da, Santamariak osoki arbuiatzen duen bakezaletasuna:

Pretender imponer estos consejos [ebanjelikoak] en la vida social como si esto fuera la cosa más natural del mundo, no tendría evidentemente ningún sentido —idazten du Santamariak—. Pero hay algo peor y es querer extrapolar tales consejos a las instituciones políticas, a los Estados o los Gobiernos. Así, defender la idea de que los pueblos deben también poner en práctica el consejo de *la otra mejilla*, renunciando a los armamentos y a la guerra defensiva contra sus agresores, es algo por completo extemporáneo. Tal es sin embargo la postura de ciertos pacifistas cristianos que propugnan el desarme unilateral como la fórmula más adecuada ante el riesgo nuclear [...]. Este *círculo virtuoso* no es otro, en definitiva, que el de la no-violencia tan admirablemente definido por Gandhi: el pacífico con su absoluta inofensividad desarma al agresor y termina ganando la conciencia y la voluntad de este. Lo que traducido al lenguaje político querría decir en este caso lo siguiente: si Occidente se adelanta a renunciar unilateralmente a las armas nucleares los soviéticos se verán moralmente obligados a hacer lo mismo. Pero, ¿es esto así? La respuesta parece más que dudosa<sup>22</sup>.

Hori dena handia da, ederra da: baina Santamariak ez du ziur ikusten bidea hori denik; *oraindik* Jesukristok zer esan askorik ez daukan mundu politikoan bizi gara, basatiki samar esateko.

Hau da, gauden munduan gaudela, Mendiko Predikuak ez ote luke fiasko ikaragarria kausatuko, Estatu batek haren arabera antolatu nahiko balu? Horrek ez du agian ezer erakusten Mendiko Predikuaren aurka; dezente bai, gauden munduaren aitzia; eta asko, gauden munduan Prediku hura besterik gabe aplikatzen saia ledinari buruz. Ebanjelioa eta mundua pentsatzerakoan (tenka horregatik ez dira faltatu, mendez mende, zismak eta heresiak) problema hori dago beti. «Un *esencialismo político* que sólo tuviera presentes los principios

sería impracticable»<sup>23</sup>. Ideala eta errealitatea dira politiko zuhurrak (eta moralak) ahokatzten jakin behar dituen bi mutur. Horregatik da zuhurtasuna erantzun moraleko politikoaren oinarritzko bertutea<sup>24</sup>.

Zuhurra ote da «gandhismoa», «ez-bortxa» edo bortxa gabezia, gauden (Mendebaleko) munduan? Santamariaren ebazpena, azken finean, ezetz da; nire ustez, baina, ez da hain erantzun simple eta laburra ere.

Politikan efikazia ez da eskakizun teknikoa bakarrik, morala ere baizik: politika oro efikaza izateko dago. Gandhik ere efikazia bilatzen zuen «ez-bortxazko» (bortxa gabeko) borrokarekin<sup>25</sup>; are, Indiaren deskolonizazio-borrokan ingelesekin, armak baino efikazagozat jotzen zuen jokabide hori. Gandhiren bakezaletasuna, hortaz, ez da sortu armen uko hutsetik, arma konbentzionalak gainditzen zituela uste zen ideia batetik baizik<sup>26</sup>. Bestela esan, Gandhiren armen eta gerraren ukoak ez du esan nahi haien kondena morala, zapalketaren eta injustiziaren aurkako jaikiera baita gizatasunaren forma duinena beti, zentzu zabal eta beteenean haien gaindipena baizik<sup>27</sup>. Eta hortixe sortzen da haren problematikotasuna.

Está claro, pues, que Gandhi no es un pacifista absoluto y que deja a salvo el derecho de un país a defenderse si es atacado. Pero esto no obsta para que, una y otra vez, repita que la no-violencia es el mejor y más eficaz medio de defensa. Desgraciadamente esta afirmación gandhiana no ha sido probada por los hechos<sup>28</sup>.

Hemen bi puntu daude jokoan: bat da gerra justuaren posibilitatea (printzipioa) salbatu beharra kristauarentzat. Berez, bakea, besterik gabe, ez da ez ona eta ez txarra, eta bai ona eta bai txarra izan daiteke: kristauarentzat bakea bera sekula ez da absolutu bat.

La moral católica no acepta la idea de que la paz deba ser considerada como un bien absoluto o supremo. Al contrario, dicha doctrina afirma que la paz está subordinada a la realización de otros bienes, como la libertad y la justicia, sin los cuales no puede ser nunca una *verdadera paz*<sup>29</sup>.

Hori da bakezaletasun kristaua beste hainbat faltseria bakezaletatik<sup>30</sup> garbi be-reizten duena. Are, herri batek, erasotzen badute, defendatzeko eskubidea ez ezik<sup>31</sup> obligazioa dauka defentsarako gertu egoteko<sup>32</sup>. «Si el derecho a la defensa fuese totalmente excluido, como quieren los partidarios de la no-guerra, el panorama moral de la Humanidad sería, por demás, trágico y tenebroso»<sup>33</sup>. Adiera horretan, kristautasuna ez da bakezale absolutua, eta Gandhi ere ez.

Beste puntu bat «ez-bortxazko» borrokaren posibilitateen balorazioari dagokio.

Gandhi presentó su *no-violencia* como una alternativa a la agitación terrorista de la India. Pero sus métodos han sido a menudo mal comprendidos en Occidente [...]. Algunos políticos confunden aquí la *no-violencia* con el *no-empleo-de-la-violencia*. Es decir, que confunden la *no-violencia* con el *violencia-no*, que es cosa muy distinta. La violencia es la negación del hombre y el *no* gandhiano a la violencia resulta ser en realidad una especie de ‘negación de la negación’. Este no es pues un *no afirmativo*, que conduce a un tipo de lucha por la justicia y por la liberación de los pueblos sumamente enérgico y combativo a condición de no ser ni sangriento ni mortífero<sup>34</sup>.

Borrokabide hori zilegi dela, esan beharrik ez: baina, kasu, ez gerra baino gehiago, hau da, absolutuki eta edozein zertzeladatan, hura bezalaxe baldintza batzuen azpian baizik, horietako batek efikaziarekin zerikusia daukala beti. Zapalkuntza eta injustizia dagoenoro, eginbehar morala da hura gainditzen modu efikazean ahalegintzea. Ikusitakoa da eta ez dago eztabaidan bortxa gabeko borroka efikaza eta, beraz, zilegizkoa izan daitekeela baldintza zenbaitetan (India), helburu jakin batzuen eremuan (beltzen giza eskubideen konkistarakoan, adibidez, printzipioz eskubide horiek aitortuak dauzkan gizarte demokratiko batean). Aitzitik, esperientzia horietatik abiatuz, auzitan dago «ez-bortxazko borrokaren» ideia unibertsalizatzea eta nolabait absolutizatzerik ba ote dagoen. Santamariak pertsonalki eta hurbiletik ezagutu ditu teoriko eta aktibista gandhizaleak,

... tipos notables que estaban completamente persuadidos de la idea de que en nuestro mundo occidental super-civilizado es posible encontrar alternativas no mortíferas a las guerras internacionales y a las luchas armadas de carácter revolucionario<sup>35</sup>.

Alegia, «la no-violencia [...] es considerada por muchos como un método de lucha política adaptable a todas las situaciones»<sup>36</sup> (beste edozein bortxazko borroka moldek zilegitasunik gabekoa lirudike, hortaz). Bakezaletasun horrek *de facto* bere burua absolutizatu egiten du nolabait, dela zuzenean gerra orori gaizki iritziz, edo dela zeharka bezala ez-bortxazko borrokari edozein kasutan gerrari baino hobe iritziz (sakonki efikazago nahiz moralago):

De leur côté les pacifismes d’inspiration gandhienne, chrétienne ou simplement philanthropique, nient que l’on puisse construire quoi que ce soit de bon ou de juste, au moyen de cet instrument épouvantable, aveugle, irrationnel, inhumain, qu’est la guerre moderne, soit qu’elle ait lieu entre les États capitalistes, soit qu’elle adopte la forme de guerre révolutionnaire<sup>37</sup>.

Jarrera horretan, desarmatze eskakizuna baldintzarik gabekoa da, esaterako, hainbat hori omen delako jokabide zinez ebanjelikoa, aipatu den Schillebeeckxen maneran, nola ekintza horren bertute efikazetan benetan sinesten delako: «El principio del *desarme unilateral* está en la esencia misma de la doctrina de la no-violencia. Es así cómo concebía Gandhi su teoría de la ‘espada del espíritu’»<sup>38</sup>.

«La idea de Gandhi, ¿es realmente exportable a otros horizontes?»<sup>39</sup>, itauntzen dio Santamariak bere buruari.

Confieso —erantzun du berak— que nunca he llegado a estar plenamente convencido de esa posibilidad. Pese a su evidente mérito y generosidad, los pequeños ensayos de *no-violencia* realizados en los países occidentales, como por ejemplo el de Luther King, carecen en absoluto de trascendencia histórica<sup>40</sup>.

Bi kari daude ezintasunerako. Ez-bortxa gandhitarra mundu-ikuskerara konkretu batean dago habiaratuta, ideia erlijioso-filosofiko jakin batzuek sostengatzen dute, bortizten dute, mamitzen eta ernarazten dute. Alta, bada, ideia horiekin ezina da eta ideia horiek gabe ezinagoa ez-bortxa Mendebalean aplikatzea. Uste dut berriro bi sailetan bereiz genezakeela Santamariaren objektzio hau: Gandhiren ideia [a] sozial-politikoak ezin partekatuzkoak zaizkio mendebaldar moderno bati, oro har; [b] haren aurretiazko edo sustrai erlijioso-filosofikoak lekurik edo bizirik gabekoak dira, orobat, pentsamendu moderno mendebaldarrean.

[a] Gandhiren pentsamendu soziala «guretzat» erreakzionario hutsa da: Erdi Aroko edo antzinagoko kontzeptua; mendiko monje baten edo San Frantzisko Asiskoaren inozentziazko, «guretzat» irrealismo ilargitarrezko, politikaren ikusmoldeduna.

Gandhi puso en movimiento a millones de hombres y mujeres con sus campañas de *no-cooperación* y de *desobediencia civil* [...]. Ahora bien, junto a esta grandeza que todo el mundo reconoce, las ideas políticas y sociales de Gandhi eran enormemente retrógradas. Defendió las castas, el culto de la vaca y otras tradiciones indias enteramente anacrónicas. Como fórmula para resolver los conflictos de lucha de clases propuso que se entablasen relaciones o cruces familiares entre patronos y obreros. En plena guerra escribió a Hitler para convencerle de que se convirtiese en un buen muchacho y aseguró a los norteamericanos que los indios serían capaces de contener un posible ataque japonés utilizando solamente los medios no violentos. Todo lo cual resulta ridículo para la mentalidad occidental. De este modo Gandhi es un personaje absolutamente indigerible en Occidente [...]. Gandhi no puede ser, pues, imitado ni copiado. Aunque algunos de sus métodos pudiesen ser válidos aquí, deberían ser re-inventados casi totalmente<sup>41</sup>.

[b] Muin-muinean, bortxa bai/ez baino barrenago eta lehenago, gandhis-moak erronka anitz erradikalagoa adierazten du Mendebalarentzat, hemen hartu den zibilizazio edo kultur eredu «makinistarena» berarena, hain zuzen.

Gandhi echa en cara a los occidentales este desaforo [natura guztia lorrintzen ari den industrialismoa] en su libro *Su civilización y nuestra independencia*. Gandhi lanza, como un desafío a la mentalidad occidental, ideas como, por ejemplo, la del *culto a*

*la vaca*, que no pueden menos de extrañar y escandalizar a los occidentales. Lo que no ha comprendido aún la mayor parte de éstos, es el significado simbólico que este culto tiene en el cuadro de la cultura hindú. El mismo Gandhi lo ha explicado alguna vez: la vaca simboliza *el mundo de los seres animados que no hablan*, es decir, el mundo *infante* de las plantas y de los animales. El culto de la vaca viene a ser, pues, algo así como una especie de sacramento ecológico, lleno de profundas vivencias, mediante el cual el hinduismo trata de infundir a los creyentes un inmenso respeto hacia ese mundo de los animales y de las plantas que el bárbaro occidental cree poder explotar y destruir a mansalva<sup>42</sup>.

Ebanjelioen jatorriaren antzeko humus espiritual horretan kokatzen da bortxa gabezia gandhitarra.

La no-violencia es ante todo, una regeneración o conversión moral. Supone, según las palabras del propio Gandhi, 'una ausencia completa de mala voluntad, de odio y de resentimiento'. Sólo en un segundo o tercer tiempo puede relacionarse con las luchas políticas o sociales y en cualquier caso esta misma relación con lo temporal no es sino la consecuencia y el resultado de un estado de espíritu absolutamente desprovisto de pasiones y apetencias mundanas. La acción no-violenta requiere, pues, una previa y larga ascética personal, una purificación del cuerpo y del alma que excluya toda hipocresía, todo fariseísmo, toda insinceridad, todo 'doble juego oportunista' [...]. En el fondo, la verdadera fuerza de la no-violencia no es sino la fuerza del *amor* [...]. Pero está claro que el hombre occidental no cree apenas en la fuerza del amor. Prefiere creer sin duda en la fuerza de la fuerza<sup>43</sup>.

Santamariak ere hala errepikatu izan du: «Más que el desarme de los ejércitos lo que se impone es el desarme de los corazones»<sup>44</sup>. Baina, barne-barnean, hori taktika bat edo kalkulu bat baino gehiago eta zailago izaki,

... existe el peligro de que se adultere sustancialmente la idea gandhiana al interpretarla desde nuestro contexto occidental [...]. Así, nuestras mentes occidentales tienden a considerar la no-violencia como una fuerza más entre otras: un método de acción, una manera de ejercer la violencia sin aparente violencia. En fin, una *táctica*<sup>45</sup>.

Hori da dena? Hainbeste ibili Gandhiren ondotik eta, azkenean, Gandhi ezin da Mendebalean aplikatu, eskasa baino ez dirudi lorpenak.

«*E pure si muove*», Santamariak berak protestatu du konklusio horren aurka. Hori ez da dena, ez da hasiera besterik. Hori ezin izan daiteke gure azken konklusioa.

Debe haber, en efecto, algo que permita conseguir que las luchas guerreras de todo tipo vayan siendo poco a poco reemplazadas por acciones de otros géneros, más humanos y racionales que aquellos<sup>46</sup>.

Nik uste dut ebanjelioekin dagoen problemaren antzekoa dagoela gandhis-  
moarekin Santamariarentzat. Bi gauza behar direla. Aurrenik, ideia horietan  
pertsonalki eta sakonki sinesten duen jendea; gero, ekintza konkretu ez-bor-  
txazko efikazak asmatzen eta antolatzen jakitea. Gandhiri buruz, batzuetan hu-  
ra kritikatu egin duela ikusten dugu; defendatu, kritikatu izan den bestetzuetan;  
Santamaria sigi-saga jardun da idazkeran, non-zeroen arabera joz. «Soluzioa ez da,  
baina bai bidea», ulertu behar dugu ausaz. Egin ere, aplikaziorik ez omen zeuka-  
la gorabehera, Santamariak behin eta berriro hel egingo du Gandhigana edozein  
bortxa-arazo konkreten aurrean, Euskadiko indarkeriaren kasuan, adibidez.

Por imperativos morales y humanísticos —irakurtzen diogu 1981eko apirilean—, y  
también por imperativos políticos, debe rechazarse el empleo de la violencia armada.  
Pero la renuncia a la violencia no debe significar el abandono de su objetivo justo,  
como lo es la libertad de un pueblo. Difícilmente puede uno imaginarse que el pueblo  
vasco pueda algún día ver plenamente reconocido su derecho a un auténtico autogob-  
ierno —un autogobierno que merezca este nombre— si no es mediante una dura y  
larga batalla política. Ahora bien, ¿qué clase de batalla política puede ser ésta y por  
qué medios debe ser llevada adelante? Perdóneseme esta digresión, pero esta pregun-  
ta trae inevitablemente a mi memoria el recuerdo de Gandhi y de su no-violencia, la  
cual no fue, en modo alguno, la postura blanda, pacifista y puramente testimonial  
que algunos se figuran [...]. No estamos ciertamente en la India de 1925. Pero no es  
disparatado esperar que el espíritu de la no-violencia pueda también soplar de alguna  
manera sobre nuestro pueblo<sup>47</sup>.

Itxaropen berdinarekin jarraitzen du 1982ko otsailean, ez-bortxazko borrokak,  
autentikoa izateko (eta, luzarora, efikaza), etikoki animatua izan behar duela  
azpimarratuz: «las técnicas no-violentas no sirven para nada cuando se las cor-  
ta o separa de sus auténticas raíces espirituales»<sup>48</sup>. 1983ko maiatzean, giro pole-  
mikoan orain ez-bortxaren alde, Santamariak azalpen hau eman du, ene iritziz  
nahikoa ongi definitzen duena bere jarrera:

Que el balance histórico de la no violencia sea hasta ahora por completo insuficiente,  
es algo con lo que estoy enteramente de acuerdo. Pero yo invitaría a los partidarios de  
la violencia a que realizasen también el balance de las luchas armadas, por ejemplo  
en los últimos quinientos años, y estoy seguro de que este otro balance arrojaría un  
resultado no sólo insuficiente sino *absolutamente negativo*. Las guerras de todo tipo,  
incluidas las llamadas civiles; las revoluciones armadas; las sanguinarias represiones,  
etc., no sólo no han servido para resolver los problemas reales de los pueblos opri-  
midos, sino que han dejado tras sí un enorme reguero de sangre y de sufrimientos  
inútiles que los hombres del porvenir juzgarán probablemente como el ejemplo más  
claro y nefando de la irracionalidad humana<sup>49</sup>. Gandhi observó que, entre el diálogo  
normal —inservible en determinadas luchas de liberación— y la lucha armada, existe  
una tercera vía constituida por una larga serie de tipos de acción directa que fueron  
*inventados* o, por lo menos, *perfeccionados* por él [...]. El Mahatma tuvo la intuición

de que estas nuevas formas de lucha serían *el arma del futuro*. El no hizo sino unas primeras experiencias; pero harán falta muchas más pruebas y más importantes que las conocidas hasta ahora para que la intuición gandhiana se realice. Los partidarios de la no-violencia deben mirar, pues, mucho más al porvenir que al pasado<sup>50</sup>.

### **Ekologismoa**

Ez du emango gai hau hemen egokitzen denik, baina Santamariak ulertu duen bezala, honek ere, batetik Mendebaleko zibilizazio-eredua jartzen du auzitan, eta bestetik estatutu anbiguoan dago berau ere oraindik; bietan gandhis-moaren antzera hortaz, nolabait bide bila mundu berri batera, entsegu eta bermadura.

Bortxa kontua da bietan, gainera. *Oikos* etxea da, landare eta animalien eta gizakiaren etxe komuna; gizakiaren egoismoz, ordea, besteen eta are bere ondorengoen axola handirik gabe, suntsitzen ari dena<sup>51</sup>. Naturak bere ordena zeukan, eta ordena horretan bere lekua zeukan bizi-borrokak: belarra jaten du gazelak, gazela jaten du tigreak. «En nada de eso hay todavía violencia»<sup>52</sup>. «La verdadera violencia viene después: viene con el hombre y sólo con el hombre. Porque sólo el hombre tiene capacidad para proceder en la naturaleza de modo anti-natural»<sup>53</sup>.

El problema se plantea de la siguiente manera: puede decirse que, hasta ahora, en la naturaleza había reinado una relativa paz, un relativo equilibrio. Relativos decimos, porque —como todos sabemos por experiencia propia— en la naturaleza se produce una constante, implacable y universal lucha entre las especies, que así se limitan y destruyen mutuamente.

Ahora bien, todo esto entra en lo que pudiéramos llamar el ‘orden natural de las cosas’. Actualmente es el hombre el que ha venido a complicarlas extraordinariamente.

[...] Así, en los últimos tiempos, el hombre, armado de sus artificiales técnicas, ha introducido un gran desorden en la *casa natural* de los seres vivos, comprometiendo, no sólo su propia existencia, sino también la de los demás inquilinos de ese medio común.

Desde el siglo XIX el industrialismo y el consumismo parten —al parecer— de un principio tácito que consiste en suponer que el hombre puede explotar indefinidamente a la naturaleza para satisfacer los deseos y las necesidades sin límites de una Humanidad desaforada<sup>54</sup>.

Ekologismoa da katastrofe horren aurka piztu den kontzientzia eta hedatu den mugimendua; beraz, ideologia eta indar sozial eta politikoa. Santamariak bietan ikusten du ekologismoa oso nahas, oraingo. Zer da, eskuinekoa, ezkerrekoa? Lehen ikusi batean, ezkerrekoa ematen du, eta ematen du beharko lukeela izan ere,

... si por izquierda entendemos la postura de los que quieren cambiar radicalmente de modelo de sociedad [...]. El problema ecológico no podrá encontrar jamás solución en una sociedad industrial y consumista que propugne un crecimiento ilimitado a costa del agotamiento de los recursos naturales<sup>55</sup>.

Bestetik, ordea, eskuinekoa eta eskuin arriskutsuenekoa iruditzen zaio, bere irrazionalismoagatik: izan ere, orain Santamariak deritzenez, «en el irracionalismo social se esconden las raíces de todos los movimientos ultra-reaccionarios que han proliferado y proliferan en el mundo contemporáneo»<sup>56</sup>. Irrazionalismo hori, hain zuzen, zibilizazio produktibistaren uko bezala uler litekeen zer-baitetan errezelatzen du Santamariak:

Las ideas de algunos ecologistas presentan una aspiración de retorno a la naturaleza en su pureza originaria, una inclinación al primitivismo que está reñida con toda idea de progreso y de desarrollo. En la técnica, en el progreso, en la industrialización, hay valores a los que los hombres y mujeres de hoy no podemos renunciar. Una nueva naturaleza le ha nacido al hombre y con ella tiene éste que vivir hacia el futuro<sup>57</sup>.

Anbigutasun bera ekologismoaren definizio ideologikoan. Batetik, mosaiko polita edo sinpatikoa izan liteke, Mario Gaviriak definitu duen eran ulertuta,

... una simbiosis de anarquismo, marxismo, naturismo, antimilitarismo, afirmación de las autonomías, rechazo del trabajo como presión, y concepción de la vida como gozo [...]. Aparece aquí el ecologismo como una vasta y heteróclita condensación de movimientos de protesta contra la sociedad capitalista y contra las formas de vida social que hoy se llaman civilizadas<sup>58</sup>.

Izan daiteke, ordea, zientziaren (ekologia zientzia da!) eta ideologiaren kakanahaste bat ere<sup>59</sup>. Edo asko moduko zirtzilkeria bat izan daiteke:

A base de tópicos ecologistas han querido algunos fabricar una especie de síntesis de anarquismo, marxismo mal digerido, hedonismo y sexualismo obsesivo que no puede tener, a mi juicio, curso alguno racional<sup>60</sup>.

Hemen ez dago ematerik Santamariaren pentsamendu osoa ekologiaz eta ekologismoaz<sup>61</sup>. Honako, nahikoa zen erakustea barne-barnean hemen ere bakearen probleman gaudela eta, indarkeriaren eta bakearen arazoarekin bezala, egoera konplexu batean gaudela hemen ere, mundu zahar bati agur esan eta berriari ekiten asmatu beharrean. Santamariak pertsonalki deritzenez, oso bere eran hori, alafede,

... yo me permito hacer notar ciertas afinidades entre *ecologismo* y *franciscanismo*. Tal vez el mundo de hoy está necesitando precisamente de eso: de *un nuevo franciscanismo* que asuma en un único abrazo el amor del Creador y el amor de las criaturas<sup>62</sup>.



### ***Bake-hezkuntza***

Pax Christiren berrogeigarren urteurrena ospatzen zela eta (1985), Santamariak begirada bat bota nahi izan dio iragan aldiari, esperientzia horrek bakerako hezkuntzari laguntzen dion ikasi asmoz. Bakearen aldeko ekintzan, bake-hezkuntza beti egon da aurreneko lekuan Santamariarentzat. Baina bake-hezkuntzak, helburua beti bera duela (herrien kontziliazioa eta bakea ezartzea), eduki ezberdina du gerraosteko aroan (nola ekidin Hirugarren Mundu Gerra?) eta mehatxu nuklearraren aroan (nola ekidin Azkeneko Mundu Gerra?).

La paz del futuro —idatzi du jada 1951n— está muy ligada al clima espiritual en que sea educada la juventud de hoy. Dadme la educación y en un siglo cambiaré el aspecto de Europa, decía Leibnitz, el gran optimista. (¡Ah! ¿Por qué no se la dieron?)<sup>63</sup>.

Urteotan, Santamariak indar berdinez eta batera azpimarratu izan ditu bakerako hezkuntzaren garrantzia eta hezkuntzan nazionalismoak gaintitzearen garrantzia, puntu biak.

La propaganda del odio, la exaltación desmedida de los valores propios, la simplificación casi grotesca de la historia, que durante muchos años ha reinado en las escuelas —aun en las escuelas cristianas— constituía una verdadera *educación para la guerra*. Es urgente que establezcan nuevos moldes educativos, dirigidos a la formación del sentimiento de comunidad entre los hombres, de la unidad del género humano y de la relatividad de los conceptos naciones, es decir, una auténtica *educación para la Paz*<sup>64</sup>.

Nazionalismoak dirudi gerraren kausa eta, beraz, bakearen etsai nagusia<sup>65</sup>, hezkuntzaren eremuari gagozkiola bederen, eta eskola katolikoak berak salbuetsi ezin direla<sup>66</sup>:

... los nacionalismos exacerbados, herméticos, unitarios, inorgánicos que brotan como hongos de la siembra napoleónica, se entremezclan con los legítimos patriotismos y pretenden encubrirse bajo el manto casi religioso del amor a la patria<sup>67</sup>.

1960ko urteetan, gazteria berria, gerra ezagutu ez duena eta, beraz, errazago eror litekeena beste gerra bat abiatzeko tentazioan, nazionalismoan hezi dela salatzen jarraitzen du.

Nous savons que, dans beaucoup de pays, la jeunesse, entraînée par des idéaux nationalistes extrêmes, se montre partisane d'une action violente. Les hommes qui appartiennent à d'autres générations sont bien plus prudents, mais il ne se rendent pas compte que ce sont eux-mêmes qui ont transmis ces idées aux jeunes par une éducation chauviniste, où la Nation et l'État sont présentés comme des valeurs absolues, et où l'orgueil et l'égoïsme collectif acquièrent l'apparence de grandes vertus [...]. Voici

donc une autre tâche concrète que le pacifique doit s'imposer lui-même. Il a le devoir de faire comprendre à l'opinion publique les défauts d'une éducation nationaliste<sup>68</sup>.

Bake-hezkuntzak bi betekizun dauzka, elkarren osagarri<sup>69</sup>. Bata, informazioa eta didaktikoa, irakaspenarena, giza egintzak eta ezagutzak azaltzearena; bigarrena, propioki hezkuntzazkoa beratu, kontzientzia lantzearena, irizpide moralak eta elkarbizitzako ekandua lortzekoa. Aurrenekoaz den bezainbatean, egia da edozein gai eman daitekeela nolana hitsu (zeinek daki zer agresibitate pizteko moduan edo), baina historian ikusten ditu Santamariak arrisku gaitzenak. Baita posibilitate handienak ere herrien artean ulertutasuna zabaltzeko. «La Historia como medicamento»<sup>70</sup>. Gerrak, batetik, ez lirateke ikusbide nazional edo nazionalista batetik kontatu behar; eta, bigarren, herriak elkar kontrajarri izan dituzten egintza gerrazaleak baino gehiago, historiaren irakaskuntzan herriok elkar aberastu dituzten eta elkarrekin gauzatu dituzten egintza kulturalak eta hartu-emanak azaldu beharko lirateke<sup>71</sup>. Bigarren eginkizuna da, halere, garrantzikoena eta zailena, kontzientziak lantzea, bereziki Espainian, zeren-eta «la insensibilidad, el a-problematicismo es un gran mal de la sociedad española», tradizionalki eta historian zehar, «y de modo aún más acusado el de la sociedad española actual»<sup>72</sup>. Espainola eliztarra da, eta elizan pentsatzen dena pentsatzen du. Hau da, ez du pentsatzen. Horretarako, artaldea dago.

Una forma típica de insensibilidad es precisamente el gregarismo, la actitud del individuo que tiene entregada o vendida su propia alma a los criterios colectivos y no está dispuesto a aceptar jamás que los 'suyos' hayan podido equivocarse o cometer injusticias, ni que el adversario, el otro, el extraño, el de enfrente, el bárbaro, el de la otra acera, el enemigo político, el hereje, el francés, el marxista... pueda tener razón en nada de lo que afirma o plantea. Este individuo tiene el alma colectivizada, que es como tenerla alienada [...]. Aplicado este sistema al dominio de las relaciones internacionales, no puede menos de conducir a la tirantía y a la guerra<sup>73</sup>.

Eta gerrarik sortuko ez balu ere, balio-sistema sozial oker bat eta autokontzientzia nazional eragabe bat jasotzen ditu. «Ocurre así que las guerras son siempre consideradas como justas y santas por los patriotas de ambos lados, y que los fieles de las diferentes religiones se acusan mutuamente de intolerancia»<sup>74</sup>.

1980ko hamarkadatik aurrera, esan bezala,

... c'est la présence des armes nucléaires qui produit la nouveauté radicale de la situation actuelle par rapport au problème de la paix. L'arme nucléaire est devenue l'ennemi commun de l'humanité, sans distinction de peuples ni d'idéologies<sup>75</sup>.

Iragana utzi eta hezkuntzak batez ere geroari begiratu behar diola azpimar-ratuko du orain: iraganeko esperientziek ez digute asko laguntzen, «asmatu»

beharra dago zer egin, nola hezi ere («il faut absolument de l'imagination créatrice»). Agintariak, haatik, bonben erabilera eskuetan dutenek, ez dute erakusten etorkizunari begirako mentalitaterik, iraganean daude ainguratuak, eta horrek gorriagotzen du arriskua, hain zuzen<sup>76</sup>. Santamariak ez du espezifikatzen gazteak nola hezi: asmatzeko dago. Baina,

... si les jeunes d'aujourd'hui ont le droit d'espérer, il faut qu'on les éduque, non seulement dans le souvenir des horreurs, mais aussi dans l'espoir effectif et réalisable d'un monde dénucléarisé<sup>77</sup>.

### *Kristaua eta bakea*

Bortxak edo gerrak, indarkeriak, badu bere humanismoa. Tradizio greko zaharrean, Homeroren baitan edo esaterako, *eiréne* (bakea) da gerratean jainkoek eragindako etenaldia; gizakiari patuak edo naturak ezarritako egoera normala, ezinbestekoa, berriz, *pólemos*, gerra. Santamariak «militarismo basikoa» deritzon hau —gerraren laudorioa, jainko eta gizaki armatuen gorazarrea—, arrunta da antzinako literaturetan, eta ez hain antzinako askotan ere, Biblia bera barne<sup>78</sup>. Baina kezka garriagoa da «ideologia», sasizientzia bilakaturiko militarismoa, garai modernoetako naturalismoaren emaitza.

Apoyándose en la teoría darwiniana de la selección natural de las especies, los militaristas afirman que las guerras son necesarias para que el género humano pueda autoseleccionarse y desarrollar su máxima potencialidad. Por medio de la guerra, los pueblos fuertes imponen su voluntad a los pueblos débiles. A fin de que la Historia avance, éstos deben ser eliminados o conducidos como rebaños por los pueblos duros y fuertes.

Sin las guerras, las culturas se empobrecen, se encierran en sí mismas y degeneran; las naciones se debilitan; la Humanidad, en lugar de avanzar, retrocede. La guerra, en cambio, es creadora. En realidad, contribuye a unir a los hombres, unos con otros, construyendo civilizaciones y abriendo los caminos del progreso<sup>79</sup>.

Horrelako filosofiak dezente egon dira XIX. eta XX. mendeetan, Darwinekin eta gabe, eta ez justu ezezagunenak.

Bakearen zentzu positibo bateranzko eboluzioa nabari daiteke jada antigoalean, gerraren izugarrikerien esperientziak eraginda, Pindaro eta Hesiodoren baitan (halere, esklaboak harrapatzeko-edo gerra egitea «naturala» da, bidezkoa, oraindik Aristotelesentzat); baina haren esanahi sozial eta juridikoa —ez agian txit atsegingarria eta justua, baina politikoki gehien inposatu dena— *pax romana* kontzeptu bi zentzuzkoan geratu da finkatuta, une berean domeinua-ren eta ordenaren trankiltasun adieraz, zuzenbide, segurantza, oparotasun eta jainkoen kultuarekin elkartuta, Augustoren Ara Pacis-eko irudi eta alegorietan

zizelkatu den bezala, sintomatikoki Marteren zelaian, arrazoi guztiarekin, armen emaitza legez ulertu da eta.

Bakea justiziarekin eta askatasunarekin elkartuta, Israelgo profetena eta kristautasunarena da kontzeptu hori, iturri biblikotik jariatua hortaz, ez greko-erromatarretik. Liturgia kristauak, batez ere, Kristoren obra eta misterioa («salbazioa») bakearen sinonimo gisa gomutatu eta ospatu izan ditu, Jainkoaren eta kreazioaren kontziliazioa, unibertso osoa biltzen duen adiera pertsonal intimo, eliztar, gizaditar eta kosmiko guztiz hedatsu batez. Kristautasunak ez zuen lortu Erdi Aro baketsu bat; are, zenbait gerra (Gurutzadak eta) hark eragin zituen.

Moderniako sekularizazio prozesuarekin, bakearen kontzeptuak esanahi politikoa berreskuratu du, tolerantzia eta humanitatearen ideiekin elkartuta orain, eta ez gerrarenarekin, baina zientziaren eta aurrerabidearen emaitza bezala ulertuta. Laster mundu osoan bakeak aginduko zuela itxaron izan dute XIX. mendeko bakezaleek, erromantikoeak ala positibistek, arrazoimenaren eta gizatasunaren itzuri ezinezko garaipenean. Ez du fede kristauak baino gehiago balio izan, gerrak ekiditeko.

Hortxe gaude orain. Kontua da munduak bakearen arloan porrot egin duela beti orain arte: kristautasunarekin eta berdin ez-kristautasunarekin.

Halere, Santamariak objektzio posible horretatixe abiatu du bere gogoeta.

Veinte siglos llevamos de cristianismo y las guerras no han cesado de ensangrentar la superficie de la Tierra. Los príncipes cristianos se han acibillado cordialmente en una interminable orgía de contiendas entre 'hermanos'. ¿Qué puede pensarse de este Cristianismo inoperante que tan ineficaz se ha mostrado a lo largo de su larga existencia?<sup>80</sup>.

Arrazoi hori behin baino gehiagotan errepikatzen da Santamariaren idazkietan eta, ideiaz denaz bezainbatean, erantzuna berdintsua da beti.

Prueba todo esto la inoperancia o ineficacia del cristianismo? Yo diría que demuestra precisamente lo contrario. Todo esto prueba, en efecto, que el cristianismo no ha llegado a penetrar todavía en la Humanidad, que sigue siendo la gran Verdad incomprendida y que, aun entre los mismos cristianos, muy pocos lo viven con intensidad suficiente para que a través de ellos actúe con verdadera eficacia social [...]. Si la paz no está hoy asegurada no es porque los pueblos sean cristianos, sino porque no son bastante cristianos<sup>81</sup>.

Konbentzituko du ala ez du arrazoiak; nolana ere, Santamariak planteamendua zein hesi barrutan egin duen ongi definituta edukitzeko balio du guretzat («gandhismoaren») posibilitateen arazoa ulertzeko ere balio liezagukeena,

zeharbidez): dagoena adina espirtu dago, eta dagoenaren mugen arabera izan behar du planteamenduak.

Por eso no queda de hecho más recurso por el momento que la *paz armada*, es decir, un equilibrio inestable y costoso que se está llevando la inmensa mayor parte de los esfuerzos de la actual generación y de las inmediatas precedentes<sup>82</sup>.

Bakea espirtuetan sustraitzen da. Beraz, bakea osoki ezartzea lortu nahi bada, —luzarora— espirtua eraberritu beharko da, hots, «konbertitu», zentzu gandhianoan nahiz, Santamariarentzat hala izan beharko du, kristauan.

No cabe hacerse falsas esperanzas: esta situación no puede terminar de otra manera que con la implantación de un orden social cristiano [...]. La meta de los amigos de la paz no puede ser en último extremo otra que la cristianización del mundo<sup>83</sup>.

Gauden munduan egonda, eta gauden jendea egonda, gizaki guztion harmoniazko bizitza eta Kantek amestu «betiereko bake» oso eta betegina ezin da izan gizadiaren ideala besterik (idealaren zentzu positiboenean, hala gura bada)<sup>84</sup>, azken helburua. Eguneroko gure ekintzetan eta zereginetan errealitatea inoiz ez da hain purua izaten. Handinahia, norberekoikeria, nagusikeria, injustizia, inon ez dira falta giza langintza politikoan. Gauzak sekula ez dira gertatzen onak denak alde batean eta gaiztoak denak bestean. Onak eta gaiztoak nahas-mahas ibili ohi dira munduan (denok gara on-gaiztoak). Halako baldintzetan konprometitu beharko du kristauak ere bakearen alde, lan hori ez baita izango onen prozesio bat, nola-halako borroka bat baizik.

Esencialmente no hay sino una sola paz, la paz en la Verdad, la paz en la justicia [...]. De hecho, sin embargo, el hombre concreto, cada uno de nosotros, no se encuentra en la situación de escoger entre situaciones puras. No se trata de elegir entre la Justicia, la Verdad y la Paz de una parte, y la Injusticia, el Error y la Violencia de otra (esto no sería problema); se trata de situaciones impuras<sup>85</sup>.

Komunistekin kolaboratzerik ba ote luke kristauak bake-proiektu batean? Horrelakoetan, katolikoak maiz uzkur geratzen dira, zer egin ez dakitela, Erromak edo hierarkiak zer esango. Jarrera negargarria da hori Santamariarentzat, nire kontzientzia ez Aita Santuak eta ez beste inork ez bailiezadake eraman. Bakoitzak hartu behar ditu bere gain bere erantzukizunak. Alabaina, dio Santamariak, tamalgarriena da katoliko askok bakea bere erantzukizuna den kontzientziarik ez daukala batere.

La gran mayoría de los católicos adopta hoy ante los problemas de la paz la misma posición en que se colocaban en el siglo pasado ante el problema social [...]: es el Estado quien debe resolver el problema<sup>86</sup>.

Berak atzera geratu ez ezik, bake-ekintzetan sartzen direnak maiseatu ere egiten dituzte, endreda-makilak omen direlako, munduko bakearen egiazko erantzunekoak diren politikoei trabak ipini besterik ez dutelako egiten, horrelako arazoetan arteratzeko datuak eta informazioa behar ei direlako aurretik eduki, eta gainera alfer-alferrik dabiltzalako. Hortaz, gerra egin nahi dutenek edo armak fabrikatu nahi dituztenek berdin-berdin egingo dute, bakezaleen protestak gorabehera. Azken puntuak berriz ere efikaziaren problema ateratzen du. Ahal-tasunik gabe ez dago erantzukizunik; edo, ezinean ez dago obligaziorik. Zinez alferrik ote da hiritarrak bakearen alde ahalegintzea? Santamariaren erantzuna hiru mailatan zati genezake.

Aurreneko, bakoitzak beretxoa bakarrik eginez, askoren artean asko egin daiteke.

Recordáis sin suda la anécdota que se ha contado de un orador de América del Norte, quien, hablando en una sala inmensa, ante un auditorio de varios millares de personas, interrumpe en un momento dado su discurso para ordenar que las luces sean apagadas, de manera que la sala sea puesta en la oscuridad más completa. Después de un momento de estupefacción, cada concurrente recuerda: «¡Vamos, tengo mis cerillas!». Entonces tiene lugar el milagro. Un poco por todas partes se ven brillar lucecitas. Y la luz resplandece de nuevo. Poca cosa, una cerilla, por relación a cada uno: pero por relación a todos ha sido bastante.

Cuando seamos juzgados Dios no nos preguntará por qué no hemos cambiado al mundo. No nos preguntará sino esto: «¿Por qué, hijo mío, no has encendido tu lucecita? Yo no te pedía otra cosa»<sup>87</sup>.

Hots, aurrenekoa, nork bere betekizuna betetzea da, handia ala txikia, emaitzei jaramon egin gabe. Eta bigarrena da, horri lotuta, kontzientziari obedituz, nahiz alferrikakoa iruditu, bere pittina ematen duenak, egiaz, zeharbidezko efikazia mota bat ere erdiesten duela xedeari buruz, orain kontzientzia gutxi —beraz, ahaltasun gutxi— dagoen lekuan, gero kontzientzia gehiago egon dadin, eta ahalbide gehiago horregatixe.

El testimonio de una sola persona o de un pequeño grupo de personas en favor de una idea justa y noble, como la paz, puede tener una repercusión y un valor moral altamente ejemplares, y consecuencias históricas importantes absolutamente imprevisibles con anterioridad. El caso de los católicos sociales del siglo XIX es un ejemplo. La acción de ese pequeño grupo de hombres predicando la justicia social en medios católicos que ninguna conciencia tenían de sus deberes y que se cubrían bajo un pretendido derecho de propiedad para defender los privilegios y los más injustos abusos, no fue inmediatamente eficaz [...], pero esta acción ha sido como un símbolo, un gesto profético que, por decir así, ha salvado el honor de la Iglesia. Pero la historia revela que también tuvo una eficacia real a largo plazo. Hoy, quizás, la situación es la misma con respecto a nuestros deberes supranacionales<sup>88</sup>.

Beste hirugarren arrazoi bat bakeagatik ahalegintzearen fabore, Santamariak eskuarki alegatua, iritzi publikoak gizarte modernoan duen garrantzia da. Santamariarentzat ez da egia —itzuliko gara puntu honetara beste noizbait—, bakezaleek zernahi egin, politikoei bost axola zaiela eta gura dutena egingo dutela beti.

Guretzat, konklusio ohargarria da atal honetan, kristauaren bakearekiko jarraera xedatzeko, bakezaletasuna eta konpromiso bakezalea, aurren-aurrenik eta funtsenean —alde batera utzita efikaziaz ala efikaziarik gabe jardun praxian—, kontzientziako eginbide hutsak direla, kontzientzia katolikoak oraindik oso iratzarriak ez ageri arren. «Hay pues un compromiso y una responsabilidad específicamente cristianos con respecto a la paz en razón de los motivos, de los medios y de los fines de la vida cristiana»<sup>89</sup>. Bakezaletasun kristaua ez dela kristautasunaren jite unibertsal serio hartu eta bizitzea besterik, errepikatuko du Santamariak. Kontzientziako eginbidea izanik, arrakasta ez da lehenestekoa, haren garrantzia deus ukatu gabe.

La moral cristiana no es una moral de la eficacia, al menos en el sentido de una eficacia visible, temporal, terrena, inmediata. Lo que no quiere decir que no se deba tener cuenta de los resultados, sino que la responsabilidad y el valor moral de un acto no debe ser medido en función de su eficacia visible. *Hay gestos que es necesario hacer aun cuando se esté convencido de antemano de que serán prácticamente inútiles*<sup>90</sup>.

Eta, azkenik, kontzientziatik datorrela, joan ere, kontzientzietara doa ekin-tza bakezale kristaua guztiz gain. Kontzientziak nahi ditu irabazi eta mugitu<sup>91</sup>, «konbertitu», kontzientzia konbertituek mundua konberti dezaten barrutik. Lan zaila eta luzea.

Ganarse las voluntades es una empresa mil veces más difícil que avasallarlas. Por eso la creación de la verdadera paz es tan trabajosa y se da tan pocas veces dentro del panorama histórico de la Humanidad<sup>92</sup>.

Hau da beste arrazoi bat, hain zuzen, ekintza pertsonalaren garrantzirako.

No creamos en una paz mágica [...]. Contra el pecado colectivo no bastan las medidas autocráticas: es necesaria una acción capilar de persona a persona, de hombre a hombre. He aquí dónde se coloca la responsabilidad de cada uno<sup>93</sup>.

### ***Pax Christi***

Esandakookin koherente, Santamariarentzat «la pretensión de *Pax Christi* no puede ser más simple ni más clara: hacer que los católicos vivan más

católicamente, es decir, más universalmente su fe»<sup>94</sup>. Horri, besterik gabe, bakegile irizten zaio: fede kristaua bake-zabaltzaile da.

Baina «Kristoren bakea» ez ote da beste utopia bat, munduarentzako argia, munduak ordea inoiz eskuratu ezingo duena berak? Santamariak ez du hala ikusten.

La doctrine du Christ est, sans aucun doute, la plus réaliste qu'on puisse imaginer, mais il y a une façon de la concevoir et de la présenter qui en fait une sublime utopie. Concevoir le message évangélique à la manière d'un idéal absolument irréalisable sur la terre —même d'une façon imparfaite et inachevée— est la pire et la plus dangereuse de ses contrefaçons, car elle dénie à l'action temporelle des chrétiens toute possibilité valable d'efficacité<sup>95</sup>.

Maiz gertatzen da hutsegite hori katolikoan artean halere, eta hori omen dago gaurko anitz aurreiritzi eta etsipenen iturburuan ere. Oro har, kristautasunak bake-mezu ageri-ageriko bat duela nahikoa bistan ikusten da ikusi, baina «bake kristaua mundu honetan gauzatzea posible ote den», hor eszeptiko geratzen da jendea. Santamariak uste du galdera bera gaizki egin dagoela,

... car, si l'expression *paix chrétienne* y introduit déjà un premier élément équivoque, le mot *réalisable* a, en face de l'histoire, une ambiguïté indiscutable. Réaliser historiquement n'est pas, ne peut pas être, parachever une oeuvre définitive et éternelle<sup>96</sup>.

Kristoren bakea ez da mundu honetan betegitekoa, bai bideratuz eta aurreratuz joatekoa. Kristauaren existentzia erromesaldia da munduan eta

... au fond, la question qui se pose est celle de l'efficacité de l'Évangile comme ferment d'une transformation et même d'une révolution de la vie humaine sur la terre. Le christianisme qui a éliminé l'esclavage, qui un jour peut-être éliminera la condition prolétarienne, sera-t-il capable de chasser la guerre du monde?<sup>97</sup>.

Betegintasunaren lekua, beraz, ez da mundu hau. Hemen, beti aritzeko eta aritze-ko gaude denbora transzenditzen duen jomuga baterantz, inoiz finitu ezinez.

Bakegintza historia bezala ulertuz, eginkizun eta prozesu bezala, ez dekretu jainkozko bat jaurti eta bat-batean mundua magikoki antzaldatuko lukeen *hocus-pocus* antzera, orduan agerikoak dirudite bi muturrok. Lehena da, Kristoren mezuak ahalmen baketzaille mugagabea duela, bere eginez, arimak eta mundua baketzeko<sup>98</sup>; bestea, kontrako ertzean, aztikeria orotatik urrun esperientzia historikoak erakusten diguna,

... que l'action du Corps Mystique, en ce qui concerne l'ordre temporel, l'ordre des peuples et des nations, ne sera pas accomplie miraculeusement en dehors de l'histoire, par une espèce de superposition artificielle, mais d'une façon indirecte, à travers des



facteurs historiques et même économiques et techniques, et en fonction d'une évolution laborieuse dont les chrétiens doivent être les sujets actifs et intelligents<sup>99</sup>.

Ikuspegi kristauan, kreazioa —mundua, historia— beti ageri da bi muturren atezu honetan; eta bietan bati, deskorapilo garbi baten amoreagatik, uko ez egitean datza, hain zuzen, kristautasun katolikoa<sup>100</sup>.

Horrela, ez aldi honetako, baina aldi honetan ernarazi eta garatzeko daukagu mezu kristaua —«il faut que des facteurs proprement historiques jouent leur rôle»—; ideia eternalak historia dauka<sup>101</sup>. Hemen txertatzen da kristauaren denborazko konpromisoa eta «errealismoaren» obligazioa. Bake kristaua zinez utopiatan gesal ez dadin, ez du gehiegi laguntzen eslogan eder handiekin enplegatzeak. Garrantzizkoa da iritzi publikoa mugitzea.

Il serait, cependant, bien plus efficace d'atteindre, par des moyens pacifiques, la solution d'un seul problème politique ou social, même modeste, que de faire des dizaines de déclarations théoriques de bonne volonté<sup>102</sup>.

Efikaza izateko, konkretua izan behar da xedeetan eta baliabideetan. Kaskoetan erabat sartua dago bakezaletasuna ez dela gauza soluzioak eskaintzeko gatazka kasuetan, indar militar askirekin kontatzen ez bada atzetik. Argumentu hori egintzekin desegin behar da, kasu konkretuekin aurkeztuz, apalak badira ere, metodo bakezko hutsak gai direla emaitza efikazak erdiesteko eta egingarria dela halakoan bitartez irtenbide positiboak zabaltzea.

La meilleure façon de travailler pour la paix sera donc de faire face à un conflit quelconque, grand ou petit, au moment où la violence est sur le point d'éclater, et tâcher d'y appliquer des moyens pacifiques [...]. Cette idée de l'utilité et de l'efficacité de l'action pacifique doit gagner peu à peu du terrain. Les mouvements pacifistes se sont peut-être agités dans un cadre trop abstrait, trop idéaliste<sup>103</sup>.

Orobat, kristaua bere bizitzan ere beti tenkan ulertzen da, mundu honetan eta ez mundu honetako, eta abar. Berdin, bada: bakegile bai, baina bere barruan gerra daramala (herra, egoismoa). Bakegintza kristauak, horregatik, xede bikoi-tza du aldi batean:

Cette tâche est d'abord [a], bien entendu, celle de nous pacifier nous-mêmes, par le dépouillement, le renoncement et la pauvreté réelle du Christ<sup>104</sup>, mais [b] qui consiste aussi à faire pénétrer toutes ces forces de paix dans le courant de l'histoire par une action intelligente et patiente faite de moyens et de techniques humaines et temporelles<sup>105</sup>.

Errealismoa eta mistizismoa, Pax Christik biak behar ditu eta biak nahi ditu bizi. Kontenplazioa eta ekintza. Elkarren osagarriak dira, batak bestea behar du. Bikoiztasun hori omen da Santamaria erakarri zuena:

Si j'ai été de plus en plus attiré par Pax Christi, si je me suis engagé dans ce Mouvement, si je lui consacre une belle partie de mon existence, c'est justement parce qu'il embrasse, en même temps, les deux aspects fondamentaux de l'action pour la paix<sup>106</sup>.

Eta aitortza pertsonalekin ildo beronetan jarraitzeko —aski bakanak, bestela, Santamariaren izkribuetan— bere aurrepen mistikoa desestaltzen digu erakundeko idazkari eta organizazioaren erantzuneko ekintza-gizonak.

Que voulez vous! Je viens des riantes prairies basses-pyrénéennes que Loti a aimées mais qui ont donné quand même l'austère personnalité d'Ignace de Loyola. Et je viens aussi un peu, et je ne l'oublie jamais, de la plaine sèche et brûlée de la vieille Castille qui a engendré Thérèse et Jean de la Croix. Je suis donc aussi un peu mystique à ma pauvre manière<sup>107</sup>.

Kasu, ordea: «Un mystique n'est pas un fou»<sup>108</sup>.

1945ean<sup>109</sup>, berrogei gotzainek, «otoitzeko gurutzadara bakearen alde» hots eginez, Pax Christi mugimendua sortu zuten Frantzian, bakearen eta kontziliazioaren alde herrien artean otoitzez, ikerketaz eta ekintzaz ahalegintzeko helburuaz. 1951n nazioarteko erakunde bilakatu da<sup>110</sup>, nazioarteko idazkaritza batekin Parisen eta sail nazionalekin Erdialdeko Europa osoan, presidente Pariseko M. Feltin kardinala zuela. Hamar urtez izan da Santamaria nazioarteko idazkari (1955-1965). Ia bufoikeria dirudi gaur, nola ahalegintzen zen Santamaria proiektu hori esplikatzen Francoren paradisuko espainoltxuei: «En *Pax Christi* no se trata de viajar, de hacer turismo, de conocer países, de tener amigos en el extranjero, de aprender lenguas»<sup>111</sup>... Egia esan, hori dena txit preziatua eta inbidiatua zen itxitura sarrailatu hartan. Santamariak berak ez zuen ezkututzen «el choque psicológico que supone una primera salida al extranjero»<sup>112</sup>. Baina onuragarria omen da espiritua zabaltzeko.

Se me dirá —hots!, hots!— que todo esto es peligroso, que puede haber un peligro en el diálogo con esas gentes del extranjero que tienen una fe tan tibia y discutible o que viven en medios tan descristianizados. Pero el mero hecho de que esta cuestión pueda ser enunciada en análogos o parecidos términos, eso sí que revela una situación peligrosa. Ello nos obligará también, en último extremo, a revisar nuestra vida y nuestros conceptos religiosos<sup>113</sup>.

Zentzua zeukan Santamariak Pax Christi mugimenduaren alderdi mistikoa nabarmentzeak, bada: kristau bakezaleak barrutik hustu egin behar du, biluztu, liberatu, ireki —beste kristauenganako eta, baita, ez-kristauenganako, «borondate oneko» guztienganako—.

Santamariak «la vocation d'hommes-ponts» dela esaten du Pax Christiko kideena. Ideia hori gerraondoko gure belaunaldiari (Rikardo Arregi, eta abarri:

Jakinlariori, alegia) Santamariak buruan eta bihotzean oso tinko sartutakoa izan da: zubigile eginkizuna zela gurea, politikaren, sekten, belaunaldi-murruen gainetik<sup>114</sup>. Zubiari egitea dagokiona da

... mettre en communication les rivages opposés de ce grand océan des égoïsmes collectifs, à faire, en somme, valoir et vivre dans une mesure infime, si vous voulez, minuscule, mais réelle, le mot franciscain de Francis Jammes: «Il n'est qu'un Pain, il n'est qu'une patrie» [...]. Mais ne croyons pas du tout que cette tâche d'hommes-ponts soit facile ni légère. C'est le propre des ponts de supporter des poids très lourds, de ne rien garder pour eux, d'être foulés au pied par les gens, et c'est à cause de cela qu'ils doivent être fermes et sûrs<sup>115</sup>.

## Bakea (II)

Gudu bat konpontzeari zuzenean baino lehen eta gehiago, bakezaleak, pertsonen mailan, guduzalearen kontzientzia iraultzeari begiratu behar dion legez, baldintza sozialen mailan, gudua eragiten duten egoerei behar die aitzinamenduz kasu egin, eztanda-perila aurreikusteko eta jarraikizunak aldeztu aurretik saihesteko. «Il est très difficile qu'une action pacifiste puisse réussir lorsque les passions ont déjà été déchaînées»<sup>1</sup>. Beraz, zuzentasunaren adina efikaziaren amoreagatik,

... l'homme qui aime la paix doit regarder vers l'avenir et tâcher de prévoir les conflits futurs et les désamorcer à leur racine même. Là où il existe une injustice collective, l'oppression de l'homme par l'homme, la violation des droits naturels des individus et des communautés, on peut assurer que la violence ne tardera pas à pousser [...]. On ne doit pas attendre que la violence éclate<sup>2</sup>.

Beraz, gartutako gerra gero itzaltzen baino, hura pitz ez dadin beharko luke haboro ahalegindu bakezaleak, hau da, bakea egiten eta edukitsu-edukitsua egiten, eta hasteko, bada,

... *reeducar a los hombres* en el sentido de una solidaridad humana mucho mayor que la actual. Este es el trabajo que realiza el Movimiento Pax Christi. Y hay todavía algo más que esto: como la verdadera paz es, según el viejo aforismo, obra de la justicia, para lograrla hay que atacar las mil formas de la injusticia en que se vive y acabar con ellas dentro de lo posible. Una paz sin justicia no es sino una apariencia de paz<sup>3</sup>.

Mundua ez zaigu ematen bakea/ez-bakea bi zati sinpletan, bakea eta gerra. Ia esan daiteke, aitzitik, gure aldian mundua ez gerra eta ez bake badaezpadako puntu batean dagoela etengabe, aski izaten baita estakuru ñimiño baten bultzada burrunbaz gerrara amilarazteko. Ez-bakea edo bakegabezia ez da gerra bakarrik. Baina, gainera, gerra bera, teknologia modernoekin, zeharo konplexutu egin da zer den. Bereiztea komeniko da zer den ez-bakea, bortxakeria oro har, eta zer den gerra eta gerrak.

### ***Bortxa eta gerra tipoak***

Indarkeria naturan ere badago, baina ez indarkeria, bortxa. Izadian bortxa, biolentzia, gizakiak sartzen du, bere besteekikotasuna, hots, harreman eta egin-kizunen ordena gizartean berak bere kabuz delibera dezakeen animalia bakarrik. Izadiak bere ordena dauka eta, jeneralean, ez indarkeria gutxirekin. Baina

beti bere ordenari lotzen zaio. Ez du galbideratzen bere ordena, hots, finean berdin baita, bere natura.

Notemos que sólo en nosotros y por nosotros los hombres penetra la violencia en el mundo [...]. En el llamado reino de la naturaleza la violencia no existe, ya que toda violencia propiamente dicha implica siempre, por definición, referencia a cierto orden preestablecido. En la naturaleza hay, eso sí, fuerzas, acciones, reacciones, impulsos, movimientos, generación, construcción y destrucción. Pero nada de eso constituye violencia real. Así, por ejemplo, un terremoto no hace violencia al hombre, pero la coacción, en cambio, sí se la hace, porque obliga al hombre a realizar por la fuerza actos que sólo debieran ser fruto del convencimiento y de la libre aceptación<sup>4</sup>.

Indarkeriak pertsonaren natura —naturaz baita hori librea— bihurritzen eta bortxatzen du. Definizio hau eman du Santamariak *Jakin-eko Nota labur* batean:

Biolentzia zera da, alegia, gizon bati edo gizarte bati, zuzenbidearen, borondatearen, arrazoiaren, moralaren eta eskubidearen bitartez eskatu beharko litzaiokeena, bortxaz, gogorkeriaz, bildurraren eta gezurraren bitartez bertatik ateratzea. Pertsona bat edo komunitate bat gauzatzat edo animaliatzat erabili eta hartaz baliatzea da biolentzia<sup>5</sup>.

Gizarte eta etxe barruetan ikusi ahal izango bagenu axala baino barrenago gizakien arteko harremanetan zenbat liskar, aharra, zapa, bortxa dagoen, ohartu ahal izango genuke —hala irakurtzen da Santamariaren hitzaldi bateko transkripzioan<sup>6</sup>.

Descubriríamos multitud de conflictos interiores a esas sociedades, conflictos de todas clases: diferencias entre pueblos ricos y pobres, entre pueblos muy desarrollados y pueblos infradesarrollados, luchas y odios raciales; enormes diferencias de clase, grandes injusticias. Desigualdad de oportunidades ante la vida, países en que la vida media es de veinticinco años [...]. Y todo eso mantenido bajo situaciones aparentemente de orden, pero en realidad de violencia. En ese sentido ha dicho Péguy que la violencia del orden es peor muchas veces que la violencia del desorden<sup>7</sup>.

Ordena, beraz, ez da bakea.

Indarkeria<sup>8</sup> oro ez da hartu behar bortxa (biolentzia). Indarkeria, naturan bezalaxe, giza harremanetan ere zuzen asko eman daiteke eta guztiz positiboa izan<sup>9</sup>. Bortxa, ostera, kidearen pertsonatasuna aintzat hartzen ez duen indarkeria da.

Violencia es toda iniciativa que priva al otro de reflexión, de juicio, de posibilidad de diálogo y de poder legítimo de decisión, y le obliga por la coacción física o por la coacción psicológica, por la amenaza, por el temor o por la fuerza, a someterse a decisiones extrañas a él mismo, y que debieran ser fruto del propio convencimiento<sup>10</sup>.

Bortxakeria, fisikoa izan daiteke, ekonomikoa, sexuala; hemen —Santamariarekin— politikoa bakarrik axola zaigu. Konta ezin ahala izen omen baitu, gaur egun, honek berak:

... guerra, opresión, guerra revolucionaria, terrorismo, crimen político, represión, guerrilla, imperialismo del dinero, intimidación policíaca, tortura, dictadura, explotación, segregación social<sup>11</sup>.

Gertatzen da, ordea, hori da negargarria,

... que muchas personas no ven este panorama de la violencia completa, sólo ven algunos aspectos exteriores de la violencia. Ven la violencia en un hombre que maneja un fusil o una ametralladora, pero no la ven en una situación de injusticia o de opresión o de miseria, que ha llevado a ese mismo hombre a la desesperación<sup>12</sup>.

Tortura bezalako basatikeria nabarmenak utzita<sup>13</sup>, gero erantzuneko bortxa askoren piztailea da bortxakeria «ikusezina»,

... que no viene de unas personas determinadas, de la cual no se puede culpar a persona determinada, sino que viene de las estructuras mismas de la sociedad [...], esas estructuras son un producto de la historia<sup>14</sup>.

Egitamu sozialak berak hala hertsatuak dira, beltzak Estatu Batuetan, eta abarretan, ageriki; baina, merkatu mundialaren egitura da antonomasiar hertsakorra gure aldian, atertu gabe bortxakeria enplegatzen eta sortzen ari dena lur osoan, denok harrapatzen gaituela. «La violencia está envolviéndonos»<sup>15</sup>. Ez zaigu aukerarik uzten bortxaren eta bortxarrik ezaren artean. Bortxa artean, edo bortxapean, edo bortxarekin ari gara bizitzen gure zibilizazio ederrean.

Una gran parte del mundo vive sumergida en una forma de violencia y otra al amparo de la violencia opuesta. Un ciudadano que vive pacíficamente en Washington, en Caracas o en Bruselas puede hacerse la ilusión de estar al margen de la violencia; puede incluso condenar la violencia con toda su alma. Pero esta condenación es quizás pura teoría, porque ese mismo hombre vive y prospera bajo la protección de un sistema de violencia, más o menos visible, que se desarrolla a dos pasos de su casa o a veinte mil kilómetros de ella<sup>16</sup>.

Indarkeria motak bezala —eta bakezale motak dauden bezalaxe<sup>17</sup>— Santamariak gerraren, bortxaren forma nabarmenenaren motak bereizi izan ditu, alde guztietatik problemak planteatzen dituztelako, moralak nahiz praktikoak. Lau tipo bereizten ditu, zuzen kausitu badut:

1. Gerra klasikoa, Estatuen artean egiten dena, «instituzio juridiko bat», hots, printzipioz behintzat legezketasuna eta zuzentasuna omen duena nazioarteko zuzenbidean<sup>18</sup>.

2. Gerra iraultzailea (askotan gerrilla).

*Guerra* en sentido clásico y *guerra revolucionaria* son, en efecto, dos fenómenos sustantivos distintos, que el vocabulario debiera separar de modo más terminante. En la hora presente la guerra revolucionaria es un combinado de terrorismo, guerrilla, subversión, marxismo, acción psicológica e insurrección popular, que nada tiene que ver con la idea clásica de la guerra<sup>19</sup>.

3. Gerra nuklearra.

La invención de la bomba atómica introdujo al mundo en una nueva era estratégica en la que el concepto de guerra experimenta una profunda transformación. La guerra nuclear no es ya una guerra en el sentido clásico. Una guerra nuclear entre las dos superpotencias no podría ser la continuación de la política por otros medios, sino el fin de toda política. Tampoco podría servir, como algunos pretenden, para favorecer la justicia y la libertad en la vida de los pueblos<sup>20</sup>.

4. Gerra postnuklearra.

Las armas posnucleares no debieran figurar en la historia del progreso del arma nuclear. Se salen manifiestamente del dominio de ésta. Su novedad es radical [...]. El tipo de guerra al que este nuevo género de armas conducirá en el futuro será, en efecto, completamente distinto de una guerra nuclear, tal como entendemos ahora esta expresión<sup>21</sup>.

### **Gerraz**

«La guerra es un mal para los cuerpos y para las almas. Hay que tratar de evitarla por todos los medios legítimos compatibles con la justicia»<sup>22</sup>.

Amets bat? Ez, lan bat. Horretarako —aipatua dugu— kontzientziak sentikortu beharko dira<sup>23</sup>, mentalitateak zabaldu, eta abar, eraspen nazionalistak gainditu gure lurtxoari edo taldetxoari. Ez al dugu esan, bada, «aberriaren» atxikimendu hori naturala eta ongarrria zuela espirituak, kasik sakratua duela? Eta gizakia —persona— komunitatean gauzatzen dela? Edozein kosmopolitismo amorfotatik oso urrun dabil Santamaria. Pertsonak, eta jendeak, herriak, ez dira zenbaki eta multzo matematikoak. Aberetasunak bezala gizatasunak bere legeak ditu, gizakia «lotu» ez ezik, askatu eta burutzen laguntzen diotenak. Mundu osoa ez da sekula inoren aberria izango (zabaltasun posibilitate hagitz es-tuagoak dituelako espiritu zabalenak ere), baina giza anaitasun unibertsalaren

ezagutza eta kontzientzia horregatik despertsonalizatu gabe, denok eskuratu eta landu genezake.

Bien entendu, il y a des lois sociologiques qui obligent les hommes à se grouper selon leurs opinions, leurs affinités, leurs goûts. Les unités particulières ainsi formées ont d'ailleurs tendance à se renforcer de plus en plus par opposition aux autres<sup>24</sup>.

Santamariak ez ditu lege horiek batere gutxietsi nahi, beharbada liberalismo indibidualista —atomista— batek errazegi nahi zuen antzera, ez arrisku gutxierekin. Gizakia ez da abstrakzio kopurutxo baten (bozemaile, produktore, erosle, eta abarren) bilgunea. Baina mutur bat nahi ez izateak ez du esan nahi beste muturra nahi denik, bere arrisku ez gutxiago guztiekin.

Il serait aussi chimérique de vouloir supprimer ces lois, que de vouloir modifier les lois physiques. Mais le fait d'accepter la loi de la pesanteur comme vraie, ne nous oblige pas à tomber dans tous les précipices qui se présentent devant nous. Nous pouvons éviter ces précipices ou y descendre tranquillement, s'il le faut<sup>25</sup>.

Diferentziak ez du nahitaez gerra agintzen.

Gerra gerrari egin nahita, Santamariaren gogoetak urteetan zehar erronka partikular bat eduki duela ematen du, «gerra justuarekin». Moralista kristauen doktrina tradizionala da gerra justuarena<sup>26</sup>. Santamariak onartu beti egin du, baina gustura ez da egundaino geratu, antza. 1949an jada auzia golkoak irabiatzen zebilen:

Cinco son las condiciones de una guerra justa<sup>27</sup>, según los pensadores católicos: causa justa, limpieza de intención, recurso previo a la solución amigable, medios lícitos y probabilidad de alcanzar un bien mayor que los males que la guerra misma origina [...]. De acuerdo con estos principios cabe formular esta pregunta: ¿Puede existir hoy una guerra justa?<sup>28</sup>.

Donostiako Solas Internazionaletan, 1951n, berriro jartzen du puntua:

La cuestión de la guerra justa parece claramente resuelta en lo que se refiere a la guerra defensiva [...]. No así en lo que se refiere a la guerra de agresión en sus formas más o menos encubiertas<sup>29</sup>.

Eta 1985ean kezka berdinei bueltaka aurkitzen dugu oraindik: zer aplikazio eduki lezake moral katoliko tradizionalak, proportzioaren arauak adibidez<sup>30</sup>, gerra nuklear batean?<sup>31</sup>.

Santamariak deritzo moralistek batez ere bi arrazoirengatik eusten diotela gerra justuaren doktrinari: «iragana defendatzeagatik»<sup>32</sup>, eta, gerra ezin baitugu lurrazaletik ezabatu, Estatuaren erantzuneko politikoak ez uzteagatik eskuak



lotuta etsai armatuen aurrez aurre<sup>33</sup>. Mundua mundu, gerraren batek zilegi izan behar du, irentsiko ez bagaituzte. Baina zer argitzen dugu horrekin?

La idea de que, en el actual contexto histórico, la guerra ya no puede ser nunca justa ni legítima se va extendiendo cada vez más [...].

En nuestro tiempo, la guerra es realmente un fenómeno nuevo con relación al pasado. Han ocurrido cosas que cambian radicalmente el planteamiento de su justicia o injusticia.

Hay que contar, en efecto, en primer término, con la existencia de una Sociedad internacional organizada. Los moralistas atribuían a todo poder soberano la facultad de declarar la guerra para reparar un atropello. Cualquier soberano podía, de esta guisa, erigirse en defensor de la justicia.

Pero desde el momento en que existe ya una Sociedad internacional suprapolítica ningún Estado puede abrogarse tal derecho ni puede tampoco tomarse la justicia por su mano.

Cuando los teólogos, desde Vitoria hasta Taparelli, se planteaban el problema de la legitimidad de la guerra no existía tampoco el servicio militar obligatorio. La guerra la harían militares profesionales y voluntarios. Hoy, en cambio, la guerra se ha hecho total. No solamente pueblos enteros son encuadrados en los ejércitos, sino que éstos se fijan objetivos de carácter económico e industrial, destrucción de vías de comunicación, centros vitales del contrario, etc. Ningún Estado Mayor puede renunciar al empleo de estos procedimientos, ya que ello equivaldría a entregarse en manos del enemigo.

Lo más grave de todo es que las armas químicas, biológicas y atómicas son en cierto modo incontrolables. No se puede prever con exactitud su alcance ni las consecuencias funestas que el empleo de las mismas acarrearía a zonas muy extensas de la población humana.

Estas y otras causas justifican la actitud de los que piensan que el problema de la guerra presenta aspectos nunca vistos en la historia y que las doctrinas elaboradas por los sociólogos y moralistas de otros tiempos, en las que se admitía la existencia de guerras justas y se consideraba la guerra como un instrumento jurídico moralmente aceptable, no son ya aplicables en sí mismas a la situación contemporánea<sup>34</sup>.

Santamariak ikusten du, alde batetik, zentzurik ez duela gerra ororen zeharoko gaitzespenak, «pazifismo absolutuak»<sup>35</sup>; baina, bestetik, honezkero arras gaitzua dagoela gerra justuaren planteamendu eta doktrina klasiko guztia<sup>36</sup>. Ez dela egungo errealitatearekin ahokutzen.

Gerra ezinezko bihurtzen ahalegintzea da kristauari geratzen zaion guztia.

### ***Gerra iraultzaileaz***

Gerra gaitzitzeko bide bakarra gerra dela ebazten du Mao Zedongek<sup>37</sup>; eta bakea lortzeko bide bakarra bakea dela osteratzen du beti Santamariak. Bi tesi kontrako buruz buru eta, azken batean, Santamariak esango du diferentzia ez dela arrazoizkoa, «fedezkoa» baizik.

Aurretik: tesi edo fede zaharra da bakearen defentsa hoberena armak direla, «si vis pacem para bellum» esakune latindarrean klasikoki adierazia<sup>38</sup>. Santamariak onartzen ez duen printzipioa da hori:

Los romanos decían desde muy antiguo: «Si quieres la paz, prepara la guerra» [...]. Ha llegado la hora de preguntarse si no habría que reemplazar el principio latino por este otro más cristiano y seguramente más razonable: *Si quieres la paz, prepara la paz*<sup>39</sup>.

Bortxazko iraultzara itzuliz: auzitan ez dago, ez gaitezen nahas, haren printzipiozko haizutasuna, moralki (edozein gerra justuren baldintzetan, noski)<sup>40</sup> nahiz politikoki; haren «arrazoizkotasuna» baizik, xokagarri samar esateko, hau da, haren balioa, efikazia, herri zapalduak askatzeko eta justizian eta askatasunean bakea eraikitzeke. Che Guevararen handitasun moral<sup>41</sup>, eta abar, ez daude inola eztabaidan. Santamariak ez-bortxazko borroka hobesten badu ere, puntu batean ez digu zalantzarik uzten:

Lo que sí está claro es que cualquiera de estas dos posturas, la de Che Guevara y la de Luther King, siempre será mejor que la de los que, arrellanados en su comodidad, no quieren hacer nada por un lado ni por el otro. Hay algo que debe ser radicalmente condenado en todo esto, y es la postura de los eternos neutrales de la comodidad y del egoísmo<sup>42</sup>.

Bortxazko iraultzaren ideiaaren azpian, edo historiaren azpian, fedea dago beti jokoan<sup>43</sup>. Are bortxari buruzko fede ilun eta mitologia bezalako bat, franko zabaldua dagoena, fetitxismoraino<sup>44</sup>. Despota bortxazale bat bortxaz erailtzen dutenean, adibidez, «merezi» zuen bezala hil dela pentsatzen du askok, historiak, agintariek nola hiltzea merezi duten baleki bezala.

Este lugar común de que los partidarios de la violencia deben morir a mano armada, mientras una muerte pacífica se halla reservada a los hombres justos y pacíficos, no está comprobada por los hechos y responde, además, a una interpretación demasiado ingenua de la historia. Semejante principio equivaldría a atribuir a la historia un carácter demasiado razonable, demasiado lógico y moral. Y desgraciadamente la historia ni es moral, ni es lógica, ni es razonable<sup>45</sup>.

Bortxa justiziazkoaren alboan bortxa kreaizailearen mitoa, Santamariak ikusten jarraitzen duena dekabrista errusiarrengandik Mikhail Bakuninengana —«La pasión de la destrucción es la pasión creadora por excelencia»—, eta handik iraultza armatu oraindarretara garatzen<sup>46</sup>.

Frente al irracionalismo visceral del terrorismo clásico, los promotores de la guerra revolucionaria presentan esta como una acción científica, perfectamente calculada desde el punto de vista de la acción psicológica y dirigida hacia fines políticos subversivos bien determinados<sup>47</sup>.

Gainera, marxismoaren kasuan, bortxa batere problemarik gabe altzora deza-keen historiaren filosofia batekin kontaktzen da.

Para el marxista la historia tiene un sentido; es decir, que en nuestra fase histórica el progreso tiene una meta, que es la destrucción de esta sociedad estructuralmente mal construida, para construir una sociedad más justa. Hay una meta clara, y entonces naturalmente el marxista no tiene el menor reparo y hace perfectamente, con arreglo a su hipótesis, en aplicar la violencia para lograr salvar ese obstáculo. Para destruir esta sociedad injusta y construir otra, hay que emplear la violencia<sup>48</sup>.

Bortxan fedek eskala luzea eduki lezake, bortxakeriak bezala, katastrofismotik («cuanto peor, mejor»)<sup>49</sup>, «castrismo» eztabaidagarri batetik pasatu<sup>50</sup>, eta Aita Santuari atentatu absurdo bat egiterainokoa<sup>51</sup>. Horretan sartu gabe, Santamariak «revolucionarios por lógica» jotzen dituenekin, beharbada hobe «konbentzimenduzko iraultzaileekin», geratuko gara<sup>52</sup>.

Beste biderik ez dagoela eta borroka armatua badela bide bat konbentziturik iraultzari lotu zaizkionok ez diote bortxari bortxagatik oniritzen, helburu positibo baten izenean baizik (bortxa ezinbesteko baliabide gisa bakarrik dago onartua). Hautu oinarrizko horren gainean, gero, hartutako jarrera termino kristauean arrazoitu daiteke (Camilo Torres) ala, maizago, marxistetan (Che Guevara)<sup>53</sup>; problema ez da hori, esan dugu-eta jarrera horren printzipiozko haizutasun morala ez dagoela auzitan<sup>54</sup>. Hautu horri Santamariak ez-bortxazko borroka oposatzen dio. Abiapuntuan bi fede daude; eta bi fedeon iturburuan (maiz), pertsonaren bi kontzeptu, Santamariaren iritzian.

En realidad el partidario de la revolución violenta parte de un acto de fe, la fe en la violencia, la fe en la victoria de las armas, lo mismo que el partidario de los métodos de la no-violencia activa parte de una fe, la fe en el triunfo de los medios pacíficos [...]. Por la lógica nadie podrá demostrarnos con razones históricas que la guerra y la violencia hayan sido eficaces para implantar la justicia en el mundo<sup>55</sup>.

Alderatzen baditugu orain hautu bion erreferentzia nagusi bezala ikusi ohi diren autore bien pertsonaren kontzeptuak, hau ageri zaigu:

Gandhi y Marx tienen en común su constante preocupación por los oprimidos, los hambrientos y los proletarios, que constituyen la mayor parte de la humanidad. Un mismo deseo de justicia mueve a ambos, pero luego sus caminos divergen extraordinariamente. Gandhi cree en una vida trascendente, presente en todas partes en el universo, la cual da sentido a la existencia toda. El humanismo marxista es inmanente<sup>56</sup>.

Santamariak ez dauka bortxazaleen fede hori: «¿Quién me dice que los cañones justos serán más poderosos que los cañones injustos?»<sup>57</sup>. Fedek fede

—fedea apenas baitago eztabaidatzerik—, esperientzia historikoen barrutian bakarrik higi daiteke eztabaida erreal:

... [Martin Luther King] no muere con las armas en la mano, no muere matando como Camilo Torres, sino que este hombre muere absolutamente inerme, completamente desprovisto de armas. Y nadie puede decir que su acción haya sido menos efectiva ni mucho menos que la de Camilo Torres<sup>58</sup>.

Santamariak bere fedea dauka, eta hortik arrazoitzen du berak: «Sólo las revoluciones pacíficas son constructivas»<sup>59</sup>.

### **ETA**

ETA hor dagoen zerbait da eta, dagoen denak bezala, egoteko bere zioak dauzka (ez da esaten: «justifika-zioa»). Aurrenekoa, egon nola dagoen, ulertzea izango da.

Analisi ahigarri baten asmorik gabe, Santamariak hainbat arrazoi-edo seinalatu ditu. Hasteko, Euskadin gutxienez hiru bortxa mota daude batera: «la violencia de las fuerzas de orden público», «la violencia armada de signo nacionalista español», «la violencia armada independentista y revolucionaria, violencia insurreccional»; eta, gainera, «existen en Euskadi todas las formas de violencia típicas de una sociedad moderna, una sociedad industrializada con un fondo sumamente conflictivo de lucha de clases». Hemengoa espezifikokoago:

Es causa importante de violencia el trauma que ha dejado en el País Vasco la represión cultural y política ejercida durante muchos años por la dictadura franquista. Contra esta dictadura luchó encarnizadamente el pueblo vasco desde que se inició el Movimiento. Han quedado muchos restos de esta lucha y de ese largo período de feroz represión. Así, por ejemplo, las fuerzas armadas que hoy [1980] tienen la misión de mantener el orden en el País Vasco son las mismas que ejercieron esa represión. En la mente de muchas personas son lo mismo y representan lo mismo. Algo análogo puede decirse del aparato administrativo y de los funcionarios. Una gran parte del pueblo vasco sigue viendo en todo el aparato legal un instrumento de opresión y de destrucción de la nacionalidad.

La crisis de las ideas religiosas no ha dejado de tener importantes consecuencias en las posturas de los jóvenes, dando pie a que la violencia se justifique moralmente, e incluso sea presentada de modo apoloético.

Cada acto de violencia, las noticias que corren en relación con detenciones y torturas, multiplican la tensión y favorecen el desarrollo de la violencia, porque *la violencia engendra violencia*. La violencia armada debe ser vista e interpretada dentro de este contexto<sup>60</sup>.

Egoera horren aurrean, aise igar lezake edozeinek Santamariaren jarrera, baina hona hemen berak formulatu legez:

Debo decir que *soy completamente contrario a la actual violencia armada en el País Vasco*. Lo soy ante todo por motivos religiosos y éticos, y también, en segundo lugar, por motivos políticos que no trataré aquí. Pero no sólo a la violencia armada en el País Vasco, sino en cualquier otra parte del mundo, y no sólo contra la violencia armada insurreccional, sino también contra la violencia armada institucional: es decir, que repugnan a mi conciencia las guerras, la preparación de las guerras, los ejércitos, el servicio militar obligatorio, los armamentos y todo ese horrible aparato sobre el que se apoya la violencia armada.

Ahora bien, no dejo de ser lo suficientemente *realista* para reconocer que en el mundo actual las ideas puras de rechazo total de la violencia armada y de la guerra no son inmediatamente aplicables, ni lo serán acaso hasta dentro de cientos de años, o quizás nunca [...]. Mi interpretación del *no matarás* no me permite favorecer ni animar ningún género de violencia armada; pero, en conciencia, tampoco puedo *juzgar* ni menos *condenar*, a los que eligen el camino de la violencia. Me someto, pues, al deber de tolerancia y aplico el *no juzguéis*<sup>61</sup>.

Planteamendu praktiko batean: Santamariak Gobernuagandik itxaron du negoziazioa abiatzea, noizbait bakera iristeko<sup>62</sup>. Bi, kondena moralek ez dute deus balio<sup>63</sup>; hiru, bakezaleek halere ETArekin hizketa lezakete eta egin behar dute «efikaziaren moralaren» aldetik<sup>64</sup>, hau da, borroka armatu bat eraginkortasun ezak moralgabe agerrarazten edo bihurtzen duen zentzuan. (Santamariak berak ETArekin ekintza batzuk maila honetan kritikatu izan ditu: «¿Matar por cálculo? Peor aún cuando el cálculo está equivocado»)<sup>65</sup>.

La eficacia es aquí condición necesaria, aunque no suficiente, para la legitimidad de la guerra [...]. Es en este terreno —repito— donde los pacifistas podríamos tal vez dialogar con los partidarios de ETA. Es también en ese mismo terreno donde aparecerían algunas de las grandes responsabilidades y la ineficacia del régimen político actual al no haber valorado a tiempo la gravedad y profundidad del problema, y al haber aplicado al mismo tácticas dilatorias que no han servido más que para acrecentar y enconar la violencia<sup>66</sup>.

### **Gerra nuklearraz**

Arma atomikoaren kalteak eta arriskuak mila eratakoak dira. Esperimintuen ondorioak, inork ez baitaki zein izango diren ere luzarora (biologiko, atmosferiko, etab.)<sup>67</sup>. Arma lasterketaren kostu ekonomikoa dago gero, zeinek

... exige el empleo de gigantescos recursos económicos que la Humanidad necesitaría para resolver sus necesidades materiales cada día mayores por causa del crecimiento de la población [...]. El precio de la paz armada resulta pues astronómicamente caro y se está pagando con la miseria y el hambre de una gran parte del género humano<sup>68</sup>.

Kalte politikoa: mundua bloke bitan zatitu da, bakoitzean potentzia atomiko bat buru dagoela, horrela gizadi osoa bi «anaia nagusi» omen horien diktadura azpian estekatuta geratuz<sup>69</sup>.

De esta manera, la suerte de la Humanidad se halla en manos del duopolio, sin que las demás naciones puedan hacer nada para librarse del eventual 'apocalipsis' que se les echa encima. Desgraciadamente, lo que está ocurriendo ahora es, por completo, opuesto a un orden internacional democrático<sup>70</sup>.

Ondorio gaiztoena gerra-arriskua da, halere. Baliabide atomikoak eroren baten eskuetan erortzeko arriskua, adibidez: «¿Qué ocurriría en el caso de un nuevo Hitler, de un Hitler nuclearizado, que tuviese en sus manos la posibilidad de emplear las armas atómicas?»<sup>71</sup>. Gerra-arrisku bakarra ez da hipotesi halabeharrezko hori:

El peligro mayor que implica la situación actual es el de la velocidad que la técnica moderna imprime a los acontecimientos históricos. En una época como la nuestra la eventualidad de una guerra nuclear puede desatarse bruscamente, inesperadamente, con la velocidad del rayo, por causa de un simple accidente, de un error, de una simple equivocación en los mandos<sup>72</sup>.

Gaitz guztiokin ere, bakezale askok proposatzen ei duen desarme aldebakarraren tesia «de una simplicidad paradisíaca» iruditzen zaio<sup>73</sup>. Izan ere, gerra nuklearraren aitzinean geratzen den auzi bakarra eta eginkizun guztia ez da justua izan ote litekeen, etab., baizik edozein modutan ere nola ekidin hura. Eta, orain arte, gerra nuklearra saihesteko modu ziurki efikaza disuasioa egiazta-tu da<sup>74</sup>, gibelaraztea. Dirudienez, kasu horretan, bestela hain estimatu «indar morala» ere, epe laburrera bederen, hutsaren hurrengotsu iruditzen zaio Santamariari, hain dago arazoa deabrutsuki konplikatua. Ez da «borondate on» kontu soila.

No está en manos de los políticos ni de los militares rusos o americanos el modificar el actual contexto nuclear. Nadie, o casi nadie, cree en la efectividad inmediata de un pacto de desarme atómico. Al contrario, se estima que todo intento prematuro de desnuclearización aumentaría enormemente el riesgo de agresión por cualquiera de las dos partes. Los pacifistas del género sentimental no tienen cabida en este círculo. Los técnicos opinan que las condenaciones y las protestas verbales, así como las manifestaciones más o menos multitudinarias contra el arma atómica, no sirven para nada, si no es para producir algún débil impacto en la conciencia pública y algunos efectos políticos de corto alcance. Consideran que una acción de esa clase resulta casi tan inoperante como pudiera serlo el manifestarse con pancartas contra el cáncer, contra la poliomielitis o contra la muerte misma.

En suma, el único medio que hasta ahora se ha descubierto para combatir el riesgo de guerra nuclear, consiste en la política de 'mutua disuasión'. Cada uno de

los poseedores del arma nuclear sabe que todo intento de utilizarla equivaldría a un suicidio simultáneo<sup>75</sup>.

Gibelarazteak bere papera bete du denboraldi batez. Bitartean, hori ere krisian dagoela gertatzen da, edo agian porrot egina<sup>76</sup>. Etengabeko lasterketa eta armen betegintasun geroz handiagoak, arriskua gutxitu ordez, areagotu egiten duela<sup>77</sup>. Eta, gainera, estrategia hori moralki oso dudagarria iruditzen zaiola jende geroz gehiagori<sup>78</sup>.

Hona hemen Santamariak zer proposatuko lukeen, beraz:

Una actitud semi-gandhiana, que para mí sería la más convincente, podría expresarse así: [a] Hay cosas y causas por las cuales vale la pena de hacer la guerra, pero *en casi todos los casos, los medios no-violentos, aplicados con inteligencia y a todos los niveles, son más efectivos que el empleo de las armas*.

[b] Ante la tremenda amenaza de guerra nuclear somos muchos los que adoptamos la postura de *repulsa total* a esta clase de armamentos, que podrían acabar, de hecho, con la civilización y con la misma Humanidad<sup>79</sup>.

### **Indar morala**

Indar morala aski ez izateak ez du esan nahi indar moralezko borroka ez dela egiazko bidea bakea lortzeko: bere eskasiarekin, dagoen bide bakarra bera da halere, bortxazkoak inolako bideak ez dira eta, Santamariaren aburuan.

Bestalde, aski ez izateak (bihar bertan gerra abolitzeko) ez du esan nahi asko egin ez dezakegunik, ez gaitzkeenik eginez-eginez joan, alegia, poliki-poliki, eta bortxaz baino eraginkor eta sakonkiago, epe luzera batik bat, bakezko mundua prestatzeko, zenbat indar moral gehiago bildu eta hainbat lehenago.

El camino de las causas justas suele ser por lo general un largo calvario en el que muchos hombres tienen que ser sacrificados antes de que la verdad resplandezca. La mayor parte de sus grandes defensores mueren con la sensación de que han fracasado: las luminarias de la victoria no brillan para ellos en este mundo<sup>80</sup>.

Hegelen harribitxi urruna sumatzen dugula esango litzateke: «Los hombres históricos no han sido lo que se llama felices»<sup>81</sup>.

Santamaria behin eta berriro saiatu da indar moralez asko eragin litekeela erakusten, konkretuki (fede gutxi dagoela baita indar moralaren efikaziaren auzian aurreneko problema). Adibide batzuk jasoko ditugu.

1. Nork bere inguruan pertsonalki egin dezakeena dago aurrenik.

Imaginad el caso de un sacerdote, un profesor, un periodista, un escritor, un político, un estudiante o un obrero, que se emplea a fondo al servicio de la idea de la paz. ¡Cuántas posibilidades y cuán diversas!<sup>82</sup>.

## 2. Berebiziko garrantzia ematen dio beti Santamariak iritzi publikoari.

Nuestra época se caracteriza justamente por el advenimiento de las masas en el dominio del pensamiento y de la acción política, y esto sobre todo en razón del progreso técnico y de la difusión de la cultura. En este tiempo nuestro, la opinión pública cuenta, y tanto los problemas de la paz cuanto los de la guerra no pueden ser tratados a puertas cerradas; los secretos de cancillería son hoy más relativos que nunca<sup>83</sup>.

## 3. Efikazia borroka iraultzailean (sakrifizioaren eta indar moral pertsonalaren eragin hedakorra:

Nadie puede decir que su acción [Martin Luther Kingena] haya sido menos efectiva ni mucho menos que la de Camilo Torres. Esa acción ha tenido una resonancia histórica extraordinaria y culminará probablemente con el triunfo, porque la fuerza moral que está realizando, no sólo en América sino fuera de América, es extraordinaria<sup>84</sup>.

## 4. Efikazia borroka antinuklearrean: «la primera gran victoria del pacifismo antinuclear» Santamariak esan ohi du Berlingo krisialdiko izan zela (1948), eta bigarrena Koreako Gerran MacArthur jeneralak Txinari bonba atomikoz eraso nahi izan zioneko (1950)<sup>85</sup>. Vietnamgo Gerran ere presio moralak eragotzi bide zuen arma atomikoaren erabilera:

Si los Estados Unidos actualmente no aplastan al Vietnam, definitivamente no es porque no tengan fuerza física para hacerlo, porque la tienen cien veces más y mil veces más que la necesaria [...]. ¿Por qué no lo hacen? ¿Quizá por miedo a su adversario? Yo no lo creo. Es toda la presión de la humanidad, la que se lo impide. Y esa fuerza moral empieza por los discursos del Papa y por las declaraciones de los hombres famosos, sabios y literatos, y termina por la actitud de millones de personas desparramadas por el mundo, que a pesar de todo, aún siguen llamando a la injusticia por su nombre. Esa fuerza moral es a mi juicio la que impide que se emplee el armamento atómico. Esa fuerza moral es la que tienen que poner en juego principalmente y sobre todo, todos aquellos amantes de la justicia, todos aquellos que tienen hambre y sed de justicia, y por eso padecen<sup>86</sup>.

## Bortxa eta mehatxu arteko mundu honetan, bakea lortzeko, epe laburrera borroka semigandhiano bat eta luzarora iraultza kristaua besterik ez da sartzen.

El cristianismo es, sin duda, un fermento revolucionario, capaz de realizar la transformación del mundo actual, pero su acción es del orden espiritual y, en cierto modo, misteriosa e invisible. Su influjo se realiza muchas veces de un modo oculto a través de fuerzas diversas, utilizadas por Dios para la realización de su planes. Por otra parte las actitudes revolucionarias son, en el fondo, bastante ingenuas, pues por mucho que



pretendan profundizar en la realidad social, las revoluciones nunca llegan a mudar ontológicamente la Historia. En este sentido, acaso el cristianismo deba ser considerado como la única revolución verdadera, la única que haya podido y pueda alcanzar los estratos más profundos del vivir histórico<sup>87</sup>.

Morala moral, bakezaletasunak orain indar horrekin eragin politikoa no-la bortiztu organizatu behar du Alderdien, Parlamentuen, Gobernuen gainean. Horixe izan da Santamariaren azken urteetako kezka, gorago esan bezala.

Sería necesario que el pacifismo se constituyera en una especie de meta-partido que declarase paladinamente su propósito de controlar a los gobiernos y a los partidos, obligándoles a actuar en favor de la paz y el desarme. La manera de proceder de esta organización dependería de la situación de cada momento, pero sería netamente y declaradamente política. Así, por ejemplo, el movimiento pacifista podría negar el voto de sus seguidores a los candidatos de los partidos [...] que se negasen a aplicar ciertas medidas concretas presentadas por el propio meta-partido [...], si este no incluye en su programa electoral tal o cual medida determinada que el pacifismo considera necesario imponer en este momento<sup>88</sup>.

Hau da, bakezaletasunak efikazki bakea jartzeko bitarteko politikoak asmatu eta indartu behar ditu. Indar morala indar politiko bihurtu.

### ***Nazio Batuen Erakundea***

Gerrak «ezinbesteko gaitzak» direla iraganeko istorioa da Santamariarentzat.

En la situación actual, el recurso a la guerra no se justifica por cuestiones de prestigio nacional, ni siquiera por la defensa de derechos que, aunque legítimos, no compensan el riesgo de hacer estallar un incendio mundial con todas sus tremendas consecuencias espirituales y materiales<sup>89</sup>.

Indar morala soilik aski ez izaki, alabaina, tinko eragozteko gerrak; botere zinezkoz hornituriko nazioz gaindiko erakunde bat egon dadin dago beharra, eta egun badago posibilitatea ere egon dadin.

El desarrollo de la técnica y de los medios de comunicación entre los pueblos hace sumamente necesaria la pronta institución de un mecanismo efectivo de seguridad y justicia internacional<sup>90</sup>.

Nolabait badago jada erakunde hori, teorian behintzat: Nazio Batuen Erakundea (NBE). Baina ez du behar adina burujabetasun eta mendetasun falta Estatu subiranoekiko<sup>91</sup>, ez aski bere-bere eskuarte eta manu. Santamaria konbentzitzeko, Hirugarren Mundu Gerrari itzurtzekotan ezinbestekoa dela Nazio Batuak ahaltzea, paradigmaticoak izan dira Hungariako eta Suezeko krisiko

gertaerak; hots, NBERi bietan jokatzea zegokion papera eta bietan ikusi zen haren ahuleria.

Hay que reforzar la organización de las Naciones Unidas, liberándola del derecho al veto que la ahoga y dotarla de una fuerza regular de policía internacional con gran prestigio moral y facultades supranacionales, que pueda interponerse siempre que sea necesario entre agresores y agredidos e imponer el cumplimiento de los fallos de justicia internacional. En suma, ha llegado el momento de que la violencia sea eliminada del plano jurídico internacional, como lo fue de la esfera de las relaciones privadas y sociales al implantarse los procedimientos judiciales. Ha de darse al concepto de soberanía una interpretación adecuada para que en un futuro próximo ningún Estado pueda 'tomarse la justicia por su mano' sin que recaigan sobre él graves consecuencias materiales<sup>92</sup>.

1965 mugimendu bakezaleen manifestaldi eta azantza zalapartatsuen urtea izan zen mundu guztian, hegazkineria amerikarraren bonbardaketa masiboak hasi zirenean Vietnamen. Bi gazte estatubatuarrek beren buruak kiskalduz imolatu zituzten protestan (kristau militante bakezaleak biak)<sup>93</sup>. Santamariak ez du ikusten horrek inora garamatzanik, haien kontzientzien errespetu guztiarekin ere. Hona hemen haren iruzkina (zati bat), Santamariaren ikuskeraren agerpen eroso, bere alderdi errealistenekin eta beharbada zalantzagarriren batzuekin.

Sin embargo, hablando objetivamente, hay que reconocer que actos de esta naturaleza no ayudan a la implantación de una paz futura. Ciertamente sirven para impresionar y despertar las mentes, para dar testimonio de una voluntad abnegada de paz, frente a los poderes y a las instituciones de este mundo [...]. Pero el problema de la paz no puede reducirse a una cuestión de sentimientos y de buenas voluntades. Este problema debe ser pensado con el cerebro y no con el corazón, como intentan hacerlo la mayoría de los pacifistas.

Dentro del mecanismo del equilibrio bélico, del juego de las fuerzas armadas, del afrontamiento de los bloques, no pudo reprocharse a Rusia que interviniera otrora en Hungría, ni a China que trate ahora de fabricar la bomba atómica. No puede acusarse tampoco a los Estados Unidos de que mantengan la guerra en el Vietnam, como si este episodio fuese un fenómeno aislado y un simple capricho imperialista. Las cosas son mucho más complicadas que eso, todos lo sabemos, y quienes pretenden hacer como que lo ignoran merecerían ser tratados de hipócritas. Lo que impera hoy es la dura ley de la guerra y del poder más fuerte, en la que, querámoslo o no, el mundo está instalado. De poco valen las inmolaciones personales y las manifestaciones de los pacifistas si no se encuentra una vía institucional para la supresión de las guerras. Esta no puede ser otra que la implantación de una autoridad política mundial, dotada del prestigio moral y de la fuerza suficiente para imponer sus decisiones. La guerra cesará completamente de ser justa y deberá ser moralmente repudiada el día, quizás no lejano, en que ese poder internacional llegue a establecerse, del mismo modo que el establecimiento del orden jurídico en el seno de los Estados excluyó la legitimidad de los actos destinados a tomarse la justicia por su mano<sup>94</sup>.

Arrisku nuklearra, gibelaraztea eta duopolioa analizatu dituelarik ere, konklusio berera heldu da beti:

Si los pueblos han de ser efectivamente libres, si ha de reinar una paz aceptable en el mundo, es necesario que en el futuro exista un ente supranacional, cuyo poder se halle por encima del de las dos superpotencias<sup>95</sup>.



IDAZLEA BERE FILOSOFIAREKIN



Gaztetan, barre eragiten omen zioten Santamariari «zaharren» betiko leloek<sup>1</sup>. Gero, bai ofizioz eta bai bokazioz, gazteen hezkuntzan aritu da bere lan-ibilbide luzean, ia etengabe. Santamariaren izkribu anitzen gaia dira gazteak<sup>2</sup>. Drogak problema handi bilakatu dira azken urteotan<sup>3</sup>.

Gerra ostean, Santamariaren idazkuntza gehienaren aldiko berrogei urte inguruantsu (1945-1985, handizka-mandizka), arras aldatu da gure begien aurrean Euskal Herria, Europa osoa. Aldakuntzon ezaugarri bat izan da beren lasertasun labain arriskutsua. Familia eta eskola tradizional autoritarioek, hautsi eta, «gizarte permisiboari» egin diote leku<sup>4</sup>; ohitura lotsor etxetiarrek nazioarteko turismoari, puritanismo estu zaharrak anarkiari, kirtenkeriari, motorzaleen basakeriari eta rock and rolleroen bandalismoari<sup>5</sup> (hori oparoaldian: zeren eta gero langabezia, desesperantza, droga eta beste miseriak etorri dira berehala); gerra beroak hotzari, munduaren zatiketari bi bloketan militarki, ekonomiko-ki, ideologikoki kontrajarrita (bi egia desberdin egoterraino gizadiarentzat: egia-rik ez, hortaz), geroxeago antzoki hori ere bere gezur guztiekin apurtzeko azkenik, etab. Mudantza-uholde horren gomutan ez dago hemen zertan gehiago pausatu.

Beharbada, gomuta genezake, irakurleari abisu antzera:

Nosotros habíamos conocido otra Europa y tenemos muchas más cosas a que agarrarnos; podemos ver la situación actual como una crisis. Pero cuando se ha nacido y se vive sumergido en un rompecabezas, se llega fácilmente a la conclusión de que tal es la forma 'normal' de la existencia. Hay algo de verdad en las teorías de los astrólogos: cada uno es hijo del signo estelar bajo el que nace; la generación de la guerra no podrá nunca sentir el mismo gusto de la vida, porque sobre ella pesa, como sobre Macbeth, una siniestra mancha de sangre<sup>6</sup>.

Egjaz, oraindik balio batzuetan sinestea —gizatasun zaharrean, finean— ez baita bilakatu oso erraz belaunaldi horrentzat, eta ondorengoentzat apenas errazago.

Orain «modernitatearen azkenaz» hitz egitea zabaldu da; Santamaria aspaldi mintzo zen modernitatearen «krisiaz».

Erauntsia «kontzientziaz bizi»; ez izan gertakarien objektu eta biktima soil, baina mediatu subjektu eta konorteko iraun zurrumbiloan; historia: hau izan da Santamariaren ahalegina, gizadia aldatzen ari zen urteotan, gazteriaren irakaslearena bezainbat, hain zuzen —*El Diario Vasco*, *Zeruko Argia*, *Jakin* eta prentsa egunkariko zein astekariko hainbat organotan— irakurleriaren pedago-goarena. «Dena doa, ezer ez da» inpresioa nagusitzen ari zeneko malenkonian, deusek ez duela deus merezi ematen zuenean<sup>7</sup>, zer geratzen da baliozkoa?, galdetu eta bilatu nahi izan du setatsu, beti geratzen delako munduan zerbait eder egiteko<sup>8</sup>. Denaren erlatibismoan edo, are okerrago, guztiaren ezaxola-ibaian ez amore uzteko gure kontzientzia, doala nahi duen tokira, bertan zutitu eta ontzitzo bat arrazoiz eta zentzuz landu zur tinkoan filosofiazkoa, gertakarien uhin artean burujabe nabigatzeko, egunero-egunero, libertaterantz.



## Eta emaguzu gure eguneroko filosofia

Harrimenetik bezalaxe jaio daiteke filosofia haserretik: eta zer haserretu nahikoa egoten da, nahikoa filosofatzeko, gure gizartean.

Santamaria, pertsonalki, gauzek ez omen dute halere gehiegi haserretzen. «No es que no me indignen, claro está. Lo que ocurre es que me dedico a filosofar, que es una manera de indignarse como otra cualquiera»<sup>9</sup>. Santamariaren kazetari-lan gehiena horixe izan da, berak aitortu izan duenez: «Yo, sin embargo, me dedico precisamente [...] a hacer a mi manera, una especie de filosofía de la historia en el periódico»<sup>10</sup>.

Historiaren filosofia egunkarian? Ez ote da historia ibilera oso luze geldikoa, lasterka labor arinekoa egunkaria? Kazetan filosofatzeko hori, horregatik, «ohitura txarra» da<sup>11</sup>. Egunkariak esateko adina presa dauka ahazteko. Albiste irristakorraren lekua da egunkaria, ez gogoetarena.

Hori horrela da, eta horrek esan nahi du gogoetak egokitu beharra daukala albisteari, kazetaren erritmoari. Jende askok ez du hori ulertu nahi izaten, bai «pentsamenduaren» irudipen serioegi zaharkitu bategatik, pentsatzea tratatu astunetan bakarrik egitea balego bezala, bekozko eta posean jarrita, ez kazetako artikulu txiki ilaunetan; bai kazetaren eta informazioaren kontzeptu fribolo edo merkantilegi bategatik. Hor, beharbada, kazetaren kontzeptu okerra bada go barnean, okerrena filosofiarena berarena dago.

Los filósofos manejan el lenguaje técnico más complicado y, sobre todo, más peligroso que en el mundo haya sido inventado. Cuando se trata de cuestiones filosóficas, cada autor da a las palabras, aún a las más vulgares, un sentido diferente y uno está expuesto a decir o a pensar los mayores disparates si se deja llevar de la música de los vocablos. De modo que el jardín de la filosofía, lejos de ser un verdadero jardín, es como una gazapera cubierta de trampas en la que no se puede dar un paso sin peligro de ser atrapado<sup>12</sup>.

(Salaketa horren atzean Donostiako Solas Internazionaletako kideren batzuen esperientzia mikatza egon daiteke, zorrozkeria eskolastikoetan maisuak). «Este monopolio de la filosofía es antihumano», protestatzen du Santamariak<sup>13</sup>.

Beste batzuek esango dizute egungo irakurleak ez duela egunkarian «filosofiarik jasaten ahal». Gogoetak eta saioak beren lekuak dauzkatela. Egunkaria ez dela horretarako.

Se olvida, en efecto, con demasiada facilidad, lo que el pensamiento y la literatura deben a este género. Se olvida que buena parte de la obra literaria y filosófica de Balmes, Donoso, Pi y Margall, Costa, Vázquez de Mella, Ganivet, Ortega, Unamuno, Maeztu y Azorín, por no citar otros muchísimos, ha sido realizada desde el periódico o a través del periódico<sup>14</sup>.

Mundu guztiak filosofatzen du bere modura eta, noizean behin, edozein harapatzen bide du filosofiaren behar gorriak. Kazetak ez dauka berez leku desegokia zertan izan gogoetatzeko; etxez etxe filosofia txiki bat barreiatzeko, albigotegiaren alboan. Halakoxe bat egin behar, filosofia. Harrokeriarik gabekoa, sotila, bixi-bixia. Egiazko filosofia gizatiarra den, edo izan behar lukeen, bezalakoxea, alegia.

La filosofía, ciencia de las primeras verdades, habría de ser la cosa más simple del mundo. Los hombres deberían poder pasearse por ella en los momentos de cansancio o de aburrimiento, recrearse en la atmósfera pura del saber primordial<sup>15</sup>.

Bestalde, arintasunak ez dauka seriotasuna zertan kendu filosofiari. Ortega, Unamuno, eta abar aski serioak izan dira.

En Francia se recuerda ahora precisamente el cincuentenario de los famosos ‘Propos’ de Alain<sup>16</sup>. El primero de ellos se publicó en febrero de 1906 en *La Dépêche* de Rouen. De aquel regatillo o manantial casi invisible, había de nacer una obra filosófica importante, constituida por miles y miles de ‘Propos’, justamente considerados hoy como título de gloria para la literatura y el pensamiento francés. Es un buen ejemplo de la capacidad creadora que se encierra en ese género [artikulutxo kazetaria], tan inconsistente y superficial<sup>17</sup>.

Gure egunotan hori, gainera, zentzu bereko fenomeno orokorrago baten barruan kokatzen da: filosofia, utzi ikasgeletako bere zapo-erdara itxiak eta, kaleko solaskera bilakatu da<sup>18</sup>.

Filosofia egunkarian egin nahi izateak baditu bi eskakizun, bata formal eta bestea konkretua, gaiari nola heldu. (Biek bat egingo dute Santamariaren «aspektismoan»).

Kultur fenomeno arrunta da egun airotasun eta presa beharra, eta gehiago kazetaren inguruan, hartara egokitu beharra izango baitu han jardun nahi duen idazleak. Agian ez da guztiz egia Gutenberg Galaxia honezkero itzalia dela, baina bai sistema horretako eguzkiak eta izar dirdaitsuenak ez direla jada behialako liburu lodi eta tratatu beneragarriak.

El pulso de nuestro tiempo es rápido y corto. Por otra parte, con las técnicas modernas la gente se ha hecho perezosa y rehuye el esfuerzo. El pensamiento hay que servirlo en bandeja. La lectura resulta penosa, el cine, la radio y la televisión acaban

con la tiranía de la letra impresa; la palabra y la imagen vuelven por sus fueros tradicionales. En cualquier caso el periódico se defiende mejor que el libro, y éste, para sobrevivir, tiene que convertirse en introducción, prólogo o ensayo. La mayor parte de los libros de hoy renuncian a toda ambición mayor y se declaran simples prólogos de otros libros que no llegarán nunca a escribirse. La reflexión necesita hacerse más ágil, emplear proyectiles más finos y ondas más cortas y, por tanto, más penetrantes, para horadar la piel de paquidermo de la indiferencia e interesar órganos profundos del espíritu<sup>19</sup>.

Eguneroko gertakarien —zerbaitegatik gaitzitzen zaizkigunen, bereziki— gogoeta gisa harildu nahi bada filosofia, nola heldu gertakarioi? Aurrenik, posizio batetik eraso beharko zaie. «Fede» batetik, edo «zentzu» batetik.

*Filosofar es creer que el mundo tiene un sentido*, dice profundamente Jean Lacroix. Sólo porque se cree que el mundo tiene un sentido se busca el sentido del mundo. (Para filosofar hace falta fe)<sup>20</sup>.

Baina, gero, ikuspuntuak ez du nahitaez tribunal bat izan behar, eta bai bilaketa zintzo baterako abiagunea. Santamariak bere proiektua definitzen du hitzotan:

Ante el acontecimiento adverso, caben dos posturas. La primera consiste en *condenar* el acontecimiento. Pero no hay actitud más estúpida que la de condenar una realidad que se nos impone como realidad. La segunda consiste en batirse con él. Batirse con el acontecimiento adverso. Y es entonces cuando éste empieza a adquirir sentido<sup>21</sup>.

Zalantzarik gabe, Espainia katoliko frankistan bere esanahi espezifikoa zizun jarrerara horrek, espiritu kritikiko eta une berean tolerante baten asmoarekin. Oraintxe ere, ordea, ez du balioa batere galdu. «Filosofar es buscarle un sentido a las cosas, luchando con ellas»<sup>22</sup>. Pentsatzea eta dogmatikoa izatea adostu ezinak dira.

Alabaina, «horrek gehiegi pentsatzen du: holako jendea arriskutsua da» eta<sup>23</sup>, egunkarietan filosofatzearen aurka zeuden filosofo serioegiari eta kazetari profesionalegiari, pentsamendua libre ibiltzea beti bekaitz duen boterea gehi dakieke: «A los poderes de este mundo suele molestarles bastante que haya gentes que nos dediquemos a filosofar, tal vez porque suponen que pensamos lo que efectivamente pensamos»<sup>24</sup>.

## Filosofia kritiko bat

«Lo importante es no desanimarse»<sup>25</sup>. Kritikoa izatea, eta prentsan izatea kritikoa, partikulariki zaila zegoen Santamariak mentura hori menturatu nahi zuen egunetan. Zentsurak pentsamenduaren espresio molde bihurri kurubilkatuak asmatzera behartzen du. Gauzak esan gabe esaten ikasi behar da, iradokizunaren arte sotila, lerroartearen itzurbidea. Geroago berak aitortuko duenez:

Debo decir en defensa del autor —es decir, en mi propia defensa— que muchos de los escritores de mi generación, que hemos querido ‘decir cosas’ en estos treinta años largos —lo que no es lo mismo que en estos largos treinta años— hemos tenido que recurrir a menudo a método criptográficos, en la seguridad de que nuestros escasos lectores sabrían traducirnos y con ello hemos contraído el vicio de la auto-censura y de las medias palabras, del que ya no podremos librarnos jamás<sup>26</sup>.

Fronte anitz baterako gerra gurutzatua da, zentsurarekin, nor bere buruarekin eta lagunekin, publikoarekin, borrokatzen den gauzarekin berarekin. Gauzak ezin esan, ezin zuzenki pentsatu ere.

¿Por qué no llamar a las cosas por sus nombres y todo quedaría mucho más claro? Pero está visto que esto de llamar a las cosas por sus nombres es un lujo que hace muchísimo tiempo no podemos permitirnos<sup>27</sup>.

### Borroka nekagarria.

Entonces se pregunta uno si el juego de teclear en la máquina sirve para algo. Uno se pregunta si esas opiniones de prensa expresan de modo efectivo un estado de la opinión pública o si, por el contrario, no tienen nada que ver con ésta, lo cual sería lamentabilísimo. Se pregunta uno incluso si en España existe algo a lo que de modo adecuado se le puede aplicar el término de ‘opinión pública’. Son demasiadas preguntas<sup>28</sup>.

Garrantzitsuena, ez etsitzea.

Gauzak erdizka, zeharka, itzulika esan beharreko estiloak gaizki ulertzeak sor ditzake, irakurle, ironiak edo erdikak toleratzeko minberegietan: idazlea lerro artean idaztera behartua dagoen eran, irakurlea luparekin ohitzen baita irakurtzera Diktadura batean. Gero, hain zuzen, argi eta garbi jokatzetik ez dagoelakoxe, susmoek eta errezeloek bidea libre edukitzen dute, laster asko edozeini buruz okerrena suposatzen. Hala gertatu zaio behin Santamariari, demokrazia aldezteko ahaleginetan, nola edo hala muntaturiko artikulua bat (1957) frankismoaren faboretzat ulertzea irakurle batek, desengainu handiz. Zer egin?

Cabe el recurso de callarse, sabio y prudente recurso, que siempre dio cómodos resultados a los que lo emplearon, por aquello de que en boca cerrada no entran moscas.

Pero, ¿qué sería de nosotros si los que aún siguen cultivando el funesto y alucinante vicio de pensar guardasen para sí mismos el fruto de sus meditaciones?

Yo he creído realizar una buena obra tratando en mis *Aspectos* de hacerle algunas discretas cosquillas a la opinión pública, la Bella durmiente del palacio encantado. Pero hay quienes entienden que convendría más dejarla dormir, porque, al fin y al cabo, su presencia «no es absolutamente necesaria y la tal princesita resulta, en ocasiones, algo incómoda y difícil de gobernar».

Empresa temeraria esta de querer despertar a la princesa intentando decir ‘cosas’ en una columna de Prensa española.

Una experiencia estadística que yo he ido realizando diariamente y que está al alcance de cualquier observador, prueba que la inmensa mayoría de los lectores de periódicos fija principalmente su mirada y su atención en las páginas dedicadas a los deportes. (El porcentaje de información deportiva más elevado de toda la Prensa europea).

Desengañémonos: lo que verdaderamente interesa hoy en nuestro país, lo que interesa y apasiona, es la quiniela del domingo.

(Líbreme Dios de inquirir las causas de estos fenómenos; yo me limito a consignarlos).

Pero esto no es lo peor. Quedan aún los convencionalismos y cortapisas de una sociedad legalmente y sociológicamente severa para la manifestación pública del pensamiento. La necesidad de limar y pulir la expresión hasta lo infinito, para no herir susceptibilidades importantes, obliga al escritor que realmente tiene deseos de decir ‘algo’ —nadie ignora que se puede escribir más que el Tostado sin decir absolutamente nada— a un trabajo molesto y fatigante, y no es raro verle perder la moral y caer en ese fatídico ‘¡qué más da!’ que a tantos hombres de valía ha hundido en el limbo tenebroso de la rutina.

Referirse, en estas condiciones, a temas que a mí me parecen vivos, de filosofía política —de un modo bien modesto y tangencial, por cierto—, es en verdad una locura y uno no puede quejarse si no es siempre bien leído ni bien interpretado<sup>29</sup>.

Azpirago, problema ez baita Gobernu faxista baten zentsurarena eta zentsura horren ingurumen politikoarena bakarrik, gizarteak aspaldian arnasten duen kultura osoarena baizik. Ez da, alegia, botere politiko zapaltzailearen aurka gutxienez kulturak laguntzen digula askatasuna pixka bat salbatzen. Hemen zentsura baino askoz lehen zegoen ezarrita, ia kultura nazional ofizial bilakatu, intolerantziaren gobernu, eta doktrina zuzena eta okerra ongi bereizteko bahea<sup>30</sup>. Zentsura gaineratu egin zaio kultura horri, ateari atalaga gehituz. Kritiko pentsatu eta kritiko idatzi nahi duenak, zentsuraren aurka ez ezik, askoz gaitzagoa dena, kultura horren guztiaren aurka du jokatu beharra orobat.

Baina inor ez da bere kulturatik landakoa. Horrek esanahi du, beraz, egiaz kritiko izateko, boterearekin, gizartearekin, kulturarekin dagoela kritiko izan beharra, eta —baita!— nor bere buruarekin ez gutxiago: kritiko kanpoko inguruarekin eta —baita— geure barruarekin ere. Bakoitza bere tesiekin,

ideologiarekin, ikusbideekin. Bakoitza prest egon beharra dago garen intolerantziaren bastidari bere barrutik kontraesateko. Batbederak, horrela, erradikalki nahi badu kritiko izan azkeneraino, kritiko bere buruarekin, «ha de conservar en todo momento *la cantidad de libertad suficiente* para poder disentir de sí mismo»<sup>31</sup>.

## Filosofia txiki bat

Gauzak direna dira, baina [1] aldeak dauzkate, aurpegiak; eta [2] guk ikusi ere ikusgune batetik ikusten ditugu: «doble fuente de diversidad, objetiva y subjetiva, que algunos espíritus impermeables y monolíticos, verdaderos maniáticos de las puras esencias, se empeñan en desconocer»<sup>32</sup>. Urte horietan, eta hainbat urtean gero frankismoaren azpian, «esentzialismoaren» aurkako borroka luze bat egon zen hain zuzen («esentzialismoaz» hor esan den espiritu horixe ulertzen zen).

Alderdien ugaritasunaren, diferentziaren errebindikazio hau agertzen da (gauzetan, arazoetan), *El Diario Vasco*-n Santamariak urte askoan idatzi duen sailaren irekierako zutabearen, 1956ko martxoaren 7an. «Aspectos» izan da astero-astero artikulua horien burua, eta Santamariak espresuki adierazi du izendapen horrek programa bati erantzuten diola:

La palabra 'aspecto' tiene, precisamente, esta doble significación: los aspectos son las distintas superficies visibles de las cosas y son también las infinitas posturas en las que el espectador puede colocarse para mirarlas. Esta duplicidad de sentido me parece felicísima para mi objetivo. Aspecto es 'punto de vista'; pero es también realidad ontológica, algo que está en la cosa y que nace de su misma esencia. La palabra 'aspecto' me parece, filosóficamente hablando, muy superior a la expresión 'punto de vista'. Por eso la he elegido como blasón de mis reflexiones semanales<sup>33</sup>.

Santamariak ez du filosofia handiak egiteko burujoperik. Bidean gelditu eta gauzen aldetxo batzuk miratu bakarrik. Lore baten petaloei bezala. Bere ikuspuntutik behatu inguruko mundua. Eta Euskal Herriaren ikuspuntutik («Yo veo las cosas desde este país, ingenuo y terrible, que se llama Euskadi»)<sup>34</sup>. Santamariak filosofia txiki bat egin nahi du. Egunerokoa. Egunkarikoa. Zati txikizkoa. Irakurle batzuek nahiago zuketena, apika, filosofia biribil kategorikoago bat. Egiaren eta sufreaken katedra bat, oinaztarriz armatua, zirti-zartakoa, «en el que se llamase a las cosas por sus nombres, elogiándolas o condenándolas paladinamente, es decir, sin rodeos ni fraseología ambigua»<sup>35</sup>. Baina gauzek berek daukate «anbiguoak» izateko ohitura txarra: «La realidad tiene multitud de 'aspectos' y para mostrarlos todos, sin postergar ninguno, haría falta hablar a un tiempo por varias bocas y escribir a la vez con varias manos»<sup>36</sup>. Hain zuzen, diktaduran, nahiko litzateke egia biribil esan, zapalketan; egia habail-harri bihurtu, burua puskatzeko. Ez du, ordea, lan horietarako egiak balio.

Toda 'verdad verdadera' tiene aspectos. La verdad sin aspectos, la verdad monda y lironda, es muchas veces como un ave desplumada, capaz de alimentar estómagos utilitarios, pero ya no recrea ni forma el espíritu. Por eso, cuando se trata de presentar la verdad con su plumaje de aspectos, hay a veces que darle muchas vueltas a la expresión y ésta puede parecer rebuscada. Y si esto ha de pensarse de las dificultades del lenguaje, ¿qué no habrá que decir de las dificultades sociológicas que la expresión de la verdad encuentra *hic et nunc*?<sup>37</sup>.

Era guztietako zailtasunak pilatzen dira egunkarian filosofatzeko. Baldintza hauetan, filosofia txiki bat egin daiteke, eta dago egin beharra.



## Filosofia objektiboa

Aspektismo hau, subjektibitateari ukatzen ez dion bere parte handiarekin, ez da halere subjektibismoarekin nahasi behar, eta Ortegaren «perspektibismoarekin» gutxien-gutxiene<sup>38</sup>. Subjektibismoak, finean, ez du onartzen erreallitateak bere baitan bere-bere izate objektiboa duenik, subjektu ezagutzailearen edonolako baldintzetatik (denborazko, kultural, psikologiko, eta abar) mendetasunik gabe. *El Diario Vasco*-ko «Aspectos» saila San Tomas jaiegun batez hasi zen, eta hori seinale ontzat hartu zuen Santamariak, bide batez bere objektibismoa aitortzeko parada probestuz:

Mis 'Aspectos' han de estar siempre con la *filosofía del ser*, la única sustante, es decir, la única en la que se puede hacer pie de veras para caminar por esta tierra pedregosa [...]. Las cosas son lo que son y nuestro conocimiento de ellas no es una mera fantasmagoría o una ilusión caleidoscópica. Quede esto claro para que nadie me tome por 'perspectivista' y vaya a condenarme *in petto*<sup>39</sup>.

Santamariaren aspektismoak ez du suposatzen gauzak, zeinek edo zein koloretako betaurrekoz begiratu, ezberdinak direla; objektua zer izan, hortaz, subjektuaren menpe dagoela, atzemaileekiko mendetasunik gabe ez dagoela gaien berezko izaerarik (gutxienez gizakiaren esku): aitzitik, «aspektuak» gauzak berak dauzkanak dira, ez ditu inposatzen ikusleak bere askotariko baldintzekin (gero, bigarren unean, horren garrantzia ere inoiz ahaztu gabe)<sup>40</sup>. Santamaria giza ezagutzaren izaera mugatuari, baina objektibotasunari, atxikitzen zaio. Filosofia moderno subjektibistak, hain zuzen, modernitatearen krisi orokorreko agerkizunak dira, haren kausak eta efektuak une berean, ikusiko dugunez.

El 'aspectismo', en cambio, es un realismo, porque los 'aspectos' de las cosas están realmente en las cosas y no en el sujeto que las mira. Cuando yo afirmo que las cosas 'tienen aspectos' y trato de dedicarme a descubrir algunos de éstos, sin la pretensión ilusoria de conocerlos todos, no caigo en el relativismo, sino que me remonto a un realismo *éclairé*, muy superior, claro está, al simple realismo univocista<sup>41</sup>.

Eguneroko filosofia txiki bat egiteko proiektuarekin lotzen da Santamariaren aspektismoa. Ez da nahi sistema handi unibertsalik. Baina, bestetik, egiazko erreallismoarekin ere lotzen da, gure mugen ebidentziarekin. Eta, hein horretan, aspektismoa apaltasun aitortza bat da. Tolerantziatzko espirituaren adierazpen bat, azkenik.

Los partidarios de juicios apodícticos, de definiciones simples y terminantes y de posturas inconsútiles, que quieren meterse la verdad, toda la verdad, en un puño bien ce-

rrado, los señores del 'al pan, pan y al vino, vino', suelen ser, a menudo, unos ingenuos de tomo y lomo. Contentémonos, pues, con ver 'aspectos' de la realidad, sin pretender la total y absoluta posesión de ésta, que ningún humano alcanzó ni alcanzará jamás. Seamos, en suma, modestos. El 'aspectismo' lo es, aunque nos está mal el decirlo<sup>42</sup>.

Ohartu behar da aspektismoak ez duela ukatzen perspektibismoa, ondo begiratuta: barnean hartu eta esanahia aldatzen dio.

## Denboraren gogoetan

Santamariak badaki, nahi duenean, oso perspektibista izaten. Beti da pixka bat. Horrek egiten du haren estiloan puska on bat. (Estilo paregabeko idazlea dugu Santamaria). Denbora joan, denbora etorri, filosofo kazetariak hainbat gertakari komentatu beharko ditu bere sailean, erlijiosoa, politikoa, kulturala, denetarikoa. Urrutiko gerrak egun, hurbilagoko hauteskundeak atzo, denbora etxean egiten eta eragiten ari den aldakuntzak bihar. Elurra mendian bezala, mara-mara eroriz eta kokatuz doaz gertakariak denboran.

Denborak badu erritmo propioa ere. Aste Santua, urte liturgikoko festak, urteurrenak. Noizean behin, Santamaria gogoratuko da zenbat denbora darman bere zutabeok idazten. Besteak beste, denboraren beraren gogoetazko bi erakuskari aldatu nahi nituzke hona, ez beste ezergatik, perspektibismoaren eta baita estiloaren adibide gisa baino. Hain zuzen, ez daukate kasik batere «mezurik», nahi bada; tipikotzat har daitezke, beraz, horrelaxe, itxurazko beren fauntasunean, autoreak nola filosofatu izan duen bere ingurua eta denboraren igarora bere aldean.

La primavera se adelanta este año. Antes de que el sol llegue al equinoccio, los perales y los manzanos se han cubierto de flores blancas y un cerezo japonés —con el que suelo tener particulares confidencias— me ha regalado con abundancia de diminutos capullos rojos.

Es maravilloso ese ritmo pausado, pero firme, con que la madre Naturaleza hace todas las cosas. Avanza siempre a su paso, sin que nada pueda detenerla. Nunca espera ni hace esperar.

Su trabajo invernal es apenas perceptible; se realiza en lo más escondido de los laboratorios de las células y de los tejidos; pero de pronto se manifiesta como una enorme epifanía, un estallido incontenible de vida. Y es la primavera.

Cada primavera es nueva, única y distinta, tiene su individualidad propia e inconfundible.

Desde que existe el mundo ha habido millones y quizás cientos de millones de primaveras; pero esta primavera de 1957 nunca fue, ni volverá a ser.

Los metafísicos, como trabajan con esencias, dicen —y no les falta razón, claro está— que todas las primaveras se corresponden con un sólo concepto universal. En el diccionario hay una definición de primavera, que vale para todas las primaveras que han existido o puedan existir. Y ay de aquella que quiera salirse de la definición, porque ya no será primavera.

Pero, en realidad, a la primavera le tiene sin cuidado si responde o no a la esencia y a la definición de primavera; ella existe con existencia única y singular, como todo

existente, y nos invita a florecer, a revivir también nosotros, en la fugacidad del instante que pasa.

Hay quien piensa la vida como una fluencia, es decir, como una realidad que discurre con perfecta continuidad, igual que el agua de un río al deslizarse sin ruptura sobre el profundo cauce. Hay quien la piensa —y es acaso más acertado— como una sucesión de instantes individuales, inconfundibles, unidos entre sí, por el misterioso nexo de una conciencia personal que permanece.

Los existencialistas han llamado nuestra atención sobre la importancia del singular, del existente concreto e individual. Esto me parece muy justo, frente a un esencialismo racionalista que, de espaldas a la vida, había querido operar sólo con los enormes cajones vacíos de sus conceptos abstractos.

Cuando pensamos y cuando hablamos empleamos ideas y palabras de significación universal. Decimos «primavera» como decimos «hombre», remitiéndonos a unas nociones generales que se encuentran dentro de nuestras cabezas.

Pero no hay dos primaveras iguales, como no hay dos hombres iguales. Cuando alguien ha muerto nadie puede sustituirle; nadie reemplazará el tono de su voz, ni su gesto, ni su modo de ser, ni su temperamento, ni sus afectos, ni nada, en fin, todo aquello que latía y se manifestaba en ese ser.

Nada reemplazará tampoco a esta primavera que ahora nace cuando se extinga dulcemente en los brazos del estío.

Las flores de hoy se habrán convertido en frutos y la vida pedirá de nuevo paso a la vida<sup>43</sup>.

### Urte horretan bertan (1957), Santamariak beste meditazio hau eskaini zion udazkenari:

El verano es agitado como un potro. La cadencia del otoño es más lenta.

En el estío el corazón se derrama; pero en el otoño el tiempo pone un ritmo más suave en su flauta.

Durante el verano el color manda despóticamente. Por el otoño la luz de las cosas se apaga un poco y se hace más íntima y personal.

El sol ya no es tan blanco; se arrebola. El cielo se agrisa ligeramente, como las patillas del cincuentón. Las hojas se aguzan y se pintan de herrumbre, que es tinte de recuerdo.

Las largas alamedas bajo los árboles: hojas pisadas con rumor de barquillos.

(Me gustaría quedarme siempre en el otoño y caminar infinitamente por una alameda con rumor de barquillos. Pero esto no es más que una afición personal; no trato de imponer a nadie mis preferencias particulares).

Primavera dice devaneos. Verano, pasión. Otoño, los amores profundos que duran toda la vida.

Primavera es todavía muy niña. Verano escarcea en los trigales. Otoño es sabiduría de muchas cosas; acerca a Dios.

Primavera se detiene ante la cancela para jugar. Verano se goza en el patio. Otoño se adentra en el castillo interior donde mora la profunda realidad invisible.

Un tiempo se enciende en otro tiempo, como un fuego en otro fuego.

Como el «Atharva Veda» las estaciones nos dicen de una especie de destrucción y de re-creación periódica del universo.

Pero el otoño es naturalmente cristiano y se escapa del ciclo. Se pone a esperar algo que ya no es el eterno retorno.

Algo que no es el «Krita-yuga» que dura 4.000 años, más 400 de aurora y otros tantos de crepúsculo; ni el «Treta-yuga» de 3.000 años; ni el «Dvapara-yuga» de 2.000 años; ni el «Kaliyuga» de 1.000 años, con las auroras y crepúsculos correspondientes, claro está.

Algo que no es el «Maha-yuga», el ciclo completo que dura 12.000 años.

Sino la eternidad judeo-cristiana, sin fin y sin retorno, la única cosa por la que vale la pena de sacudirse esta enorme pereza cósmica que uno lleva dentro del alma.

«Lueguito» empezará el Adviento, hecho de la madera de la Esperanza.

Para acunarlo, la primavera era demasiado niña; el verano, demasiado sensual; el invierno resultaría demasiado viejo.

Pero, ¿qué estoy escribiendo?

En nuestra famosa civilización cristiana, ¿les dice esto algo a la inmensa mayoría de los lectores?<sup>44</sup>.

Bai gogoeta objektiboa, baina subjektua pittinik sakrifikatu gabe hortaz, egin nahi izan du Santamariak, libertate osoz, bere kazetari lan luzean. Subjektuaren maneo egokia asmatzea izango da arazoa. Ez gehiegi, ez gutxiegi, erdiko puntuaren arte zaila.

## Nola lortu mezulari pertsonala izatea?

Idazle aspektistak bere pertsona eskaintzen du testuan isurita, nolabait. «¿Tiene el ensayista derecho a hablar de sí mismo?»<sup>45</sup>. Ez da araubide literario kontua. Gogoeta objektiboa sortzea edo helaraztea xede duen testuan, «¿qué le importa a la gente que el escritor haya cabalgado por estas o las otras tierras, o navegado por tales o cuales mares?»<sup>46</sup>. Irakurleari testua ematen zaio. Eta zer axola zaizkio testuari idazlearen esperientzia pertsonalak?

Santamaria behin eta berriro itzuli da bere artikuletan kritikoki bere idazkuntzari buruz gogoetara. Garbi dauka nolabait pertsonala izan beharra. «La frase hecha es la muerte de la palabra»<sup>47</sup>. Esaldi egina da ezer esan gabe eta konprometitu gabe hitz egin ahal izateko ihesbidea. Hitz egitekotan (idaztekotan), pentsatzen dena esateko izan behar du, eta pentsatu pertsonalki egiten da. Baina nola jokatu haren azalbidean?

Idazle gogoetazaleen artean bi suertetako familiak omen daude:

El prototipo de la primera es don Miguel de Unamuno. Rara es la página de sus obras en la que don Miguel no hable de su propia persona. Su tema de siempre es su yo. Un yo suficientemente gigantesco para interesarnos en cualquier momento. En cambio Ortega es frío e impenetrable. Sus construcciones son elegante geometría, bajo la cual se esconde sigiloso el hombre concreto, carne y espíritu. Quizás habla de todo menos de sí mismo, lo cual es el gran truco para esconderse uno de los demás<sup>48</sup>.

Santamaria ez da Unamuno bezalako exhibizionista; ideien atzean bere nia ezkututzen ere ez da saiatzen, ordea. Dena den, aukera nahitaez bi mutur horien artean egitekotan, Santamariak sinpatia handiagoa dio bilbotarrari, baina idazle gisa bera Ortegaren hagitz hurbilago dagoela aitortu behar. Pentsaeran biekin interesatua eta bietatik desberdin dagoen antzera, idazkeran ere Santamariak modu propioa du, guztiz pertsonala.

Beharbada, sekretu guztia idazlearen zintzotasunean dago. Eta, egiazkoa deanean, bakoitzak edukitzen du berea horren forma eta estiloa<sup>49</sup>.

Zintzotasuna, halere, ez da beti problemarik gabekoa, estilo-problemak aparte.

El deber profesional debe consistir, a mi entender —adierazten du behin Santamariak—, en decir lo que se piensa, todo lo que se piensa y nada más que lo que se piensa, y en decirlo con claridad y sencillez, de modo que cualquiera pueda entenderlo<sup>50</sup>.

Gero, puntu eta aparte, eta bere ironia txiki oso bereizgarriarekin gehitzen du: «Reconózcase, sin embargo, que nuestros tiempos no se prestan a estas heroicidades». Askatasuna oso zigortua dago pentsamenduan.

## OHARRAK

### Krisian

1. «La crisis», *El Diario Vasco*, 1980-08-24.
2. Baina: «En realidad, no es que la crisis vaya a traer un cambio, sino que el cambio está ya funcionando. La crisis misma es el cambio, sin que una cosa pueda separarse de la otra», ikus «El cambio», *El Diario Vasco*, 1980-08-31.
3. Ib.: «Parece que la civilización en que vivimos se está transformando profundamente en nuestra propia presencia y que a ello se debe el malestar que sentimos, porque no hay parto sin dolor».
4. «El hombre afanado», *El Diario Vasco*, 1957-12-29.
5. Ikus *Humanisme intégral*, Paris, 1968. Aitzin-solasean jakinarazten denez, obra honen lehen argitalpena gaztelaniazkoa izan zen, *Problemas espirituales y temporales de una nueva cristiandad*, 1936.
6. «El humanismo integral de Jacques Maritain», *Escuela de Teología para Seglares*, 1969-12.
7. Maritain, J., *Humanisme intégral*, loc. cit., 41-43.
8. Santamaria, C., loc. cit., ib.
9. Ib.
10. Besteren artean, Israelgo estatuaren sorrera aipatzen da («La reconstrucción del Estado de Israel, hecho de apariencias apocalípticas muy del gusto de los catastrofistas»), Santamariak inoiz kontatu duenez, bere irakasle baten arabera (baina ez nonbait haren ustez baka-ririk), munduaren akaberaren zeinua omen delako hori, Jesukristoren profeziaren arauz.
11. «Nada mejor para encubrir el desastre personal que un buen cataclismo: es el caso de los cantantes malos que requieren de una orquesta estruendosa para disimular sus inarmónicas pifias».
12. Ib.
13. Halere, katastrofismoa ez dago nahitaez gerrari lotuta: ikus «El cambio», *El Diario Vasco*, 1980-08-31. Oraingo krisi historikoa barbaroen inbasioetako krisiarekin alderatzen da hor.
14. «Civilización en peligro», *La Voz de España*, 1948-05-28. Hein batean, behintzat, gerraosteko gogoeta modua da, zalantzarik gabe.
15. Ib.
16. Ib.
17. «El complejo de las Danaes», *El Diario Vasco*, 1958-03-16. «Las Danaes, como es sabido, eran cincuenta hermanas, que no me atrevería a calificar de encantadoras. Su padre, el rey de Argos, las casó con otros tantos primos, hijos de su hermano Egiptus. Esta combinación



matrimonial dio tan fatal resultado que las cincuenta novias —con excepción de una sola que llevaba el gastronómico y evocador nombre de Hypermenestra— dieron muerte a sus respectivos maridos en la noche misma de las bodas. Como consecuencia de ello fueron enviadas a las zahurdas de Plutón y condenadas a llenar de agua un tonel agujereado —el tonel de las Danaes— que dejaba escapar el líquido apenas penetraba éste en el interior del mismo».

18. Ib.
19. Ib.
20. «Humillados y ofendidos», *El Diario Vasco*, 1957-12-15.
21. «Simona Weil», *El Diario Vasco*, 1957-06-30.
22. «Humillados y ofendidos», *El Diario Vasco*, 1957-12-15: «expresión del sentido práctico de este animal que somos, que lucha por la existencia con uñas y dientes».
23. Ib.
24. «Gaurko arazo ederra», *Jakin* 19, 1965.
25. Ib., «Satisfacción en el trabajo», *El Diario Vasco*, 1966-12-18; «Semana de Catequesis», *El Diario Vasco*, 1959-05-03.
26. Ib., «Semana de Catequesis», *El Diario Vasco*, 1959-05-03.
27. «La Iglesia y el mundo moderno», *Publicaciones de la Universidad de Deusto*.
28. Ib., «Asombro y extrañeza», *El Diario Vasco*, 1956-07-08.
29. «Técnicos al servicio moral de la vida humana», *Guipúzcoa Económica*, 1958-10-04. «El primer inconveniente del progreso técnico lo constituye su misma celeridad, el ritmo con que se desarrolla, yendo siempre más de prisa de lo que la previsión del hombre y su poder de asimilación pueden alcanzar. La técnica siempre inacabada, siempre insatisfecha, a la busca siempre de realizaciones nuevas, es un activo elemento de inestabilidad y de incertidumbre en nuestras vidas [...]; en razón de los cambios que constantemente introduce en nuestras formas de existencia, constituye un factor de desequilibrio. Desequilibrio material y desequilibrio psíquico; desequilibrio económico y desequilibrio social».
30. «La Iglesia y el mundo moderno», *Publicaciones de la Universidad de Deusto*, 21.
31. Ib., 23.
32. Ib., 16.
33. «La Crisis», *El Diario Vasco*, 1980-08-24.
34. «Crisis religiosa», *El Diario Vasco*, 1967-09-03.
35. Ib.
36. Ib.
37. «Insatisfacción y fetichismo», *El Diario Vasco*, 1956-05-13.
38. «Carlos Santamaria: 'Teknika ez da txarra; bai, ordea, teknikak agintzea'», *Habe*, 1991-06-01.
39. «Carlos Santamaria: Gure herriak gaitasun politiko falta darakusa», *Argia*, 1989-04-16. Adierazpen argitsuak, halaber, in *Herria 2000 Eliza* 6, 1978, azaroa, 16: «Hay que tener en cuenta que en el mundo de hoy todo lo que suene a idealismo, también ciertas formas de generosidad y no solamente las religiosas, están en crisis. No solamente está en crisis la Iglesia Católica, sino todas las religiones, y no solamente éstas, sino incluso ideologías que en otro tiempo se llevaban. Esto se debe a un cambio de signo de la civilización: la influencia de la técnica. La lucha de clases también ha influido algo, pero yo creo que la transformación técnica influye mucho más que la lucha de clases, ya que ha modificado la vida del hombre de una manera tremenda y ha dado lugar a unos criterios nuevos. Todo eso de las ciencias y la cultura, la formación o la instrucción científica más extendida ha dado lugar a un desarrollo razonable del positivismo. Entonces se enfrenta el positivismo a las argumentaciones simples, infantiles, ingenuas y las imágenes o mitos en que se apoyaba la

religión no van con el hombre instruido de hoy. Esto es una cosa que salta a la vista. Y eso es gravísimo porque lo que va a ocurrir es que el fenómeno religioso se va a desarrollar por otros cauces. Porque siempre lo religioso, más o menos, tendrá expresiones en otros campos, va a quedar fuera de su campo, de su propio campo, digamos. El fenómeno religioso se va a desarrollar de formas anómalas y en campos que no son propiamente el campo religioso. El hombre va a buscar soluciones a su problema religioso, o al problema que plantea en el fondo la religión, del sentido de la vida, en otros campos».

40. *Herria 2000 Eliza* 6, 1978, 17.
41. «El derecho a equivocarse», *El Diario Vasco*, 1965-04-25.
42. Ib.
43. Ib.
44. «Teilhard de Chardin», *El Diario Vasco*, 1981-08-09.
45. Ib.

## Eskola eta maisu artean

1. «Asombro y extrañeza», *El Diario Vasco*, 1956-03-11.
2. Ib.
3. Ib.
4. «La claridad científica», *El Diario Vasco*, 1967-04-09.
5. Ib.
6. Ib.
7. Ib.
8. Ib.
9. «Ante la iniquidad», *El Diario Vasco*, 1956-11-11; «mi amigo, el ateo tibio» esaten da in «Buenos y malos», *El Diario Vasco*, 1960-09-18; «un amigo materialista (materialista a pesar suyo, materialista por falta de fe y por radical desesperanza)».
10. Lagun horren errealtate historikoa ukatu gabe: mediku txit buruargia zela eta hila dela, esaten da in «La disciplina de partido», *El Diario Vasco*, 1983-05-29.
11. «Ante la iniquidad», *El Diario Vasco*, 1956-11-11.
12. «Buenos y malos», *El Diario Vasco*, 1960-09-18.
13. «Ante la iniquidad», *El Diario Vasco*, 1956-11-11.
14. «Buenos y malos», *El Diario Vasco*, 1960-09-18.
15. «¿Ni tort ni raison?», *El Diario Vasco*, 1968-06-09.
16. «La aguja magnética», *El Diario Vasco*, 1957-07-21.
17. Ib.
18. «Estrukturalismoa», *Zeruko Argia*, 1967-06-25. Adiera nahiko zabalean ulertu behar da hemen, ikusten denez, estrukturalismoa.
19. Urte haietako ezker giroa gogoratu behar da Elizan, batez ere eliztar ohien artean.
20. «El hombre sin hombre», *El Diario Vasco*, 1967-06-04. «En oposición al vitalismo de Ortega y al cordialismo de Unamuno, tan pasado de moda como ustedes y yo sabemos —'eppure si muove'— el estructuralismo es como un antibiótico y el antiséptico radical de la filosofía».
21. Ib.
22. Ib.
23. «Estrukturalismoa», *Zeruko Argia*, 1967-06-25.
24. «El hombre sin hombre», *El Diario Vasco*, 1967-06-04. «Gizakiaren heriotza» oso gai erabilia izan da urte horietan estrukturalismoaren aurka. Ikus, adibidez, «el lenguaje, el

- discurso, han dado muerte a los valores. Las ciencias del hombre han matado al hombre», etab., in J.M. Auzias, *El Estructuralismo*, Madril, 1970, 121. Halaber, J. Brun, *Analyse du langage théologique*, Paris, 1969.
25. «La inquietud», *La Voz de España*, 1950-01-27.
  26. Ib.
  27. «Existencialismo y fe católica», *Incunable*, 1951-02.
  28. «La inquietud», *La Voz de España*, 1950-01-27.
  29. «Existencialismo y fe católica», *Incunable*, 1951-02.
  30. Ib.
  31. «Existencialistas», *La Voz de España*, 1949-07-30.
  32. Ib.
  33. «Unamuno, lo temporal y lo eterno», *La Voz de España*, 1948-07-02.
  34. «Existencialistas», *La Voz de España*, 1949-07-30.
  35. Ib.
  36. Ib.
  37. «Marx, el filósofo», *El Diario Vasco*, 1983-04-03: «Durante los últimos años he dedicado muchos miles de horas a estudiar las obras de Marx». Orobat, in *Herria 2000 Eliza* 6, 1978, 17: «Yo he leído a Marx, no digo que todos los días, pero sí mucho».
  38. «Marx, el filósofo», *El Diario Vasco*, 1983-04-03. Eta in «Quinta columna», *El Diario Vasco*, 1965-07-04: «Indudablemente, el ateísmo más coherente que se haya podido inventar, el más lógico, el más perfecto —si cabe hablar así— es el marxismo».
  39. «Lutero y Marx, dos centenarios», *El Diario Vasco*, 1983-05-01.
  40. Ib. (Ez da esaten: «Pelagio eta San Agustin», zuhurki).
  41. Ib.
  42. Ikus *Herria 2000 Eliza* 6, 1978, 17: «Para mí Marx es un moralista enorme». Ib., 18: «Repi-to: era un moralista porque iba buscando la destrucción de una sociedad injusta y la construcción de una sociedad nueva».
  43. «Racionalizar la indignación», *El Diario Vasco*, 1981-11-22: «[...] Esta ciencia nunca llegará a ser una ciencia puramente científica, una ciencia neutral, como lo son las ciencias ordinarias. Será más bien —si cabe hablar de esta manera— una ciencia indignada». Orobat in *Jakin* 30, 1984, 95: «Marxen abiapuntua ez zen izan ez zientzia, ez teoria, ez ekonomia, ez pentsaera logikoa; baizik, langileen miseriarekiko haserrea eta samindura [...]. Orduan, Marxek zientzia berri bat asmatu zuen. Ez, ordea, nolanhiko zientzia neutrala, baizik zientzia suhar, lehiatsu, iraultzailea». Marxismoaren zientifikotasuna orduan asko goratzen baitzen, puntu hau behin eta berriro etortzen da Santamariaren jardunaldian: Ib. «Crisis china», *El Diario Vasco*, 1966-10-02. «Zientzia haserretu bat da harena; ez neutrala, baizik borrokalaria»; Ib., «¿Cuánto tengo yo que dar?», *El Diario Vasco*, 1957-07-14, «Nik ez dut ukatuko Marxek kontzeptu zientifiko berri bat sartu duela [...], materialismo historikoa kontzeptu zientifiko da, baina ez beste zientzien modura».
  44. Ib.: «El espíritu revolucionario se incuba siempre en la ira; es decir, en la indignación que provocan las injusticias sociales. Pero la indignación es en cierto sentido un hecho ético. Los animales se enfurecen, no se indignan. En cambio el hombre, al indignarse pasa siempre por un dato ético, es decir, por un *debe ser* o, más bien, por un: *esto no debe ser, no debe seguir siendo así*».
  45. «Marx, el filósofo», *El Diario Vasco*, 1983-04-03. Dena dela, berritasunak erlatiboak izaten dira batez ere filosofiaren historian, ez da alferrik milaka urte batzuetako luzea: «Cuando Marx dice en la undécima tesis sobre Feuerbach que 'los filósofos no han hecho más que interpretar el mundo de diferentes maneras, (pero que) lo que importa es transformarlo'»

- se refiere sobre todo a los jóvenes hegelianos, que se las daban de revolucionarios, pero que, en realidad, no revolucionaban absolutamente nada más que sus propias cabezas». Marx eta Lutero Pelagio eta Antipelagiorekin alderatu eta, iruzkintzen du Santamariak: «Nada es verdaderamente nuevo bajo la capa del cielo». Eta beste lantze batean, oraindik: «A los cristianos no nos ha hecho falta esperar a Marx para descubrir que sólo la acción, y no la simple especulación, puede salvar al hombre» (ikus «Servir al hombre», *El Diario Vasco*, 1967-06-25).
46. «Lutero y Marx, dos centenarios», *El Diario Vasco*, 1983-05-01.
  47. «Mauricio Blondel ha muerto», *La Voz de España*, 1949-08-26.
  48. Ib.
  49. «Maritain», *Zeruko Argia*, 1965-02-14.
  50. Ib.
  51. «El campesino de Garona», *El Diario Vasco*, 1967-01-15.
  52. «Evocación a Jacques Maritain», *El Diario Vasco*, 1982-11-28.
  53. Palacios, L.E., *El mito de la nueva cristiandad*, Madril, 1951, 145.
  54. Ib. Arlo honetan ez luzatzeko, irakurleari gomenda geniezaioke ikusteko Aróstegui, A., *Una conjura española contra Maritain*, Granada 1952.
  55. «Evocación a Jacques Maritain», *El Diario Vasco*, 1982-11-28.
  56. Ib.
  57. Cfr. «El campesino de Garona», *El Diario Vasco*, 1967-01-15, Santamariaren iruzkina: «El viejo maestro teme, en efecto, que sus discípulos se hayan ido demasiado lejos al intentar profundizar el 'diálogo con el mundo', diálogo que él mismo había predicado y practicado durante tantos años. ¿Fenómeno de senilidad, quizás, o sabia medida de prudencia intelectual?».
  58. Ib.
  59. «Cuando la casa se hundía», *El Ciervo*, 1975-05-15.
  60. Ib.
  61. Ib.
  62. «Sobre el personalismo», *El Diario Vasco*, 1982-10-24.
  63. Kontzeptuen gerra batean alferrik sartzeke: Mounierrek berak baietz, pertsonalismoa filosofia dela baietsiko du, ez jarrera bakarrik (alegia, ezin izan daitekeela sentimendu lauso bat bakarrik, ezpada pentsamendua, eta pentsamenduak bere ordena eta arauak bete behar ditu), cfr. *Oeuvres* III, 1962, 249; baina berak agertzen du, aldi berean, ikusmolde, metodo, eskakizun dela pertsonalismoa, eta ez sistema (Ib., 242).
  64. Ib. «El personalismo de Mounier, como todo auténtico personalismo, es más bien una fe», adierazten du Santamariak in «Cuando la casa se hundía», *El Ciervo*, 1975-05-15.
